Año LXXVII
Nº 264
Volumen I / 2016

Príncipe de Viana

Joxemiel Bidador (1970-2010)

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Príncipe de Viana

Revista dedicada a los estudios históricos y culturales sobre Navarra y su patrimonio, editada desde 1940 /
Nafarroari eta nafar ondareari buruzko ikerketa historiko eta kulturalen gaineko aldizkaria,
1940. urteaz geroztik argitaratzen dena.

Publicación cuatrimestral / Lauhilabetekaria.

http://revistasprincipedeviana.navarra.es

Consejo de Redacción / Erredakzio Kontseilua:
Director / Zuzendaria: Roldán Jimeno Aranguren (Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa)
Patricia Amigot Leache (Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa)
Teresa Catalán Sánchez (Real Conservatorio Superior de Música de Madrid)
Ángel Erro Jiménez (Escritor / Idazlea)
Clara Fernández-Ladreda Aguadé (Universidad de Navarra)
Efrén Munárriz Clemos (Universidad de Navarra)
Eloísa Ramírez Vaquero (Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa)
Mikel Zuza Viniegra (Red de Bibliotecas de Navarra / Nafarroako Liburutegien Sarea)
Secretaria / Idazkaria: Paz Ezcurra Barrena (Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua)

Redacción y Administración / Erredakzioa eta Administrazioa:
Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua
C/ Tudela, 20-4º / Tutera kalea, 20-4.a
31003 Pamplona / Iruña
Tel: 848 424 732
ipvpubli@navarra.es

Suscripciones / Harpidetzak:
Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa
C/ Navas de Tolosa, 21 / Navas de Tolosa kalea, 21
31003 Iruña / Pamplona
Tel: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es
https://publicaciones.navarra.es

El contenido de los artículos es de exclusiva responsabilidad de los autores.
Prohibida la reproducción total o parcial sin permiso de la Editorial y, en cualquier caso, citando su procedencia /
Artikuluen gaineko erantzukizun osoa egileena da.
Debekatuta dago erreproduzitzea, osorik nahiz zatika, argitaletxearen baimenik izan ezean,
eta betiere jatorria aipatuta.

Revista incluida en / Aldizkari hau ondoko hauetan dago sartuta: Dialnet, DICE; IMB; PIO; RILM; ISOC;
COPAC; SUDOC; ZDB; ISSN Register online; ULRICH'S; Latindex;
Índice H de las revistas españolas de Ciencias Sociales; IN-RECS; Recolecta; RESH; MIAR; ERIH Lists

Clasificada dentro de la categoría B de CIRC y C de CARHUS /
CIRC B kategorian eta CARHUS C kategorian sailkatua.

ICDS= 6.4777

© Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua
Departamento de Cultura, Deporte y Juventud / Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua
Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana /
Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusia

© De los autores / Egileena.

DL/LG: 126/1958
ISSN: 0032-8472

Composición / Konposizioa: Pretexto
Impresión / Inprimaketa: Line Grafic, S. A.

Sumario / Aurkibidea

Príncipe de Viana
Año LXXVII • nº 264 • enero-abril 2016
LXXVII. urtea • 264. zk. • 2016ko urtarrila-apirila

JOXEMIEL BIDADOR (1970-2010)

Aurkezpena / Presentación
Idoia Sara 7

Euskararen eta euskal literaturaren historia Nafarroan
La historia del euskera y la literatura vasca en Navarra

Euskal formulakuntzaren hurbiltze baterako 17

Irudimenaren klasikoak euskal literaturan. Eliz idazleek irudimena erabiltzen: antologia txikia 85

Biktoriano Huiziri buruzko berri laburra (1860-1938) 97

On Kixote Nafarroan 107

Idazlearen aita 113

Aitatxorengandik jarrera literarioaz ikasten 123

Alexander Tapia Perurena, Iruñeko olerkaria. Bere lanaren azterketa estilistikoa 131

Alexander Tapia Perurena. 21 olerki aurkitu berriak 147

***Kattalin Umezurtza* antzerki lana** 177

Jose Agerreren olerkigintza osatzen (I) 199

Jose Agerreren olerkigintza osatzen (eta II) 239

Euskararen memoria Nafarroan 36ko gerran: Larrekoren *Gerla urte gezur urte* 279

Gerraurreko euskalgintza nafarraren afera dokumentala: erantzun garbi gabeko galdera zenbait 293

Prólogo a *Capítulos de la historia del euskera* 303

Prólogo a *Toponimia navarra* 309

Sumario / Aurkibidea

Kazetaritzaren historia Nafarroan / La historia del periodismo en Navarra

Pablo Fermin Irigarai *Larreko*: Nafarroako euskal kazetaritzaren aitagoia 315

Nafarroako euskal idazle handi bat: Manezaundi 341

El euskara en los medios de comunicación navarros durante el siglo XX: incidencia de la ley del vascuence en la información 353

Erriberako euskalaritzaren historia / La historia de la vascología de la Ribera

Ribera de Navarra y euskara, siglo XX. Historia de un encuentro insoslayable 367

Los académicos de la Ribera: Peralta, Iribarren y Garde 405

Obra histórico-literaria de Juan Pascual Esteban Chavarría 429

Obra histórico-literaria de José Joaquín Montoro Sagasti 453

Eusebio López: impresor y vascófilo lodosano 459

Joxemiel Bidador González: bibliografía 473

LOS TRABAJOS Y LOS DÍAS DEL AÑO 2015 / 2015eko LANAK ETA EGUNAK

Tesis doctorales sobre temática navarra de ciencias humanas, sociales y jurídicas 479

Congresos, jornadas, seminarios y proyectos de investigación de historiadores e historiadoras de la Universidad Pública de Navarra
Zuriñe Sainz Pascual 489

Congresos, jornadas y seminarios de la Universidad de Navarra sobre ciencias humanas y sociales
Fina Trèmols i Garanger 495

Producción literaria de autores y autoras navarras
Mikel Zuza Viniegra 503

Nafar literaturaren uzta
Ángel Erro Jiménez 507

El pintor Miguel Echauri
Emilio Quintanilla Martínez 511

Imaginación y talento frente a los recortes. Las artes escénicas en Navarra
Alicia Ezker Calvo 521

Mucho que contar, mucho por andar
Marta Artica Zurano 539

Etnografía, folclore y cultura tradicional
David Mariezkurrena Iturmendi 547

Turismo y actividades culturales en Navarra
Ainhoa Aguirre Lasa 553

Currículums 561

Analytic Summary 565

Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak 571

JOXEMIEL BIDADOR
(1970-2010)

Aurkezpena

Idoia SARA

Joxemiel Bidador Gonzalezi buruzko monografiko honen bidez nahi ditugu berrargitaratu haren lan sakabanatu aipagarrienak, modu ordenatuan eta sistematikoan. Hemen jasotako gaiez idatzi zituen liburuen osagarri dira lan horiek.

Egokia dirudi bere obran sakontzea eta azpimarratzea historiaz egin zituen ikerkuntzak: Nafarroako euskal literaturari, Nafarroako kazetaritzari, Erriberako euskalgintzari buruzkoak. Eremu horiexekin egituratu dugu *Príncipe de Viana* aldizkariaren zenbaki hau. Eskema berari jarraitu zion Roldan Jimenok azterlan honetan: «Joxemiel Bidador (1970-2010): historiador de la cultura vasca en Navarra» (*Huarte de San Juan. Revista de la Facultad de Ciencias Humanas y Sociales, 17, 2010, 445-462. orrialdeak*). Jose Angel Irigarayk ere idatzi zuen artikulu bat Bidadorrek euskal literaturari emandakoaren gainean: «Joxemiel Bidador, euskaltzale handi, langile, nekaezin eta dohaitsu, poeta eta adiskide» (*Egan: Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Boletinaren Euskarazko Gehigarria*, 1-2, 2010, 199-206. orrialdeak).

Joxemielen bizitza eta lana uztarturik egon ziren beti. Haren sustraiek, bizi izan zituen testuinguru sozialak eta politikoak edo bizilekuek markatu zizkioten interesak, kezkak eta, nola ez, lan ildoak.

1970eko martxoaren 28an jaio zen Joxemiel, Encarnación González Jiménez eta José María Vidador Osés senar-emazteen umea, merkatarien familia batean sortua, jatorriak Alborean (Albacete) eta Abartzuzan (Lizarraldea) eta Adiosen (Izarberibar) zituena. Aipatu sustraiek irarri zuten haren bidea, zein intelektuala, zein lanbidearena. Maisuki uztartu zituen ikerketa zorrotza eta zabalkundea. Usna berezia zuen munduaren eta kulturaren ikuspegi ezberdinen arteko zubigintzarako, bere begirada inoiz galdu gabe.

Hiru senideetan zaharrena izanik –Ana eta Marta urtebete eta bi urte besterik ez ziren gazteagoak– luze egon ohi zen Ollarango ahaideen etxean. Horrela erne zitzaion Nafarroako txoko hartan toponimiaren eta euskararen aztarnak zabaltzeko nahikundea. Hala, 1992an argitaratu zuen «Noticias y restos del euskara de Val de Ollo» (*Fontes Linguae Vasconum*, 60. zk., 97-107. orrialdeak). Erakusgarri paratu gogo zuen, kikildu gabe, euskal kultura, zenbait aldiz erakundeek arbuiatua eta batzuen batzuek baztertua. Aipatu lana idazten Jose Maria Jimeno Juriok lagundu zion, aholkuak eman zizkion. Hura izan zen lehen artikulu akademikoa, 20 urte zituela, EHUn Euskal filologia ikasten ari zela. Jimeno Jurioren *Obra Guztien* Zizur Zendeako toponimiaren liburukiaren hitzaurrea egitea izan zuen, hain justu, azken lanetako bat. Joxemiel hil eta hilabete gutxira argitaratu zen.

Ollo, Txurregiren magalean. Pozik goitzen zen hara, bi aldeetako paisaia miresteko. Ollo, haurtzaroko josteta-leku eta gaztaroko lehen ibileren lekuko. Bertakoa sentitzen zela zioen Joxemielek, zoriontsu osaba Patxirekin eta izeba Esperanzarekin. Ollotarrek hango semetzat zeukaten, nolabait, eta Udalak Pello Iraizoz eskultoreari enkargatu zion oroitarri bat hura omentzeko. Herriko plazan jarri zuten, hurbil pilota-lekutik eta iturritik, hainbeste aldiz ura eman zion hartatik, 2012ko ekainaren 30an egin zen omenaldi bihozkorrean, egun horretan ospatzen baita Euskararen eguna Ollaranen.

Kideko haur asko bezala, Joxemiel Bidadorrek bere auzoko ikastetxe erlijioso batean egin zituen lehen ikasketak, Arrotxapean. Kaputxinoen komentu askotan ibilirik, erlijio katolikoaren barrunbea ezagutu zuen, haren historia, elizaren hierarkia. Goiz jabetu zen elizak herriaren kulturan zeukan eraginaz. Nafarroako hiru komentu kaputxinotan izan zen Joxemiel. Lehenbizi, Harresiz kanpokoan, Iruñean; hurrena, Altsasukoan: 10 urterekin joan zen hara eta oroitzapen berezia zuen; azkenik, Tuterako komentu nagusian.

Urbasako ibilaldiak zetorzkion gogora maiz, baita antzerki lanen prestakuntzako pasadizoak edo Altsasuko komentuko zine areto zaharrean, neguko arratsalde hotzetan, ematen zituzten filmen oroitzapenak ere. Eta barre egiten zuen galdetuz nolatan jan zitekeen odolkia zenbait egunez zerri bakarra hilda. Horra Joxemielen sentimenduak, kideko gazteengan ohikoak ez izanik ere. Nolabait, jabetzen zen azken katebegia zela gerra ondoko belaunaldiaren eta modernitatean sartzen ari zenaren artean. Bere artikuluetan horixe antzematen zen, noiz edo noiz. Altsasun ezagutu zuen hobeki eta maitatzen ikasi zuen euskara, haren arbaso batzuen hizkuntza.

Tuterako komentutik igaro zen eta bertan ezagutu zituen Ebro ibarreko jendea eta haien aiurria. 16 urtetan, han erabaki zuen behin betiko uztea erlijio sinesmena eta agnostizismoari hurbildu zitzaion, lehenik, eta nolabaiteko ateismoari, gero. Erriberako hiriburuan, halaber, piztu zitzaion jakin-nahia egoera politikoaz eta gizartearen beharrez. Hiriko gazteen bileraren batean parte hartu zuen. Tuteran biziko zen gero, ikertuko zuen eta parrandak ere botako zituen. 8 urtez bizi izan zen han, egonkor samar, eta zenbait argitalpen atera zituen: «Obra histórico-literaria de Juan Pascual Esteban Chavarría» (2001), «Eusebio López: impresor y vascófilo lodosano» (2001) edo «Obra histórico-literaria de José Joaquín Montoro Sagasti» (2002), besteak beste.

Iruñera itzulirik, euskal kulturaren aldeko aukera egin zuen. Horretarako euskal dantzak eta ohiturak ikasi zituen. Lehenik, dantzen jatorrian jarri zuen interesa. Bien bitartean, euskara gehiago eta gehiago ikasi, eta 1993an euskal filologiako lizentziatura lortu zuen. Garai hartan aise ikusten zen Joxemiel, grabagailua harturik, baztandar, aetz edo monteagudotarrei elkarrizketak egiten, ondare inmaterialeko aztarnen bila. Gisa horretan jaio ziren lan hauek: «Euskal formulakuntzaren hurbiltze baterako» (1994) eta «Arte koreografikoaren semiotika baterako» (1996), *Egan* aldizkarian argitaratuak; Monteagudoko makildantzari buruzko ikerketa, Muga elkarteak atera zuena 1998an, edo egindako ekarpena *Calendario de fiestas y danzas tradicionales en el País Vasco* (2003) lanean, Kepa Fernández de Larrinoak koordinatutako lana.

Gainera, Joxemielek, Nafarroako Artxibo Nagusiko edo Sancho el Sabio Fundazioko liburutegietara edo udal artxibo batzuetara behin eta berriro joanez datu ugari bildu zituen, Iruñeko Udalak argitaratutako liburuetan agertuko zirenak: *Alexander Tapia Perurena: olerki lanak* (1999); *Jose Agerre Santesteban: gerra ondoko olerki-lanak (1949-1962)* (2000); *Jose Agerre Santesteban: argitaratu poemen antologia* (2000); *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1910-1920). Testu antologia (I) (2001); eta Euskara Iruñeko kazetaritzan (1930-1936). Testu antologia (II) (2003).*

Lehen ikerketen testuinguruan agertu ziren, orobat, zenbait artikulu: «Pedro Antonio Añibarro Aitaren Misionari euscalduna liburuan dantzei buruz dakartzan 66. eta 67. Dotrinak bere adibideekin» edo «Materiales para una bibliografía sobre danza vasca», 1993an *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkarian argitaratuak bi-biak. Horiei jarraitu zieten, aldizkari berean, beste batzuk: «Un edicto contra las danzas del Obispo de Pamplona Juan Lorenzo Irigoyen Dutari (1769)» (1996), «El misionero dominico fray Antonio Garcés a su paso por Euskal Herria y su opinión sobre la danza» (1997) eta «Azpiazu y su descripción de las diversiones públicas de Guipúzcoa (1858)» (1998). Miguel de Unamuno VI. Sarian Bilboko Udalak saritutako *Dantzaren erreforma Euskal Herrian* (2005) saiakerak haren hiru zaletasun biltzen ditu, euskara, dantza eta literatura. Bertan jasotzen dira XVI. eta XX. mende arteko euskal dantza herrikoiaz eliza-literaturako eta legeriako lekukoak.

Bere idazkietan aipatzekoak dira, baita ere, nafar idazleei buruzko bi monografia, 2000. eta 2004. urteetan argitaratuak: *Sakanako euskal idazleen antologia (I)* (Iruña: Nafarroako Gobernua; Bierrik Elkartea) eta *Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra* (Iruña; Pamiela). Bietan ageri da bazirela euskal idazle nafarrak, zenbaiten ustebidearen aurka.

Esan den bezala, ikertzaile izateaz gainera, Joxemielek zabaldu egiten zuen ikertutakoa. Laurehun artikulu baino gehiago argitaratu zituen Euskal Herriko egunkari eta aldizkarietan. Astero bidaltzen zuen zerbait *Euskaldunon Egunkariko Nafarkaria* gehigarrira, «Klasiko bitxi arront klasiko» sailera, 1995 eta 2001 artean. Horiekin batera, beste artikulu batzuk atera zituen *Diario de Noticias*en, igandeetan «Viejas historias de Navarra» izenburupean (1999-2002). Aldi berean zabalkundeko beste ikerketa batzuk ere egiten zituen, akademikoak, aldizkari espezializatuetan ateratzen zituenak, *Fontes Linguae Vasconum, Revista Internacional de Estudios Vascos,*

Revista del Centro de Estudios Merindad de Tudela, Sukil, Euskera, Eleria edo *Egan*en, besteak beste.

Eta gainera euskarako irakaslea zen eta literatura idazlea. Hasieran helduen irakaskuntzari eman zitzaion eta oposizio bidez bigarren hezkuntzako irakasle plaza atera baitzuen, Iruñeko eta Tuterako institutuetan aritu zen. Hil aurretik azken ikusi zituenak Tuterako Benjamin Institutuko ikasleak izan ziren, 2010eko martxoaren 2an.

Azpimarratu nahi dugu, gauza guztien gainetik, Joxemiel Bidador izan zela hizkuntzalaria, historialaria, folklore biltzailea eta irakaslea, hitzaren zentzurik zabalenean baina, horretaz gainera, pertsona handi bat, askok maite eta miresten zutena, hil ondoren egin zitzaizkion omenezko adierazpen eta ekitaldi ugarien arabera. Batzuentzat ulergaitza bazen ere, lehia saihesten zuen zenbaitetan; ironia, aldiz, ez. Hurbilenekin zuen konpromisoa; xaloa zen eta familiazalea; maite zituen literatura, musika, adiskideak, lagunarte atsegina. Joxemiel langile porrokatua eta saiatua zen. Horregatik utzi digu lan naroa, gazterik zenduagatik.

Presentación

Idoia Sara

Con este volumen monográfico sobre Joxemiel Bidador González queremos dar a conocer, de una manera ordenada y sistemática, sus trabajos dispersos más significativos, que de alguna manera complementan los diferentes libros que escribió sobre los temas que aquí recopilamos.

Parece pertinente hacer un recorrido a lo largo de su obra, resaltando los trabajos referentes a la historia de la literatura vasca en Navarra, la historia del periodismo en Navarra y la historia de la vascología de la Ribera, que son los ámbitos en los que hemos estructurado este volumen de *Príncipe de Viana*. Es el esquema en que Roldán Jimeno estructuró su estudio «Joxemiel Bidador (1970-2010): historiador de la cultura vasca en Navarra» (*Huarte de San Juan. Revista de la Facultad de Ciencias Humanas y Sociales*, 17, 2010, pp. 445-462). Este artículo se completa con el de José Ángel Irigaray, centrado en la aportación de Bidador a la literatura vasca: «Joxemiel Bidador, euskaltzale handi, langile, nekaezin eta dohaitsu, poeta eta adiskide» (*Egan: Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Boletinaren Euskarazko Gehigarria*, 1-2, 2010, pp. 199-206).

La vida y obra de Joxemiel estuvo en todo momento interrelacionada. Sus raíces, el contexto social y político en el que le tocó vivir o los diferentes lugares en los que residió, marcaron sus intereses, inquietudes y, cómo no, sus líneas de trabajo.

Joxemiel nació el 28 de marzo de 1970, en Pamplona, fruto del matrimonio de Encarnación González Jiménez y José María Vidador Osés, en el seno de una familia de comerciantes proveniente de Alborea, en Albacete, de Abárzuza, en tierra Estella y de Adiós, en Valdizarbe. Probablemente estas raíces marcaron su futuro camino, tanto intelectual como profesional. Aunó con maestría investigación rigurosa con divulgación

desde una sensibilidad especial para tender puentes entre distintas visiones del mundo y de la cultura, sin perder nunca su propio horizonte. Así mismo, siendo el hijo mayor de tres hermanos –Ana y Marta tan sólo se distanciaban de él uno y dos años, respectivamente–, pasaba largas temporadas en casa de sus familiares del valle de Ollo, hecho que marcó también sus primeros intereses en torno a la toponimia y a la divulgación de los restos del euskara en aquel rincón de Navarra. Fruto de ello publicó en 1992 «Noticias y restos del euskara de Val de Ollo» (*Fontes Linguae Vasconum*, 60, 1992, pp. 276-294). Quería hacer visible, sin complejos, una cultura vasca que en ocasiones estaba denostada por las instituciones y menospreciada por una parte de la población. José María Jimeno Jurío aconsejó y asesoró a Joxemiel en la redacción de aquel trabajo, que se convirtió en su primer artículo académico, con apenas veinte años, cuando era estudiante de Filología vasca en la UPV/EHU. Uno de sus últimos trabajos, precisamente, fue prologar el tomo de la toponimia de la Cendea de Zizur de las *Obras Completas* de Jimeno Jurío, que fue publicado pocos meses después del fallecimiento de Joxemiel.

Ollo, a pies del Txurregi, a donde le gustaba ascender para admirar el paisaje a ambos lados de la montaña, se convirtió en el lugar de sus juegos de infancia y en testigo de sus primeras aventuras de juventud. Joxemiel decía sentirse de Ollo, y era feliz con el tío Patxi y la tía Esperanza. Sus habitantes, de alguna manera, también lo sentían como hijo del lugar, y el Ayuntamiento quiso honrar su memoria encargando un monolito en piedra al escultor Pello Iraizoz. Se colocó en la plaza del pueblo, junto al frontón y la fuente, aquella que le había dado tantas veces de beber, en un sentido homenaje que tuvo lugar el día 30 de junio de 2012, haciéndolo coincidir con el día del euskara del valle.

Joxemiel Bidador, como tantos niños de la época, fue educado en su barrio, en la Rochapea, en un centro religioso. Y fue precisamente en su recorrido por los diferentes conventos de los capuchinos donde adquirió gran conocimiento de la religión católica, su historia, o la jerarquía eclesiástica, lo que le permitió captar desde pronto la influencia que la Iglesia había tenido en el devenir de la cultura popular. Joxemiel estuvo en los tres conventos capuchinos de Navarra. Primeramente en el de Extramuros de Pamplona, luego en el de Alsasua, al que fue con apenas diez años de edad y del que tenía un especial recuerdo, y finalmente en el convento mayor de Tudela.

Era habitual oírle contar historias de sus paseos por Urbasa, anécdotas sobre las preparaciones de obras de teatro o recuerdos de aquellas películas que proyectaban en las tardes frías de invierno en la vieja sala de cine del convento alsasuarra. También solía reír elucubrando sobre cómo era posible comer morcilla durante varios días con la matanza de un único cerdo. Con esto queremos resaltar el sentimiento que Joxemiel albergaba y que era poco usual en la juventud coetánea. En cierto modo sentía que era el último eslabón entre las generaciones de posguerra y otra que entraba en la modernidad, algo que, en ocasiones, se entreveía en sus artículos. Fue en Alsasua donde también conoció mejor y aprendió a querer la lengua de muchos de sus antepasados, el euskara.

Su paso por el convento de Tudela le permitió conocer el carácter ribero y a las gentes de la orilla del Ebro. Fue aquí, con dieciséis años, cuando decidió abandonar definitivamente su creencia religiosa y acercarse al agnosticismo primero y a un cierto ateísmo

después. Se puede decir que fue en la capital ribera donde comenzó también a engendrar la curiosidad por la situación política y las reivindicaciones sociales, participando en alguna reunión de colectivos juveniles de la ciudad. Tudela se convertiría años después en su lugar de residencia, objeto de investigación y testigo de parrandas. Allí vivió, de manera más o menos estable, durante cerca de ocho años, y rescató informaciones sobre la «Obra histórico-literaria de Juan Pascual Esteban Chavarría» (2001), sobre «Eusebio López: impresor y vascófilo lodosano» (2001) o la «Obra histórico-literaria de José Joaquín Montoro Sagasti» (2002), entre otras.

De regreso a Pamplona parece que tenía clara su apuesta por la cultura vasca, que encauzó a través del aprendizaje de sus danzas y costumbres. Comenzó a interesarse por los orígenes históricos de las danzas, a la par que continuaba profundizando en el aprendizaje del euskara, que le llevó a alcanzar la licenciatura en Filología vasca en 1993. No era difícil por aquellos años ver a Joxemiel, grabadora en mano, entrevistando a personas de Baztan, Aezkoa o Monteagudo en busca de restos de Patrimonio Inmaterial. Nacieron así trabajos como «Euskal formulakuntzaren hurbiltze baterako» (1994) o «Arte koreografikoaren semiotika baterako» (1996) publicados en la revista *Egan*, su aportación en el libro sobre el paloteado de Monteagudo, que la asociación Muga editó en 1998, o la colaboración en el *Calendario de fiestas y danzas tradicionales en el País Vasco* (2003), obra coordinada por Kepa Fernández de Larrinoa.

Pero, además, Joxemiel supo rescatar, a fuerza de visitar una y otra vez bibliotecas como la General de Navarra, la de la Fundación Sancho el Sabio o diversos archivos municipales, infinidad de datos que a la postre recopilaría en sus libros publicados por el Ayuntamiento de Pamplona: *Alexander Tapia Perurena: olerki lanak* (1999); *Jose Agerre Santesteban: gerra ondoko olerki-lanak (1949-1962)* (2000); *Jose Agerre Santesteban: argitaratu poemen antologia* (2000); *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1910-1920). Testu antologia (I)* (2001); y *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1930-1936). Testu antologia (II)* (2003).

En el contexto de sus primeras investigaciones aparecieron también artículos como «Pedro Antonio Añibarro Aitaren Misionari euscalduna liburuan dantzei buruz dakartzan 66. eta 67. Dotrinak bere adibideekin» o «Materiales para una bibliografía sobre danza vasca», publicados ambos en *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* en el año 1993. A los que seguirían, en la misma revista, «Un edicto contra las danzas del Obispo de Pamplona Juan Lorenzo Irigoyen Dutari (1769)» (1996), «El misionero dominico fray Antonio Garcés a su paso por Euskal Herria y su opinión sobre la danza» (1997) y «Azpiazu y su descripción de las diversiones públicas de Guipúzcoa (1858)» (1998). Así mismo, en el ensayo *Dantzaren erreforma Euskal Herrian* (2005), galardonado por el Ayuntamiento de Bilbao en la sexta edición del Premio Miguel de Unamuno, convergen tres de sus pasiones, euskera, danza y literatura, donde se recogen los testimonios literarios eclesiásticos y legislativos en torno a la danza popular vasca entre los siglos XVI y XX.

En su producción destacan también dos monografías sobre escritores navarros, editadas en 2000 y 2004, respectivamente: *Sakanako euskal idazleen antologia (I)* (Iruña,

Nafarroako Gobernua; Bierrik Elkartea), y *Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra* (Iruña, Pamiela). En ambas evidencia la existencia de escritores navarros en euskara, como contraposición a lo que el imaginario de una parte de la población parecía albergar.

Como ya hemos comentado, Joxemiel, además de investigador, era un buen divulgador, y fueron muchos artículos de prensa, más de cuatrocientos, los que publicó en diferentes rotativos de Euskal Herria. Colaboró semanalmente en el suplemento *Nafarkaria* del periódico *Euskaldunon Egunkaria*, en la sección llamada «Klasiko bitxi arront klasiko», entre 1995 y 2001. Actividad que acompañó durante un tiempo con la colaboración dominical en *Diario de Noticias* bajo el título genérico de «Viejas historias de Navarra» (1999-2002). Esa actividad divulgadora también la compaginaba con estudios de corte académico, que daba a conocer en diferentes revistas especializadas como *Fontes Linguae Vasconum, Revista Internacional de Estudios Vascos, Revista del Centro de Estudios Merindad de Tudela, Sukil, Euskera, Eleria* o *Egan*, entre otras.

Y además se dedicaba a la docencia del euskara y a escribir él mismo en esta lengua textos literarios. En los comienzos fue profesor de euskera para adultos, y después de obtener su plaza como profesor de secundaria mediante oposición, ejerció la docencia en institutos de Pamplona y Tudela. Fue a sus alumnos del Instituto Benjamín de Tudela a los que vio por última vez antes de fallecer el 2 de marzo del año 2010.

Pero queremos destacar que, por encima de todo, Joxemiel Bidador además de lingüista, historiador, folklorista y profesor, en el sentido más amplio de la palabra, fue una gran persona, querida y admirada por muchos, tal y como demuestran los obituarios y numerosos actos de homenaje que tuvieron lugar después de su muerte. En ocasiones, algo difícil de entender para algunos, evitaba el enfrentamiento, aunque no la ironía. Persona comprometida con su entorno más próximo, de carácter amable y reservado en el ámbito familiar, amante de la literatura y la música, de sus amigos y de la buena compañía, Joxemiel era persona de gran capacidad de trabajo y dedicación, de ahí que, a pesar de la juventud con la que falleció, dejara una producción tan amplia.

Euskararen eta euskal literaturaren historia Nafarroan

La historia del euskera y la literatura vasca en Navarra

Euskal formulakuntzaren hurbiltze baterako*

Joxemiel BIDADOR

0. ATARIKOA

Bada ahozko euskal literaturan gehixegi ikertu ez den eremu zabaltto bat, kantilenak alegia. Historian zehar ez dira aunitz burutu errefrau bildumak, baina ezin da esan ahantzirik geratu den zerbait izan dela, hor baititugu lekuko *Refranes* y *Sentencias* bilduma zaharra edo Ohienarte mauletarrak ondutako liburu famatua. Halaz ere, kantilenak beti ere errefrau edo esaera zaharren zerrenda luzeen barnean murgildu dira, zerbait ezaugarri amankomunean badaudela errefrau soilenekin, baina hori ez da erabateko arrazoia kantilenak errefrau soilak direla esateko.

Kantilenak zer diren ere ez dago erabat finkaturik, eta oso zehaztu gabeko kontzeptu batetaz ari gaitezkela iduri dezake. Saiatuko bagina zertan datzaten esaten, latinean jada bazegoen hitz bati buruz mintza beharko ginateke. *Cantilena, ae:* elemele, esamesa; edo leloa, errepikapena. Hemen osagai garrantzitsu bat aipatzen da jadanik, errepikapenarena alegia.

Oso gutti izan dira kantilenen berri eman digutenak, eta gehienetan zerrenda laburren bidez ailegatu zaizkigu berri horiek. Agian, adibiderik nabarmenena Vinsonena dugu. Honek bere *Le folk-lore du Pays Basque* liburu ospetsuan, kapitulu oso bat eskaintzen dio gaiari, baina, kantilenekin batera, beste zera batzuk ere azaltzen ditu, esaterako puska bilketako kantak edo herrietako esaera humoristikoak. Halarik ere, Vinsonek

* *Egan*, 43, 1994, 65-144.

egiten duena korpus bat biltzea baino besterik ez da, eta ez du inolako ikerketarik edo interpretaziorik proposatzen.

Azkuek berak ere, lan handia burutu zuen bere *Euskalerriaren Jakintza*rekin. Azken liburukian, laugarrenean alegia, kapitulu oso eta luze bat eskaintzen die haur jolasei, eta hor barruan, bada kantilena dezente. Halaz ere, lekeitiarrak ez du zerbait apartekotzat jotzen, eta beste haur kanta luzeekin berdintzen ditu. Bestaldetik, bada beste arazo bat, zeinetaz ozenki hitz egitera ez bait nintzateke ausartuko, fidelgarritasuna alegia. Noizbait kantilena bat kanta luzexka baten hasiera dugu Azkuerengan, eta hori susmagarri samar deritzat. Halaz ere, ezin da ukatu iturri bukaezin baten aitzinean gaudela, eta hor jasotzen diren berri ugari jada ezin dira egiaztatu.

Apur bat beranduxeago, Manuel Lekuonaren lanarekin egiten dugu topo. Bere *Literatura oral vasca* liburuan, atal oso bat eskaintzen zaio berak izendaturiko «poesía decorativa» delakoari, v. atala hain zuzen ere:

> Hay en las literaturas populares un género poético de uso muy frecuente, pero de elementos extrañamente desprovistos de contenido significativo. Nos referimos a las cantilenas. Son las cantilenas un género de poesía de solo línea rítmica y colorido, sin significado alguno, por lo menos claro y expreso. También en las artes plásticas de escultura y pintura se conoce el género de solo línea y colorido, sin significado; es el que se conoce con el nombre de pintura y escultura «decorativas», en contraposición a la escultura y pintura «de asunto», llamadas de ordinario «escultura» y «pintura» simplemente. [...] La diversa distribución del elemento significativo nos da una escala de poesía decorativa fácilmente divisible en tres clases: a) la al parecer totalmente desprovista de significado ideológico; b) la dotada de algún contenido significativo, aun cuando confuso y oculto; c) la compuesta de parte significativa y parte no significativa. [...] La onomatopeya y la estilización son como los elementos constitutivos inmediatos de la poesía decorativa. Suele decirse que la onomatopeya imita los sonidos de la naturaleza. Las voces onomatopéyicas están formadas, en efecto, de sílabas que quieren remedar o traducir o interpretar de algún modo los sonidos de las cosas. [...] La poesía decorativa saca gran partido de este rango que el genio del idioma concede a la onomatopeya, utilizando para su intento la gran riqueza de elementos onomatopéyicos que a favor de este estado de cosas se ha ido acumulando en el haber del euskera. Por lo que hace a las cualidades literarias de la onomatopeya, es por demás notable para nuestro caso, su gran fuerza de expresión. Sin la lentitud de una página literaria, un kukurruku! o un guau guau! nos dan una impresión mucho más realista de un gallo y un perro, que la descripción más acabada de dichos animales. [...] La estilización, como se desprende de su misma noción está fundada en la sobriedad. La sobriedad es cualidad general del arte; pero la estilización la eleva de categoría, llevándola hasta las últimas consecuencias y hasta los extremos del virtuosismo y de la superación de sí misma. La estilización reduce a la mínima expresión el número con la calidad, con el vigor expresivo de los mismos.
>
> Las voces onomatopéyicas, si se comparan con las palabras que integran una descripción literaria al uso, son también verdaderos rasgos sueltos, pero de tal vigor diná-

> mico, que, como ya dijimos antes, cada una de ellas es capaz de darnos una impresión de los objetos mucho más verdadera que la mejor descripción realista de los mismos. Por donde se comprende fácilmente el gran papel que como elemento de estilización desempeñe la onomatopeya en la poesía decorativa.
>
> Pero no es solamente la sobriedad de los rasgos lo que caracteriza a la estilización. Gusta frecuentemente la estilización de idealizar el rasgo sobriamente escogido, agrandándolo, exagerándolo hasta deformarlo, alguna vez, de su ser nativo, y darle por alguna analogía existente en él, un sentido más o menos vago y decorativo, de otro ser distinto.
>
> Hay también en la poesía decorativa algunos rasgos que nos recuerdan esta faceta de la estilización, vemos frecuentemente en ella que las palabras del léxico corriente escogidas como rasgos característicos, sufren deformaciones o reciben aditamentos y reduplicaciones, poniendo novedad y misterio alrededor de dichas palabras, parece que tienden al mismo fin que dicha particularidad de la estilización: a dar relieve, a exagerar, así, el valor de dichos rasgos escogidos, contribuyendo al propio tiempo con ello notablemente al efecto decorativo del conjunto.

Lekuonaren hitz hauek irakurri eta gero, garbiago geratzen da kantilenen kontzeptuaren barruan zer dagoen. Halaz ere, ezta erabat argia ene ustez, eta Lekuona beraren obretan agertzen den bezalaxe, hasiera batetan berak deitzen duen «poesía decorativa» delako izendatzea, geroxeagoko lanetan, ia konturatzeke, haur kanta eta jolasekin berdintzen du.

Honengatik, hau da, kantilena hitzak izan ditzakeen konnotazioengatik –haur kanta dela, haur jolasa dela– eta jarraian azalduko ditudan arrazoiengatik, nahiago izan dut formula deitura erabiltzea, eta hortik lanaren izenburua.

Formula bat zer den nahiko gauza eztabaidagarria da. Alde batetik, pertsona guzien baitan dagoke *abrakadabra* esaldi magikoaren zentzua, hau da, ezinezko edo heldu ezina den gauza bat atzemateko erabil daitekeen giltza magiko-linguistikoa; beste aldetik, denok, ere ezagutzen dugu beste zentzu arrazionalistago bat, bilakaera, garapen, edo prozesu soil bat azaltzen duen sekuentzia informatikoa alegia, bai gertaera kimiko batez, bai sukaldari batek emandako errezeta xume batez. Gure kasuan, formula bat betiere aipatutako ahalmen magikoa zein informazio epistemologikoaz osaturik legoke.

Euskal formulakuntza deitu dudan multzo honetan, hiru arlo ezberdinak ikertuko ditut batik bat, hala nola, formula metereologikoak, formula magiko-taumaturgikoak, eta azkenik, haurren kantilenak. Hala ere, formulakuntza arlo gehiagoz osaturik legoke orokorrean, lehenago azalduriko ezaugarri bi errespetatzen diren neurrian.

Esanerak herri jakintzaren bilduma amaitugabe bat lirateke ontsa begiraturik. Jakintza diren aldetik, zientziatzat jo ditzakegu, eta aldi berean, esan behar da, beren esanahia oso argia dela ia gehien gehienetan. Batzuetan esanahi hori loturik egon daiteke leku zehatz batetara –bai bertako euskalkiarengatik, bai bertan agitutako pasadizo

batengatik–, eta, horregatik, arront iluna gerta daiteke bere ingurunetik aterata, bainan hau ez da errefrauaren ezaugarri bat, baizik eta arazo geografiko zein beste motatakotan oinarritzen den gako edo zio bat. Esaera asmatzerakoan zein asmoa egon den ere kontutan hartzekoa da nonbait: nori zuzentzen zaion eta zertarako den; bi gauza hauek, behin baino gehiagotan, errefrauaren zentzua goibeltzen edo ezkutatzen dute arrazoi askorengatik, bainan berriro ere, errefrauaren ezaugarri ez den zerbait baten aurrean geundeke, zeren halako iluntasun baten zergatia errefrau hori sortzen duenaren baitan ulertu eta azaldu beharko bait genuke eta ez beste inon. Baina, betiere, errefrau batetan bada zentzu apologetiko bat, oso txikia izanda ere, profetikoa nerrake nik. Zentzu hau esperientzian oinarriturik dago, *a priori* emandako lege bat. Bainan, lege hau erabatekoa ez den momentuan, apologesi horren barnean sartzen da, eta horregatik, kabalistikoa den moduan, magia dei dezakegun zerbait badauka ezkutuan. Hau ere, pertsona bakoitzaren baitan demostra daiteken zerbait da; edonork ez du errefrau bat eta formula fisiko bat modu berean eta momentu berean esaten, nahiz biak, modu berean asmaturik egon –esperientziaren ezagutza, noski–.

Baten batek pentsa dezake formula metereologikoak errefrau soilak direla, eta ez dagoela zertan bereizi behar esaera arruntetatik. Dena den, ene aburuz ez da horrela gertatzen, eta errefrau soilen multzotik aldentzen diren formula berezi batzuen aitzinetik geundeke. Alde batetik, herri jakintza bat erakusten da, esaera normaletan bezala, baina jakintza hori ez da erabatekoa, eta probabilitate oso gutxiko zientzia genuke. Beste aldetik, magikotasuna askoz nabariagoa da. Hemen ez gaude hontseilu edo lege baten aurrean, baizik eta desio edo nahi bizi baten aurrean, gizarte nekazari batetan oinarriturik. Laborariak egiten duen lana ez du egutegiak agintzen, baizik eta eguraldiak eta beste baldintza metereologikoek. Formula hauek orduan, ez dira soilik esku-liburu bat ereintza edo uzta noiz egin behar den zehazki jakitekotz, baizik eta, formulen bidez, zeruetako indarrak konjuratzen saiatzen da, laborariari interesatzen zaion fenomenoak beharrezkoak diren bezala gertatzeko.

Formula taumaturgikoak, espresuki, eritasunak eta mota guztiko gaitzak sendatzeko erabili izan diren formula zehatzak ditugu. Honako esaera hauek ez lirateke herri jakintza, pertsona batzuen eskutik emanda baitzeuden kasu anitzetan –nahiz zenbait formulen erabilera orokorragoa izan–. Formula hauen esanahia ez zen beti garbia, eta askotan, zentzugabeko hitz zerrendak baino besterik ez dira. Bestaldetik, nabaria da magikotasuna, sineskeria hutsa izanik –halarik ere, batzuetan egi batetan oinarri deitezke–. Geroxeago aipatu diren formula magikoak, formula hutsak lirateke, magia hutsa hain zuzen ere. Formula hauetan, nabaria da kristautasunaren eragina. Hau errez azal daiteke elizak historian zehar erakutsi duen jokabidea kontuan hartu ezkero –elizak ongi zekien antzinako sineskeriak ezin zirela bat-batean kendu, eta bere baitan onartuz, egokitu zen tokiko beharretara, betiere bere dotrina inposatzeko asmoarekin; hau izan zen arrazoi bat protestanteek paganismo salaketa Eliza katolikoari leporatzeko hain zuzen ere–.

Haurren kantilenak jolasekin lotuta dagertza, eta jada esanda geratu den legez, Azkuek ez zituen bereizten ez eliminatzeko errondak, ez berezko jolasak, ez aho-korapiloak; gauzak oro zaku berean sartzen zituen, eta ene ustez, haur literaturaz aritzean ez

legoke hain gaizki, bainan kantilenak diren aldetik, edo formulakuntzaren barruan, ezberdindu behar dira –nahiz jolas eta kantilenaren arteko mugak oso agerikoak ez izan–. Berriro ere, mota honetako formuletan bi alde ezberdinak agertzen zaizkigu; bai zientzia hori –oso murriztua egon arren eta betiere modu infantil batez– bi lerrotako zenbait istorio berezi eta argi batzuen bidez, eta bai magikotasun hori, behar beharrezkoa haurraren munduaren azalpenean.

1. FORMULA METEREOLOGIKOAK

Sarrera: egutegiaren bilakaera

Delako herri baten egutegia ikertzeak ikaragarrizko garrantzia dauka etnologoari eta erlijioen historialarientzako. Izan ere, euskal egutegiak ikerketa ugari jaso ditu, bainan, halarik ere, oraindino arazo asko gordetzen ditu bere baitan argitu gabe, eta batik bat, asteari dagokionez.

Antzineko euskaldunen erlijioa beste horrenbesteren gisara, ilargian oinarritzen zen, eta horregatik, denbora gauez neurtzen zen. Hau horrela delarik, argi gera daiteke *gaur* eta *gau* hitzen arteko erlazioa. Erabilera hau guztiz arkaikoa dugu, eta ilargiaren behaketa errazten du hogeita bederatzi egunetako hilabete ilargikoia sortzeko.

Ikerlari batzuen ustez, euskaldunek ilargi jainkoa izendatzeko zeuzkaten deiturak hiztegi-tabuek ziren, eta horregatik gaurdaino mantendu zaizkigun izen guztiak pleonasmoak ditugu: *hilargia* (edo *ilun-argi*) euskalki gehienetan, *argi-zari* edo *argi-zagi* iparraldeko zenbait tokitan, eta *goikoa* Erronkariko mintzaira galduan.

Ilargia amona genuen, *Ilargi Amandre,* eta beste jainko garrantzitsu bat zen eguzkia ere *Euzki Amandre* geneukan. Baziren bi goren hauekin batera beste bi oso garrantzitsuak zirenak, *Amalur* eta *Ortzia,* lurra eta zerua alegia.

Halaz ere, zerbait balin bada euskaldunen antzinako erlijioa erakusten duenik, hori bera ditugu hilabete guzien izenetan gordeta, eta arrazoia zera da: hilabeteen izenak sortzeko ilargiak duen garrantzia. Euskalki orotan erabilitako izenen artean badira latinetik datozenak, izen kristauak, nahasiak, eta berez euskara hutsa direnak. Ikus ditzagun orain hilabeteen izenak fite batean.

Urtearen lehenengo hilabetea izendatzeko bi aukera badira: *beltzita, hilbeltza* eta honen aldairak alde batetik, eta beste aldetik *urtarrila.* Lehenengoak ez du zailtasunik erakusten ulertzeko, baina bai aldiz bigarrenak. Zenbaitek *urtar* hitzarekin erlazionatzen dute deitura hau. *Urtar* uholde litzateke zuzenean, eta *urte* bera ez litzateke hezetasun aroa baino. Hau guztiz lotua dagerkigu aintzinean urte hasieran egiten ziren ur-erritoekin, gaur egunean Urdiainen bakarrik, nik dakidanez, mantentzen direnak.

Bigarren hilabetearen izenak honako hauek ditugu: *otsaila* eta bere aldaerak –otsoen nahiz hotzen hilabetea–, *zezeila,* eta *barantaila.*

Hirugarrena *epaila* izan da leku askotan –adarrak ebakitzeko edo inausteko garaia–, baina orokorrenak *martxoa* eta bere aldaera guztiak izan dira.

Jorraila –jorratzeko hilabetea– laugarrena dugu. Izen honekin batera ere *abereila* –abereen hila–, *opaila* –eskaintzen hilabetea–, eta *apirila* dauzkagu.

Bostgarrena loreen hilabetea ohi da, eta hortik *loraila*. Ezagunak dira *orrila* edo *ostoila* ere, *maiatzarekin* batera.

Garagarrila bai seigarren bai zazpigarren hilabetea izan daiteke lekuen arabera. *Bagila* ere ezaguna da –baben aroa–, *errearoarekin* batera. Zubero aldean izan da *arramaiatza* eta *ekhaina*. Azken honek –eguzkia goian, *ekhi-gaina*– erlijio zaharraren aztarna berri bat erakusten digu, udako solstizioaren inguruan.

Sanferminetako hilabetea *garila* zein *garagarrila* izan da lekuen arabera, eta orokorki arruntena *uztaila* izan da.

Abuztua ere *dagonila* izan da leku zenbaitetan.

Bederatzigarrena leku gehienetan bai *iraila* bai *garoila* izan da. Iparraldean ezaguna gertatzen da *buruila* eta beste tokitan *setemer dugu*.

Urria, urrila, urrieta eta beste aldaera batzuk izan dira nagusi hamargarren hilabetea izendatzeko. Baita ere *bildila*.

Hamaikagarrenak izen ugari erakusten dizkigu: *hazila* –hazien hilabetea–, *gorotzila* –gorotzarena–, *zemendila* –haziekin ere erlazionaturik–, eta *azaroa* –azen hilabetea–.

Azken hilabeterako *abendua* daukagu –*adventus* kristau hitzetik–. Baita *lotazila* eta *negila* ere.

Beraz, ikus daitekeen bezalaxe, izen asko, eskuliburu baten gisa, laborariak gauzak noiz egin behar dituen jakiteko dira. Halaz ere, oraindino bazaizkigu geratzen esanahi oso argi ez duten zenbait deitura –latinetik datozenak kenduta noski– erlijio zaharra erakutsi bide dutenak: *urtarrila, zezeila, barantaila, ekaina, dagonila* eta *buruila*. Aipatutako *urtarrila* eta *ekaina* kenduta, beste guziak ez dira oso argiak gertatzen, eta oraindino itxaron beharko da interpretatu ahal izateko.

Aintzinako egutegi zaharra erromanizazioarekin ahazten hasi zen. Halarik ere, honek ez du ezer ere esan nahi, zeren ertaroak oraindino oso arruntak ziren aro, urte edo hilabete nahasketak, eta egutegiaren batasuna ez da inolaz ere erabatekoa izan oso berandu arte.

Egun mendebaldean darabilgun egutegia aldaketa anitzen ondorioa dugu: hasiera batean 304 egunetako urtea zegoen –hamar hilabeteetakoa–; geroxeago Numa erregeak 355 egunetara aldatzen du; Julio Cesarrek *Juliano* izeneko egutegia sortzen du 365 egun

eta sei ordutan utziz; eta azkenik, Gregorio XIII aita santuak hamar egunetako aurrerapen bat egiten du, urriaren bosta hamabostera pasatuz. Kalkuloa guztiz ontsa egina izan zen, egun bat, lau oren eta berrogeita zortzi minututako okerra bakarrik sortzen delako lau mila urtero.

Urtea hasteko eguna ere ezberdina izan da leku bakoitzean. Aintzinako euskaldunek zeuzkaten daten artean bata bereziki izan zen zabalduena, hau da, neguko solstizioarena. Geroxeago, eta erromatartzearekin batera, errepublikako zein *Juliano* egutegien bidez aukeratzen zen eguna. Lehendabizikoa, hilargikoaia zen, eta urtzaroaren ondotik zetorren lehendabiziko hilberriarekin hasten zen, gutxi gora behera martxoan, eta hortik *kalendae martiae* –honen aztarna batzuk Santander, Burgos zein Bizkaiko Karrantza eta Artzentales udaletan ospatzen diren *marzas* izeneko jaiak ditugu–. *Juliano* egutegia berriz, gorago esan den besala, Julio Cesarrek ezartzen du 45. urtean, Sosigenes astronomo eta egipziarren ideiak hartuta.

Oraindino aipatu dudan beste urtearen sailkapena urtaroena dugu. Egun arruntena lau urtaro daudela esatea da, baina hau ez da beti horrela izan eta benetan bitxia suertatu da ohizko mentalidade zaharrean, uste krono-espiritualetan desitxuratzaile bezala jokatuz. Zenbait tokitan, urtea hasi eta bukatu egin da San Miguel egunetan, hau da, maiatzaren zortzian eta irailaren hogeita bederatzian hain zuzen ere. Horrela, bi urtaro baino besterik ez leudeke: *uda partia* eta *negu partia*. Hau erabat egiaztaturik geratzen da euskaraz dauden urtaroen izenei so egiten badiegu: *negu* eta *uda,* eta *uda* horren barruan *udaberri* eta *udazkena*. *Urri(eta)* edo *larrazken* hamargarren hilabetearen deiturak izan daitezke besterik gabe, eta xiberutarren *bedatsea* berrikuntza bat dateke, nahiz apur bat iluna hagitu.

Egutegi nahasketa guzti hauek gutxi ezpailira, kristauak ailegatu ziren eta apur bat finkoak izan zitezkeen siniskeri zahar guztiak urtu ziren erlijio berriaren barnean. Egutegi kristaua bazko egunaren inguruan eraikitzen da, eta hau arazo bat da, zeren data hau judutarren tradiziotik dator –udaberriko lehenengo hilbetea hain zuzen ere–. Orduan, data finkoak higikorrak direnekin nahasten dira. Sarreran esaten den legez, kristauek erabili ohi zuten taktika beren mezua zabaltzeko beste herrietako ohiturak bere baitan onartzea zen. Beraz, errez azal daiteke ze nahaste sortzen den Euskal Herrian; alde batetik erlijio zaharra bere egutegiarekin, bestetik erromatarrak berearekin, eta azkenik kristauak zenbait ohitura juduetan oinarriturik.

Magikotasuna

Aintzinako egutegi zaharraren agerpenak benetan urriak dira, hilabeteen izenak berak ezpadira behintzat. Ziklo ilargikoiaren aztarnak erabat estali ditu egutegi erromatar-kristauak, eta erlijio zaharraren aipamenik ia ez dago. Dena den, aurresan metereologikoak egiteko dauden erizpide zientifiko guzien artean, badira mitiko-esoterikoak direnak –esaterako zotal-egunak eta abar–.

Solstizioak ez dira ia kasik formuletan isladatzen, eta *Donibane eguna* gaitzat hartzen duten formula askoren artean, gutxi batzuk baino eguzkiaren aipamena dakartza:

San Juan eguna, urtian dan egunik luzena. Dena den, garrantzizko eguna genuen eta dugu hauxe Euskal Herri osoan. Esate baterako, Urdiaingo herrian, Donibane bezperan oso festa bitxia ospatzen zen. Emakumeak biltzen ziren, eta ilunabarrean, Donibaneren omenezko kanta egiten zuten. Kanta hau bukatu eta gero, honako formula hau esaten zuten: *Orain arte belar, hemendik aurrera gari,* hau da, eskatzen zaio Donibaneri, udari, eguzkiari azken finean, mirakulua egiteko, eta ordurarte belarra izan dena gari bihurtzeko. Herri berberan oraindik, eta lehenago Euskal Herriko toki askotan, uraren erritoa ospatzen da beste solstizioan, neguko solstizioan alegia. Erabiltzen den formula hauxe dugu: *Ur goiena, ur barrena, urteberri egun ona*.

Erlijio eta egutegi zaharrak esan bezala ia desagerturik baldin badaude euskal formulategian, ez da gauza bera gertatzen kristau kutsua duten elementuekin. Alde batetik, geroxeago aipatuko dudan mnemoteknia grafikoarekin lotuta egon daiteke. Baina beste aldetik ere, formularen garrantzia eta indarra bere efektibitatean datza. Formula magiko edo eliminatzeko erronda baten boterea bere baitan dago, formula hauek berez indartsuak direlako. Baina formula metereologikoen garrantzia beren atzematasunean datza. Alde hortatik soilik magikotasunean uler daitezke, eta ez zientzian bakarrik. Eta igertzeko ahalmen horrek behaketaz aparte, badu beste arrazoi bat, erlijio berriaren boterea. Santuek, beren egunekin erlazionatzen diren fenomenoen berezitasunak bereganatu dituzte, eta horregatik, formula igertzeko balio duen neurrian magikoa da.

Aurresan metereologikoak

Predikzioak egiteko formuletan erabiltzen diren erizpideak oso ugariak dira. Batzuk izadi eta baserriko bizitza normalean oinarritzen dira, gauza guzti hauen behaketa lasai sistematikoan. Urtero gure behaketa propioak ez egitearren formula ezberdinak asmatzen dira eta belaunaldiz belaunaldi trasmititzen dira. Honen adibide eder batzuk: *Espartina maiz laxatzen bada, laster euria, Etxean habe harria bustita dagoenean, laster euria* edo *Ormak ortan izerditan badagoz, euria*. Halarik ere erizpiderik erabiliena animaliak ditugu. Bai, etxeko animaliak izan daitezke aproposenak eguraldi ona, euria edo elurra ekarriko duen jakiteko: abelgorriak eta behiak: *Abelgorriak udabarrian kortan, mendira joan gura dabela orroaz hasten bada, eguraldi onaren zantzua da, Behiak anka goratu ta dardaratzen badu, elurra, Behiak gibelerat uztarka ari zirenean, gero denbora txarra, Behiak isilik eta isilik badira, laster eguraldi txarra, Behiak ausnartzu badagoz, atzeti eguraldi txarra,* edo *Behi* ta *ardiak gorputza iñarrostuz geroz, ekaitza;* ardiak, ahariak, axuriak edo ahuntzak: *Ahariak eta ahuntxak gora goraka ta agiraka dabiltzanean, euria, Ardia iluntzean ote jale baldin bada, hurrengo egunerako elurra, Ardiak bordan faloska ari diranean, biharamunean elurra, Ardiak gora doazenean, eguraldi ona, bera datozenean, txarra,* edo *Behi ta ardiak gorputza iñarrostuz geroz, ekaitza;* zakurrak: *Zakurra kukusoak kentzen ari bada, euria laster;* katuak: *Gatuak belarri gibeletik hatza badarabile, eguraldi txarra, Gatuak erotuki jostetan ari direlarik, biharamunean elurra,* edo *Katuak iparraldera begira musua garbitu ezkero, eguraldi ederra. Itxasaldera begira garbitzen badau, euria;* zaldi eta behorrak: *Behor ta zaldiak estrabilean pulunpari hots eragin gabe ta isil badira, elur gehiago izanen da;* erleak: *Erleak aurretik igarten dute ekaitza noiz datorren,* edo *Erleak euren kutxa inguruan dabiltzanean, euria;* oilar, oilo eta txitak: *Oilarrak arboletan gora igo eta gelditzen badira euria, Oilarrak arra-*

tsalderako bortz orenez geroz kukurruku jotzen badu, hogeita lau orenen barnean euria segur, Oiloak sagar adarretara igon ezkero, laster ekatxa, edo *Oiloak zorriketan, ardiak zintzarri dantzatzen, oilarra goizean kukurrukuda hasten denean, txitxarea luze luze lurraren gainean dabilenean, enarak lurra ia ia joan dijoazenean, euria laster,* eta baita ere etxeko animaleak ez direnek iragar diezaguketen ze eguraldi eginen duen: armiarmak: *Amarratz baltza jaisten denean euria, Armiarma lurrean ikusten bada, hogeita lau ordu barru euria,* edo *Marasma handi bat eta txiki bat ikusi ezkero, euria laster;* bareak: *Barea lurraren gainean baldin badabil, euria, Bareak eguzkia ateratzen denean aza baten azpian bada ere gordetzen dira;* eltxo eta euliak: *Eltxoak biraka badabiltza, euria laster, Eltxoak usika dabiltzanean, bero hurrengo egunean, Euliak heltzen badabe, euria laster,* edo *Euli txikiak elkartu ta eguzkia sartu baiño lehenago hegaz dabiltzanean, eguraldi ona;* apoak, sugeak eta suangilak: *Elurra dakarrenean, isilik egoten dira sapoak, Martiko sugeak berrogei eguneko ekaitza dakar, Sapoak klik klok kantetan badihardu, biharamonean eguraldi ona, Suangila bat norbaitek hil ezkero, biharamonean euria, Subea eguzkia hartzen bide ondoan badago, laster euria,* edo *Suge anitx agertzen direnean, erauntsia laster;* musker, muxar edo saguzarrak: *Muskarra kantari badago, legorte edo euritea, Muskarrak kantari ta ixkisuak karra karra karra egiten badu, euri haundiak berehala, Muxarra pago zuloetan sartzen baldin bada, hego aizea,* edo *Saguzarrak iluntze ta gauetan hegaz dabiltzanean, biharamonean eguraldi ona;* antzar, bele eta beste hegazti motak: *Neguan txoriak etxe ondora etorrita pinpin ari badira, elurra berehala, Antzarrak batera ta bestera hegaz dabiltzanean euria, Itxasantzarrak datozenean, eguraldi txarraren zantzua, Itxasantzarrak datozenean, edurrak ugari, Bela asko dabiltzanean ebia seguru, Beleak kakaka egiten badu hegoa, Beurtxoriak kantatan dianean, euria fite xinen da, Egabelek goizetan txio txioka badihardute eguraldi ona, Egabelek hagaz lurraren kontra dabiltzanean euria, Hontzak neguko eguerdian nahiz arratsalde erdian kantatzen badu elurra* edo *Okila kantatzen duenean euria eskatzen ari da;* har eta txinurriak: *Harrak azalean dabizanean, euria laster, Harrak eta txindurriak lurgainean agertzen diranean, eguraldia euritara* edo *Harrak ugari lur ganera urten ezkero euria;* edo, basa abereak besterik gabe: *Base abereak neguan eurenez etxe aldera datozenean, ekaitz handia datorrela iragarten dabe*. Landareen erabilpena ez bide dago hain zabaldua aurresanak egiteko eta hortik hain formula gutxi egotea: basaranen bidez: *Baxaran urte, elur urte;* belarren bidez: *Belhar urte, deusez urte;* intxaurren bidez: *Intxaur urte, arto urte;* urritzen bidez: *Urrutx urte elur urte*.

Aipatutako formula guziekin ere, beste sailkapen bat egin daiteke, eguraldi ona, txarra, euria edo elurra iragartzeko baliogarriak direnentz kontuan harturik. Formula gehienak euria iragartzeko balio zaizkigu, gutxiren zenbait baino gehiago ez dagoelarik eguraldi ona predezitzeko. Elurra datorrenentz jakiteko ere badira zenbait formula: *Ardia iluntzean ota jale baldin bada, hurrengo egunerako elurra, Ardiak bordan faloska ari diranean, biharamunean elurra, Behor ta zaldiak estrabilean pulunpari hots eragin gabe ta isil badira, elur gehiago izanen da, Gatuak erotuki jostetan ari direlarik, biharamunean elurra,* edo *Hontzak neguko eguerdian nahiz arratsalde erdian kantatzen badu, elurra*.

Beste erizpide zabaldu bat *gertaera* metereologiko berak erabiltzea izan daiteke. Batzutan lainoa noraino ailegatzen den kontuan hartzen da: *Lanoxerra martian noraino, apirilean edurra haraino, Lantxerra martxoan noraino, apirilean edurra haraino* edo

Otsallen lañoa noraño, elurra hauntzaño; besteetan haizeak izaten dira: *Mendebalak eurik dakar;* zerua, ilargia, eguzkia eta izarren egoera ere garrantzitsua gerta daiteke: *Arrats gorri, eguraldi; goiz gorri, eurilari, Eguzkia zuriegi datorrenean, iluntzean euria, Ekhia mingar denean bihamenean ebia, Gau gorri haizetsu, goiz gorri euritsu, Goizean eguzki gorri, arratsean iturri, Iretargiak larrina daukanean hogei ta lau ordu barru euria, Izarrak argal badira, biramenean eguraldi ona; usu badira euria,* edo *Izarrak bakan daudenean, eguraldi onaren zantzua.*

Erizpide mitiko-erlijioso guziak genituzke aurresan metereologikoak egiteko orduan. Batzuk santu bati zuzenean erreferentzia egiten diote. Hauxe santu horren egunarekin erlazionatu behar da zuzenean eta ez santuaren ezaugarri propioekin, eta erregela mnemotekniko bat izanen litzateke, grafikotasunean oinarritzen dena, errazagoa baita santu bat fenomeno metereologiko zehatz batekin erlazionatzea, egun soil batekin baino: *San Mark egunean euria bada, berrogei egunez gutiago izanen da, San Meder eguneko euriak, berrogei eguneko ondoria, San Pedro egunean euria bada, berrogei egunez euria izanen da,* edo *San Pedro egunean euria egiten badu, urte hartan gaztaña aunitz.* Antzeko zerbait jazotzen da beste data berezi batzuekin, hala nola eguberria: *Eguberri zereki, urteberri hareki;* kandelario eguna: *Gandelairo bero, negua dugu gero; gandelario hotz, negua joan da motz, kandelarioz euri, laster da udabarria; kandelarioz aterri, negua dator atzeti,* edo *Kandelera eguneko jostaiek, berrogei eguneko ekaitza;* garizuma: *Garizuma berandu, udabarria berandu; kukua etorri, gosea etorri; kukua juun, gosea juun* edo *Garizuma goiz, negua goiz; garizuma berandu, negua berandu;* edo urteberria: *Urte berri zereki, urteko eguberri guziak hareki.* Baina badira oso bitxiak suertatzen diren gutxi batzuk mitikotasun horren barruan sartzen direnak: erramu eguneko ebangelioa: *Erramu egunean ebangeliokoan zer aize, urte guzian hura naguse* edo *Erramuz sagara bitartean den eguraldia berrogei egunez egiten du;* meza liburua: *Mezako liburua aldarean ezker aldean gelditzen bada, eurituko da;* astelehen eta barikuak: *Asteleheneko euria, aste guziko euria, Bariakuan trumoiak hots egiten badau, eurizko bederatziurrena, Ortzilarean harria egiten badu, bederatzi egunez euria, Ostiraleko trumoia, berrogei eguneko berdatea* edo *Ostiralez hasten den hila, onik hasten bada, ona izango da, txarrez hasten bada, txarra;* apirilaren lehenengo igandea: *Apirilaren lehenengo domekan euria bada, hil guztian hiru egun eztira aterri izaten;* hilaren azken eguna: *Hilaren azken eguna ta urrengoaren aurrenekoa onak badira, hila ondo jarraituko da;* edo bigarren eta hirugarren egunak: *Hilaren bi ta hiruan eguraldi onak izan ezkero, langiro onak hil hartan, Hilaren hirugarren eguna nolako, hil guztia halako* edo *Hilaren hirugarren eguna zelako, hila guzia holako.* Azken hauek zotal egunekin erabat erlazionaturik dagerzkigu.

* * *

Jada aipatu den formula hauen helburu didaktikoa argi geratu da, eta esku-liburu baten moduan funtzionatzen dutela ere bai. Badira bilduma honetan, deskribapenak baino ez diren nahiko formula. Gehienetan hilabete bakoitzaren ezaugarri bat hartzen da definitzailetzat, eta besteetan, baldintza bat ezartzen da mehatxu bat bailitz eta ez betetzekotan hil horren desoreka datorke: *Abendua burdinezkoa, hilbeltza eltzairozkoa, Agorrileko euria, amo ta eztia, Aprila bero, negua, Azaroko eguna, argiko iluna, Bagil*

argia, urte guziko argia, Buruila udaren buztana, ta neguaren hastapena, Eguzkia ta euria, martiko eguraldia, Kukuak egiten du maiatzean kuku, garagarrilean gelditzen da mutu, Maiatza urtearen giltza, Martxo lore bat ere gabe baino hobe, april lore menture, maiatz lore lore ta flore, Otsaila firila farala, Otsaila katuila, Otsailean aldiz eguzkitan, aldiz sutantzean, Urriko edurra, zortzi hilebeteko edurra edo *Urtarril hotza, neguaren bihotza.*

* * *

Laborantza eta abelzantzareko formula jakingarriak ez dira espero zitezkeen adina, baina halarik ere multzo txiki zehatza osatzen dute. Gehienak laborantzari dagozkio. Egiten dituzten erreferentziak honako hauek ditugu: garia edo ogia: *Apirila euritsu, urte hori ogitsu, Aprila hotz, ez gari ta ez agotz. Doniane euria, garien galtzegarria, Edur urte, gari urte, Ilintxa urte, gari urte, Izotz urte gari urte, Maiatz pardo, ogi ta ardo, maiatz hotz, ez gari ta ez agotz* edo *Pazko maiatzeko euritsu, urte hori ogitsu;* artoa: *Artoa ereiteko, San Isidroren astea, atzea baino aurrea obea, Artoak ontzeko erein behar dira garagartilean, guk erein genitun uztan, horregatik gelditu ziren ez buru ta ez buztan, Elorria lora dago, artoa ereiteko giro dago, Intxaur urte, arto urte, San Jurki, artoak ereiteko goizeti. San Markos artoak ereinda balegoz, San Mark artorik baduk lurrerat eman, San Mark artorik baduk bota zak, ezpaduk xerka zak* edo *Trumoi urte, arto urte. Arto urte, kaka urte;* gaztaña: *Madalen astea bero, gaztaña gero* edo *Madalen eguna eguraldi onez, gaztain zaliak zorionez,* aza: *San Matia erein duk aza hazia? Hik bilduko duk aza handia;* edo hazia, zehaztu gabe: *Semark, azia baduk emak eta ez baduk xekazak*. Abelzantzaren barruan ardiak: *Abendu xuri ez ardi ta ez axuri, Ahariak maiatzean, deuri deuri deuri esaten nausiari* edo *Ilbeltza iten badu iltxuri, ardiyek haziko du axeri, ilbeltza iten badu ilbeltz, ez ardi ta ez axuri;* behiak: *Andra Mari martiko, behiak mendira jaurtiko* edo *Andra Mari martxoko, behiak larrean aseko;* eta oiloak baditugu: *Martian arraultza ta martian txitra edo Martiko oilloa, oillotxo.*

* * *

Erabatekoa izan gabe, bai esan daitekela formula metereologikoak eskema bati atxekitzen direla. Alde batetik, aditzen erabilpena oso murriztua geratzen da –formula magiko-taumaturgikoetan baino askoz gehiago–, eta bestaldetik, hauxe bera lotuta dago formula hauek erakusten duten eskema erritmikoarekin, errima eta dualismoan oinarritua dagoena.

Aditzaren erabilera oso murriztua da. Inolako aditzik gabeko formulek multzo samar handia osatzen dute: *Abendua burdinezkoa, hilbellza eltzairozkoa* edo *Abenduko eguna argilu orduko iluna.* Arrazoia ene ustez honako honetan datza: formulak herri jakintza diren neurrian, aldez aurretik egiaztatutako kontzeptuak erakusten dituzte, eztabaidagarriak suerta ezin diren kontzeptuak hain zuzen ere. Aditz guzien kenketak ziurtasuna ematen du, zalantzarik izateko sor daitezkeen aukera guziak egoztuz.

Bestaldetik ere, erregela mnemotekniko bat dugu beharrezkoak ez diren hitz guzien kenketa, aditzak esaterako, benetan esanguratsua dena agerian utziz. Hau lotuta

dagerkigu formula hauen luzaerarekin. Hurrengo atalean ikusiko den legez, badira formula magiko-taumaturgiko dexente luzatzen direnak; baina atal honetan oso gutxi dira bi lerroetatik pasatzen direnak, eta badira bi edo hiru hitzez osaturiko zenbait adibide: *Aizeak negua, Bizkaiko negua garizuma* edo *Hegoaren ondoti euri.*

Laburtasuna nahiz aditzen ezak, formula hauen estrukturarekin batera, osatzen dute erritmo propioa –berriro ere mnemotekniaren barruan murgiltzen ari gara–. Estrukturari dagokionez, ia gehienetan bi hemistikioz osatutako formula dualistak ditugu korpus honetan; badira zati gehiagoz osatutako adibideak –lau zatiz: *Abenduko elurra gailtzerua, hilbeltzekua burniya, olsailekua egurra, martxokoa ura;* hiru zatiz: *Agorrileko ura da zafran, ezti ta ardau* edo *Andra Mari martiko, artean uda ta tiko, handik aurrera betiko*– baina erabiderik arruntena hauxe da. Batzutan zati bat murriz daiteke, eta hitz bakarreko hemistikio erren baten aurrean geundeke, baina hori erraz azaltzen da gehienetan indar espresiboa hartzen duen zatia dela esanez.

Esan dugunarekin, oso erritmo markatuko formulak idurika ditzakegu: bi zati, aditzik ez, laburtasuna: - -, - -. Orain, barneko errima bat bilatzen badugu, kanta daitekeen zerbait izanen digu: - -a, - -a. Askotan, errima hau hitz berbera errepikatuz lortzen da: *Aprileko lorea urrea baino hobea, maitzeko lorea bapeza baino hobea; Ardi urte atun urte* edo *Baxaran urte elur urte;...* Erritmoa behin eta berriz errepikatzen ari den ideia batekin lotuta doa: mnemoteknia. Esku liburu ahozko bat dugu formula metereologiko guziak, eta ondo ikasteko hauxe dugu jada txikitandik dagoen sistema.

Beste gai batetara pasatuz, esan behar da onomatopeiaren agerpena ia hutsa dela formula hauetan. Baten bat bai agertzen dela: *Apirila biribila; Aratuste manga, ardoari dzanga; otsaila firili farala; martxoa birrinbi barranba;* baina honek ez du inolako ondoriorik erakartzen. Desitxuraketa eta onomatopeien hain erabilera mardula egoteak bi arrazoi izan ditzake: alde batetik, helduen gizartean ez dagoela haurren gizartean bezalaxe desitxuraketarekiko grina gori bat, eta kontzeptuek garrantzia hartzen duten neurrian beste erabideak dagertza, ikusitako aditzen kenketa esaterako; beste aldetik, sail honetako formulak deskriptiboak dira, eta bere indarra munduaren sekretuak argitzen dituzten neurrian kokatu behar dugu, hurrengo bi atalen formulen indarra formuletan bertan datzan bitartean, eta batez ere formula magiko eta haurren kantilenei dagokienez.

Bukatzeko, aipatu beharko da formula gutxi batzuk erakusten duten egitura. Gehien gehienetan, eta esaera arrunt batetan gerta daitekeen bezala, zerbait abstraktoa ditugu formulak, apertsonalak. Hala ere, badira zenbait adibide elkarrizketa moduan agertzen direnak: *A martxo a martxo, har zak esker gaizto, nere ardirik kaskarrenak egiten dizkik zazpi salto, Anderdena Mari martxoko, gure behia larrean aseko eta zezenak zokotik: –Muuu! Gero duk Erramu, Andra Mari martiko neguari eman diok ostiko* edo *Apirila biribila urdia teian hila! –Ez da hila! –Bada hila! –buztana badabila!* Besteetan, formula bera pertsonaiaren ahoan jartzen da: ardia: *Ama Birgiña martxoko, neguari eman diok ostiko* edo garia: *Garia txiki banintzen, handi banintzen, maiatzean buru nintzen, Maiatzean txiki nahi handi izan, burutu behar naizela ziur izan* edo *Txikiya banintzan haundiya banintzan, mayatzian zorruan nintzan.*

2. FORMULA MAGIKO-TAUMATURGIKOAK

Sarrera: erlijio zaharra eta kristautasuna

Bigarren puntu honetan, formula taumaturgikoak genituzke bereziki, sendatzeko erabiltzen diren formulak nahiz sendatze prozesua azaltzen dituztenak. Beste aldetik ere, badira beste formula mota berezi batzuk, hala nola, madarikazioak, erlijiosoak –nahiz hauek ere taumaturgikoak izan modu berezi batez–, esoterikoak, akelarretan erabiltzeko, eta abar.

Formula taumaturgikoei buruz zera esan behar da; errazak dira azaltzen dituzten kontzeptuak, eta gutxi izaten dira sendi bakoitzean transmititzen direnak baliagarriak baitira eritasun bat baino haboro sendatzeko. Gehienetan, formula hauek keinu batzuen laguntza behar dute –gurutzeak, inguruak, ...–, eta askotan, gaitz bera bat sendatzeko bi formula badira, hau da, batek azaltzen du zer egin behar den eritasuna sendatzeko, eta bestea konjuro gisa erabiltzen da –batez ere gaitzekin hagitzen da hau–.

Formula magiko-taumaturgikoetan erabiltzen den magiaren kontzeptua ez dago umeek duten kontzeptutik hagitz urrun, bainan badira formuletan gauzatzen diren aipatu beharreko zenbait ezberdintasun. Hasteko, eta haurren formulen atalaren bukaerako gogoetari atxekituz, esan behar da helduak beti ere umeak baino aunitzez arrazionalistagoak direla, eta horregatik haien formulek ez dute haurren kantilenak bereizten dituen zentzugabekeria erakusten. Helduok ez ditugu gure formulak hitz inkonexuen errenkadetan oinarritzen, eta ulertzen ez dugun indar handiago bat behar dugu, erlijioa den, izadiaren indarra den, edo bai beste edozein indar misteriotsua azaldu ezin duguna den.

Formula gehienek izadian fedea erakusten dute, nahiz zentzu erlijioso batez hornituak egon batik bat. Lehenagokoan, arruntagoak ziren sendalariak gure Euskal Herrian, sorgin-aztiekin erlazionatuak argi eta garbi, baina egia esan, ez zeuden erabat onartuak ofizialtasun aldetik. Iñaki Barriola eta Caro Barojaren ustez, euskal medikuntza herrikoian bai enpirismoa, bai praktika eta bai erlijioa biltzen dira.

Erlijioari buruz hona hemen zer diosku Caro Barojak:

> No cabe duda de que las partes que ejercen mayor influencia sobre el campesino son la parte moral de la religión y la que gira en torno a los castigos en vida y post-mortem. La idea de que las malas acciones o las infracciones de los deberes religiosos son con frecuencia sancionados en vida, está siempre presente en la moral del campo. Muchas veces he oído decir que una inundación, que una granizada, que un accidente, son castigos de Dios. Desde pequeños emplean los chicos la amenaza de este castigo para vedarse mutuamente las acciones más insignificantes. Cuéntanse casos como el siguiente: «Un chico subió a un árbol a coger nidos el día de San Juan; se cayó del árbol y se rompió una pierna. Castigo de Dios porque ni en el día de San Juan ni en el día de San Pedro es libre subir a los árboles». Esta idea que aparece con toda la inocencia infantil no se borra con la madurez sino que evoluciona. La idea del principio del mal contrapuesto al del bien, es general y se aplica a las cosas

> más insignificantes. Así por ejemplo se dice que unos animales son de Dios, y otros del diablo. No se deben matar mariposas, porque las mariposas son de Dios, y si se matan, lloverá en castigo; pero no importa matar un sapo, porque el sapo es del diablo; lo mismo dicen con respecto a la amoña mantagorri, vaquita de San Antón. Lo que es bonito se considera como de Dios, lo feo del diablo. [...] Sobre estos dos elementos como base, se alza la religiosidad de la mayor parte, la gente ha cogido de un modo muy fuerte la idea de que es de orden fundamental el cumplimiento exacto y absoluto de los deberes religiosos que se exteriorizan y toman un aire social. Es decir, la asistencia a la mayor cantidad de ceremonias religiosas posible, la frecuentación de los mandamientos en su máximo grado, etc.

Ene ustean, erlijioa da formula gehien osatzen duen indarra, eta ez bakarrik egun Euskal Herrian dagoen erlijio zabalduena, kristautasuna alegia, baizik eta aintzinean geneukan erlijio zaharra ere bai. Aurreko puntuaren sarreran zenbait berri ematen dira gai honi buruzkoak, eta horregatik ez naiz orain hontaz luzatzen hasiko, soilik esan zein garrantzi handia daukaten zenbait elementu naturalek euskal kosmogoniaren osatzerakoan; printzipalena ilargia dugu, eta honekin batera eguzkia, zerua –Ortzi– eta izadiaren landare elementuak –Amalur–.

Hau ez zen euskaldunen siniskera bakarrik, eta halako eskema askoz gehiago ere zabaldua bide zen Europa osoan. Hau apur bat argitzeko Otto Rahn historialari germaniarraren ele batzuk ekarriko ditut:

> El druidismo era mas una doctrina filosófica que una religión y comprehendía: la teología, la astronomía las ciencias naturales, la medicina y el derecho. Lo que César llamaba la disciplina de los druidas no era sino una síntesis dogmática de estas ramas del saber, síntesis que ofrece sorprendentes afinidades con la filosofía pitagórica y con las filosofías de las teogonías hindúes y babilónicas. Los druidas enseñaban que la tierra y todo cuanto alberga había sido creado por el Dios de la muerte, Dispater –apika gure ilargia?–. El alma era de naturaleza divina; por ende inmortal, teniendo que transmigrar de cuerpo en cuerpo hasta que, purificada por la materia pueda entrar en el otro mundo, el del espíritu. Su supremo Dios ere Belenus o Belis, como lo denominaba el historiador griego Herodianos. Dicho Belenus no era otro que Apolo-Belio, el Dios de la luz –gure eguzkia?–. Dispater era el nombre latinizado del príncipe de los infiernos, Plutón, soberano de las almas pálidas de los que habían partido y guardián de los tesoros subterráneos. [...] La teogonía céltica parece haber sido dualista. La celtíbera lo era. Sólo bajo la dominación romana se hizo politeista. No cabe duda de que pudo mantenerse durante siglos en su forma original en los valles salvajes e inaccesibles de los Pirineos y en lo alto de sus montañas. Los druidas celtíberos veían en Dispater-Plutón al Zeus-Ohthonios grecolatino: Dios de la muerte, de la tormenta y del fuego y creador del mundo terrestre. Le hacen reinar en las profundidades de la tierra, con su martillo de trueno en la mano, o atravesar los aires en su carro tirado por carneros, sembrando la desolación y la muerte. Se asemeja a Wotan y a Thor, pero a pesar de su nombre grecolatino y su afinidad con las divinidades nórdicas mencionadas, no es sino la variante celtíbera de Ahriman (devastador) de iraníes, medas y partos. Según la doctrina del mazdeísmo iraní, dos

> son los principios que desde la eternidad luchan entre si: el de la vida-fecundidad y el de la muerte-destrucción. El primero tiene por símbolo el sol, la efusión de la luz espiritual, de la verdad y de la bondad, al que se le veneraba en Ahura-Mazda (Ormuzd), el Dios omnisciente. El segundo, simbolizado por las tinieblas de la noche, contiene el error, la maldad y la mentira, y encontraba su encarnación en Ahriman, el devastador. Ahura-Mazda ha creado el cielo y la tierra. Su creación ha quedado incompleta debido a la intervención de Ahriman. El ser humano tiene la obligación moral de luchar en pro del bien y en contra del mal, a favor de la verdad y en contra de la mentira. En la Naturaleza, tiene que destruir todas las plantas y animales dañinos, sobra todo la serpiente –«Suge bat akabatzen duenak zeruko iskalera bat irabazten du»–, el enemigo de Dios, y potenciar el crecimiento y desarrollo de las criaturas útiles. [...] El hecho de que Dispater-Ahriman celtíbero iraní exista también en sanscrito bajo la denominación de Dyaus pytar, en griego bajo el nombre de Zeus pater y en latin con el de Júpiter –euskaraz ez dateke agian ortzi*osta (ikus xiberutarren ostadarra), eta *osta*os (deus, iobis) + aita?–, puede esclarecer la riqueza e intensidad de relaciones que ha habido entre el mundo mediterraneo ario y el ámbito oriental de la civilización hindú, su colindante. Todas las castas sacerdotales de los arios primitivos conocieron en su comienzos, bajo la forma de misterio esotérico, el dualismo de celtíberos e iraníes. Tendremos que tenerlo en cuenta cuando, como colofón de nuestras consideraciones, hablemos del maniqueísmo dualista y de su variante occidental, el catarismo.

Hau ikusita, zilegitzat jo liteke hauxe pentsatzea: kultura indoeuropearra zein aitzinindoeuropear zenbaitetan bi jainko zeuden garrantzitsuak, argia eta iluna, ona eta gaiztoa, gorena eta behena, hau da, eguzkia eta ilargia. Lehenengoa sortzailea da, egunaren asmatzailea –*egun* + *ki*–, eta bigarrena eriotzaren mezularia –*hil* + *argi*–. Ortzi eta Amalur bi honen beste aldairak izan daitezke, eta aisaki parekatzen dira bakoitzaren berezitasunak.

Formula erlijiosoak

Sarreran jada erlijioaren garrantzia ikusi da, bainan agian zergatia ez da oso garbi geratu. Bai eman direla berri ugari erlijio zaharrak izan zezakeen berezitasunei buruz, bainan hau formuletan gauzaturik ikusi behar da. Hori da hain zuzen oraintxe egiten saiatuko dena.

Ezaguna den bezalaxe erlijio zaharraren agerpena zenbait formuletan ikus daiteke izkutuan. Agian argienak eta ene ustez garrantzitsuenak eguzkiari egiten zaizkion agurrak lirateke, eguzkia joaten da eta agurtuz eskatzen zaio hurrengo egunean harzara etortzeko; egitan otoitz txipi batzuen aurrean gaude: *Adio Joanes* –Donibane noski, udako solstizioaren jaia kristauek hartu baitzuten beren santu handi honen eguna ospatzeko– *haugi bihar muga onez, Adios amandre, biharartio, Eguzkia joan da bere amagana, bihar etorriko da denpora ona bada, Gaur kontsolatu nozu eguzkia, bihar bere etorri zakidaz kontsola naiteari,* edo *O iruzki saindia! Eman zahuzu biziko eta hileko argia*. Besteetan etortzen den eguzkiari agurra izan daiteke: *Ongi etorri iduzki xuri*.

Aurreko atalaren sarreran argi eta garbi uzten da aintzinako euskaldunentzat bai eguzkia bai ilargia emeak zirela. Bi jinko garrantzitsuenak sexu honetakoak izateak egun harri gaitzake, bainan ezin da ahaztu euskal gizarte zaharrak bereizten zuen gauza bat matriarkalismoa zela. Interesgarri xamar ere deritzat puntu honetara ailegatuta Otto Rahnen pasarte txipi bat aipatzea:

> El dogma mosaico del Génesis según el cual Jahvé habría creado primero a Adán andrógino para hacer de él el padre y la madre de Eva, nunca tuvo allí aceptable acogida –okzitanian–. Según el mito occitano, Adán y Eva eran dos ángeles caídos condenados, con lucifer, a vagar de estrella en estrella en su exilio terrenal. Eva goza de los mismos derechos que Adán, tanto en el cielo como en la tierra. No es la varona de Adán sino su domina, pues los occitanos, como sus antepasados los iberos y los celtas –eta euskaldunak– veían en la mujer algo profético y divino. La Eva judía se halla por tan debajo del hombre, que primero lleva el nombre de su padre y luego el de su marido, no siendo siquiera digna de tener nombre propio. Las familias más ancestrales del Languedoc, en especial de los Pirineos, donde la tradición celtíbera se había mantenido en su más alto grado de pureza, llevaban el nombre de sus antepasadas.

Formula hauek erraz pareka daitezke sua estaltzeko edo su berria etxera eramaten denerako esaten direnekin. Azken finean, Kristo idurikatzen duen ikurra argia da *–ni naiz argia eta bizia...–* eta aintzinako jinko handiaren iduria ere bada, zer bestenaz eguzkia idurikatzeko? *Aita beira zazu gure etxia, Semia beira zazu gure ganbara, Izpiritu Saindia beira zazu gure arima eta gorputza* formula erabat kristaua da eta zerbait aintzina baldin bada ekintza bera dugu, eta ez esakera. Halaz ere zenbait formulek elementu berria sartzen dute, gaitza alegia: *Jaun San Bladi nik sua estali, bortan bada gaistaginik han harri bedi, Jaun Santa Kruz zilar Santa Kruz, Jaun San Bladi, nik sue estali, edozoin gaisto jin baladi bortan bedi harri; Jinkoari dago gau oroz, Anderdena Maria gau oroz, Jinkoa eta anderdena Maria zaute gurekin etzatera, aingeru hunak gure supazterrera, gure suiaren beiratzera, Jondone Baladi nik suia estali, gaitz bat jin baledi, bortan geldi bedi* edo *Jondoni Petiri, zain otoi su hori, gaitza jin baladi, urrun egon bedi,* sua estaltzerakoan arriskua badagoke, eta konjuroa beharrezkoa egiten da. Beste formulak su berriaz ari dira: *Jauna oizu su zaharra eta ekatzu berria* edo *Su zaharra kanpora, berria barruna*. Azken finean, su berria bazkoz hartzen zen, eta udaberria jada heldu da. Laster dator udako solstizioa eta eguzki berri bat askozaz ere indartsuagoa.

Donibaneko suen gainean saltatzeko erabiltzen diren formulekin zerikusirik badu esaera honek: *Su zarra kanpora, berri barruna*. Hau da, ondasuna gera dadila eta gaitza bihoa lasterren: *Sarnafera, huna barnera gaistoa kanpora, arto ta ogia Espaiñara, ezkabia Frantziara* edo *Zarrenak fuera, atso guziak ganbelapera*.

Amalurrari sorturiko formulak arras gutxi dira bilduma hontan dagertzenak, biga besterik, baina nahiko bereziak. Bata zuhaitzak bota aurretik esaten zena, *Guk botako zaitugu ta parkatu iguzu* eta bestea ur berriari dagokiona *Ur goiena ur barrena urte berri egun ona*. Halaz ere azken honetaz oparotsu aritu naiz aurreko atalean.

Ilargiak ere badauzka bere formulak, baina orokorrean jakinduri herrikoia erakusten dituzten esaera modukoak dira. Adibiderik nabarmenenak *Egur ona nahi duenak gorapenean egotxi behar du, Erein ere ez ta deusik egiten hilberrian, Hilbera da onena asto nahiz ardiari ilea ebakitzeko, Hilberriz ebakitako ilea hazi ta meaztu egiten da,* edo *Hilberriz egindako ongarria lurrun batetan egoten da.* Hauetaz gainera bada formula bakar bat guztiz interesgarriena: *Gauargi! Hi aldiz jin akitala egunargia* formulan eguzkiaren argia eskatzen da eta ilargiarena ez da nahi, eta bitxiena zera da, amets txarrak edo inguma aldentzeko formula bat dela! –hilen argiak amets gaiztoak dakartzea?

Ilargiarekin gertatzen den bezalaxe, Ortziren agerpen gehienak zer egin behar ez den jakiteko eginak dira. Hau astegunen bidez emanda dago. Asteartea eta ostirala dira formula guztietan agertzen diren egunak eta beti ere zentzu ezezkor batekin, edozein ekintzarako: *Astearte ta ostiraletan ezta ebaki behar josi behar den gauzarik, Asteazken eta ostiraleko argizagi berriak aro gaizto ekartzen du, Bariakuan trumoiak hots egiten badau, eurizko bederatziurrena, Barikuetan ipinita jaioriko txitak zori txarra izango daue, Barikuko iretargia txarra izaten da, Barikuko jaiotzea suerte txarrekoa, Martitzena ta barikua egun txarrak dira behar barri bat hasteko, Martitzeneko ezkontzea martirioa, Martitzen ta bariakuetan* ez *da ule puntarik ebagi behar, Ortzilairean sobera irri egiten duenak igandean nigar eginen du, Ostirala sorgin eguna da* edo *Ostiraleko hazkazalekin infernurako galtzada egiten du deabruak*. Halaz ere, Ortzik beste agerraldi batzuk ere izan ditzake: bata ortzadarrekin erlazionaturik: sexuen gainean duen eragina azaltzen dena: *Erromako zubi azpitik igaroten dana, gizona bada emakumea egiten da emakumea bada gizondu;* geroxeago berrikusiko dena formula taumatorgikoez aritzean: *Ortzadarrak uda edaten nere karitxak orai juateri; Ostreilakak biajeroari Erromako bidea erakusten die* formula ilun xamar hagitzen da, alta zere da *ostreilakak* hori, izarrak edo Ortzirekin zerikusirik duen zerbait?; eta bestea ostotsarekin: hauexek dira azalpen xume eta inozenteak zerutik datozen soinu beldurgarri horien konprenitzeko: *Deabruak boletan dabiltza, Deabruak haserreturik dabiltza, Etsaiak alkarri su egozten* ari *dituk, Gure aitalta bolan dabil,* edo *Txerren bolaka dabil.*

Zenbait formula esoterikoak ere badira gure bilduma honetan, gehienetan sorginekin erlazionaturik, eta horixe beragatik ene ustez ez lirateke beste batzuk bezain zaharrak. Halaz ere interesgarriak suertatzen dira. Gehienak Dunypétréren artikuluan agertzen dira. Batzuk sorgina izateko zer baldintzak bete behar diren azaltzen dizkigu: *Erpuruaz esku muturra jotzen duena sorgina omen da, Esakubitarra beste eskuko atzamar bigaz hartzen dabena sorgina ei da, Oraiña daukana ezta sorgiña* edo *Orinik eztuen persona sorgina da;* beste batzuk akelarretara joateko formulak dira edo akelarreekin erlazionaturik: *Akelarrerat hementik sasi guzien gainetik, hodei guzien azpitik, oren bat harako, oren bat hanko, oren bat hunako, jauzi bat eta brixt, Akelarrian errekan, sorginak oro kurrikan, Amuko kondarraren gainean sorginak piza egiten dui, Zahar lehen gazte hemen akelarren* edo *Zoin eder akelarrian ipurdiak agerian;* baina gehienak esoteriko bezala joko nituzke nik, helburu ezberdinetarako, betiere sorginkeriaren ildotik doazenak, eta funtsgabeko kantilenen itxura erakusten dutenak –haur formulak bezalakotsuenak ditugu atal honetan–: *Atso batzu hinki hanka, bai eta zonbait lasterka, Begi oker, tripa musker,* zaia *binper, Etor diten gure buru, zortzi mila orga debru, Gaur dala Maria kale, bihar dala zanpantzart, egin dezagun arte tripan larruak zart, Higi hadi da*

gau erdi, altx ipurdi, Jo harat eta jo hunat denak igor deabruetarat, Trikun trakun mendian ilun, nehori gau hun edo *Zeruan izar, lurrean belar, itsasuan hare, hainbeste pekatu egindare barkatuek izango diela. Hau ostiralien eta launbatien esaten duena aitu ta* ikasi *ez ikasi ta esan ez iten dubena seiñale izango dela juizioko egunien.*

Madarikazioa izaeraz zerbait magikoa dugu; norbaiten baitan beste norbaiti edo zerbaiti gaitza helarazteko desio bizia hitz gogorretan gauzaturik, arrazoiekin edo arrazoirik gabe, eta beti ere irain zentzu lizun batekin. Dauden madarikazioak ugariak dira: osasuna galtzeko edo hiltzeko: *Bernazurreak hausiko aldattaz, Errementauko aldau, Guzurra badiñot, nagoan lekutik eneuke ziririk egin behar, Hamaika mila demoniñok eramango altek amen, Hau egia ezpada, ez nikezu hementin higitu behar, Hilko alduk amen; Itoko alda, Itoko al duk, Lepezurra hautsiko al dik, Lehertuko al duk, amen, Lupuak itoko aldik, Lupuak jango aldik, Lupuak joko aldau, Tortxa erreko diakonat bai nik horri, Tximistak burutik sart ta orpotik atera ta errebenta arraio ingo aldik amen* edo *Zikatuko alaz,* humoristikoak: *Amak hi egin hindunanean kaka mokordo bat egin balu hark ongarritako bederen balioko ziñenan* edo *Hi jaio hintzanean arkuma buru zuri bat jaio balitz hobe genduan.* Halaz ere ez dut formula hauetan dagerrenaz iruzkinik egingo, baizik eta Baztanen eta dantza talde aunitzetan nahiko ezaguna den abesti eder bati buruz zerbait ekarriko dut. Arraiozko herrian bazen *Maiatzeko Erreginak* deituriko festa. Urte horretan lehenengo Jaunartze egina zeukaten neskatoak ateratzen ziren hilabete horretan eta etxez etxe abesti batekin eskatzen zuten. Puska ederrak jasotzen zituztenean bazeuzkaten kopla batzuk prestaturik eskertzeko, baina puskarik ez zegoenean –oso kasu gutxi, baino gertatzen zen noizbehinkan– bertso irainkorrak ere bazituzten: *Utzan utzan isilik/horrek eztin dirurik/badieraman bolsa zahar bat/zorri zuriz beterik/ akio ta* ma*kio/ lepezurra hauts balekio/ni barber mediku egiñartio/sendatu ezpalekio*. Eman dezake halako madarikazioak ez duela indar handirik, eta ni ziur naiz erderaren eraginez, erderaz madarikatzen ikasi dugulako gertatzen dela hori; hizkuntza bakoitzak bere funtzioak betetzeko bere bideak ditu, eta euskarak ere bai –gogoan daukat *ojalatero* hitza hau esatean–. Bada, Iruñerriko dantza talde bat Arraiotzera bere ikerketak egitera joan zenean, galdetu zieten artean bazen emakume bat bertso hauek esan nahi ez zituena oso gogorrak iduritzen zitzaizkiolako. Eta Aita Donostiak bere artikulu batetan, «Erregiñetan o las fiestas de las mayas», *EA,* 1916, 241-252, honela diosku.

> He podido saber la causa de que en un pueblo próximo desapareciera, hace unos cuarenta años la fiesta de las mayas. Débese a las importunas peticiones y, quizá, a la saetilla que las mayas dirigen a los que no dejan nada en su platillo.

Formula kristauek nahiko multzo handia osatzen dute. Arruntenak oheratu aurretik esaten dira, eta bi talde ezberdinetan bereiz daitezke: alde batetik, etsai edo gaitz guzien aurka babesa eskatzen dutenak: *Aingeru guardiako maitia guarda nezazu eta behira etsai eskarmentu horen errekontru gaisto guzietatik. Halabiz., Aingeru hunak sukaldea, jinkua eta Anderdena maria, zahute gurekin oheat., Aita beira zazu gure etxia, Semia beira zazu gure ganbara, Izpiritu Saindia beira zazu gure arima eta gorputza., Andere Santana Birjinaren ama, banoa ohe hontara lo egitera gorputzaren errepasautzera, gaur jiten bada ene hil orena, aingeru San Gabriel igorrazu ene arimaren guardatzera, Jesus dut aita, Birjina ama, aingeruek izeba, apostoluek oseba, ezkilek johute nundian, olle-*

rrek beren ordian, jinkua eta Anderdena Maria maitia ene arima zien gomendian eta zien loria saindian, Ave Maria xuria bost penitentzia, lurrak dakar ogia, xotxak dakar gorria, lokaria mokaria, parabisuko itzarria, parabisuan zenbaiate, hetatik hobenetaik sar nindaike, urxo xuria bidian baratu, zer dakarrak hor? olio ta krisma, hauri batea nezak, ehezaket batea, zeren ez, *haren ez, zeruetako jainko jauna diok erromako zubi puntan urrez urreztaturik zilarrez zilarreztaturik elorri zuriz koronaturik argi xuriz pintaturik, hori gauian edo egunian hiruetan erraiten duenak* ez *duke ariman bekaturik, suyan denian suya erre ez tio, urian denian urak ito ez tio, bidean doanian gaitzak arrapa ez tio, azken juizioko egunian ere salba nio, Ave maria xuriya, xuriya eta ederra, anpara nazazu zeru kaskaletan, tribunal kakaretan, Jesukristo gure jaunak meza berria eman zubenien han zeuden San Juan eta San Pedro anaiatik beti itaniko fest bihar komunika, hau ostiraletan hiru aldiz esaten duenak* ez *duela izango bekaturik. Bekatue utzi ta prugatoriotik animak ateratzen. Dakinak eztakinai erakusteko aurriz bi ikasten ahal eta ikas eztuenik izain duela azken juizioko egunin seiñalia, Banoa ilunpe hontara eztakit noiz artio, gaur gure azken orena heldua balin bada zure esku saindietan jar bedi gure arima, Banoa loaren hartzera Jesus, zure izenean, gau eta egun begira nazazu ene etsaien artean, jauna zure odol dibinoaz erosi nauzu munduan, arren errezibi nazazu hil eta ondoan zeruan, Etxekoak ohea eta aingeruak sukaldea, jinkoa barnea, deabrua kanpoa, Etzaten niz oheat leku ilun bateat, jauna ni hemendik jeiki gabe izaiten bada ene azken orena, izan bedi ene arima zure esku sainduetan errezibitia, Etziten niz jinkoakin, jeikiten ama birginakin, Jesus dut bihiotzean, aingeruak sahietsean, gaiztoak aparta zaizkit ez nazaziela ataka loan ez amestean, Jesusekin etzan, Jesusekin jeiki, jeinkua eta Anderdena Maria ohian etzazkizkit, hiru aingeru bat ohe burukitan eta biga zangotan, gaur hiltzen bagira, gure arima zure esku sainduetan, Jesus etzitean, Jesus xeikitean, Jesus bara zakista bihotzean, Jesus dizut aita, Birjina dizut ama, apostoloa osaba, San Migel dizut guardia, orain ama Birginaren alabantzan ave maria* edo *Parabisuko hiltzena, ostia konsagratzalia, benedikazazu aldaria, benedikazazu ofia, apartadi satan gaistua, jinkua diat enekin, ni ere bai harekin, jinkua Anderdena Maria zahute ziek enekin.* Hauek denez gainera, oso arruntak eta guztiz ezagunak, bada formula bat Juan Garmendiak jasoa erabat bitxia eta aipatzea merezi duena: *Aitzkorri, Aralar, trintxera batallon, remisionem pecatorum nostrum, amen. Gaizto guztiak sar daitezela zeruan.* Bi mendi hauek erlazioren bat izan dukete Mari jinkosarekin?

Bestaldetik, amets gaiztoak ez izateko otoitzak eta formulak badira santu ezberdinei zuzenduak –Karmen, Kodesko birjina, Ines, Adres–: *Ama birgina Karmes, ama birgina Kodes, iten baut amets izan deila ones, Ama birgina Kodes nik eiten dot amets, izan daila ones, Amandre Santa Ines bart egin dut amets, berriz egin eztezadan, ez gaitzez ta ez onez, Amandre Santa Ines, bart egin dut amets, eztakit onez ala gaitzez, onez egin badet, betor nere bidez, gaitzez egin badet bijoa bere bidez* edo *San Andres barda ein dut amets zurez eta neurez, jinkoa ta Andredena Maria har nezazie zien hunez, amen.* Multzo honen beste aldaira bat inguma aldentzeko formulak lirateke: *Etsaia apartakit, gurutziaren indarrez, amen. Saluk, Sainmark, San Matio, San Juan, Santa Maria apartakit, Gauargi, hi aldiz jin akitala egunargi, Inguma enauk hire beldur, jinkoa eta Andre Maria hartzen tiat lagun, zeruan izar, lurrean belar, kostan hare, hek guziak kondatu arte, ehadiela nereganat ager, Ingumes erromes, ez niok hire beldurrez, Jesus diat aita, ama birgiña ama, zeruko saindu eta aingeru guziak guarda, Mahoma enuk hire beldur, etzaten nuk jinkuaikin, jeikitzen*

anderdena Mariaikin, aingeru ona sahetsian, Jesus ene bihotzian, janian, edanian, loan, ametsian, Mahuma gaur enuk hire beldur, loan ez ihatzarrian jinkua diau aita anderdena Maria ama, Jandonahani gazaita, Jandone Petri kusi, horiek denak ditiagu askazi loiten ahal diau ausarki, Mahuma hi e hiz ene laguna, jinkua eta anderdena Maria dira ene lagunak edo *Saluk Sanmark Sanmateo, San Juan Santa Maria, apartadi ingumerie.*

Hildako, arima, hilerri edo herioarekin harreman dutenik ere badira: *Agur hilak gure aitzinekoak, ziek gu bezala izan zireztenak, gu ziek bezala izanen girenak, lo hun bat eman dautziela jainkoan, Aitarekin, semearekin, ispiritu saindiarekin, ohatzen lau adarrekin, Jinkuak daiziela egun hun, hilak eta biziak, hemen zizten guziak, ziek gu bezala izanak, guk ziek bezala beharrak* edo *Parte onekoa bazara, zer gura dozun esaizu, parte txarrekoa bazara, zoaz nigandik zazpi estatuan*. Eta madarikazioak agertu badira, baita bedeinkapenak ere: *Abelek gorde dagizala, Aingeruak dantza ditezela gure sukaldean* edo *Magdalenak gorde zagizala.*

Azkenik, badira zenbait formula aurreko taldetan sar ez daitezkeenak: *Erramu egunez jauntzi berri bat estrenatzen delarik, deabruari begi bat kentzen zako, Erramu larunbata eta Lazaro ostiralez barutzen dena salbatuko da, Eskuarea hortzez gora dagoenean, Andra Maria negarrez egoten da* edo *Gauza galdua edireiteko, har San Antonio ararteko.*

Formula taumaturgikoak

Formula taumaturgikoak bi motatakoak izan daitezke bereiziki; zeharkako formulak deituko nituzkenak eta formula zuzenak alegia. Lehendabizikoak, jakinduri herrikoia lirateke, herriak sendatzeko bideak formuletan mantentzen ditu –hauxe bai dela erregela mnemotekniko bat–. Lehendabizikoekin esku-liburu eder bat egin daiteke mota guzietako eritasunak sendatzeko: hortzetako minak: *Agineko minik inoiz ez izateko goatzetik jeiki ta pertz bete ur hartu ta han sartu ankak, Agineko minik inoiz* ez *izateko, goizean belarri atzeak goitik bera ondo igortzi behar dira* eta *Sakelean baratxuria hogei ta lau orduz iduki behar da agineko mina kentzeko;* begiko mina: *Umeari begiak osatuteko ona da barautxua* edo *Begiko mina kentzeko bortako giltza bederatzi aldiz begian igaraiten duzu. Begia bihotzari jarraikitzen ziozu;* garitzak: *Garatzak sendatzeko bare bat osatu behar da* edo *Garitzak aingeru bedarrekin batera ta bestera igortziezkero kentzen dira;* katarro eta pulmonia: *Katarroa gauza beroakaz kentzen da, Pulmonia kentzeko larra bedarrakaz purgau ta gero izerditu behar da* edo *Pulmonia kentzeko mugita ur egosia da guztiz ona;* naparreria: *Naparreriak osatuteko beroa behar dau;* ortzikara: *Ortzikara ausanakaz igurdi ta joaten da;* sabeleko mina: *Sabeleko minak kentzeko erpuru biakaz sabela igurdi ta igurdi egun behar dako, Sabeleko mina kentzeko eukazanari bere garnua edaten emoten dakon* edo *Sabeleko mina kentzeko ume baten txiza edaten emon bekio;* zuldarra: *Txiza edanda kentzen da zuldarra* edo *Zuldarrak San Juan bedarrez eginiko enplastua behar dau;* zoldua: *Zoldua auspean kipula ario piska bategaz erre ta kentzen da;* azkordina: *Gaztainak egositako ura ona da azkordinak osatuteko;* edo gaitza besterik gabe: *Uiaz kentzen da ezkabia.*

Destinatzaileak ez dira normalean espezifikatzen, baina behin edo behin bai agertzen dela, animaliak: *Abelgorriak gatxak jo eztagizan aker bat kortan eukitea ona da,* edo

umeak: *Haurren basasuiaren sendatzeko ona duzu barurtuia*. Formula gehienak modu zientifiko-magiko batez emanda badatoz –bai izadiaren elementuak erabiliz bai errito bitxiak eginez–, badira ere kutsu kristaua daukatenak. Hauetan zein santuari errezatu behar zaion esaten da. Aipatzekoa da zenbait farmuletan gaitz ezberdinetako San Gregorio erabiltzen dela. Hau erlazionaturik dago inolako zalantzarik gabe santu honen urarekin –Sorladako ohitura hain zuzen ere, baina santuz aldatu ezkero, bai Obanos edo Gaunakoa izan daiteke; honetaz ikus daiteke Zintzarriren *Euskadi insólita* lantxoan agertzen den «Beber en craneo» artikuluxka (Donostia, 1980)–.

Bigarrenak ere usu gertatzen dira, eta ez dira aurrekoak bezalaxe esku liburu gisa erabil daitezkeen esaerak, baizik eta konjuroak berak direla eritasunak sendatzeko. Erabilera ere nahiko zabala da: legena: *Aitaren, semearen, espiritu santuaren izenean, amen;* hagienetako mina: *Ama birgiñea, eutsi hagin zarra ta ekatzu barria, Jaungoikoa, horra nere hagin zaharra eta ekar bezait berria, Jinko jauna, orizu hagin zaharra ta emaguzu berria, Maria Teilatuko gonagorria, eutsi hagin zaharra ta ekazu berria, Saguzaharra eutsi hagin zaharra ta ekazu hagin barri* edo *To xore zaharra edauk nore berria;* azkordina: *Azkordin dakar,* basasua: *Basasua itxasua ozanera, idukalen semearken semeorabana juantxekago;* garitzak: *Bat, bat eta erdi, bapez ta erdi, Hau bat, hau bapez, hau bat, hau bapez, Ihia bat enorra bi, ihi honek kenduko dik enor hori, Oltzadarra edaten ene kalitxa ehiartzen, Orate fratres fuera berrugates* edo *Zazpi sei bost lau hiru bi bato,* zotina: *Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi* (hau esan behar da arnasa batean), *Jesus, ama birgiña, ongi etorri txopina, bart etorri bazina, ongi afaldurik fain zina* edo *Xopina ponpina, bart torri izan bazina, biek etxinen ginen;* begiko zabarrak: *Begia barrura, zamarra kanpora, andra mari lagun;* belauneko mina: *Belaun hontatik pasa dedila bestera, hontatik joan dedila hemendik;* erpurukoa: *Zingira min zingira siñal, zingira nik sendatu, aitarekin, semearekin, izpiritu sainduarekin, nik urratu, Zingira zor, zingira sei, zingiri gurutzi, zingiri salama, etzaitut nik sendatzen*, *aitaren, semearen, ezpiritu santuaren bendeziua, senda zala, amen* edo *Zingiri sor, zingiri salomon, nik etzaitut sendatzen, aitak eta semeak eta espiritu santuak gabe;* girgilak: *Boladak dira bederatzi, bederatziek zortzi, zortziek zazpi, zazpiek sei, seiek bost, bostek lau, lauek hiru, hiruek bi, biek bat, Gingilak dira bederatzi, bederatziek zortzi, zortziek zazpi, zazpiek sei, seiek bost, bostek lau, lauek hiru, hiruek bi, biek bat, sekulan gehiago sor eztadiela gingila biki bat, Girgilak dira bederatzi, bederatziek zortzi, zortziek zazpi, zazpiek sei, seiek bost, bostek lau, lauek hiru, hiruek bi, biek* bat, *girgilak dira zirt edo zart, Kirkila bat eta kirkila bi, kirkilak dira hamabi, hamabitik hamaikara, hamaikatik hamarrera, hamarretik bederatzira, bederatzitik zortzira, zortzitik zazpira, zazpitik seira, seitik bostera, bostetik lauera, lautik hirura, hirutik bira, bitik batera, batetik bapeze*ra, *Maizandre bat maizandre bi, maizandreak dira bederatzi, bederatziak zortzi, zortziak zazpi, zazpiak sei*, *seiak bost, bostak lau, lauak hiru, hiruak bi, biak bat, bat bat ere ez, maizandrerik ez;* eta zainartatzea: *Sain tiretu, sain urratu, sana bere tokian sartu* edo *Zan tiratu zan urratu, zana bere lekuan sartu*.

Hauen artean ugariak dira erlijio kristauaren elementuak erabiltzen dituzten formulak. Halarik ere, ardura erabiltzen den erabide bat aipatzea merezi duena bere arkaismoarengatik, zenbakien erabilera da, batez ere garitzak eta girgilak sendatzeko. Modu arruntera zera da: goitik bera zenbatu garitzak desagertu arte, ikusi den bezala.

Formula magikoak

Usu aurki daitezken formula batzuk sortilegikoak dira, egoala lortzekoak, zorte ona zein txarra. Batzutan zer egin behar den, besteetan aztarnak irakurtzen jakiteko formulak ditugu. Badira egoala adierazten dutenak: *Arrastiko aiñarbak* esperantxa *ekartzen du, goizekoak xagriña, eguerdikoak plazera* edo *Lau ostodun mielkara aurkitzen duena xoritsua izanen xu,* eta ezkabia iragartzen digutenak: *Jo harat eta jo hunat, denak igor deabruetarat* edo *Miarma baltzak ameraunetik urteten badau, zori txar bat dakar etxera.* Besteetan gure egoera ekonomikoa agerian geratzen da, bai ona: *Eskumuturrean kukusoak atxikitzen badu, dirua seguru* edo *Labana bat agoz gora badago loteria saria izango,* eta bai txarra: *Aizkora ahoz gora badago, bere jabea aurten hilen.* Berrien etorrera ere asma daiteke formulen bidez: *Aramu baltza lenengo ikusten dabena zori txarrak joko dau, Arkakusoa eskuan harrapatu ezkero berriak laster etxera, Arratsaldeko lipuak berri ona ekartzen du, goizekoak berri txarra*, *Mitxirrika argi ondoan badabil, biharamonean berri onak, Txilibili txuriak barri onak, baltxak txarrak* edo *tximeleta baltza baldin bada, hileta iragartzen du, zuria baldin bada, berri onak dakarzki.* Heriotza ere igartzen da: *Aize haundia dabilenean*, *eskribauren bat hil da, Armiarma beltz haundiak etxean norbait hilen dela iragartzen du, Bi aldiz bateatua, bi aldiz hilen da, Oilarrak gabaz zazpi kukurruku etxean norbait hilko danean zantzu, Txakur bat gau ilun batez dausiz edo aiñuariz ari denean norbait uste eztugularik hilen da* edo *Zakurra gabez uluka ari denean norbait laster hilen da.* Haserreak: *Atorra alderantziz jartzen bada, auzoan haserrea, Galtzak binperrez jantzi ezkero xantza izanen du hartan* edo *Galtzerdiak iraultziz gainera jantzi ezkero nonbait auzia.* Senargaia ea infidela den: *Dabantia korda laxatzen bada senargaia infidel da* edo *Moñoa askaketan danean beste batekin dabil gizona.* Edertasuna betiere kearekin lotuta dager: *Ederra izan nahi duena jar dadiela ekea den tokian, Ederrenari jiten zako kea* edo *Kea ederregana joaten da.* Mirailak ere zerbait magiko dira: *Gabaz ezta izpilura begira egon behar* edo *Izpilu ostean txerren dago.* Askotan kontuan hartzen da normalitatetik kanpo dagoena, esaterako gauzak alderantziz daudenean; hauxe jada haserreen kontuarekin ikusi egin da. Katuari hitz egiten zaio: *Etxerako zara ta etxerako izan zatez, Ez hiz aurten ezkonduko* (buztana zapaltzerakoan) edo *Zazpi urtez ez hiz ezkonduko* (kasu berean); eta erleekin formula asko sortzen dira –ez da ahantzi behar euskal gizartean erleek izan duten garrantzia, esaterako argizaria egin jabe hilberriarentzako–: *Diruz saldu nahiz erositako erleari ezkabia jiten zako, Erleak aurretik igarten dabe ekatxa noz datorren*, *Erleren bat kristalera datorrenean norbait hilan da, Erle bat lehiolat jiten denean eztuzu erho behar, Erle ebatsiak eztu eztirik* ez *umerik egiten, Erleak eztu lanik agirian egiten* edo *Erleak hiltzea pekatu handia da.* Beste formula bereziak badira erosterakoan dendariari diru justua ematen bazaio: *Aldi bateko bizia badaukazu, Aurten etzara hilko, Enoa aurten hilen, Eperra izan baledi, hiretako izanen huen* edo *Lastima dek hire begia lurrak jan beharra.* Bazkaltzerakoan ere, zenbait formula ezagunak badira, gaurko *on egin* moldekoak: *Gure aitaita bolan dabil, Janak on dagizula, edanak gaitzik ez, gorputzak osasuna, animak kalterik ez, Janak on dagizula, edanak kalterik ez, Frantzisko gureak ekarrita, okolluan ahuntzik ez, Jainkoak estreña on daigula, Jinkoa gauza berri, eman azaguzu pake ta osagarri, Jinkoa zure izenean, Ni bezala balego munduko gaizkiena, On dagizula, Zeure izenean ta neure gizenean, Zuen osasunerako ta neure onerako* eta *Zure osagarri ta ene zara-*

giari. Azkenik, baditugu ere zentzu oso argia ez duten zenbait formula: *Dominixteun, ehun oxtikun, Geu geran bezala, kontrako liburua ekarri degu, Inguruz inguru intxaur hostoa liburu, kartillaz Aitzkorri, al maiz de Zegama, al maiz de Zuzpurrutegi, amen* edo *Zehe bat sudur, motto makur, bizkar kunkur.*

Formula taumaturgikoetan kausi daitekeen zientziatasuna ez da oso handia, hasiera batetan pentsa zitekenaren aurka. Deitu ditugun formula zuzen guziak, kantilenak diren aldetik, zenbatze magikoak edo hitzen errenkada zentzugabekoak edo inbokazioak baino besterik ez dira. Zeharkako formuletan erabilitako medioak ere ez dira oso zientifikoak; badira erlijioa aurkezten digutenak erremedio bezala eta errezatzea dugu erabiderik onena gaitz guziak sendatzeko, eritsunak leuntzeko. Bakoitzean, zein santuari errezatu edo eskatu behar zaion eta zein gaixotasunarentzako ona den zehazten delarik.

Badira halaber elementu naturalak zein ekintza bitxiak erakusten dituzten formulak ere. Hona hemen laburpen xume bat: aginetako mina kentzeko urez garbitu behar dira hankak, edo belarri bereziez igurtzi, edo egun batez baratxuri bat poltsikoan eraman; zuldarra sendatzeko txiza edan behar da, edo San Juan belarrez enplastu bat egin, edo marraskilo bat zatitu; edo begiko mina leuntzeko giltza begietatik pasa behar da, edo barau txuaz baliatu.

Azterketa formala

Magikotasunaren atalean jada zenbakiez osaturiko formula taumaturgiko zuzenak ikusi egin dira, baina magikotasun horren lortzeko bakarrik ez ditugu erabide hauek; helburu estilistiko zein mnemoteknikoak ere badira. Enumerazioak garrantzitsuak ditugu otoitzetan batik bat. Batzutan, trinitate santaren elementuak erabiltzen dira formula berean, eta bestetan santuen zerrenda luzeak dira botatzen dena. Paralelismoak ere biziki erabilera zabala dauka formuletan. Normalena bi terminoen kontrajarpena dugu, dualismo baten barruan, ona eta txarraren artean; agian adibiderik nabarmenenak Donibaneko suen gainean jauzteko formulak genituzke nahiz beste formula magikoak ere egon; halarik ere dualismoa ez da soilik horrelako formula esoterikoetan aurkitzen, eta taumaturgiko zein kristauagoetan ere ardura agertzen zaigu.

Hitzen errepikapena ere oso arrunta hagitzen da, bai indar magikoa lortzearren, bai erritmo bat markatzeko helburu mnemoteknikoekin, bai asmo estilistikoengatik. Sarreran jadanik kantilena bat zer den definitzerakoan, argi geratzen da errepikapena edo leloaren garrantzia, eta haurren kantilenetan askoz nabariagoa den ezaugarri baten aitzinean baldin bagaude, ezin da esan atal honetako formuletan ez dagoela halakorik. *Sain tiretu sain urratu saina bere tokian sartu* edo *Zan tiratu zan urratu zana bere lekuan sartu* formuletan esaterako, *zan* edo *sain* hitzak formula osoaren ardatza bihurtzen da; inbokazioaren indar guztia ele honen gainean erortzen da, eta hau da hain zuzen ere hiru aldiz errepikatzen dena. Antzeko zerbait jazotzen da ikusi ditugun erpuruak sendatzeko dauden formulekin. Hauetan *zingira* edo *zingiri* hitzek formulak egituratzen dituzte, eta arreta gehiena beraietan datza, ondoko hitzak desitxuraketa baten barruan koka ditzakegularik nonbait: *zingira sor, zingira gei, zingira gurutzi, zingira salama.*

Besteetan, paralelismoa leixa-prén errekurtsoaren antzeko modu batez ager daiteke. Esaterako: *Ave Maria xuria, bost penitentzia; lurrak dakar ogia, xotxak dakar gorria. Lokarria, mokaria, parabisuko itzaria. Parabisuan zenbat ate? Hetaik hobenetaik sar nindaike. Urzo xuria bidian baratu: –Zer dakarrak hor? –Olio ta krisma. –Hauri, batea nezak. –Ehezaket batea. –Zeren ez? –Haren ez. Zeruetako jainko jauna diok Erromako zubi puntan urrez urreztaturik, zilarrez zilarreztaturik, elorri zuriz koronaturik, argi xuriz pintaturik. Hori gauian edo egunian hiruetan erraiten duenak ez duke ariman bekaturik, suyan denian suyak erre ez tio, urean denian urak ito ez tio, bidean doanian gaitzak harrapa ez tio, azken juizioko egunian ere salba nio* edo oheratu aurretik goatzea bedeinkatzeko erabiltzen den *Parabisuko hiltzena, ostia konsagratzalia, benedikahuzu aldaria, benedikazazu ofia; apartadi satan gaistua, jinkua diat enekin, ni ere bai harekin, jinkua eta anderdena maria zahute ziek enekin*. Hauetan bai hitz batzuen errepikapena eta barneko errimarekin jolasten da.

Erritmoaren tratamendua ere, aurreko puntuaren barruan ikus daiteke inolako aferarik gabe. Erritmoa errepikapen bat den moduan, paralelismoaz esandako guzia berdin berdin berresan daiteke orain. Helburu estilistikoak egon daitezke horrelako teknikak erabiltzerakoan, baina halarik ere, ez dut uste erritmoaren tratamendua herri poetika baten barruan koka daitekenik. Aitzitik, errepikapenekin gertatzen den legez, helburu mnemoteknikoak lirateke batez ere errima eta musika erabileraren arrazoirik nagusienak. Magikotasunaren lorpena ere ez litzateke izanen asmo zuzena oraingo honetan. Nahiz eta beti ere asmo eta helburu guziak erabide eta errekurtso guziekin nahasturik egon daitezkeen, egia da errekurtso bakoitzaren erabilerak asmo ezberdin bat bultzatzen duela gehien, eta erritmoaren tratamenduak, helburu mnemoteknikoak ditu beste guzien gainetik.

Barneko erritmo bat duten formulak asko eta asko badira, ia gehienetan bada joera bat erritmo baten lortzeko. Baliabiderik arruntena barneko errimaren erabilpena dugu, eta batez ere errima oxitonoa. Erritmoa lortzeko beste erabide bat errima ez dagoenean, bi hemistikioez osatutako formulak ditugu. Hauek batik bat formula taumaturgiko zeharkakoak lirateke. Hauetan bada lehenengo zati bat baldintza adierazten duena, eta bigarren zati bat ondorioa erakusten duena.

3. HAURREN KANTILENAK

Sarrera: jokua

Jean Châteauren ustez, jokua dugu animalikeriatik gizatasunera garamatzan urrats ezinbestekoa; oharketa soiletik idurimena konplexurantz, edota instintotik moraltasunera eroan gaituena. Jokuaren garrantzi hau loturik dagerkigu gizakiaren haurtzaro luzearekin, animaliak ez daukan argitasun mentala atzematea baimentzen duena. Denboraldi honen barruan ere, hiru ezaugarri nagusiak ediren daitezke, haur jokuaren humusaren osagai aintzinak direnak: heldutasunarekiko grina, haur gizartea («haurrak haurlan»), eta pertsonalitate moralaren heziketa eta haziketa alegia.

Haur jokuaren ezaugarri garrantzitsu bat arintasuna genduke; garapena lasterra da, betiere haurraren hazkuntzarekin loturik. Honek hiru aro ezberdinez mintzatzeko ahal-

mena ematen digu. Lehenbizikoa hiru urterartekoarena dugu espreski; orain motrizitatea ezaugarririk nabarmena da, umeak inguratzen zaion mundua ezagutu nahi du, zein bere burua, eta bere lehenbiziko saioak hartzailetzat jo ditzakegu. Bigarren aroaren berezitasunik azpimarragarriena haur berarengan datza: jada ez du informazioa jasotzen besterik gabe; orain berri guzi hoiek interpretatzen ahalegintzen da; bere iragazki berezitik pasarazten ditu bereganatutako datu guztiak, mundua bere baitan berreraikitzeko asmoz bere fantasiaren laguntzaz; hau dena dela eta, ikurraren garrantzia ulertzen da, umeak sorturiko errealitate ezberdinaren iduri bezala. Azkenik, hirugarren etapa ailegatzen da gauzen objektibizazioarekin; erregela finkoak agertzen hasten dira, ahozkotasunean belaunaldiz belaunaldi irauten direlarik. Hemen hasiko litzateke bereziki, haurrararen folklorea lehen aipatutako haurren gizartearen barruan.

Bestetik ere, neskek eta mutilek elkarrekin, eta neskek edo mutilek bakarrik egin dituzten jokuak ezberdindu behar dira; nesken jokuak askoz intelektualagoak izan ohi dira, mutilenak bortitzenak izan direlarik; eta, neskek mutilek baino haboro laketu omen dute kantak, esaldi bereziak, formulak, kantilenak, ... –haur folklorea bera– behar izan dituzten jokuekin.

Egun, haur jokuak krisi latz gogor baten barruan murgiltzen dira. Askok telebistari egotzi diote errua, beste zenbaitek leku ezari (ez da oroit behar gizarte hirikoi batetan bizi direla Euskal Herriko haur ia gehientsuenak), eta, azkenik, ikerlari sakonenek lan ohituren aldaketari esker azaltzen dute gakoa (berriro ere, kultura herrikoi eta kalekoiaren arteko lehia, azken finean, lan ohiturak aldatu dituen iraultza industriala berak eragindako ondorioa). Honekin batera, prestakuntzaren garrantzia handitu da, eta eskola orohartzaile bihurtu zaigu; umeek jada ez dute astirik jolasteko (klaseak bukatu eta gero korrika eta presaka abiatzen dira inglesaren ikastera, judoan aritzera, edo sinpleki, beren etxera ikastera hamabi urterekin!). Eta hau nahikoa ez bailitz, gure Euskal Herrian beste arazo handi baten aurrean gaude: euskararen egoera. Haurrak ez dute, egiten dutenean, euskaraz jolasten; honekin ahozkotasunean behar den transmisioaren etena agitzen da.

Jokuen osagai garrantzitsu bat hitzak dira. Egia esa, sortzen garenetik hitzekin jostatzen dugu –zer dira bestenaz amak kantatzen dizkigun haur– kanta guziak jokuak baino? –Honetaz oso ele interesgarriak dakarzkigu Bravo Villasante ikerlari españolak; zuzenean eta itzuli barik hartuko ditut zenbait pasarte:

> [...] Los juegos de los niños son muy variados y van acompañados del folklore infantil riquísimo; es decir, de palabras rimadas que se profieren al tiempo que se juega. [...] El juego sin toda esta retahila folklórica, sería impensable. Porque el folklore, en este caso, tiene algo de conjuro propiciatorio. Como en casi todos los juegos, del mismo modo que los cuentos populares, el folklore infantil se vale de fórmulas finales. [...] se podrían citar muchos ejemplos de folklore de las fórmulas de echar a suertes. A mí las que más me gustan son las fórmulas onomatopéyicas, absurdas, porque allí está todo el poder juguetón de la palabra. [...] Los juegos de corro son los que tienen una mayor relación con el folklore. Todos los corros, todas las ruedas van acompañadas de una canción. Por lo tanto, es juego, folklore y música. En otras manifestaciones del juego basta con el sonsonete. Muy conocida por ser la más común y sencilla es la canción

> del corro de la patata. [...] El folklore, ya hemos dicho, era oral, y así ha llegado hasta nosotros, como la mayor parte de los cuentos populares. El folklore en su relación con el juego es un elemento didáctico de primera categoría. El niño se divierte y aprende. [...] Los trabalenguas como juego mejoran y perfeccionan la dicción. Puede decirse que no tiene problemas, cuando un niño puede decir de corrido. [...] El juego de las adivinanzas viene de antiguo. [...] Todos los juegos infantiles o casi todos, van acompañados del folklore, así como los primeros movimientos de los niños. [...] El juego y el folklore han ido siempre unidos en armonioso y acordado movimiento. Me alegro mucho que el folklore pueda ser considerado como un juguete maravilloso y necesario...

Guk ezagutu izan ditugun jokuak, eta Euskal Herriko ingurunean zehazki, gureak izan bailiran jo ditzakegu, kontutan hartu gabe, antropologia beraren beste zenbait alderdietan bezalaxe, eta folklorea kasurik nabarmenena, maila bera batetan aztertu behar direla afera guzi hauek, Europako kulturaren barnean bederen. Ezagunak dira joku batzuen agerraldiak kontinente osoan –hala nola, tortoloxoak, kanikak, ...– bainan aipagarriena gerta daitekeena erderaz *cuna* deiturikoa da. Joku hau aintzinaka gizarte ehiztari ia gehienetan agertzen da, iduri sinboliko ezberdinak erakutsiz, eta mantendu egin da gure gizarte industrialeraino ailegatuz.

Arkaismo honekin batera, tabu ideia kausi daiteke: beti zenbait gauza galerazita egon dira, esaterako zuhaitzetara igo Doniane egunean, beste sexuaren jokuetara ibili, edo, besterik gabe, suarekin jolastu. Hau dena erraz azal daiteke erlijioak izan duen eragina kontutan hartu ezkero. Horretarako arront egokiak deritzazkit, lehenago aipatutako Carmen Villasanteren pasarte hauek:

> En los orígenes de la literatura infantil se observaba una fuerte influencia pedagógica moralizadora y religiosa. Los primeros libros que leyeron los niños fueron cátones y catecismos, que contenían el abecedario, los diez mandamientos, los himnos, el credo, el *regina*, el *pater noster*, y el *ave Maria*. [...] Las primeras palabras del niño cristiano, eran las oraciones: oraciones al levantarse y al acostarse, que han pasado a enriquecer el variado folklore infantil. Eran oraciones rimadas, sencillas, elementales, que todos conocemos. [...] En este riquísimo folklore infantil, las fórmulas propiciatorias muchas veces son de carácter religioso. [...] Hasta en las canciones de corro hay algunas que hacen referencias a las vidas de santas. [...] Por lo tanto, hasta en el folklore infantil hay una rica veta religiosa que impregna la vida del niño cristiano.

Halaz ere, ezin da erlijiozko zentzu guzti hau kristau zeran utzi besterik gabe, eta gorago aipatu den arkaismoarekin batera, aintzinako sineskeria eta ohituren hatzak ediren daitezke nonnahi ume kanten barruan. Benetako arrazoi batetan oinarriturik ate dagoenentz zalantzarekin, delako garai zehatz batzutan umeek berreskuratzen dute ahantzirik zeuzkaten zenbait joku. Halako periodizitatea, gauzak behar dituzten jokuekin jazo da batik bat –kanikak, xiba, ...– eta gehienetan ere bortiztasuna edo indarra berezitasun bezala erakusten dutenekin –kiroltzat jo ditzakegunak hain zuzen ere–. Halako jokuen agerraldiak azaltzeko erabil daitekeen erizpide bat udako jokuak eta neguko jokuak daudela esatea da. Halako banaketa ez litzakete batere arbitrarioa izanen gaine-

ra, eta erabat loturik doake formula magiko eta metereologikoen ataletan agertzen diren egutegi zaharra eta denbora banatzeko aintzinean zeuden siniskeriekin.

Hau esanda, zilegia daiteke etorkiz mintzatzea, edo behintzat, proposatu den iturriren batez haurren jokuetan erabiltzen diren kanta eta esaldiei buruz. Nonbait esan da haurren kantak helduek asmatutakoak direla berarentzako, beren entretenigarri noizbait sortuak, eta geroxeago, helduek baztertu dituztenean, umeek berentzako hartu dituzte berriro, haiek dakiten moduan, eta gaur arte mantenduz haien solasgarri lehenagokoan helduentzat ziren legez. Horregatik agian, ume jokuen mundu aberats hau helduen kulturaren ispilu bat da, eta gizarteak eta kulturak aitzina jotzen duten heinean aldatzen dira. Halaz ere haur jokuak badauka bere berea den zerbait, hau da, bere joera ludikoa, helduek beren arazoekin ahaztu duten zerbait.

Jokuari buruzko gogoeta guzti hauek mamitu ostean, pasa gaitezen lan honen helburu mugatuetara. Ondo geratu den bezalaxe, haur jokuen osagai garrantzitsu bat diren hitz guzi horiek atal honen *corpus* berezia ditugu. Bilketa lana ez da hasiera batetan gustatuko litzaidakeen moduan batere erraza izan. Bildumarik handiena egin duena Azkue bera daukagu bere *Euskal erriaren Jakintza* liburuan, bainan lekeitiarrak jasotzen zituenak ez ziren ume kantak baino, eta horrela kantilenak berez ez dira agertzen. Apika Vinson ikerlaria izan zen hobekien erakutsi zuen kantilenaren kontzeptua, baina berak eskaini zituen adibideak benetan urriak ziren. Geroxeago Lekuona jauna datorkigu bere haur kantei buruzko zenbait lantxoekin, benetan interesgarriak direnak, bainan ikerketa sistematiko baten eza nabaria erakusten dutenak.

Euskal literaturaren kritika eta ikerketa historikoen sorrera kontutan hartuz gero, ez da harritzeko beste biltzaile garrantzizkoa ez edireitea, ondoko herrietan XVI mendetik jada halakorik dagoela. Ekarriko ditut, bitxeri gisa eta inolako beste asmorik gabe, bitan jada aipatu dudan Carmen Bravo Villasanteren pasarte txiki bat, Gaztelan ondu zen lehenengo lanari buruzkoak:

> Documento de valor incalculable para la literatura de los siglos XVI y XVII y, en general, para el conocimiento del niño en tiempos pasados, es el libro de Rodrigo Caro (1537-1647) titulado Días geniales o lúdicos. Rodrigo Caro estudia los diferentes juegos de los niños y su origen, que él cree hallar en todos los juegos romanos y griegos. El libro es interesantísimo y sus deducciones realmente acertadas y asombrosas. Allí vemos de donde provienen los cantares de los muchachos y vemos nacer las famosas y milenarias nanas (naenias) y la cantinela arrulladora de lala lala. Vemos también nacer las retahílas orales de que tanto abusan los niños, que hasta cierto punto podrían formar un capítulo especial de literatura infantil de anónimos autores en colaboración con los mismos niños, como la poesía tradicional que se transmite de boca en boca y va modificándose a lo largo del camino, dando lugar a distintas variantes, así las retahílas de los juegos infantiles llegan hasta nosotros en numerosas y raras versiones.

Beraz, eta besterik bage, hasiko naiz 246 joku, kanta edo kantilena hauek aztertzen. Euskal haurren kantagintza ikertu duen bakarretako bat, gorago esan dudan bezala,

Manuel Lekuona dugu. Honen ustez, hiru ziren ume kantak definitzen dituzten osagai funtsezkoenak: dantza, musika eta hitzak:

> El niño no recita sus poemas, los canta, y al canto añade además, por lo menos un movimiento espontáneo del cuerpo. Así lo hace siempre, hasta en el aprendizaje del padre nuestro y la misma tabla de multiplicar. De ahí la definción que podemos dar: la canción infantil es el solaz por excelencia del niño, a base de palabras, melodía y gesto.

Halere, gure ikerlari handiak elementu garrantzitsu bat aipatu barik uzten du bere definizio honetan, hau da, zentzu magikoa, kantilena edo formula guzien osagai funtsezkoa. Bada *magikotasuna* dei dezakegun zera bat haurren formula guzti hauetan, berezi bereziak egiten dituen zerbait alegia. Bai aditzik gabeko morfologia bati esker, bai erritmo markatu bati, edota bai lexiko berezi bati, haurren kantilena hauek erakusten duten itxura misterioaren barruan koka ditzakegu. Eta misterio hau, azken finean, ez da morfologiak, erritmoak edo lexikoak sortu duten zerbait, baizik eta berezkotzat jo dezakegun zerbait, eta morfologia eta beste zera guzti horiek, magikotasun misteriotsu horren ondorio zuzenak besterik gabe badira.

Arazo honetaz zera da On Manuel Lekuonak dioskuna:

> La ideología del niño, como la del hombre primitivo, se mece en un ambiente completamente saturado de un modo de espíritu de magia y misterio. En todas sus manifestaciones y producciones concede una importancia extraña a ciertos elementos, como el número tres, etc.

Zenbakiak

Numeroak, betiere, zenbait kultura zaharretan garrantzi handia izan dute. Hau aisa ikus daiteke Biblia osoan zehar hiru, zazpi edota beste zenbakiekin. Zeltek ere bere zenbaki bereziak bazeuzkaten. Gai honetaz horrela dio Caitlín Matthews ikerlari-musikalariak:

> En la numerología celta, el número tres era sagrado, así como su cuadrada, el nueve. Una de las características comunes del mundo celta es la importancia que se da a las triplicidades. Las diosas forman grupos de tres. Las Tríadas Galesas conservan las tradiciones por medio de grupos breves y mnemotécnicos de tres datos, a partir de los cuales un bardo podía presentar varios relatos complejos.

Hitz hauetan oso datu interesgarri bat kausitzen dugu, hots, mnemotekniarekin erlazionatzen dena. Zenbakiak izan daitezke, besterik gabe, gauzak oroitzeko teknika bat, eta hortik, konturatzeke, eta belaunaldiak pasa ahala, zentzu misteriotsu bat hartuz, formula magializatzen da. Euskal formuletan, eta Lekuonaren ustez, zenbaki berezia *hamabia* da, eta hamairurik jada ez da agertzen. Gainera, oso normala ohi da bederatzitik zenbatzea. Erabideak arruntenak bai goitik behera, hau da, hamabitik batera, eta joan-etorri bidea, hau da, batetik hamabira eta hamabitik batera, izan dira. Halaz ere, hau nabarmenagoa jazotzen da formula taumaturgiko batekin, girgilak sendatzeko erabiltzen denarekin alegia, aurreko atalean agertzen den bezalaxe.

Ikus dezagun orain, formulek zer ezaugarriak erakusten dituzten eta Lekuonak esandakoarekin bat egiten dutenentz. Interesgarrienak *Baga-biga* motatakoak ditugu apika, hain ezagunak gertatzen direnak, ez bakarrik haurren artean, baizik eta helduen munduan ere, zenbait kantalari esker beharbada.

Hauexek ditugu bildutako zenbait adibide: *Baga, biga, higa, laga, bega, sega, zagi, zogi, bela, arma, zamuka, zamabi; Baga, biga, higa, laga, boga, sega, zahi, zohi, bele, harma, zixpa, tiro, punp; Baga, biga, higa, laga, bosga, seiga, zahi, zohi, bele, arma, tiro, punp; Baga, biga, hiruga, laga, boga, sega, zapa, zotza, beatza, motza, errotari kaskar motza; Baga, biga, hiruga, lauga, bosa, sea, sapa, zoka, berakatza, tronpa*. Halarik ere, eta beste aldaerekin, askoz kopuru zabalago bat osa daiteke. Gainera, eremu guztiz zabala da formula hauen eskenatoki, ia, Euskal Herri osoa delarik.

Lehendabiziko formula –*Baga, biga, higa, laga, boga, sega, zagi, zogi, bela, arma, zamuka, zamabi*– argi eta garbi, eta beste kanpoko elementurik erakutsi gabe, batetik hamabira doazen zenbakien hurrenkerarekin sortua da:

bat	baga
bi (vida)	biga
hiru (hirur)	higa
lau (laur)	laga
bost (bortz)	boga
sei	sega
zazpi	zagi
zortzi	zogi
bederatzi	bela
hamar	arma
hamaika	zamuka
hamabi	zamabi

Beraz, formula hau bat letorke Lekuonak esandakoarekin hein handi batean, hamabi zenbakiari dagokionez behintzat. Halaz ere hurrenkera behetik gora doa, eta ez Lekuonak esaten zuen bezalaxe.

Beste formuletan, zenbatzea nahiko argi dugu, zazpi zenbakiraino bederen –*Baga, biga, higa, laga, boga, sega, ...; Baga, biga, higa, laga, bosga, seiga, ...; Baga, biga, hiruga, laga, boga, sega, ...*; *Baga, biga, hiruga, laga, boga, sega, ...*–, baina zenbaki honetatik gauzak aldatzen doaz; batzutan erraz igar daiteke zein zenbaki dagoen azpian, bainan besteetan desitxuratze oso handia suertatzen da, edo besterik gabe, zenbakia beste hitz batek ordezkatzen du.

Lekuonarentzat, zenbait formuletan agertzen dena zera da: zortzi beleen ehiza prozesua erabat estilizaturik: *Poema descriptivo de una caza de cuervos en el que* se *deforman los nombre de los numerales hasta reducirlos a la categoría de una verdadera jerga*. Nik ez nerrake hau gezurra dela, bainan arraro xamar deritzat umeen baitan halako ideiarik aurkitzea. Bestetik ere, agitzen diren aldaira guztietan ia ezinezkoa

da halako interpretaziorik gauzatzea. Esateko, formula batzutan bederatzi zenbakiari dagozkion aldairak *behatza* eta *berakatza* ditugu, bederatzitik ez hain urrun, nahiz esanahi propioa izan.

Badira beste formulak interesgarriak suerta dakizkigunak: *Hiru hiru sei, hiru bederatzi, hamar hemeretzi, batekin hogei, bule bat, begiak itsututa bule bat; Hiru ta hiru sei, hiru bederatzi, hamar hemeretzi, bat hogei, kixkili ta mixkili, hirurogei; Hiru ta hiru sei, hiru bederatzi, hamar hemeretzi, bat hogei, bostehun, sei milla, atxuketa billa, ku-ku.* Hiruretan, gehiketa prozesu baten aurrean geundeke: 3 + 3 =6 + 3 =9 + 10 = 19 +·1 = 20. Gainera, 60 zenbakia daukagu, 500 eta 6.000. Beraz, zeltentzako sakratua omen zen *hiru* zenbakia bere anizkoitzak diren beste zenbakiekin batera.

Bestetan 5-6-7 seriea daukagu: *Sariak iraungi, bost liburu, sei aingeru, zazpi zilar kurutze, gero Santa Kurutze;* 4-5: *Xanki manki, manki buztanki, Josemari barabiri, lau anka ta bost belarri;* bestela, *lau* zenbakia da Hiru aldiz errepikatzen dena: *Bapio lau lau lau, xaguxarrak janik nau, zeruetako alkate, lepoa lodi, ta zankoa mehe, preso sartu nau; 5-4-2* zenbakien errenkada: *Arrelando lando, marikita buskando, zinko konpañia, hemen gatoz lau, kanpae joten bi, emaizu limosnia, jangoikuagatik*. Ez da ziurra zenbaki hauek esanahi magiko berezirik dutenik, *lau* eta *bost* zenbakien agerraldiak hain ugariak izanik ere. Bestaldetik, bai kontutan hartzekoa dela errima lortzeko zein zenbakia hartzen den, eta horrela misterioa bila daiteke nahi bada, baina zentzu magikoa funts gabekoa litzateke. Esateko aipatutako *lau* eta *nau; hamalau* eta *nau; lau* eta *hau;* edo *lau* eta *dau*.

Dena den, egia da orain aipatu ditudan formuletan sarrera bereziak daudela zenbakiez osaturik: *Bat, bi, hirur, lau, hamar, hamalau, aitak saldu nau, amak erosi nau, Bilboko alkate zarrak preso sartu nau; Bat, bi, hiru, lau, sagu zaharrak jango al hau; Bat eta bi, hiru eta lau, Txominek andrea falta dau, horma zuloan topatu dau, zirrike zirrike atera dau, lizibe ontzian beratu dau, laba gainean ziketu dau, elizara doala elizara doala, kakarralduak bildurtu dau;* baina hala ere nik ez nuke esango magikotasun berezirik dagoenik prozedura hauetan.

Beste prozedura arrunt bat hauxe dugu: *Bat txardina, bi txardina, gorekema bazkua xina, urzo txuriak elizara, urzo beltzak eburneara, xera xera xera, la cuaresma fuera, entre la carnal, sale el abadexal; Bonbolon bat eta bonbolon bi* sailekoak. Hau da, bat eta bi, eta erabide honetan bai atxeki daitekeela hatz magikoren bat. Beraz, hau dena ikusita, zera esan daiteke zenbakien erabilerari buruz euskal haurren kantilenetan: magikotasun berezi bat bada zenbatze hurrenkera desitxuratze horietan, *Bagabiga* deitu horietan, baina ez dago arrazoi nahiko honetaz kanpo beste zenbakiren batetan magikotasun hori dagoela esateko.

Akordioa: eliminatzeko errondak

Joku bakoitza hautatze modu batekin lotuta agertzen da. Oso normala izan da Euskal Herria osoan *anketara egitea* –esaterako futbolean aritzerakoan–, baina oso normalak izan dira formulen bidez egindakoak ere.

Haur formula hauek umeei gauzak demokratikoki egiten erakusten diete, eritzi asko direnean, gauzak arbitraiez egiten erakusten die, suertearen arbitraiez. Suertea kantak erabakitzen du, eta umeak errespetatzen du suerte hau, paktu edo akordio bat bailitzan. Beraz, kanta erabakitzen duen neurrian, arbitroa da, eta umeak errespetatzen du. Eta umeak errespetatzen du kantilena erabat magikoa delako, eta hauts ezin daitekeen zerbait delako. Kantilenaren indarra eta boterea bere itxura misteriotsuan datza, eta hauxe lortzeko, desitxuraketa behar da, Lekuonak deitu estilizazioa.

Formula hauek orden logiko gabeko hitz eta esaldiak dira gehienetan, eta denen erdian jartzen zen mutiko edo neskato batek esaten zituen. Hitz edo silaba bakoitzeko hatzamarraz mutiko edo neskato bat seinalatzen zuen ordena jarraituz. Formularen azkenengo hitza tokatzen zitzaiona jokorako izendatu edo baztertu egiten zen.

Normalean, horrelako formulak egokiak dira *ezkutaketan* motatako jokuetan nor geratuko den jakiteko. Hauxe litzateke joku baten aurrean egiten den beste joku berezi bat. Vinsonek *fórmulas de eliminación* deitura erabiltzen du, baina, agian, Duny-Pétréren lantxoa da hobekien azaltzen duena: *Akerra burdu burdu, errapean llollo, adarretan osto, pin pan larrera, Ardoila mardoila, kinkuran kin, portera ziria, portera min, xera, mera, kirun karun plet, Aria maria, kinkonkin, portan zela, portan min, arraxinalet, marraxinalet, segeren megeren, kirun karun plet, Arrijola brijola, etxala kamala, bikto biktoria, bringun brangun, plixt, Atxa mitxa zilarra, joan joan oilarra, ardi beltza bilara,* o *pitxon, biribilton, txin txan txon, Benedise bra, Karlos de libra, txutxupeta txutxupeta, bustamanteba, kalodemibra, Dona dona katona, kide lurden manzana, tuturupe tuturupe, otxoinuebe San Andres, Dona dona katona, luki murdi manzana, pio pien gaña, lore loren gaña, asteriko, zinko, riko riko, kuatro, barrentxe, berritxo, borrotx, fuera, Dona dona katona, sutondoan aitona, lepotik behera kuttuna, irten kanpora neska edo mutil ttunttuna; Don don beledon, beledongo eliza, zazpi gizon dantzan, bi mozkor, bi mozkor, nahi duena, nahi duena, kan po ra, Don don don, bera bera baña, kuatro rios ke ai en Frantzia, arre matxube, arre mandube, don don don, ke se salga usted, Don don don, irten sakati, fuera, Don don kandel, barriola barriola, plixt, Don don kikelabon, saltsa buka, esla buka, buka madre, saltsa bon, likan likan tortolikan, bran brutx, Ferrela merrela, goporra mokorra, xikitun xakatun, fuera, Gaztaina gora behera, txikiti txakutu fuera, Harla maria, kin kuan kin, portan zela, portan min, arritxinalet, segere, megere, kirun, karun, pek, Harriola marriola, orratxa zorrotza, xixta gaitza, hari txarra, tira bira, zirrin zarran, eta zart, Kañi kañibeta, zillarra papillonetan, zillararebon, harriketa, miñoneta, enterrabona, ponalapona, erregerengana, txirimiriharka, txikit edo ponp, Ruxe muxe, errote kabe, lore biene, kox, Therrela, merrela, kin kuan kin, portan zela, portan zela, portan min, karru, siñu, miñu, let, Txibirikun, txibirikan, txibirikuri, kuri, fa, txibirikuri, kuri, fuera, salba fuera, Txintxina mintxina, suara barbara txikitiena, gaztaña gora, gaztaña bera, txukulu txakulu fuera, Txirristi mirristi, gerrena, plata, olio zopa, kiri salda, urrup edo klik, Unin dalin, danbolin, eper zatuko balendrin, erradura borradura, klix, klaux, fuera, Xedera medera, gohora behera, harat hunat, zoko moko, paso, bota, punpa, jo.*

Formula metereologikoak

Haurren siniskerien barnean ere zenbait animaliek beren lekua izan dute. Oso arruntak gerta dakizkiguke marraskiloekin egindako jokuak, baina Euskal Herri osoan zabalduenak kattalin gorriekin egindakoak dira niholako zalantzarik gabe. Normalean zomorro hauekin egiten dena zera da: eskuan hartzen ziren eta formula esaten zitzaien, orduan putz egin eta gero hegalez alde egiten bazuten, eguraldi ona egingo zuen, aitzitik, lurrera erortzen baziren, orduan euria ekarriko zuen: *Andere kota gorri, bihar ekhi ala euri? Ekhi balin bada, hegalta hadi, euri balin bada, zaparta hadi; Kattalin gorri, bihar gure atarian iduzki iduzki; Kattalin gorri: egun iguzki, bihar euri; Kattalin gorri, gorri, gorri! Fla, fla, fla!; Maria gona gorri, bihar eguzki etzi euri; Mari gorringo, zuri gorringo, eguraldi txarra egiten badezu, labe gorian sartuko, eguraldi ederra egiten badezu, kutxa ederrean gordeko; Matxingorringo matxingorringo, bihar euzki ala euri egingo?; Txipilota gona gorri, bihar eguzki ala euri?*, eta bigarrenez agindua eta baldintza-konjuroa *–egun iguzki bihar euri; eguraldi txarra egiten badezu, labe gorian sartuko–*.

Carmen Bravo Villasantek kattalin gorriekin jokuak ere aipatzen dizkigu, baina ez asmo metereologikoekin: *Mariquita de Dios, cuéntame los dedos, y vete con Dios.*

Aho-korapiloak

Carmen Bravo Villasantek ongi zioen bezalaxe, ume batek segituan eta gelditu gabe ahokorapilo bat esateko gauza denean, ezin da esan arazoak dituenik. Eta hala dirudi. Ahokorapiloak, lehenengo begirada batetan, joku bat besterik ez du ematen, baina hobeki so egin ostean, bi alde bereziak ikus daitezke bere baitan. Alde batetik froga edo gainditu beharreko zailtasuna daukagu; honek eragiten dio haurrari. Bestaldetik, zentzu magikoa ere igar daiteke nonbait, agian zailtasun horrekin erlazionaturik. Zailtasun hau fonetikoa da funtsean, eta ahokorapiloek erakusten dituzten kontzeptuak ez dira orokorrean garrantzizkoak magikotasunaren aldetik, nahiz eta hain arruntak izan akerraren agerraldiak: *Aitaren kapa alkipean; Akerrak adarrak okerrak ditu; Alkipean kapa, kapa alkipean; Arre horra, aurrean arraioa; Aurten gure ortuan artoa berde eme da; Beleak berreagara zerbait daroa, badaroa, berea daroa, baba errean ahoan daroa; Eztot ikusi Akerreneko akerra bezain adarrak okerrak dituen aker aldar okerrik; Ikusi xut aker oker, adar makar okerrik, baia etxut ikusi Lakarreko aker oker adar makerra bezain ederrik; Iputz apezak napar istupez atorra, napar apezak iputx istupez atorra; Juanikotxu, akerra Matarrepeiko aker adar okerragorik eztot nik ikusi; Kanbon palangak pagoz; Martin akerra makerrakoren aker adar okerra baino akerrik okerrik ez dut ikusi nik; Olagarroaren erro errea larra errean gora; Prailearen kapa, kapeleran bost bada garau; Solo barriko artoaren orriaren gorria.*

Txulubitak egiteko formulak

Agian ez dira anitz mota honetako dauden formulak, bainan hala ere egokia deritzat multzo apartekotzat jotzea beste hizkuntzetan ere duten isladapenarengatik: *Pipite, azken txulubite; Tinter lanter, inen daiat xirula, hail ekarrak adarra, legun eta xuxena, zertaz? leizar laida pollitaz, xirula mirula kantari, balinbahiz izerdi, krisk krask, atera*

hadi; Txulubitario konpletario, barberaren uzkara, dotorearen ezteia, kuku bi kuku bi, kuplapean sar hadi, ezin elkiz leher hadi ta zaparta hadi; Xirula mirula kantari, balinbahiz izerdi, krisk krask atera hadi.

Umeek, lehengo gizartean behintzat, kale zein baserrian gainera, eurek egindako jostailuak bakarrik ezagutzen zituzten, eta horretarako baliagarria izan zitekeen edozein gauza erabiltzen zuten. Jostailua, gaur ezagutzen den moduan guztiz arraroa zen; gaur egun joku baterako balio duten jostailuak dira nagusi, lehenagokoan aldiz, jokua jostailuaren gainetik zegoen, eta nolanahi ere jokurako tresna bat besterik ez zen jostailua. Gutxi mekanizaturiko gizarte batetan, jostailuak egitea bera ere joku bihurtzen zen.

Doinu tresnek toki apartekoa merezi dute. Udaberrian ekiten zitzaion ekintza honi. Mota askotako instrumentuak izan dira umeek egin dituztenak. Muxika hezurrekin txistu antzeko zerbait egiten zen harri batekin ondo igurtzi ezkero. Beste soinu tresna berezia Larraungo artzaiek egiten zuten, sunpriñu izenekoa, baina egiteko zailtasunarengatik seguraski, umeek bazterturik utzi izan dute. Zalantzarik gabe, umeek gehien egin duten soinu tresna txulubita izan da. Araban, Amezkoan, Larraunen, Zaraitzun, Urraulen, eta beste zenbait tokitan. Leku bakoitzean umeek formula berezi batzuetaz baliatzen ziren lizar edo txipu adarretatik azala aise kentzeko.

Carmen Bravo Villasantek ere formula hauetaz zerbait badakarkigu:

> En la provincia de Santander, cuando los niños fabrican pitos y flautas de nogal, golpean con el mango de la navaja rítmicamente sobre el trozo de ramita y salmodian: Sal sal, pito sal, de la torre de nogal, suda suda, pata mula, tú sudar, yo chiflar.

Violant y Simorra Pirineoaren ikerlari handiak bere *El Pirineo español* lan gotorrean zenbait formula ere jasotzen ditu Catalunya aldean helburu berberarako: «Sana sana, xaramella, xaramella sana sana» edo «Saba saba pell de cabra, sabit sabit pell de cabrit, son son pell de bou, sabarás quan Deu volrá».

Izenetatik sorturiko formulak

Formula hauek ez dute zentzu magiko garbi bat erakusten, eta joku bat besterik ez dute ematen. Halaz ere, zentzu misteriotsu hori bila daiteke nolazbait, eta batez ere, oguzteko aukera egokia behar dutelako, hau da, ezin dira edonoiz esan, zeren, aldez aurretik, izen konkretu hori esan behar da, formula botatzeko. Formula hauek herrietako formulen antzekotzat jo ditzakegu, baina hauetan ez dago arrazoirik gauza bat edo beste esateko, errima eta jokua ezpada. Hauexek lirateke izenen inguruan sortzen den haur jakintza bat: *Andres mandres, kolko bete tremes, harek janda gosez, soloak gora, soloak bera negarrez; Bartolome, burua lodi eta lepoa mehe; Domingo sekelan gorringo, moltsan kukuso; Gilen, bihar hilen, etxi ehortziren, etzidamu ahantziren; Jakes, koska bezain trukes, tresnak oro trebes; Manez, ipurditik minez, kaka ezin inez; Martin bonbil, errege ta sorgin, tipul eta gatza, Martin buru gaitza; Miguel aintzin edo gibel, nun nahitik ustel, Pello totolo, beti lo, eskuan bilo, Petan kakoletan, sarrak sudurra kakan, ta han atxikak zapan, Petan tarrapatan, galtzak herrestan, kaleria burustan.*

Errepikapenak

Errepikapena kantilena definitzen duen ezaugarri garrantzitsu bat dugu, sarrera agertzen den legez. Haurren kantilenetan gainera errekurtso literariorik erabiliena dela esatera ausartuko nintzateke. Mota askotako errepikapenak dira umeak erabiltzen dituenak bere jokuetan, eta beti ere magikotasun beharrezkoa lortzearren. Badira ere beste faktoreak errepikapena bultzatzen dutenak, esaterako umeak duen musikarekiko tratamendu berezia eta abar.

Kantilena askotan, hitz bat edo gehiago dira errepikatzen direnak besterik gabe. *Xufrin xufrinero, kattalin zartainero, aitzurren burua kontatu, amarrak ere laketu, ttur ttur, ttur ttur, ttur ttur, erraeran haurrak totoriko jartzen da* edo *Xufrin xufrinero, kattilu sartainero, aitzurrak diruak kontatu, hamarrak ere laketu, ia bada Maria gaixoa, aitzinez gibeleraino, ttur, ttur, ttur, ttur, ttur, ttur* formuletan esaterako *ttur* hitz edo soinua sei aldiz eta jarraian errepikatzen da. Batzutan, errepikatzen den eleak esanahi berezia izan dezake: *Ailargina mexkondina kontan dela kontan* kantilenan adibidez *kontan dela kontan* formak mezu garbi bat erakusten du eta helburu faktitiboa litzateke. Besteetan, ez dago halako helbururik eta hitz magikoak lirateke: *Intziri eta intziri, astoaren putza hiri, behiaren esnia niri, zirri mirri.*

Hala ere, normalena errepikapen paralelistikoa genuke. *Aita da ttunttun, ama da ttunttun, alaba hori ere ttunttun, guziak ttunttun izatekotan, senarra behar luke ttunttuna, Ardoila mardoila, kinkuran kin, portera ziria, portera min, xera mera, kirun karun plet, Baratzean aza, fera, fruto, zoaza. Baratzean porru, jan ondoren dolu. Baratzean perezilla, zaude isil, zaude isil, zaude isila, Don don, kikelabon, saltsa buka esla buka buka madre saltsa bon, likan torto likan, bran brutx, Eguen zuri, eguen baltz txakurra arrautza gainean datz, baltz baltztxoa maisuarentzat, zuri zuritxoak geuretzat, Esku maingu, esku maingu ematen duena zeruala, ematen eztuena infernuala* edo *Txin txin txibirin, makilatxuek, txan txin txiribin ekarten.*

Beste aukera bat epanadiplosis izan daiteke. Esaterako: *Bilin bolon, bilin bolon, urak darama zorroa, zorroarekin astoa, Bonbolon bat eta bonbolon bi, bonbolon urerat erori, erori bazen, erori, orduan etzuzun egarri, Buhamek badakite trikun trakun egiten, trikun trakun egin eta oilaskoen ebasten, lupaireton lupaireton, lupair lupair lupaireton,* edo *Kukumiku naparra, zertan zertan kandela, kandela bi ta larrosa, piru piru pikote, jauna nundik zatozte, kalean gora kalean bera, buru beltxaden alkate.*

Haurren kantilenetan kausi daitekeen beste posibilitate bat hitz baten ohiartzuna da. Horrela milaka formula sor daitezke. Gainera hau magikotasunarekin erabat loturik dagerkigu. Normalean esanahi gabeko hitz bat izaten da erroa *–kukutxu, therrella, txintxina–* eta oso kasu gutxitan esanahi garbi bat dago: *Andres-mandres, Elurra-melurra* edo *Xirula-mirula.* Erro horretatik, desitxuratze baten ondorioz beste hitz ezberdina sortzen da, lehendabizikoaren ohiartzuna dena. Ia orotan, formularen sarrera dugu bikote hauek, hasiera markatzen duena, eta misteriotasunez bustitzen du formula osoa.

Erabide hau oso erabilia da eliminatzeko errondetan. Hauek, gorako esan den legez, paktu batzuk dira, umeek zintzoki errespetatzen dituztenak, eta formula hauek erabakitzen dutena ez da gainera txantxetako gauza haurrendako. Horregatik, hain formula itxiak eta zentzugabekoak dirudite, zentzugabekeria horren bidez lortzen saiatzen dena zera dugu: hautaketa ona, eta hortarako hitz magikoak, hitz sakratuak, hitz bereziak behar dira.

Bikote hauek gainera, musikaltasun nabaria erakusten dute, eta formularen zati garrantzitsu bat osatzen dute bukaerarekin batera. Eliminatzeko errondetan, azken hitzak ikaragarrizko garrantzia dauka, zeren hori bera baita neska edo mutila hautatzen duena. Horregatik, hasierako bikotea luze samar bada, eta musikaltasunez blai badago, azken hitz hau oso laburra, ozena eta garbia dugu: *plet, xek, pek, plixk, fuera, zart, ponp, let, klik* edo *jo*.

Errepikapena erritmoari erabat loturik dago, eta beraz, baita musika eta dantzari ere. Dantza, askotan gorputzaren ibilera xume bat besterik ez da. Haurrak beti bere kantuari gorputzaren mugimenduarekin laguntzen dio. Gainera, gorputzaren ibiltxo hori betiere neurtua egin ohi dute, hau da, erritmoarekin batera. Hau horrela da haurrak erritmoaren sen handi bat duelako.

Erritmoa bi motatakoa izan daiteke, bai erritmo askatua, eta bai erritmo lotua. Haurrak biak erabiltzen ditu bere jokuetan. Askatua melodia bat ez dagoenean agertzen da, esaterako kantilena luzexketan, eliminatzeko errondetan, otoitzetan...; eta lotua melodia bati atxekitzen zaionean, adibidez korroetako kantilenak eta beste joku bereziak beren kantekin.

Dantzari dagokionez, esan ere egin behar da modu askoz gauza daitekeela. Batzutan erritmoarekin batera sortzen den ibilera soil hori bera dantzatzat har daiteke. Besteetan, jokua bera dantza batek osatzen du, eta adibiderik garbienak korroak –*Ala kinkirriñera ala samurrera, Joxepa plaza berriko, bira hadi beste aldera*– eta sokekin egiten direnak –egun propioagoa litzateke gometaz mintzatzea– ditugu.

Musikarekin ere beste bi kontzeptu loturik daude. Alde batetik, magikotasuna hartzara agertzen zaigu: kantatzen dena sakratuagoa da errezitatzen dena baino; eta beste aldetik, teknika mnemoteknika bat izan daiteke –oroit bestenaz biderkatzeko taulak ikasteko kantatzen genituela–, nahiz eta zerbait berezkoa izan haurrengan eta ez erabili musika bere kantilena eta jokuak ikasteko teknika bat bezala konszienteki.

Estilizazioa

Sarreran jadanik ikusi ahal izan da zer zioen Manuel Lekuonak berak deituriko *poesía decorativa* delakoari buruz. Halako zerbait ere errepikatzen du haur kantez izkiriaturik dituen bere artikulu bat baino gehiagotan. Hona hemen pasarte batzuk laburki emanda:

> De un modo completamente parecido, en una buena serie de cantos infantiles que todos hemos cantado de niños, el lenguaje es también estilizado. Estos cantares están vaciados en un modo de hablar intencionadamente deformado hasta el punto de

> parecer, más bien que un lenguaje racional, un ingenioso juego de sílabas de puro entretenimiento, o una cantilena sin sentido y sin más apariencias que de un simple pretexto para cantar. Allí el dibujo se utiliza con tendencia de contenido significativo, algo puramente musical, una serie de sonidos vistosos, brillantes, combinados con novedad y artificio sorprendente.
>
> Al reflexionar antaño sobre tales cantares, y notar la deformación en sus palabras, soñamos alguna vez en posibles ocultismos como de fórmulas mágicas. Hoy, mejor pensado el caso, creemos más bien hallarnos ante un fenómeno de estilización debido tan sólo a imperativos de estética. No aseguramos, con todo, que no se hayan aprovechado estos procedimientos de estilización, en algunos casos, para menesteres de ocultismo y ciertas disciplinas de arcano.
>
> Debe decirse otro tanto de la posibilidad de que las deformaciones de palabras procedan de la no inteligencia infantil. Esto habrá podido ocurrir en algunos cantares –sabemos que ocurre con los castellanos que caen en boca de los niños euskaldunes, y con los euskéricos que caen en boca de los castellanos–; pero es ésta una posibilidad a descartar como inadecuada para explicar el fenómeno en toda su amplitud y como sujeto, por otra parte, a ciertas tendencias de interpretación acomodaticia que faltan radicalmente en nuestro caso.

Desitxuratze prozesua sor daiteke hitz baten desitxuraketarekin besterik gabe. Hauek helduek darabiltzaten hitzak berak lirateke, baina haurrek oguzterakoan aldatuta. Artikulazio organuak garatu gabe dauzkate oraindik; herskari ahoztunak zailegiak gertatzen dira haur txikiendako, eta horregatik ahozkabetzen dituzte: *bapo>papo, goxo>koxo*... Horrez gainera, palatalizazioa oso normala gertatzen da haiengan *–t>tt, n>ñ, l>ll, z>x, ts>tx, tz>tx,* ...– bi arrazoiengatik: goxoagoa denez askoz musikalagoa gertatzen da, eta bestaldelik diminutibo gisara erabiltzen dute. Beste modu bat desitxuraketa gauzatzeko silaba baten errepikapena da, seigarren formulan esaterako *ama>amuna.* Honen adibideak *baga biga* saileko formula guziak lirateke edo, esaterako, *Montxu frioleri, fosfai sisoleri, semena ainoleri, montxu tribol.* Esan daiteke halako exenpluetan ez dela hitz bat desitxuratzen dena, esaldi osoa baizik.

Hitz baten kenketaren bitartez ere has daiteke. Lekuonarentzako *xirristi-mirristi* saileko kantilenak atsalaskari baten deskribapena baino besterik ez dira, eta azaltzen du arazoa faltatzen diren hitz guztiak agertuko balira bukaerako esanahia goibelduta gera litekeela esanez. Nik ez dut uste horrenbesterako izanen denik, eta errazago bide da morfologiaren bidez hauxe bera azaltzea, aditzen kenketa batean batez ere oinarritzen den erabide bat baita. Bihoa beraz gerorako azalpen hau.

Arkaismo baten erabilera: hau da Lekuonak berak aipatzen duen erabide bat, *–...probables pervivencias de un léxico prehistórico, en parte desaparecido del habla de los mayores, pero pertinazmente conservado en el de los niños...–* baina ni ez nago guziz ados bere planteamenduarekin, zeren haurrei joku edo kantak edo kantilenak irakasten dizkietenak pertsona helduak ere baitira eta arkaismo hauek ez dira helduen mintzairan mantentzen. Beste aldetik, haurrak hagitz berritzaileak dira, eta ez dute inolako arazorik

berritasun bat onartzeko. Alde hortatik helduak dira askoz kontserbatzaileak umeak baino. Mantendu diren kantak eta jokuak oso zaharrak izan daitezke, eta zenbait kasutan historiak berak azal ditzake egoera konkretu batetan sortuak direla esanez, baina horrek ez du arkaismoak egon beharko direla derrigorrez esan nahi, eta froga bilduman beran datza.

Erderakaden erabilpena: hauxe bai dela benetan ikus daitekeen zerbait haurren kantilenetan, eta oraintxe aipatu den berritzailetasun horrekin zuzenean erlazionaturik. Erdarakaden erabilpena, ez da euskararen galeran oinarritu behar den gauza bat, eta erraz ikus daitekeen kantilena anitzetan, maileguak ez daude betiere ongi jasota. Arrazoirik garrantzitsuenak haurrak halako hitzak aukeratzeko bi dira batez ere: bata bitxitasuna, arraroa dena baliozko behutzen da, eta primerako apaintzaile gertatzen zaio umeari; bestea magikotasuna, ezezaguna den unetik, misteriotsua iduri daiteke, eta harregatik magikoa, badirudi hitz horrek gauza sakratu baten balioa duela. Zenbait adibide: *zinko konpañia, etxa la kamala, beinte bonete, zapaton, tronpeta, manzana, sakati fuera, melon, galleta, treinta, la damasei, le popele popelu, kuloarroxa, tres sardinas y un kapon, labalentzia, aki española prantzia, pone pone asi, kastillo,* edo *korneta*.

Onomatopeiaren erabilera: hauxe dugu estilizazioaren erabiderik garrantzitsuenetariko bat, garrantzitsuena ezpada, eta hau horrela da adierazten duen bizitasunarengatik. Haurrari izugarri gustatzen zaio onomatopeia eta bere kantilenetan asko erabiltzen du. Onomatopeiak bi motatakoak izan daitezke; badira zuzenak deitzen direnak –*kikirriki*–, eta zeharkakoak –hauek kontutan hartzen dute helduek nola hitzegiten dute animaliekin esaterako *aide aide* idia deitzeko–: *Akerra burdu burdu, errapean llollo, adarretan osto, pin pan larrera, Atsoa zirri zarra, errokan hasteko gogo tzarra, pinta erdia iraultzen du, atsein hartzen du bihotzean, Buhamek badakite trikun trakun egiten, trikun trakun egin eta oilaskoak ebasten, lupaireton lupaireton, lupair lupair lupaireton, Harriola marriola, orratza zorrotza, xixta gaitza, hari tzarra, tira bira, zirrin zarran, eta zart, Kattalin gorri gorri gorri, fla fla fla, Lan liraun lan liraun, Trilili ala tralala kantu guzien ama da, Uneta txintxibirin korneta, Xirula mirula kantari* edo *Xotiak klik itxuri*.

Morfologia

Badira haurren formulak bereziak egiten dituzten bi ezaugarri garrantzitsuak batez ere, laburtasuna eta aditzen eza alegia.

Jakina da formulen neurria oso luzea ezin dela izan, eta haurren kantekin harremana izan dezaketen zerbait izanik, ez dira kanta bat espreski. Kantilena bat definitzen duen zerbait errepikapena baldin bada, bi elementu berdin edo antzezkoez osatutako zerbait izan beharko da. Halaz ere, ez da egia haurrek erebiltzen dituzten formula guzien artean ez dagoela elementu bakarrez osaturikorik. Badira zenbait hitz bakarreko formulak. Egia da hauek ez direla kantilenak berez, baina formulen bilduma batean ez dira inolaz ere soberan. Badira mota honetako askoz formula haboro, eta agian interesgarrienak tortoloxekin jolasteko erabiltzen direnak ditugu. Joku honen aldairak biziki ugariak dira, eta bere zabalera arras handia dugu, Europa osoan beste, munduko herri zahar

anitzetan ere normalak izanik. Angel Irigaray duela jada nahiko urte mintzo zitzaigun joku hontaz, *CEEN* aldizkariaren hirugarren zenbakian hain zuzen ere. Berak jasotako formulen artean, hitz bakarreko dexente ere badira: *kiskotx, almandotx, uneta, atresas, akuartas*...

Laburtasun honek badu zergatiren bat eta ez da ahatiko gauza. Lehenbiziko arrazoi bat, eta guziz logikoa mnemoteknikoa dugu. Umearentzat errazago da formula labur bat ikastea luze bat baino, eta beharrezkoa izanez gero, errepikatuko du behin eta berriro, baina sekula ez du formula luze luze luze bat ikasiko. Gainera, errepikapenarekin musikaltasuna eta magikotasuna errazago surtuko du. Esanahia eta zentzua ez da gehixegi kezkatzen duen gauza, eta luzaro egoteak formula bat kantatzen asper dezake haurra.

Aditzen eza beste ezaugarri garrantzitsu bat gertatzen da haurren formuletan. Aditzak ez agertzean, kontzeptuak dira eskaintzen direnak batik bat, zerbait abstraktoa, estilizatua, berifikatu ezinezko zerbaiten aurrean gaude beraz. Hau ere magikotasuna lortzen duen zerbait dugu. Adibide eder bat formula hau izan daiteke: *Arianda marianda, sukalde zaharra, kedar beltza, biper gatza, talo malo, esne bero, bertza zilo*. Hasiera bikote magiko horietako bat da; bestelako elementuak enumerazio barregarri bat besterik ez dugu, sukaldean dauden elementu batzuen bidez, baina inolako erizpide edo kriteriorik gabe emanda, biper eta bertza zilo hitzen artean egon daitekeen harremana oso murritza da, eta zentzugabetasunean murgiltzen garela eman dezake.

Zentzugabekeria hau guztiz normala da eta espero zitekeen gauza. Haurren formulak, sarreran esaten dudan bezala, magikotasun gehien erakusten dulen multzoetariko dugu. Hau horrela bada, zentzua eta esanahi garbia desagertzen da haurren helburu eta asmoek formulen esanahiarekin zerikusirik ez dutelako. Formula magikoek esaterako badute helburu magiko bat –zerbait sendatu– eta horixe da formulan beran gauzatzen den mezua. Haurrek berriz ez dute haien helburuak formulan egiaztatzen edo erakusten. Arrazoi bat izan daiteke haurrek benetako magikotasuna erabiltzen dutela, eta ez direla helduok bezain arrazionalistak.

I. APENDIZEA
FORMULA METEREOLOGIKOAK

1: Abelgorriak udabarrian kortan, mendira joan gura dabela orroaz hasten bada, eguraldi onaren zantzua da.
2: Abendua burdinezkoa, hilbeltza eltzairozkoa.
3: Abenduaren erdia, gaua; ta bertze erdia besta.
4: Abenduko eguna, argitu orduko iluna.
5: Abenduko elurra gailtzerua, hilbeltzekua burniya, otsailekua egurra, martxokua ura.
6: Abenduko lainuek egua edo elurra.
7: Abendu zuri, ez ardi ta ez axuri.
8: Agorrileko euria, arno ta eztia.
9: Agorrileko ura da zafran, ezti eta ardau.
10: Ahariak eta ahuntzak gora goraka ta agiraka dabiltzanean, euria.
11: Ahariak, maiatzean, deuri deuri esaten nausiari.
12: Aingeru guardakoaren egunean eguzkia ikusi baino ardi artean otsoa ikusi nahiago.
13: Aizeak negua.
14: Ama Birgiña martxoko egunean ardia abarotan baino hobe da otsoa ardi artean ikustea.
15: Ama Birgiña martxoko, neguari eman diok ostiko.
16: Ama Birgiña martxoko, ttorria balago, ni barrendegietan sartzeko. (Ardiak esana).
17: Amarratz baltza jaisten denean, euria.
18: A martxo a martxo, har zak esker gaizto, nere ardirik kaxkarrenak egiten dizkik zazpi salto.
19: Anderedena Mari martxoko, gure behia larrean areko eta zezenak zokotik: –Muuu! Gero duk Erramu.
20: Andra Mari martikoari bezperak kantatu edo abestu ezkero, gorde yakea komodan edo arasan.
21: Andra Mari martiko, arrain barriak tatiko.
22: Andra Mari martiko, artean uda ta tiko, handik aurrera betiko.
23: Andra Mari martiko, behiak mendira jaurtiko.
24: Andra Mari martiko, neguari emon diok ostiko.
25: Andra Mari martikoz abaro baiño otsoa ardi artean ikustea nahiago.
26: Andra Mari martikoz kuku, San Pedroz mutu.
27: Andra Mari martxoko behiak larrean aseko.
28: Andra Mari martxoko ni mendirat opoko.
29: Andrak andra andi kandelariotean dira agiri.
30: Antzarrak batera ta bestera hegaz dabiltzanean euria.
31: Apirila biribila, txarria urdandegian hotzak hila, bada hila, buztana badabila, holan izan dadila.
32: Apirila, biribila, urdandegian urde hila. Urde zaina hesi artean, gasna puska hortz artean, arto puska galtzarpean. Izan balitu aitzintzean, etzuken hilen agian.
33: Apirila, biribila, urdandegian zerri hila. Eztabila, badabila; gasna gogorra ortzetan, jan lezake bortzetan.
34: Apirila biribila, urdia teian hila!
–Ez da hila.
–Bai da hila.
–Buztana da dabila.
35: Apirila biribila, xerria xerritegian hila!
–Ezta hila.
–Bada hila.
–Buztana badabila.
–Hola izan dadila.

36: Apirita, biribila, zerria urdandegian hotzak hila.
37: Apirila biribil, iuriak urdia eyan hil. Apirila fan eta mayatza gero, agozteian agotza bego.
38: Apirila euritsu, urte hura ogitsu.
39: Apirilain azkeinien hostua aitz gainien.
40: Apiril biribil ekartzik egun bi.
41: Apiril biribil, ekazan egun bi eta erdi, horri artzain panparroi hori, ikus daiodan polaiño hori.
42: Apiril biribil, gure txarria zotalian hil.
43: Apirileko erlea niretzat, maiatzekoa anaiarentzat.
44: Apirileko oloa, ez olo ez lasto.
45: Apiril lore urrearen pare.
46: Apiril ona ikusteko ehun urte bizi behar da. Ni ehun eta bi bizi eta oindiño on bat eztot ikusi.
47: Aprila bero, negua gero.
48: Aprila euritsu, urtea ogizu.
49: Apirila euritsu, urte hura ogitsu.
50: Aprila hotz, ez gari ta ez agotz.
51: Apirila joan eta maiatza gero, ganbararen baztarrian agotza bego.
52: Apirilaren azkenean, harria aitz gainean.
53: Aprilaren lehengo domekan euria bada, hil guztian hiru egun eztira aterri izaten.
54: Aprila urregorri, martia kakatsu, izango dogun aurten urtea ogitsu.
55: April, biribil; april, biribil; ekazan egun bi ta erdi, horri, artzain panparroi horri, ikusi daiodan polaiña hori.
56: Aprileko lorea urrea baino obea; maitzeko lorea bapeza baino obea.
57: Aprilen azkenean harria aitz gainean.
58: Aprile on ekusi bear dionak ein urtez bear du bizi. Nik badut ein eta bi, eztud onik bakotxik ekusi.
59: April urregorri, marti kakatsu.
60: Aratuste manga, ardoari dzanga.
61: Arbi abenduko, bakotxa bere denborako.
62: Arbi errea abenduko, gauza guztiak bere garaiko.
63: Ardia iluntzean ota jale baldin bada, hurrengo egunerako elurra.
64: Ardiak martxoan malkora bildurik ikusi baño otsoa arditan ikustea obe.
65: Ardiak bordan faloska ari diranean, biharamunean elurra.
66: Ardiak gora doazenean, eguraldi ona; bera datozenean, txarra.
67: Ardiak martxoan molkora bildurik ikustia bano obe otsoa arditan ikusi.
68: Ardi urte, atun urte.
69: Arharo ezpada, alharo.
70: Armiarma lurrean ikusten bada, hogei ta lau ordu barru euria.
71: Arrats gorri, eguraldi; goiz gorri eurilari.
72: Arrobia lurpetik gaineratzen denean, ekaitza.
73: Artoa ereiteko, San Isidroren astea, atzea baino aurrea obea.
74: Artoak ontzeko erein behar dira garagarrilean. Guk erein genitun uztan, horregaitik gelditu ziren ez buru ta ez buztan.
75: Asentsio letañak euritsu, urtea bere ogitsu.
76: Asteazken ta ostiraleko argizari berriak aro gaizto ekartzen du.
77: Asteleheneko euria, aste guziko euria.
78: Atzo San Juan, gaur Juan zan.
79: Azaroko eguna, argiko iluna.
80: Azileko ortzia, neguko iruzkia.
81: Bagil argia, urte guztiko argia.

82: Baietz, bihar dala maietz; etzi Paskoa, ezkontzen dala gure atsoa.
83: Barantaila emazteen eta gatuen hilebetea da, martxoa gizonena.
84: Barea lurraren gainean baldin badabil, euria.
85: Bareak, eguzkia ateratzen denean, aza baten azpian bada ere gordetzen dira.
86: Bariakuan trumoiak hots egiten badau, eurizko bederatziurrena.
87: Basa abereak neguan eurenez etxe aldera datozenean, ekaitz handia datorrela iragarten dabe.
88: Baxaran urte, elur urte.
89: Bazko goiz balitz, martxoan ezpaliz.
90: Bedar asko batu egizu, maiatz luzeak jango dautsu.
91: Behiak anka goratu ta dardaratzen badu, elurra.
92: Behiak gibelerat uztarka ari direnenan, gero denbora txarra.
93: Behiak isilik eta isilik badira, laster eguraldi txarra.
94: Behiak ausnartzu badagoz, atzeti eguraldi txarra.
95: Behi ta ardiak gorputza iñarrostuz geroz, ekaitza.
96: Behor ta zaldiak estrabilean pulunpari hots eragin gabe ta isil badira, elur gehiago izanen da.
97: Bela asko dabiltzanean, ebia seguru.
98: Beleak kakaka egiten badu, hegoea.
99: Belhar urte, deusez urte.
100: Beurtxoriak kantatan dianean, euria fite xinen da.
101: Bixintxoz hotz, neguaren bihotz; Bixintxoz bero, negua gero.
102: Bizkaiko negua, garizuma.
103: Buruila udaren buztana, ta neguaren hastapena.
104: Buruileko euriek maastra ontzen.
105: Denboraren denborako, arbi errea abenduko.
106: Denek badugu gauan partida: suyak ura du partida; urak iruzkia; iruzkiak lanoa; lanoak aizea, eta aizeak zer du partida? Aizea.
107: Doniane euria, garien galtzegarria.
108: Edur urte, gari urte.
109: Egabelek goizetan txio txioka badihardute, eguraldi ona.
110: Egabelek hagaz lurraren kontra dabiltzanean, euria.
111: Eguberri, eruek iyerri; zoiak ere larri.
112: Eguberri zereki, urteberri hareki.
113: Eguerdiko euria, egun guztiko euria.
114: Eguzkia ta euria, martiko eguraldia.
115: Eguzkia zuriegi datorrenean, iluntzean euria.
116: Ekhia mingar denean, bihamenean ebia.
117: Elorria lora dago, artoa ereiteko giro dago.
118: Eltxoak biraka badabiltza, euria laster.
119: Etxoak usika dabiltzanean, bero hurrengo egunean.
120: Elurra dakarrenean, isilik egoten dira sapoak.
121: Enarak goi goian hara ta hona dabiltzanean, luzaro eguraldi ona.
122: Ene San Antonio ta mutila, zer jan eztaukenean barurik ei dira.
123: Ergoneriak alkarrekin burrukan garrasika badabiltza, bolada luzean legorra edo gainerakoan ekaitz haundia izango da.
124: Erleak aurretik igarten dute ekaitza noiz datorren.
125: Erleak euren kutxa inguruan dabiltzanean, euria.
126: Erramu egunean ebanjeliokoan zer aize, urte guzian ura naguse.
127: Erramuz sagara bitartean den eguraldia berrogoi egunez egiten du.
128: Esaten zuten kukuak Andra Mari kandelerakuen jotzen duela Erromako zubian.
129: Espartina maiz laxatzen bada, laster euria.

130: Etorriko da maiatza, jango dugu lebatza.
131: Etxean habe harria bustita dagoenean, laster euria.
132: Euliak heltzen badabe, euria laster.
133: Euli txikiak elkartu ta eguzkia sartu baiño lehenago hegaz dabiltzanean, eguraldi ona.
134: Euri lantxe apirilean, antxoa bitsa molla gainean.
135: Euri txipiak ematen tu aize haundiak.
136: Ezkurrik eztan urtean negu bera.
137: Ganbarako bazterrean maindire bat abotz, maiatzaren azken arte gorde zak.
138: Gandelairo bero, negua dugu gero; Gandelairo hotz, negua joan da motz.
139: Gandelairu hotz, negua iraganik botz; gandelairu bero, negua gero.
140: Gandelairu hotz, negua motz. Gandelairu bero, negua da gero.
141: Garia, txiki banintzen, handi banintzen, maiatzean buru nintzen.
142: Garizuma berandu, udaberria berandu; kukua etorri, gosea etorri; kukua juun, gosea juun.
143: Garizuma goiz bazan, berandu bazan, erdia gutxienez negu zan, guztia ezpazan.
144: Garizuma goiz, negua goiz. Garizuma berandu, negua berandu.
145: Gatuak belarri gibeletik hatza badarabile, eguraldi txarra.
146: Gatuak erotuki jostetan ari direlarik, biharamunean elurra.
147: Gau gorri aizetsu; goiz gorri euritsu.
148: Gaur dela bihar dela Doniane, etzi San Juan biharamone, gure soloan lapurrik ez, badagoz bere erre beitez.
149: Gauza galdua idoroteko, San Antonio hartu bitarteko.
150: Gaztalaizeak euria berakin.
151: Gehiago irauten dau auzoan emazte gaiztoak, martian eduarrak baiño.
152: Gibelerat uztarka behiak ari direnean, gero denbora txarra.
153: Goizean eguzki gorri, arratsean iturri.
154: Goizeko suak argi argi eginezko, egun hartan euria.
155: Goizeko ustrukua, arrats euri; arrastiko ustrukua, bihar etorri.
156: Gure ortuan ginda lorea San Juanetako heldua, San Juanak baiño lehenago gure usoak batua.
157: Harrak azalean dabizanean, euria laster.
158: Harrak eta txinduriak lurgainean agertzen diranean, eguraldia euritara.
159: Harrak ugari lur ganera urten ezkero, euria.
160: Hauxe da egia, zortziko berria, hiru txiki ardorekin, libera ogia. (San Sebastian egunean Urdianen).
161: Hazila hotz, negua motz; hazila bero, negua gero.
162: Hegoaren ondoti euri.
163: Hilaren azken eguna ta urrengoan aurrenekoa onak badira, hila ondo jarraituko da.
164: Hilaren bi ta hiruan eguraldi onak izan ezkero, langiro onak hil hartan.
165: Hilaren hirugarren eguna nolako, hil guztia halako.
166: Hilaren hagei ta zazpigarrena nolakoa, hurrengo hila halakoa.
167: Hodei gorri, aize edo euri, hegoa ezpaledi.
168: Hontzak neguko eguerdian nahiz arratsalde erdian kantatzen badu, elurra.
169: Hontza oihuka ilun nabarrean hoiz samar hasten denean, eguraldia berehalaxe aldatuko da.
170: Idiak eztula egin eta San Blas! Aititek eztula egin eta itoko al haiz ba!
171: Iguzkia ta euria, martxoaren aldia.
172: Ilbeltza, ilzuri, babea betez itzuli.
173: Ilbeltza iten badu iltxuri, ardiyek haziko du axuri; ilbeltxa iten badu ilbeltz, ez ardi ta ez axuri.
174: Ilbeltzak iten badau i1txuri, ardiyen aziko dau axuri; ilbeltza iten badau ilbeltz, ez ardi ta ez axuri.

175: Ilintxa urte, gari urte.
176: Illaren irugarren eguna zelako, ille guztia olako.
177: Intxaur urte, arto urte.
178: Ipar euria, hogei ta lau orduko euria.
179: Iretargiak larrina daukanean, hogeita lau ordu barru euria.
180: Irusta luzatu ta artezten danean, euria.
181: Itxasantzarrak datozenean, edurrak ugari.
182: Itxasantzarrak datozenean, eguraldi txarraren zantzua.
183: Izarrak argal badira, biramenean eguraldi ona; usu badira, euria.
184: Izarrak bakan daudenean, eguraldi onaren zantzua.
185: Izotz urte, gari urte.
186: Jainkoaren paxea agertzen denean, bederatzi eguneko euria.
187: Jauna egizu aterri ta kalma.
188: Jaundone laurenti, estu batean euria, bestean ilintzi (Itxindi).
189: Jaungoikoaren gerrikua kostilajia. (Ortzadarra Urdiainen).
190: Jerikoko larrosak bere horriak batu ta tximurtzen dauzanean, eguraldi ona.
191: Jondone Johaneren euriak ogia itotzen eta ardoa urtzen.
192: Jondoni Joaneko euria, ogien galgarria.
193: Jondoni Laurendi, esku batean euri ta bestean itxindi!
194: Jondoni Martin eder, ogia bota lurrer.
195: Kandelario bero, negua dauka gero; kandelario hotz, negua joan da motz.
196: Kandelario, edurra dario; San Josek lagunduko dio.
197: Kandelarioetan eguraldi ona baiño ardi arten otsoa ikusi hoba da.
198: Kandelario lario, atxari ura dario, errotari uruna, hauxe da guk beoguna.
199: Kandelario lario, atxari ura dario, sagartxoari mustio, akerrak dantzan, astoa danbolintero.
200: Kandelario, lario lario, atxari ura dario, makatzari madari, eutsi Peru ankeari.
201: Kandelarioz aterri, negua dakar atzeti.
202: Kandelarioz edurra, joan da neguaren beldurra.
203: Kandelarioz euria, laster da udabarria; kandelarioz aterri, negua dator atzeti.
204: Kandelera eguneko jostaiek, berrogei eguneko ekaitza.
205: Kandelera lera lera, bortz hilabete larrainera, sei ere bai Aezkoara.
206: Kandeleraz bildurra, Santa Agedaz edurra.
207: Kandelerioz eguzki, negua dago aurreti; kandelerioz edurra, joan da neguaren beldurra.
208: Kandelero bero, negua heldu da gero; kandelero hotz, negua gan da motz.
209: Kardu latzak bere hortz zorrotzak eta azala estutzen dituanean, euria.
210: Katuak iparraldera begira musua garbitu ezkero, eguraldi ederra. Itxasaldera begira garbitzen badau, euria.
211: Kortan daukagu txal bat, azurra ta azala, aitak San Antonio loditu dagiala.
212: Kukua Andra Mari martikok argitu, kantua emon eta San Pedrok isildu eta moteldu.
213: Kukua etorri, gosia etorri; kukua jun, gosia jun.
214: Kukuak Andra Mari martxokotan kuku, San Pedrotan mutu.
215: Kukuak egiten du maiatzean kuku, garagarrilean gelditzen da mutu.
216: Kukuak esan eban Andra Mari Martikoz ez ba etorren, berari ondrak egiteko.
217: Kukuak kuku Erromako zubian, zortzi egunerako agertuko da Euskalerrian.
218: Kuku garagarrilerako mutu.
219: Kukurik kukura urtea, ehun dukat soldatea, haserratu gaizenean, ugela ataratea.
220: Lanoxerra martian noraino, apirilean edurra haraino.
221: Lantxerrak ibarraz, hor dek lanoara idietaz.
222: Lantxerra Martxoan noraino, apirilean elurra haraino.
223: Lazaro hotzak hil eta Erramu urak eremen.

224: Lazki eta baxaki, azaroko jaki.
225: Leia edurraren geia.
226: Madalen astea bero, gaztaña gero.
227: Madalen bero, gaztaña seguro.
228: Madalen eguna eguraldi onez, gaztain zaliak zorionez.
229: Madalen giro txarrez, ikoak batzen ez zara nekatuko lorrez.
230: Maialen eguna esne eguna.
231: Maiatza erdia goseak eta beste erdia hotzak.
232: Maiatza erdiz hotzak hila ta erdia beroak errea.
233: Maiatza euritsu, laboraria orgulutsu.
234: Maiatza fardo, ekaina klaro, laborariak izanen du ogi eta ardo.
235: Maiatza hotzak eta goseak hil.
236: Maiatza hotzak hil ei zuen.
237: Maiatza hotz, urtea botz.
238: Maiatza hotz, urtea zorrotz. Maiatz eurite, urte ogite.
240: Maiatza neskatxa ederra ei zan, baina alperra, eta goseak eta hotzak hil zeuen lan egiteko bildurrez.
241: Maiatza pardo, bagila pardo.
242: Maiatza pardo, ekaina klaro ordian izain da ogi ta arno.
243: Maiatza pardo, garagarzaroa klaro, ordua izain da ogi ta ardo.
244: Maiatzaren erdia hil zue hotzak, bertze erdia goseak.
245: Maiatzaren zazpi egun, zazpi hilabeteen lagun.
246: Maiatza uritsu, ekhaina erhautsu, orduan da laboraria orgulutsu.
247: Maiatza urtearen giltza.
248: Maiatza urte guztiaren ardatza.
249: Maiatzean bedarra luze da ta sendo, igitaiaren hortzak ebagi sendo.
250: Maiatzean ez da ulerik ebagi behar, urdintzen dalako.
251: Maiatzean, mila euri, mila ogi.
252: Maiatzean, tipi baniz edo handi baniz, burutu behar niz.
253: Maiatzean txindurria be esnedun izaten da, hotzarekin maiatzan zertxobait motela, bereare-kin berrizexkatu bezala.
254: Maiatzean txiki nahi handi izan, burutu behar naizela ziur izan.
255: Maiatzeko artoaren ardurea ta bost seme alaba daukazana eztago musika bila.
256: Maiatzeko aza, gizona hiltzeko.
257: Maiatzeko euriak niretzat, beste hiletakoak hiretzat.
258: Maiatzeko urak, ulea hazteko.
259: Maiatzeko zazpi egun, zazpi hilebeteren lagun.
260: Maiatzeko zazpi gauegunak, zazpi hilabeteren lagunak.
261: Maiatz iluna ta bagil argia, urte guztiko ogia.
262: Maiatz lehenari dagokiez Jakobo ta Felipe.
263: Maiatz lehen eguna, esne eguna.
264: Maiatz loratsuan egun lenena manduko biargin guztien jaia. Gaurko egun hau, urteko onena, hau lez alaia beste bat ez da.
265: Maiatz lorea, utsa biaño hobea.
266: Maiatz lore, lore ta lore.
267: Maiatz luzia, maiatz gosia. Harek hil zian nere alaba gaztia.
268: Maiatz hotzak abareak hiltzen.
269: Maiatz hotzak dakaz potzak.
270: Maiatz hotz, ez autz ez bihotz.
271: Maiatz hotz, ez gari, ez agotz.

272: Maiatz pardo, ogi ta ardo.
273: Maiatz pardo, ogi ta ardo; maietz hotz, ez gari ez agotz.
274: Maiatz paskuak euritsu, urtea ogitsu.
275: Maiatz urite, urthe ogite.
276: Makaillao eskege edo ixiki batek bealdea bustia badauko, euria laster.
277: Manex Salaman urak ereman laharrak atxiki otsuak iretsi grin-grau! Aitak eta amak borta etsi! (ordiz-egunak –apirileko lehengo hiru egunak– delakoekin erlazionaturik).
278: Marasma handi bat eta txiki bat ikusi ezkero, euria laster.
279: Marmotak gandelairuz lurpetik ateratzean bere itzala ikusten balin badu; berriz gibelerat itzultzen omen da.
280: Martia birrinbi barranba.
281: Martia eurite, urtea ogite.
282: Martia euritsu, urtea ogitsu.
283: Martia gizonena, jorrailla andrena.
284: Martian arraultza ta martian txita.
285: Martian lantxerra noraiño, jorraillean edurra araiño.
286: Martiak buztanaz, jorraillak bularraz.
287: Martiaren erdian gaua eta eguna bardin.
288: Marti kakatsu, april ederrean sartu naiatzu.
289: Martiko eguraldia, erdia euria ta erdia eguzkia.
290: Martiko lorea, baso lorea.
291: Martiko oilloa, oillotxo.
292: Martiko trumoiak bederatzi eguneko ekaitza ekarten dau.
293: Martiko trumoiak berrogei egunetan euria.
294: Martiko sugeak berrogei eguneko ekaitza dakar.
295: Marti oilarto gorria, izan zakidaz balia.
296: Marti oilarto gorria, ointxe nigaz akordaten ezpazara, badoa nire bizia.
297: Martsuben izotza zenbatien, mayatzien ainbestien.
298: Martsuben lainua noraindo, elurra araindo.
299: Martxoa, birrinba barranba.
300: Martxoa eurite, urtea ogite.
301: Martxoa gizonena, apirila emaztena.
302: Martxoak buztanaz, aphirilak bulharraz.
303: Martxoak maiaztan badu, maiatzak martxoetan duo
304: Martxoak martxatan badu, aprilak lardegiten du eta agitan dena maiatzak kontatan du.
305: Martxoan aire gorri, goizoro elur berri.
306: Martxoan lantxerra noraino, aprilean elurra karaino.
307: Martxoko cuerno! eik eta larreik!
308: Martxoko lorea ezpalitz hobea; apirileko lorea, urrea baino hobea; maiatzeko lorea, utsa baino hobea.
309: Martxoko ostotsak berrogei eguneko ekaitza.
310: Martxoko sugeak berrogei eguneko negua dakar.
311: Martxo lorea, basa lorea; april lorea, bat ere baino obea; maiatz lorea, urre lorea.
312: Martxolore, bat ere gabe baino hobe; april lore menture; maiatz lore lore ta flore.
313: Martxo lore, urde lore; aphiril lore, urrearen pare; maiatz lore, gabe baino hobe.
314: Martxo lore, urre lore. Apiril lore, ez ukana bano hobe. Maiatz lore ez ukanain pare.
315: Martxuben kukuak jotzia idi zarrai narruba kentzia.
316: Mendebalak euria dakar.
317: Mendiak egiten deinean soinu, tenprak euri barrontatan du.
318: Mezako liburua aldarean ezker aldean gelditzen bada, eurituko da.

319: Mozoloak oihuka dabiltzanean, aizea dator.
320: Muskarra kantari badago, legorte edo euritea.
321: Muskarrak kantatu ta ixkisuak karra karra karra agiten badu, euri haundiak berehala.
322: Muxarra pago zuloetan sartzen baldin bada, hego aizea.
323: Neguan txoriak etxe ondora etorrita pinpin ari badira, elurra berehala.
324: Negu bigunegiak, uda gogorregia.
325: Negua elhurte, uda agite.
326: Negu bigunegiak, uda gogorregia.
327: Negu gogora, uda amesgarria.
328: Neguko aro ederrak, udako bere urak.
329: Ogiartez Erromako zubian kantatzen hasi ta mundu osoan zabaltzen dira kukuak.
330: Ogiartez kuku, San Pedroz mutu.
331: Oilarrak arboletan gora igo ta gelditzen badira euria.
332: Oilarrak arratsalderako bortz orenez geroz kukurruku jotzen badu, hogei ta lau orenen barnean euria segur.
333: Oiloak sagar adarretara igon ezkero, laster ekatxa.
334: Oiloak zorriketan, ardiak zintzarri dantzatzen, oilarra goizean kukurruka hasten denean, txitxarea luze luze lurraren gainean dabilenean, enarak lurra ia ia joan dijoazenean, euria laster.
335: Oiloak zorriketan badihardue, euria.
336: Okila, kantatzen duenean, euria eskatzen ari da.
337: Okilak kantetan badihardu, egarri da ta laster da euria.
338: Ormak kortan izerditan badagoz, euria.
339: Ortzilarean harria egiten badu, bederatzi egunez uria.
340: Ostadarra agertzen danean, bederatzi eguneko euria.
341: Ostiraleko trumoia berrogei eguneko berdatea.
342: Ostiralez hasten den hila, onik hasten bada, ona izango da, txarrez hasten bada, txarra.
343: Ostiralez sartzen den hilabetea, euritsu..
344: Ostotsa ostiralez bada, bederatziurren osoan ostotsa izango da.
345: Otsaila firila farala.
346: Otsaila firila farala; martxoa birrinbi barranba.
347: Otsaila katuila.
348: Otsailean aldiz eguzkitan, aldiz sutantzean.
349: Otsailien gizona mauko utsean ikustea baño hobe, atsoa arditan ikustea.
350: Otsailko, otsailko, ni basora jaan da otso bizia ekarriko. Neri lukainka ematen eztidanari ateak eta leioak autsiko, autsiko.
351: Otsailko, otsailko, ni basora joan da otso bizia ekarriko. Neri lukainka ematen eztidanari tripatik aurrera burduntzia sartuka, sartuko.
352: Otsail txikia, ez haiz hi besteak baino hobia.
353: Otsail txiki hasarria, ez haiz hi besteak baindo hobia.
354: Otsallen lañoa noraño, elurra hauntzaño.
355: Pasko maiatzekoa euritsu, urte hori ogitsu.
356: Phanzart, leher edo zapart.
357: Pipiño urte, gari urte.
358: Porrika ertzean txingarra geldiketan bada, biharamonean euria.
359: Saguzarrak iluntze ta gauetan hegaz dabiltzanean, biharamonean eguraldi ona.
360: Salbatore, baba lore.
361: San Agustin zirikiton, intziko aize on!
362: San Andreseko elurra, neguaren abiadura.
363: San Andres, xerria askan trebes.

364: San Antonio, San Antonio txarria gaixo danean, San Antonio, eztau iñok esaten odolostea jaten danean.
365: San Bartolome burua lodi ta ipurdi me.
366: San Bizente hotza, neguaren bihotza.
367: San Blas! Bedeinkatuta aria saman ipiñi, ta eztulak blast!
368: San Blas ta Santa Agedako feriak, mutil neskatxen ezaupideak.
369: San Clemente Papa, elurra tipi tapa.
370: San Franzisko urriko, linoa hiru horriko.
371: San Gergorixo biharamona, izerdiak daroa atzo gorputzari emona.
372: San Gergorixoetan, itxasoa antxoa adurretan.
373: San Gil iratze ebakitzea zil.
374: San Isidroren astea, atzea baño aurrea hobea. (Artoa ereiteko).
375: San Joseren loreak, atzekoak baño aurrekoak hobeak.
376: San Juan ante portan Letañan zapatu arratsaldian hamalau atso tronpetak joten matrallu baten gañian. Urra, urra, urra, San Juanetan dantzan egin dogu ipar haizetan.
377: San Juan bezpera, sarna fuera, ogie ta ardoa etxera, atso zarra ganbilpera, neskatx gaztiak txokolate hartzera.
378: San Juan eguna, urtian dan egunik luzena.
379: San Juan eta San Pedro, astero balegoz.
380: San Juanetako euriak kenten dei ogi eta ezdei emoiten ardau.
381: San Juan eulibagea, urtea ogibagea.
382: San Juanez kuku, San Pedroz mutu.
383: San Juan jan edanak juan.
384: San Juan larraka, urte guztiko marraka.
385: San Juan ogia ta artoa kanpoan.
386: San Juan zelan, etorri alan joan.
387: San Jurki, artoak ereiteko goizeti. San Markos, artoak ereinda balegoz.
388: San Lino egunien danok agorra ereitera.
389: San Lorentzok esku batean sua ta bestean ura.
390: San Mark, artorik baduk, lurrerat eman.
391: San Mark, artorik balin baduk, bota zak; ezpaduk, xerka zak.
392: San Mark egunean euria bada, berrogei egunez gutiago edo gehiago izanen da.
393: San Marko, artoak ereiteko goiz asko.
394: San Markos astea artoa ereiteko astea.
395: San Markos astea, atzekoa baino aurrekoa hobea.
396: San Markos aurretik odoiak jotzen bado, urte hura arto urte ona.
397: San Markosek kazkabarra agoan du.
398: San Markoserarte txintxarria bete lasto gordetzeko esan zuen larrabehiak.
399: San Markosetan ereiten badozue artoa, hartuko dozue artoaren lastoa.
400: San Markosez beude ganbaran zatuka bat lasto ta zintzarri bete belar.
401: San Matia erein duk aza hazia? Hik bilduko duk aza handia.
402: San Meder eguneko euriak, berrogei eguneko ondoria.
403: San Migel maiatzeko, gure sorua laiatzeko.
404: San Migel urriko, agorra bi orriko.
405: San Pedro egunean euria bada, berrogei egunez euria izanen da.
406: San Pedro egunean euria egiten badu, urte hartan gaztaña aunitz.
407: San Pedro, gizonak ardaoa edateko.
408: San Pedro Nolasko haragi gitxikin salda asko.
409: San Pedro Nolasko arraiñik ez, olatu asko.
410: San Pedro zarraren burua, gardamuak zulatua.

411: San Pedro zeruetako giltzaren jaubea, zeurea txalupea, neurea sarea.
412: San Pedroz kuku, San Martzialez mutu.
413: San Primo egunian urik egiten badu, berrogei egunez euria.
414: San Sebastian hotza neguaren bihotza.
415: San Sebastian oren bat haboro egunean.
416: San Semeder egunean uria egiten baldin badu, kaskoiak guziek nigarrez egoiten dire.
417: San Simon ta Juda negua heldu da.
418: Santa Engrazi jentil dena Apirilleko hamaseigarrena ortzegun santu izanik ere tanborra xo behar dena.
419: Santa Ines, Iraetan enamoratu nitzan igez, hango neskak mantentzea ez da errez.
420: Santa Kurutz, kaikura esnea purrust.
421: Santa Kurutz maiatzeko, gure soroak laiatzeko; azia falta baduk, bila zak ereiteko.
422: Santa Luzia eguna, argitu orduko iluna.
423: Santa Luzietan gaua da luze. San Bernabetan dogu eguna. Aukera betean bizi danak ez dau erruki bere laguna.
424: Santa Maria Madalena zan emakume bat fiña, ermita txiki batean dago santa honen imagiña, pekataria izan zan baña penitentziak egiña, obe genduke bera lez gomertiduko bagiña.
425: Santo Domingo Maiatzekua pasau artean, arran bete bedar gorde behar etxean.
426: Santu guzien egunetik egurrietara aize ta euri gutxi, lekak ganbarara.
427: Sapoak klik klok kantetan badihardu, biharamonean eguraldi ona.
428: Satagina, eguraldi ederretan pur pur pur lurra ateratzen ari bada, biharamonean eguraldi gaiztoa.
429: Satorrak lurra ateratzen badu, eguraldi txarra laster.
430: Semark, azia ba duk emak eta ez ba duk, xekazak.
431: Semeder eguneko euria, berrogei eguneko euria.
432: Sua eroska ari bada, aize hegoa laster.
433: Suagila bat norbaitek hil ezkero, biharamonean euria.
434: Subea eguzkia hartzen bide ondoan badago, laster euria.
435: Subea gabean arrastaka badabila, gehienean eguraldi legorra biharamonean.
436: Suge anitx agertzen direnean, erauntsia laster.
437: Sutautsa opiltzen denean, euria laster.
438: Tin tin, marti kakatsu; april biribilean sartu natxatzu.
439: Titarea, behatzak legortuta, erortzen baldin bada, euria edo eguraldi hotza.
440: Trumoi urte, arto urte; arto urte, kaka urte.
441: Txikiya banintzan, aundiya banintzan, mayatzian zorruan nintzan. (Gariak esandakoa).
442: Tximeletak martxoan azaldu ezkero, ondorean txingorra edo elurra.
443: Txinbilo urte, elur urte.
444: Txinduriak irteten badabe, hogei ta lau ordu barru euria.
445: Txitxareak euri handia denean, uretan badabiltza, egun hartan euria atertu gabe.
446: Udabarriko aizea erraiñentzako baiño amagiñarrabaentzako hobea.
447: Ur goiena ur barrena, urteberri egun ona.
448: Urrian artoak burutzen eta iñarak buztantzen.
449: Urriko edurra, zortzi hilebeteko edurra.
450: Urriko lanetan, agudo zopetan.
451: Urriko tenporetan zer aize, urte guzian halaxe.
452: Urrutx urte, elur urte.
453: Urtarrilak jaten du urina, otsailak jaten du polpa –eta martxo gaixoari egozten dabei kulpa.
454: Urtarrileko lehen hamabi egunak, zotal egunak.
455: Urtarrileko lehen hamabi egunak, zotal egunak edo igarregunak.
456: Urtarrilotza, neguaren biotza.

457: Urtarril zezeiletan mitxilikotea ikusi baiño hobe otsoa ardi yaten ikusi gurago.
458: Urte barri, zoroak bere igarri.
459: Urte berri zereki, urteko eguberri guzuak kareki.
460: Urte zarrez mikirri, eroak ere igarri, zintzoak asko ez.
461: Ur urte, elur urte.
462: Usoak urrumadaka badaragoie, eguraldi ona.
463: Uztaila errautsu, laboraria orgulutsu.
464: Uztaila erhautsu, laboraria urgulutsu.
465: Uztaileko burrunburrun, ez beti goxo bainan hun.
466: Xixareak errepidean batetik bestera dabiltzanean, ebia lasa.
467: Zakurra kukusoak kentzen ari bada, euria laster.
468: Zetarako behar horrenbeste lukainka, maiatz luzeak ereango ditu aixa.

II. APENDIZEA
FORMULA MAGIKO-TAUMATURGIKOAK

1: Abelek gorde dagizala. (Jaioberriari).
2: Abelgorriak gatxak jo eztagizan, aker bat kortan eukitea gauza ona da.
3: Adio Joanes, haugi bihar muga onez. (Eguzkiari egiten zaion agurra).
4: Adios amandre, biharartio. (Eguzkiari sartzen denean; goizean ongi etorri amandre).
5: Agineko minik ez izateko, santa Apoloniari errezatzea gauza egokia da.
6: Agineko minik inoiz ez izateko, goatzetik jaiki ta pertz bete ur hartu ta han sartu ankak.
7: Agineko minik inoiz ez izateko, goizean belarri atzeak goitik bera ondo igortzi behar dira.
8: Agur hilak gure aintzinekoak, ziek gu bezala izan zireztenak, gu ziek bezala izanen girenak, lo hun bat eman dautziela jinkoak.
9: Aingeruak dantza ditezela gure sukaldean. (Eguberrietan ospatzen den sorgin afariko formula).
10: Aingeru guardiako maitia guarda nezazu eta behira etsai eskarmentu horen errekontru gaisto guzietatik. Halabiz.
11: Aingeru hunak sukaldea, jinkua eta Anderdena maria, zahute gurekin ofeat.
12: Aita beira zazu gure etxia, Semia beira zazu gure ganbara, Izpiritu Saindia beira zazu gure arima eta gorputza. (Oheratu aurretik sua estaltzeko).
13: Aitarekin, Semearekin, Ispiritu Sanduarekin, ohatzen lau adarrekin. (Hiltzen ari denari).
14: Aitaren, Semearen, Espiritu Santuaren izenean, amen. (Legena sendatzeko).
15: Aitzkorri, Aralar, Trintxera Batallón, remisionem pecatorum nostrum, amen. Gaizto guztiak sar daitezela zeruan.
16: Aize haundia dabilenean, eskribauren bat hit da.
17: Aizkora ahoz gora badago, guretik badoa dirua.
18: Aizkora ahoz gora baldin badago, bere jabea ezta aurten hilen.
19: Akelarrerat hementik, sasu guzien gainetik, hodei guzien azpitik, oren bat harako, oren bat hanko, oren bat hunako, jauzi bat eta brixt!
20: Aketarrian errekan, sorginak oro kurrikan!
21: Aldi bateko bizia badaukazu. (Dendariari dirua justuki ematean).
22: Ama birgiña Karmes, Ama Birgiña Kodes, iten baut amets izan deila ones.
23: Ama Birgiña Karmes, nik egin dut amets, nere amets guziak izan ditzan berorren onez.
24: Ama Birgiña Kodes, nik eiten dot amets, izan daila onez.
25: Ama Birgiñea: eutsi hagin zarra ta ekazu barria.
26: Amabitxi izatea haintzat hartzen eztabenari, atsekaberen bat jazoko dako.
27: Amandre Santa Ines, bart egin dut amets, berriz egin eztezadan, ez gaitzez ta ez onez.
28: Amandre Santa Ines, bart egin dut amets, eztakit onez ala gaitzez, onez egin badet, betor nere bidez, gaitzez egin badet, bijoa bere bidez.
29: Amandre Santa Ines nik eiten det amets: onez bada bion partez gaitzez bada dijuala bere bidez.
30: Amantalari bira bat emonda, kentzen da zotina.
31: Amak hi egin hindunanean koko mokordo bat egin balu, hark ongarritako bederen balioko ziñenan. (Madarikazioa).
32: Amuko kondarraren gainean sorginak piza egiten dui.
33: Andere Santana, Birjinaren ama! Banua ofe hontara lo egitera gorputzaren errepausatzera. Gaur jiten bada ene hil orena, aingeru San Gabriel igorrazu ene arimaren guardatzera. Jesus dut aita, Birjiña ama, Aingeruek izeba, Apostoluek oseba, ezkilek johute mundian, ollerrek beren ordian; Jinkua eta Anderdena Maria maitia ene arima zien gomendian eta zien loria saindian. (Oheratu aurretiko orazioa).
34: Andra Santa Ines, bart egin dot amets, ona bada berorren partez, txarra bada, beioa artez.

35: Andre Santa Ines, bart ein dut amets: bart ein badut gaitzez, gaur ein dezadan onez.
36: Aramu baltza lenengo ikusten dabena zori txarrak joko dau.
37: Arantza beltza lorezabal, arto lurrak are-zabal.
38: Arerioari kandela bigaz argi egin behar dako.
39: Arkakusoa eskuan harrapatu ezkero berriak laster etxera.
40: Armiarma beltz handiak etxean norbait hilen dela iragartzen du.
41: Arrastiko aiñarbak esperantxa ekartzen du, goizekoak xagrina, eguerdikoak plazera.
42: Arratsaldeko lipuak berri ona ekartzan du, goizekoak berri txarra.
43: Asteartean ez bordaltu ez itsasoratu.
44: Astearte ta ostiraletan ezta ebaki behar josi behar den gauzarik.
45: Asteazken ta ostiraleko argizagi berriak aro gaizto ekartzen du.
46: Atorra alderantziz jartzen bada, auzoan haserrea.
47: Atso batzu, hinki hanka, bai eta zonbait lasterka!
48: Atza kentzako Doniane goizaldean, argia baino lehen, sariotako ihintzean biluxik izulika ibiltea ona da.
49: Aurten etzara hilko. (Ordaintzerakoan diru juxtua ateratzen bada poltsikotik dendariari).
50: Ave Maria xuria, bost penitentzia; lurrak dakar ogiak, xotxak dakar gorria. Lokaria, mokaria, parabisuko itsaria. Parabisuan zenbat ate? Hetaik hobenetaik sar nindaike. Urzo xuria bidian baratu: –Zer dakarrak hor? –Olio ta krisma. –Hauri, batea nezak. –Ehezaket batea. Zeren ez? –Haren ez. Zeruetako Jainko Jauna diok Erromako zubi puntan urrez urreztaturik zilarrez zilarreztaturik elorri zuriz koronaturik argi xuriz pintaturik. Hori gauian edo egunian hiruetan erraiten duenak ez duke ariman bekaturik, suyan denian suyak erre ez tio, urian denian urak ito ez tio, bidean doanian gaitzak harrapa ez tio, azken juizioko egunian ere salba nio.
51: Ave Mariya xuriya, xuriya eta ederra, anpara nazazu zeru kaskaletan, tribunal kakaretan. Jesukristo gure jaunak meza berria eman zubenien han zauden San Juan eta San Pedro anaiatik beti itaniko fest bihar komunika. Hau ostiraletan hiru aldiz esaten duenak ez duela izango bekaturik. Bekatue utzi te prugatoriotik animak ateratzen. Dakinak eztakinai erakusteko aurriz bi ikasten ahal eta ikas eztuenik izain duela azken juizioko egunin seiñalia.
52: Azkordin dakar. (Ospela edo azkordina kentzeko formula).
53: Banoa ilunpe hontara eztakit noiz artio, gaur gure azken orena heldua balin bada zure esku saindietan jar bedi gure arima. (Oheratu aurretiko otoitza).
54: Banoa loaren hartzera Jesus, zure izenean, gau eta egun begira nazazu ene etsaien artean. Jauna, zure odol dibinoaz erosi nauzu munduan, arren errezibi nazazu hil eta ondoan zeruan. (Oheratu aurretiko otoitza).
55: Bariakuan trumoiak hots egiten badau, eurizko bederatziurrena.
56: Barikuetan ipinita jaioriko txitak zori txarra izango daue.
57: Barikuko iretargia txarra izaten da.
58: Barikuko jaiotzea, suerte txarrekoa.
59: Basasua itsasua ozanera, idukalen semearken, semeorabano, juantxekago. (Basasuen aurka).
60: Bat, bat eta erdi, bapez ta erdi. (Garitzak sendatzeko).
61: Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi. (Zotina kentzeko; arnasa batetan esan behar da).
62: Begia barrura, zamarra kanpora, Andra Mari lagun. (Zaborra bat begitik kentzeko).
63: Begiko mina kentzeko bortako giltza bederatzi aldiz begian igaraiten duzu. Begia bihotzari jarraikitzen ziozu.
64: Begi oker, tripa musker, zaia binper!
65: Belarriko mina kentzeko San Gregoriori errezatzen zaio.
66: Belaun hontatik pasa dedilla bestera, hontatik joan dedilla hemendik. (Belauneko mina kentzeko).
67: Bernazurrak hausiko aldattaz. (Madarikazioa).

68: Bi aldiz bateatua bi aldiz hiltzen da.
69: Bi bataiok bi heriotza zor ditue.
70: Bigarren argi hori arimentzat izan daiteala. (Sukaldean bi argi pizturik dagoenean).
71: Bihotzeko mina ezta osatutekoa.
72: Biziena daukanari bizia luzatuteko sukalokelea, okelea, ta okelea emoten dautse.
73: Boladak dira bederatzi, bederatziek zortzi, zortziek zazpi, zazpiek sei, seiek bost, bostak lau, lauek hiru, hiruek bi, biek bat. (Escrofula sendatzeko).
74: Dabantia korda laxatzen bada, senargaia infidel da.
75: Deabruak boletan dabiltza. (Ostotsa denean).
76: Deabruak haserreturik dabillza. (Ostotsa denean).
77: Diruz saldu nahiz erositako erleari ezkabia jiten zako.
78: Dominixtekun, ehun ostikun!
79: Donianez goizean goiz jaikitzen dena, urte guztian eztu logura izanen.
80: Edaratea sendatzeko, txerrimina beraxtuxe eserten da eri gaixoan.
81: Ederra izan nahi duena jar dadiela ekea den tokian.
82: Ederrenari jiten zako kea.
83: Egin dozue Zanpantzar da Mari Galeta. (Atsalaskari baten egiten denean).
84: Egur ona nahi duenak gorapenean egotxi behar du.
85: Eguzkia joan da bere amagana, bihar etorriko da denpora ona bada.
86: Ehun horriko larrosea egosi ta haren urez kentzen da disipula.
87: Ehun urtez, oilar bat egunian janez, haur bat urtian eginez!
88: Elorrioa loran dago, artoa ereinda balego.
90: Emakume bat txistua joten ari danean, Andre Mariak nigar egiten du.
91: Emakundez gabez iruten ari den emakumeari sapalarra elkitzen zaio.
92: Enoa aurten hilten. (Dendariari dirua justuki eman ostean).
93: Eperra izan baledi, hiretako izanen huen. (Dendariari dirua justuki eman ostean).
94: Erein ere ezta deusik egiten hilberrian.
95: Erleak aurretik igarten daude ekatxa noz datorren.
96: Erleren bat kristalera datorrenean norbait hilen da.
97: Erle bat lehioalat jiten denean, eztuzu erho behar.
98: Erle ebatsiak eztu eztirik ez umerik egiten.
99: Erleak eztu lanik agirian egiten.
100: Erleak hiltzea pekatu handia da.
101: Erpuruaz esku muturra jotzen duena sorgina omen da.
102: Erramu egunez jauntzi berri bat estrenatzen delarik, deabruari begi bat kentzen zako.
103: Erramu larunbata eta Lazaro ostiralez barutzen dena salbatuko da.
104: Errana, arrana.
105: Errana ezta gozoa, bada bere eztizkoa.
106: Errementauko aldau. (Madarikazioa).
107: Errena, gerrena.
108: Errokan dagon mullua iruin behar da dena, bestelaz bihar mezara segituko zaitu.
109: Erromako zubi azpitik igaroten dana, gizona bada emakumea egiten da, emakumea bada, gizondu.
110: Errosarioak saldu ta kartak erosi ta Jangoikuaren grazian bizi.
111: Eskuarea hortzez gora dagoanean, Andra Maria negarrez egoten da.
112: Eskubitarra beste eskuko atzamar bigaz hartzen dabena sorgina ei da.
113: Eskumuturrean kukusoak atxikitzen badu, dirua seguru.
114: Etor diten, gure buru, zortzi mila orga debru.
115: Etsaia apartakit, Gurutziaren indarrez, amen. Saluk, Sainmark, Sanmatio, San Juan, Santa Maria, apartakit Ingumerie.
116: Etsaiak alkarri su egozten ari dituk. (Ostotsa denean).

117: Etxekoak ofea eta aingeruak sukaldea, jinkoa barnea, deabrua kanpoa. (Oheratu aurretik etxea konjuratzeko).
118: Etxerako zara ta etxerako izan zatez. (Katu berria etxeari lotzeko).
119: Etzaten niz oheat leku ilun bateat, Jauna, ni hemendik jeiki gabe izaiten bada ene azken orena, izan bedi ene arima zure esku sainduetan errezibitia. (Oheratu aurretiko orazioa).
120: Etziten niz Jinkoakin, jeikiten Ama Birgiñakin, Jesus dut bihotzean, aingeruak saihetsean, gaiztoak aparta zakizkit, ez nazaziela ataka loan ez amestean.
121: Ez hiz aurten ezkonduko. (Katuari buztana zapaltzean).
122: Ezkontze amodiozko, bizitze dolorezko.
123: Gabaz ezta izpilura begira egon behar.
124: Galtzak binperrez jauntzi ezkero xantza izanen du hartan.
125: Galtzerdiak iraultziz gainera jantzi ezkero nonbait auzia.
126: Gangarabilak dire bederatzi, bedratziak zortzi, zortziak zazpi, zazpiak sei, seiak bost, bostak lau, lauak hiru, hiruak biga, biak bat, gangarabilak egin dezala leher eta zapart. (Girgilak sendatzeko).
127: Garatzak sendatzeko bare bat osatu behar da.
128: Garenan garenan ohatzean, gauean egingo dinagu ardatzean.
129: Garitzak aingeru bedarrekin batera ta bestera igortziezkero kentzen dira.
130: Gauargi! Hi aldiz jin akitala egunargia! (Inguma aldentzeko).
131: Gauez udan burutsik dabiltzan gizonak karsoiltzen dira.
132: Gaur dala Maria kale, bihar dala Zanpantzart, egin dezagun tripan larruak zart.
133: Gaur kontsolatu nozu eguzkia, bihar bere etorri zakidaz kontsolan naitean.
134: Gauza galdua edireiteko, har San Antonio ararteko.
135: Gaztaina gordinak jan ezkero, zorriak egiten dira sabelean.
136: Gaztaina hostoa sagu baten belarria aiña haundi egin ezkero, artoa erein leike.
137: Gaztainak egositako ura ona da azkordinak osatuteko.
138: Geu geran bezala, kontrako liburua ekarri degu. Inguruz inguru intxaur hostoa liburu. Kartillaz Aitzkorri, al maiz de Zegama, al maiz de Zuzpurrutegi, amen.
139: Gibelekoa uratsaz eta gazuraz osatuten da.
140: Gilin galan, gilin galan, duenak eztuenari eman, berzelaz karrotea buruti peiti.
141: Gingilak dira bederatzi, bederatziek zortzi, zortziek zazpi, zazpiek sei, seiek bost, bostek lau, lauek hiru, hiruek bi, biek bat, sekulan gehiago sor eztadiela gingila biki bat. (Girgilak sendatzeko).
142: Girgilak dira bederatzi, bederatziak zortzi, zortziak zazpi, zazpiak sei, seiak bost, bostak lau, lauk hiru, hiruak bi, biak bat, girgilak dira zirt edo zart. (Girgila edo escrofula sendatzeko).
143: Goazenan goazenan ohatzera, goizean jaikiko gaitun ardatzera. (Gorulariei gabean).
144: Gorraizea San Gregorioren olioaz kentzen da.
145: Guk botako zaitugu ta parkatu iguzu. (Zuhaitz bat moztu aurretik).
146: Gure aitaita bolan dabil. (Ostotsa denean).
147: Gu txartoen bizi garenak bagina, elitzake munduan txarrik izango. (Bazkaldu ostean).
148: Guzurra badiñot, nagoan lekutik eneuke ziririk egin behar.
149: Hago isilik oiloak txiz egin arte.
150: Hamaika mila demoniñok eramango altek, amen. (Madarikazioa).
151: Harro harro Mariaño, bota zangoa gohoraño!
152: Hattikun, hattikun, fuera Mariun!
153: Hau bat, hau bapez; hau bat, hau bapez. (Garitzak sendatzeko).
154: Hau egia ezpada, ez nikezu hementik higitu behar.
155: Haurrak bat emaiten badio amari, amak biga eman behar dazkio haurrari.
156: Haurrek elukie elerik erran behar oiloak piz egiten dienean baizik.
157: Haurren basasuaiaren sendotzeko ona duzu barurtuia.

158: Hautsarren egunean txakurrak eta katuak bere barau egiten dabe.
159: Higi hadi, da gau erdi, altx ipurdi!
160: Hi jaio hintzanean, arkuma buru zuri bat jaio balitz, hobe genduan. (Madarikazioa).
161: Hilbera da onena asto nahiz ardiari ilea ebakitzeko.
162: Hilberako egurra erreteko onena.
163: Hilberako oilandatsu, hilbarrikoa oilaskotsu.
164: Hilberan txerriak hiltzea da onena.
165: Hilberrian eiten da egurra, hilzarrekoa baino sugarri hobe ta arinago baita.
166: Hilberriko zalke ta oloak lekatik ixuri egiten dira.
167: Hilberriz ebakitako ilea hazi ta meaztu egiten da.
168: Hilberriz egindako ongarriak indarra galtzen du.
169: Hilberriz egindako ongarria legortu egiten da.
170: Hilberriz egindako ongarria lizundu ta gogortu egiten da.
171: Hilberriz egindako ongarria lurrun batetan egoten da.
172: Hilko alduk, amen. (Madarikazioa).
173: Hilzarrean moxtu behar da biloa, azkartu ta usutzen zaiolakoz.
174: Hilzarrean moztu behar da ulea, zuritu eztaitean.
175: Hiru marapil egin ta zori ona izaten da.
176: Horra emaztekien gaiztakeriak. (Apirilan eguraldi txarra egiten duenean, gizonek emakumeei).
177: Horra gizonen putar hostikoak. (Martxoan eguraldi txarra egiten duenean, emakumeak gizoneei).
178: Horrek barikuan jaioa izan behar dau. (Zorigabeari).
179: Igandean hazkazalak mozten dituanak ezkardak izain tu behatzetan.
180: Ihia bat, enorra bi, ihi honek kenduko dik enor hori. (Garitzak kentzeko).
181: Inguma, enauk hire bildur. Jinkoa eta Andre Maria hartzen tiat lagun. Zeruan izar, lurrean belar, kostan hare, hek guzak kondatu arte, ehadiela nereganat ager.
182: Ingumes erromes, ez niok hire beldurrez, Jesus diat aita, ama birgiña ama, zeruko saindu ta aingeru guziak guarda.
183: Inguru inguru, intxaur hostoa liburu. Salbate sagasta berri eta sagasti berri han, matxikate udabarro mendia.
184: Intxaur zokolina jan ezkero, hilko haiz.
185: Itoko alda. (Madarikazioa).
186: Itoko alduk, amen. (Madarikazioa).
187: Itzulietara norbaitek zerbait jantzi ezkero iñok eztau engañauko.
188: Izpilu bat etxean hautsi ezkero laister zori txarra.
189: Izpilu ostean txerren dago.
190: Jainkoak duela parte, aingeruek bertze hainbertze, etsaiek baterez.
191: Jainkoak estreña on daigula. (Zerbait lehendabiziko aldiz jaten denean).
192: Jainkuain kurutzia ene kopetan, Jainkuain hitza ene mihian, eta Jainkuain grazia ene arima eta gorputzian. (Ura sainduz zerbait bedeinkatzen denean).
193: Janak on dagizula, edanak gaitzik ez, gorputzak osasuna, animak kalterik ez.
194: Janak on dagizula, edanak kalterik ez, Frantzisko gureak ekarrita, okolluan ahuntzi ez.
195: Jangoikoak duela parte, aingeriak bertze hainbertze, etsaiek batre. (Ekaitzak aldentzeko).
196: Jauna oizu su zaharra eta ekatzu berria. (Su berria egiteko).
197: Jaun Donaani Batista, gazteok dantzan gabiltza, balin bagabiltza ta ezpalin bagabiltza, hunat atso kalbo murritza.
198: Jaungoikoa, horra nere hagin zarra, eta ekar bezait berria.
199: Jaungoikoak estreña on daigula, hurrengo urtean beste honenbeste egin dezagula.
200: Jaungoikoak zeiñu onekoa egin zaitzala, zu gurekin ta gu zurekin izateko. (Aitak seme-alabari lehenengo jaunartzean).

201: Jaun San Bladi nik sua estali, bortan bada gaistaginik han harri badi. Jaun santa Kruz zilar Santa Kruz. (Sua bedeinkatzeko).
202: Jaun San Bladi, nik sua estali, edozoin gaisto jan baladi bortan bedi harri, Jinkoari dago gau oroz, Anderdena Maria gau oroz, Jinkoa eta Anderdena Maria zaurthe gurekin etzatera, aingeru hunak gure supazterrera, gure suiaren beiratzera. (Sua estaltzeko).
203: Jauzi, jauzi, Mari Martin, hire zango makurrekin!
204: Jesus, Ama birjiña, ongi etorri txopina; bart etorri bazina, ongi afaldurik fain zina. (Zotina kentzeko).
205: Jesusekin etzan Jesusekin jeiki, Jeinkua eta Anderdena Maria ohian etzakizkit. Hiru aingeru, bat ohe burukitan eta biga zangotan. Gaur hiltzen bagira gure arima zure esku sainduetan. (Oheratu aurretiko otoitza).
206: Jesus etzitean, Jesus xeikitean, Jesus bara zakista bihotzean, Jesus dizut aita, Birjina dizut ama, apastoloa osaba, San Migel dizut guardia, orain Ama Birgiñaren alabantzan Ave Maria.
207: Jesus Maria ta Joxepe, gure haurraren bihotzean sar zaitezte. (Umetxo batek arrosia egitean).
208: Jinkoa gauza berri, eman ezaguzu pake ta osagarri. (Lehenengo frutua jaten denean).
209: Jinkoa zure izenean. (Lehenengo frutu bat jaten denean).
210: Jinkoiloa nolako, berriak halako.
211: Jinko jauna, orizu hagin zaharra, ta emaguzu berria.
212: Jinko maitea, orizu zure hortz xaharra eta ekartzu zure berria.
213: Jinkua eta Anderdena Maria ni ziekin ohatzean. Jiten niz leku ilun huntara hila banintz bezala. Ni hemendik jeiki gabe izaiten bada ene azken orena, amen, otoi, Jinkua, salbazazu nere arima maitea. (Oheratu aurretiko otoitza).
214: Jinkuak daiziela egun hun, hilak eta biziak, hemen zizten guziak. Ziek gu bezala izanak, guk ziek bezala beharrak. (Hilerrian sartzeko formula).
215: Jo harat eta ho hunat, denak igor debruetarat!
216: Jondone Baladi, nik suia estali, gaitz bat jin baledi, bortan geldi bedi!
217: Jondoni Petiri, zain otoi su hori, gaitza jin baladi, urrun egon bedil
218: Jurnalia galdu duk. (Aitzurra alorrean eskuetatik erori ezkero).
219: Kabale maiteak: etxeko nagusia hil zauzie. (Etxeko nagusia hiltzean abereei).
220: Kandelario lario, atxari ura dano, erroteari uruna, hauxe da guk baoguna.
221: Kandelera flora, sube buruba leka bera! Nik subia ikusi, subiek ni ez ikusi. (Sugeen aurka).
222: Kandelerio txirio, atxari ura dario, erremesteri mustio, zubizkain ta madari, una peru metxari, paradisuan gloria, paradisuan zazpi ate, haretatik baten banagoke.
223: Katarroa gauza beroakaz kentzen da.
224: Kea ederregana joaten da.
225: Khinberrez gora jaunzten denak kado bat izanen du.
226: Kirkila bat eta kirkila bi, kirkilak dira hamabi. Hamabitik hamalkara, hamaikatik hamarrera, hamarretik bederatzira, bederatzitik zortzira, zortzitlk zazpira, zazpitik seira, seitik bostera, bostetik laura, lautik hirura, hirutik bira, bitik batera, batetik bapezera. (Escrofufa [kirkila] sendatzeko).
227: Labana bat agoz gora badago loteria saria izango.
228: Laratzak daki nor nor dan.
229: Laratzari etxako ibili eragin behar, bestela Txerren zirikatuten ei da.
230: Larramilo ura ta tintirrinaz kentzen da goragalea.
231: Lastima dek hire begia lurrak jan beharra. (Dendariari dirua justuki eman ostean).
232: Lau hostodun nielkara arkitzen duena zoritsua izanen xu.
233: Lazarako domekea txarrantxarien domekea.
234: Lazarok txoria harrapatu, Erramok pelatu, eta Pazkok xan.
235: Lepezurra hautsiko aldlk, amen. (Madarikazioa).
236: Lertuko alduk, amen. (Madarikazioa).

237: Lexiberak zapia bihurkeran txanbihurrak urteten badautse, amaginarreba gaiztoa izango dabe.
238: Lipu bat dilindan agertzen bada, goizean bederatziak gabe, berri gaizto. Hamar orenetarik harat, plazerezko berria ekartzen du. Arratsaldeko lau orenetarik harat agertuz gero, bisita baten esperantxa.
239: Lorea behar duen belarra, hilberan aldatu behar da.
240: Lupuak itoko aldik. (Madarikazioa).
241: Lupuak jango aldik, amen. (Madarikazioa).
242: Lupuak joko aldau. (Euskaraz dagoen madarizio bortitzena).
243: Lursagarra hilzarrean erein behar da.
244: Lutu barrikoa ezta zutunduten elizan ebangelioan...
245: Magdalenak gorde zagizala. (Oiloei).
246: Mahoma, enuk hire beldur; etzaten nuk Jinkuaikin, jeikitzen Anderdena Mariaikin, aingeru ona sahetsian, Jesus ene bihotzian, janian, edanian, loan, ametsian. (Mahuma aldentzeko otoitza).
247: Mahoma enuk hire beldur, hemen tiat Jinkua eta Anderdena Maria lagun. (Mahuma aldentzeko otoitza).
248: Mahuma, mahuma, enuk hire beldur, Jinkuaikin etzaten nuk, Anderdena Mariaikin jeikitzen bi aingeru sahetsian egoiten nuk. (Mahuma aldentzeko otoitza).
249: Mahuma gaur enuk hire beldur, loan ez ihatzarrian Jinkua diau aita, Anderdena Maria ama, Jandonahani gazaita, Jandone Petri kusi. Horiek denak ditiau askazi loiten ahal diau ausarki. (Mahuma aldentzeko otoitza).
250: Mahuma, hi ehiz ene laguna! Jinkua eta Anderdena Maria dira ene lagunak. (Mahuma aldentzeko otoitza).
251: Mahuma hiza Mahuma? Enuk hire beldur. Etzaten nuk Jinkuakin, Jeikitzen Andredena Mariaikin, aingeru sahetsian Jesus bihotzian.
252: Maizandre bat, maizandre bi, maizandreak dira bederatzi, bederatziak zortzi, zortziak zazpi, zazpiak sei, seiak bost, bostak lau, lauak hiru, hiruak bi, biak bat, bat bat ere ez, maizandrerik ez. (Girgilak sendatzeko).
253: Maria Santisima negarrez dago ta geldi zazu. (Laratza mugitzen denean).
254: Maria teilatuko, gonagorria: eutsi hagin zarra, ta ekazu barria. (Hartz edo hagin bar erortzen denean, berria laster izateko).
255: Maripa tellatu: heutsi hagin zarra, ta ekazu barria. (Hortz edo hagin bat erortzen denean, berria laster izateko).
256: Marraskulu bat zatitu ta bere ganean ipinita osatuten da zaldarra.
257: Martitzena ta barikua egun txarrak dira behar barri bat hasteko.
258: Martitzeneko ezkontzea martirioa.
259: Martitzen ta barikuetan ez da ule puntarik ebagi behar.
260: Miarma baltzak ameraunetik urteten badau, zori txar bat dakar etxera.
261: Mixirrika argi ondoan badabil, biharamonean berri onak.
262: Mixirrika txuria Jaungoikoaren mandataria.
263: Moñoa askaketan danean, beste batekin dabil gizona.
264: Nabala ahoz gora mahaiganean badago, bilhaka izanen da.
265: Naparreriak osatuteko beroa behar dau.
266: Neska txistularia, mando ostikaria.
267: Ni bezala balego munduko gaizkiena. (Bazkaldu ostean).
268: Ni bikala munduko gaixkiena. (Bazkaldu ostean).
269: Norbait hil orduan euri haundia bada, zuzen zerura dijoa.
270: Ogi bedeinkatua, lurrean injindratua, aldaran bedeinkatua; ni aste hontan hiltzen banaiz, nere anima izan ditela sendatua eta salbatua.
271: Ogi bedeinkatu hau izan ditela aste guzian egin dituda pekatuak barkatzako.

272: Ogi benedikatua jaten duen xakurra edo gatua errabiatzen da.
273: Ogi hau purgatorioko animen faboretan izan bedi.
274: Ohera nua, ohetik nator. Bilatu ditut hiru aingeru, bi burkoan bat oinetan. Aita San Jose, nun dezu semia? Hor dator arantza beltzez, iltze gogorrez josirik. Hau gabian hiru bider esaten duanak ez du ikusiko inpernurik.
275: Oilarrak gabaz zazpi kukurruku, etxean norbait hilko danean zantzu.
276: Oiloa kukurrukuka ari bada, laxter bat edo bat hilko da.
277: O iruzki saindia! Eman zahuzu biziko eta hileko argia.
278: Olioa jauzi ezkero, zori txarra dator. Ardoa jauzi ezkero berriz poza.
279: Oltzadarra edaten ene kalitxa eihartzen. (Garitzak kentzeko).
280: On dagizula. (Bazkaltzen denean).
281: Ongi etorri iduzki xuri. (Eguzkia ateratzen denean).
282: Onontzaro begi gorri txaminira da etorri, hausten baldin badegu barua, horrek lepoa kendu guri.
283: Oraiña daukana ezta sorgiña.
284: Orate fratres, fuera berrugates. (Garitzak kentzeko).
285: Ori jinkoa xaharra, ekarzu berria. (Hortz berria lasterren izateko).
286: Orinik eztuen presona, sorgina da.
287: Orrazia burutik erortzen bada, senargaia harekin pentsatzen ari da.
288: Ortzadarrak uda edaten, nere karitxak orain juaten. (Garitzak kentzeko).
289: Ortzilare santuz, orantza ezta arrotzen.
290: Ortzirailean sobera irri egiten duenak, igandean nigar eginen du.
291: Osasunez urratu dezazula. (Arropa berria jazten duenari).
292: Ostarkua ikusi ezkero ehun urtean ez dago dilubiorik.
293: Ostarkuari begiratu ezkero, haginak usteldu egiten dira.
294: Ostirala sorgin eguna da.
295: Ostiraleko hazkazalekin infernurako galtzada egiten du deabruak.
296: Ostreilakak biajeroari Erromako bidea erakusten die.
297: Oto zarra ta ekatzak berria. (Honza zaharra sura botza).
298: Otzikara asunakaz igurdi ta joaten da.
299: Pañuelu bat baizik ezpada ere zerbait estreñatu behar da Erramu egunean.
300: Papar gorririk hil behar ezta, barri onak dakaz ta.
301: Parabisuko hiltzena, Ostia konsagratzalia, benedikahuzu aldaria, benedikazazu ofia. Apartadi satan gaistua, Jinkua diat enekin, ni ere bai harekin, Jinkua eta Anderdena Maria zahute ziek enekin. (Oheratu aurretik goatzea benedikatzeko).
302: Parte onekoa bazara, zer gura dozun esaizu; parte txarrekoa bazara, zoaz nigandik zazpi estatuan. (Arima bat agertzen denean).
303: Pater noster txikia, lurrak dakar ogia, txotxak ardo txuria, paradisuko gloria.
304: Plumonia kentzeko, larra bedarrakaz purgau ta gero izerditu behar da.
305: Plumonia kentzeko mugita ur egosia da guztiz ona.
306: Sabeleko minak kentzeko, erpuru biakaz sabela igurdi ta igurdi egun behar dako.
307: Sabeleko mina kentzeko, ume baten txiza edaten emon bekio.
308: Saguzarra, eutsi hagin zarra ta ekazu hagin barria. (Hortz zaharra teilatura botez).
309: Sain tiretu, sain urratu, sana bere tokian sartu. (Zartadura sendatzeko).
310: Sakelean baratxuria hogei ta lau orduz iduki behar da, agineko mina kentzeko.
311: Saluk, San Mark, San Mateo, San Juan, Santa Maria, apartadi ingumerie. (Umeak oheratzerakoan amak esandako formula).
312: San Andres, barda ein dut amets, zurez eta neurez, Jinkoa ta Andredena Maria, har nezazie zien hunez, amen.
313: San Antoniok eriak ditu sendatzen, izurriteak hedatzen.
314: San Antonio Padua, harrapa zazu ene gauza galdua.

315: San Blas nik suya itzali, bortan bada etsaik han harri bedi. Etxeko jendiak ofeat, aingeriak sukaldeat, Jinkua eta Anderdena maitia, zahute guekin ofeat. (Sua estaltzeko formula).
316: San Juan egunean biaoa egiten duena urte guziko lo mina.
317: San Juanek jagon dagiala. (Bildotsak zaintzeko).
318: San Juan heldu da, sorginen beldurra galdu da, galdu bada galdailala, ager ez daila sekula. (Donianeko sua saltatzeko formula).
319: San Juan loak dira hauek. (Lo luzeak).
320: San Luk, eskolara joan behar duk, bestela zurra eramanen duk.
321: San Luk, San Mark, San Juan, San Mateo, Santa Maria, apartadi Ingume.
322: San Martinek jagon dagiala. (Ahumeak zaintzeko).
323: San Miguel, San Gabriel, San Rapail, ohera noa, lo honetan hiltzen banaiz, nere arima salba dedin zeruan.
324: San Morelli sua enkomendi, ez piztu ta ez itzali, Jesu Kristo gure jauna salbedi. (Sua itzaltzeko formula).
325: San Pedro egunean saguan pixarekin ere ezta buzti behar.
326: San Pedroz kuku, San Martzialez mutu.
327: Santa Barbara zorionekoak gorde gagizala trumoe ta oinestuetatik eta bat baterako heriotzatik.
328: Santa Ines in biaut amets, itekotan ona, bertzenaz baterez. (Amets txarrak ez ukaiteko formula).
329: Santa Ines libra zaidazu amets txarretikan. (Amets txarrak ez ukaiteko).
330: Santa Kurutze, hiru urre kurutze, aingeruek zatozte bihar goizian gure etxera su eske, etsaia apartakit gurutzearen indarrez. (Etsaien aurkako formula).
331: Santo Domingori errezaten zaio, buruko mina kentzeko.
332: Sarnafera, huna barnera gaistoa kanpora! Arto ta ogia Espaiñiara, ezkabia Frantziara! (Donianeko sua saltatzeko).
333: Sarnarik etorri eztaiten, maiatz lehen egunean esnea ta koipatsu hartzen da.
334: Sarnarik ez izateko, maiatz lehen egunean berakatz horrizko arrautz opila jaten da.
335: Sua batzean, sua batzean, infernuko guztiak gure etxetik irtetzen, mila aingeru sartzen.
336: Su garra bur bur bur ari denean, aize hegoa heldu da.
337: Suge bat akabatzen duenak zeruko iskalera bat irabazten du.
338: Su zarra kanpora, berria barruna. (Su berria ekartzen denarako formula).
339: Tortxa erreko diakonat bai nik hori. (Gorrotatzen den batetaz ari denean).
340: To zore xaharra edauk nore berria. (Hortza zaharra sua botaz).
341: Trikun trakun, mendian ilun, nehori gau hun!
342: Txakur bat gau ilun batez dausiz edo aiñuriaz ari denean norbait uste eztugularik hilen da.
343: Txarria hilteko egun txarra da hilbarria.
344: Txerren bolaka dabil. (Ostotsa denean).
345: Txilibili txuriak barri onak, battzak txarrak.
346: Tximeleta beltza baldin bada hileta iragartzen du, zuria baldin bada berri onak dakarzki.
347: Tximeleta zuria zerukoa da, beltza inpernukoa, gorria purgatoriokoa.
348: Tximirrika gabez argi inguruan dabilenean berri ekarle.
349: Tximistak burutik sart ta orpotik atera ta errebenta arraio ingo aldik, amen. (Madarikazioa).
350: Txipiritona beltza hil egin behar da.
351: Txiza edanda kentzen da zuldarra.
352: Txizarik egin ezina arto bizarren urez kentzen da.
353: Txiztor-miztor emakunde.
354: Uiaz kentzen da ezkabia.
355: Umeari begiak osatuteko ona da barau txua.
356: Umeari ilea hilberan moztu behar zaio.
357: Ur goiena ur barrena, urte berri egun ona.
358: Xagu-xagarra, tori ene hortz xagarra ta kartzu berria. (Hortz berria lasterren edukitzeko).

359: Xarnafera, huna barnera, gaistua kanpora. Arno ta ogia Españiara, ezkabia Frantziara. (Donianeko sua saltatzeko).
360: Xarnafera, huna barnerat, gaitza kanporat.
361: Xopina ponpina, bart torri izan bazina, biek etzinen ginen.
362: Xuri hintzan bena beltz izanen haiz. (Beleari).
363: Zahar lehen, gazte hemen, akelarren!
364: Zaharrek ez dute beren urteen berri eman behar laster hil ez diten.
365: Zakurra gabez uluka ari denean, norbait laster hilen da.
366: Zaldarrak San Juan bedarrez eginiko enplastua behar dau.
367: Zan tiratu, zan urratu, zana bere lekuan sartu. (Zainartatzea sendatzeko).
368: Zapatua da ezkontzeko egunik onena.
369: Zarrenak fuera, atso guztiak ganbelapera. (Donianeko sua saltatzeko).
370: Zazpi, sei, bost, lau, hiru, bi, bat. (Garitzak kentzeko).
371: Zazpi urtez ez hiz ezkonduko. (Katuari buztana zapaldu ostean).
372: Zehe bat sudur, motto makur, bizkar kunkur!
373: Zeruan izar, lurrean belar, itsasuan hare, hainbeste bekatu egindare barkatuek izango diela. Hau ostiralien eta launbatien esaten duena, aitu ta ikasi ez ikasi ta esan ez den dubena seiñale izango dela juizioko egunien.
374: Zeruan izar, lurrean belar, sorgin hau bedi lotarik atzar!
375: Zeure izenean ta neure gizenean. (Bazkaltzean).
376: Zikatuko alaz. (Madarikazioa).
377: Zingira min, zingira siñal, zingira nik sendatu; aitarekin, semearekin, izpiritu sainduarekin, nik urratu. (Erpurukoak sendatzeko).
378: Zingiri sor, zingiri gei, zingiri gurutzi, zingiri salama, etzaitut nik sendatzen, aitaren, semearen, ezpriritu santuaren bendiziua, senda zala, arnen.
379: Zingiri sor, zingiri salamon, nik etzaitut sendatzen, aitak eta semeak eta espiritu santu gabe.
380: Zoin eder, akelarrian, ipurdiak agerian!
381: Zoldua auspean kipula orio piska bategaz erre ta kentzen da.
382: Zuen osasunerako ta neure onerako. (Bazkaldu ostean).
383: Zure osagarri ta ene zaragiari. (Bazkaltzean).
384: Zuri izan yaz, beltz utzuliren yaz, garagarzaroan ta gari-ilean urik eztuk edanen. (Beleari).

III. APENDIZEA
HAUR FORMULAK

1: Ailargina, mexkondina, kontan dela, kontan.
2: Aista txipiritona, txipiritona, ona txipiritona, aista.
3: Aita da txukulun berde, ama da mazusta, aitak ekarriko dotso arnari gona barritxo ederra.
4: Aitaren kapa alkipean
5: Aita ttunttun izatekotan, senarra behar luke ttunttuna.
6: Aittita dala txuntxulun berde, amuma dala mazusta, aita joan da Bitoriara, ama lepoan hartuta.
7: Aizu ttikurru ttaku, ni enaiz eroa, sardin burua baino, hobe duk oiloa.
8: Akerra burdu burdu, errapean llollo, adarretan asto: pin pan larrera.
9: Akerrak adarrak okerrak ditu, adarrak okerrak akerrak ditu, adarrak akerrak okerrak ditu, okerrak adarrak akerrak ditu. (Ahokorapiloa).
10: Ala kinkirriñera, ala samurrera, Joxepa plaza berriko, bira hadi beste aldera.
11: Alkipean kapa, kapa alkipean. (Ahokorapiloa).
12: Andere kota gorri, bihar ekhi ala eubi? Ekhi balin bada, hegalta hadi, ebri balin bada, zaparta hadi.
13: Andregaiarik badek? Bai, ederra, bikaina, gizena, Patrizia du izena.
14: Andres-mandres, kolko bete tremes, harek janda gosez, soloak gora, soloak bera, negarrez.
15: Anianda-manianda, itsusia, Maria ohean da, lehioa txipi, xapatero ninye, atxipotin zilharra, Añatoren beharra, opil ttuttutela bilatu.
16: Arabako abadearen kapelapean bada garau bi. (Ahokorapiloa).
17: Ardoila-mardolila, kinkuran kin, portera ziria, portera rnin, xera mera, kirun karun plet.
18: Ardoifa-mardoila, kinkuran kin, portera ziria, portera min, zera mera, lirun karun plit.
19: Ave Marietakoak etxera ordu, neskatila polit politentzat ogera ordu.
20: Arianda-marianda, sukalde zaharra, kedar beltza, biper, gatza, tafo-malo, esne bero, bertza zilo.
21: Ariola-mariola, kinkuan kin, portan zela portan min, arraxinalet-arraxinalet, xegeren megeren, kirun karun xek.
22: Ariola-marriola, kin-kun-kin, portan zela, portan min, arrixanalet-marraxinalet, kirun karun pek.
23: Arla-marla, kinkonkin, portan zela, portan min, arraxinalet-marraxinalet, segeren megeren, kirun karun plet.
24: Arratoia arrileran, sagua tanbolin joten, astoa ta mandoa dantzan, zorria barrez itoten, Txantxilon eta txantxilon, marabeun dukaten andrea, hauxe da eroste merkea.
25: Arre horra, aurrean arraio. (Ahokorapiloa).
26: Arrelando-lando, marikita buskando, zinko konpañia, hemen gatoz lau, kanpae jolen bi, emaizu limosnia, Jankoikuagatik.
27: Arrijola-brijola, etxa la kamala, bikto-biktoria, bringun-brangun, plixt.
28: Atsoa zirri zarra, errokan hasteko gogo txarra, pinta erdia irautzen du, atsein hartzen du bihotzean.
29: Atxa-mitxa zilarra, joan joan oilarra, ardi beltza bilara, o pitxon, biribilton, txin, txan, txon.
30: Atxikan izeneko jokuan erabiltzen diren formulak: Atxi (hartzen duena). Salbo eta kaldatzia (libratzeko). Putxi (onartzeko). Huts (Pikazo). Kaldatzia (eliminatzeko).
31: Atxia-motxia, besteren kotxea, zirrin zarran, txurrunplet, olea bite konkolo, gauza on zalea neu nago, atzera begira dagonentzat, ezer bere eztago, zidarra kanpan, zidarra kanpan, gari bat.
32: Atxia motxia perolipan, nire semea errotan, errotara nindoala, topatu nuen asto bat, kendu nion buztan bat, ipini nion beste bat, errota txikiak, klin klan.

33: Atxio matxio perolipan, nere semea errotan, errotara ninjoala, topatu nuen erbi bar, kendu nion begi bar, para nion berri bat, errota pio, klak klak.
34: Atzena murria zal zala, txerri gorriaren azala.
35: Atxian-motxian, peroli-pan, zeure semiak errotan, topa eban asto bat, kendu eutzan busten bat, ipiña eutzan beste bat, errota zarra, arrota barri, kris kraus.
36: Aurten gure ortuan artoa berde erne da. (Ahokorapiloa).
37: Azkena murria, zaildu akit.
38: Baga, biga, higa, laga, boga, sega, zagi, zogi, bela, arma, zamuka, zamabi.
39: Baga, biga, higa, laga, boga, sega, zahi, zohi, bele, harma, zixpa, tiro, punp.
40: Baga, biga, higa, laga, bosga, seiga, zahi, zohi, bele, arma, tiro punp.
41: Baga, biga, hiruga, laga, boga, sega, zapa, zotza, beatza, motza, errotari, kaskar-motza.
42: Baga, biga, hiruga, lauga, bosa, sea, sapa, zoka, berakatza, tronpa.
43: Bapio lau lau lau, xaguxarrak janik nau, zeruetako alkate, lepoa lodi, ta zankoa mehe, preso sartu nau.
44: Baratzean aza, fera, futro, zoaza. Baratzean porru, jan ondoan dolu. Baratzean perezila, zaude isil, zaude isil, zaude isila.
45: Bartolome, burua lodi, eta lepoa mehe.
46: Bat bi hiru lau hamar hamalau, aitak saldu nau, amak erosi nau, Bilboko alkate zarrak preso sartu nau.
47: Bat bi hiru lau sagu zarrak jango al hau. Sagua ta Pilipe jaunak, nundik zatozte? Kaleak gora, kaleak bera, biribiltxoa alkale, boltsan urre gorria, amilotx txoak baleki, atarako leuskio begia.
48: Bat eta bi, hiru eta lau, Txominek andrea falta dau, horma zuloan topatu dau, zirrike zirrike atera dau, lizibe ontzian beratu dau, laba gainean ziketu dau, elizara doala elizara doala, kakarralduak bildurtu dau.
49: Bat txardina, bitxardina, gorekema Bazkua xina, urzo txuriak elizara, urzo beltxak eburnearra: xera xera xera, la cuaresma fuera, entre la carnal, sale la abadexal.
50: Beleak berreagara zerbait daroa, badaroa, berea daroa, daba errean ahoan daroa. (Ahokorapiloa).
51: Benedise bra, Karlos de libra, txutxupeta txutxupeta, bustamante bra, Karlos de libra.
52: Benedizebra, kalodemibra, txutxupeta txutxupeta, bustamanteba, kalodemibra.
53: Bilin bolon, bilin bolon, urak darama zorroa, zorroarekin astoa.
54: Binbilin bonbolon jan ta lo, Errege Frantzian balego, idiak soinu, akerrak dantzan, astoak danbolina jo.
55: Bira bira monte, zozo balkate, Ibarrangeluan alkate, Bilbon errejidore, gure auzoko Petratxu bere, atzera bira leiteke.
56: Bonbolon bat eta bonbolon bi, aitak astoa eraman din; hiltzen badu, hilen din, txitxiz aseren gitin.
57: Bonbolon bat eta bonbolon bi: bonbolon urerat erori; erori bazen, erori, orduan etzuzun egarri.
58: Bonbolon bat eta bonbolon bi, eragiok Santi arraun horri.
59: Bonbolostina, bonbolostina, otsoak jan du gure artzaina, otsokumeak bildotsen zaina, adios gure artalde zaina.
60: Buhamek badakite trinkun trakun egiten, trikun trakun egin eta oilaskoen ebasten, lupaireton lupaireton, lupair lupair lupaireton.
61: Bunbulun bunbulunete, botilan aguardiente, bunbulun bat eta bunbulun bi, bunbulun putzura erori, edan zituen pitxar bi, etzen orduan egarri.
62: Din daun, gabitxon, gabitxonia zoroa, aurak daroa zoroa, artoa bada beioa, ogia bada betor, din daun.
63: Dingi-lingi mañe, bijar Santa Mañe, etzi San Andres, abadie kantuan, umia zilluan, atte samiñez, ama negarrez, din-dan.

64: Domingo, sekelan gorringo, moltsan kukuso.
65: Domuru santuru, santuru, txerri handi bat hil dugu, buztana ez bestea jan dugu, bera lapikoan daukagu.
66: Dona dona Isabela, Manuela, Katalina, beinte bonete, zipi-zipiton, Martin zapaton, kañabela tronpeta, lau kirikon, zaku zar batian hiru gizon, lau kiri-andre, bost señale gurutze, elduñeta Santa Gurutze.
67: Dona-dona, katona, keke-lurden, manzana, tuturupe, tuturupe, otxoinuebe San Andres.
68: Dona-dona, katona, kike-lurden, manzana, pie pien gaña, lore loren gaña, asteriko, zinko, riko riko, kuatro, barrentxe, berritxo, borrotx, fuera.
69: Dona dona katona, sutondoan aitona, lepotik behera kuttuna, irten kanpora neska edo mutil ttunttuna.
70: Don don beledon, belendoko elizan, zazpi gizon dantzan, bi mozkor, bi mozkor, nahi duena, nahi duena, kan, po, ra.
71: Don don beledron, beledrongo elizan, hiru atso dantzan, hirulek ez dute, ardit bana poltsan.
72: Don don don, bera bera baña, kuatro rios ke hay en Prantzia, arre matxube, arre mandube, don don don, ke se salga usted.
73: Don don irten, sakati, fuera.
74: Don don kandel, barriola barriola, plixt.
75: Don don kandel, likitiko muskatel, bazarete, ganbelapeko gordetzen eztena berak leteko.
76: Don don ke-ban, attoña Martzelon, kiski-ti, kaska, kaska melon.
77: Don don kikelabon, saltsa buka, esla buka, buka madre, saltsa bon, likan likan, tortolikan, bran, brutx.
78: Don don kikilikon, saltsa pika, tortolika, bran, brutx.
79: Don don kikilikon, tartali kopulente, attoña Martzelon, kañabera kañabera, lau pilikon, mizketan mizketan, koxka melon.
80: Dringilin, dron, gaur gabon, sabela betea daukat eta, besteak hor kon pon.
81: Dron dron keledron, marabedian bost gizon, ehun dukaten andrea, hauxe dok denpora merkea.
82: Dulun dulun joale, behiak heldu dire, Doniango plazan hiru atso dantzan, batek bertzeari bere braziari, latxikon latxikon giri giri on.
83: Ea mea gurutzetara dea, ea mea ofizioetara dea.
84: Eguen zuri, eguen baltz, txakurra arrautza gainean datz, baltz baltztxoa maisuarentzat, zuri zuritxoak geuretzat.
85: Eguen zuriko astea, Jaungoikoak emona guztia, eskola mutilak ibilteko, limosna on baten bila.
86: Egun dela Zanpantzar, bihar dela Maria galleta, atso zarrak gora gora salto, agureak ere bai, bota bota gaztañak, ibiltzeko ezpainak, urrak eta intxaurrak.
87: Elie, errotan gari barrie, Antziolako oian azpin, aingeru kaska zurie.
88: Elurra melurra, banikan hire beldurra, iolastegian mahatsa, legoan gatza, Martin kalabaza.
89: Emon emon Pepetxuri, txakoliña edaten, Txakolin, txakolin, txakolinak on egin, txako ta txako, txako ta txako, txakolin Antzorako.
90: Eragiosu eskutoari, eskuto tiki poliñoari, lenik batari, gero bertzeari, eskuto tiki poliñoari.
91: Esku maingu, esku maingine, niri maten eztautenak, kopetan zintzurra.
92: Esku maingu, esku maingu, ematen duena zeruala, ematen eztuena infernuala.
93: Eskura bil, kaskarabil, kupelapean, loreak erein.
94: Ezkutaketan ketan, denok jolasketan, batzuek aldamenetan, zu bakarrik bertan.
95: Eztot ikusi Akerreneko akerra bezain adarrak okerrak dituen aker adar okerrik. (Ahokorapiloa).
96: Ferrela-merela, goporra-mokorra, xikitun, xakatun, fuera.
97: Gaztaina gora-bera, txikiti txakutu fuera.
98: Gaztañe, gora, bera, txipitin, txapatan, fuera.

99: Gilen, bihar hilen, etzi ehortziren, etzidamu ahatziren.
100: Giri giri giri lau, karga gari, mahian ogi txuri, plazan ardo gorri, gaur egun on, bihar pazkuak, etzi eskontzen dela Madalen atsoa.
101: Gogora behera, txikitun txakatun fuera.
102: Hamar hamar alkate, bilantzut, nik emanen dauzutan penitentziara. Kunplitren zua? Ona bada bai, gaixto bada ez.
103: Han goian atsotxo bat lixiba dago egosten, han plux, bibiadun, bili amante lilirikon, karran plaxet.
104: Harla marla, kin kuan kin, portan zela, portan min, arritxinalet segere megere, kirun karun, pek.
105: Harla-marla, kin kuan kin, bortan zela, bortan min, segera-megera, kirun karun pek.
106: Harrapaketan berriketan, harrapaketan berriketan, zarie zertan, hamalau erregaletan, horra ba bertan.
107: Harriola-marriola, txola jamala, betria gliga, truntxa, muntxa, errota, kafia, linjera, kostera.
108: Harriola-marriola, kinkuankin, portan zela portan min, segera megela, kirun karun pek.
109: Harriola-marriola orratza zorrotza, xixta gaitza, hari txarra, tira-bira, zirrin-zarran, eta zart.
110: Hiru hiru sei, hiru bederatzi, hamar hemeretzi, batekin hogei, bule bat, begiak itsututa bule bat.
111: Hiru ta hiru sei, hiru bederatzi, hamar hemeretzi, bat ogei; kixkili ta mixkili, hirurogei.
112: Hiru ta sei, hiru bederatzi, hamar hemeretzi, bat hogei, bostehun, sei milla, atxuketa billa, ku-ku.
113: Ikusi xut aker oker, adar makar okerrik, baia etxut ikusi Lakarreko aker oker adar makerra bezain ederrik. (Ahokorapiloa).
114: Intziri eta intziri, astoaren putza hiri, behiaren esnia niri, zirri mirri.
115: Iñusente, potente, txasko, txasko, buruaren erdian sartu dautse.
116: Iñusente, txakurren buztana tente.
117: Iputz apezak napar istupez atorra, napar apezak iputz istupez atorra. (Ahokorapiloa).
118: Ixtant, Mari puxente, ixtant txakurra, egon beni beni trapu, txaputxa.
119: Ixtorio mixterio hatz, berrehun zorri eta berrehun fatz, bizkarrean dituenak eginen du hatz.
120: Jakes, kosta bezain trukes, tresnak oro trebes.
121: Juanikotxu, akerra Matarrepeiko aker adar okerragorik eztot nik ikusi. (Ahokorapiloa).
122: Kañi-kañibeta, zilarra papillonetan, zillarerebon, harriketa, miñoneta, enterrabona, ponalapona, erregerengana, txirimiriharka, txikit edo ponp.
123: Kanbon palangak pagoz. (Ahokorapiloa).
124: Karatula sorki ken hakit horti, hik okela janda katuari zapi.
125: Karatura begi gorri mariñerua, ahuntzak jan dautsala bere burua.
126: Kattalin gorri, bihar gure atarian iduzki iduzki.
127: Kattalin gorri: egun iguzki, bihar euri.
128: Kattalin gorri, gorri, gorri! Fla, fla, fla.
129: Kattalin, perttolin, zakuto, baduna biperrik saltzeko, badinat, bainan enetako, gatulu tzarrian irina, Kattalin ipurdi zikina.
130: Kattalin perttolin, zakuto, zikinto.
131: Kattalin porrolin xakuto, ama zigorrekin aita azotearekin.
132: Kattalin potolin titara, al denan guzia tripara, besteren gona jantzita plazara, hirea eztinat nirea, auzoko jostunak egina dinat.
133: Kattalin pottolin sakuto, baduzu piperrik saltzeko? Badinat baina ez hiretako.
134: Kikura bikura lakirikon, sinko binko un kapon.
135: Kiriketan karaketan, ganbalapeko altxaren eztenak, berak beteko.
136: Kui kui naparra, zeitean kañera, txitxote ta mitxote, jauna, nondik niñoake, kalean bera, kalean gora, eskuan sakot harria, boltsan urregorria, amorepean dabilenari atara lehio begia.

137: Kui kui naparra, zetin zetin, kandela, pitxote ta patxote, jauna nondik zatozte, kaleak gora kaleak bera, biribiltxoa alkate, poltsan daukat hazia, bestean urre gorria, anikitxoak balekio, atarako leuskio begia.
138: Kukubiko, kanliko, treinta akili dia.
139: Kukubiko anianiku, kukubiku anianiku, zozoak umeak sasian ditu, birigarroak adarrean, kaka egin zuen bizarrean.
140: Kukubiku anianiku, txoriak umeak basoan ditu, bere mustur zitalean kaka egin zuen bizarrean.
141: Kukubiku kañada, kañaberea larrosa, bikotxa ta bakotxa, jauna nundik zatoze, kalean bera, kalean gora, boltsan urre bizia, joan tabernara ta edan, ardao zuria.
142: Kukumiku xaldariko, xoriak umeak eginiko, non, non, aritzaren kalduruan, trin tron.
143: Kukumiku naparra, zertan zertan kandela, kandela bi ta larrosa, piru piru pikote, jauna nundik zatozte, kalean gora, kalean bera, buru beltxaden alkate.
144: Kuku piku naparra, peritxote pitxote, jauna, nondik zatozte, kalea goiti, kalea beiti, amina txoa poliki, kidarrean begia, erretxina gorria.
145: Kukurrukuren palesta, Madotzen mutilik ezta, koxkileren bibadere, baino plazarakorik han ezta.
146: Kukutxu mukutxu, erre Katalintxu, lotxo bat egitea kostako datzu.
147: Kuriketan txopetan, kaiku zar, potelen zeli, zeliko zeli, nik eztakit zer gizontxu dan hori, zankoa meia ta lepoa lodi, bazerate edo atzerate, kuk bada.
148: Kurrillo kurrillo, lepo luze, naparro naparro, bide luze.
149: Landan eder aitzurra, artzain zanga makurra, estudiante tunante batek, enganatzera nerama, hark engana nik engana, bakoitza bere launengana.
150: Lan liraun, lan liraun, lan liraun lan lan, lenleren tinlirin, lan lin laun.
151: Manez, ipurditik minez, kaka ezin inez.
152: Maria gona gorri, bihar eguzki ala euri? Euria baldin bada, kutxatilan gorde: eguzkia baldin bada, infernuan erre.
153: Mari gorri gona gorri, bihar eguzki etzi euri.
154: Mari gorringo, zuri gorringo; eguraldi txarra egiten badezu, labe gorian sartuko; eguraldi ederra egiten badezu kutxa ederrean gordeko.
155: Martin akerra makerrakoren aker adar okerra baino akerrik okerrik ez dut ikusi nik. (Ahokorapiloa).
156: Martin bonbil, erregeren sorgin tipula ta gatz, Martin buru latz, eizak ipurdian atz.
157: Martin, bonbin, errege ta sorgin, tipule ta gatza, Martin ipurdi latza.
158: Martin tortin, ergel ta sorgin, tipul eta gatza, Martin buru gaitza.
159: Martin totin, erregeren sorgin, tipul eta gaztin.
160: Matxingorringo matxingorringo, bihar euzki ala euria egingo?
161: Migel, aintzin edo gibel, nun nahitik ustel.
162: Mix mix, erramix, arratoia kolkoan, ematen ematen, neronei ematen.
163: Montxu, frioleri, fosfai, sisoleri, semene, ainoleri, montxu, tribol.
164: Montxu la damasei, le popele popelu, semea patamaise, fos fa.
165: Murku zar arkapeko, arkapeko murku zar.
166: Mutiko puttiko, neskatto mekatto, axola guttiko, ta lana biharko.
167: Olagarroen erro errea larra errean gora. (Ahokorapiloa).
168: Olio bolinero, Kattalin sardinero, zuk mermio napo, hark egin zuen jaka, hiru ezkutari, mutiko dantzari, dantzari xapuxar, leku ta mendi xar, antxen bolatxen, mermio napola, una limosnita por el amor de dios.
169: Otsailko otsailko, nik otsos biher hilko, okela bat eta okela bi, nere burruntzie bete bedi.
170: Paslor, kintalor, kabeza, debalor.
171: Paxa, paxa, kuloarroxa.
172: Paxkalin, oilo txarrak errun din, uzki zikinarekin, kantuz ari dun berdin.

173: Pello, totolo, beti lo, eskuan bilo.
174: Petan, kakoletan, sarrak sudurra kakan, ta han atxikak zapan.
175: Petan tarrapatan, galtzak herrestan, kakeria burustan.
176: Pin pin Serapin, kutxilo ta maratxin, ttutturruttu ttene, xabin xabin kosk, aittona kaxka motx, pipa motx.
177: Pin-pon, lau seron, tres sardinas y un kapon, saltxa pica, tortolika, de putzon.
178: Pin-pon, laba, labalentzia, aki española prantzia pone-pone asi, aberia opendi, pin-pon, don bizente don.
179: Pika hau hau hau sagar eta intzaur, pika hea hea hea sabar eta pea. (Ahokorapiloa).
180: Pipite, azken, txulubite.
181: Prailearen kapa, kapeleran bost baba garau. (Ahokorapiloa).
182: Prailearen kapelan pikua pranko.
183: Ruxe, muxe, errote, kabe, lore, biene, kox.
184: San Juan heldu da, sorgin begia galdu da, galdu bada, galdu bedi, sekula agertu ezpaledi.
185: Sariak iraungi, bost liburu, sei aingeru, sazpi zilar kurutze, gero Santa kurutze.
186: Segeren, megeren, kiru, karun, pek eta itsu.
187: Solo barriko artoaren orriaren gorria.
188: Talo talotxin, hator etxera Matxin, talo zegok adarrean, bere alkitxo nabarrean, tturrutt amatton bizarrean.
189: Talo talotxin, hator etxera Matxin, talo talotxin, opil haundi batekin.
190: Therrella, merrella, kin kuan kin, portan zela, portan min, karru, siñu, miñu, let.
191: Timiki kañera, kañaberea, larrosa, Perutxo lapikote, jaunak nondik zatozte, kalea gora, kalea bera, biribiltxoa alkate, bost liburu, sei aingeru, zazpi zilar gurutze, haiek guztiak darraizkiela, ni naiz Santa Kurutze.
192: Tinter-lanter, inen daiat xirula hail, ekarrak adarra, legun eta xuxena, zertaz?, leizar laida pollitaz, xirulamirula kantari, balinbahiz izardi, krisk-krask, atera hadi.
193: Titimiti kañera, kañaberea larrosa, Perutxo lapikote, jauna, nondik zatozte? kalea gora, kalea bera, biribiltxoa alkate.
194: Trilili ala tralala, kantu guzien ama da, nik ogi eta xingarra, hik idi baten adarra, triliti ala tralala.
195: Ttunkulun ttunkulun mendiko, joan naiz atalondoko, gure Josek lo egin nahi lukelako.
196: Tuxtux tuxtux tuxtux, kelamandake tomake, tomake, tomake.
197: Txalo txalo txin, hatoz etxera Matxin, txalo dago adarrean, bere aulkitxo nabarrean, txalotxinen balesta, Matxin etxera agiri ezta.
198: Txantxagorria txantxate birigarroa alkate, txepetxa dela bitarte zozoa kartzelan sartu dute.
199: Txan txin txibirin, makilatxuek, txan txin txibirin, ekarten.
200: Txibirikun, txibirikan, txibirikuri, kurifa, txibirikuri, kuri fuera, salba fuera.
201: Txilinport, txilinport, hor ezpadok, hemen dok.
202: Txilin txilin bonba, seroren non da?, kanpaiak jotzen, aita dolorez, ama negarrez, umeak txuloan ta abadeak kantuan.
203: Txilin txilin, San Agustin, basorik baso, kuarttilu bi, altzar, bajar bajar, zapata kulo erretirar.
204: Tximilikor tximilikor, hirea bada, itxikak kor.
205: Txingilin txingilin maña, bihar santa Maiña, etzi Domun Santa, umeak zuloan sartu, ama negarrez, aita dolorez, abareak kantetan errealen pozez.
206: Txintxina-mintxina, suara, barbara tikitena, gaztaña gora, gaztaña bera, txukutu txakutu, fuera.
207: Txintxin kapotxin, hator etxera Matxin, taloa zeagok adarrean, bere aulkitxo nabarrean, katua sapaian gora ta bera, bere bost umeak ondoan dituela, aitak paparik eman nahi ez, amak txitxirik eman nahi ez, mau mau mimirri mau.
208: Txin txirikitin txorie, txoritxo txilibitartie, erein nuen garie, oso arlo haundie, uste nuen ehun anega, imiña bat zan guztie, imiña bat zan guztie, txin txirikitin, txorie, txoritxo txilibitarie.

209: Txipilota gona gorri, bihar eguzki ala euri.
210: Txiri miri, akerran putzak hiri, ahuntzan eznea niri.
211: Txirri mirri marabedi guziak niri.
212: Txirristi-mirristi, aurrena, plata, olio, sopa, kiliki saltsa, urrun, perro, klik.
213: Txirristi-mirristi, aurrena, plata, oilo zopa, kiri salda, ura bero klik.
214: Txirristi-mirristi, gerrena, plata, olio, zopa, kiri-salda, ura bero klik.
215: Txirristi mirristi, gerrena, plat, olio, zapa, kikili, salda, hurrup, edo klik.
216: Txista-mixta, organixta, hemen ez dagola, hor dagola.
217: Txolin txolin barbero, Billabonako semea txintxintxin. Andratxo batek txintxintxintxin hantxe zeduzkan rau rau rau hiru alaba politak txintxintxin.
218: Txolo morro piko talo kes.
219: Txor txor txoria, txoritxo txilibitaria, goiz yagi ta goiz etzin, txoriak umeak egin.
220: Txorro, morro, piko, tallo, ke.
221: Txulubitario, konpletario, barbenaren uzkara, dotorearan ezteia, kuku bi, kuku bi, kuplapean zar hadi, ezin elkiz ler hadi ta zaparta hadi. (Txilibituak egiteko formula).
222: Una miduna, mikela, miklau, sonseta, gorreta, kastillo sin bau, seire, meire, santuba.
223: Uneta, txintxibirin, korneta.
224: Unin dalin danbolin, eper zatuko balendrin, erraduna borraduna, klix, klaux, fuera.
225: Upin upin perezil, ahuntzen babak egosi, gora ta bera nabilen artean txoritxu batek iruntsi.
226: Urra labiru labiru labiru labiru lena, urra labiru labiru labiru labiru lon, urra labiru lena len, urra labiru lena lena, urra labiru labiru labiru labiru lon.
227: Urril urrilon, pun purrilon, puntxin puntxin puntxin.
228: Urrup edo klik, nahi duk hik, ez ordea emanen nik.
229: Xanki manki, manki buztanki, Josemari barabiri, lau anka ta bost belarri.
230: Xanko manko, berria franko, ona bada etxerako, txarra bada kanporako.
231: Xedera-medera, gohora, behera, harat, hunat, zoko-moko, paso, bota, punpa, jo.
232: Xegeren megeren, kirunkarun pek, española kokote, xerri txar bat hil dute, kaxola txar bat ezin izanez, xerrien askan jan dute.
233: Xirrixti-mirrixti, gerrenian plat, oilo zopa, kikiri salda, urrup edan, edo klik.
234: Xirula mirula kantari, balinbahiz izerdi, krisk krask atera hadi. (Txilibituak egiteko formula).
235: Xitoak klik itxuri.
236: Xole ta xole, xole gaxua, xolek edan du, mama goxua.
237: Xufrin xufrinero, Kattalin zartainero, aitxurren burua kontatu, amarrak ere laketu, ttur ttur, ttur, ttur, ttur, ttur. (Erraeran haurrak totoriko jarzen dira).
238: Xufrin xufrinero, kattilu sartainero, aitxurrak diruak kontatu, hamarrak ere laketu, ia bada Maria gaixoa, aitxinez gibeleraino, ttur, ttur, ttur, ttur, ttur, ttur.
239: Zipilin zipilin bandera, gure errege frantzian dagoena, nahiz dantza, astoak danbolina jo, atariko intxaurraren azpian kukua jotzen ohi dago, zipitin zipitin tena, zipitin zipitin zipititon.
240: Zirrin zorron pitxarrean, pontxearen otxa, Endaiako abadearen edateko poza.
241: Zirristi-mirristi, grena, plata, olio, zopa, kikirri, salda, urun, plerun, kuik, gaztana, gora, bera, txipiton, txapatun, fuera.
242: Zotzak eta paluak, Martin Antonen kontuak, Martin Antoni eroan dautsoz hiru oi anda katuak.
243: Zozoak eperrak orain nahi dizkizuet ekarri, besteari bana ta bina, Josetxori hamabi.
244: Zunzun zunzun, korrionera, baratzuri korda, tipula korda, zunzun zunzun korrionera.

BIBLIOGRAFÍA

ARANZADI, T. de, «Tabas y perinolas en el País Vasco», *RIEV,* XIV, 676-679.

— «Taba, sacapón, trompa, bostarri y otras más», *RIEV,* XV, 494-497.

ARREGI AZPEITIA, G., «Juegos infantiles en Durango», *Etniker Bizkaia,* 4, 1979; berrargiratua *Etniker Bizkaia,* Bilbo, Labayru, 1991, 265 ss.

ARREGI, G.; MANTEROLA, A; ERKOREKA, A.; MARTÍNEZ, U., «Juegos infantiles en nuestra sociedad tradicional. Umeen jokoak gure gizartean», in *Euskal-Herria,* Historia eta Gizartea, Donostia, 1985.

Atlas etnográfico de Vasconia; juegos infantiles, Bilbo, Eusko Jaurlarilza-Gobierno de Navarra, *Etniker Euskalerria,* 1993.

AZKUE, R. M. de, *Euskalerriaren yakintza*, Madrid, Espasa Calpe, 1945-1966.

BARANDIARAN, J., *Mitología vasca*, 1960.

— *Recetas y remedios en la tradición popular vasca,* Donostia, 1989.

BRAILOIU, C., «Children's rhytms», in *Problems of ethnomusicology,* London, Cambridge University Press, 19S4, 206-238.

BRAVO VILLASANTE, C., *Historia de la literatura infantil española,* Rivadeneyra, 1969.

— *Ensayos de literatura infantil,* Murcia, 1989.

CARO BAROJA, J., *Religión antigua y calendario vasco,* Madrid, 1948.

— *De la vida rural vasca,* Donostia, 1986.

CARRIL, A., «Función de la música en la sociedad de tipo tradicional», in Luis Díaz Viana (coord.), *Etnología y Folklore en Castilla y León,* col. «Estudios de Etnología y Floklore» 2, Salamanca, 1986, 333-336.

DONOSTIA, P. J. A. de, OFMcap, «Oraciones, prácticas religiosas y medicinales populares», in *CEEN,* 1972.

— «Médicos y medicina popular en el País Vasco», in *Obra literaria V,* Donostia, 1985.

DUESO, J., *Nosotros los vascos. Mitos leyendas y costumbres,* 11, Lur argitaletxea.

DUNY-PÉTRÉ, P., «Xirula-mirula. L'enfant basque, depuis le bébé jusqu'à l'adulte, a travers ses amusements, ses terreur naïves, ses formulettes récréatives, burlesques, superstitieuses», *Anuario de Eusko Folklore,* 34, 1987; 35, 1985-89.

ERKOREKA, A., «Begizkune», *Etniker Bizkaia* 2, 1976; berrargiratua *Etniker Bizkaia,* Bilbo, Labayru, 1991, 51-58.

ETXANIZ, X., *Haur folklorearen bilduma*, Iruñea, Pamiela, 1986.

GARMENDIA LARRAÑAGA, J., *Rito y fórmula en la medicina popular vasca*, *la salud por las plantas medicinales,* Donostia, 1991.

— «Conjuros heterodoxos», *Anuario de Eusko Folklore,* 37, 1991.

— «Juegos juveniles», *Anuario de Eusko Folklore,* 33, 1985-1986.

— *Rito y fórmula en la medicina popular vasca,* Donostia, 1991.

HERRERO GARCÍA, M., «Juego de la taba», *RIEV,* XVI, 86-93.

IRIGARAY, A., «El juego de las tabas en Baztan, con todas sus frases y cantinelas», *CEEN,* 3, 1969.

JIMENO JURÍO, J. M., *Calendario festivo de invierno,* Pamplona, 1988.

— *Calendario festivo de primavera,* Pamplona, 1990.

LEKUONA, M., *Idazlan guztiak. 1. Ahozko literatura,* Kardaberazen bilduma, 22, Tolosa, 1978.

— *Idazlan guztiak*. 2. *Euskal etnografia,* Kardaberazen bilduma 23, Tolosa, 1978.

MARTÍNEZ BILBAO, U., «Algunas orientaciones metodológicas sobre los juegos», *Etniker Bizkaia*, 3, 1978; *Etniker Bizkaia*, Bilbo, Labayru, 1991, 99 ss.

MATTHEWS, C., *La tradición celta*, Madrid, 1992 (*The elements of the celtic tradition,* Shaftesbury, 1989).

RAHN, O., *Cruzada contra el Grial, la tragedia del catarismo,* Madrid, 1982 (*Kreuzzug gegen den Gral*, Stuttgar, 1933).

SATRUSTEGUI, J. M., *Etnografía navarra. Solsticio de invierno*, Iruñea, 1974.
— «Aspecto práctico del agua», *CEEN*, 1, 1969.
— «Estudio del grupo doméstico de Valcarlos», *CEEN*, 11, 1969.
— «Sueños y pesadillas en el devocionario popular vasco», *CEEN*, 47, 1986.
URQUIJO, J. DE, «Tabas y peonzas en el País Vasco», *RIEV*, XV, 361-368.
VALENZUELA, J., «Algunas consideraciones en torno a la canción de cuna», in Luis Diaz Viana (coord.), *Etnología y Folklore en Castilla y León*, Salamanca, «Estudios de Etnología y Folklore» 2, 1986.
VINSON, J., *Literatura popular del País Vasco*, Donostia, Txertoa, 1988.

LABURPENA

Euskal formulakuntzaren hurbiltze baterako

Leloei buruzko azterketa. Euskarazko poesia mota hori ez da apenas aztertu. Bildutako korpus zabal batean oinarriturik, literatura genero honen azterketa formala eta tipologikoa egiten da.

Gako-hitzak: leloak; poesia; euskara; euskal literatura.

RESUMEN

Hacia una aproximación de la formulación de la literatura vasca

Se realiza un análisis sobre las cantinelas, un género de poesía realizado en euskera apenas estudiado. Sobre la base de un importante corpus recogido, se aborda un análisis formal y tipológico de este género literario.

Palabras clave: cantinelas; poesía; euskera; literatura vasca.

ABSTRACT

Towards an approach of the formulation of basque literature

An analysis of «cantinelas», a barely studied genre of Basque poetry, is conducted. An analysis of the literary genre by form and type is addressed on the basis of a significant corpus collected.

Keywords: cantinelas; poetry; Basque; Basque literature.

Irudimenaren klasikoak euskal literaturan

Eliz idazleek irudimena erabiltzen: antologia txikia*

Joxemiel BIDADOR

Irudimen fantastikoaren klasikoak euskal literaturan, horixe da proposatutakoa. Eta ez da makala, ez ondikotz! Izan ere, euskaldunok berok ez omen garelako sobera laketu irudimenaren erabileran. Hala idazten zuen Sarrionandiak afera honetaz:

> Euskalduna ez da sekula izan imajinazioaren aldekoa, imajinaziorantz etorria. Euskaldunak ez du imajinazioa habitatzen. Euskal artea eta euskal literatura, euskal pentsamendua bera bezala, abstraktuak eta laburrak dira.
>
> [...]
>
> Euskal literaturaren historian ere, pinturan bezala, harrigarria da zer atseginzaletasun eta imajinazio guti agertzen den, eta zer kolore guti. Klasikoetan nahiz berrietan [...].[1]

Sarriren hitzok badute jakinduria askoa, eta erreparatzen badiogu gurean eginiko literatura zaharrari, berdin euskaraz zein erdaraz eginikoari, aisa ikusiko dugu zeinen egiatiak diren Sarrirenak, eta zeinen bakanak diren salbuespenak. Bakar bat ekartzearren, hortxe dugu Jose Yanguas Miranda tuterarraren *Vida del Capitán Juan Lanas*, Donostiako Barojatarrenean 1845ean inprimatua. Egun Yanguas ezaguna da bere ekarpen historiko politikoarengatik, Nafarroako Aldundiko artxibozaina eta idazkaria izan zelako, eta liberala izanki foruen alde egin zuen lanarengatik. Alabaina, horrelako *curriculum* seriosaren barruan eleberri fantastiko batendako tokia ere izan bazen. Sarreran berean trikimailu literario batez baliatu zen Yanguas lana aurkezteko, eta Parisen topatutako eskuizkribua zela ziotsan irakurleari. Bertan frantsestealdian Mendigorriako Eguagirre

* *XXIV Galeusca. O imaxinario na literatura*, 2007, 63-73.

1 J. Sarrionandia, *Ni ez naiz hemengoa*, Iruñea, Pamiela (1985), 2006, 147-148 or.

gerrilari ankerraren aginduetara soldadu ibilitako Juan Lanas aragoitarraren ibilerak azaltzen zituen, baita gerra amaitu ostean eguzkira egin zuen bidaiaren ingurukoak. Edozein modutan ere, Yanguasen liburu hau aipatzen badut, euskaraz eman zuen orrialdearengatik da, izan ere, Lanas kapitaina eguzkian preso zegoela, ateko zerrailatik atera zen ziegatik, sorgin baten laguntzaz eta sorginak berak erakutsitako konjuroa esanez. Eta hauxe gauza bitxia dugu, seguraski ere nigromantziarekin zuzenean loturiko euskal testu bakarra gure literatura 1545ean hasi zenetik hiru mendeetara. Hona hemen:

> Infernuetako jaun ta jabe eta agintari nagusia, zeure serbitzari leialen estalpelari eta laguntzalle aberats errutsua, ez dezazula arren zeuregandik laga estura larriko, lantze onetan, zure biotz ukitze jakintsuak zintzoki entzun eta maizaro gorde izan dituelako persegitua arkitzen dan gizagaixo errukarri ilkor bat; eta egizu al dezun guztia zure morroi esangille umil Adarrekolepoak agertu dezan indar sendo iñork azpiratu ezin leikeana, zeñarekin anparatu izan dezun beti Izarretako biztanleen bidebagekeriaz burlatzen (etsai uritarmenarenak) peleatu ziñan beraren alde alper alperrik, bañan guztiz ondra andian, gogolibredunen matxinadako egun izugarri artan, erresuma menpekoen Agintza biurri urgullusoaren kontra.

Salbuespenak salbuespen, alta, lot nakion lanari, eta lehenbiziko lana, mugatu beharra. Hasteko, zeintzuk dira euskal literaturaren klasikoak? Ez litzateke gai itsusia heldu den Galeusca baterako. Hau da, gerta liteke nik klasikotzat hartu ditudan lanak beste inork literaturatzat ere ez jotzea. Izan ere, ez al da Atxagaren Obabakoak geure klasikorik klasikoena honezkero? Baina badirudi klasikoa diogunean zaharra esan nahi dugula, eta ohiko esku-liburuetan aurreko mendeetako idazle aintzindariez ari direla. Nik bederik horrela ulertu dut, eta muga horretan jardun nahi dut. Hau da, jakinki klasikoaren esparrua beste moduz ere uler daitekeela, eta irudimenaren erabilera literarioa berezkoagoa dutela XX. mendeko idazleek, nahiago izan dut aurreko mendeetako idazle zaharretara jotzea eta euren lanetan arakatzea. Lan zaila bestalde, bada, idazle zahar horiek gehienak, ia guztiak, gai erlijiosoko testuak zirriborratu baitzituzten, *a priori* behintzat fantasiari toki handiegirik uzten ez diona.

Egia da eliz literatura klasikoa ez dela sobera baloratua izan gurean, are gehiago alde linguistikoa kontuan hartu ez denean. Zer izan du interesgarri, bada, Leizarragaren *Testamentu Berria*-k hizkuntza bera ez bada? Baina asmo erlijiosoko literatura, gurean nagusi izateaz gain, zabala ere bada, eta hamaika itzulpenekin batera, eta hauek ere bere garrantzia izan dute alor literariotik ere, bestelako lanak ere izan dira, dotrinak direla, aszetika liburuak direla, sermoitegiak direla, eta abar. Lan guztiek ez diote toki bera uzten fantasiari, irudimenari, baina hartzailea herri xumea izan den neurrian, egileak irudimenari leku handiagoa utzi behar izan dio, batez ere adibideetan, exempla horietan, hau da, gertaeretan, ipuin motzetan, narrazioetan, anekdotarioan alegia.

Bistan da apaizek erabilitako istorio guzti horiek ez zirela haiek berek sortuak, ez eta hurrik eman ere, eta kasurik gehienetan inondik hartuak ziren. Anplifikazioaren teknikaren aurrean geundeke beraz. Iturriak arras zabalak ziratekeen, eta apaizgaitegi, abadetxe zein komentuetan liburutegi ederrak bazituzten ipuin sakratuez ongi hornitzeko. Literaturaz denez bezanbatean, ezin ahantzizkoa da zeinen inportantea den idazlearen elikadu-

ra, hau da, idazleon lana sorkuntzan baino bersortze lanetan kokatzen da, hitzezko ekai zaharra egoera berrietara txertatzean, eta inoiz aditutakoaren aldaera berria da komunzki ematen duguna. Hortaz, eliz egile haien lan literarioa ezin ukatuzko agertzen zaigu.

Trentokoa saihesten saiatzen: Tartasen istorioak

Juan Tartas Sohütako baserritar aberats xamar baten semea izan zen, Oloroeko elizako prebendatua izan ostean, Arueko erretore jardun zuena. Zuberera literarioaren aitzindari lehena, bi dira XVII. mendean Orthezen argitara eman zituen lanak, biak eliz liburuak: *Ontsa hiltzeko bidia* (1666) eta *Arima penitentearen okupatione debotak* (1672). Orain dela dozena bat urte eman zuen argitara Patxi Altuna euskaltzainak Tartasen lehenbiziko liburuaren edizio berritua[2]. Honi ongi etorria emateko *Euskaldunon Egunkaria*-ko literatur kritikariak «Benetako klasikoa» iruzkin llaburra atera zuen, zuberotarraren interes filologikoak azpimarratzearekin batera, bestelako dohai literarioak txikertuz. Eta zoritxarrez horretan dirau oraino geurean uste oker honek. Izan ere, geure klasikoetan ere izan badirelako interes literarioak, hortxe irakurgai daudenak, geure esperoan. Kontua dateke ez dugula ikasi testu bakoitza bere kontestuan paratzen, kontestualizatzen alegia. Edota deskontestualizatzen ere. Ez nuke nik XVII. mendeko eliz testu klasiko bat egungo balio literarioen iragazkitik bakarrik pasaraziko bere kontestua aintzat hartu gabe, baina halaber, kontestuarena jakinda eta kontuan harturik, testuak berak duen literaturtasunean erreparorik gabe barneratuko nintzateke, kontestua ere alde batera utzita, fikzioaren bila, edertasunaren xerka, hitz-jokuari aiduru, dakarzkidan istorioek ene errealitatea morfinatzeko ere balio dezaketen neurrian.

Tartasi aitortu ohi zaion balioetako bat testuartekotasuna da, hau da, bere liburuak idazteko baliatu dituen iturri ugari, kontatzen dizkigun istorioen jatorri ezberdinak. Trentoko kontzilioak irudimenaren hegalak moztu omen zizkien herriko apaizei. Ordura arte behintzat, badirudi eliz gizonek irudimenaren erabilera sutsua egiten zutela, entzule apalei ipuin eta istorioen bidez nahi zutena ulertarazi eta sinistarazteko. Halako demasa ezin onarturik, kontraerreformaren seriotasunak apaizgo kultoa abiarazi zuen, anekdotarioa bazterrean utzi zuena, egia teologikoei atxekiago omen zena. Honen adibiderik nabarmenena Urdazubiko Axular handia izan zen, euskal literaturaren libururik gogoangarriaren egilea alegia. Ez zatekeen ordea Tartas honen eredu zuzena, eta errenazimenduko eliz idazle horien azkenetako hatsetakoa bide zen. Mitxelenak berak ez zuen sobera juzku onik zuberotarraz: *Comparado con Axular, la erudicción que despliega Tartas resulta ociosa y extravagante, lo exagerado y lo tremendo*.

SETIOA

Gaztelu eta jauregi eder eta bortiz bat, etsaiak kanpotik inguru-inguru, asetiaturik edukiten dianian haren, edo bortxaz edo konpositionez hartzeko, eta haren gehien, eta nabusi izateko, gaztelu eta jauregi haren barnian balin bada garnisone on bat ger-

2 I. Tartas, *Onsa hilceco bidia*, Deustuko Unibertsitatea, 1995, Patxi Altunak apailaturik.

lako, eta ahoko munitione franko, eta ororen burian kapitaña, eta soldadoa, badira koraiosak eta deliberatoak behar denian, onsa defendiatzeko, eta onsa atakatzeko, barnekoak trufatzen dira kanpokoez, eta azkenekotz gaztelu, jauregia, ohorian gelditzen da, eta etsaia, bere pena eta bere denbora galdurik, desohorez betherik, bere jendiarekila retiratzen da. Baiña jauregi hartan ezpada armarik, ezpada zer Ian eta edan, ezpada kapitanik, eta soldadurik, edo izanik ere ezpadira koraios, eta deliberatu, eta diren poltroiñak, eta bihotz gabiak, adios gaztelia, adios jauregia, *Ville gaignée*, hiria hartu da, etsaiak eginen du jauregi, eta gaztelu harzatz nahi diana. Gure arima da, gaztelu eta jauregi eder bat, eta bortitz bat, momento oroz gaztelu haur, kanpotik eta barnetik asetiatu da, atakatu da furioski, eta pausu gaberik, haren etsaiak dira, deabrua, mundua, haragia, eta bertze etsai bisibliak, eta inuisibliak, gerla kanpotik, eta barnetik, etsai gaixto hek, jauregi eder hari, arimari, egiten dute, hala, nola, lehoiñ furiosak, eta otso gose minthiak, ardi gaixoari egiten baitu.

ESPAINIARRA ETA TXAKURRA

Egun batez español bat bere bidian zoala ediren zian hor bat borta batetan, eta horak usiki zian española igaraitian zankotik horaren kontre aski onsa defendiatu faltaz. Bertze egun batez españolak hor hura bera ediren zian borta hartan berian lo zantzala, eta ezpata baitzian bere saihetsian, idokirik eta buluzirik bere magiñatik eta bere furrebotik, hora hil zian ezpata kolpu bat emanik, eta gero ikhusi zinian hora hilik, edo hilzen, erran zian horari bere lenguajian españolez, *Inimigos tienez é dormés*, erran nahi baita gure lenguajian euskaraz, etsaiak ukhen eta lo egiten duk. Arrazoin zian españolak hala erraitera horari, zeren etsaiak dutianak ezpaitu behar lo egin, baina bai egon iratzarri, zoin aldetik jinen den egunaz, edo gaüaz, haren atakatzera.

HERIOA KONPARATZEN

Herioa eta otsoa biak bat dira, otsoak iaten du, iresten, eta deboratzen, otsoak bezala, bena deusek ere ezin asetzen, ianago nahiago, gormand, eta gulos da animale hura, bertze ororen artian, deusek ere ezin ase diro.

Herioa, bipera suge mota gaixto bat iduri da. Suge harzatz minzo direnak diote, haren humiak, bere amaren sabelian konzebitu, eta formatu direnian, ez tutela egurukiten sortzeko denbora, naturak behar dian operatione, eta termaiño ordinaria, bena bere amaren sabela mokoaz xilaturik, eta hautsirik, sortzen direla ordu gabe, eta sortzian bere ama hiltzen, hantik ardiatsi du suge hark bere izena, *Vipera, quasi vi, pariens*, bipera dela biolentziaz, eta bortxaz sortzen diana.

Herioa, hor errabiatu, gaixto bat iduri da horak jendia edo kabalia usikiten dianian, parte bat eramaiten du, eta parte bat kitatzen, bena eztu peza oro eramaiten eta hora errabiatu bada, usikiten dian gauza bere usiki satsiaz, eta korronpitiaz, kozatzen du eta korronpitzen, halako moldez non lehen beno lehen ezpadu itsasoko urian ukhutzen, eta xahatzen, errabiatzen baita eta hiltzen, bere forman, herioak, gizona, eta emaztia usikiten du, eta bere usiki gaixtoaz kozaturik, eta korronpiturik parte bat

gizonari eramaiten du eta hiltzen, eta bertze partia osorik kitatzen du, eztu hunkiten, gorpitza arras eramaiten du, eta arima ezin baitiro, hunki gabe, kitatzen du osorik, zeren imortal baita bere naturaz, eta ezin hiltzen baita, hargati herioak du izena, *Mors à morsu, siuè à mordendo*, eta hark gorpitzari ejinten dian usikia, hanbat da kruela, eta pozoatia, non haren zauria, eta kolpia, baita inkurablia, eta erremedio gabia, ezta urik, ezta itsasorik, ezta kontrepozoarik, ez barberik haren kozia sendotzen ahal dianik, ala den Aita Saindia, eta Kardinalia, ala den Erregia, Prinzia eta laboraria, aberatza ala pobria, hor hark behin usikiz geroz hil behar du, eztadila nehor tronpa, gogoa eman beza hor haren usikiari, hargatik erran du Poetak ederki; *Mors aequo pede pulsat pauperum tabernas, regumque turres*, bardin bardina, eta egoalki galtzen, eta ruinatzen dutiala pobren bordak eta kabanak, nola erregen torriak, eta iauregi gazteliak, ezta han diferentiarik, reserburik, ez eta pribilejiorik aberatzaren eta pobriaren artian.

XVIII. mendeko loraldia: josulagundiaren ekarpena

Hegoaldean eta Larramendiren bultzada lagun, XVIII. mendeko eliz gizonen ekarpen garrantzitsuan toki gutxi dago irudimenerako. Hortxe dugu Kardaberazen ekoizpen itzela, non nekez topatuko dugun anekdota fantastikoei eginiko tokia. Baina bazen liburuez haratago esparru bat irudimenerako aproposa izaten ezin hobe segitu zuena: sermoigintza. Gutxi dira Larramendik berak euskaraz tajuturik iritsi zaizkigun lanak, baina dauden gutxi horiek berebiziko kalitatea badute, eta ukaezina da andoaindarrak belaunaldiko beste idazleengan izan zuen eragina. Hona hemen 1737an Azkoitian eginiko eta San Agustin egunerako prestaturiko sermoien pasarte bana:

MARTIRIEN TORTURAK

Gogora ditzagun iñon edo aditu edo irakurri ditugun martireen tormentuak: zein aundiak aek, zein gogorrak, zein izugarriak: batzuek burubagetuak, besteak elorri arantzetan arrastatuak, batzuek azotez mallatuak, besteak berun urtu gorian irabiatuak, batzuek surtan erre kiskalduak, besteak putzu izoztuetan itoak, batzuek laurgituak, besteak erdiratuak, batzuek lauridikituak, laurenduak, besteak beren ezur guzietan abarrakituak, zeatuak, zatituak, eta ezin konta lekizkean beste eriotza mota asko.

PROMETEOREN GOLEMAK

Prometeo zeritzan batek, diote ipuiak, egin zituela gizonak ala emakumeak are eta lurrez naazte, eta gero oiek pixteko eta bizi-erazotzeko, ostu ziola eguzkiari sua eta argia. Etzuen orrelakorik egin gure aita San Agustinek [...][3]

Baina sermoigintzaz diharduenean ez diogu erretoreen lanari bakarrik aipu egiten, ezpada misiolari apostolikoen prediku hertsiei baizik. Larramendik berak goraipatu

3 M. Larramendi, *Euskal testuak,* Andoain, 1990, Patxi Altunak eta Joseba Lakarrak apailaturik, 50 eta 71 or.

zuen Frantziskotarrek Zarautzen kudeatzen zuten misiolari eskola, baina misio apostolikoen ardura ez zen frantziskotarrena bakarrik, eta hortxe ibili ziren jo ta su josulagunak ere. Hauetan ezagunena Sebastian Mendiburu izan genuen, euskal Zizeron deitua, Iruñeko komentuan bizi zena, eta Nafarroako herri aunitzetan predikatu egin zuena. Mendibururen ekoizpen literario guztia iritsi ez bazaigu ere, eta nahikoa zabala bazen, argitara emandakoen artean izen handikoak izan ziren Jesusen Bihotzaren debozia piztu eta zabaldu zuten 1747 eta 1759-60ko lanak. Bigarren Hezkuntzarako behiala Mendiguren-Eizagirrek apailaturiko literatur antologian[4] Mendibururen «Sorginketako gauzak» pasartea sarrarazi zuten. Honetara Xabierko Frantziskoaren bederatzurruneko irakurraldi bat ekarri dut.

SOLDADUAREN LIMOSNA

Zerbait ondasun zeraman soldadu bat utzi zuten bage itsas lapurrak eta zuenarekin batean bizia galtzeko beldurrez ontzitik itsasora saltatu ta igerian itsas bazterreta zen ta al zuen bidez bere burua estali ta asi zen eskean, ta eskean zebillela besteen artean arkitu zuen S. Franzisko Xabier aldi artan an predikatzen zebillena ta Jangoikoaren izenean eskatu zion zerbait. Urrikariz eskua bere sorbaldan ezarri ta, ez dut korradu bat ere, erantzun zion S. Franzisko Xabierrek, eta begiak gero zerura jiratu, otoitz zerbait egin ta esan zion behartsu gaisoari, Jangoiko berak dizula oraingo zure bearrak eskatzen duena. Santuaren aotik au aditu ta agur umil bat ari egin ta artu zuen soldadu beartsuak bere bidea bestetan billatzeko an arkitu etzuena, ta etzen luzaro egondu arkitu bage; bada aren ondotik kendu ta laster ots egin zion S. Franzisko Xabierrek, eta hura aren aldetik kendu ezkero, Santuaren sakelan egin edo utzi zituen Jangoikoak munduan egiten ziranak ez bezalako diru zenbait, eta an eskua sartu ta atera zituen urrezko ta zillarrezko berrogei ta amar ta eman ziozkan soldadu beartsuari esaten ziola, orra Jangoikoak bidaltzen dizun limosna, on dagizula, baña begira nondik dezun ez esan mundukori bein ere. Baña soldaduak hura artu ta bere pozarekin lasterkari eman ta asi zen ojuka esaten, milagroa, milagroa!; ta au ziola bazebillen pozez batetik bestera. Zer milagro da, gizona?, galdetu zioten aditzen zutenak, gaur zuk banatzen dezuna? Orain nerekin S. Franzisko Xabierrek egin duen bat. Zer egin du zurekin Santuak, gizona? Orra, erantzun zien, nere bearra estaltzeko eman dit gizonek oraindik ekusi ez duen diru sall hau; ta agertu zien diru guzia. Diru berria ekusi ta an arkitzen ziran merkatari ta dirutan zekiten beste guziak esan zuten etzela munduan gis artako dirurik, ez eta diru ark bezain urre ta zillar ona zuenik ere, ta ura berak debozioz artu ta eman zioten zebillen dirutik beste anbat eta anitz geiago ta soldadu beartsuarentzat anditu zen S. Franzisko Xabierren limos-milagroa[5].

Espainiako Karlos III. errege ilustratuak josulagundia 1767an debekatu zuenean Joatxin Lizarraga josulagungai zegoen Camposko Villagarcian. Hasiera batean Boloniarako

4 X. Mendiguren eta K. Izagirre, *Euskal Literaturaren Antologia, DBH-Batxilergoa,* Donostia, Elkarlanean, 1998, 167-168 or.

5 S. Mendiburu, *Euskaldun onaren biziera,* Iruñea, 1762.

bidea hartu bazuen ere, gauza ezaguna da sorterrira joko zuela azken momentuan, eta bertan, Iruñetik hamar bat kilometrora dagoen Elkano herrian, eman zuen bizitza osoa herriko erretore lanetan 1835ean zendu zen arte. Nafarroako idazlerik emankorrena, bizi zela deus argitaratu ez bazuen ere, bere eskuizkribuek 5000 folio inguru betetzen dute. Euskarari zegokionean Larramendiren aitagoitasuna onarturik, hala edo nola Lizarragak misiolari jesuiten lana parrokiara luzatu zuen, dotrina, sermoigintza, hagiografia zein bertsogintzan lan itzela izkiriaturik utziz.

BALTASARREN EPAIA

Baltasar errege gúra zegoláik afari báten póstrean atzendurík Jangoikoas ta bere arimas, brindátzen, orditzen, erokéria egiten, bitárteo zeukáte Jangoikoaren justiziarén ministroek pizátzen juizioko balántza lotsagarri gártan, ta aurkitu zé arin ta eskás obra onetán, kontrapizatzekó bere bekatuéi. Eta alá notifikatzeko senténtzia, gutienik uste zueneán, agertu zireán parétean kandeleroain aurkásean eri batzúk eskribitzen irur létra, zeintan notifikatu baizitzáio merexi zuén senténtzia. Bátean zió Thecél, nai baitu erran: pitzátua izan zára Jangoikoarén balántzan ta aurkitu zára eskás obra onés[6].

Zarauzko misiolarien testigantza idatziak

Aipatua dago jada Zarauzko misiolari apostolikoen eskola. Etxe honetan bizi ziren frantziskanoen zeregin nagusia zen herriz herriko misioak ematea, Europa mailan bakantzen hasia zen kontua, baina gurean berebiziko indarrez mantentzen zen jarduera. Zarauzko etxean izan ziren fraide sonatuenen artean Frantzisko Palacios oñatiarra genuen, hainbat erdal libururen egilea, eta euskarazko sermoi ugarirena ere, egun argitaragabe segitzen dutenak. Palaciosen etxekide eta itzultzailea Pedro Antonio Añibarro frantziskanoa genuen. Bizkaieraren aitzindaria, lau bat liburu eman zuen argitara bizi zela, eta hil ostean beste horrenbeste atera ziren, tartean gramatika eta hiztegia. Alabaina bere lanik gotorrenak argitaragabe darrai, *Misionari euskalduna, kristau dotrina eta sermoiak bizkai-errietan irakasten*, mila orrialde inguruko eskuizkribu erraldoia. Lana dotrinetan banatzen da, eta dotrina bakoitzaren bukaeran *exempla* bat dago.

DANTZARIAREN ZIGORRA

Mutil dantza zale batek entzunik predikadore baten aotik, dantzak ziriala infernurako bidea, atea ta pekatu askoren sustraia, azartasun lotsa bageaz esan eban: dana dala, ta esan begi predikari estu onek nai dabena, nik diñot eta uste dot, dantzak eztiriala pekatu, eztagola euretan peligrurik; dibersiño olgura, ta pozkaria inozenteak

6 R. M. Pagola, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: Hegoaldeko goi-nafarrera,* 1, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1996, 379 or. (De correspondenti satisfactione, 1781).

direala, nik beintzat largako eztodaz. Au esan ta laster joan zan dantzara, ta an bertan gente guztien aurrean jausi zan goitik arri andi bat bere gañera, zapaldu, zatitu ta lurrak iruntsi eban[7].

Añibarrorekin batera Zarautzen zeuden beste misiolarien artean Mateo Zabala bilbotarra aipatu behar da, ikastetxean 1815-1840 bitartean izan zena. Ezaguna bere lan gramatikal zein bibliografikoengatik, baita tajutu zituen alegiengatik ere, sermoi mordo bat utzi zuen, Villasantek bi alekitan ekarri zituenak. Sermoiak aterbetzen dituzten hiru eskuizkribuak toki ezberdinetan ageri ziren, eta Jerusalemen frantziskanoek duten konbentuan gordetzen zenetik hartua da pusketatxo hau.

INFERNUA

Beda izen andiko gizon jakitun eta santuak esaten dau eze Norunbria aldean iltzala Dritxelmo eritxon gizon bat, eta gero barriro biztu zala mundu onetako argitara. Oneri ilik egoan artean erakutsi eutsan Jangoikoak infernu gogorra eta ango suak, eta beste an ikusi bearreko guztiak. Berak esan eroian zer eta zelango bildurgarrizko itzalak ikusi bear izan zituzan, baia berak esan ez-ta bere, ondo ta ondo agiri eban bere bizi-moduan, nobaiste bere gogortasun ezin ikaragarriagoren batzuk ikusi bear izna zituzala, ze edozeineri arritu eragin leikion berak bere buruari emoten eutsan bizitza, ezin da geiagoan gogorrak. Sartu zan konbentu baten, eta an guztizko bere barau latzak egin eroazan; lo lur gogorraren ganean, zilizio ikaragarriak soñean erabiltzazan, garrian, barriz, erabilen burdiñazko katea orratz txikiz alde guztietatik bete beterik egoana. Bere burua azote krubelez apurtu bear eban, odol beroa ugari gorputz guztiti eriola. Eta iñok esaten beeutsan ea zegaiti orren gogor artuten eban bere burua, erantzun eroian: oneek baxen gauza gogorragoak ikusita daukadaz nik beste aldean. Neguaren biotz biotzean konbentuaren parean leiturik eta engalasaturiik egon ioian errekan, lei-karraldoa alde bateti zatitu, eta antxe sartu oi zan abitu ta guzti iduna-giño: eta andik urten da berem, ez eban soñekorik aldatu bearko; eta iñok ezer esaten eutsanean erantzun oi eban: oneek baxen otz gordinagoak andiko aldean ikusita nago ni[8].

Bizkaieraren klasiko bi

Bizkaierazko lehenbiziko idazleen artean garrantzi berezia izan zuen Juan Antonio Mogelek, apaiz setati baina formazio ilustratuko gizona, inkisizioaren aztertzaile izan nahi zuena baina aldi berean alegiak idatzi zituena, baita *Peru Abarka* lan sonatua ere, euskarazko lehenbiziko eleberritzat askok jo izan dutena, basati onaren eredutik abiatuta. Jon Kortazarren hitzetan ideologia tradizionaleko idazle neoklasikoa genuen. Argitara eman zuen lehenbiziko lana aitormenaren gaineko liburua izan zen, 1800ean, gizpuzkeraz. Hiru urte beranduxeago honen aldaera bizkaieraz atera zuen, Añibarroren hitzaurre bero batekin.

7 Joxemiel Bidador, «Pedro Antoñio Añibarro aitaren Misionari euscalduna liburuan dantzei buruz dakartzan 66 eta 67 doktrineak bere adibideekin», *Cuadernos de Etnologia y Etnografía de Navarra,* 61, 1993, 39 or.

8 M. Zabala, *Sermoiak I,* Bilbo, Euskaltzaindia, 1996, Koldo Villasantek apailatua, 257 or.

PELAIOREN DAMUA

Pelaio eritxon gizon gazte, edo mutil batek egin eban bein ardi bategaz onelango pekatu ezain bat. Bere konzienzijak, bakerik emoten ez eutsan; laster damutu jakon egiña, baña lotsatu zan konfesetako. Sinistu eragin gura eutsan Gaiskiñak, penitenzija gogorrak eginda, salbauko zala konfesau baga. Sartu zan bakartade baten eguan konbentuban; artu eban an abituba. Bere orazino luze, erretiro, ta penitenzija andijak gaiti, eukeen birtute andikotzat. Baña sugia barruban, ta diadarrez konzienzija zirautsala: Pelaio, alperrak dira zure penitenzija guztijak konfesetan ez badozu dakizun pekatuba. Agaz guztiaz, geruago ta gatxago egiten jakon konfesoriari agertutia, eukeelako santutzat. Ill zan guenian agertu baga. Egin zan bere enterruba, ta uste eben beste fraile bere lagunak, milagro andiren batzuk egingo zituzala ill onduan. Urrengo gabian topau eban sakristaubak bere gorputz enterrauba sepultura ganian, ta sartu eban ostera lur barruban. Bijaramonian bardin topau eban sepulturati kanpora, ta ikaraturik, emon eutsan kontu konbentuko buru, edo nagusijari. Jatsi zan au beste frailiakaz gorputz illa eguan tokira, errekeridu, kontu artu edo itandu eutsan onelan: Pelaio, izan zariana zeure bizitzan ain humilde, ta esanekua, esan egidazu, zer gura dozun? Zer esan gura dau sepulturapeti urten, ta kanpouan egotiak? Biar ete deutsugu emon sepultura onra andijagokoren bat? Eranzun eutsan difuntubak: Ay ene galduba! Kondenauta nago betiko. Ez dau leku santurik biar nire gorputz madarikatubak. Infernuban nago, ta egongo nas betiko. Egin neban ganadu bategaz pekatu habituba artu baño leenago; ez deuste ezer balijo izan neure penitenzija guztijak. Jangoikuaren borondatia da, enterretia ni leza baten animalija zantar bat legez[9].

Jose Antonio Uriarte ere frantziskano sartu zen. Esklaustrazioak harrapatuta, Markinan ibili zen misiolari lanetan bereziki. Bonaparte printzearen kolaboratzaile fermua, beste lanen artean biblia osoa itzuli zion gipuzkerara. Edozein modutan ere, bere lehenbiziko liburua Bonaparte ezagutu aitzin atera zuen. Hortik hartu dugu ipuintxo hau.

LETRADUAREN TXIMINOA

Venezijan bizi zan letrau jakitun bat, bide txarretik egin zituzan irabazijakaz aberastuta, eta augaitik Jaungoikuaren aserre ta gorrotuan. Ez eukan biar bada beste gauza onik, ezpada Marijari egunoro erregu bat egitia: eta deboziño labur onexegaitik librau eban Marijaren ontasun ta errukijak betiko erijotzatik. Begira zelan. Adiskidetu zan gizon jakitun au fray Mateo Baso eritxon kaputxinu bategaz, eta egun baten alako erreguak egin eutsazan juateko bazkaritara bere etxera eze, azkenik juan zan. Eldu ziranian etxera esan eutsan jakitunak: Aita, erakutsi biar deutsat iñoz ikusi izango ez daben gauza bat. Nik daukat tximiño miragarri bat, otsein batek legez serbietan nabena: garbituten ditu ontzijak, iminten dau maija: idigiten deust atia... Erantzun eutsan Aita erlijiosuak: gero tximiñua baño beste gauzaren batek izan biar leuke onek... ekarri dagijela

9 J. A. Mogel, *Konfesino ona edo zeinbat gauzak lagundu biar deutseen konfesinuari ondo egiña izateko*, Gasteiz, Fermin Larunbe, 1803.

ona. Deituten deutse; bigarrenez ta irugarrene bere bai, billatuten dabe alde guztijetatik, baña ez zan iñun tximiñorik agiri. Azkenik aurkituten dabe oe baten azpijan ezkutauta, etxeko bazter baten: bala ezelan-bere ezin atera izan eben andik. Orduan esan eban Erlijiosuak, guazan geu bera daguan lekura: juan zan letrau jakitunagaz batera, ta esan eutsan: infernuko pistija madarikatua: Jaungoikuaren aginduz ta ordez berba egiten nor azan, ta zetarako agoan etxe onetan. Ta orra nun erantzuten daben tximiñuak, dala demonioa, eta daguala zain ta itxaroten pekatari arek Marijari egunoro egiten eutsan erregua egun baten itxi artian, orduantxe eruateko infernura; bada Jaungoikuak emonik eutsala eskubidia beriala ito, ta bizitzia kenduteko. Au entzunik, entzun zan beriala letraua negarrez Jaungoikuaren serbitzari aren oñetan, laguntasunaren eske: sendatu eban egijala laster etxe atatik iñori ta ezeri kalterik egin baga: bakarrik emoten deuat eskubidia, esan eutsan, urratuteko orrako orma ori, ezagutu jaijaguan urte duala. Berba onek amaitu orduko, ots ikaragarri bategaz zulatu zan ormia, eta ezin iñoz zarratu izan ebeen kare ta arri guztijakaz bere, Jaungoikuak alan nairik. Azkenik imiñi eben zulo atan Aingeruaren irudi bat. Letraua ondu zan, ta uste uzan lei iraungo ebala bizitza onian. Orra zenbat balijo daben Ama oni errezetiak[10].

Gipuzkerazko adibide bat

Juan Bautista Agirre Asteasun jaio zen 1742an eta bertan jardun zuen apaiz ere 1770etik 1823an hil zen arte. Garaiko beste euskal idazlerekin harremanen bat izan zuen, Mendiburu, Añibarro eta Mogelekin behintzat, eta egun gipuzkeraz idatzi zuten idazle klasiko hoberenetzat jotzen dute askok. Bere lan zabala bi alditan eman zen argitara, 1803an eta hil osteko 1850ean, beti ere *Erakusaldiak* izenpean. Bigarren aldikoan meza nagusietan egindako hitzaldiak biltzen dira.

ADARBAKARRA

Bazijoan au bere bidean eta aditu zuan atzetik lasterka zetorrenen baten oñotsa. Begiratzen du zer ote dan, eta ekusten du nola darraikion aberetzar izugarri bat adarbakoitza. Bereala asi zan lasterka alegin guziaz, baña adarbakoitza zerraikion, inguru guziak orroaz izutzen zituala. Arkitzen du lize-zulo bat eta saltatzen da ara. Lizearen saiets batetik zabaldurik zeuzkan adarrak lertxun batek. Eldu edo itsasi zien oei eta geratu zan zintzilika. Onela zegoala, begiratzen du gorontz eta ekusten du adarbakoitza lizearen goiko ertzean berari itxedoten. Begiratzen du berontz eta ekusten du dragoitzar bat begietatik sua dariola eta autzarra zabaldurik irintsitzeko zintzilika zegoana. Begiratzen dio lertxunari eta ekusten du sustraiak ebakitzen ari zaizkala kirra-kirra bi sagu, bata zuria eta bestea beltza. Perill andian zegoan zintzilika zegoana. Ala ere an txoroa eta ezereza izan zan, non ardurarik gabe zegoan, lertxunaren orrietatik erortzen ziran tanta edo txirrista goxo batzuek auaz artzen zituala. Asma diteke zentzugabekeri andiagorik?[11].

10 J. A. Uriarte, *Marijaren illa edo maijatzeko illa*, Bilbo, Delmas, 1850.

11 J. B. Agirre, *Erakusaldiak, antologia*, Donostia, Klasikoak, 1999, Fidel Altunaren edizioa, 212 or.

LABURPENA

Irudimenaren klasikoak euskal literaturan. Eliz idazleek irudimena erabiltzen: antologia txikia

Artikuluak aztertzen du, laburki, euskal literatura klasikoak erabili zituen irudimen fantastikoko gaiak. Jakina denez, literatura hori XVII. eta XVIII. mendeetan elizgizonek idatzia da, hasi Juan Tartasekin eta buka Juan Bautista Agirrerekin.

Gako-hitzak: euskal literatura; irudimen fantastikoa; Juan Tartas; Manuel Larramendi; Pedro Antonio Añibarro; Mateo Zabala; Juan Antonio Mogel; Jose Antonio Uriarte; Juan Bautista Agirre.

RESUMEN

Las imaginaciones clásicas en la literatura vasca. Los escritores eclesiásticos utilizan la imaginación: pequeña antología

El artículo repasa sucintamente los temas relativos a la imaginación fantástica que fue desarrollando la literatura clásica vasca, escrita mayormente por eclesiásticos en los siglos XVII y XVIII, comenzando por Juan Tartas y concluyendo en Juan Bautista Agirre.

Palabras clave: literatura vasca; imaginación fantástica; Juan Tartas; Manuel de Larramendi; Pedro Antonio Añibarro; Mateo Zabala; Juan Antonio Mogel; Jose Antonio Uriarte; Juan Bautista Agirre.

ABSTRACT

Classic fantasies in basque literature. Ecclesiastic writers use imagination: short compendium

The article succinctly reviews the themes related to the fantastic imagination developed in classic Basque literature, written principally by the clergy in the 17th and 18th centuries, commencing with Juan Tartas and concluding with Juan Bautista Agirre.

Keywords: Basque literature; fantastic imagination; Juan Tartas; Manuel de Larramendi; Pedro Antonio Añibarro; Mateo Zabala; Juan Antonio Mogel; Jose Antonio Uriarte; Juan Bautista Agirre.

Biktoriano Huiziri buruzko berri laburra (1860-1938)*

Joxemiel BIDADOR**

Justo Huizi eta Anastasia Gonzalez de Villazon senar-emazteren seme bakarra zen Biktoriano 1860.eko irailaren 6an jaio eta 1938.eko irailaren 19an izenkidea zuen Biktoriano Irurtzun iloba apezak lagundurik zendu zen Etxarri Aranatzen[1]. Apaiz izateko ikasketak Iruñeko San Migelgo apezgaitegian burutu zituen, hau da, hiru urteko humanitateak, bi urteko filosofia, eta sei urteko teologia, honen ostean, 1885. urte inguruan apeztu zelarik. Behin apeztuz geroz, hamalau urtez izan genuen erretore eta beste zazpi

* *Euskera*, 44, 1999, 821-831.

** Ezin esan Biktoriano Huizik ez duela ikerlarien arreta bereganatu. Gutxi dirateke etxarriar honi buruz izkiriatu dutenak, baina euskal letretan labandu diren egile txikiez usuenean ditugun berri-iturri eskasei erreparatuz, gure Biktorianoren gainekoak nahikoa eskuragarri ditugula onartu behar. Arazoa, ordea, ditugun datu horiek batu eta Huiziren biografia zehatza osatzera abiatzerakoan hasiko zaigu, izan ere, dauden berri-iturri guztietan jasotzen direnak batera ez baitatoz, eta bete gabe dirauten hutsune nabarmenak baitituzte. Biktoriano Huiziz bereziki kezkatu zen lehenbizikoetakoa José María San Sebastian, *Latxaga,* izan genuen. Honek «Bitoriano Huizi Etxarriko seme ospetsua» artikulua eman zuen argitara behialako Príncipe de Viana aldizkariaren euskarazko gehigarrian; 1974.eko maiatzean, non argazki eta guzti eskeini zigun; Huiziri buruzko berri bila zuzen-zuzenean etxarriarraren sortetxera jo zuen. Geroagokoak dira, oro har, Huiziri buruz ditugun bestelako iturri bibliografikoak: A. Perez Goiena: *Ensayo de Bibliografía Navarra,* IX, 1964, 265-266 or.; F. Perez Ollo, «Huizi Gonzalez de Villazón, Victoriano», *Gran Enciclopedia Navarra,* Iruñea, Nafarroako Aurrezki Kutxa, 1990; R. Carasatorre Bidaurre, E. Ulaiar eta J. L. Herdozia, *Etxarri Aranazko euskera eta Arañaz Elkarteko hiztegia,* Iruñea, 1991, 105-110 or.; R. Carasatorre Bidaurre, *Barranca Burunda,* Etxarri-Aranatz, 1993; J. Bidador, «Bitoriano Huizi etxarriar gramatikagilea», *Nafarkaria,* 1996-IX-20; B. Urmeneta Purroy, *Navarra ante el vascuence: actitudes y actuaciones* (1876-1919), Iruñea, Nafarroako Gobernua, 1996, 256 or.; Ziriketzen Euskara Taldea, «Victoriano Huici (1860-1938): Etxarriko apaiz euskalzalea», *Guaixe,* 1996.eko abendua, 25. zenbakia, 25 or.

1 Ez zen Krisostomorenean jaio, esan ohi den bezala, bada, orduan ez baitzen horrela deitzen Huizitarren etxea. Biktorianoren hirugarren arrebarekin, hau da, Inozentziarekin ezkondutako Krisostomo Irurtzun Irañeta lakuntzarrak eman zion izen berria etxeari –beste bi arrebak Narzisa eta Maria Kruz ziren–. Biktorianoren jaiotze dataren inguruan Carasatorre-Ulaiar-Herdozia hirukoteak, 1868.eko apirilaren 27koa, eman ziguten.

urtez ari izan zen apaizlaguntzaile Nafarroako hainbat tokitan. Apez moduan burutu zuen lehenbiziko lanak Aezkoara eta Itzara eraman zuten, Abaurrepera eta Larunbera hain zuzen ere; halaz guztiz, ez zen luzaroegi joko sorterritik hurbilera joanarazi zuten arte, eta 90.eko hamarkadarako Unanun eta Arakil-Uharten izan genuen erretore; Ergoienako herrian, bestalde, eta zituen beste zereginen artean ere, latin eta humanitate irakasle ihardun zuen, zeramatzan ikasleen artean, Lakuntzako Blas Alegria euskal idazlea zegoelarik[2].

Nafarroan euskararentzako zegoen egoera itogarriaren lekukoa izan zen Huizi, eta urte bertsuetan hainbat euskaltzaleen ekimenei esker ekintza itxaropentsuak aurrera atera baziren ere, haiek ez zizkioten Huiziri begiak lausotu. Hemezortzi urteko apezgai gaztea genuen Biktoriano Nafarroako Euskara Elkarteak bere ibilbideari ekin zionean bizitza laburreko aldizkari kultoa bezain berritzailearen lehenbiziko alea argitaratuz, eta oraino, Bonapartek Sakanan barrena eginiko ibilbidearen oroitzapenak itzaltzeke ziraukeen, alabaina, zailegia dateke Nafarroako puntako euskaltzaleek, hots, Campiónen eta Iturralderen lagunartekoek Huizirengan une hauetan izan zuten eragina zehaztea, orobat, printzearena. Campiónen Orreaga 1880.ean atera zen argira, eta lau euskalki literarioen gramatika, berriz, 1884.ean, Tolosako Lopez-Mendizabalenean. Puri-purian biziko zituen, ordea, 1897.ean Nafarroako euskarako katedrarako oposaketaren ingurukoak, gramatikaren erdarazko sarreran jaso zuen bezala:

> Por cuyas razones comprendo bien lo acertada que estuvo la Exma. Diputación cuando hace dos años resolvió crear una catedra en baskuenz en Pamplona, no con el solo objeto de tenerle conmiseración, como se tiene a otros monumentos antiguos, sino con el noble y doble fin de que sea estudiado y se extienda por toda esta provincia de Navarra, como lo hacen sus hermanas en las suyas; en la seguridad de que es el mejor tipo que puede presentar para la felicidad de sus administrados.

Ez zen aurkeztu, agidanez, baina ezin jakin zergatia, bada, aurkeztu izana ez zatekeen gauza harrigarriegia gertatu handik bi urtetara bere gramatika argitaratzeko gauza izan bazen; edozein modutan ere, oposaketan gailendu marra oiartzuarra handik gutxira hil zen, ezagun denez, aldundikoek ezer gutxi egin zutelarik kostata ateratako postua arrabetetzeko.

Gotzainarekin Huizik ukan zituen arazoak euskara zela bide, eta Carasatorre-Ulaiar-Herdozia lan-taldeak zioskunaren arabera, ez ziren, ordea, aparteko kontua, nahiz onartu behar den, Biktoriano koxkorreko pertsona bazela, genio txarrekoa ez esatearren; 1901.ean Estatuko *Boletín Oficial*-ean Nafarroako eskoletatik euskara kentzeko agindua xedatu zuen Benito Valencia gobernadore zibilak, hainbat tokitan jada egiten ari zenaren aurka, eta ber urtekoak dira, Bilboko lore jokoetan, Unamunok esandako mamukeriak. Gutxiz gehien euskararen aurkakoa zen giro honetan, eta euskararen alde zeuden Campión eta abarren aparteko ghettoan sartzeke, bada, atera zuen Huizik bere gramatika.

2 E. Ulaiar, «Blas Alegria euskal idazlearen bizitza eta lanak», *Euskera, 1983,* XXXVIII-2, 316-317 or.

Iruñeko gotzaiak ez zukeen begi onez hartuko Huiziren ekintza. Bestela ere, ordurako nahikoa higatua zegokeen, eta handik gutxira, urtea amaitu aitzin, dimisioa aurkeztu zuen. Antonio Ruiz-Cabal Rodriguez (Cadizko Villamartín, 1835-Sevilla, 1908) l886. ean iritsi zen Iruñera, eta hagitz langilea bazen ere, berekin zeraman eite harrosko eta mesfidatiak apezpikutegiko eliztar gehienen mesprezu hotza erakarri zion, eliz kargurik garrantzitsuenak kanpotarren eskutan utzi izanak ere emendatu zuen gauza. Diabetek jota zegoelako aitzakiaz alde egin zuen Iruñetik 1899.eko abenduan, ohiko adio ofizialik gabe, bere agintaldiaren porrotaren erakusgarri. Biktorianoren liburua, berriz, abuztuan atera zen karrikara, bere poltsikotik ordainduta, eta lehenbiziko orrialdeetako ohiko baimen eta zentsura eklesiastikoak bertan ezarri gabe. Liburuan ezarri sarreretan ere, nahiz esplizitoki gotzainaren jarrera ez aipatu, bai inplizitoki iger daitekeela gotzain andaluziarrari eginiko salaketa, nola euskarazko sarreran, nola erderazkoan:

> Geruagoko eunkadetan berriro indarra artu bearrian, artian izan zittuben kontrario denak baño aundiagokua sortu zitzaion erdera edo gaztela, eta onek beiti eta gaur geiago, bere desafio eta kastiguaki nei dau debekatu ez bakarrik erakuslekutan baita suondotan ere aztu daien guztias; ontarako erdaldun denak elkartzen dira eta gutxi billatuko dira oni ongi begiratzen diotenetatik, zeiñ aundia ote da gaztelak euskerari dion gorrotua! Eztau adittu eta entzun nai bere buresua duela, nei lauke au ondatu lurretik. Gendu dizkigu gure ainziñako usario, lege, eta bizi modu gastu gutxikuak: izkuntzau eziñ digu gendu oraindik bintzet gure erri batzuetan, au dau kontrario aundia, onek iraunten deben artian, guk euskaldunak ez gera fiatuko Gaztelareki eta bere agindu falsueki, onek iraunten deben bitartian Euskaldunak beti euskaldun: erak, gu ola ezaguturik, egiñen dittuzte alegiñak gentzera guri ere geren izate pare gabiau, gure biotz animetan dagon izkuntza eta biziau, zergatik ongi dakite gendurik erri bati bere asmo eta barrunbeko pentsamentuak ezagutzera emateko modua, gentzen zaiola bere izatia bere bizitza: nei gaittu bereganatu ez gure onagatik baizik daukaguna kendu eta eztaukienaki berdintziagatik, goarturik ongi, gureki obeki biziko dala. ¡Ah aparte bagaunde zeiñ ederki elkartuko giñake euskaldunok denok! [...]

> [...] ¿Qué diré del baskuenz respecto al ministerio sacerdotal? En Nabarra hay muchos pueblos y mucha gente que no sabe mas lengua que el baskuenz, por consiguiente, para esa, la explicación de la doctrina cristiana, del Santo Evangelio, corrección de los vicios y administración de los Santos Sacramentos, debe ser en baskuenz; y a nadie se le oculta que para esto es preciso saber leer, escribir, entender y hablar el baskuenz, sino queremos conocer, como hasta ahora, casos de ver a sacerdotes que, solos y sin saber palabra de el, han tenido que haberselas con feligresías en donde no había mas que dos o tres empleados publicos que entendieran su castellano (y esto a sucedido con cabildantes míos), siendo consiguiente en las mismas la indiferencia religiosa. Y no basta que el sacerdote haya nacido de padres bascongados y en pueblo bascongado, pues muchos de estos no pueden cumplir, como se debe desear, con sus obligaciones, sin mas que esto.

Apezpiku berria iritsi zenean, hau da, José López-Mendoza y García (Burgosko Frias, 1848-Iruñea, 1928) agustindarra, berriz, ez zen egoera ezertan ere aldatu, Agintego

hasieran bertan Lacorten *El Porvenir Navarro* astekaria debekatu zuela eta[3], bazirudien gotzain berriak herri nafar osoaren oniritzia jasoko zuela, 1900.eko urriaren 9an manifestaldi erraldoiak aditzera eman zuenez, baina geroagoko hainbat gora-beherek aurreko egoera bera bersortu zuten. 1902.eko kalonje doktorala izateko oposaketetan Juan Gómez izenekoa gertatu zen irabazlea, ia segurutzat Hilario Ihaben apez nafarra gailenduko zela jotzen zenean; honetan gotzainaren esku-sartzea ikusi eta salatu zuten Legaz, Garnika, Irujo, Hernan eta Tirapu kalonjeek, baina nahi zutena lortu beharrean, gotzainak apaiz lizentziak kendu zizkien hauei, eta sorturiko iskanbila laxatzeko Zaragozako gotzainak egin behar izan zuen bake egilearena. Handik gutxira, 1905.ean hain zuzen ere, Baztan eta Ilundain apaiz nafarrak Iruñean apezpiku sagaratu zituztenean, eliz ofizialaren ordezkaririk ez zen elizkizun horretara bertaratu, Nafarroako apezgoa bereziki sumindu zuena; ondoko egunetan esandakoagatik, apezgaitegiko zazpi irakasle kendu egin zituen bere kargutik apezpikuak; aferak gori-gorian iraun zuen Diario de Navarra egunkariaren orrietatik bereziki, eta ez zen jabaldu apezpikuak Zapateria karrikakoa *rebelde a la autoridad y colocado en la pendiente del cisma* hitzekin mehatxatuz, Eustakio Etxauri zuzendariak atzera egin zuen arte.

Burgostik etorritako agustindar honekin, bada, ez zitzaion Huiziri bere lana goxotu, ez eta aisatu ere, eta hasiera batean Etxarrin geratzeko emandako hitzari men egin gabe, Altsasura igorri zuen apaiz-laguntzaile 1900.eko irailaren 27an, Carasatorrek eta jaso zigutenez:

> Obedeciendo a órdenes de mi superior jerárquico, me veo obligado a pasar a la parroquia de Alsasua en calidad de coadjutor y contra lo que me prometía [...]. [4]

3 Basilio Antonio Lacort Larralde (Bera, 1851-Iruñea, 1908) militarra eta kazetariak, Ruiz Zorrillak Madrilen sortu *El País* eguneroko errepublikazalean ekin zion idazteari estrainekoz, horrezkero lagako ez zuen iharduera. 1898.eko maiatzean *El Porvenir Navarro* izeneko astekaria agertu zuen, bertan botatakoengatik Iruñeko gotzaiak kazetaren irakurtzea debekatu zuen heretikoa, sorginkeriatik hurbil-hurbilekoa, eskandalagarria, erorbidea eta gaitz guztien iturria bazelako. Arrazoiak arrazoi, esandako guztien azpian, Eskolapioetan agituriko hainbat haragikeria lizun salatzea bide zegoen. Lacorten jarrera guztiz zorrotza izan zen beti, eta dotrina kontuetan ez sartu arren, apezgo nafarraren zurikeria petrala agerian uzten ahalegindu zen ahal guztietan. Erlijio gizon eta emakumeen moral zikoitzak bortizki asaldatzen zuen Berakoa, batik bat joku berotik ateratako dirua aisaki onartzen zutelako. Kritikak aurtikitzerakoan ez zituen lazkatuen izenak berekiko gordetzen, eta behin baino gehiagotan frai Arcangel Lizarrakoa buruñurduna edo frai Gilberto Blanco agustindarra izan zituen ikusmiran, hurrengo apezpikuaren gogaitasuna areago hantu zuena, bada, Jose López Mendoza-García gotzaia agustindarra ere bazelako. Azken honek aurrekoak xedatua orobat berresteaz gainera Lacort *nominatim* eskomikatu zuen, baita astekaria sustatzen zuen oro, berdin kazetari, harpidedun, inprimatzaile, saltzaile, erosle, edota irakurlea zen. Bestaldetik Jenaro Pérez Moso gobernadore zibilak bere egin zuen elizaren epaia, eta astekaria galerazi zuen. Esan ere egin behar da aitzinetik Lacortek berak gobernadore ustelak Tafallan zuen isilpeko joku-etxearena agerian utzi zuela. Iruñeko agintariek, zibilek nahiz erlijiosoek, Lakorten paperak zukuruzturik, manifestaldi erraldoia antolatu zuten 1900.eko abenduaren 9rako, liberalismoari aitziko ekintza garbia gertatu zena. Halaz guztiz Madrilgo biltzarretan, Senatu nahiz Gorteetan, *El Porvenir Navarro* astekariaren debekaldiak sortu iskanbila lakarrak Nafarroako gobernadore zibilarengandik Lacortek beste argitalpen bat kaleratzeko baimena lor zezala erraztu zuen, *La Nueva Navarra* deituko zena hots. Alabaina, honakoak ere gotzaiaren erasoa jasan zuen, eta 1901.eko otsailaren 25eko dekretuaren bitartez eskomikua atezatu zuen, bigarren astekari honen irakurtzea heriozko pekatu zela ezin argiago utzirik, erresuma zaharreko eliza guztietan irakurtzeko zein ateetan jartzeko agindu zuela. Lacorten lanen irakurle fermua eta harpideduna Urdiaingo idazkaria zen Andres Agirre genuen, Biktorianok seguroenik ere ezagutuko zuena

4 Biktorianoren oharra Etxarriko udalari; Carasatorre, Ulaiar, Herdozia, *op. cit*., 106 or.

Altsasutik Urdainera aldatu zuten, eta azken honetan parrokiko ekonomilari zegoela, «Elizaguindeen zuzenguin kontuskua» izenburupekoa eman zuen argitara Iruñeko apezpikutegiaren aldizkaria. Honakoa Urdiaingo misioen erreseina dugu, laburra izanagatik ere, interesekoa dena, non bi orrialde eskasetan, 1903.eko bukaeraldean Orkin eta Erbiti aita erredentoristek Urdiainen eginiko misioaldien aipua ekarri baitzigun:

> Ama Birjiñ zortzes Garbiaren bederatzi-urrenian izan zan jentil erriontan (kupidegabiak izendatzen gaituztenes) Aita Erbiti ta Orkin erredentoristak euskeras eman ziguten bidalde edo misio santua, zeiñetan gure ongi etorriya zutenetik agertu ziguten lenbizi amorio aundiyareki eren biotza, urrena ezaguturik Jaungoikuaren gloriaganako aien deseiua ta gure salbaziuaganako zelua; danak zein lenago ta peleyan bezela juaten giñan Eleizara itzaldi santutara. Aspaldi nuan aditzera oso moduskuak zirala bidal premilieztarako, ala erakusi ere digute, zergati guretako bakarrik ongi eldu ziran ordutan, goizian eta arratsian irakatsi ta oroitu dizkigute amorios, baita ere diadarka San Pablok bezela, jainkuaren aginduak, gure animak ainbeste premia dituen birtudiak eta beraren salbaziuari dogozkion otoitzak. Aien itzaldiak izan dira umillak eta santuak, baya ain zorrotzak eta zeloskuak, bekatu, eriotz, juizio, infernu, euskaldunak erderas egiten duen bekatuaren gaiñian eta geñarako oituera geiztuen gaiñian, nun mugiarazi gaituzte (pozes negarra darigula) konfesatzera ta Jauna errezibitzera gozaro kantatuas: atoz bekatariya, Jesus gure Jaun maite, bekatariok Ama, agur Maria, etc., beste batzueki. Misio urren egunian erregutu giñuen denok gure erri ta sukaldetatik beste mundura juan ziran anima geizto ta gure biotzeko aietas. Orain gaude bizirik dagonak ezagutu ez duen pozes beterik. Urdiango abadiak, abendubaren 10, 1903 urtian[5].

Apezpikutegiko *Boletín Oficial Eclesiástico* aldizkaria Uriz Labairu gotzaiaren agintegoan sortu zen 1862.eko maiatzaren 10ez geroz. Karrikan izan zen lehenbiziko 40 urteetan ez zen testurik euskaraz ageri, harik eta 1903.eko ekainaren 2an Arruitzen erretore zegoen Joxe Fermin Argiñarenak «Mayatceco illa Euskal-Errian» izenburuko laburra igorri zuen arte. Baraibartar harexek ireki ildotik, beraz, etorri zen Huiziren lana, tamalez, ezagutzen dugun azkena ere izan zena[6]

Urdiaindik 1904.ean atera zen Iraizotzera erretore joateko, baina Ultzaman ere arras denbora laburra eman zuen[7], izan ere, Lesakara aldatu baitzuten apez-laguntzaile lanetan berriz ere aritzeko[8]. Apezpikutegiko agintariekin, beraz, zituen arazoak zirela bide, hau da, bere Sakana maitetik urruntzea, bi apezpikuek euskararekiko erakutsitako jarrera,

5 «Elizaguindeen zuzenguin kontuskua», *Boletín Oficial Eclesiástico del Obispado de Pamplona,* 1904-1-2, 964. zbk., 12-13 or.

6 J. M.ª Satrustegi, «Miscelánea: El euskera en el B. O. Eclesiástico de Pamplona», *Fontes Linguae Vasconum,* 70 zbk., 1995, 545-548 or.

7 Ez dakigu, beraz, urte haietan Ultzamako apezen artean zegoen mugimendu euskaltzalean zein neurritan hartu zuen parte gure Huizik –Justo Albisu, Serapio Navarro...–, nahiz tamalez, etxarriarraren ekarpena Ultzama aldean ezer gutxitan nabarituko zela pentsatzeko arrazoiak badauden.

8 Bortziriko hiri honetan sei ziren erretoreari laguntzen zioten apez-laguntzaileak.

edota aipatu 1902. eta 1905.eko aferek etsirik, 1906.eko otsailaren 23an Josulagunen ordenean sartu zen josulagungai moduan Loiolako etxean, honekin bere bizitzaren lehenbiziko aroa itxiz.

Ia hogei urte eman zituen Biktoriano Huizik Lagundian. Apaiza bazen ere, josulaguna izateko prestakuntza ikasketak burutu behar izan zituen; lehenbizi, eta lehenengo zinitzak egin aurretik, josulagungai bezalako hiru urte igaro zituen Loiolan; handik, Burgosko La Merced ikastetxera joan zitzaigun 1909.eko ikasturtean erretorika ikasle moduan; hurrengo bi ikasturteetan, berriz, teologia dogmatikoa eta morala ikasi behar izan zuen Onako ikastetxean, eta azkenik, josulaguna izateko faltatzen zitzaion hirugarren probanda 1912.ean egin zuen Loiolan. Orduz geroz, apaiz lanetan ihardun zuen Lagundiaren zenbait etxetan: 1913.ean Loiolakoan, 1914.etik 1918.erako laurtekoan Bilbokoan, 1919.etik 1922.erako hirurtekoan berriz ere Loiolakoan, eta azkenik, 1923.etik 1924. era Durangokoan. 1925.erako jada ez da Biktorianoren izena Lagundiaren katalogoetan agertzen. Azken urte hauetan gerizpetu zuen ordena uzteko izan zitzakeen arrazoiak ez dira ezagunak, alabaina gauza jakina da etxarriarra ari zailekoa zela, koxkorreko pertsona, eta batekin eta besteekin muturka ibili izanaren ondorioa zatekeen. Edozein arrazoia delarik ere, Huizik Loiolako ordena largatu zuenean, urrutira jo zuen, ausaz ahantzbidea harturik, eta Kuba aldera joan zitzaigun berriz ere apez soil moduan. Karibeko uhartean, ordea, ez bide zuen denboraldi luzeegia eman, eta handik gutxira Etxarrira itzuli zen, non zendu arte sortetxean geratu zen.

Gure asmoetatik at geratzen da Huiziren liburuari buruzko iruzkin sakonik egitea, halaz guztiz, honen gaineko hitz bi esatea haizu bekit. Ezaguna zaigu jada, *Manual de gramática bascongada dedicado a la excelentísima Diputación de Nabarra y al Seminario Conciliar de Pamplona* izenburukoa alegia, Nafarroako hiriburuko Estafeta karrikako 31. zenbakian zegoen Erizeren moldiztegian 1899.ean atera zena, berauek bere poltsikotik ordaindua izan zena, esan bezala. Ez zen makala ere atera orduko garaiko prentsa idatzian jaso oniritzia; honela zioen, esaterako, *El Eco de Navarra* egunkariaren kazetariak:

> Podemos asegurar que es obra sumamente apreciable por su sencillez y claridad, con abundantes ejemplos en castellano y vascuence. Está la obra basada en el estudio de los ocho dialectos vascongados, la de los mejores vascófilos pero no es la de ninguno de ellos, viene a llenar un gran vacío pues se ocupa del dialecto navarro septentrional, por componer esta parte la mayoría de los vasco-navarros y no haberse escrito gramática paralela, y con el fin de que se tenga un guía seguro a quien seguir. Por todo lo cual recomendamos a todos los vascongados y a los que quieran aprender el vascuence tan útil libro[9].

Alabaina, erraldoi bakan baten antzera, isolaturik, ohiartzun haundirik gabe igaro zitzaigun Huizirena. Ezaguna da *Euskara* aldizkariaren bitartez Bonaparte eta Campiónen

9 «Un libra útil», *EI Eco de Navarra,* 1899-VIII-13, 6760 zbk.; Blanca Urmeneta Purroyen liburutik harturiko aipua, *op. cit.*, 256 or.

arteko komunikazioa Nafarroako hainbat hizkeren inguruan, tartean Sakanakoak. Berri iturri ezin baliagarriagoa zukeen Campiónek Huiziren idazkia, ordea, ez zuen, dirudienez, behar bezala aprobetxatu, eta horren froga dugu iruñarrak 1908.ean argitara eman zuen gramatika txikia, bere aurreko lan potoloaren laburpena baizik ez dena, eta gipuzkeratik abiatuta gainera, Huizik bere gramatikan iparraldeko goi-nafarrera abiapuntu hartzeko gomendioari zaputz eginez; ber urtean López-Mendizabalek atera zuen bere gaztelera-euskara hitz egiteko esku-liburua, Campiónen beraren sarrerarekin, non Huiziren lanaren aipamen mendrenik ere ez baitzen. Biktorianori ez zion laguntza haundiegirik ekarriko bere ideologiaren biluzte saioa, nonbait, edonon eta edonoren aurrean egiteko enbarazurik sortzen ez ziona. Karlista amorratua izanik, bere liburuaren sarreran liberalentzako hitz gogorrak izan zituen, gramatika den neurrian oso gauza aproposa ez datekeena:

> Erdaldunak ia denak baldin badiote euskeldunari gorrotua, aparteko modu batian gorrotatzen dau liberalak; liberalak eztau izan eta ez izan ere kontrario aundiagokorik: zergatik euskaldunak eztau Jaun bakar bat eta erreligio bakar bat besterik sinistatzen, eta nois nai utziko dau bizia oien aide, eztittu ikusi nei oien edozin gauza pentsatzeko, eskribatzeko erakusteko eta estimatzeko libertade galgarri zorigeiztoko oiek, jakinik oiek baño obeki egiasko Elizak erakusten deben dotriña, umill gordetzen dau bere bizi moduan. Nun izan da erreligio geiago? Nun projimo lagunari amorio geiago? Nun bake obia eta geiago euskaldunartian baño? ¡Nork pentsatu olako geiztankeririk! Libertadioki beraki anparaturik, nei dizkigute kendu, geren euskera, fueruak, edo geren serbizio andien saritzat dauzkagun legiak, nei dau guk ere ongi etorria eman dezagun, eta agur onareki bestiak bezela burua makurtu dezagun bizio guzien burasu eta gure Jaun Dibinoaren etsairik aundirenak asmatutako geitzerako baimenoni.

Idazki honen hezurdura zehaztearren, gaingiroki izanik ere, liburukiari goiburu emateko bi hizkuntzatan egin sarrera guritsua datorkigu, bata bestearen itzulpen zuzena naski ez dena, eta elkarri osagarri argi litezkeen arren, aski argi da Huizik bi irakurle mota zuela gogoan, alfabetaturik gabeko euskaldun hura eta euskaraz ezertxo ere ez zekien erdalduna alegia, eta norberarengandik emaitza ezberdin erdiestea zukeen helburu etxarriarrak. Sarreren ostean jarraian dakarren gramatika gaika banandurik dugu: alfabetoa, artikuloak, izenak, deklinabidea, izenordeak, izenondoak eta aditza. Ahitzeko, benetan interesgarriak diren Aranatz aldeko hiztegi laburra eta hainbat esaldi nahiz elkarrizketa eskaini zizkigun, azken orrialdeetan agertzen diren dotrina kontuak, zenbait ipuin eta Aralarko San Migelen omenezko kantekin batera.

Ez dira asko Etxarrikoak ondu liburuaz arduratu eta kezkatu direnak, baina baten batek horren berri eman zuen:

> Oso gutxik ezagutzen dute gizon argi onen lana. Aita Villasantek ez du aipatzen, ezta ere Mitxelenak. Intxaurrondok berriz, Iruñako apaizgaitegian egindako itzaldi batean agertzen digu Bitoriano Huiziren lana.

Latxagak esan bezala, Migel Intxaurrondo Arriaranek 1926.eko bere *La iglesia y el euskara* liburuan bazekarren honen aipamena. Ezin da ahantzi Arribeko apez honek Iruñeko apezgaitegian ihardun zuela euskara irakasle, eta Huizik, azken buruan, erakun-

de berberari eskaini ziola bere liburua, beraz ez da harritzekoa Araizkoak Sakanakoarena ezagutu izana. Areago, sakandarrak zein araiztarrak euskara zela eta kezka berberak zituztela ezin da ukatu. Ia 30 urte geroago, arrazoi berberak zeuden Intxaurrondok *La iglesia y el euskera* salaketa entsegua kexu argitara emateko; honek ere, Huizik bezala, ez zuen salaketa soil eta antzu eman nahi izan, eta 1928.ean euskara ikasteko gramatika ere ondu zigun. Bestalde ere, Huizik aurretik eginiko salaketari ez zion gramatikaren bitartez soilik aurre egin, eta euskaraz ere izkiriatu zuen Iruñeko apezpikutegiaren aldizkari ofizialean, ordurako, nahikoa gauza berritzailetzat jo dezakeguna; komunikazio bakarra izan zen aipatu argitarapenean atera zuena, baina gehiago ateratzeko zailtasunak arnasten zen orduko giroan zeuden, ez ordea Huiziren eskuetan, hori gauza segurua da.

Huiziren ostean Intxaurrondok eginiko salaketak ezer gutxirako balio izan zuen; tartean gerratea iritsirik, gauza jakina da zein neurritan kaltegarri agitu ziren gudaldia zein ondoko urteak; Santiago Ezkerra Beltzak, Etxarri-Aranazko Aurelio kaputxinoa zenak alegia, bere 1958.eko Bederatzi-urren bearrezkoenak eta eliz otoitz batzuk eliz lanaren sarreran honela mintzo zitzaigun:

> Liburu onen zegatia?: Askotan entzun oi diet errietan apaizei: ez degu iñun euskerazko bederatzi urrenak dakarzkien liburu bat ere arkitzen. Eta bateonbat sakabanaturik arkitzen bada, euskera itsusian egiña dago. Ainbeste aldiz entzun ditut itz auek, alako egun batean lanari lotu nintzala. Negargarria da, alegia, Euskalerriko elizetan euskerazko bederatzi urrenik ez dalakoz erderaz egitera bearturik egotea. Jaungoikoaren naia da bakoitzari bere izkeran itz egitea. Eta gañera elisetan euzkeraz itz egiten ezpada, eta euskeraz otoitz egin, alperrik izango da gure izkuntza goxo ta garbia gordetzeko egingo dan alegiña[10]

eta askozaz fraga garbiago bezain hurbilekoa dukegu *Príncipe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarrian 1971.eko maiatzean Anko Sendoa ezizenaren azpian bere grazia izkutatzen zuen Jose Angel Irigaraik argitara eman zuen «Eliza eta Euskara» artikulua. Hartan nafar elizak euskararekiko zuen jarrera saminki deitoratzen zuen, eta adibideen artean Dorraoko kasua ekarri zigun:

> Ergoieneko Dorraun, denek euskaldun arrontak, eta elizan erderaz; gainerat altaboz batzuk herrian barrena paratuz, jendea erdaldunduaz, eta erotuaz, obeki kristau dadin, nonbait.

Dorrauko apeza ez zen ixilik geratu, eta urte bereko azaroan igorri zuen bere erantzuna, «Anko-sendoari erantzun idekia Beriain petik» izenburupean, baina Irigarai ez

10 Santiago Ezkerra Beltza euskal idazlea ere badugu. Etxarri-Aranatzen 1925.eko maiatzaren 6an sorturik, kaputxinoen gerizpean ondu zuen bere idazlan ia guztiak Aureli Etxarri-Aranazkoa erlijioso izenpean edota *Lizarrusti* ezizen literarioarekin. Hiru izan ziren agertu zituen liburu txikiak: *Migel goiaingeruari bedratzi-urrena*,Iruñea, 1956; *Bederatzi-urren bearrezkoenak eta eliz otoitz batzuk*, Zarautz, 1958; eta *Meza saindua*, lruñea, 1958. Denbora laburrez ere *Zeruko argia-ko* zuzendari lanetan aritu zen, eta ugariak dira *Goiz Argi* aldizkarian zein *Príncipe de Viana* euskarazko gehigarrian atera zituen kolaborazioak. 1961.ean ordena utzi zuenetik, Madrilen bizi da.

zen ezta erantzuten kezkatu ere egin, eta Dorrauko erretoreak igorritako testuari ohar laburra erantsiz, egoeraren etsigarria azalean utzi zigun:

> Berant bada berant, erantzun hau agertzen da. Nere iduriko, auzia nahiko garbia gelditzen da, eta ez du merezi gehiegi luzatzea.
>
> Etxarri-Aranatz, 1999-VI-24

LABURPENA

Biktoriano Huiziri buruzko berri laburra (1860-1938)

Artikulua hurbilpen bat da Biktoriano Huizi apaiz eta idazlearen bizitzara (Etxarri Aranatz, 1860-1938). Huicik idatzia da *Manual de gramática bascongada*, idazle nafar batek egindako lehen euskal gramatika. Aipatzen da nola egin zen obra eta nolatan hartu zuten garai hartan.

Gako-hitzak: Biktoriano Huizi; euskal gramatika; euskara; biografia; Elizaren historia.

RESUMEN

Breve noticia sobre Victoriano Huici (1869-1938)

El artículo realiza un acercamiento a la vida del sacerdote y escritor Victoriano Huici (Etxarri Aranatz, 1860-1938), autor del célebre *Manual de gramática bascongada*, la primera gramática del euskera que compuso un autor navarro. Se da cuenta de la historia de la elaboración de esta obra y de cómo fue recibida en su momento.

Palabras clave: Victoriano Huici; gramática vasca; euskera; biografía; historia de la Iglesia.

ABSTRACT

Brief report about Biktoriano Huizi (1869-1938)

The article takes a look at the life of the priest and writer Victoriano Huici (Etxarri Aranatz, 1860-1938), author of the well-known *Manual de gramática bascongada* (Basque Grammatical Manual), the first grammar of the Basque language written by an author from Navarre. An account of the history of the development of the work and how it was received at the time is given.

Keywords: Biktoriano Huizi; Basque grammar; Basque language; biography; history of the Church.

On Kixote Nafarroan*

Joxemiel BIDADOR

1. Urtez urte liburuaren eguna Cervantes zein Shakespeare idazleen heriotz egunarakin bat etorri ohi da, apirilaren 23an hain zuzen, urrutiko 1616an agiturik. Aurten ere, Kixotearen lehenbiziko zatia argitara atera zenetik laugarren mendeurrena ospatzea egokitu zaigu. Urtea bukatzera badoa ere, goiz bide da egindako aunitzen inguruko hausnarketa eta balorazioa emateko, jakinik horrelakoetan egiten den funtsezko eta iraunkor gutxirekin hamaika tona agotz ere erretzen dela filuse, ur errea gehienetan ere, agotz salda. Halakoxe gertatu zen atzera 100 urte joanda, 1905eko ospakizunetan hots. Hauen egiteko ideia Mariano de Cavia kazetaria ezagunarena izan zen. Zezenketen iruzkintzaile trebea genuenak *El Imparcial* egunerokoan largatu zuen data esanguratsua ospatzeko proposamen argidotarra 1903ko bukaeran, goiztiar xamar, eta luzexka aurreratu bazen ere, aurreratu zenez, orduko espainiar *intelligentsia* guztiaren gustukoa ez zen izan, Ramiro Maeztu arabarra eta Migel Unamuno bizkaitarra kasurako, zeintzuek Caviak aurreraturikoari aitzi gorki mintzatu baitziren, seguruenik ere protagonismo zerbait galdua zutelako kazetariaren aitzinean.

Data hurbildu ahala, filosofari eta besteren marmarra aienatu zen poxi bat eta tokian tokiko ospakizunak zein baino zein hanturusuago iragarri ziren, zein baino zein handiusteago. Iruñean maiatzaren 7, 8 eta 9 egunetarako ezarri ziren, Nafarroako Diputazioak eta Iruñeko Udalak antolaturik, kukurruku altuko programa betean. Erraldoi eta kilikien konpartsa atera zen, zezen plazan Alfaroko Amalio Diaz Cante behialako Zapata behitegiaren zezenak kurritu zituen Eusebio Bernet *Fabrilito* toreatzaileak, katedralean berean Cervantesen omenezko elizkizunak egin ziren Tirso Lareki deanak

* *On Kixote Mantxakoa. 400 urte*, Pamplona-Iruña, Iruñeko Udala, 2006, 205-211.

berak predikalari, eta ospakizun hauen ariora San Frantziskoko eskola berriak inauguratu egin ziren. Azkenean, eta zerbait literarioago egite aldera, hainbat antzezlan klasiko jokatu ziren Gaiarre antzokian. Oroz gain, Iruñeko Udalak, Institutu nagusi eta teknikoaren laguntzaz, sariketa literarioa antolatu zuen, maiatzaren 8an berean erabaki zena. Idazteko proposaturiko gaien artean bazen bat, X.ak zehazki, honela esaten zuena: «On Kixote eta Antso Tripontzia, Nafarroatik igaro ziren haien bidaien karietara?» (onar bekit itzulpena, aski izenondo ezaguna izanda kalabaza baterako izanagatik ere).

Eskatutako idazgaia lan bakarrak egin zuen bere aurkezturikoen artean, Fustiñanako Juan Paskual Esteban Txabarria kazetariak igorririkoa alegia. Bakarra izan arren zeukan kalitatearengatik saritu zioten, eta epaimahaikoen hitzetan, «erudiziozko lana da, ongi idatzia eta hobe pentsatua, irakurtzeko gustagarria da oso, eta orobat egilearen argitasun atsegingarria». Udalak ez zion bere momentuan argitara eman, saritu orduko alegia, eta hortaz irakurleek ez zuten lanaren berri izan *La Avalancha* aldizkari integristaren orrietan 1907ko bukaera aldera agertu zen arte. Estebanek ez zuen sariketara aurkeztutako jatorrizko testuaren kopia gorde izan, eta berregin behar izan zuen osorik han hemenka zituen apunteen gainetik. Guztiarekin ere, aldeak txikiegiak ziratekeen garrantzizko ezer galdu ahal izateko. Gainera, *La Avalancha*-n atera aitzin, fustiñaneroak gai beretsuko kolaborazio zenbait agertarazi zituen *El Eco de Navarra* egunerokoan, 1904ko apirilaren 24an eta maiatzaren 3an, «Cervantes, Navarra, Tudela» izenburupean.

Bere lanean, zientifikoa baino literarioagoa, ikasle zeneko garaia zekarkigun Estebanek gogora. Ikasle txarra zela zioskun, alferra, baina hura ez zen oztopo Kixoteaz ederki gozatzeko. Fustiñanako kazetariak zeukan pena bakarra Lepantoko besamotzak Nafarroa aipatu ez izana zen, alabaina ziur bazegoen egon ere Kixotea nafar bideetan barrena ibilia zela: «Ene ustez, nafarrok aisa pentsa dezakegu Mantxako pertsonaiak Nafarroara etorri zitzaizkigula, eta arrazoi tole ditugu esan ahal izateko horixe zela beren asmoa. Zilegi bekit esatea zorioneko adurrak lagundu didala nahi genuen moduan honakoa argitzen lehena izateko». Estebanen aburuz, itxura negargarrikoak Ebroko ibai bazterretik egin zuen Zaragoza aldera, eta ibaitzarra Pedrola hiria baino lehenago topatu zuen, Aragoiko hirian Villahermosako dukeek zuten Buendia jauretxean igaro gogo baitzuen gaua. Fustiñanakoak ez zuen izan arazo handiegirik, antza, Cervantesek izen faltsuez ilunduko benetako toponimoak argitzeko. Bere ustez Baratariako uhartea Ebroko Alcala zen, doike. Hortaz, on Kixote Nafarroako lurretatik arribatu zen Ebrora, eskuineko ibai bazterrean Tutera eta Cortes artean dagoen hiriren baten aldera: Tutera, Fontellas, Ribaforada, Buñuel edo Cortesen. Egia da Pedrola baino lehenago badirela Aragoiko herri zenbait, Mallen, Gallur, Boquiñeni, Luceni eta Alcala zehatzak izatearren, baina lanaren eite literarioak berak aukera ematen zion kazetariari subjektiboki Nafarroako hiriak aukeratzeko.

Iruñeko Udalak antolatu zuen lehiaketa literario beraren barruan hiriko guarnizio militarrak sari bat hartu zuen bere gain, zehazki, Cervantesen dohai militarren inguruan aurkeztu beharturikoa. Saria etxerako izan zen, izan ere infanteriako komandantea zen Bernardino Gartzia Conde tafallarrak irabazi baitzuen, Frantzisko Siguenza Garrido ezi-

zenean, *Cervantes como militar* izenburuko lanarengatik. Esteban Txabarriaren lanarekin hasiera batean gertatu ez zen bezala, honen lana bai argitara eman zela urte hartan berean, Belandia liburugilearen etxetik. 100 orrialdeko liburuak bi zati ezberdin jasotzen zituen, lehenbizikoak Lepantoko besamotzaren biografia militarra garatzen zuen, gerrako hazaina eta presoaldia, era bigarrenak ordea, Cervantesen lanetatik abiaturik, idazleak bizitza militarraz zeukan iritzia ematen du:

> Es Cervantes soldado, raro ejemplo de virtudes, pues representa un dechado de valor, abnegación, civismo, desinterés, y de un espíritu militar llevado a la exaltación [...] en Cervantes se encuentra un poderoso instinto de libertad y altivez y una independencia propia del carácter español, y mucho más del que de hidalgo se precia, lo que nos demuestra que no fue servil, a pesar de que la fortuna ciega le había maltratado.

2. Esteban Txabarriak Kixotek Erriberan egin zuen ibilbidea erakutsi baino urte batzuk lehenago, Julian Apraiz Sanchez del Burgo cervantistazale arabarrak ezbaian jarri zuen idazle espainiarraren balizko euskal gauzekiko gorrotoa, aurretik hainbat eta hainbat ikerlarik formulatuaren aitzi. Cervantesen heriotzaren 262. urteurrena zela bide, 1878ko apirilaren 2an hain zuzen, Apraizek hitzaldi gogoangarria ogutzi zuen Gasteizko antzokian Cervantes euskaltzalea mintzagaipean, osterantzean sakondu zuen gaia 1881eko *Cervantes vascófilo* liburuan: *Cervantes vascófilo, o sea, vindicación de Cervantes respecto a su supuesto antivizcainismo*. Lau urte beranduago, alabaina, are liburu sakonago eman zuen argitara beti ere Cervantesen euskaltzaletasuna defendatzeko: *Cervantes vascófilo: refutación de los errores propalados por Pellicer, Clemencín, Fernández Guerra etc., acerca de la supuesta ojeriza de Cervantes contra la Euskal-Erria*. Argira atera zeneko laugarren urtea ahitu aitzin bost edizio izan zuen bigarren liburu honek, eta hartan ezin arazkiago agertu zuen Apraizek bere asmoa. Cervantesek euskaldunei hista ez egiteaz gainera, begi onez ikusi zituen, eta halaxe frogatuko luke izaniko lagunen artean hainbat eta hainbat euskaldun izanak:

> Conste que si los vascongados, y sobre todo los que chapurrean el castellano, fueron a veces objeto del festivo humor del autor del Quijote, nunca pasó esto de una ligerísima chanza que no puede producir ampollas en las más delicadas epidermis.

Apraizen lanak bi zati ditu. Lehenbizikoa sarreratxo batek eta lau kapituluk osatzen dute, zenbait egilek emaniko azalpen oker eta interpretapen faltsu dauseztatzeko. Bigarren zatiak ere lau kapitulu dauzka, eta aurrekoaren azalpen zabaldua litzateke. Ahitzeko, datu zehatzago zein dokumentazioa eskaintzen digun gehigarria gaineratu zigun Apraizek ahalik eta dokumentatuen agertze aldera. Apraiz arabarra busti egin zen bere lan hartan, objektiboki baina, eta bere ustez onegiak ez ziren informazioak ere ez zituen isildu, Kixoteaz Foronda ilustratuak zeukan iritzia esaterako. Valentin Foronda Apraizen herkideak *Observaciones sobre algunos puntos de la obra de Don Quijote por T.E.* izenburuko lana eman zuen argitara Londresen 1807an, non zortzi bat urte lehenago sinaturiko hamaika gutunetan Cervantesen maila literarioa kolokan jartzen baitzuen, eta gaztelera ederrean, honela mintzo zen egile ospatuaz: *medianía de estilo áspero desmazalado*.

Kixote pertsonaiari berari ere «deshonra y borrón de España» zeritzon, eta liburuaz bere osotasunean «desnuda de erudición, amenidad y enseñanza» zioen inolako tapakirik gabe. Egia da Forondarena ez zela XVIII. mende bukaerako ilustratu espainiarren iritzia zabalduaren oihartzuna baizik, eta halaxe jaso zigun Madrilen 1750ean Olmedako bigarren markisak, gipuzkoar jatorriko Ignazio Loiola Oiangurenek ordurako ezaguna zen *Discurso crítico sobre el origen, calidad y estado presente de las comedias de España* izenburuko lanean, zer gerta ere, are euskaldunagoa zatekeen Tomas Erauso Zabaleta ezizenean.

Alabaina, euskaldunek esanikoak esanda, ezin da ahantzi Kixoteren ibilerak kontatu dituzten hizkuntza ugariren artean euskara ere badela. Ezagun dugun lehenbiziko aldaera Legutioko Jose Palacio Saenz Biteriko abokatuak egin zuen. Legegizonaz gain fiosofia eta letretan doktorea zen cervanteszale honek, bere garaian zegoen Kixote bilduma aberatsenetarikoaren jabea izateaz gainera, *Crónica de los cervantistas* izenburuko aldizkarian kolaboratzaile sutsua genuen. Legutiokoak eginiko ekarpena beste cervanteszale famatuek goraipatu zuten, tartean Thebussen, Asensio edota Lopez Fabra. Palacio Biterik XIX. mende bukaeran amaitu zuen euskarara eginiko aldaera, baina hil ostean testuaren eskuizkribua Madrilen zegoen Jose Palacio Elizage ilobak bereganatu zuen. Zoritxarrez, 36ko gerrate hasieran honen etxeak pairatu zuen erasoan galdu zen euskal Kixote hura.

Iritsi zaizkigun aldaerak, ordea, 1928an Iruñeko Udalak antolaturiko sariketa literariora aurkeztu zirenak ditugu. Urte hartan, eta euskarazko sarien artean, udalak itzulpen saria iragarri zuen 300 pezetekin hornitua. Egin beharreko lana Kixotearen IX. kapitulua zen, eta aurkezturiko itzulpenak askotxo izan ziren, 17 osotara. Itzulpena igorri zutenen artean orduko punta-puntako idazleak bazeuden, kalitatearen bermagarririk onena izan zena. Honen froga da epaimahaian zegoen Intzako Damaso kaputxino euskaltzaleak sariak bost izan zitezela eskatu zuela. Lehenbiziko saria Nikolas Ormaetxea Orixe olerkari famatuak bereganatu zuen, bigarrena Oieregiko Buenabentura kaputxinoak, hirugarrena orduan Iruñean bizi zen Aingeru Irigarai mediku famatuak, laugarrena Xabier Agirre Lizardi olerkari handiak, eta bosgarrena Pasai-Antxoko Juan Garbizu Salaberriak. Aurkezturiko itzulpen guztien artean argitara eman zen bakarra Orixerena izan zen, Urkixoren *Revista Internacional de los Estudios Vascos* sonatuan 1929an agertu zena. Sarituriko gainontzeko lauak Alberto Barandiaranek eman zituen ezagutzera 1882-1928 bitartean Iruñeaniko sari literarioen inguruan behiala atera zuen liburuxka interesgarrian.

Azkenik, eta aipatzeke ezin utzirik, *Don Kixote Mantxako* aldaera aipatu beharra dago, 1977an Berrondok egina. Pedro Berrondo Lasarte Oiartzunen jaio zen 1919an. Apaiza, Ecuadorren ibili zen luzaroan misiolari. Euskaltzain urgazlea, Donostiako *Diario vasco*-aren euskal gehigarriaren arduraduna izan zen bulta batez, eta hainbat lan literario itzulikatu zituen. Cervantesen lanatik egin zuen itzulpena zalaparta handiz aurkeztu zen 1977ko otsailaren 28an Bizkaiko Aldundiaren Batzar aretoan, eta oraingo urteurren borobil hau berriz ere profitatu da berrargitalpena ateratzeko. Sikiera horretarako balio badute horrelako egunek, bejondeigula.

LABURPENA

On Kixote Nafarroan

Artikuluak aztertzen ditu Nafarroan antolatutako ekitaldiak Kixotearen hirugarren mendeurrenaren karietara, baita Miguel Cervantesen obrak egile nafarrengan izan zuen eragina, gehienbat euskaraz idatzi zutenengan XIX. mendearen bukaera eta XX. mendearen hasiera artean.

Gako-hitzak: Miguel Cervantes; On Kixote Mantxako; euskal literatura; Nafarroa; Esteban Txabarria.

RESUMEN

Don Quijote en Navarra

El artículo analiza los actos que se organizaron en torno al tercer centenario del Quijote en Navarra, así como la inspiración que la obra de Miguel de Cervantes tuvo en los autores navarros, singularmente en los autores que escribían en euskera, entre finales del siglo XIX y principios del XX.

Palabras clave: Miguel de Cervantes; Don Quijote de la Mancha; literatura vasca; Navarra; Esteban Chavarría.

ABSTRACT

Don Quixote in Navarre

The article analyses the events held to celebrate the third centenary of Don Quixote in Navarre and the inspiration with which Miguel de Cervantes' masterpiece provided Navarrese authors, particularly those who wrote in Basque, towards the end of the 19th and in the early 20th century.

Keywords: Miguel de Cervantes; Don Quixote; Basque literature; Navarre; Esteban Txabarria.

Idazlearen aita*

Joxemiel BIDADOR

Mi padre era bueno con una bondad
un poco caprichosa y arbitraria
Pio Baroja

Mi abuelo pasó por la vida como un pájaro,
riendo, cantando y haciendo cosas raras
Julio Caro Baroja

Hainbatek euskarazko lehenbiziko eleberritzat *Atheka-gaitzeko oihartzunak* jotzen dute, usain barojatar garbiko lana. Jean Baptiste Dasconagerrek 1867an argitara eman zuen omen itzeleko eleberria aisaro saltzeko izenburupean ipini «traduit du basque» abata zuria erabiltzean ere ez zuen originaltasunez jokatu, eta aldez aurretik bere erdal lana errazkiago haizatzeko apeu petral hau hedatu zuen beste Baroja bat izan bazen: Serafin Baroja Zornotza, Ricardo margolariaren eta Pio idazlearen aita hots.

Ez zen gure Serafin barojatarren aikoburu lehenengoa, erdal kulturari gagozkion bezanbatean bederen, izan ere XVIII. mende bukaera aldetik edo inprimatzaile ezagunak izan baitziren. Paperekiko ardura hartu zuen lehenbizikoa Rafael Martinez Baroja izan zen, birraitona, Haron 1770ean jaioa. Oiartzuna ezkondu zen, Arrietatarren botikara.

* I. Azkona Huércanos eta J. K. Lopez-Mugartza (koord.), *Pío Baroja. 50 urte,* Pamplona-Iruña, Iruñeko Udala, 2007, 61-71.

On Pioren esanetan, 1803an ezkondu zenean lehenbiziko abizena ezabatu zuen *por poco decorativo y acaso impuro*. 1806an moldetegia erosi zuen eta *La papeleta de Oyarzun* aldizkaria hasi zen inprimatzen. Geroago Donostiara eraman zuen moldetegia, eta bertan, besteen artean, *El Liberal Guipuzcoano* (1820-1823) atera zuen.

Pio Baroja Arrieta aitatxi oiartzundarrak, anaiarekin batera, moldetegia Donostiako Konstituzio plazaren 7.ean zuen, eta Donostiako zinegotzia behin baino gehiagotan izan zen; Kontxesi Zornotzarekin ezkonduta, hirian zendu zen 1869. Barojatarren etxea XIX. eko Donostian zeuden garrantzitsuenetarikoa izan zen, eta argitara eman zituztenen artean bazeuden bai euskal literaturaren altxor zenbait, Iztueta, Iturriaga, Zabala edota Lardizabalenak kasurako, edota bai erderazko liburu pisuzko ez gutxi, estrainekoz ageri Thiersen iraultza frantsesaren historiazkoa edo Monederoren giza gorputzari buruzkoa besteren artean.

Serafin Baroja Zornotza Donostian 1840an jaio zen. Goi ikasketak Madrilen burutu zituen, meatzetako ingenieritza, eta bertan ezagutu zuen Pascual Madoz. Madrilen ere berekin eraman zuen ideologia liberala zorroztu zuen, antiklerikalismo sendoa gehituz. Ingenieritza bukatutakoan, Huelva aldeko Riotintora joan zen 1868an, hango meatzetako arduradun, eta hantxe izan ziren senar-emazte seme eta amaginarreba bera ere meatza ingelesei saldu zieten arte. Geroztik, beti ere lanaren karietara, leku aunitzetan ibiliko ziren, hala nola, Donostian, Madrilen, Iruñean, Valencian, Granadan, eta Bilbo aldean.

Serafin Baroja, *idazlearen aita*, Pio famatu ostean bisita txarteletan umorez inprimarazi zuen bezala, 1912ko uztailaren 15ean zendu zen Beran, erosi berria zegoen Itzea etxea zaharberriturik ezagutu gabe. Piok ez zuen bere idazkietan aipamen gehiegirik utzi bere aitaz. Harremana ez zen berez txarra izan, baina bai gora-beheratsua. Piok bere bizitzan izan zituen esperientziarik bizienetakoak aitaren ondoan bizitu zituen. Ezaguna da Iruñeko kartzelakoa. Nafarroako hirian bizi zirela, Sanferminetan, aitaren laguna zen Angel Minondo donostiarrak barrabaskeriaren bat egin omen zuen zezen plazan, areetara zerbait botaz edo, eta isuna ez pagatu nahirik San Frantziskoko kartzelara eraman zuten. Serafinek atsalaskari ederra antolatu zuen espetxean bertan, eta semea berekin eraman zuen. Argazkia badago, Piorik gabe baina. Valentziara aldatu zirenean ere, aita semea aurreratu ziren bakarrik etxe bila. Zestoan mediku plaza atera zuenean, familiarekin batera bizi izan zen Pio denboraldi batez; orduan bidaitxo bat egin zuen aitarekin laguntzaile: *hice con él uno de los viajes que me dejaron más gratos recuerdos en la vida*. Serafinek bere lagunak galdu zituenenean, ordea, semeen lagunekin ibiliko zen, horrek daraman guztiarekin. Honela jaso du Sanchez-Ostizek berrikian ateratako Pio Baroja idazlearen azken biografian:

> Serafín Baroja era, creo yo, mucho menos convencional, más vital, más gozador de los dones de la existencia, que su hijo Pío, que, para pesar suyo, vivió acometido de un puritanismo y de un descontento que no le dejaban en paz [...] Las páginas que le dedica a su padre en sus memorias dejan traslucir una mezcla de admiración y de enfado, tan ciertos el uno como el otro. Muy a su pesar, tiene que admitir que era un hombre bueno, alegre, divertido, con mucha imaginación, tal vez, pero no puede con su falta de sentido práctico y su negativa a ser alguien socialmente.

Julio Caro Barojak ere, Serafinen ontasuna azpimarratzearekin batera, ez zeukan andinahia, gizartean gora egiteko irrika falta nabarmendu egiten zuen:

> La imagen que dejó grabada en la familia y en todos los que trataron con él, fue la de un hombre fundamental, esencialmente bueno. En casa decían que el más bueno de la familia misma. Su bondad era alegre, instintiva, casi carnal [...] Vivió en la época de las vacas gordas de la minería vasca, tuvo cargos importantes y pasó por ellos sin sacar un real.

EKARPEN LITERARIOA

Gaztetandik ekin zion idazteari, moldetegia etxean bertan izatea probestuz. Lehenbiziko lanak 1865ean atera ziren, ipuin bilduma bat, *Noveluchas y cuentos, sucedidos y pasatiempos, edición ilustrada con excelentes grabados en papel*, eta eleberri bat, *Los pillos de la playa, novela escrita en vascuence por Tantanfirulet, célebre tamborilero de Mizpirandienea y vertida al castellano por Andre Grashi*. Donostia, Lezo eta Pasai eskenatoki zituen idazki honen gertakizunen jatorrizko euskal aldaera idorotzeari ekitea zeharo ments litzateke, gorago esan bezala, salmentari begira botatako amu antzu baita.

Euskaraz ateratako lehenbiziko lana 1875ean agertu zen, *Gazi gezak* izenburuarekin, poesia liburu elebiduna. Serafinen ekoizpen poetikoa, ausaz bertsolaritzatik hurbilago dagoena, ez zen txikia. *Malkoak eta itzalak* izenburuko liburua ere egin omen zuen, haren arrastorik egun ez badago ere. Edozein modutan ere, Serafinen bertsoak topagarriak dira; gehienak *Euskal Erria* aldizkarian argitaratu ziren. Julen Urkizaren bertsoen bibliografian hogeita zazpi poemen berri jasotzen da, eta Patri Urkizuk Txertoan 1988an ateratako Serafinen antologian hogei bat jaso zituen. Urkizuk berak banatzen ditu Serafinen Barojaren bertsoak zenbait ataletan: ziri-bertsoak, gerla-kantak, filosofikoak, alegiazkoak, eta omenaldizkoak. Hona hemen ziri-bertso gatz-piperdun bat, «Madalenen arrazoia»:

> Madalen ezkondu zan
> Bersolari batekin;
> Zortzi garren ilean
> Poz aundiarekin,
> Eder eta galanta
> Seme bat du egin.
>
> Ama suyaren kontra
> Pozoituta dago,
> Ta alabak esaten du:
> –Nola geroago,
> Zortzikoak egiten
> Oitua badago?

Guztietan arrakastarik handiena izan dutenak festa giro donostiarrean oraino kantatzen diren batzuk aipatu behar dira, tartean Sarriegiren musika duen «Donostiako martxa». Eite honetakoa ere «Erriko seme donostiarra» La Fraternal elkarteak lore jokoetan zilarrezko kikaraz saritu zioten sonetoa:

Begiyetan farrak; aboan, fina,
Itz erdi egokia edo lorea.
Sudurra zertxo bat lotsagabea:
Damakin beldurti, moldatu ezina.

Naiz pobre edo aberats, beretzat dina;
Pixoyaletatik soinu zalea;
Dantz guziyetan zan pare gabea
Ta ez zitzaion irten lenengo agina.

Txapel altuakin, boina jetxirik
Begiraino, edo utsik kalparra,
Ondo beti; nai dan soina jantzirik.

Dirudi dukea; naiz izan zarra,
Ume beti. Au da bizi bizirik
Erriko semea. Donostiarra.

Donostiar petoa eta Donostia gogoan, ez zuen haatik eragozpenik izan bere hiriaren bizkar barre egiteko, bukaera bereziko hamarreko txiki honetan bezala:

Donostiarrak dute
Aukera doiya
Urtero egiteko
Festa bat berriya.
Eta egiten dute
Gauz oyez gainera,
Ardit bat izan gabe
Aberats papera,
Argatik esan da
Denbora denetan:
San Sebastian
Mucha bandera y poco pan.

Serafinek argitara eman zituen hurrengo lanak bi egutegi izan ziren, *Almanaque bilingüe erderaz eta euskeraz,* 1878 eta 1879 urtetarako. Batean *Santo Tomasko feriya*

jasotzen zen eta bestean hiru ekitalditako *Pudente* opera. Azken hau Trajanoren garaiko Riotintoko meatzetan giroturiko istorio harrigarria da:

> Irudiko dira entzuleak opera onen eginda gertatzen dala Trajano enperadorearen egunetan, Betikako lurbiran, orain Huelva, Ayamonte, Niebla, Rio Tinto, Tharsis eta Moguer arkitzen diran barrutian.

Operaren hitzak euskal aire herrikoien gainean eginak dira: *Intxauspeko alaba, Amairu puntukoa, Kontsesirentzat, Txanton Piperri, Mari Domingi, Aresoarren bandera, Izar eder bat, Festara, Belaun txingoa, San Inazioren martxa, Upelategi, Xarmangarria, Maritxu nora zoaz, Gernikako arbola, Xori errexinola, Hiru damatxo*... Caro Barojaren ustez porrota itzela izan zen, baina *Euskal Erria* aldizkariak 1912an ateratako Serafinen nekrologikoan kontrakoa jaso zuten, hau da, *éxito colosal*, Santistebanen musika, Salaberriaren eszenografia eta Toribio Altzagaren zuzendaritzapean.

Antzerki generoa utzi gabe, 1882an *Hirni, ama alabak* bi ekitaldiko drama inprimarazi zuen Iruñeko Fortunato eta Isturitzen etxean. Hiru errealetan jarri zuten salgai, moldetegiaren etxean, hau da, Gaztelu enparantzako 17.ean, baina ez zen aleki bat ere saldu. Honakoa bertso dodekasilabotan tajutu zuen, eta edizioa elebiduna izan zen, non Hirni neskatxak bere buruaz beste egiten duen bere maite Bilgotxen gorpuarekin batera ibaian sarturik. Drama hau idazteko inspirazioa Beratik Elizondora zihoan batean etorri zitzaiola esan zuen Serafinek noiz edo noiz.

Izkiriagintza pragmatikoago batean murgildurik, kazetaritzan ere aritu zitzaigun Serafin Baroja. Madrilgo *El tiempo* egunkarian azken karlistadaren gerrate kronikak largatu zizkigun oparo eta zehatz, Donostiako institutuan historia naturaleko behin behineko irakasle ziharduela, Txertoakoek 1986an argitara eman zituztenak Julio Caro Barojaren hitzaurre batekin. Haiexek 1876ko urtarrilaren 10tik ber urteko otsailaren 26ra bitartean idatziak dira. Bertan aisa atzeman daiteke gauza jakina zena, karlistei zien herra hirotua alegia. Otsailaren 22ko eskutitzan Donostian jasoriko bertso batzuk eman zituen, Alfonso XII.aren alde:

> Amabigarren Alfonso dago
> Donostiako errian
> Errege maite, gizon egiña
> Gaztetik estrangerian
> Malko tartian aur bat ziñala
> Utzi ginduzun tokian
> Pozen indarrez negarrez ere
> Gaude gaur zure aurrian.

Baina Serafinek ere erregegaiari eskainitako bertsoak idatzi zituen, bere ideologia adierazle ezin garbiagoak; hona hemen bederatzi puntuko bi:

Orra sei bertso Karlos
Zazpigarrenari,
Erderaz *niño terso*
Deitzen danari;
Onlako tituluak
Baditugu ugari,
Anai badiyozka josi
Bere dinbreari:
Ez dek gaizki ari
Denen lotsagarri
Eskintzen farrari
Pailaso ergel ori:
Ez zaigu kirten txarra
Guri erori!

Karlos erregetzako
Ez zerade oyala,
Ez diyozu botako
Zuk azkazala;
Karlistak badakite
Lastai bat zerala
Ta zure izenian
Gizentzen dirala,
Berak diyote ala,
Ta inolaz ala da,
Ea, Karlos, bada,
Juaz atabala
Zuaz Espainiatik
Enoramala.

Ildo honetatik segituz, 1879ko apirilaren 21ean *El Urumea: periódico no político* egunkaria agertu zuen Ricardo anaiarekin Donostian. Bertan aldikako *Entre Madrid y San Sebastián: amores prosaicos* eleberria agertu zuen besteak beste. Izan ere, Serafinen prentsa kolaborazio gehienak literarioak izan baitziren. Iruñeko *El Navarro* izeneko egunkari liberalean *Perico Pello de Alabaindanere: apuntes para la historia de un buen apunte, escritos por él mismo en vascuence y traducidos al castellano* ageri zen, eta 1895eko *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian *De Chamberí a Madrid, 100 metros en 25 días* eleberria.

Iruñean zegoela, 1883ko urtarrilaren 1ean *Bai jauna bai: periódico bilingüe castellano vascuence* astekaria agertarazten hasi zen, geroxeago ere Madrilen arra-azalduko zena 1904an. Ideologikoki 1881-1885 bitartean nafar hiriburuan ateratako *El Navarro* egunkari liberalarekin hertsiki lotuta zegoen. *Bai jauna bai* horretan Serafinek ezizen abondo erabili zituen: Anisch, Equich, Equech, Malcosh... Barojak berebiziko saiakera egin zuen hain-

bat egileren lan zatiak euskaraturik agertzeko: Campoamor, *Tormesko lazarotxoen bizia,* Alarcón, Bécquer, Calderón, Coronado, García Gutiérrez, López de Ayala, López García, Manuel de la Revilla, Selgas, Uhland, Lope de Vega, Zorrilla, edota Shakespeare bera ere:

> Izan edo ez izan, ontan dago dena.
> Zer da nobleago, sufritu indar gabe,
> Makur, mugaitz oker, zori zurkaitzena
> Edo bein urratu gogor atsekabe.

Itzulpen hauez gainera Kantauri itsasoko arrainen hiztegi hirukoitza, Larramendik antzera gaztelera-euskara-latina, eta Sakanako deskribapen geologiko bat plazaratu zituen bere papertxoan. Astekariak lau orrialde zituen, bi zutabetan, F. J. Izturitzen moldetegian egiten zen eta Serafinen etxea bera zen azalean agerturiko administrazio helbidea, Karrika Berria 30, 2. ezkerra. Bizitza laburrekoa, sei ale baizik ez ziren agertu Iruñean eta beste lau Madrilen. Porrot honen arrazoien artean Iruñeko udalak harpidetza egiteari emandako ukoa:

> No habiendo conseguido reunir el número suficiente de suscriptores para pagar la mitad de los gastos de impresión se suspende la publicación de este número bilingüe.

Inon agertu izan da euskara bera zitekeela salmentarako traba, baina ez dirudi honakoa nahikoa arrazoi, izan ere, astekaria elebiduna zen, urte horietan Iruñean ez zegoen euskarekiko kontrako jarrera berezirik, txepela bazen ere, eta hirian oraindik zegoen euskaldun kopurua ez zen horren txikia. Arrazoiago zatekeen astekariaren joera liberala, edota eduki literarioa, iruñar gehienen interesekoa izanen ez zena. Harpidetza saria zortzi pezetakoa zen urteko, hamaika pezetakoa atzerrian edota itsasoz bestaldean, eta zenbaki soltea erreal batean saltzen zen.

Literaturak ezezik baita musikak ere atsegiten zuen Serafin Baroja. Halako batean Lizarran atxilotu zuten kalean kantatzeagatik, baina musikaz polito bazekien, eta Santistebanekin askotan aritu zen txelojole. Aipatu dugu *Pudente* opera Santistebanen musikaz taularatu zela. Ez zen bakarra izan. *Amairu damatxo* operaren hamargarren ekitaldia Donostian eta lehenbiziko ekitaldia Madrilen papereratu zituen 1904an. Operak hamairu ekitaldi izanen zituen, baina bi hauek baizik ez ziren atera; XVII. mendean kokatua, akzioa Donostia, Pasaia, Hondarribia eta Irunen jazoten da. Madrilen ere, 1904an eta *Bai jauna, bai* aldizkaritxoaren ale berezi bezala agertu zen hiru ekitaldiko *Lutxi* opera; 1512an giroturik, Nafarroara frantsesen aurka borrokatzera doazen gipuzkoar batzuen gorabeherak jasotzen ditu.

Bukatzeko, eta Serafin Barojak erabili zuen euskarari dagokionean, argi dago gipuzkera dela, berauk aitortu gisa: *Siga el que quiera a Bonaparte, Azkue, Campión, Arana eta Goiri Sabin, yo sigo a Larramendi, Iztueta, Iparragirre siempre*. Hona hemen lagin adierazgarria izan daitekeena:

> Aserretu ziraden erri txiki bateko bi auzotar, eta beretako bat, mendekatzeagatik, juan zan bestearen etxera, eta atean eskribitu zuen ikatz batekin: astoa. Ikusi zuen besteak ateko letreroa eta berala juan zan kontrarioaren bila, bainan nola aurkitu ez

zuen etxean, esan zion morroiari: zure nagusiari esan bear diozu izan naizela bisita pagatzen, eta beste batean, etortzen danean ni bisitatzera, ez duela nere etxeko atean bere izena jartzeko bearrik.

Serafin hil ostean Donostiako zenbait lagun eta antzerkigile hirutxulotarrak azken agurra kantatu zioten, tartean Jose Artola, Rosario Artola edota Toribio Altzaga:

Biyotzian pena ta
Begiyan malkoak
Aundiyak dira gure
Naigabe gaurkoak
Ez gaude astutzeko
Zure lan naikoak
Sarituko zinduben
Bada Jaungoikoak.

Agur Serafin. Zu juanagatik emen zure euskal lan egokiak gelditzen zaizkigu. Abek ditugun bitartian ez gera zutaz astuko.

LABURPENA

Idazlearen aita

Ibilbidea, Barojatarren aitalehen Serafin Barojaren bizitzan eta obran zehar (Donostia, 1840-Bera, 1912). Euskal literaturari egin zion ekarpena, haren kanta eta olerkien azterketaren bidez.

Gako-hitzak: Serafin Baroja; euskal literatura; biografia; kantak; poesia.

RESUMEN

El padre del escritor

Se realiza un recorrido por la vida y obra de Serafín Baroja (Donostia, 1840-Bera, 1912), el patriarca del clan de los Baroja. Se analiza su aportación a la literatura vasca, a través del análisis de sus canciones y poesías.

Palabras clave: Serafín Baroja; literatura vasca; biografía; canciones; poesía.

ABSTRACT

The writer's father

The life and work of Serafin Baroja (Donostia, 1840-Bera, 1912), the patriarch of the Baroja clan, is reviewed. His contribution to Basque literature is examined through an analysis of his songs and poems.

Keywords: Serafin Baroja; Basque literature; biography; songs; poetry.

Aitatxorengandik jarrera literarioaz ikasten*

Joxemiel BIDADOR

Pudente, Betikako meatzen buruzaria, Juan Ramón Jiménez jaio baino bi urte lehentxeago jarri zuen kantari Moger aldean idazlearen aitak, eta Platerorena atera zenean Serafinek ia bi urte zeraman hilik. Zehazkiago esate aldera, *Melancolía* 1912an berean atera zenean, Itzea erosi berrian zendu zen Pioren aitatxo, Serafin Baroja alegia.

> No me tienta la gloria. Sólo una vida en paz,
> rica de los tesoros del amor y la lira,
> en una estancia dulce, solitaria, serena,
> llena de libros bellos, con flores, encendida!
>
> Que el lujo y el rumor se queden para otros...
> a mi me basta con mi fe en las armonías,
> en una estancia plácida, alejada, callada,
> llena de libros bellos, con flores, encendida!

Malenkonia. Ospeak ez zion tiratzen, ez tirriatzen, txarteletan *idazlearen aita* idatzi bazuen ere. Ospea baino, txantxa zuen gogokoago. Iruñeko espetxean antolatu zuen atsalaskari hura lekuko. Jarrera, dena jarrera, eta mehatxu larderiatsutik zerbait ere, orduko gizarte hanturuts hari...; lagunak beti lagun, eta zezenketan egungo edozein peñakidek jokatzen duen bezala jarduteagatik preso eraman zuten Minondo hirikide eta laguna bereago bazuen edozein konbentzio eta moralina baino. Pio ez da orduko argazkian ageri, baina hantxe azaldu nahi zuen, fikzioan inoiz ere agertzeagatik ezpada.

* *Pío Baroja, conocimiento y vida*, Pamplona-Iruña, Universidad Pública de Navarra/Nafarroko Unibertsitate Publikoa, 2006, 45-54.

Mi padre era bueno con una bondad un poco caprichosa y arbitraria. Bere aita ona zen, apetaren araberako amultsutasunarekin. Valentziara etxe bila aurreratu zirenekoa ez zitzaion Piori aisa atzenduko. Haize beroa, laranjen urrina, baratzeko dizdira, bideko isiltasun ozena eta orgak harrotu hautsen mikatza..., eta aitaren kalaka ganorabakoa, beti txisteka-misteka ibili behar hura, euskaraz zein erdaraz, euskaldun zein erdaldunekin, koshkero irutxulo, josemaritarra kantari:

> Kalerik kale,
> Tanborra juaz,
> Umore ona banatzen
> Or dijuaz [...]

Baina aitaren umorea ez zuen nahikoa izan Valentziako zimikoa alaikiago eroateko. Goiko terradoan egun osoa emanik, irakurketa aspertuan, itsas bazter hartan denbora nola geratua zen ikusmiran... idazlearen semeak ere jarrera kontuez zerbait ikasia zuen ikasia bazuenez, eta geldotasun argitsu hartan lizentziatura erdietsi zuen ia oharkabean, Dario anaia poliki hiltzen zitzaien bitartean:

> Eriyozko otsa da toinu tristean
> Eta negargarrian [...].

Nakens aitatxoren laguna zen, eta aitatxok ekarri zuen afaltzera gonbidaturik. Aitatxoren lagunak... Baina Piok lehenbiziko artikulu bilduma hura eraman zionean ez zizkion onartu farregarri zitzaizkiolakoan. Alabrintxua! Argitaratzaileen sendi bateko idazleak jasan behar izan zuena! Halako mespretxua... Ordea hartuko zuen Piok, bere geroagoko orrialdeetan ederki hartu ere, baina aitarekiko artesa hura geroz eta sakontzenago ari zen. Aitatxoren lagunak... Bada, bereak utzita ez zituen aitatxok semeen lagunak ebatsi geroago? Eta anaia aipatu dela, ez zen atera bada aitatxoren ezpalekoa Ricardo bera ere, Veneziara musen bila joanda Pio okindegian bakarrik utzita?

> Ay! Hizkribitzen
> Neronek baneki!

Idazle ospetsu eta ospatua izan aitzin, medikuntzan goreneko maila erdietsi beharrean edo, doktoregoari heldu zion Piok Madril-Valentzia bidean zebilela, ezin barojarragoa zen minari buruzko tesiarekin, eta Burjasoten zegoela *Diario Vasco*-n irakurri zuen Zestoakoa; eta, ez al da harrigarria halako egunkaria Levanteko herri koxkorrean topatzea? Serafinek ez zuen hobeto asmatuko. Robinsonen modura, Pioren imaginarioan beti, lehenbiziko hiru hilabeteak eman zituen Goierrin, ezin euskaldunago, ezin bertakoago, etxekoandrearen amarekin aharrean berorika ez ziolako egiten, egungo edozein euskaldun petok ere eginen ez lukeena. Bakarraldia ahiturik, familia etorri zitzaion, eta ordukoa izan zen aitarekin laguntzaile joan zenekoa, *hice con él uno de los viajes que me dejaron más gratos recuerdos en la vida*. Valentzian zikiraturik nahiago zuen irakurle hitsa –*de mujeres, nada; parecer capado*– bidaiari alai bilakatu zitzaigun denboraldi batez, aita lagun, hiru probintzietako meatzak eta meatzondoak bisitatzen zitueno: bentak, tabernak, putetxeak... Ramiro Pinillaren pertsonaia baten antzera, eta

kontatu ziguna baino gehiago isilduz... Aitaren ondoan Pio gizondu ez bazen, naturari ixkin ez egiten ikasi zuen bederik.

> Zuri begira nijoan
> Zeruan nere ustez!
> Ezin aserik begiak
> Zure edertasunez.

Zestoako bizitza llabur joan bazitzaion ere, Sanchez Ostizek berebiziko garrantzia eman dio, bere ustez horretan Baroja ia osoa baitago. Gil Bera berriz ez zaigu horren baikor agertzen, eta Pioren gainean bereziki bainutegian zebilen Diaz medikuarekiko herra goraipatuz ixten digu kapitulua. Ez zigun horretaz Eloy Placerrek gauza handirik ekarri, baina barojazale den euskaldun batendako hortxe aitzakia ederra on Pio euskaldun irudikatzeko. Baina horretan ere, Piok ez zuen sekularenean sobera argi mintzatu: bai baina ez, ez baina bai... Berriz ere jarrera kontua, eta neurri batean, aita nabarmentzen omen zen horretatik aldendu, nasa sakona eraiki bien artean. Larrekoegi zitzaion, bestalde, aitaren mintzoa, ospe txikerra baizik ezin ekarri, eta horretan euskaldunen hizkuntza ezin kamutsago:

> Siga el que quiera a Bonaparte, Azkue, Campión, Arana eta Goiri Sabin, yo sigo a Larramendi, Iztueta, Iparragirre siempre.

Ordukoa da Ricardo Madrilera joan zenekoa, izebaren okindegiaz arduratzera, eta ordukoa da Serafinek Zestoako paisaia margotu zuenekoa.

> –Arras ongi egin dituk neurketa guztiak Pio, meatz garrantzitsu baten gainean aritu gaituk, eta hik markatu duk.

Baina Pio ez zegoen multidisziplinaritaterako, eta sendakintza uzteko erabaki fermua hartuko zuen gutxira, aitatxo ingeniari, idazle eta txelojole segituko zuen bitartean.

Pioren doktorego tesia epaitu zutenen artean San Martin Satrustegi medikua izan zen, instrukzio publikoko ministraria izaniko larraintzar prestua. Gauza berezia medikuntza eta literaturaren artean aunitzetan bilbatu den harreman estua. Serafin hil zen urtean ere, Larreko Iruritako Palotegian zegoen, Baztango eriak artatzen eta *Napartarra*-n euskal idazle. Pio eta Irigarai eskolakideak izan ziren 1882an Iruñeko Uharteren ikastetxean, baina agidanez donostiarrak ez zuen auriztarra gogoratu. Urte zenbait lehenago *Topografía médica del valle de Baztán* agerturik zeukan, Telesforo Arantzadiren arreta biziki erakarri zuena, Madrilgo doktorego eskoletan Piok estimatu zuen irakasle bakarra hain zuzen, gutxitan entzun zuelako seguroenik ere.

> A mi me clasificó como mesaticéfalo con angulo facial abierto y ojos pardos, verdosos. –¿Usted es vasco? –me preguntó luego. –Sí. –¿Puro? –No, tengo el segundo apellido italiano. –¿De dónde? –De Lombardía. –¡Ah! Está bien–. Tenía el pasaporte o salvoconducto antropológico para marchar por el mundo.

1913an, Fermin Irigaraik bere burua otsaileko hauteskundeetan napartarren aldetik aurkeztu zuenean, Pio eta Rafael Larunbe Parisera joan ziren. Azken eguneko tripafestan, Berako pediatra zurruteroak Irundik ekarrarazi bi kilo angula jan zituzten, eta Baroja jan-edan kontuetan beti ere txit neurtua agertu bazaigu ere, bistan da idatzi eta egiten zuenaren artean alde ez makala bazegoela.

> –Nik arrain piska bat afaldu ohi dut, besterik ez.

Eta horretan, aitatxori ikasitako jukutria ironikoa zerabilkigun on Piok. Zailxko zukeen Zegamako oroitzapen beroak aienatzen, eta irendua nahi zuen batendako musturrei gozagarri ematea ezinbesteko, gaixoei agindu higienismo guztia gora-behera. Serafin zendu berriak poetikoago zuen kantatzen:

> Ta jan ta gero
> irrixt ta dantza
> edo eskudantza
> quiza la polka, quiza el bolero.

Eta, ez ote da hori Pioren ezaugarririk nabarmenetakoa, Serafin aitatxok eredentziaz lagatua? Errealitatearen irakurketa literarioa alegia. Izan ere, zertan izan behar du fikzioak oinarri duen errealitate horren deskribapen fidela? Serafinek arras ongi zekien hura, eta hortxe bere ipuin eta eleberri aitzindariak: *Los pillos de la playa, novela escrita en vascuence por Tantanfirulet, célebre tamborilero de Mizpirandienea y vertida al castellano por Andre Grashi; Perico Pello de Alabaindanere: apuntes para la historia de un buen apunte, escritos por él mismo en vascuence y traducidos al castellano; De Chamberí a Madrid, 100 metros en 25 días*... Euskal literaturaren historian lehenbiziko eleberri modernotzat jotzen ohi den Dasconagarreren *Atheka-gaitzeko oihartzunak* hartan *traduit du basque* abata txuria agertu zen frantsesezko jatorrizkoan, ordurako Serafinek maiz erabilitako amua, baina donostiarrak ez zuen gezurrik esaten ezpada fikzioarekin jolasean zebilen jostakor.

Serafinen gogamen literarioa ez zen txikia, eta alde horretatik argitaratzen hasteko ildoa erakutsi zion semeari: eguneroko prentsaz baliatu. Orduko idazle askoren abiabide zein alabidea izan zen huraxe, baina Serafinen kasuan bereziki. Berau izaten zen egunkariak bilatu edo sortu ere egiten zituena, lan literarioak non kolokatzeko euskarri hautak. Honela sortu zituen *El Urumea: periódico no político* eta *Bai jauna bai: periódico bilingüe castellano vascuence*. Bigarrena Iruñean agertu zen 1883an, eta ia saltzen ez zenez, ixteko beharrean izan zen, baina horretan aita-semea ez ziren bat etortzen, batek bilatzen ez zuen arrakasta bestearen kezka gorria baitzen.

Abiraneta literarioak berak ere ez al du bada Serafinengan askotxo baino gehiago? Eta Zalakaini ez al dario halako urrin serafindarra? Ez zigun Piok halakorik esan, baina hortxe zuen aitatxo, karlistez inguraturiko liberala, bertso-mertsoka, Karlos eta karlisten panparroikeriaz ziri-mirika:

Zeinek pentsatu, zeinek sinistu
Gure baserri jendeak
Denbora gutxi barrun dirala
Markesak eta kondeak!
Liberal gaizto mordo batzuek
Izango gera pobreak.

Serafinek genero guztiak landu zituen, Pioren gustukoa izan ez zena. Poeta herrikoia, bertsolari eskolatua nahi bada, *Gazi gezak* eta *Malkoak eta itzalak* liburu kausigaitzen egilea, barre erraza eta ludikotasuna landu zuen guztiz gehien:

Madalen ezkondu zan
Bersolari batekin;
Zortzi garren ilean
Poz aundiarekin,
Eder eta galanta
Seme bat du egin.

Ama suyaren kontra
Pozoituta dago,
Ta alabak esaten du:
–Nola geroago,
Zortzikoak egiten
Oitua badago?.

Izkiriagintza pragmatikoago batean murgildurik, berezko kazetaritzan ere aritu zitzaigun Serafin Baroja. Madrilgo *El Tiempo* egunkarian azken karlistadaren gerrate kronikak largatu zizkigun oparo eta zehatz, Donostiako institutuan historia naturaleko behin-behineko irakasle ziharduela. Alabaina ez zen huraxe Serafinen ekoizpenik ezagunena ez berezkoena. Idatzi zituenen artean famazkorik bazeuden horiexek festa giro donostiarrean oraino kantatzen diren batzuk izan ziren, tartean Sarriegiren musika duen *Donostiako martxa* sonatua. 1877 eta 1878 urteetan *Almanaque bilingüe erderaz eta euskeraz* atera zuen, eta bigarrenean gorago aipatu *Pudente* opera.

–Eroriko zerade, bai, nere golpera.
Umbreno, zurearekin, laster zatoz bera.
Bengantzaren sinuak izan banau kurpil
Bizitu naizen eran, bear det orain il.
–Biba Venus ta Baco, bizi bitez beti.

Honen hitzak euskal aire herrikoien gainean eginak dira: *Intxauspeko alaba, Amairu puntukoa, Kontsesirentzat, Txanton Piperri, Mari Domingi, Aresoarren bandera, Izar eder bat, Festara, Belaun txingoa, San Inazioren martxa, Upelategi, Xarmangarria, Maritxu nora zoaz, Gernikako arbola, Xori errexinola, Hiru damatxo... Euskal Erria* aldizkarian jasotakoaren arabera, Pudenterena *éxito colosal* izan zen; Santisteba-

nek prestaturiko musika, Salaberriaren eszenografia eta Toribio Altzagaren zuzendaritza zeuzkan opera batek ezin zuen bada Donostian huts egin.

Beste bi opera idatzi edo zirriborratu zituen Serafinek. *Amairu damatxo* eta *Lutxi*. Bigarrena 1512an dago giroturik, eta Nafarroara borrokatzera joan ziren gipuzkoar batzuen gorabeherak jasotzen ditu. Gaia ezin gaurkoagoa. Serafin melomano aparta zen, musikazale amorratua eta musikalaria ere. Oso nafarzalea, ordea, ez zatekeen, agian erresuma zaharrak karlistadetan harturiko jarreragatik, eta egia esatera, Serafinek Nafarroarekin izan zuen hartu-emana ez zen beti sobera ona izan, Lizarran gauez karrikan kantatzeagatik atxilotu zutenekoa erakusgarri. Paradojikoki Serafin Itzean itzali zen, eta han pausatu izanarenak ere jarrera kontua lirudike.

Antzerki generoa utzi gabe, 1882an *Hirni, ama alabak* bi ekitaldiko drama inprimarazi zuen Iruñeko Isturitz liberalaren etxean. Hiru errealetan jarri zuten salgai Gaztelu enparantzako moldetegian berean, baina ez zen aleki bat ere saldu. Sorkuntza osoaren bide horretatik abiatua, Serafinek Juan Ramón Jiménezi aurre hartu zion hala edo nola Mogerrekoak poemak sinatu gabe agertzeko poeta berriei proposatu zienean. Baroja zaharrak sinatu gabe edo ezizenez agertu zituen bere izkribuak behin baino gehiagotan: Anisch, Equich, Equech, Malcosh... Hartara, zeintzuk ziren, bada, Serafinen benetako asmoak literaturaren gainean: idaztea jolasa zuen besterik gabe, edo bestela ere serioegi eta sakon hartzen zuen sormenarena? Eta, finean, nola ulertzen zuen literatura on Piok? Aitaren kontrako bidean, edo apika, aitarengandik abiatua...

Paternain, 2006ko abuztua

LABURPENA

Aitatxorengandik jarrera literarioaz

Serafin Barojaren zenbait testu aztertzen ditu artikuluak. Batzuk gaztelaniaz idatziak daude, besteak euskaraz, eta idazlearen biografian sartu dira.

Gako-hitzak: Serafin Baroja; euskal literatura; poesia; antzerkia.

RESUMEN

Sobre la actitud literaria del padre

El artículo realiza un análisis de diferentes textos de Serafín Baroja, unos escritos originariamente en castellano y otros en euskera, contextualizados en la propia biografía del escritor.

Palabras clave: Serafín Baroja; literatura vasca; poesía; teatro.

ABSTRACT

About the father's literary attitude

The article analyses different texts by Serafin Baroja, some originally written in Spanish and some in Basque, placing them within the context of the writer's life.

Keywords: Serafin Baroja; Basque literature; poetry; drama.

Alexander Tapia Perurena, Iruñeko olerkaria

Bere lanaren azterketa estilistikoa*

Joxemiel BIDADOR

ALEXANDER TAPIA PERURENA, IRUÑEKO OLERKARIA (1899-1957)

Gutxisko da Alexander Tapiaz euskal literaturaren ikerlariek esan dutena[1]. Ez da bakarra, bainan norberak bere arantzak baditu, eta lerrook izkiriatzen dituen honek, iruñarra izaki, Tapiarekiko mindura darama barnean. Bada, inoiz izan al dira garai onak lirikarako? Neronek ez ditut ezagutu behinik-behin. Lot gaitezen gaira, ordea, eta probes dezagun aukera zerbait tajuzko ekartzeko[2].

Olerkari iruñarraren berreskurapenerako emandako lehenbiziko urratsa jaio zeneko mendeurrenarekin etorri zen. Urte hartan, 1999an alegia, Iruñeko Udalaren euskara teknikaria den Iñaki Azkonaren laguntza ezin eskergarriagoz, Alexander Tapiaren olerki antologia bat atera genuen, sarrera umil eta hitz-atze bizkarroi batekin. Ondoren etorriko zen hitzaldi ziklo xumea Tapia eta bere garaiaren inguruan. Hurrengo emaitza Bidegileak bilduman Satrustegik onduriko kaierra zatekeen. Eta azken saioa Biurdana Institutukoek urtero antolatzen duten irakurketa publikoa izan zen, bada, 2006ko edizioan

* I. Azkona Huércanos eta J. K. Lopez-Mugartza (koord.), *Alexander Tapia Perurena, Iruñeko olerkaria. 50 urte,* Pamplona-Iruña, Iruñeko Udala, 2008, 29-50.

1 J. Bidador, «Alejandro Tapia Perurena olerkari iruindarraz», *Nafarkaria*, 1997-8-18; *idem*, «Alexander Tapia, Lauaxeta iruñarra», *Nabarra,* 45 zbk., 2004ko abendua, 26-27 or.; J. M. Satrustegi, *Alexander Tapia Perurena,* Bidegileak bilduma, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2000; Alexander Tapia, *Olerki-lanak*, Iruñea, Iruñeko Udala, 1999, Joxemiel Bidadorrek apailatua; A. Tapia Perurena, 50 urte jardunaldietako errezitaldia. Liburuxka, Iruñeko udala eta Nafar Ateneoa, Iruña 2007ko maiatza.

2 Jardunaldi hauek egiten ari zirela, kexu agertzen zen Iñaki Echarte Vidaurre olerkari iruindarra bere blog pertsonalean, Tapiaren poemak euskara hutsez eman zituelako argitara Iruñeko Udalak, eta erdalduna izanki, ezin zuelako irakurri. Milaka kasuan bakarra delakoan nago, zoritxarrez.

Larreko, Manezaundi eta Tapiaren testuak irakurri baitziren. Ostean, eta neurri handi batean bitartean ere, isiltasuna berriz. Saiakeraren bat izan da urte hauetan Tapiaren ekarpena Nafarroako bigarren hezkuntzako kurrikulumean sarrarazteko, baina labur joan zen, eta ez dirudi zehaztu gabe dagoen hurrengo kurrikulumean sartuko denik. Tamalez, historiak temati errepikatzeko ohitura makurra dauka.

Mendeurrenaren ospakizunetan emandako ber arrazoiak ekar ditzakegu oraingoan gure poetaren ahanztura aldez edo moldez azaltzeko. Batetik, olerkari haundien garaian idatzi zuen, eta Lizardi, Lauaxeta zein Orixe ondoan izanik, zailsko zatekeen beste inoren ahotsa berebiziko indarrez adieraztea. Bestalde, Alexander Tapia nafarra zen, eta gerrateak txoria isilarazi bazuen, gaurdainoko zabarkeriak eta intolerantziak mututu eta mututzen du haren kantua oraingoz.

Tapiatarrek mende akaberako Iruñe hertsi hartan hain ugariak ziren denda horietako batean zuten bizibidea, ezko eta txokolate saltzaile, orain gutxi arte Ebano boutique esotikoak bere jantzi koloretsuak pausatzeko izan dituen egoitza berean. Alexander 1899ko abuztuaren 11an jaio zen, eta seguroenik, premu ez izatearen kariaz, bost haurridetan hirugarrena baitzen, dendan aritu behar izan ez zuelako edo, ikasteari ekin zion luzaro eta guritsu, hiriburu nafarretik Europarantz, Parisen hiru urte eta Alemanian beste bost higatuz[3]. Atzerrian zegoela euskarazko bere lehenbiziko olerkiak ezagutaraztera eman zituen, alabaina, jakin badakigu euskaldunberria zela, Aitzolek publiko egin zuenez:

> Entre nuestros mejores y más acreditados vates debemos enumerar a Tapia Perurena, el romántico selecto y atildado poeta, de inspiración viva y fecunda que, además, cuenta en su haber el mérito extraordinario de ser excelente poeta en una lengua que fue adquirida mediante el estudio, ya que de ella, en su juventud, no supo ni una sola palabra[4].

Ez dakigu zehatz-mehatz noiz, nola eta norekin hasi zen euskara ikasten. Honetaz Satrustegik deus gutxi argitu zigun idazlearen alargunari hartu zizkion paperetatik, nahiz eta Tapiaren hitzak berak bai eskaini:

> O, au tamal aundia! Nere gurasoak euzkotarrak eta euzkeldunak izan arren etzidaten euzkera erakutsi [...] *Euzkadi*ko uri nagusi zar ta eder batian sortua, nere inguruan erdera baizik ez nuen aditzen... Orduan sortu zitzaidan euzkera ikasteko gogo bizi-biziya, bañan zoritxarrez ikaskintzak orain lez, asti gutxi uzten zidaten. Ala ere pixkaka pixkaka zerbait egin dut eta orain nere anayakin nere gurasoen elian aritzeko banaiz. Ez naiz ordea emen geldituko aurrera narraike erdera bezin ongi edo hobekigo al badadi ikasi arte [...] Baño ez uste, nere anai maitiak, arroturik nagoela, ez! Badakit

3 Nonbait, Alemaniara joan ahal izatearena Aingeru Irigarairi zor zitzaion, izan ere, medikua baitzen hara joatekoa zena, baina ezinean, Tapiari luzatu zion eskaintza.

4 J. Ariztimuño «Aitzol», «Nuestros poetas: el actual florecer de la poesía euskaldun», *El Pueblo Vasco*, 1935-4-21, in I. Aranbarri eta K. Izagirre, *Gerraurreko literatur kritika*, Aita Santi Onaindia Beka 1993, Bilbo, Labayru Ikastegia eta Amorebieta-Etxanoko Udala, 1996, 347 or.

> nere egin bearra bete bakar-bakarrik egin dutela. Bai, nere ustez abertzaliak diran esaten duten guztiak biz-piru-lau urtetan ezpadute euskera ikasten eztira benetako abertzaliak, eztira biotzezko baizik, mingañezko, gezurrezko abertzaliak[5].

Gurasoak euskaldunak baziren ere ez zuten euskaraz egiten etxean. Aita lesakarra eta ama Goizuetakoa. Udaldietan Leitzara joateko ohitura bazuten, osaba-izeba eta lehengusuen hango Perurenatarren etxera. Joxe lehengusua, herriko idazkari eta jeltzale porrokatua izan zena, kasualki *La Voz de Navarra*-ko euskal kolaboratzailea ere izan zen, Joseba Imanol izenpean, Alexanderrek kudeatzen zuen txokoan hain zuzen ere. Ideologikoki Alexanderren gurasoak karlistak ziren, eta horixe izan bide zen arrazoietako bat euskara etxean ez ikasteko. Alabaina, Euskal Herriarekiko maitasuna gurasoengandik jaso zuen idazleak, berauk idatzi bezala, eta hortaz, euskararen trasmisioa eten izana hiriak berekin zuen azturari zorko zitzaion seguruago ere:

> O, au tamal aundia! Nere gurasoak euzkotarrak eta euzkeldunak izan arren etzidaten euzkera erakutsi. Bai ordia nere aberria maitatzen. Nere aita azken gudan uskurtz ta aberriaren aldez gogor egiteko ibili zan, lerrenak egin zituan karlatarren gandik aberriaren gaizkakundia etorriko zela, letorkela uste zubalako, bere bizitza guzian aberriaren aldez bere zañetako odol guztia ixurita ere gerturik egon da, bere biotzian abertzale sutsua dalako. Bere ezpañetatik ikasi nuen *Euzkadi* eta euzkera maitatzen[6].

Europatik etxera itzuli zenean, lehengusua ere zuen Ilundain irina merkatariaren kontuak eraman zituen Alexanderrek, irakaskuntzan erabatez sartu aurretik. Zekizkien hizkuntzei esker ez omen zuen arazo haundiegirik lana egin ahal izateko, eta denbora gehien Aldapa karrikako bere etxean eman arren, Lekarozko ikastetxean ere euskara irakasle gisa jardun zuen bulta batez. Tenore horretaz ari bide zen «Baztango mendiak» olerkian zihardunean:

> Nik maite zaituztet Baztango mendiak
> Udalen yorian iratzez yantziak
> Igaro bainitun zuen nagalean
> Urterik onenak gaztetasunean
> Baztango mendiak nere gaztaroko
> Poz eta atsekaben mintzoge-lekuko!

Baztanen hiru bat urte eman zituen, Lekarozko erretorea zen Bingen Agirrebarrena lehengusuaren etxean. Han zegoela, bestalde, Azkuek aitzinaratu *Erizkizundi Irukoitza* galdetegiaren erantzunak jaso zituen bertako Paula Etxenike 75 urteko andrearengandik, nahiz, iduri denez eta Ana Maria Etxaideri jarraikiz, kaier huraxek desagerturik dirauen egun[7].

5 J. M. Satrustegi, «Tapia olerkari izkutua»; A. Tapia, *op. cit.*, 113 or.

6 J. M. Satrustegi, *op. cit.*

7 A. M. Etxaide, *Erizkizundi Irukoitza*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1984, Iker-3.

Alexanderren lehenbiziko poemak *Euzkadi* egunkariaren euskal orrian agertu ziren 1921erako: «Amatxo», «Txori Gascua», «Oñazez»... Gerra aurreko EAJk izan zuen egunkaririk sendoen bezain eraginkorrena 1913an sortu zen, hala ere, 1919ra arte ez zuen euskarazko txoko finkorik izan. Urte hartatik, «Egunekua» zeritzan saila hasi zen kaleratzen Ebaristo Bustintza *Kirikiño* idazlearen eskutik. Orduko euskal prentsaren ezagule aparta, Azkueren kolaboratzaile nekaezina izan zen *Ibaizabal* aldizkariaren ehundik gorako zenbakietan. Kirikiñok zerabilen euskara garbizalea zen, Arana-Goirik hitz berriez zipriztinduriko bizkaiera, eta Euskaltzaindia sortu berria bazen ere, geroantzean eredu garbizalearen maisua izan zen Kirikiño, hainbat kazetari nafarrentzat ere bai, tartean Agerre eta Tapia. Bustintza hil ostean, honela idatzi zuen Iruña'tar Alexanderrek *Amayur* astekarian 1932an:

> Kirikiño begikoa! Kirikiño aztugaitza! Zurekin zor bat daukat aztugaitza! Zurekin zor bat daukat aspaldi. Ta aspaldi zor ori ordaindu gogo bizi-bizian nagokizu. Zein ona izan zinan beti neretzat! Aita bezenbat maite zindudan. Eta ezta arritzekoa: euskel idazle banaiz, bearrik zu, Kirikiño maitea. Lenengo aldiz, euskeraz idazten oraindik ezereza nintzala, lan apal-apal bat igorri nizuenean *Euzkadi*-n argitaldu zenezan, bereala txaloka asi zintzaidan, ta ordudanik, nolako abegi ona egiten zenien nere idazkai guziei![8].

Bustintzak *Euzkadi*-n utzitako hutsunea Orixek bete zuen 1919-1931 bitartean eta Lauaxetak 1931-1936 bitartean. Lehenbizikoak utzitako eragina txikia oso, Jesusen konpainia laga berririk, mistikaz kezkatuegirik edo. Lauaxetak eginiko lanak, ordea, hats luzeagokoa izan zen. Orixek sarrazirikо «Gaurko ebanjelioa» azpisaila «Azalpenak» zeritzanarekin ordezkatu zuen, non ezein gaiari buruzko iruzkinak egiten zituen, literaturaz, politikaz zein kirolaz, kazetaritza modernoagoa eginez. Kirikiñoren ostean, bada, Lauaxeta izan zen Tapiaren eredu periodistikoa.

Nafarroako prentsa jeltzaleak ere berebiziko tokia eman zion euskarari. *Napartarra*-k %20a agertu zuen euskaraz 1911-1918 bitartean. *La Voz de Navarra* egunkaria 1923-1936 bitartean agertu zen, eta euskarari toki eskasagoa eman bazion ere, urte horietan guztietan osotara euskaraz agerikoa ez zen undatsa izan. Azkeneko lau urteetako zuzendaria Joxe Agerre izan zen, euskaltzain eta poeta emankorra, euskarazko kolaborazioak agertzeari garrantzizko bultzada eman ziona. Zuzendaritza hartu eta gutxira *La Voz*-ek euskal txoko finkoa izan zuen, Alexander Tapiak berak kudeatua, «Egunekua» ere deitu zena eta azkeneko orrialdean egunero agertzen hasi zena. *Euzkadi*-tik honela agurtu zuen Lauaxetak:

> *El Día, La Gaceta del Norte, Tierra Vasca* eta *Euzkadi* ziran orain arte euskel atalak argitalduten ixan dabezanak, baña beste lankide jator bat agertu yaku, *La Voz de Navarra* izparringija. Egunekua deritxo bere sail txukunari, pozarren gagoz egunez egun geure ele oni biar yakon lotsea emoten dautsogulako. Geure zorijonak artu begiz Irular azkarra geure adizkide mina, Larreko irakasle gorengua, gaste guztijok bijotzean

8 J. Bidador, *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1930-1936): testu antologia II*, Iruñeko Udala, 2003, 258 or.

> daunkogun bixar zuridun idazle jatorra, Agerre, Tapia, Perurena ta beste idazle asko dira Nabarra aldian. Orrein lanak non batu ixando dogu orain, eskerrak eguneroko eder orri. Geure zorijonik bijozkorrenak egiten dautsoguz ta bide ortez jarri dagijan laguntza eskeintzen dautzegu.

Iruñeko jeltzaleen gerra aurretiko azken argitalpena *Amayur* astekaria izan zen, 1931-1936 bitartean ageri zena. *Amayur*-ek euskaraz atera zituen kolaborazioak ugari izan ziren; batzuk gainontzeko prentsa jeltzalean agerturiko testu berak ziren, beste batzuk, ordea, zuzenean Euskal Herri osotik Nafarroara igorriak; beste kasuetan euskal literatura klasikotik aukeraturiko pasarteak ziren, eta azkenik kazetari nafarrek berek ekoiztutakoak ziren argitaratuak: Bipimi baztandarra, Gorospeldarra, Oiantxori, Izparkari eta beste ezizen oraino ilunekin batera, Larreko, Manezaundi, Agerre edota Tapia. Kazetari emankorra, Tapiak ez zuen gutxi idatzi argitalpen jeltzale guztietan: *Euzkadi, Kaiku, El Día* eta aipatu bi nafarretan, baita Buenos Airesko *La Baskonia* eta *Laurak bat* argitalpenetan ere, euskaraz zein erdaraz, poesia zein prosa. Zenbaitetan, gainera, kolaborazio bera agertzen zen argitalpen ezberdinetan, beste idazlerekin ere gertatzen zen antzera, idazle bakoitzaren lanak Euskal Herri mailan ezagutzeko gauza eraginkorra izan zitekeena. Ezagutaratze saio horretan, berriz, bazen galga egin zezakeena, ezizenak erabiltzearena alegia. Pentsa bedi zenbat diren oraino ezezagun ditugun idazleak goitizen ilunen atzean kukuturik. Ez zen hau Tapiaren kasua, nahiz eta guztietan Iruña'tar Alexander gaitzizenaz sinatu, edo I'tar A. akronimo soilaz. Honetarako idazle bakoitzak zitzakeen arrazoien artean Tapiak berea aipatu zigun:

> Emen dagortzudan idazkitxua on bazaitzu argitaldu ezazu gure izparringian; on ezpatzaizu nai duzuna egizu. Baño, arren, ez agertu nere izen abizenak, nere sendiya karlatarra da ta ez dut nai jakitea nik zuekin idazten dutela[9].

Itzul gaitezen, baina, Tapiaren olerkigintzara. Esan bezala bere lehenbiziko poemak prentsa jeltzalean agertu ziren. Euskal Esnalea aldizkariaren orriotan 1925ean hasi zen argitaratzen. «Zoruna» eta «Itundasuna», Paristik igorriak diren maitasunezko olerki parea dugu, Shelley poemagile erromantiko ingelesaren bertsoak goiburu dituztelarik. Hurrengo urtean ere Paristik bidalduriko «Agur» eta «Gallurrarontz» poemak azaldu ziren Donostiako aldizkarian. 1927an, berriz, «Miren Josune» olerki luzanga agertarazi zuen beste bidaltoki berri batetik baina, izan ere, urte horretarako Bilbon baikenuen idazle iruindarra. Alabaina, azken honen lehenbiziko zirriborroa egina zuen ordurako jada, Euskaltzaindiak Etxarri-Aranatzen 1923an eginiko Euskal Jairako aurkeztu baitzuen.

Tapia Perurenaren lana ez zatekeen oharkabean pasatuko, eta gerratearen aitzineko urteetan burutu ziren «Olerti Egun»-etan parte hartu zutenen artean zegoen. Ezagun da Euskaltzalekoek zazpi ekitaldi antolatu zituztela, «Eusko Olerkiak» izenpean, 1930ez geroz, eta Tapiak lehenbiziko lauetara aurkeztu zituen bere olerkiak: Errenterian,

9 J. *Satrustegi*, *op.cit.*

Tolosan, Hernanin eta Urretxun burututakoetan alegia. 1927an sortu zen Euskaltzaleak Bazkuna elkartea, Aitzolen inguruan bildu ideologia abertzaleko olerkari gaztez elikaturik. Pizkundeko egile hauek bi berrikuntzetan oinarritzen zuten haien ekoizpen literarioa, hala nola, berriztapen linguistikoa, Aranaren *Lecciones de ortografía del euskera bizkaíno* lanean oinarriturik, eta gaiari zegokiona. Lehenbizikoak kritika ugari erakarri zituen, euskara herrikoiago baten alde, Altube eta Mokoroa aipa daitezkeela; bigarrenak, ordea, Aitzolen beraren etsipen logistikoa bultzatu zuen, asmo abertzaleak lortzen ez zirelako.

Lehenbiziko Olerti Eguneko poesiak jaso zituen liburua Aitzolen sarrera batekin agertu zen. Nahiz jakina da Errenteriko sariketa hau Lauaxetak irabazi zuela «Maitale kutuna» lanarekin, ez zitzaion Aitzoli olerkari nabarmengarri bakarra suertatu; Tapiaren ekoizpena Lizardirenarekin batera kokatu zuen baikor:

> Euskerari bide berriak idikitzearren, bide xiurrak utzita zabaleera jo dezan, almen bikañeko olerkariak agertu zaizkigu, Agirre jauna, Lizardi izenordez, eta Tapia'tar Alexander, Iruñekoa [...] Atzerrian Tapiak asmatutako «Txori mindua» irudikementsuaz indartua arkitzen degu: ekaitz zatarra biziki lenengo zatian, erri-miña zorrozki bigarrenean gure irudimenari adierazten dizkio. Euskeraren malda gora erkatzen dijoazten olerkari oien lan zailak, elertiarentzako onurakorrak zaizkigu egitan[10].

Bigarren olerki guduan saria etxean geratu zen, Tolosan, Lizardik irabazi baitzuen. Hartan Lauaxeta, Mourlane Mitxelena eta Orixe izan ziren epaimahaian, eta nonbait, ebatzitakoa ez zen ororen gustukoa izan. Lauaxetaren deskarguzko hitzotan Tapiaren gainean zuen juzkua ikus daiteke:

> Tapia Perurena be olerkari ospatsuba dogu. Sarri orri onetan esan dot geuren egunetako olerkarijetan puntarengo bat dogula Tapia jauna. Neurekiko Musset jaunaren «Orrilla-gaba»ren antz larregi dau bere olerkijak[11].

Orixeren epaia, berriz, ona izatearekin, okerrago badateke:

> Tapiak baditu olerkari-doaiak, ez urriak, eta egin du lana batzaldi orietarako, baina au ere negarbera antxa da. Biotzaldi guziak naigabe egiten dituzten orietakoa dirudi «Txori mindua» ta «Olerkariaren gaua» baino «Seaska ondoan» osasuntsugoa du, antzera egiña ba da ere[12].

10 J. Ariztimuño «Aitzol», «Itzaurrea», *Eusko Olerkiak: Errenderiko Olerti Jaietarako eratu zan olerti gudara bidaldutakoenetatik autuak*, Donostia, Euskaltzaleak, 1930, 20-22 or.

11 E. Urkiaga «Lauaxeta», «Euzko-olerkiak», *Euzkadi*, 1932-8-14, in Aranbarri eta Izagirre, *op. cit*., 167 or.

12 N. Ormaetxea «Orixe», «Eusko-olerkiak», *El Día,* 1932-9-11, in Aranbarri eta Izagirre, *op. cit*., 176 or. Orixeri erantzun zion Tapiak «Baztango mendiak» olerkian: «Norbaitek esan du zerala negarti / Oi, zure barruan sartu al baledi!».

Ez zen horretan geratu, baina, Orixeren kritika, eta Jauregik –Jautarkol– ere Tapiarekiko zuen juzkuarekin bat etorriz, Tomas Agirrerengandik aldendu zen. Honek, Agirrek[13], honela ziotsan Tapiaz:

> Ez nun egundo irakurri olerkari onen lanik. Astiro ta arretaz aztertu det oraingoa: «Olerkariaren gaua» Nork abestu du eusko-elerti barrutian, elegia olerki-muetan, onek bestean? Badu olerkari onek oi ez daben zerbait. Asmamen yaukala, agian. Neurtitzak estuki darizkio. Artegatasunak zastaturik noizbait; ituntasunak erremindurik besteetan; abertzaletasunak suturik beti. Betorkigu sarrigo olerkari yaioa. Demaiogun emen bidezko dun gorasarrea. Dasaiogun berriro Olerti, neska gazte lirainaren agoan jarri zuna. Bereolaxen mintzatuko zaizko Aberria eta Ama-euskera:
>
> «Eta gañera, abes egizu. olerkari maite orrek.
> Ez bekizu, ez iñondik, ixildu eztarria.
> Abestu gelditu gabe, erestia izango zaizu
> Gogoaren atsedena, biotzaren eztia»
>
> Ara emen «Olerkariaren gaua»-ren gogaia. Gauaren ixiltasunean, maiz gogaltzen du gure erriaren etorkizuna. Negarra du begietan. Neska lirain eder bat agertzen zaio. Ikutu utsez ezerezten dio miña. Eresi samur goxoa dario emeki. Olerkari gaxoa, zein da zure miña? Zure itz ederrez oñazeak berrinaz gaurko. Goazen eusko-olerkietara[14].

Haratago joan zen oraino Jose Artetxe Tapiaz egin zuen iruzkinean, eta Orixek onartzen ez zuen horrengatik beragatik bereziki nabarmendu zuen olerkari iruñarra; Lizardiren dohaiez jardun ostean, haren kontrapuntua zelako edo:

> Este sí que no se recata como Lizardi. Al contrario que el poeta zarauztarra éste habla de dentro a fuera. Ingenuamente, sencillamente, el poeta desgrana todos sus efluvios íntimos. Los accidentes exteriores variarán la nota que se haya de oír. Los diversos momentos emocionales harán también variar la poesía, por lo mismo que Tapia parece un sensitivo. Y aún hacen desear al lector que se produzca la sacudida por ver la reacción que se opera en el alma del poeta y gustar qué apacible y melancólica nota sea la que se escribe a impulsos de la fiebre creadora de Tapia Perurena. A través de la poesía de Tapia se ve a a su autor. Hay sinceridad transparente. No oculta un solo matiz del pensamiento. Su canto a la patria despreciada por sus hijos trasluce ese aspecto. Un gran poeta Tapia. Una gran promesa a través de sus jóvenes años. Preparémonos a gustar las esencias delicadas con que habrá de obsequiarnos el estro de este poeta que gusta de buscar alivio a su sed de inspiración en las fuentes íntimas. Ciertamente a poco que sea aprovecharlas ellas devienen a ser inagotables[15].

13 T. Agirre, garaiko idazlea, errexildarra, Barrensoro ezizenez ezaguna. Olerki lehiaketetan aritua. Literatur kritikaria Euzkadi-n.

14 T. Agirre, «Gure olerkariak, Eusko-olerkiak», *Jakintza*, I., 1933.eko Urtarrila-Otsaila, in Aranbarri eta Izagirre, *op. cit.*, 215 or.

15 J. Artetxe, «Poesías vascas», *El Día,* 1932-IX-23, in Aranbarri eta Izagirre, *op. cit.*, 182 or.

Edozein modutan ere, 1933rako jada gogo-txartuak jotako Aitzol batek oraino laudoriozko hitzak izan zituen urte horretako Eusko Olerkarien laugarren emanaldian Tapiaren jasoriko olerkien goiburu:

> Tapia Perurena'tar Alexander gorengoenetako olerkaria zaigu. Ain da ordea gizon apal eta otzana gure olerkari au! Gaurko olerkari ospetsuenetakoak beren olermen biziz sortutako emaitzak, nola ala bilduta, sorta antzean argitaratzen dituzte. Ez ordea, gaurdaiño beintzat, Alexander olerkari yaioak. Onen aratz eta irudipenez aberats diran bertsoak an eta emen sakabanatuak agertzen dira. Yakintza gurean, pozkiro oso Tapia-Perurenarenak ezagun arazi ditugu. Adizkide onexeri Euskaltzaleak dion maitetasun ezaugarritzagatik, ona emen igazko olerki bikaiñenak[16].

Eta halaxe izan zen, bada, 1933ko Eusko Olerkiak bilduman agerturiko olerkiak aurretik ere Aitzolen *Jakintza* aldizkarian agertuak baitzeuden. Aldizkari honetan agertaraziko zituen olerkiren bat oraino, 1935era arte bederen. Euskal olerkarien laugarren aleki honen harian, Jose Artetxek ere bere juzkua plazaratu zuen, hara zer zioen Tapiaren lanaz:

> Y en este libro hay sitio para otro poeta vasco destacado, el íntimo Tapia Perurena, tan propicio a desgranar los sentimientos más recónditos de su alma[17].

Urretxun burutu laugarren Olerki Egun honez geroz, Tapiak ez zuen bere burua berriro ere aurkeztu, hau da, Zarautzen, Arrasaten eta Lekeition eginiko edizioetara.

Olerki Egunetan parte hartzearen kariaz, nonbait, Tapia olerkaria Aitzolen belaunaldikotzat hartu ohi da. Hainbat gaien aukeraketaz denez bezanbatean, ukaezina litzateke honakoa, horra hor Lizardiren akuilua erabili zituen inspirazio iturrien artean, esaterako, tolosarraren heriotza zela eta onduriko «Biotzean min dut» poema:

> Biotzean min dut, min garratz aundia
> Negarra darie nere begi oki
> Enarak datozen garayez il zaigu
> Ain maite genuan olerkari aundi.

Alabaina, Tapiaren ausardia poetikoa zein berrikuntzekiko zaletasuna ez zen izan hurbilean izan zituen hainbat olerkariek bultzaturikoaren tamainakoa. Jon Kortazarrek XX. mendeko euskal literaturaz tajutu ikerketa jada klasikoan, gerra aurreko urteetan euskal poesigintzaren barruan gure Tapia kokatzerakoan zera zioskun: *Una corriente más objetivista y costumbrista guió la producción de Tapia-Perurena*[18], eta Auñamendiko euskal literaturaren gaineko entziklopedian zuzen-zuzenean poeta romántico agertu ziguten, iruzkin haundiagorik egin gabe[19].

16 J. Ariztimuño «Aitzol», «Tapia Perurena'tar Alexander'en olerkiak», *Eusko Olerkiak*, 1933

17 J.Artetxe, «Comentario Literatura Vasca», *Euzkadi*, 1934-7-4, in Aranbarri eta Izagirre, *op. cit.*, 322 or.

18 J. Kortazar, *Literatura Vasca siglo XX*, Donostia, Etor, 1990, 93 or.

19 *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco: Literatura*, III, Donostia, Auñamendi, 1978, 223.

«Sagardi loretsuak» Tübingenen 1933ko lorailan zegoela sinatu zuen, eta Tübingengoa zen Ludwig Uhland olerkariaren idazkiak zituen gustokoak, baita itzulgai ere, Aingeru Irigaraik jaso zuen gisaz[20]. Idazle germaniarren artean ere Heinrich Heine erromantikoa, Friedrich von Schiller edota Goethe handia zituen atsegingarri.

Honakoa zalantzetan jartzeke, Tapiaren olerkietan nabariegi agitzen den hel ezineko maitasun hitsa litzateke bere ezaugarririk aipagarrienetakoa:

Lore aiñako zera
Lirain eder garbi
So ta ituna gogoan
Sartzen zait emeki
Nerea iñoiz izanen
Ez zeran neska apain
Zai bezaitza Urtzik orren
Garbi eder lirain.

Gudaldiak larriki kolpatu zuen poeta erabat isiltzeraino, Aldapa karrikako bere etxean ahaztu bezain bakarturik, isiltasunik ozenenean, bere ondokoen soraiotasunean itota. Egia da bere paperen artean Iñurritza ezizenez sinaturiko olerki luzexka bat ageri dela, 1938ko urriaren 25ean Iruñean sinaturik, honako goiburu hau daramana: «Tapia-Perurenari, esker ordañez; olerki onek ezer onik badu, zuk irakatsi arauei zor». Baina urtearen harrigarriak ez du gezurtatzen ohikoan esan izan dena gerra osteko euskaltzale iruñarrez. Azken urteetan Joxe Agerre lagun minaren eta Leitzako idazkaria izandako eta *La Voz de Navarra*-ren euskal kolaboratzaile emankorra ere zen Jose Perurena lehengusuaren bisitak zituen lehenarekin lotura bakan. Izan ere, nahiz *Vida Vasca* aldizkarian ekarpen bakanen bat eskaini zigun, argi aski esan daiteke Tapia poeta eta kazetariaren ibilbidea 36ko basakeria erdalzaleak eten zuela betiko, behintzat maila agerikoan.

Alexander Tapia Perurena, Iruña'tar Alexander, 1957ko maiatzaren 21an zendu zen; bere heriotza oharkabean igaro zen orduko komunikabideetan, eta Jose Agerre izan zen Tapiaren aipamen publikoa egin zuen bakarra, olerkariaren lana goraipatzeko nekrologikoa argitara emanez *Pregón* aldizkarian. Ia hogeita hamar urte geroago Satrustegi euskaltzainak topatu zituen Tapiaren paper zahar batzuk Kaldereria karrikako Areta liburudendan, tartean *Kattalin umezurtza* antzertilana, *Egan*-en atera zena[21]. Arruazukoak egin ohi zuen bezala, paper horiek guztiak, antzerkilana salbu, ez zituen beste inorekin partekatu. Tapiaz zerbait gehiago jakite aldera alargunarekin izan zen eta beste paper mordo bat eraman omen zuen, *Bidegileak* saileko kaierra

20 A. Irigarai, *Una geografía diacrónica del euskera en Navarra*, Iruñea, *Diario de Navarra*, 1974, 42-43 or: «Tapia fue un atildado escritor éuscaro y delicado poeta en la misma lengua. Muerto hace unos años en Pamplona, su ciudad natal, publicó poesías de elevado lirismo [...]. Hombre humilde y de delicados sentimientos escribió en un hermoso vascuence, que no le venía de la cuna, sin alejarse del acento popular. Poseía una cultura poco común y tradujo del alemán directamente al vascuence, lo cual no es corriente entre poetas castellanos, algunas poesías de Uhland y otros románticos germanos».

21 J. M. Satrustegi, «Alejandro Tapia Perurena euskal idazlea», *Egan*, 1985, 217-260 or.

osatzeko baliatu zituenak. Aingeru Irigaraik ere ba omen zeukan Tapiaren hainbat paper, finean, Satrustegik geroago eraman zituen batzuen kopia omen direnak. Zenbat ote da paper horietan guztietan argitara gabe dirauena? Guk Irigaraitarrenak ikuskatu ditugu, Jose Angel Irigaraik eskuzabal utzita, eta gutxi baldin bada hortxe orain arte ezezagun irakurgai dagoena, pentsatzekoa da gehiago izan zitekeela[22]. Edozein modutan ere, ez da zalantzarik iritsi zaizkigunekin nahikoa zaigula Tapiaren idazkintzaren garrantziaz ohartzeko.

LANEN AZTERKETA

Corpusa

Inoren lana aztertzen hasi aurretik behar-beharrezkoa da lan horren bilduma ahalik eta osotuena egitea. Egun Tapiaren 50 bat olerki lan ditugu, 30 bat prentsa kolaborazio eta antzerki lan bakarra. Antzerkiaren kasuan beste lan baten zirriborroak badaude, Onintze eta Lartaunen arteko amodio istorioarena alegia, erdaraz eta euskaraz, zartzuela itxura erakusten duena, hitz lauz eta bertsoz tajutua. Kattalin umezurtza antzerki lanaz ez dut oraingoan jardunen, baina honek erakuts ditzakeen arazoen artean datazioarena dugu. Segurtasun osoz ziurtatu ezin bada ere, gerra osteko lana dela esanen nuke nik, ez baitu gerra aurretiko ohiko gaia erabiltzen, hau da, aberriarena; ez da propaganda jeltzalea egiteko lana beraz, lan morala baizik, antzerki misionalaren tankerakoa zenbaitetan; erakusten duen elementurik esanguratsuena hizkuntzaren erabilera dateke, herrikoia eta freskoa, hiketaren erabilera zabalarekin.

Prentsa kolaborazioei dagokienez, hauek arazotsuagoak dira, eta Tapiaren joan-etorrien ezagutza sakonagoa eskatzen dute, izan ere, iruñarrari egokitu dakizkiokeen hainbat kolaborazio benetan bereak badira, eta hala ematen du, pentsatu beharko genuke gerra aurreko urteetan denboraldiren bat Donostian pasatu zuela, hango prentsa jeltzalean langile edo, seguraski Jose Lekaroz lesakarraren aginduetara, eta ezin ahantzi Tapiaren aita lesakarra ere zela.

Olerki lanak dira, dudarik gabe, Tapiaren ekarpenik interesgarriena, bai kalitatez eta bai kantitatez, eta horretan maila berezia zein pertsonala erdietsi zuelako. Hortaz, aztergai hartuko ditut aipatu 50 olerki horiek. Zerrenda osoa bibliografian dator.

Gaiak

Maitasuna

Alexanderrek erabilitako gai nagusia maitasunarena da. Auñamendikoek jarritako poeta erromantikoaren etiketa ongi datorkio bada. Maitasuna darabiltzen poemen ze-

22 Mendeurrenaren karietara olerki antologia atera zela, Xalbadorreko Mikel Aranburuk «Usotxu vacuna» olerkitxoa eman zidan; olerki hau jasotzen zuen orria liburu baten barruan topatu zuen Aranburuk Aretarenean, liburu zahar bat hostokatzen ari zela, kasualki Satrustegik onduriko hitzatzean ateratako olerki bera.

rrenda luzea da oso: «Usotxu vacuna», «Emadan iria», «Itundasuna», «Agur», «Miren Josune», «Lore aiñako zera», «Izanen aiz nerea».

Baina amodioaz ematen duen ikuspegia ez da ikuspegi alaia, malenkoniatsua baizik, tristea, osatu gabekoa, ezinezko amodioa zenbaitetan. Agian jarrera kontua da, poeta jarrera edo, «Maitasun atsegina» poeman bezala, baina batzuetan ematen du Tapiak maitasun porrota ezagutu zuela, sufrikariora iritsi zela maitasunak eramana, esperientzia txarra, eta hortik tonu hits eta eroria: «Mantxikek utzi nau». «Baztango mendiak» olerkiak honen pentsatzeko pista eman dezake. Olerki honetan Baztanen emandako urte gazteak ditu gogoan; han jeltzaletu zen, han euskaldundu zen (hortaz Lekarozko egoitzarena bikoitza izan zen ala irakasle jardun zuenekoa beste modura ulertu behar da?):

> Agur, izki biziz, emesti ta yoran
> Bizitzan zati bat dirakurt zuengan.

Mendiak aipatzen ditu, Legate, Auza eta Saioa, baita Mailantz erreka. Azken hau, egungo toponimian behintzat ezagutzen ez den izena, *locus amoenus*-a zatekeen egilearentzat, baina baita tristezia barrenean sartu zion tokia ere. Han zerbait gertatu zen, zehazten ez duena. Baztandik urruti, poeta errekuperatzen ari da, baina zauriak hortxe dirau. Zein esperientzia mota izan zen Tapiak Mailanzko errekan bizi izan zuena? Maitasunezkoa, erlijiosoa, politikoa...?

Hel ezinezko maitasuna «Lore aiñako zera». «Geldi arren» olerkian abisu morala luzatzen dio gazteari; gazte ederra doa atsegin bila (zein atsegina da hori, putetara doa?): «Atsegina den motza». «Lore igarra» poeman hirira doan neska pertxentaren esperientzia kontatzen du, lili inartuaren metafora hartuta, hiltzera etxera itzultzera datorrena; baina Tapia eleganteegia da, ez du sekula ezer garbirik aipatzen, iradoki bai baina norbederak egin behar du irakurketa.

Batzuetan amodioaren esperientzia triste horren lekukoa baizik ez da poeta, eta zoritxarra pairatzen duena neska. «Usotxu bakunean» neska seduzitzen du galai gaiztoak, eta hortaz amodio tristea izanen da. «Neskato utzia» poeman sukaldean dagoen neska utzi zuen mutilaz gogoratzen da. Besteetan, berriz, poeta bera da pairatzen duena; «Emadan iria» poeman poeta da maitaleari bihotza eskatzen diona; «Itundasuna», «Agur» olerkietan poeta triste dago maitalea urruti dagoelako, baina maitalea aberria ere izan daiteke, eta halako saudade mina da poetak sentitzen duena.

Maitasunaren aurkezpen honetan poetak naturaren erabilera zabala egiten du alegorikoki. Maitalea, neska, usotxua da (askotan erabiltzen den metafora), inoiz eguzkia («Itundasuna»); galai gaiztoa aztorea; maitalearekin egondako denbora kabia; hiria gaiztoa litzateke.

Beste batzuetan ilunagoa izan daiteke alegoria hori eta bide eman dezake interpretazio diferenteak egiteko, bai maitasunarekin lotuta edota bai beste gairen batekin ere. «Usotxua» olerkian poetak gaztigua ematen dio usoari ehiztariek harrapa ez dezaten, baina alferrik; «Zoruna», «Gizonaren biotza» *tempus fugit*, zorionaren laburra: «Gure

ustekeri guziak / Orixe dira: liliak». «Gailurrarontz» tonu epikoko olerkian, hasierako tonu alaia aldatzen da lanaren-lanaz poeta mendi gailurrera iristen denean eta hor ikusten duenean mendi honen atzean beste bat dagoela, eta beste bat eta beste bat; etsigarriegia izan gabe, itxaropenarako toki gutxi uzten du. Zer da, ordea, heldu nahi den mendi horren atzean dagoena? Maitasuna, aberria...

Aberria

Bada olerki luze bat non maitasunaren gaia eta aberriarena hala edo nola txirikordatzen diren: «Olerkariaren gaua». Neska etortzen zaio poetari zauri zaharra berriz ere irekitzera, zergatik zaude hain triste, galdetzen dio; poeta zuhaitz zahar bat bezalakoa da, eguraldi txarraren enbatak pairatzen dituena; neskak bere maitasuna eskaintzen dio baina poetak onartzen ez duenez joateko imintzioa egiten du; orduan poetak esaten dio ez joateko, prest dagoelako zauria berriz irekitzeko; orduan argitzen da maitasun hori aberriarekiko dela; kexu dago poeta beste euskaldunen axolagabekeriarengatik; bien arteko elkarrizketa bukatutakoan, neskak, hau da, olertiak, musu ematen dio poetari indarra eduki dezan aurrera egiteko; poetak eskaera egiten dio inoiz ez uzteko: «Atorkit berriz, ta urgaztearren / Agokit aldamenean».

Aberriaren gaia bi modutara uler daiteke: urruntasunak poetari ematen dion *saudadea* edo herrimina, eta JEL lemaren barruan alderdiaren propaganda ideologikoa aberriaren esnatzerako. Lehenbiziko zentzuan aipa daiteke «Noiz ote» olerkia, non bere gogoaren deskribapena egiten digun, tristezia, desengainua, deserria. Tübingenen idatzi zuen, eta atzepiturik zegoela zioskun; poema obsesibo samarra. Sail honetan ulertu beharko lizateke «Baztango mendiak».

Bigarren zentzu horretan eginiko olerkien artean aipagarriak: «Orain da ordua», «Amayur», «Leitzako emakume abertzale batzakoei», «Anaitasuna» edota «Sagardi loretsuak». Azken honetan metafora ezartzen du aberria=sagardia loretan; sagarrondoen loreak txuriak dira pinta gorriekin, eta aberria ere txuria da, gorria poetaren odola dela, tonu malenkoniatsua du, eta ez da sobera baikorra.

Honakoak azkenekoak lirateke bere gerra aurreko ekoizpenean, eta bat etorriko lirateke gehiago prosaz eginiko prentsa kolaborazioekin. Horregatik ere, askotan kalitate apaleneko lanak lirateke. Gerra ostean eginiko «Nabarra ene lur» eta «Erregingaia minez» olerkietan ez da horren ageriki JELen ideologia islatzen, eta Nafarroaren ideiak ordezkatzen du aurreko ideologia. Urte zailak dira, eta beldurra hortxe zegokeen. Bestalde, Tapiarentzako Nafarroaren ideia guztiz bat zetorren gerra aurreko planteamendu ideologikoarekin, eta Campionen ezagutza eta miresmena ez zuten gutxi lagunduko bide horretan. Hortxe dugu «Amayur» olerkiaren leloa: «A orain / Au lotsa / Naparra laidotua». Gerra aurreko lanetara itzuliz, topikoz beteriko poemak dira, ohiko sinbologia guztiarekin: mendia, eguzkia, anaitasuna, elkartzeko beharra, odola...

Tapiak egin zituen poema guztien artean eite narratiboko ia bakarra «Azkatasuna» izenburupean dagoena dugu, 109 koplako hats luzeko olerki abertzalea. Poeta mendira doa eta galtzen da basoan; gautzen du eta halako batean sekulako haize latza hasten du. Haizeari galdetzen dio zergatik dagoen horren haserre, eta honek erantzun askatasuna

behar duelako, atzipetua sentitzen dela haritzen artean; izuturik poeta basotik ateratzen da eta errekara iritsiko da; han ere erreka haserre topatzen du, eta galdetzen dio arrazoia, eta honek dio lei bat duela eta ez dela libre, behar duela askatasuna; erreka ondoa zaldi txuria topatu zuen eta bertan igoa hontzak harpatu urretxindorra ikusten du hiltzen; korrika lauoinka itsas labarrera iritsiko da eta itsasoa bareturik ez dagoela arkaitzen kontra egiten duela askatasuna eskatzen; orduan lurraren beraren dardara sentitu zuen askatasuna eske; baina gizakia zitala da, kaxkarra, katamotza lez dabil, ez du askatasuna nahi; euskal herria aske izan dadin eskatzen dio poetak jainkoari eta askatasunari. Poema hobea izan zitekeen bukaera manikeo eta moralista hori ez balu, ideologiari men eginez jaungoikoari halako aipamena egin ez balio bukaeran.

Poema aberkoi hauekin lotuta ere baditugu hainbat pertsonei eskainitako lanak: «Sabini», non Arana-Goiri lilia den; «Biotzean min dut» Lizardiri eginiko hileta-eresia; «Urretxindorrak igeska», Lizardiri berari eta Loramendiri eginikoak; edota Campioni eskaini «Aunitz urtez». Naturaren erabilera ere aberriaren alor honetan agertzen da. Leitzako emakumeak txoriak dira edo lore sorta, euskara txio-txio hori, eta Leitzako etxeak uso taldea; Campioni eginiko lanean poeta txepetxa da eta maisua zuhaitza; Lizardi eta Bedoña urretxindorrak dira, hil direnak eta Jaunaren mahastietara doazenak...

Erlijioa

Ez du Tapiak poesia erlijiosoa egiten, JELen lemaren barruan pentsa zitekeen bezala. Badu baten bat uneko egoerak eskatua, «Itxedondako artzaia» kasurako, ongi etorria emateko poema Iruñera iritsi gotzai berriari. Guztiarekin txukun samarra bada, alegoria ohikoa badarabil ere: artzaia eta ardiak (alaia den bakanetakoa).

Literatura herrikoiatik abiaturik, «Erregeak digaroz» aipa daiteke, non haurraren ametsa jasotzen den: erregeak datoz eta haurrak oparia eskatzen die gaiztotxo izan dela onartu arren, baina Jesus maite duenez jasoko du. «Gau ona nere errian» Utsubi baserrian ospatzen den gabonaren deskribapen txukuna dugu.

Baina erlijio horren barruan, eta ezin ukatu Tapiak ere bazuela beste jeltzaleek zuten sentimendu fuerte hura jaungoikoarekiko, badira beste olerki batzuk, finak, non heriotzaren gaia oratzen den. «Lore bikaña», Saizar'tar Maite neskatilari, hil berri dena. «Seaska ondoan» poeman negu arriskutsua eta uda goxoa igaro ostean berriz ere negua iritsi da, eta ninia lur gogorrean geratzeko ederregia denez aingeruek eramaten dute. Saihestezinaren tematia, haurraren heriotz ulertezina.

Bestelako gairen bati ere heldu zion Tapiak, baina gutxienekoak ziren hauek, ausaz iturri zitzaizkion egileei aipu zein itzulpen eginez. Hauetako bat «Orein zuria», non Uhland aipatzen duen, oreinak ihes egiten dueneko poema ederra.

Eraginak

Tapiaren paperen artean Lauaxetaren *Arrats beran* liburuaren zenbait olerki daude kopiaturik, nolabait bizkaitarrak Tapiarengan izan zuen eragin poetikoaren erakusgarri. Zaila da gaitegi, garai eta kontestu bera konpartituz Lauaxetaren lanarekin

antzekotasunik ez erakustea, alabaina, maila lexikoan esaterako, Tapiak erabiltzen dituen zenbait hitz Lauaxetak erabilitakoak dira. Gaiei dagokionean hortxe dago Amaiurren gaineko lana. Lizardi, *Urretxindorra*, erreferentziazko poeta ere izan zen Tapiarentzat. Zarauzko poetaren heriotza zela eta Tapiak olerki bi idatzi zituen. Baina bestelako aipamenak ere iger daitezke Tapiaren olerkietan: «Sagar loretsua», «Neska urdin jantzia», «Baso itzaltsua», «Andereño beltzarana»... Bere paperetan ere Tene Mujikaren olerki bat dago eskuz idatzia.

Tapiak ez zuen jesuitetan ikasi, Orixek edo Lauaxetak bezala, eta ez zuen Estefaniaren eraginik izan, ez zen klasizista bat alegia. Bestalde ez zen intelektualista bat izan, hau da, ez zen poesia hutsaren bilaketa horretan abiatu Lizardik eta beste zenbaitek egin bezala. Neurri batean autodidakta zen, Aitzolen eraginez noski, baina Iruñeko giroan txertaturik, Agerrek eta, agian ere gazteago eta maitemindurikago idazten zuen Manezaundik, zerabilten poetika soilaren zalea ere, eta honekin batera ezin ukatuzkoa da, bestalde, herrikoiaren eragina.

Errana gelditu da dagoenekoz Tapiak ezagutzen zuela Europako literatura, eta haren eragina batzuetan nabaria dela: Uhland, Shelley poeta erromantikoak, baina Goethe maisua eta beste batzuk: Reboul, Florian, Mörike, Schiller...

Forma

Hizkuntza

Nahastura neurtutzat eman liteke Tapiaren euskararena. Lopez Mendizabalen hiztegia oharretan zekarren preseski «Miren Josune» eta «Txori mindua» olerkietan, baina euskara herrikoia zerabilela ezin ukatuzkoa da. Batzuetan hika eta zuka nahasten ditu; «Emadan iria» olerkian maitaleari nokaz ari zaio. Ebakera fonetikoak ere inoiz bazarabiltzen: ai (ari). Euskalkien aberastasunak nafarrera du gidari: gan, oken, ekea, ekezilo, karri, yoa (joa), arpatzen..., baina gainontzeko euskalkien ekarpena guztiz bazter utzi gabe. Bizkaiera: lez, baltz, uledi; gipuzkera: det, degu, dek...

Baina jeltzalea zen neurrian garbizale ere bazitzaigun Tapia, hiztegi aldetik bereziki, Sabino zein Berako Romani jarraikiz: gentzaitsu, donoki, ziñopa, itun, bultzia, etoi, azkespena, bakaldun, aunar, abintz, lobel, orlegi, zitoa, oldoztu, gotzon, anei, oskar...

Morfosintaxiari dagokionean, aditz trinko arkaiko eta berrien endemasekoa erabilerak garbizaleen esparrura hurbiltzen du iruñarra; *agertu*: zagerz, zagerren, dagertzen, dagerkit; *aurkitu*: narkikeala (aurkitu ahal nuela); *eman*: damaio; *entzun*: dantzuiot, nentzuan; *erantzun*: darantzuio; *erori*: zerorzkion, berorkio, darorz, darorkio; *esan*: nesake; *eskaini*: daskeintzut; *eskatu*: deskaiot; *estali*: destalzkiote; *hartu*: darke; *igaro*: digaro, digaroz; *igo*: digo; *zaindu*: bezaitza... Eta hauekin batera hainbat kultismo ere: ortze, Urtzi, yoana ailitzait...

Metrika

Tapiak saiakera garbia egin zuen bertsolaritzaren tekniketara hurbiltzeko, edo bederik ere forma herrikoietara. Bertso lerro laburrak zarabilzkien komunzki: nahasten zituen

estrofa mota diferenteak egitura konplexuagoak sortzeko. Bertso lerro luzeak direnean oso zesura markatukoak dira. Bikoak, laukoak edo koplak, zortzikoak, bertso segida luzeak; 3, 5, 6, 7, 8 silabetako bertsoak gehienetan.

Bestalde aipagarria litzateke poemen arteko luzaera ezberdinak. Badira benetan poema motzak direnak («Neskato utziak», «Sagar loretsuak» edo «Lore aiñako zera»), eta poema luzexkak direnak («Azkatasuna», «Olerkariaren gaua»).

Errima ez oso zaindua; asonanteak paretan eta ezer gutxi gehiago. Poeta gehiago kezkatzen zuen erritmoak, musikalitatea, azentuazioa.

Progresioa

Tapiaren lan poetiko nagusia 15 urteko epean garatu zen, baina ez du progresio haundiegirik erakusten. Horrela ulertzen da olerki zenbait berriz ere argitara ematea urte batzuetako aldearekin aldaketarik gabe: «Usotxu bakuna» *Euzkadi*-n 1922an eta *Argia*-n 1930ean; «Emadan iria» *Euzkadi*-n 1922an eta *Amayur*-en 1932an...

LABURPENA

Alexander Tapia Perurena, Iruñeko Olerkaria. Bere lanaren azterketa estilistikoa

Iruñeko Udala, 2008, 29-50. orrialdeak.

Alexander Tapia Perurenaren (Iruña, 1899-1957) obraren idazkera aztertzen da. Poema batzuek eta antzerki lan batek osatzen dute obra hori. Oso poema lirikoak dira eta naturarekin eta lurrarekin lotutako gaiak jorratzen dituzte, ikuspegi erromantikotik eta humanismo kristautik begiratuta. Garai hartako idazleen euskara erabiltzen du, hagitz kultua eta landua.

Gako-hitzak: Alexander Tapia Perurena; euskal literatura; poesia; Nafarroa.

RESUMEN

Alexander Tapia Perurena, poeta de Pamplona. Análisis estilístico de su obra

Se realiza un estudio estilístico de la obra de Alexander Tapia Perurena (Pamplona, 1899-1957), formada fundamentalmente por poemas y un texto teatral. Sus poemas poseen un tono muy lírico, y tratan sobre temas relacionados con la naturaleza y la tierra. Están tratados desde una perspectiva romántica y humanista cristiana. El euskera que utiliza en sus obras era el habitual entre los escritores de la época, muy culto y elaborado.

Palabras clave: Alexander Tapia Perurena; literatura vasca; poesía; Navarra.

ABSTRACT

Alexander Tapia Perurena, Pamplona-born poet. Stylistic analysis of his work

The article provides a stylistic study of the work of Alexander Tapia Perurena (Pamplona, 1899-1957), mainly consisting of poems and a play. His poems have an extremely lyrical tone and deal with subjects related to nature and the earth. They are addressed from a romantic and Christian humanist perspective. The language he uses in his works is the highbrow, elaborate Basque common among writers of the day.

Keywords: Alexander Tapia Perurena; Basque literature; poetry; Navarre.

Alexander Tapia Perurena. 21 olerki aurkitu berriak*

Joxemiel BIDADOR (apailatuta)

POEMA BERRIEN AURKEZPENA

Balio dezatela hitz lakar hauek ondoan datozen Tapiaren olerkiak hala edo nola aurkezteko. Oraingoan ekartzen ditugunak 21 poema dira, lehenbizikoa 1922an argitara emanikoa eta azkenak orain arte agertu gabekoak, hau da, Iruñeko olerkariaren ekoizpen garai guztietako adibideak, Tapiak garai literario ezberdinak izan zituela sobera esatea badateke ere. Zergatik ez ziren lan hauek 1999an egindako bilduman atera? Bistan denez geureganaturik gabe genituelako. Oso aipatua da XX. mendearen lehenbiziko erdialdean idazten zuten euskal idazleek ezizenak erabiltzeko zuten joera, eta neurri handi batean horixe izan da arrazoia bere momentuan oharkabean pasatzeko. Bada, Olerki Egunetarako Alexander Tapiak aurkeztu zituen lan guztiak bere izen osoz agertu baziren ere, orduko prentsa jeltzalean agerturiko gehienak ez baitziren horrela sinatu, aski argia den Iruña'tar Alexander batez baizik.

Zailagoa izan da I'tar A. akronimoaz sinatutakoekin topo egitea, baina azkenean, horren zaila ere ez zen gertatu, poemak behin ikusitakoan. Horregatik badakigu Tapiaren olerkitegiak hirurogei lan inguru biltzen dituela, hau da, 1999ko bilduman agertu ziren 23ak, oriango honetako 21ak, eta oraino hemeroteketan hirugarren emaldia osatzeko zain dauden beste 17 bat edo. Neure ustez gehiago izanen ziren Tapiak utzitako lanak, tartean askotxo argitaragabeak, baina azken hauetatik hemen dakartzagunak baizik ez zaizkigu iritsi, eta ia ezinezkoa izanen da beste ezerrik topatzea. Prentsa idatziari dagokionean, antzeko zerbait gertatzen zaigu, eta askotxo dira Tapiak hitz lauz izkiriatu zituen kolaborazioak, 40 inguru, ia guztiak jada aipatu I'tar A. akronimopean ere.

* *Alexander Tapia Perurena, Iruñeko olerkaria, 50 urte,* 185-229.

Hona ekarri ditugunen artean badira Josetxo Azkonak jardunaldi hauetan irakurri zituen batzuk. Zaila da irakurraldi bat papereratzea, testuak bai, bistan dena, baina ez ekintza bera ere, ez bada grabazio baten bitartez, eta poeta iruñar honek beste poeta iruñar haren lanak irakurritakoan utzi zigun emozioaren oroitzapena guztiz gal ez dadin, bihoa hemen gure esker ona eta txaloa, izan ere, Azkonaren irakurraldia Tapiaren lana gehiago balioesteko tresna aparta izan baitzen, Tapiak bere poemei ematen zien errit-moari eta musikalitateari erreparatzeko modurik eraginkorrena alegia.

ALEXANDER TAPIA PERURENAREN OLERKI AURKITU BERRIAK

Argitaratuak

1922
«Usotxu bakuna», *Euzkadi,* 1922, 3048 zbk., 1 or.; *Argia,* 1930-II-16, 1 or.
«Emadan iria», *Euzkadi,* 1922, 3108 zbk., 1 or.

1924
«Usotxua», *Argia,* 1924-I-27, 1 or.
«Itxedondako artzaia», *Argia,* 1924-III-2, 1 or.

1930
«Geldi arren!», *Argia,* 1930-II-23, 1 or.
«Gizonaren biotza», *Argia,* 1930-VI-1, 1 or.

1931
«Orain da ordua», *Amayur,* 1931-VI-27, 4 or.
«Anaitasuna», *Amayur,* 1931-VII-18, 3 or.
«Sabini», *Amayur,* 1931-XI-28, 7 or.

1932
«Leitzako emakume abertzale batzakoei», *La Voz de Navarra,* 1932-VI-5, 1 or.
«Amaiur», *Amayur,* 1932-VI-13, 4 or.

1933
«Noiz ote?», *Amayur,* 1933-XI-3, 3 or.

1934
«Aunitz urtez», *Amayur,* 1934-V-4, 5 or.

Argitaragabeak

«Gau-ona nere errian».
«Erregingaia minez».
«Txakur txiki bat gorri ta beltz bai nuan».
«Urrikal akio urtzi».
«Oi aberri ederra».
«Lenengo iñara».
«Esadazu ama maite».
«Masail zurbil-batidun».

USOTXU BAKUNA[1]

I.- Eguzkia zilar
Itzalak zetozen;
Legunki, gentzaitsu[2]
Zurbilen gaua.
Maitasun eresik
Gozaro abesten,
Iturrirontz dua
Neska liraña.

Oi, lili mardula,
Zure maite-egarri
Orrek, negar-eraziko ditzu sarri.

II.- Aztore motz baten
Itz goxo-legunak
Usotxu bakunak
Zitun siñetsi...
Ene, amaika aldiz
Mamurru likitsak
Liliak zikintzen
Ditugu ikusi.

Oi, lili mardula,
Zure maite-egarri
Orrek, negar-eraziko ditzu sarri.

III.- Urtea igaro da,
Aztore ankerra
Ayendu zan egaz,
Nork daki nora?
Ilundu da mendia,
Ilun dago ibarra
Neskatil biotza
Bezin iluna.

A, lili gaxoa,
Negar, negar larri!
Zertan gelditu dan zure maite-egarri?

1 *Euzkadi*, 1922, 3048 zbk., 1 or.; *Argia*, 1930-II-16, 1 or.

2 Paketsu.

EMADAN IRIA[3]

Neskatilik ederrena
Mattia neretzat i,
Lilirik usaintsuena
Ere nitzat aiz, baiki

Ikustan aldiro nere
Biotz au bularrean
Ene matte kuttuntxua
Jauzika asten zakidan

Izpildun inguma ariñak
Nik ikusi zitinat
Lilitxuen bilalderan
Jorañez egaldaka

Bañan eztiñat ikusi
I añako pollitik
Ire aldean ezpaitun
Ipiñi daitekenik

Lili eder ingumatxu[4]
Neskatil ederrena
Begira ene biotz au
Igatik zoratua

Biotza ebatsi didan
Nere biotz goxoa!
Emaidan alik laisterren
Ba, ordañez iria.

USOTXUA[5]

Usotxua, usotxua
Arin-arin dijoana,
Laister egin, laister egin
Aize-zear egaka.
Iparraldetik elduta
Gure ozkarbian zagerz,
Negu beltzaren otzatik
Ego-aldera igeska.

3 *Euzkadi*, 1922, 3108 zbk., 1 or.

4 Tximeleta, pinpilapausa.

5 *Argia*, 1924-I-27, 1 or. Olerki honen aldaera bat zortzi urte beranduxeago agertu zen *Amayur* astekarian, 1932-X-8, 7 or.: «Usotxu urdin».

Arren, arren, usotxua,
Etzaitez jautsi beitira;
Arizti itzaltsu oyetan
Erne daude eiztariak.
Eta jautsi bezin laister,
Burrunbada izugarrian,
Lertuko dira batean
Eun izkilu deungeak.

Begira lepo oyetara;
Zenbait aldiz bereortan
Usotxu zuri-urdinak,
Eldurik ego aurka,
Egaltxuak birrindurik,
Bulartxua zilatuta,
Betbetan erori dira
Gogabe irabioka.

Arren, arren, usotxua,
Etzaitez jautsi beitira,
Arizti ta lepo oyetan
Zure zai eriotza.
Laister egin, laister egin,
Usotxu urdin eder orrek,
Beti gora, beti gora,
Ego aldera igeska.

Amaika aldiz, usotxu urdin
Eder ori, abiatu
naiz liluraren ortzean
Zorunarontz egaka.
Bainan laister, ai, biotza
Galenak[6] urratu eta
Uso bakuna bezala
Erori naiz lurrera.

ITXEDONDAKO ARTZAIA[7]

Itu-itun arditxoak,
Atsekabez beteak,
Gaxoak, bazkatzen zuten
Napar mendi-egitan.

6 Etsipenak, jeloskortasunak sortu desengainuak.

7 *Argia*, 1924-III-2, 1 or. Iruñako gotzai berri agurgarriari (egilearen oharra).

Artzaia galdua zuten,
Ta inguruko oyanetan,
Otso-super[8]-izuaren
Orroa entzuten zan.
Etorri izan zan negua,
Negu gordin-gordiña,
Mendi-aranak estaltzen
Zitun elur zapiak.
Eta ardi gaxo-gaxoak
Otzaren zigor latza
jasaten zuten: gorputzan
ta, ene! biotzean.
Bañan berri pozkarria,
Azkenez, etorri zan.
Lei-leiaz itxedondako
Artzai maite-maitea.
Laister etortzeko omen zan
Ardi gaxoengana,
Eusko menditako seme
Zan zetorren artzaia.

Aize leguna ber-beraz
Kurkatua[9] jayo zan,
Ta arditxoen ele bera
Erabiltzen zuena.
Oi, ura bai poz aundia!
Laister artzai berria
Elduko litzake. Berak
Ardoki epelean.

Bilduko lituke, baita,
Arduratsu ta leiaz,
Otso izu gosietatik
Zaituko lituke an;

Ta arturik altzo beroan
Esku leun maitekorraz,
Maiteki legizkieke
esanik itz samurrak,

Ayen ele ezti goxoaz,
Ayen ele ber-beraz,
Aman altzo biguñean
Umetan ikasia.

8 Super: harroa, hanpurus; basati.
9 Kurkatua: kulunkatua.

Olako zorion aundirik
Etzuten aspaldi izan,
Etzuten jasan bearko
Ba, luzaroagoan,

Beren aita ona ta artzaia
Kutunari axanpak[10],
Elkarri aditu ezaz,
Edesteko eziña.

Pozaren pozez jauzika
Zebiltzen arditxoak;
Otso superren bildurik
Etzanda artaldean.

Ta udaberri eldu zela
Zekusten, argitsua,
Egaleran zekarrela
Eguzki gotzaitsua

Eta orlegi ta liliz
Jantzitako belayak.
Ura bai poza! Arditxoak
Ordun bai zorundunak!

Zu zera, jauna, artalde onen zaitzera gure
Goiko jaun onak bialdutako artzaia.
Zuk, zure ulermen txit argitsuaz ta zure biotz
Maitale onaz, damagukezu argia.
Ludi gaxo onen oyan beltzetan bidegiteko
Berako degun argi diztikor bizia,
Ta gure gose –gogoetako gose-egarria–
Arinduteko, geren mintzoaz, alia.

Zure ardirik apaltxoenak jasotzen du gaur
Bere abotsa ongi etorri gartsua zuri eiteko
Ta egin digun idegabeko euskera gatik
Biotz-biotzez Jaungoikoa onesteko.
Zure goizaitza luzagotuko alda urte askoz
Jaunan aintzako ta geren gogo onurako.

10 Axanpak: estuasunak, larridurak, penak.

GELDI ARREN![11]

Gazte eder
Arroa,
Nora zoaz, gaxoa?
Zure kopeta alaia,
Euzki bezin argia,
Zergatik
Urduri
Dago orain ta beltzuri?

Inguma
Makala
Argirontz duan bezala
Jorantsu[12], aspertraka,
Zu atsegin bilaka,
Ta atsegin
Ostean,
Nazka utsa biotzean!

Au tamal
Mingotsa!
Atsegina dan motza!
Ene, lili igeskorrak
Tuzien[13] arantz gogorrak!
Gazte eder
Arroa,
Geldi, arren gaxoa!

GIZONAREN BIOTZA[14]

Gizonen biotz goxoa
Beñere asetzen ez da.
Neguko egun beltzetan,

11 *Argia*, 1930-II-23, 1 or.
12 Jorantsu: gogotsu, interesdun, desirati.
13 Tuzien, dituzuen.
14 *Argia*, 1930-VI-1, 1 or.

Gure ametsak lilitan.
Liliak badatozkigu,
Udaberriro dakarzku
Urrezko bere egaletan.
Ordun, poz gaude benetan,
Ondikotz, zein laister baña,
Galtzen duten, ai, usaña!
Gure ustekeri guziak
Orixe dira: liliak.
Artzen ditugu jorañez,
Atseden gerade urriñez,
Bañan eguna il orduko,
Iñartu dira betiko!

Ai, gure biotz gaxoa
Ziñez ez da ludikoa.

ORAIN DA ORDUA[15]

Euzkotarrak,
Orain da ordua!
Gora oro,
Bularra arrotua!

Azkatasuna
Euzki diztikorra
Dagerkigu
Ozkarbian, orra!

Euzkadiko mendietan, ortots
Baten antzera,
Anaitasun ojua dantzugu azkenez.
Au poz izugarria!
Noizpait euzkotar orok
Besarkatzen dute elkar, Aberri omenez.

Odolbateko gera, ele berdiña degu,
Izan dezagun ere gogo bat bakarra.
Zutik oro batean, eup,
Azkatasunarren!
Gure odola, tori, Ama! Su ta garra!

15 *Amayur*, 1931-VI-27, 4 or.

Euzkotarrak,
Orain da ordua!
Gora oro,
Bularra arrotua!

Azkatasun
Euzki diztikorra
Dagerkigu
Ozkarbian, orra!

ANAITASUNA[16]

Aberri
Maitea,
Ene biotz-lorea
Zure ortze ilunean
Izar bat agertu zan.
Euzkoen
Zoruna
Izan da anaitasuna.

Anaiak
Izaki
Ta elkar joka ankerki
Han aritu geranok
Jeiki gera guziok
Esaten
Batera
Entzun anaiak gera!

Amatxo
Maitea
Arren, poztu zaitea
Zu, ziñez, berpizteko
Gertu gaude emateko,
Euzkadi
Gurea
Geren odol osoa!

16 *Amayur,* 1931-VII-18, 3 or.

SABINI[17]

Gure irakasle
Sabin kutuna
Aberriaren
Ziñopa[18]:
Nik ere nai det
Egun onetan
Zuri lilitxun
Bat opa.

Ederrak dira
Lili ezeak
Ederrak dira,
Egia;
Laister, ordea,
Iñatu-eta,
Erortzen dira
Lurrera.

Negar dagite
Gure begiok
Olako egun
Itunan;
Negar ta malkoak,
Lurrindu ta arin,
Bai-doaz, baña,
Goi-goirantz.

Iñartzen diran
Lilitzu ilkorrak
Ez ditut, ez, nai
Zuretzat.
Beste motako
Lili iraunkor bat
Daskeintzut, Sabin
Kutuna.
Iñartzen ez dan
Lili iraunkorra
Aldin aundiko
Lilia:
Zure gogoren
Aldez, biotzez,
Jaunari nere
Otoitzak.

17 *Amayur*, 1931-XI-28, 7 or.

18 Ziñopa: martiria.

Otoitza, auxe da
Zenduen aldez
Eskañik eder
Onena!
Ta emaitz ori
Igorri nai det
Gaur egunean
Zugana.

LEITZAKO EMAKUME ABERTZALE BATZAKOEI[19]

Alde askotan igarotzean
Bultzian[20] Leizan gañetik,
Ao zabalik ari begira
Gelditu naiz arriturik.

Bai erri txukun, bai erri eder,
Alai ta zoragarria!
Etxe zuriak badirudite
Uso taldea an jautsia.

Bañan gaur etxe bakoitza zaigu
Lorez jositako ontzia.
Aien barrendik zerurontz doa
Atson aratz ta eztia.

Margoz ta usañez egutz garbia
Betetzen duten loreak,
Zuek zerate, kabi gozatsu
Ortako emakumeak.

Agur etxekoandre langilei,
Sendiko gotzon garbiak.
Eskeñi beti aberriari
Zuen biotzen zatiak.

Agur Leitzako neska lirañak,
Lore-sorta artz txukuna,
Aberri-ortze berdingabeko
Aintza ta edertasuna.

19 *La Voz de Navarra*, 1932-VI-5, 1 or.
20 Bultzia: trena.

Zuen ezpain me gorri oitatik
Ixuri beti oparo
Geren izkuntzan ezti goxoa,
Txoriek bezin gozaro.

AMAIUR[21]

Goraldu
Anaiak,
Napar zindo-zinduak!
Ementxe, bizkar ontan
Naparrarren il ziran.
Euzkotar
Epela,
Or dezu eredua!

Auzpeztu
Lur ori
Odol deunez da busti.
Askatasun-ziñopak
Dira or il ziranak.
Euzkotar
Epela
Or dezu eredua!

A, orain,
Au lotsa!
Naparra laidotua!
Gora oro ta jaurti
Uztarri donge ori!
Euzkotar
Epela
Or dezu eredua!

Goraldu,
Anaiak
Napar zindo-zinduak!

21 *Amayur*, 1932-VI-13, 4 or.

NOIZ OTE?[22]

Aren zai nagoka gau eta egunez.
–Badatorkidake, noizbait, gauz bedere?–
Dagit, nere baitan, goizean joranez[23].
Ta itxaroren izar pizten, berriz ere.

Ta gau illunean etzaten naizela,
Adiaka beti, biotza mindua;
Itxaro izar berriz itzaltzen zaidala,
Diot: –Berriz ere nauk atzipetua–[24].

AUNITZ URTEZ[25]

1. Irakasle maite ori, erkaba[26] agurgarria,
Euzko-elertin ortzeko eguzki distikorra,

Gure aberri gaxo onen abeslari goiena,
Biotzak sutan ain sarri yarri dizkiguzuna:

Egun ontan naiko nuke jaso nere abotsa
Abesti eder batean ustuz nere biotza.

Nere abots makal auxe apalegi da baña;
Zure iduri-aitziñean xoratzen zait mingaña

Idazkortz[27] ikarakorra, nere beatz artean,
Badabilkit une ontan dardaraz esmerean.

Nere txikertasunaren amildik so-dagitzut
Ta zuaitz larri-errotsu bezala arkitzen zaitut.

Sustraiak barnetzen dira lur sakonetaraño,
Giza begirik oraindik sartu ez diranaño.

Lurpe gelgarri aietan, gure endaren zuatsa[28],
Gure erriaren izate, ats eta gogo ilgaitza

22 *Amayur*, 1933-XI-3, 3 or. Tübingenen sinatua.
23 Jonarez: gogoz, nahikariz.
24 Atzipetu: enpainatu, gezurretan ari.
25 *Amayur*, 1934-V-4, 5 or. Kanpion irakasleari aren sortegunean (egilearen oharra).
26 Erkaba: patriarka.
27 Idazkortz: luma (idaztekoa).
28 Endaren zuatsa: arrazaren zuhaitza.

Zurrupatuz, daramate, zunbil urtetsu zear,
Adartza gaitz yoriraño, ta osto arol-mear[29].

Barna, da gero edatzen utsune neurgabean.
Orrela, irakasle, zakust nere idurimenean.

2. Ni, txepetx xume gaxoa, mendi beltzuritsuan,
Sasirik-sasi saltoka, nabil yoran sutsuan,

Lumatxo ñabar makalak yotzen dizkidalarik
Aize beltzak orroaka datorrela pozturik.

Gaur, ordea, nere egada gorago yoan nai du,
Zuaitz orritsurañotu ta aren barnean sartu.

Eta abaro epel ortan, pozkor, dut billatuko
Adartxo zibukarin bat, ta aren gain naiz yarriko

Ta gorputza lerdendurik, tink-tink atzapartxoak,
Lepoa zut, ta lazturik eztarri-lumatxoak,

Txorrotxio bat bedere, txinta samur-goxoa
Yaurtiko du mokotxo onek, ustuz arras gogoa.

3. Irakasle maite ori, erkaba agurgarria,
Zoriontsua litzake txepetx olerkaria

Bere abesti apal au atsegin balekizu,
Ta eskarron-irriño bat eskeintzen badiozu.

Ertilari esku oiek, oi, balezate artu
Ta maiteki aren luma leun ñabarrak laztandu...

4. Agur, irakasle: zure sortegun ontan, pozez
Diotsut: zaiko al zaitu Yainkoak aunitz urtez.

29 Arol: delikatu, ahul.

GAU-ONA NERE ERRIAN[30]

1. Zeru beltzuri dago,
Mendian elurra.
Beko arru sakonan,
Orma izugarria.
Utsubi baserria,
Esne bezin zuri,
Belaian yautsia
Elur mar dirudi.
Ateko sagarrondo
Zarrak, otz-ikaraz.
Eize-zakurra usmaka
Dabil arat-unat.

Ilunabar gorria,
Eguna da iltzen
Ilundiak yabetzen
Ludi ormatuan.

Baña argi il-agin auxe
Ez da ardurazkoa.
Iluntze onek badu
Oigabeko zerbait.

Iparrak irribarrez
Ari ala... Esan
Nezakela belaiko
Lurrunetatik ots,
Eres atseginek,
Mix-mix geltsuak ala...
Geldi igoten dirala
Egutz zear gora.

Biotzetan sortzen da
Alako pozorra,
Ludia bai dirudi
Dantza gale dala.

Ardail bizkorra dago
Baserri barnean.
Zer ote? Yakinmiña
Sor zait. Sar gaitezen
Ikus zagun zer gerta
Gure baserrian.

30 Mirentxu Agerrek –Jose Agerreren alabak– bere aitaren paperen artean topaturiko Tapiaren olerkia.

2. Au sukalde galanta,
Ta au giro epela!
Zuaitz añako enbor
Lodiak garretan.
Bai eder-atsegina
Negu gau batean,
Aitzak arrallakatu
Añako otz dagola,
Sutondoan exeri,
Garren dantza ariña,
Lazoki ta logalez,
Arasan zintzilika
Makina bat tresna.
Tupiki[31]-burniorik
Eguzki bezala
Islatzen dira azkarki,
Erauzten dutela
Erlantz itsugarriak
Zoko guzitara.
Supazterrean daude
Eltzeak pul-pul, pul.
Bazterrago, krispin gain,
Txingien erdian,
Zartagi epur beltzak
Abes, zirti-zarta.

Orra, txoko batean,
Zurezko apal gain
Andre suilak[32] lerroan,
Sabel anpatuak,
Irtirin apainegi
Neskatxen antzeko.

Anbat ikasi dute
Ilunabarretan,
Neskatxak doazela
Arin iturrira;
Aunitz ikasi dute
Ur garden txukuna
Mur-mur darorkiela
Sabel betetzen
Neska-mutil daudela
Erauntsiz goxoki,
Beren maite-axanpak
Esaten elkarri...

31 Tupiki: Burdin-urtua.

32 Suilak: pegarrak, erradak.

Orra danbolin jauna,
Arro-zaratatsu!
Garren artean dabil
Biraka, pin, pan, pun!
Abes dezagun orain,
Apal-zai gaudela:
«Ator, ator mutillak,
Gaztañak yatera...»
Gero zurrut egin-ta
Egingo dantzara.

Tira mutillak, tira...
Apari prest dago.
Orra, zuku ketsua
Mai gainean dago.
Jaiari dagokion
Apari goxo gaur:
Txistor puska ederra,
Txingar zerra bana,
Bixigu ozpin saldaz,
Osterontz erreki
Guri eta urintsua,
Arto-esne ugari
Gozagarri, ausarkiz,
Luzez, betestea.
Gaztain ler ein aña,
Biotz alaigarri dan
Napar-ardo beltxa...
Ta... aufa! Mutil koxkorrak!
Mizkerietatik[33]
Zenbat, ene gaxuok?
Yainkoak konta ala.

3. Apal ostean abes,
Dantza ta iyutika.
Nork edestu lezake
Katazka gogorra...!

4. Baña amatxi gaxoa
Alako batean:
Geldi oro, ezkilak
Yotzen gau erdia.

33 Mizkeriak: milikeriak, eztikeriak.

5. Ixo, ixo, orain da
Une argigarri.
Eresi samur dator
Zerutik gugana.
Aingerutxo txuriak
Elur, urre ta argi
Onela diote:
Yesus aurtxoa sortu
Zaigu gau erdian,
Aintza goian Yaunari;
Ta bakea beian
Biotz ona daukaten
Gizon guziei!

ERREGINGAIA MINEZ[34]

Erregingaia minez,
Nork negarrerazten?
Argitze bezin eder,
Pago beste lerden,
Ta min ar ezegeak[35]
Biotz pozketua[36]
Jan ta zilatzen dio
Ankerki geldige.

Bi zaldigurdi barne
Andere andia
Zaldunei billaldean
Ertsiki zaindua.
Inork al balekusa,
Arritzez lesake:
–Bai ziragarri! Ailitz
Napar-erregiña!–.

Buru estalki pean
Negarra dario,
Negar ixil, danetan
Negar mingotsena.

34 Tapiaren paperen artean agerturiko olerkia, Jose Angel Irigaraik gordea. Euskarazko aldaera inoiz argitara eman ez bada ere, honen itzulpena *Vida Vasca* aldizkarian atera zen 1958an (XXXV, 175 or.)

35 Ezegeak: asekaitzak.

36 Pozketua: (pozgabetua), atsekabetua, samindua.

Zinkuri[37] iges dagio
Alako batean:
–Ene Jainko maitea,
Nere nekearen
Andia! Ez ote da
Zaldun azarturik[38]
Beren erregingaia
Askatzeko lenbailen arin
Beren beso-lerrenaz
Ink larri ontatik?.

–Karlos, ene anaia,
Non ago? Agian
Zure etsai anker oiek
Illazi aute? Eiki
Gero ta areago
Ortan neok. Gaxo!

–Ta orain ulertzen dut
Zer zioa duten
Gaztelurik-gaztelu
Ni eramateko.
Ebatsi nai didate
Burestuna[39]! Ez ba,
Iñondik! Burestuna
Baño len, bizitza
Erauziko didate.

–Ni zenduz gero ordea,
Napar burestuna,
Nori egokioke?
Ene aizpari. Au
Bai oldozpen larria!
Nora naramaten
Badakust, beraz, ongi,
Ai, espe[40] naramate,
Noruntz? A, nork lesake?
Nere aizpa ankerraren
Gaztelura, ene
Izitze izugarria!–.

37 Zinkuni: kexa, negarra, lanturua.
38 Azarturik: ausartik.
39 Burestuna: koroa.
40 Espe: preso.

Illunbetik datoz
Sastakai odoltsuak
Zarrastatu naiez
Nere eztarri bakun au.
Ai eden[41] ilgarriak
Marraskatzen didate
Errainak dauneko.

–Ez, ez, at, gel, lekore!
Ez dut oraino il nai!
Urgazi[42] nazak, Jainko;
Erioz bildur nauk.
Ire Jetsemaniko
Nekean bildurrez
Dardaratu intzan Orrek,
Erruki akit. Ik
Aingeru bat ondoan
Ink artan, sorosiz–.
[...][43]

41 Eden: pozoina.

42 Urgazi: lagundu.

43 Olerki hau Tapiak idatzi zituen azkenetakoa dugu; Irigaraik gordetzen dituen paperetan arras zatitua agertzen da eta azken bertsio garbirik ez da; hauxe dateke argitara eman ez izanaren arrazoia. Edozein modutan ere, *Vida Vasca*-n agertu zen erdarazko itzulpena gure honetan falta den puska hau osatzeko baliagarri zaigu. *Luego miró por una rendija de su carroza. Una joven pastorcilla recogiendo las ovejas. Hasta sus oídos llegaros las canciones de amor de la pastorcilla: Cuántas lindas estrellas hay en el cielo, pero ante mis ojos querida mía, no hay ninguna que pueda igualarte en hermosura. Oh Dios mío, porqué no nací yo en un pobre caserío de estas abruptas montañas? Mejor que princesa quisiera ser la hija de un campesino. Entonces nadie me envidiaría, y viviría libre como esa joven pastora.*

Nintzake ura beste.
Mendiz mendi nenbilke
Nere maite minak
Gogotik abesten
Ura bezin arin,
Eper tzango gorria
Latz orri jostakin;
Muno oietan barrena
Nioake pozik.
Lakemen[44], irrits lore
Ez aiz neretako!
Azke bizi nai nuke
Loturarik gabe
Txorituen antzera
Zeru urdinaz egan
Adar garaienean
Jarri ta pozarren
Eguzki ederrari
Bizitz obeari
Urrindun loreai
Abes eten gabe
Au bizi poza! Kabi
Izkutu batean
Pago arro batean
Gorderik ipiñi.
Amets, amets, neretzat
Lakemenik ez da
Au bai zorigaitza
Beti espe nago
Orma artean itxia
Atxiki zaindua
Aitak gorrotatua
Aizpak aiertua[45].

44 Lakemen: atsegin.

45 Aiertua: gorrotatua.

Eguzkia zerorren
Ortzean emeki;
Zearka zegozkien
Izpi aulek diz-diz
Zegiten kaskoetan
Begiak itsutzen
Zituztela osoki.
Zaldunak gaintzen
Muno irritsua
Aratako aldean
Zuaitz kukulen gain
Gaztelu bat agertu
Zein ote? Jainko ona
Ageri den gaztelu
Ortez gaztelua.
Ai usotxu bakuna
Nora zaramaten?
Min atzaparretan
Erortzera doaz.
Gurdi leio estalki
Tartean begiratuz
Andereak ezautu
Bertan gaztelua
Zingurin bat itoki
Eskuz estali zuen
Musua ziola
Ikaraz beterik.

Galdurik naiz oraintxe,
Nereak egin du.
Ene aizpa anker orrek,
Burestuna nai dun?
Ots, ba; ez dun eukiko,
Ni bizi naizeno.
Burestuna lortzeko,
Bearra aiz lenago
Jainkok eman bizi au
Nigandik erauzi...
Ez dagioket uko
Ez, burestunari.
Aldegin zak nigandik
Jaun orrek neke au.
Ik nai ezkero ordea
Galduko dut batera
Bizi ta burestuna.
Aldegin zak nigandik
Jaun orrek neke au.
Ez baño nere naia,
Baizik irea biz.

Barazkaldi[46] aldean,
Iltzen eguzkia...
Blankaren biotzean,
Poza il da betiko.
Andre adur gaxo ori
Mindu al zaitezke
Iltzera zaramate
Gizon anker oiek
Erregingaia begiko
Aitzin garaietan
Gure erri zorunge au
Notin[47] zenuen orrek
Bai zauri izugarriak
Zure Napar itoan
Aragiak laister
Jaki zoazenak.
Zoritxarrezko bezin
Otzan andre orrek
Barka itzazu gogotik
Etsai urriezkaiak
Ta goitiko onespena
Arren erakarri
Bearrean bai dago

Zure Napar ori.
Zure ilkaitz izigarri
Gogaltzen dedala,
Agur dagizut, adur
Itseko andrea.

TXAKUR TXIKI BAT GORRI TA BELTZ BAI NUAN[48]

Txakur txiki bat gorri ta beltz bai nuan
Ilea luxe kixkur-kixkurtu zuan
Belarrik xutik, begitxuk beltxa ederrak;
Xangoak arin, jauzikor ta xauliak

Eder iletsu, axeriaren buztana
Bezin arroa nere txakurtxoarena
Pozez beterik, jauzi ta jauzi muturra
Alai zuala ura bai gauz xamurra.

46 Barazkaldia: eguzki-sarrera, ilunabarra.

47 Notin: pertsona.

48 Jose Angel Irigaraik gordetzen dituen Tapiaren paperetiko eskuizkribua.

URRIKAL AKIO URTZI[49]

Urrikal akio Urtzi
Utzul bedi len bai len

Ta ire lorean ez utzi
Etsai lerdez zikintzen.
Ta Urtzi lagun berreukiko
Berriz nere maitea.

Bañan itxaron! Berriro
Piztuko da euzkia
Urtzik, ire laguntzarekin
Berreukiko maitea.

OI ABERRI EDERRA[50]

Oi aberri ederra
Noiz arte daramakezu
Lepoan kate gogorra
Esku dongeak[51] sartu dezute
Biotz erdian aiztoa
Etzera il baña, jaso burua
Ta zautu etsai gaiztoa.

LENENGO IÑARA[52]

Iñar[53] zalui ori, berriz agertu aiz
Zeru oztiñean[54] egaka.
Ta ikus bezin laister, eztarri au asi
Zaidak atsegiñez txioka.

Ta zer ikusi duk? Zer berri dakazkik?
Zer gerta ari bazter oietan?
Ikusi ote duk udalen urdiña,
Neska begi eder, jostetan?

49 Jose Angel Irigaraik gordetzen dituen Tapiaren paperetiko eskuizkribua.
50 Jose Angel Irigaraik gordetzen dituen Tapiaren paperetiko eskuizkribua.
51 Dongeak: gaiztoak, maltzurrak.
52 Jose Angel Irigaraik gordetzen dituen Tapiaren paperetiko eskuizkribua.
53 Iñara: einara.
54 Oztin: urdin (zeru-urdina).

Esan, arren, emen nagokela aren zai
Besoak zabalik maitez laztantzeko.
Esan biotz oni poz ekartzearren
Alik laisterren etortzeko.

Gogoz dagorkiat ongi etorria,
Maite ta alaiaren geznari[55].
Ta Urtzik piz dezakan ortze-zolan pake-
Eguzki goxo ludiari.

ESADAZU AMA MAITE[56]

Esadazu ama maite
Urruti artan zer da?
Ortze ta mendi galurra
Batzen diran tokia
Bañan aruntzago oraino
Ezer dago? Ama, esan.

Zerua an baldin badago
Zergatik arat ez juan?
Bizitza itun-ituna da
Ortze garbi gutxitan
Erauntsi ta aize zakarrak
Elurra ta ortotsketak
Oñaziak naigabeak.

MASAIL ZURBIL-BATIDUN[57]

Masail zurbil-batidun[58]
Bakaldun[59] altsu baten
Alabeagaz, ames
Egin neban bein baten;
Astigar orlegien
Azpian jartzen giñan
Besotik oratuta
Maitero laztandurik.

55 Geznari: mezulari.
56 Jose Angel Irigaraik gordetzen dituen Tapiaren paperetiko eskuizkribua.
57 Jose Angel Irigaraik gordetzen dituen Tapiaren paperetiko eskuizkribua.
58 Batia: egonarria, pazientzia, eraman.
59 Bakaldun: monarka, errupe.

–Ez dut ez maite zure
Aitaren bakaulkia,
Ta bere urrezigorra
Enau zoratuten be;
Ta ingizko[60] burestuna
Zetako euki, barriz?
Zeuri, lora ederroi!
Maite zaitut bakarrik.

–Alper-alperrik zabilz.
–Erantzun eustan berak–.
Ilobian bizi naz;
Gabean izan ezik
Ezin naz zeu ondora
Egunoro etorri;
Maite zaitudalako
Etorriko naz beti.

Nere oñaze
Andienakaz
Zagidaz
Eurez abesti
Politak, txiki
Ederrak;
Luma zoliak
Erabilirik
Badoaz
Abesti oiek
Maitalearuntz
Egazka.

Euren bidea
Aurkitu arren
Gaizoak!
Abesti oyek
Atzera datoz
Alaka;
Alaka datoz
Eta ez dabe
Esan gura
Bere biotzan
Eurak ikusi
Dabena.

60 Ingizko: paperezko.

Ene maitea
Jaube[61] eztitsua
Ezin det aiztu[62]
Beñola
Zure gorputza,
Zure gogoa
Nereak izan
Zirala.

Zure gorputza
Gazte liraña
Orain ere euki
Nai nuke,
Gogoa baño
Lurrean itxi,
Nereagaz, ba,
Aski det.

Zurekin batu
Zurean sartu
Gura dau nere
Gogo onek,
Gorputzez, gogoz
Zugaz, betiko
Alkartuta, bat
Eiteko.

61 Jaube: jabe.
62 Aiztu: ahaztu.

LABURPENA

Alexander Tapia Perurena. 21 olerki aurkitu berriak

Alexander Tapia Perurena idazle iruñarraren 21 olerki argitaratu gabeak ateratzen dira. Egilearen egikera lirikoaren eta erromantikoaren isla dira.

Gako-hitzak: Alexander Tapia Perurena; euskal literatura; poesia; Nafarroa.

RESUMEN

21 poesías inéditas de Alexander Tapia Perurena

Se dan a conocer veintiún poemas inéditos del escritor pamplonés Alexander Tapia Perurena, reflejo del estilo lírico y romántico de su autor.

Palabras clave: Alexander Tapia Perurena; literatura vasca; poesía; Navarra.

ABSTRACT

21 unpublished poems by Alexander Tapia Perurena

Twenty unpublished poems by the Pamplona-born writer Alexander Tapia Perurena which reflect the author's lyrical, romantic style are presented.

Keywords: Alexander Tapia Perurena; Basque literature; poetry; Navarre.

Kattalin Umezurtza antzerki lana*

Joxemiel BIDADOR**

LENENGO ZATIA

I
Kattalin

(Zapia *altxatzen delarik, abesten ari da, zangoekin eres-neurria eramanez*).

Ene amatxo biotzekoa,
Gogoan zaukedazana:
Urrunago ta indartsuago
Maitatzen zaitudazana.

(Burua paretan irozo ta, begiak zerurontz jasotzen ditu).

* *Alexander Tapia Perurena, Iruñeko olerkaria, 50 urte*, 233-270.

** Antzerki lan hau Jose Maria Satrustegik topatu zuen Iruñeko Calderería karrikan Aretak zeukan liburudendan. Eskuizkribua Tapiaren beste paper batzuk ere biltzen zituen multzoki lotuan zegoen, nahiz ez dirudien interes handiegiko beste ezer zegoenik euskaraz eginik. Libretoa *Egan*-en eman zuen argitara 1985ean (*Egan*, 3-4, 1985, 217-260 or.). Jose Angel Irigaraik Tapiaren etxetik eraman ahal izan zituen paperen artean beste antzerki lan baterako zirriborroak daude, erdaraz nagusiki baina pusketatxoa euskaraz ere, Lartaun eta Onintze bikotearen amodio istorioa bilduko lukeena. Hona hemen aipu lakarra:
L. Jainkoak egin gintu
Bata bestendako.
Ludi osoaren aitzi
Zaitut maitatuko.
Betoz basati oiek
Ez dute moztuko
Zin artu batzen gaitun
Gure korapillo.
Nerea betiko
O. Zaituz maite
L. Nerea betiko
O. Ene biotza Lartaun
L. Beti zuretako!

Ene amatxo maitea, zein illun utzi nauzun mundu beltzuri ontan. Zu emen zinela, zorionekoa nintzen. Goizean esnatzen nintzelarik an ziñen zu, nere aurpegia musu gozoaz yazteko. Eskolatik itzultzen nintzelarik, ongi goxoak izaten ziren zure beso maitekorren besarkak. Ta arratsean, bildurti, geratzen nintzenean, zu nere ondoan bazinan, etzan batere bildurrik. Eta kantatzen ari zinela nere oatze bazterrean, pixkaka-pixkaka loak artzen ninduen.

Orain ordea, nere amatxo gaxoa galdu dut. Neretako ezta besarkarik, ez musurik. Beste umeak etxera itzultzen direlarik badakite an zai dagokiela amatxo. Ta nolako pozarekin yoaten diran aren magalera! Ni, berriz, etxeko garaia datorrela, illun-illunik kezkati ta bildurrez betea etortzen naiz.

Nere amatxo gaxoa il ondoan, aitatxok egun batez esan zidan: –Kattalin, laister ekarriko ditzut beste amatxo. –¿Beste amatxo? –egin nion nik–. –Bai, beste amatxo. Ez duzu esaten zure lagun guziek amatxo badutela ta zuk ez? Orra ba, egun batzuen buruan, zuk ere izango duzu amatxo bat. –Nola liteke ori, ordea? Nere amatxo zeruan dago, beste amatxo ez zen nere amatxo izango.

Aitatxo oldozkor gelditu zen, ta gero belaunetan artu ninduen ta musu bat eman zidan esanaz: gaxo Kattalin!

Egun batez, amatxo berria etorri zen. Berakin, nexka bat eta mutiko bat ekarri zituen. Baño amatxo berriak okendako zituen musu ta maiteki guziak. Bein mutiltxoa magalean zeukala, urbildu nintzaion ni ere, ta esan nion: amatxo! Ta ark burua nereganantz itzuli ta esan zidan gogorki: i ez aiz ene alaba. Isil-ixiIik atera nintzen sukaldetik, sartu nintzen xoko batean ta negarrari eman nion. Len, amatxorik ez nuen. Orain, berriz, maite ez nauen amatxo daukat.

Ene amatxo gaxoa, ene egizko amatxo, zeruan zauden amatxo kutuna, zure alabatxo gizaxo au, etxe ontako neskamea bilakatu da. Ez dut egon nai zugandik urrun. Zure neskatikoa ainbeste maite zenuen amatxo orrek, enaramazu zuregana. Emen, beti illun ta negargale nago ta.

(Negarrez asten da).

II
Kattalin, Joxe

JOXE (*Etxetik ateratzean). Negarrez,* orain ere, illupe ori. Errango zionat gero, amatxori. Obe unan lana egiten baun, alper aundi orrek!

KATTALIN *(Arin zutitzen da).* Ez, otoi, ez erran amatxori negar egin diatela *(Mantalakin begiak idortzen ditu).*

JOXE (*Iseka eginez). Ez* erran amatxori... Zertaz egiten din ba, zatar alaena?

KATTALIN. Zertaz egiten diaten? Ez dakit ba. Len ongi alaia nintzen. Zenbait aldiz, nere amatxo zenak erran zidakan etxe ontako alaitasuna nindukala. Orai, berriz, nere alaitasuna tokitan dago!

JOXE. No! Asi adi, berriz ere negarrez! Zeñek du kulpa negarontzi bat bai aiz?
KATTALIN (*Aserretzen asten da)*. Len ez nindukan ba! Norbaitengatik izain dek, orra!
JOXE (*Iseka* eginez). Norbaitengatik izain dek.. ZarpaiI-zikina. Gaie emendik zerri-bazka prestatzera. Ez aiz Iotsatzen olako soñe –mantal zatar– zikiñokin etxeko atean egoten. Jendeak zer esan bear duten ere, alako kitokume ate-ondoan ikusi-ta!
KATTALIN (*Aserre bizian)*. Ni kito-kume! Ez dek emen nere amatxo gaxoa. Ta zeñek dik kulpe esango diat nik ere, nere mantala zar, zarpail ta zikin ba zegok! Ondo zekik bañan ez ziot esango. Tori! (Zure arreba balitz...).
JOXE. Nork izan bear din? Ik, ik, alper alaena! Kito-kume zikina!
KATTALIN *(Aserre izugarriaki)*. Ni kito-kume! Gezurra, gezurra! Ta, i zer iaiz? Astaputz andi bat! Orra... Astaputz, astaputza!
JOXE *(Zematuz)*. Jo ta botako aut! IxiIlik gero!
KATTALIN. Ez diat nai! Astaputza, astaputza! Ta gañera bare-yale, orrela deitzen aute zure Iagunek. Bare-yale, bare-yale!
JOXE. No! Kito-kume zarpaila! *(Yoka asten zaio; neskatikoak bere burua zaitzen du)*.
KATTALIN. Berdin dek! Ez nauk izituko ta ez nauk ezta ixilduko! Kito-kume! Bare-yale!

III
Lengoak, Patxiko, Erramun ta mutiko mordoska bat

(*Eskuin aldetik agertzen da Patxiko)*.

PATXIKO. Jo! Orra gure Joxe azkarra *(atari dan lekurontz itzulita)*. Aizue, adiskideak! Atozte abudo! Orra non dagon Joxe, ongi arazotua gañera! Atozte abudo!
MUTIKUAK *(urrundik)*. Eldu gaituk.
(Patxikoren oiuak entzutean, Joxek Kattalin utzi du bakean. Au negarrez asten da).
PATXIKO *(Isekaz)*. Banekikan balientia itzela bañan ongi aski zekusat ire balentia guziak neskatikoak izitzeko gordetzen dekala. Mutikuekin ez akusgu orren ausarta, aatik *(Urbiltzen da)*. Zer egin diok Kattalini?
JOXE. Iri zer? Ez duk emen egitekorik.
PATXIKO. Jo nere solasak iretsi bearren naurek. Uste nikan baño bioztuna aiz. Zertaz jo duk Kattalin?
JOXE. Gogoa etorri zaidakelako. Gaie emendik. Ez duk emen ikustekorik.
PATXIKO. Aizak i, kontuz ibili gero! Badiat emen ikustekorik. Len, neskatiko polit bati mintzen dikan biurri zitalari ibazi bikaña emateko. Ta gero, atzendu zaik Kattalin nere lengusiñe dekala?
JOXE. Bai nai badik!
PATXIKO *(Kattalini urbiltzen zaio)*. Zer egin dikin astakirten orrek?
KATTALIN. O, ez duk ezer. Biok aserretu gaituk. Arrek kitakume deitu niauk, ta nik berriz bare-yale. Ordun yoka asi zaidak. Baño ez kasorik egin. Ni naiz erruduna, ez niokek orrelakorik erran bear.
PATXIKO *(Kattalini)*. I aiz erruduna! I beti bertzien gaiztakeriak ire gain artzen! Ez, i ez aiz erruduna. Bazekiat ongi aski nor deken emen erruduna. Kaiku ori, ta orrekin batean etxe ortan sartu ditukenak.

KATTALIN. Ixo, Patxiko, ixo, Jainkoaren izenean.
PATXIKO *(Joxe besotik atzi ta gogorki iñarrasten* du). Aizak, kaiku, berriz ile bat ukitzen ba diok Kattalini xeatuko aut.
JOXE. Utzak. Zer zaik iri *(bultzada batez baztartzen da)*. Nik egiñen diat nai diatena. Ta gogoa etortzen ba zaidak zanpatuko diat kitakume ori.
PATXIKO. Oraintxe ikusiko diagu nor izain deken zanpatua *(Joxengana doa aserre bizian)*.
KATTALIN *(Bien artean yarrita)*. Patxiko, Patxiko, otoi, ez yo!

IV
Lengoak

(Mutikoak sartzen dira laisterka eskuin aldetik).

I MUTIKO. Kaxo. Eldu gaituk. Bañan zer ari zerate? Auxen duk komedi! Mutur yoka? Tira, tira emen ez dugu aserren bearrik! Tira, baketu, ta gauden adiskide!
ERRAMUN *(Parretsuki)*. Ori duk! Ta aserretu nai duenak, nerekin kontuk garbitu bearra izain du.
MUTIKOAK. Ederki errana! Gora gure buruzagia!
II MUTIKO. Gora gure kaligorri!
ERRAMUN. E! Ze erran duk? Mille demonioa! *(Beti irritsuki, maukak goratzen ditu okondoraño ta ayeruka II. mutikua arrapatzera doa. Bat-batez, yauzi aundi bat dagi, baño une berean III mutikua lurrera botatzen da, ta onekin trabatu ta, II mutikua zalapartaka erortzen da. III mutikuagana doa)*. Madarikatua! Oraintxe ikusiko duk zer dituken atzapar ok. Arri! *(Yauzi dagi ta erortzen da)*.
GUZIOK *(Oyuka ta zalapartaka)*. Gora gure buruzagi! Gora gure errege lenengo kaligorria! *(II mutikua zilipurdi bat egiñik zutitzen da)*.
I MUTIKO. Aizak, adiskidea, atzeko aldean zilo galanta baduk.
ERRAMUN. Ene! Ageri alda?
MUTIKOAK *(Oiuka)*. Errege zarpala! Gure erregea atzeko aldetik urratu da! Bestelako erregea! Nola egin duk zarratako ori?
ERRAMUN. Nola egin diaten? Errango ditzuet. Baño..., adiskideak, onezkero eskola-garaia duk. Tira, erregeak agintzen ditzue! Guziak eskolara! Abudo gero!
JOXE. Ez motel! Zer eskola ta zer eskolondo! Egin dezagun piper!
PATXIKO. Ez yauna! Eskolara yoan bear gaituk!
ERRAMUN. Gogorakaka bat!
PATXIKO. Ia ba, kaligorri ortatik ateratzen dan gogorakaka ez da gauza onik izain.
ERRAMUN. lk zer dakik! Ona nere gogorakaka: goazen sagarrak ebastera!
GUZIAK. Gora zu! lupa! Gora kaligorria!
PATXIKO. Banean kaska gogor ortatik ez litzakakela gauza onik aterako!
JOXE. Aizak ik, baño, non dituk sagarrak?
ERRAMUN. Bazekiat, bai non dituken, ongi ederrak alere! Nere kasko adiñekoak!
JOXE. Orren gogorrak ere baldin ba dituk, ez dik balio.
ERRAMUN. Joxe..., kontuz ibili gero! Gorri-gorriak ta gozo-gozoak...
JOXE. Jo, nai ago diat samiñak...

ERRAMUN. Guzitatik baduk... Tira, nai duzute jakin non diren ala ez?
GUZIOK. Non, non? *(Erramun inguratzen dute)*.
ERRAMUN (*Arro, arro, beatza erabiltzen, ta abots aztunaz*). *Mis queridos niños*, gure maisu gaizoak dion bezala...
JOXE. Bai! Ao betez *mis queridos niños*, ta gero zigarroa artu ta gibeleko aldea xautu.
ERRAMUN. Iri bai, Astaputz alaena! Galtza-gorri makurrago baiaiz!
JOXE. Jo, i ere ez ago urrun!
MUTIKO BATEK. Tira, tira... Zer ai gaituk emen denbora galtzen! Atso berritxinak dirudizue. Non dituk ire sagarrak?
ERRAMUN. *Mis queridos niños*...
JOXE. Bego erdera zatar ori! Naikoa diagu eskolan!
ERRAMUN. Gaye, gaye, erraiok ori don Restitutori.
JOXE. Bai ba; ez diat batere bildurrik.
ERRAMUN. Ik? Ziriñe!
MUTIKO BATEK. Asi gaituk berriz ere? Demoni berritxuek! Sagarrak bela! Gañerakoan banik!
JOXE. Gaye nai baduk. Ez dugu kontra egiten.
MUTIKO BATEK. Ba nik ba. Zoazte zuen berritxukeriekin.
ERRAMUN. Ago, ago. Bazetozek sagarrak, *mis queridos niños* erran gabe gañera.
MUTIKO BATEK. Tira ba, gelditzen nauk.
GUZIAK. Non dituk, non dituk? *(inguratzen dute)*.
ERRAMUN. Larraldeko bordan.
JOXE. Tokitan zeok!
ERRAMUN. Ago ixillik tetela! Bai baita belai borobil bat Apeziturriko bidean, bordaren arateko aldean! An dituk nere sagar galantak.
JOXE. Ireak diok?
ERRAMUN. Bai, gizona. Ikusiko duk istant batez.
PATXIKO. Sagarrak galantak izain dituk; baño zakurra ere ongi galanta duk... Aantzi al duk?
ERRAMUN. To, egia! Ta ezta errex nik aanztea. Ark egin bait zidekan gibeleko aldeko tarrata.
PATXIKO. Ederki egiña! Zertaz sartu bear intzen besteen sagarrak ebastera?
ERRAMUN. Zer zaik iri? Joan den igandean ukan. Bezpetara piper eginda, abiatu nindukan Larraldeko bordako sagastira. Nere baitan egin nikan: gaur, igandea, aitatxi zaar ez beste guziak errian izain dituk, bezpetara etorriak. Bear baduk amona ere an izain duk; bañan ainbat axolik neri zaar oiengatik. Zakurra duk makurrena. Otso uzu bezain azkar omen duk. Bildurgarria duk oso. Artemintan, mandatu batekin yoan nindukela, ene izialdia!, erra guziakin saingaka asi zitzaidakela. Nolako ortz zorrotzak! Mingain gorri ta apartsu ageri zitzaiokan, ta bazirudiekan begi izigarri aitatik sua botatzen zikela. Bearrik lotua zegokela! Pasatzerakoan, nere kolkora: atx! oraintxe katea autsiko balikek... gaxo Erramun! Bañan bear baduk, gaur ere, lotua izain duk nere kolkorako esanik, yarraitu niokan bideari. Eldu naiz belai esiko elorrietara. Kirika egoten nauk luzaro. Ez duk iñor ageri. Non ote duk zakur izigarria? An dituk sagar galantak, gorri-gorriak, nere kasko adiñekoak. Ortxe zegok balengoa, baño gauez igarotzen banauk ikus nazaketek. Azpiko ola poliki-poliki ateratzen diat, ta arrastaka banik belar luze artean esi-ondotik. Ona sagarrondo bat, ongi ederra gañera. Pisuakin

ia lurra ukitzeraño makurtzen dira adarrak baño obe izain duk sagarrondora igotea. Betireki batez gañean nauk.

Asten nauk ariñeketan, ta instant batez kolkoa bete-bete daukat. Arranoa! Galdua nauk! Norbait eldu duk. Nor ote? Orra! Patxiriko Txomin duk. Zakurra saingaka asi zaiok urrundik. Igaro duk. Ez nauk ikusi. Oberena, zakurra Txominekin ari dukela itzuri. Sagarrondotik yautsi ta tarrapataka abiatzen nauk, tximista bezala, balengorontz, baño arbazta batekin zangoak trabatu ta buruz beiti erortzen nauk. Nere lapurketaren erdiak kolkotik iges egiten zidak. Altxatzen nauk. Sudurratik odola zetorkit. Ene, galdua nauk! Zakurrak ikusi niauk. Bazetorkidak yauzika belar luze artean. Tira, balengora! Emen duk, emen duk! Yauzi batez igarotzen diat balengoa baño, zakurra madarikatua!, olen artetik muturra aterata, rau!, atseki bat botatzen zidak.

MUTIKO BATZUEK (*Izituak)*. Ta arrapatu induan ?

ERRAMUN. Bai ta ez.

JOXE. Gezurra duk! Nola litekek?

ERRAMUN. Aixe, ara: rau!, bota zidakan atsekia, ta gibeleko aldetik zerrenda bat eraman zidaken ortzeen artean. Laisterrari utzi gabe, gibelera beatzen diat. Ortzetatik nere praken zerrenda askatu gabe, iñel guzian eragiten ziokan *grru* egiten zikela. lrulegiko malda igoraño ez nindukan gelditu, ta andik arrika eman niokan.

PATXI. Ta gero, etxera joan da, amak, makilekin, gibeleko aldea berotu.

ERRAMUN. Bai to! Beiak bazkatzen ari nindukela, iltze batekin egiña ukela erran bai niokan.

PATXI. Sobera luze duk ire kontua, egia izatekotz.

ERRAMUN. Ez jauna. Zer uste duk gezurti bat neukela?

PATXI. To, ez zekiat batere, baño amari beintzat, ziri ederra sartu iokan.

ERRAMUN *(Arras bero)*. Ori beste gauza bat duk!

JOXE. Baño, zer ari gaituk emen? Jo dezagun norabait.

ERRAMUN. Ni nauk emen buruzagia! Tira, guziok Larraldeko bordara.

JOXE. Ik zakurrari kont-egiten badiok, bai.

ERRAMUN. Demoni kikiIa! BiIdur aiz? Geldi adi gauza ez baiaiz!

JOXE. Ni bildurra? Tira guazen ikusiko diagu nor duken balientia.

ERRAMUN. *Marchen*! Gure maisuak dion bezala. Guziak sagarrak ebastera!

PATXIKO. Ez, ni, eskolara!

BI MUTIKO. Ni ere bai. Ni ere bai *(Erramunengana doazi)*.

ERRAMUN. Bai nai baduzue. Goraintzik don Restitutori. Tira, *marchen*!

(Erramun ta bere jarraitzaleak eskuin aldera abiatzen dira. Patxi ta bere aldekoak, ezker aldera. Une ontan, eskale bat agertzen da. Guziak gelditzen dire).

V
Lengoak ta eskale bat

JOXE. To, emen duk kamisika.

(*Kattalin yarria dago ate ondoan. Eskalea ikusirik etxean sartzen da. Eskalea ate aurrean gelditzen da*).

ESKALEA. Ai Mari Puisima!

MUTIKOAK (*Ari begira irri egiten dute*). Ai Mai Puisima!
ERRAMUN. Sordos también si son ya te oirán!
KATTALIN (*Arta buru bat ematen dio*). Tori.
ESKALEA. Gracias, guapa (*zorroan sartzen du*). Anda, salada, dile a tu madre a ver si tiene una camisica o un pantalonico (Kattalin sartzen da).
JOXE (*Erramuni*). Aizak emayok ire prakak, berdin zulatuak bai dituk.
ERRAMUN. Bai to, ortaxeko dizkiat. Berri-berri dituk. Amak konponduko zizkidak.
KATTALIN (*Eskaleari etxetik ateratzen*). Amatxok esan dit deusere ez dugula.
ESKALEA. Qué dices? No entiendo.
ERRAMUN. Pa ti que no tiene camisicas.
ESKALEA. A tí quién te manda meterte donde no te llaman gandul! Demasiau intiendo lo que me ice!
ERRAMUN. Cuántas camisicas te necesitas pues tú, en todos las casas: una camisica, una camisica.
GUZIAK (*Mutikuak irriz aja asten dira*). Kamisica, kamisica!
ESKALEA (*Arrunt aserre*). A la escuela holgazanes! Sinvergüenzas, vaya una educación que os dan!
ERRAMUN. No entender nosotros esa lengua, en baskuentze si no te hablas, igual es si te calla.
GUZIAK IRRIZ. No entender, no entender. Kamisica, zarpalu!
ESKALEA. Granujas, al primero que agarre le voy a romper las costillas *(Makilakin lurrean, jotzen du iñal guziz, ta mutiko guziak laisterrari ematen diote. Eskalea ayen gibeletik doa)*.
MUTIKOAK *(Urruntzen)*. Kamisica, belarrimotza, zarpalu, zorritzu!
ESKALEA *(Ayenatzen da esanez)*. Malditos! Como os coja, ya os enseñaré yo a burlaros de los pobres...

VI
Kattalin, Mikela (ugazama)

KATTALIN *(Ayenatu diren aldera joanik begira gelditzen da)*. Diabrua bano makurragoak dira mutil biurri oyek. Piper egin, sagarrak ebatsi, eskaleei iseka egin...! Ene! Ez zaizkio ba anker oiek arrika asi?
MIKELA (*Etxetik ateratzen)*. Ori dun! Oixe dun patxada! Olaxen egoten dun alperkerian goiz guzian? Bazirudin etxean lanik ez dunela. Olloei eman dien bazka?
KATTALIN *(Eztitsu)*. Bai andre, bai, aspaldi.
MlKELA. Piroak eraman ditun errekara?
KATTALIN. Bai andre, baita.
MIKELA. No bada. Galtzerdi oiek konpondu. Baño... arin ibili! Eguerdiko egiñak ez paditun..., ixeatuko aut! *(Galtzerdiak ematen dizkio)*.
KATTALIN. Bai andre, bai.
MIKELA. Zer unan emen aixtian ?
KATTALIN *(Izitua)*. Mutiko aldra baitzen emen. Eskale bat etorri da ta aiek iseka ein diote ta...
MIKELA. Ta, ta, ta... Toteldu aiz ala! Ez diñat ori erran nai! Ta eskalea etorri baño len?

KATTALIN. Ordun... Joxekin ari nintzen.
MlKELA. A, Joxekin ari unan! Berriz ere aserrazi dun? Bañan... ik negar ein dun! Ez dikiñat erraten negar ez egiteko! Erran, negar egin dun?
KATTALIN. Oi, ama, barkatu...
MIKELA. Ordun, egia dun, e?
KATTALIN. Bai andre.
MIKELA. Sutsune, ez duna! Ta zertaz egin dun?
KATTALIN. Joxe ta biok aserretu gera.
MIKELA. Yakina! Ik zirikatu-ta...
KATTALIN (A*usarki)*. Ez ama, ori ez!
MIKELA. Ago ixillik! Ik zirikatu, ta gero negar egin.
KATTALIN. Oi ama, au lana!
MIKELA. Bai, asi, asi negarrez, berriz ere. Nai dun sapaiko gela illunean sartzea? Milla aldiz bedere erran dikiñat etxetik bialiko autela negar egiten ba dun.
KATTALIN. Ez, ama, ez dut eginen.
MIKELA. Erran ba, zer egin dion Joxeri?
KATTALIN. Ez naiz ausartzen.
MIKELA. Tira abudo, bestela sapaira.
KATTALIN. Biok aserretu gera ta...
MIKELA. Ta zer?
KATTALIN. Ta yoka asi zait.
MIKELA. Oixen, ik deusere egin gabe yoka asi zain. Zein ederki antolatzen ditun gauzak! Ik ere zerbait egingo ionan. Zer egin dion?
KATTALIN. Ura asi da.
MIKELA. Aski dun! Erran, bereala, zer egin dionan!
KATTALIN. Ark kitokume esan dit...
MIKELA. Kitokume? *(irriz)* ja, ja, ja... Ongi errana dun. Ta ik, zer erran dion?
KATTALIN. Ordun, nik, amorratu naiz, ta esan diot astaputza ta bareyale.
MIKELA. Alke gabekoa; ori erran bear ionan ba? *(arrunt aserre)*.
KATTALIN *(biziki)*. Ura asi da! Aski zuen kitakume ez erratea!
MIKAELA. Nabarmen alaena! Olako amorruakin erantzuten dun? No *(zartako bat ematen dio)* ikas zan ire miiari kontu egiten *(etxean sartu dala)*. Zer ikusi bear ote dugu oraindik neska biurri onekin?

VII
Kattalin, Irene (adiskidea)

(Kattalin, yarririk, negarrez ari da. Irene agertzen da. Gelditurik, begiratzen dio, errukitasunez).
lRENE (*bere baitan*). Gaxoa! Etxe ontan ez du gauz onik eginen. Olako neskatiko apal, bigun, ta polita ta etxe ontan ez dute ikusi nai. (*Urbiltzen zaio, samurki*) Kaxo, Kattalin. Zer dun? Negarrez ari aiz? O, ez negar egin, ta esadan zer gertatzen zainan.
KATTALIN (*Ixiltzen da ta begiak idortzen ditu*). Ongi etorri Irene maitea.
IRENE. Zer dun, gaxoa? (*Aren ondora agertzen da ta maiteki egiten dio*). Tira, erraion zure adiskide maiteari.

KATTALIN. Oi, Irene, zertako? Ez du balio. Ergela bat naiz. Ez niñan negar egin bear.
IRENE. Baño negar egiteko zion bat izanen dun.
KATTALIN. Ez da deus. Negarrontzi bat naunela diote, ta ez dun arritzekoa.
IRENE (*Besarkatzen du*) Zein ona aizen! Badakit zer dunan. Ikusi diñat mazel gaxo ontan zartako galanta artu dunela.
KATTALIN. O, egi, ikusi al dun?
IRENE. Bai, kuttuntxo ori, ikusi diñat. Baita entzun ere. Etxe ontan iñork ez au maite.
KATTALIN. Alaxe dun. Neretzat maitasunik ez dun. Neretzat mukerkeri baizik ez dun.
IRENE. Gaxoa! Bai urrikari enetxoa!
KATTALIN. Esker milla, Irene. Zure solas ta maitekiak on egiten ziotek nere biotzari.
IRENE. Zein zoritxarrekoa zeran!
KATTALIN. Andrago banindun... baño neskatiko aul bat baizik ez naun.
IRENE. Zer eginen uke?
KATTALIN. Neska tarrotua banindun, etxe ontatik aterako ninduken betiko.
IRENE. Baño nola? Nora yoanen intzake?
KATTALIN. Neskame yoanen ninduken, Iruñera.
IRENE. Ene! Elizaldeko alaba, neskame!
KATTALIN.Elizaldeko alaba, Elizaldean neskame izatekotan, obe din bestekoenean egotea.
IRENE. Tira, tira, gaurti burutik yogai txar oiek.
KATTALIN *(Bere ariari yarraituz)*. Ez niñan alakorik pensatzen. Nik Larraldeatik iges egin! Zenbait aldiz erraten zidanan nere amatxo gaxoak: Katalin, i aiz etxe ontako erregiña, ta egun batez i izanen aiz Larraldeko etxeko andrea. Ala izanen zitzakenan amatxo bizi balitzan; baño ura ilez gero etxean sartu ditunak ez niauk ikusi nai.. Zer egin bear diñat, ba, guziok beti erristan ematen ari bazaizkidan?
IRENE. Kattalin, entzun ondo: ez geiegi larritu. Izan adi beti ona. Kalte egiten badikiten, ez kasorik egin; kalte-ordez, ik beti ongi egin. Orixe bezelakorik ez dun besteen biotzak samurtzeko, ta Yainkoak ez au atzenduko. Uste diñat gauzak laister aldatuko ditunela etxe ontan.
KATTALIN. Esker mille, Irene. Ire esanak beteko zitiñat. Nere amatxo gaxoak zerutik lagunduko niauk.
IRENE. Oixen bai! Nola galetsiko din bere alabatxo kuttuna? *(Zutitzen da. Kattalin ere, eskua artzen diola zutitzen da)*.
KATTALIN. Baoa? Au atsekabea! Ez zekin nolako laguntza ekarri dionan nere biotz gaxo oni. Orain, berriz bakarrik gelditu-ta, illunduko zaidan.
IRENE. Biotz on! Itundasunak menperatzen baau, jaso begiak zerurontz. Pentsa ezan antxe dagola ire amatxo ta esaiozu aren omenez pozik artzen ditunala etorriko zaizkiñan naigabe guziak. Gogora zan zerutik irriño goxo bat egiten dikiñala ta bere eskuz Yainkoari eskeintzen zionala zure oparia. *(Gerritik elkar artuta badoaz ezker aldera)*.
KATTALIN. Oi, zure solas ederrak biotz erdian yosiko zitiñat. Ez zaidan iñor zu bezala mintzatu. Indar berri bat etorri zaidan, ta nere amatxoz oroiturik, aisago yasango diñat nere zoritxarra.
IRENE. Agur, enetxo *(musu bat ematen dio)*.
KATTALIN. Agur. Etorriko aiz laister?

IRENE. Bai, maitea, pozik etorriko naun.
KATTALIN. Esker mille.
IRENE. Agur, kuttun ori.
KATTALIN. Agur, urrena arte.

VIII
Kattalin

(Berriz jartzen da ta galtzerdiak konpontzen asi).

Egia dio Irenek. Kalte egiten badidate ere, nik, beti, ongi egin. Bañan ez diñat asmatzen nola. Joxekin edo Lolita, etxeko señoritekin jostetan asten banaiz, belaxe bialtzen naute, zatarra naizela esanaz. Erausian ari direla, eleketan sartzen banaiz, *ik ez dun emen ikustekorik* esanez ao zabalik uzten naute. Supazterrean ari direla, ni, zoko batean aaintzia bezela egon bear. Txakurtxoa, gure Txiki polita urbiltzen bazaie, besarka ta musuka ibilliko dute, neretzat, ordea, ezta musurik. Baño ez naiz aserre Txikikin, ez oixe! Ongi maitekorra da! Onek, bedere, besteak bezenbat maite nau. Noiz nai nereganatzen da, ta magalera xalto eginda, ederkizka milikatzen dizkit mazelak. Gaixo, Tiki, onek, beintzat, musukatzen nau. Ta mandatuz igortzen nautela, nerekin etortzen da pozik xaltoka ta zalapartaka.

Egia errateko, aitatxok ere, noizbeinka belaunetan artuta, laztantzen nau, baño abudo aski etorriko zaizkio bertzek bekaizkeriz: *atatxo, musu bat neri*, ta ni, jakiña, alde egin bear. Baño arrazoia du Irenek: muxintzen banaiz, makurrago izain da. Kalteordez ongi egin. Nola egin daiteke ordea ori? Ireneri galde eginen diot. Baño uste dut orrek auxe erran nai dula: erriatan ematen badidate, ez aserretu; illundu bearrean, alai egon. Jone burlazka asten bazait, nik ez kasorik egin. Baño, ene!, berriz kitokume erraten ba dit... Amatxo, lagun zadazu olako gogorkeria eramaten.

BIGARREN ZATIA

I
Lolita

(Ederki apaindua, etxetik ateratzen da).

LOLITA. Ea zerbait aantzi zaidan? *(Bere buruari begiratuz).* Ez dut uste. Eraztuna..., eskumuturrekoa..., Iepokoa... Arras ongi! Ederkisko nago soñeko berri onekin. Oñetakoak ere ez dira nolanaikoak. Orain... aita or ote da? *(Ateari urbildu ta barnera begiratzen du).* Ez, ez da ageri. Tira ba *(sakeltaoa ideki ta ispilluari beiratuz, ezpainak gorritzen asten da, noiz-beinka etxe barnera begiratzen dula),* i Ikusiko ba nindu... Utikan! Gizon zakar oiek... Zer dakite oraingo modaz? Egongo gera neska ttuttunak bezala! Alajaña! Ara Etxenikikoak, ez dira ez plazan agertuko musua apain, apain egin gabe. Egia aberats okituak direla. Automobila ere badute, ta uda amaituz gero, Madrilera joaten dira bizitzera. Oixen da suertia! Ta egon zaitez emen, beti bei ta

txerri artean, mendi zoko ontan, noiz nai leporaño lokatzetan sartzen zarela. Ni ez, segurik; zerbait asmatuko dut emendik alde egiteko.
Baño besteak ere badakite beren buruak apaintzen, baita aurpegia poliki margotzen. Orra Iribarneko Lutxi. Zer da neska potoka ori? Esne saltzale txar bat besterik ez da, ta arin-arin doaiela, panpin polita bezala, jende guziak itzulikatzen zaizkio. Eta Martintxoneko neskak? Noiz nai ikusiko dituzu landan arto jorran. Badakigu, ongi aski, zer diren Martintxoneko yendeak: nekazari kaxkar batzu baizik ez dira. Lanean ler-egin ta baba txar batxu ta gasna pittin bat jateko aña doi-doi irabazten dute. Ta ikustekoak dira neskak, igandetan, plazan agertzen direla: soñeko izigarri politta, sedazko galtzerdiak, oñetako xuriak, iIle arro, ezpain gorri, aurpegi txukun... Tori! Lenengo mallako señoritak esango zenuke. Ta Larraldeko alaba azalduko da neska erremexa bezala, e? Ez oixen! Zer da Lutxi, zer Martitxonekoak ni baño geiago? Oien ondoan milla aldiz gorago naiz.

(Urras batzu aditurik, gibelera beiratzen du, arras izitua. Tarrapataka etxerontz asten da, ta une ontan Kattalin, sone soinean aitzurra agertzen da).

II
Lolita, Kattalin

KATTALIN. Ene! Zer dun, Lolita?
LOLITA. Demoni ilupe! Izialdi ederra eman didan! I aiz?
KATTALIN. Jesus...! Orren itxusi naun, nigatik orrela izitzeko?
LOLITA *(Isekaz)*. Bai zera! Ona etxeko aingeruñoa! Utikan, zatar ori! Ez dun ori. Aita eldu unala uste bai niñan.
KATTALIN. Auxen dun komedi! Orrela izitzen aiz, aitatxongatik? *(Arriturik urbiltzen zaio)*. Ene bada! Egundano! Au bai andereño apaña! Errege baten alaba zirudin! Orain entenditzen diñat ire bildurra. Olako ille arro, ezpain gorri ta mazel izineztatuakin, ez aiz aitatxoren aitziñean azaltzera ausartzen, e?
LOLITA.Ta iri, zer?
KATTALIN. Deus ez neri. Baño, bildur izateko dun bai. Aantzi al zain joan den igandean aitatxok eman zikiñan sermoia?
LOLITA (*Arrunt aserre, zangoz lurra jotzen dula)*. Bai nai badin! Ta berriz kontu ori ateratzen badidan..., xautuko aut!
KATTALIN. Ene bada! Ikusteko litzaken alako señorite galanta, mutil kankail bezala, neska zirtzil bati joka lotzea. Gañera..., obe dun ez asi, esku zuri, legun, eder oiek zikinduko litzaketen nere zarpa zikiñekin. Obe din Larraldeko andereño pertxentak bere lagun apainengana joaten ba dun...
LOLITA. Joanen naun, bai, ta i emen geldituko aiz bekaizkeriz amurratzen.
KATTALIN. Bekaizkeriz? Ez noski! Ez diñat errain ez litzaidakenela atsegin izain nere burua apain-apain egin ta ederki jolastera joatea, baño etxeko lanak egiten egotea agintzen bazidaten, emen geldituko naiz, batere zurrundu gabe.
LOLITA. Apaindu dion? Kakamarro zikinen bat gauza al dun, ba, bere burua edertzeko?
KATTALIN. No, kakamarroak ere, Jainkoak iñak ditun, ta Ark eman eginbearrak betetzen zitizten.

LOLITA. Bai ba; yende guziak iguindu, ta ekin egiten dunena, irekin ere egin bear litzaken: zango pean lertu!
KATTALIN. Arritzekoa dun Lolita, zu bezelako andereko polita olako asmo biurri izatea. Baño ez uste, ez naun zapuztuko. Jolasketa ederra opatzen dikiñat, zure lagunekin.
LOLITA *(Bere kolkorako)*. Ergeldu egin da noski. *(Katalini)* Esker mille. Bañan, egia ote ez naunela gorrotatzen?
KATTALIN. Gorrotatu? Jesus, ori bai pekatu gogorra! Nere aizpa gorrotatuko diñat ba? Nere aizparekiko maitasun baizik ez diñat.
LOLITA. Gezurra dun! Badakin ongi aski nik ez autela maite-ta.
KATTALIN. Gezurra? Ezta...! Orra: nik zarpail bat baizik ez naiz... Ez zeuzkanat ire soineko eder ta bitxi bikainak, baño badiñat zerbait iri eskeintzeko.
LOLITA. Egundaño! Egia ote? Ta zer da?
KATTALIN. Alorretik eldu nindunala, Jauregiko etxekoandrea ikusi diñat. Ark eman zizkidak bi goxo. No, bat iretzat dun, bestea Joxerentzat gordeko diñat.
LOLITA. Bañan... zer ari aiz? Goxo oiek iretako emanak ditun.
KATTALIN. Nereak ditun, eiki, bañan nik ematen dizkitzuet. Ez ezetsi, otoi, nereak ditunelako...
LOLITA. Auxen dun komedi! Beti irainka ta joka ari gatzaizkin, ta...
KATALIN. Ez zaidan axolik. Tira, artu.
LOLITA. Ez, ez diñat artuko. Arritzen naun.
KATTALIN. Lolita, pittin-pittin bat maite banaun, artu. Ez aiz biotz gogorrekoa, artu, otoi. Egin zan amatxok ematen dikinela. Ark añako gogo samurrez eskeintzen dikiñat.
LOLITA *(Ezbaian)*. *Baña*... ez zekiñat...
KATTALIN. Artu, Lolita. Uko egiten ba didan... ittunez geldituko naun. Artu, otoi.
LOLITA. Ikasbide ederra ematen zidan. Kattalin, gaurdanik nere gorrotoarenak egin dik. Tira, zure goxoa artuko diñat. *(Kattalinek eman goxoa artzen du)*.
KATTALIN. Esker mille, Lolita. Bai poz andia ematen didanena.
LOLITA. Lotsaturik negon. Ni baño obeagokoa aiz. Une ontatik nere aizpa kutunatzat artzen aut *(Besarkatu, ta musu ematen dio)*.
KATTALIN. Oi, Lolita, nere zoriona! Baño...denbora galtzen ari naiz. Gaye, gaye orain ire lagunengana, ta ondo jolastu.
LOLITA. Agur, Kattalin; gero arte.
KATTALIN. Agur.

III
Kattalin

(Zerura begiratzuz). Zuregatik egin dut auxe, amatxo maitea. Ez al da ongi egina? Kostatu zait pittin bat, baño badirudit zerutik irriño bat egiten didazula. kalte ordez, ik, beti, ongi egin. Auxe esan zidan Irene on utsak. Ta ongi ikusi dut, arrek esan bezala, biotz gogorrak biguntzeko orrek duen indarra. Baño izain dut naiko inderrik bide ontan irauteko? Joxe ostikala badatorkit zer eginen dut? Ta kitokume esaten badit? Amatxo, nere eritura guzietan zuregana joko dut!

IV
Kattalin ta ugazama

UGAZAMA *(Etxetik ateratzen)*. Etorri aiz, neska?
KATTALIN *(Eztiki)*. Bai, andre, aspaldi emen nago.
UGAZAMA. Aspaldi dion? Alper ez dena! Zer ari aiz, ba, emen deus ere egin gabe?
KATTALIN. Lolitakin egon naiz.
UGAZAMA. Oinen! Lolitakin. Mokoka, orain ere, e?
KATTALIN. Ez, andre, ez gera aserretu.
UGAZAMA. Egon al zaitezkete ba, aserretu gabe? Nik aserre baizik ez diñat ikusten zuen artean. Aise, bekaizkeriz beterik ago-ta.
KATTALIN. Ni ez naiz, ba, geiago aserratuko Lolitakin, ez ta Joxekin ere! Benetan maite ditut eta.
UGAZAMA. Jesus! Ara nola saindutu zaigun gure neska motza! Deabrua baño makurrago da ta olako saindukerikin etortzea...! Ikusiko diagu Joxe datorrela nolako abegi ona egiten dionen. Naiko da elkar egotea, mokoka ta zalapartaka asteko.
KATTALIN. Ni beintzat ez naiz asiko.
UGAZAMA. Aski dun! Tira, an dun, sukaldean zare bat yantzi garbiketa egiteko. Arzan ta gaye bereala errekara.
KATTALIN. Bai andre, banoa.

V
Ugazama

Neskatiko oni zerbait gertatzen zaio. Len, beti itun ta minker egoten zen. Gaur, ordea aurpegi argiago ta alaiago du. Zer ote du? *(Une batzuk aldazkar egon ta)*. Egia errateko, lana franko du etxe ontan gaxoak. Ez du emen maitasunik aurkitzen. Nere senarrak erraten dit, maizeski, gogorregi erabiltzen dugula. Ezautzen dut, ongi aski, buruauste ori badula, baño ni gogaiteragiteko bildurrez edo, ez da gogorkiago mintzatzen. Ta orrela yarraitzekotan, ziur nago, egun batez elkarrekin aserretuko giñakela... (*gogoetatsu gelditzen da)*. Ez, ori ez da gertatuko, iñondik ere. Kattalinek nere semeak dituzten eskubide berberak ditu etxe ontan. Gauzak zuzendu bear dira emen. Baño... eldu da. Itzal ditzagun, orain beintzat asmo ok.

VI
Kattalin, ugazama

KATTALIN *(Etxetik ateratzen da zare bat buruan daramala)*.
UGAZAMA. Eldu aiz? Tira, gaye arin, arin ta badakin illundu baño len etxean bear aizela egon.
KATTALIN. Bai andre, bai.
UGAZAMA. A, ago pixka bat. Yantzi guziak artu ditun?
KATTALIN. Bai, andre.
UGAZAMA. Jaboia ere bai?

KATTALIN. Ez, aantzi egin zait.
UGAZAMA. Ergela ez besterena! Nola egin bear dun ba garbiketa? Gaie tximista bezala!
KATTALIN. Banoa *(Badoa laisterka ta bidean erortzen zaio pardeltxo bat. Ugazama badoa pardeltxoa artzera)*.
UGAZAMA. Zer ote du papertxo ontan bildu?

VII
Ugazama

(Papertxoa jaso ta idekitzen du) Et, et! Ori ere badugu? Orain ikusiko du sastraka orrek! Gure saindue! Arrasak arakatzen badaki aaitik, lapurreta egiteko! *(Berriz papertxoari begiratzen* dio) Baño... ez, au ezta etxe ontakoa. Au Iruñen erosia da, ta aspaldi ez dugu ezer Iruñetik ekarri. Nondik ote du ba? Ori yakin bear dut ba... Erne da.

VIII
Kattalin, ugazama

KATTALIN *(Kattalin eldu da, zarea artzen du)*. Banoa. Agur, gero arte.
UGAZAMA. Ago, ago pitin bat. Ator unat.
KATTALIN *(Zarea lurrean utzi ta urbiltzen zaio)*. Zer da ba?
UGAZAMA. Zer den? Aistian, ire burua saindutu eginen unan, baña gaixtakeriak egiten ba dakin.
KATTALIN *(Gorrituta)*. Zer egin dut ba, otoi?
UGAZAMA. Arasak arakatzen ere badakin...
KATTALIN. Ez andre, nik ez dut olakorik egin!
UGAZAMA. Ez, e? Nondik atera ditun sakelan zenitun goxoak?
KATTALIN *(Arras larritua, itoka)* Ez, andre, ez andre! Ez ditut ebatsi!
UGAZAMA. Nork sinetsi? Ebatsiak ezpaditun, nondik zetozkik?
KATTALIN. Jauregiko etxekoandreak eman dizkit alorretik eldu nintzela.
UGAZAMA. Ta guziak iretsi ditun...
KATTALIN. Bi baizik ez dizkit eman.
UGAZAMA. Gaie ortik gezurti! Orrelaxe maite ditun ire anai-arreba.
KATTALIN *(Zalantzan gelditzen da zerbait erran nai balu bezela, baño iresten du)*. Agur ba, gero arte.

IX

(Patxiko ta bere lagunak agertzen dira).

PATXIKO. Emen ez duk iñor. ¿Zer egin ote ditek astakillo oiek? Ez bearren bat ez pa zaiek gertatu.
LAGUN BATEK. Um... badaitekek. Oraindik iñor ez agertzea...

PATXI. Itxo egin dezagukan emen.
LAGUN I. Egin izan bear giñikana zen maixuari erran nola yoan dituken sagarrak ebastera.
PATXI. Ez ta...! Besteen gaiztakeririk ez dik beñere salatu bear.
LAGUN I. Egia errateko, obe duk bai. Erramun'en eskumuturrak ez dituk nolanaikoak...
PATXI. Demoni illupe... *(arro, arro)* Uste duk Erramun'en bildur naukela? iAxola zaidak astakillo orren gatik! Betor, nai ba dik, bere lagun guziekin ez nauk izituko. Baño, alaere, nik ez diat beñere Erramun ta aren lagunak salatuko: ori itxuskeri andia da-ta.
LAGUN I. Aizue, ta aien bidera gain (yoango) baginduk. Larralde'ko bordara ganak dituk. Bearbada, bidean atzemango zitiagu.
PATXI. iAteraldi onal Tira, goazen. Ola, lenago yakinen diagu zer gertatu zaieken.
LAGUNA I. Baño ekin etortzen ikusten bagiautuztek, lapurretan ere ekin gindukela usteko ditek.
PATXI. Bai nai ba ditek. Neri aski zaidak neronek yakitea ez naukela erruduna.
LAGUNAK. Tira, ba, guazen Larralde'ko borda aldera. *(Badoazi)*.

X
Aita ta ugazama

AITA (*Arbi zare batekin dator. Etxean sartzen da, ta zarea utzirik, berriz atera ta zunbil gañean jartzen du. Ugazama ere agertzen da)*.
UGAZAMA. Etorri zara?
AITA. Bai, oraintxe eldu naiz. Non da Kattalin?
UGAZAMA. Errekara joanda, garbiketa egitera.
AITA. Ta Joxe?
UGAZAMA. Joxe eskolara yoana da.
(*Ixilunea)*
AlTA *(Geldi, geldi)*. Ta... Lolita?
UGAZAMA *(Pittin bat larrituta)*. *Lolita*... joan zen.
AITA. Joan zen! Nora?
UGAZAMA. Ez dakit... lagunen gana.
AITA. Jostetara, lagunekin, e?
UGAZAMA. Noski!
AITA *(Bere kolkorako bezala)*. Lolita etxeko andereño apaña! Kattalin etxeko neskame zarpala!
UGAZAMA. Zer diozu?
AITA. Batzuek lanean ler egiten ta besteak yostetan. Ori ez da ondo. Emen guziendako bada lana.
UGAZAMA. Uste dut ez duzula erabakiko Lolita alorrera bialtzea.
AITA. Bere: orain arte, ixillik egon naiz, baño ikusten dut gero ta gogorkiago egiten diozutela Kattalini. Ori akitu da ahatik. Emen guziak berdin bear da. Biar etxeko andereñoa, bere ezpain gorri, betazal urdin, azkazal me pollit ta guzi, nerekin artayorran ariko da. Ezta ba yoaten kalerietara, moda dela-ta aurpegi ta beso eguzkian beztera? Alorrean beztuko da ederki pertza bezenbat ere, naiez gero.
UGAZAMA (*Geiago larrituz)*. Baño ez duzu ikusten ez dagola oitue.

AITA. Tori! Ez nintzen oartzen. Oitu arte goizero joango da nerekin.
UGAZAMA. Baño ori eziña da. Ez pentsatu olakorik.
AITA. Bere: zure alabaz, nexka on ta langile egin nai dut. Orain arte bezala jarraitzen ba du, alper arrailla aterako da. Daraman bidea arrunt bide txarra da, bide onera ekarri nai dut. Eta arrek erabiltzen ditun nabarmenkeriak eten bear dira betiko.
UGAZAMA. Baño, gizona, ez daiteke, ez daiteke.
AITA. Nai duzu zure alaba zoritxarrekoa izatea?
UGAZAMA. Ori ateraldia! Nola naiko dut, ba nere alabaren zoritxarra?
AITA. Orra ba: alperkerian azten bada, zoritxarrekoa izain da.
UGAZAMA. Lolita alperra dela esatea ere! Ta zuk erran...
AITA. Ots! Naikoa da. Banoa beiak deiztera. *(Etxean sartzen da; ugazama jarraikitzen dio).*
UGAZAMA. Lolita artajorran! Ez ahal, ez ahal!

XI
Erramun, Joxe, mutiko bat

(Erramun ta beste mutikoak sartzen dira Joxe soñean dakartela. Onek kopeta surtzapi batekin lotua dauka, ta musua odolez zikindua. Joxe arri baten gañean jartzen dute).

ERRAMUN. Arranoa! Ederra egin diagu! Ta, zer egin orain? *(Joxeri)* Erran zak: nola ago orain?
JOXE. Pasatzen ari zait.
ERRAMUN. Obe duk ola! Zakurra madarikatua! Pozoi eman bear diot! Baño ezurren bat ez al duk autsi? *(Besoak erabiltzen dizkio).* Gizona, uste bai nikan illa itzela! Begi itxiak, sudur-aotik odol. Arraiua! Izitu nauk arras. Eta... ez naiz gero nola nai izitzekoa...! Ez duk ola i? *(Beste mutikoari).*
MUTIKOA. Jakiña! Ez aiz iñorekin izitzen... zakurrakin baizik.
ERRAMUN. Mille demonioa! Beste aldian balitz damutuko litzaitzuke. Baño, une ontan, gure laguna ein its ortan izakita, ez du balio burrukan astea.
MUTIKOA. Gizona, gutxi aski zaik.
ERRAMUN. Banintz petrikillo bedere! Ixtant batez sendatua intzake.
JOXE *(Zutitzen da). Pasatu* zait.
ERRAMUN. Egia! Gora zu! *(Berriz etzindurik).* Au lana! Zer egin bear diagu orain? Nola antolatu arazo au? *(Joxeri).* Erranzak zerbait! Tira asmazak gezurren bat abudo! Etxetik norbait ateratzen bada galduak gaituk.
MUTIKOA. Asmazak ik, iregatik joan gaituk. Gañera, ez duk erraten ain abille aizela? Tira ba, aterazak zerbait ire kalibizkor ortatik.
ERRAMUN. Mingaina ire aotik da aterako diatena!
MUTIKOA. Ez aserretu gizona, nere asmoa ez duk amorraztea. To, orra non eldu dituken oiek.
ERRAMUN. Oixe, ez ginikan oien bearrik orain.

XII
Erramun, Patxi, mutikoak

(Beste mutikoak eldu dira, erauntsi gogorrean)

ERRAMUN. Zaozte ixillik astoak!
PATXI. Besteen makurrengatik ez nauk alaituko, baño errain nikek ongi egin zaitzuela. Gaizki dabillena, gaizki amaituko. Eskolara etorri baziñate ez zitzaitzuekean ori gertatuko.
ERRAMUN. Etorri aiz ire sermoiekin. Ire ikusteak min egiten zidak badakik?
PATXI. Iretsi zak ba! Emen nauk gogoa dutelako!
ERRAMUN. Ago nai baduk, baño berriz asten ba aiz sermoia egiten...
PATXI. Ordun... zer, zer? Burua makurtuta egon bear intzenean, olako arrokeriekin ator?
ERRAMUN. Bai, iregatik! Utzi nazak bakean ta gaie emendik!
PATXI. Ez nauk gain. Guziok jakin bear dute nor izan duken emen erruduna. Gaxo onek (*Joxeri zuzenduaz)* min artu baduk, iregatik.
ERRAMUN. Zakurra lotu bazio ta balengotik salto egitean erori baduk, nik diat kulpe, e?
PATXI. Bai jauna, ik eraman duk Joxe sagar ebastera. Baita beste guziek. Iregatik joanak dituk. *(Mutikoengana itzuliz)* Ez duk ala?
MUTIKO BATZUK. Ez jauna!
BESTE MUTIKOAK. Bai jauna!
MUTIKO BAT. Kaligorri kankal orrek zirikatu giantuk, bestela nori gogoratuko zitzaiokean sagar-ebastera joatea?
ERRAMUN. Illupe, aske itzen ez joateko! Burruka nai ba duzute izain duk.
MUTIKOA. Burruka? Asto kankaila! Zer uste duk beti ire pean egoin gaitukela?
ERRAMUN. Jo ta botako aut!
MUTIKOA. Jotzak, ez nauk bildur!
ERRAMUN. Jotzak ik, ain ausarta baldin ba aiz.
MUTIKOA. Jotzak ik, i asi aiz-ta.
ERRAMUN. Agoaundi alaena!
MUTIKOA. I bai agoaundi! Mutiko guziak ire atzetik eraman nai dituk beti. Zer aiz ba i, gure buruzagia, edo? Ire jabegoak gaurdanik pot-egin dik. Ire ausarkeriak non dituk? Or ago sagu bildurti bere zuloan bezala.
ERRAMUN. Ago ixilik gero...!
MUTIKOA. Ez, iregatik! Gaye agintzera ire etxeko labezomorroen artean. Ek bezin nazkagarri aiz-ta!
MUTIKO BATZUEK. Labezomorro, labezomorro!
ERRAMUN. Ots, aski duk! *(Bultzada bat egiten dio)* Gaye kakomarroengana, zarpail ori! *(Mutikoa doi-doi gelditzen da zutik)*.
MUTIKOA. Kakamarroengana? Ordun iregana! *(Erramunengana doa ta biok joka asten dira. Gero elkar lotzen dute. Zenbait mutiko Erramuni aldeztera doaz, baño beste multzo batek eragozten die. Oiuka ta zalapartaka, guziok burrukan asten die)*.

XIII
Lengoak ta Kattalin

(Iñal guzian burrukan ari direla, agertzen da Kattalin, buruan jantzi zarea daramala).

KATTALIN. Ene! Zer da au? Erotu al zerate, guziok? *(Beire gelditzen da).*
PATXI (A*rras larritua, besoak goratuz).* Geldi, geldi guziok, otoi! Zaozte geldik! Ez izan ain ankerrak!
JOXE *(Urbiltzen zaio).* Zer diok, txaldar orrek? Ez aiz ba i burruka auxe piztu dukena?
PATXI. Nik ez!
BESTE MUTIKO BAT *(Urbiltzen zaizkie).* Bai, i aiz, i. Ta orain guziok liskarra ipiñita, bildurrez edo, ez aiz gauza burrukan sarteko. Sartu bearko, ba, nai ta naiez.

*(Joxe ta biok lotzen zaizkio. Patxik beste mutikoa lurrera botatzen du. Kattalinekin beaztopatuta, onen zarea lurrera daro*r).

KATTALIN. Ene, ederra egin diagu! *(Ariñeketan jantziak biltzen ditu. Patxik Joxe lepotik atzematen du).*
PATXI. Ezbaintzen kolpatua xautuko indukedak.
JOXE. Utzak geldi! Arraputza!
PATXI. Ez aut utziko.
JOXE. Jo zak ba! *(Zartakoka asten zaio. Patxik erantzuten dio).*
KATTALIN *(Jantziak biltzen amaitu ta).* Patxi, utzak Joxe bakean!
PATXI. Gel bedi bera! Ta, i, gaye bereala emendik!
KATTALIN *(Patxi besotik artzen du, eltzen dio).* Utzak Joxe bakean! Ez duk aditzen? Nere anaia duk.
PATXI. Ire anaia? Erran zan ire etsaia. Zanpateko ederrak bere arreba maitetxoari ematen ba zekik.
KATTALIN. Nere anaia da, utzak geldik! *(Bien artean sartzen da) (Zenbait mutiko urbiltzen zaizkio).*
MUTIKO BAT *(Kattalini soñekotik iraitzi-ta). Alde* emendik, suntsune!
KATTALIN. Ez, ez naiz gain. Utzazue Joxe.
MUTIKO BAT. Ezetz? Ikusiko diñagu. *(Bultzada batez bien artetik ateratzen du. Beste mutikoak inguratu dute ta zanpatzen dute gogorki).*
KATTALIN. Olloak! Txepelak! Neskatiko baten aurka ausartzen zerate ala! Basatiak! Aite, aite...! *(Oiuak, zalapartak, iskanbille).*

XIV
Lengoak, aita ta ugazama

(Zarata gogorra aditu-ta, aita ta ugazama agertzen dira).

AITA. Egundeño! Zeñek sortu du iskanbil gogor au? Erotu zerate, edo...? Geldi, geldi guziok, deabrukume zitalak!
UGAZAMA *(Joxe ikusirik).* Jesus, Maria ta Jose. Zeñek jo du nere semea?

AITA. Madarikatuak! Nere neskatikoari joka? Nik emain ditzuet ordaina! *(Badoa mutikoengana arras sutua. Oiek, Kattalin askatuta beste mutikoen artean sartzen dire. Liskarra dirau. Aitek bere alaba laztantzen du ta ugazamak bere semea).*

XV
Lengoak eta apeza

APEZA. Jesus, Jesus! Zer gertatzen da emen? Inpernuko deabruak errian sartu zaizkigu, edo? *(Mutikuak, apeza ikusi orduko, gudualdia etentzen dute).*(*Aita ta ugazamari).* Tira, esadazue ba zer gertatzen dan emen. Nork nasi ditu sorti ok onelako katazka gogorrean?

AITA. Ez bait dakigu. Iskanbilla sumatu-ta etorri gara ea zer gertatzen den ikustera. Basati ok berak mintza bitez.

APEZA *(Joxeri so egiten).* Ots, ea zer derraigun! Dioskun zantzail onek! Otian! Zer du biurri onek kopetan?

UGAZAMA. Kolpatu digute gure semea anker oiek! Baño ongi pagatu bearko dute!

AITA. Ta nere alabatxoa bos-pa-sei mutikotzarren artean artuta, errukirik gabe zanpatu dute. *(Sutua zutitzen da).* Baño nik xautuko ditut zorri bezala!

APEZA *(Galerazten* diola). Poliki, poliki. Jakin dezagun nola gertatu diran gauzak. Ots, Joxek edestuko digu guzia. *(Eskutik artzen du).* Tira erraguzu: zergatik aserretu zerate?

JOXE. Erramun ta Patxi asi dira mokoka. Onek Patxi egiten zuen erruduna.

APEZAK. Erruduna? Zeren erruduna, ordea? *(Joxe zalantzan gelditzen da). Alo,* alo, guzia jakin bear dugu. Obe duzu len-bai-len erratea.

JOXE. Patxik erran dio Erramuni onengatik joanak garela...

APEZA. Tira, tira jarrai, nora?

JOXE *(Burua makurtuz).* Sagarrak ebastera.

APEZA. Deabru zikiñak! Ez denentz bada lotsagarri! Lapurretan! Ta egia da? Erramunengatik joanak zerate?

ERRAMUN. Ez jauna!

ZENBAIT MUTIKO. Bai jauna!

BESTE MULTZO BAT. Ez jauna!

APEZA. Ixillik! Ea berriz asten zeraten burrukan? Nik esaten dutena bakarrik mintza bedi *(Joxeri).* Ta ik zer diok?

JOXE. Erramunek bururatu digu asmo ori. Auxe ez daike ukatu.

APEZA. Erramun, beti biurri ori!

ERRAMUN. Baño nik ez zaituztet beartu. Ea nai zenuten etorri besterik ez ditzuet erran.

APEZA. Gutxi zaik zantzail ori? *(Joxeri).* Ta zuek yoan, e?

JOXE. Bai jauna. Multzo bat Erramunekin joan gara. Besteak berriz, Patxiri jarraiki, eskolara.

APEZA. Ordun, argi dago Erramun errudun dela. Baño baita zuek ere, aren asmoa onartu dezuelako. Ta gero zer gertatu da?

JOXE. Sartu gera Larraldeko sagastin. Aratokian, Mikelatxo etxeko alaba, ikusi dugu, ta guk galdetu: ire etxean nor dun? Ta arrek: Aitatxi bakar bakarrik. Non ditun ba besteak? Iratziketara joanak dituk, Mailantzera ta ni arratsaldekoakin noai. Ta gu,

jarraiki aitzinera. Sagardin sartzerakoan, ikusi dugu aitatxi kalerietan eguzkia artzen. Oiuka asi zaigu, baño iainbat axolik zitzaigun agure xaar okitu arengatik! Aitatxii..., erran diogu, zertako dituzu sagarrak? Ortzik ezta, nola yan bear dituzu?

APEZA. Alkegabekoak, agure xaar batez nausatu.

ERRAMUN *(Joxeri)*. Aizak, adiskide, ortan ere Erramun duk erruduna? I aiz irain ori bota diokena.

JOXE. Egia, baño i ere ez aiz gibel gelditu. Ez duk ba erran, bizar zikin aiekin, gizon, antza baño artzarena bazula?

APEZA. Artzainak samurtzen diranean, gaztak aier. *(Joxeri)* Eta gero?

JOXE. Ez genuen batere bildurrik Larraldeko aitatxirengatik, baño onek ongi asmatu du nola ondatu gure asmoak.

APEZA. Zer egin du ba?

JOXE. Zakurra azkatu ta axatu digu. Lau saltoz gure ondoan agertu da saingaka iñal guzian. Gutxik egin du ezpagera aren ortzetan aragi zerrendaren bat utzi. Norbaitek an zagon zaku zar bat bota dio ta ura urratzen gelditu da pitin bat. Anartean balengoaren gañetik yauzi egin ta atera gera. Ni azkena. Ain estu ibilli naiz non laisterrari eman bait diot itxuka ta, arbazta batean trabatuz, buruz beiti erori naiz ta kopetakin arri bat yo dut. Gero, korde gabetu naiz ta ezagumena berrartu detenean, emen nindagon, nere lagunen artean. Gero Erramun ta Patxi mokoka asi dira, besteak ere neri gera eztabaidan ta onela sortu da liskorra.

APEZA. Eta Kattalin, gure Kattalin eztia, nola sartu da ikaragarrisko naasmas ontan? Bai ote? Ez aal da zuekin sagar ebastera joan?

KATTALIN (*Arras larritua)*. Ez, yauna, errekatik eldu nintzela, emen aurkitu ditut guziok aserre.

JOXE. Ni Patxikin ai nintzen iñal guzian burrukan *(beakada itzal bat Patxiri zuzenduz)* ni baño aundiagokoa da, baño ez diot batere bildurrik.

APEZA. Au motel, berriz joka asteko goguan.

JOXE. Ontan, Kattalin agertu da. Guregana etorri ta esan dio Erramuni uzteko ni bakean. Nere alde asi da, ta ordun illupe oiek etorri dire ta zanpatu dute.

UGAZAMA. Baño, zer diok, motel? Orrengatik jo dute Kattalin?

JOXE. Bai, ama.

UGAZAMA. Kattalin nere semea aldezten?

JOXE. Bai, ama.

UGAZAMA. O, neskatiko au aingeruñoa da. *(Kattalini)* Zatoz, maitea, nere besoetara. Gaurdanik, nere alaba kuttuna izango zara. *(Kattalin badoa ugazamarengana, ta onek gogotik laztantzen du. Gero, Kattalin ta Joxe besarkatzen ditu)*.

KATTALIN. Au poza!

UGAZAMA. Joxe, musu eman zure arrebatxo on utsari. *(Elkar musukatzen dute)*.

KATTALIN. Tori Josetxo, zuretako altxatu dut goxo au. *(Goxoa ematen dio)*.

UGAZAMA *(Berekiko)*. Ta nola mindu diogun bizitza aingeruño oni, orain arte! Baño gaurdanik, auxe akitu da. *(Joxe ta Kattalini)*. Ederki olaxe, nere semetxoak, elkar maite ezazute egizko anai-arreba bezala. *(Aserre)*. Baño mutil kazkar oiek, nere maitetxu ok jo dituzten oiek, oiek ordaindu bear dute ongi.

AITA *(Saminki, ukabile goratuaz)*. Bai oixe! Nik...! *(ostiko)*.

KATTALIN. Aita, ez zigortu. Joxe ta biok barkatzen diegu. Bai-ba, Joxe, e?

JOXE. Bai, ene arrebatxo, Patxi ez beste guziak.

KATTALIN. Joxe, Patxi nere lengusua baita. Ez diozu nere lengusuari barkatuko?
JOXE. Tira, ba, zuk galdetuz geroz nola ukatu? Barkatzen diot.
APEZA. Arrigarria da emen gertatzen dena. Neskatiko onek ikasbide ederra eman digu. Arrigarria da, benetan, ain neskatiko gaztea orren ederki ekitea. Guziak badakigu etxe ontan ez zela ain ongi ikusia. Ala ere, Kattalinek errarik ez du iñoendako, guziak maite ditu, ez da ala, kuttuntxoa? *(Maiteki egiten dio)*.
KATTALIN. Bai jauna.
AITA. Baño Josetxo ere bai? Ez da arras ona zuretako izan, aatik!
KATTALIN. Bai Josetxo, ta baita Lolita ere. Nere etxekoak ez ditut, ba, maite izango?
APEZA. Enetxoa, Jainkoa mintzatu zaigu zure aoz. Ikas dezagun ongi ikasgai au. *(Mutikoei)*. Ta zuek mutikotzar oiek, emen duzute eredua. Zuek, bela pizten duzute iskanbilla ta zalaparta. Den gauzarik xumenarengatik zartakoka ta ostikoka asten zerate. Ikasi, ikasi Kattalinengandik. Ortaz, bertzalde, gaur txarkeri itxusi bat egin duzute. Zigorgarriak egin zerate, ta egia errateko, yautsi zaitzue Yainkoaren zigorkada. Ara Joxe kopeta zilatua. Guziak zerate errudunak, baño i, Erramun, andiena; bestiak ik bultzatu bai dituk gaiztakeri ori egitera.
ERRAMUN. Jauna, damutu zait gaiztakeri ortaz, neri beintzat, ta uste det oiek ere nerekin bat direla. Ez da ala?
MUTIKO GUZIAK. Bai, damuturik gaude.
APEZA. Ez da, ordea, aski damua. Asmo sendoa ere bearrezkoa da. Utziko dezute, betiko, txarkeri oiek?
MUTIKO BAT. Bai noski, gure sagar lapurketarenak egin du. Nik segurik, ez naiz gain. Atz!
Izialdi ederra eman dit zakurtzar arrek...
BESTE MUTIKOA. Aise, sagurtxoa baño bildurtiago aiz da!
MUTIKOA. Ta i zer aiz? Ni baño geiago bildurtu aiz... Ikustekoa eikan nola eman iokan laisterrari.
BESTE MUTIKOA. Ori bai, baño ni baño firrinda aundiagoz eman ziotek Jesus, ta Peru, ta Pettan, ta... zoazi zenbatek.
MUTIKO BATZUK *(Zalapartaka asten dira)*. Ez jauna! Bai jauna!
APEZA *(Berekiko)*. Mutikoak beti mutiko! *(Zangoakin lurra joaz)*. Aski! Ortan dago zuen damua? Berriz asiko zerate mokoka?
ERRAMUN. Tira geldik egon ta eskatu dezagun barkapena.
APEZAK (*Aita ta ugazamari)*. Zuen neskatikoak eman digu ikasbidea. Barka ditzagun, damuturik bait daude mutil koxkor oiek. Gaur egun aundia da guretako. Kattalin, bere biotzeko edertasunaz, benetako amatxo bat aurkitu du. Lolita ta Joxen biotzak irabazi ditu. Orobat, gure mutiltxo oiek onaren bidean sartzeko asmoan daude. Bozkarioz bete bitez gure biotzak. Goraldu dezagun txarkerietatik ongiak ateratzen dituen Jainko ona, eta eman dezagun elkarri gentza ta maitasunezko besarka bat.
KATTALIN (Au*rreratzen ta zerura begiratzen)*. Amatxo! Esker mila. Pozik zaude zure alabatxoren egikeraz? Bai egi andia Irenek esana! Besteen biotzak irabazteko, ongi egitea bezelakorik ez da.

LABURPENA

***Kattalin Umezurtza* antzerki lana**

Alexander Tapia Perurenaren *Kattalin Umezurtza* antzezlanaren beste argitalpen bat da, Jose Maria Satrustegik argitaratu baitzuen 1985ean.

Gako-hitzak: Alexander Tapia Perurena; euskal literatura; antzerkia; Kattalin Umezurtza; Nafarroa.

RESUMEN

La obra de teatro *Kattalin Umezurtza*

Se ofrece una nueva edición de la obra de teatro *Kattalin Umezurtza*, escrita por el pamplonés Alexander Tapia Perurena, que ya editara en 1985 José María Satrústegui.

Palabras clave: Alexander Tapia Perurena; literatura vasca; teatro; Kattalin Umezurtza; Navarra.

ABSTRACT

Theatre play *Kattalin Umezurtza*

A new edition of the play *Kattalin Umezurtza* by the Pamplona-born writer Alexander Tapia Perurena, previously edited by Jose Maria Satrustegi in 1985, is released.

Keywords: Alexander Tapia Perurena; Basque literature; drama; Kattalin Umezurtza; Navarre.

Jose Agerreren olerkigintza osatzen (I)*

Joxemiel BIDADOR (apailatuta)

JOSE AGERREREN OLERKIGINTZA OSATZEN (I)

1.- Ibañetan jazarkunde (amets ikuskari)
2.- *Sunt perenni jure*
3.- Orreagako ama neskasori otoitza
4.- Orreagako andraneri
5.- Orreagako beila
6.- Etxarri-Aranatz
7.- Leizaren omena
8.- Baiona-Iruña aurride-mezuz
9.- Naia bete
10.- Neskaso eztia
11.- Maitasun gula
12.- Jazorikoan oxka: Stafford Cripps'en utsunea
13.- Jazorikan oxka: egungo berriaz zirika
14.- Martin Arrizubietari
15.- Bi bederatzi puntoko tiratzaile bati
16.- Urteko sasoiak
17.- Eskolakunde
18.- Txoriarra pipergile ta txoriñe bakarrez
19.- Euskara zain dezagun
20.- Erri mintzoak
21.- Lengo San Ferminak
22.- Sanperminetaz autu
23.- Sanfermin kariz holgoriok Iruñan
24.- Muthiko alaiak abian

* *Egan. Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Boletinaren Euskarazko Gehigarria*, 55, 2002, 163-202.

Iazkoan Jose Agerreren lehenbiziko olerki antologia eman genuen argitara Iruñeko Udalarekin batera. Agerreren lanen argitarapena Iruñeko euskal idazleak berreskuratzeko saioaren barruan dago, izan ere, lehenbiziko saioan Alexander Tapia Perurenaren poesiak berreskuratu baikenituen, eta aurtengoan, poesiatik guztiz hastanduz, kazetariak eta beronen testuok plazaratu ditugu, tartean guztiz ezezagunak diren izenak edota idazle ezagunen testu ezezagunak, Irigarai *Larreko* haundiarenak kasurako.

Jose Agerreren olerkien bilduma egiteko asmoa ez da berria. Bere momentuan Santi Onaindiak eta geroago Patxi Zabaleta euskaltzainak honen burutzeko asmoa agertu zuten, alabaina, arrazoi batengatik edo bestearengatik luze itxaron behar izan da lehenengo antologia agertu arte. Liburu hauen onuren artean bada irakurleak profitatzen ohi ez duen beste bat, oharkabean igarotzen dena akaso, filologoarentzako mesedegarri asko gertatzen dena baina, familiaren ateak modu batean edo bestean irekitzea alegia. Agerreren kasuan, alaba izan zen liburu agertzearekin batera bere liburutegiko ateak ireki zizkiguna, idazlearen paperak erakutsi zizkigularik. Orduan ikusi genituen, besteren artean, argitaragabeko olerki mordoa baita artxiboan ikusi gabe labandu zitzaizkigun hainbat olerki estrainekoz.

Agerreren olerkigintzan zerbait nabarmendu behar bada horixe da tamaina. Agerre asko idatzi zuen poeta izan zen, gehiegi akaso, idatzi zuenaren kalitatea eztabaidagarria daitekeelarik hainbat momentutan. Edozein modutan ere ukaezina da Agerrek euskararen inguruan Nafarroan egin zuen lanaren garrantzia, baita urte zailak zirenetan ere. Jose Agerrek ez zuen euskara etxean edoski, aita Ariatik etorritako euskalduna bazen ere, eta hortaz, gazte zela etxetik kanpo ikasi behar izan zuen. Horretarako mende hasierako Iruñe hartan ez ziren aukerak falta, eta hortxe genuen Arturo Campion bera euskara irakasle 1903an. Geroago ere eta nafar agintariek antolaturik Juan Manuel Lertxundi eskolapioaren eskolak gertatu ziren 1910-1912 bitartean. Eta ordurako ere Agerre bera izan genuen euskara irakasle Euskal Etxean 1913az geroz. Agerrek argitara eman zituen lehenbiziko olerkiak 1918an agertu ziren, *Euzko Deya* aldizkari jeltzalean hain zuzen, alabaina gerra aurretik plazaratu zituen poemak ez ziren asko izan, hamarrera ere ez dira iristen, eta zenbaitetan poema bera aldizkari batean baino gehiagotan atera zuen. Honakoxea da, bestalde, Agerrek bizitza osoan zehar egindako gauza, hau da, olerki bakoitzari ahalik eta etekin haundiena ateratzen saiatzen zen beti, eta testu bera behin baino gehiagotan argitara ematen ez zuenean, horren aldaera desberdinak agertzen zituen han hemenka.

Geure aburuz Agerre ez zen bere laguna Tapia Perurena bezalako olerkaria. Gerra aurretik hain olerki gutxi argitara izana diogunaren frogatzat har daiteke. Izan ere, Agerreren benetako bisaia Nafarroako kazeta jeltzaleetan egin zuen lanak islatzen baitigu hobekien. Orduko mugen gainean bada ere, idazteko askatasuna izan zuenean Agerrek ez zuen poesia adierazbide aukeratu garaikideak zituen olerkariek bezala. Berriz, gerra ondoko frankismoaren hertsiera itogarriak ez zion beste aukerarik utzi, eta neurri haundi batean esan daiteke egoera politikoa izan zela Agerre olerkari beharrez bilakatu zuena. Eta horixe nabaria ere bada idazteko erabili zituen gai eta tratamenduetan. Ezaguna da 50eko hamarkadaren bukaeran Urmeneta eta Markori esker bereziki nafar Aldundiak Euskararen aldeko Saila sortu zuela, baina hortxe zegoen diktaduraren zentsura. Bestal-

de urte haietan Iruñean zeuden argitarabideak ez ziren bereziki euskaltzaleak, ez behintzat Agerrek topatu zituenak, *El Pensamiento Navarro* egunkari karlista edota hainbat falangistek sortu eta kudeaturiko *Pregón* aldizkari kulturala. Edozein modutan ere ezin da ukatu bere olerkietan erabili zituen gaiak ere gustokoak izan zituela Agerrek. Sinismen haundiko gizona izanda, erlijioarekin loturiko motiboak sakonki sentitu zituen, hauek berak profitatuz erregimenerako arriskutsua ez bide zen euskaltasunarekin nahasteko: Aralar, Orreaga, Xabier, San Fermin, San Zernin, eta abar.

Bukatzeko hitz pare bat Agerrek bere olerkietan zerabilen euskararen gainean. Ezin da ukatu Agerrek gerra aurretiko garbizaleekin izan zuen zorra, baita olerkarien estiloarekin ere. Zabaletaren aburuz Agerreren euskara gipuzkera zen funtsean eta oinarrian, baina osatua zuen garbizale edo berrizale baten antzera Nafarroako euskalkien kutsua eta esaerak sartuz. Horrezaz gain, Agerreren euskara purista edo aranista dela zioen Leitzakoak, nafar ikutuekin, etimologiari begira, eta zenbaitetan, bereziki joskeran, euskaldunberria zela nabaritzen zitzaiola. Josu Chuecak, ildo beretik abiatuta, honela definitu zuen: *seguidor de la linea purista de la denominada escuela euskerológica sabiniana*. Guk ere berdintsu pentsatzen dugu, neurri haundi batean bederik ere. Olerki hauetan nafarreraren edota ipar-ekialdeko ikutua soma daitekeen arren, ezin da ukatu Agerrek ez ziola errefuxatu garbizaleen berrikuntza lexikoak erabiltzeari. Enrike Diez de Ultzurrunek zioen bezala, Agerreren idazkera *ez da aisa ulertzen lehenbiziko irakurraldian, bere-berea baita eta zailsko gerta daiteke*. Zenbaitetan ilunegi gertatzen da, eta Zabaletarekin batera bagaude ez ote den bere kasa ikasi izanaren emaitza, baita bizitza arruntean euskara egin ez izanaren fruitua. Badirudi Agerrek bere ekoizpen literariorako hizkera ezezik baita hizkuntza propioa sortu zuela, horretan trebatuak ez gauden irakurleondako hertsiegia gerta daitekeena. Edozein modutan ere, Agerreren euskararen aberastasuna ukatu ezin den gauza dugu, eta ez da dudarik Agerrek euskal idazle klasiko eta garaikide aunitzen lanak irakurri zituela.

1. IBAÑETAN JAZARKUNDE (AMETS IKUSKARI)[1]

Neskak artzain

Mendetan zazpi irauli
Amar urteko zazpi,
Baita urte banaz ere
Bota zak doiki zortzi:
Atzeraginez bereala,
Egunean gagozi
Noiz eta Euskal Erriak
Omen zun irabazi.
Goitisolon goietan

1 *Visión fantástica* (Agerreren Oharra). Argitaratzeko prest bazegoen ere, gaztelerazko itzulpenarekin zein zenbait oharrekin, olerki hau ez zen argitaratu. Idatz urtea ere ez dugu ezagutzen.

Artaldeak larretan
Bertokoak du larri
Ara ardiyak etorri:
Noizik bein eta badatorz,
Ez da gertatzen sarri.

Latza da ta gogorra
Maldakoan patarra:
Larrakitu ta agerretan
Gizenago belarra:
Beti ere an da orai
Larrekatu bearra.

Bitxiena au ez da,
Baitare da areagoa:
Ardiekin el[2] direla
Auzotik zenbeit neska:
Beste batzu bai elduko
Gisa untan bereala.

Muñine ta Gartxiri

G. Ator, ator, Muñine,
Ene esanerat erne:
Agitzeko diren gauzek
Aundi-itxura daukate:
Onezkero gizak oro
Erritik alde dire.

M. Burzagiak erran du
Dela bear auspatu
Lapurtzera jautsi nai dun
Ooin ari odolztatu:
Sartzen bada irietan
Guzia dela galdu.

G. Ixo, Muñine, ta ixo,
Ez itz bat ere laxo,
Zer nai den berritxuari
Miia mozten zaio.
M. Auzapaizak erriari
Aldarrika badiyo.

2 Heldu.

Auzapaizak aldarriz

Aitzinetan euzkotarrak batzar-bidez ziarduten:
Menpekoak jaurtzen zituen aitonen batzarra zen.
Batzarrak artu-itza
Berataz inork beza:
Orren aala duena
Orixe da auzapaiza;
Askotan oi dauka be erritarren nausitza.

Napurkunde guda artan
Noiz ere jin zen Karlman,
Auzapaizen nola zen
Mintzoa,
Bero, kalda-beroa,
Una emen:

Erritarrak, so auni!
Oroz gain, joka zagun gogorki!
Otsoa zen bai t'erabat:
Auxen dator argirat.
Jaun Karlman, guk uste nai, zalduna
Bai ta noski Uropako lurraldetan gorena.

Egun batez antxe zan
Gure mugain aurrean,
Koipe-koipez aitzakitan jariaz:
Bear baitut moro gaiztoak kur araz.

Zabalik izan zitzaizkion ateak, ez neke,
Inork ez zuen erabe.
Orain itzultzekoan, zaldun lege ez du agert:
Eman itza, egin-bidez, bearko zuen bai edert:
Bai zera! Ez agertu jaunatzat,
Zaldun-gisaz ezta be, ez gizonen araurat.
Gure lurrak arrapa amets zuen gozoki:
Una emen zertaz ez tun itz emanak atxiki.

Gaiztagintzak eta erretak asi dira gertatzen:
Berri txarrak, urragarri, ari dira zabaltzen
Ta larriena una emen:
Iruñen arresiak lurrerat egin ditu:
Baldin uzten badiyogu, bai gureak egin du.

Ala Jinko ezetz t'ezetz!
Ezta izanen beñere ez.
Jarki gaiten suarki eta oldarrez.
Napur tzarrok betiko
Guk porroka bearko
Nai ez badugu burua
Arrotzaren menpeko.

Erritarrak,
Adi ba
Zer den gaur agindua:
Gogotik jo ta ekin
Ezer galdu ez dedin:
Mutilak eta gizonak eta andere gazteak
Agintariyek erranen nun zein tuzten tokiak.

Neskek ala ditzatela artaldeak larretan:
Ok direla bazparekotz leku ixil ta gordetan:
Giza larriyak, zaintziarren, etxetan bitez geldi,
Nagusi ta andre zaarrak
Aratarakotz bada aski.
Gaut-ordukotz erre bitez mendi-goietan suak:
Irunetan, ez ordean, ez ditezela argiyak.
Gudu-dantzak
Egin bitez nai ala,
Odolez berotzen beita iardukiaz onela.

Otoitza

Goi-Jauna
Gorena
Guziz altsu ta Ona,
Bear degun kemena
Arren eman zaguzu
Biyar ba. Ala niz.

Gudategia

Ez jakinki nontsu zuketen gudua,
Ezin esan neork ere nola den eremua:
Mendiyetan, oianetan, jokera-aukera dute
Euzkotarrek: beste gisaz, nola naus[3] lekikete?
Gizak milaka datortzi: bear bazaie garaitu
Bestenbait ordea artu-ta, bearra da burrukatu.

Arro-arro Ortzantzurietak darakus orrazea,
Bai da gai gizak artzeko bere erroka luzea;
Ibañetako lepoan etsaiak somaturik,
Altabizkar-okuluak izanen da oberenik.

Barru dautza Luzaidea aingiluka beera:
Barrunbeak sartzen diyo mila errekako ura:
Urr-jarioak ainbat dira ta joaiak ain sarri
Nun alderdi ari Ibañeta zaion izena jarri[4].

Urrak dira bai mendiyak eta errekak bai ondo
Nundik eta ur-turrustak dira amiltzen azkarto.
Uerrak dira arkaitzak, lepoak ere bai oker,
Erpin gorak, nola diren!, a zorrotzak alaber!

Ikarazko, aran lutoak[5], dena da sasitua,
Oianak diran tapiyaz argiya sar ezin da.
Zulo arietan pulunpatruk erori den nor ere,
Berriz menera ekartzea litzakiyo bai neke.

Agintariak

Ara nola agertzen agintariyak
Auzo ta baserri-yendien buru:
Trumilka eldu dira gudariyak
Arien solasari men eta aiduru.

Adin onaz dira buruzagiok
Soina dute zaila, txitxa ginarri;
Pindarrak dariotze arien begiok,
Gogo darakuse azkar ta larri.

3 Nausi.

4 Ez zebilen zuzenegi gure Agerre Ibañeta hartan aurreko *ibai+eta*; Mikel Belaskok, Mitxelenari jarraikiz, **iben-* batetik dakar, *rastrojo*.

5 Sakon.

Mutil zainart[6] aunitz esku dauzkate,
Agindu-zai beti zalu ta goait[7]
Bereala joateko lasterkan erne,
Arien nagusiek erran-ta xerbait.

Gudagizak dira abian poliki,
Joanen bai lirake egon bearrak:
Erri guzi osoak nai du jazarki,
Gizar ta gizeme, baita zaarrak.

Irrintzika diarduz zaldiyak larroi[8]:
Oian-pagurrina sudurrat eltzen:
Barda-suetako aizeak zaloi
Errekinoz[9] ei du gogoan gartzen.

Gailurretan kuku, zokoetan ixil,
Euzko gudariyak ai dira zibil[10]:
Bana bana doatzi tokitzen oro:
Bete bear, erioz be, erranak txairo.

Gizak atonduta, dena da apainik
Eta agintariyak zaldi gainetik
Gizaeri mintzo ekuru[11] ta suz:
Euzkoak arrotzak goituko dituz...

Naiz orain etsaia ikusterre ez da,
Dutenaz berriek, da aintoz larriya[12].
Eta agintariyek, zeinek bereri,
Otsa diyezte: Zintzo jazarri!

Egunaren atsa, ezti ta epel:
Gert-gertuan dira oianak ospel:
Argiyak auxatruk[13] itzalak arin,
Orok auteman da pozezko xotin.

6 Gihartsu.
7 *Vivos y despiertos* (A. O.).
8 *Penetrante* (A. O.).
9 *Chamusquina* (A. O.).
10 Arin.
11 Lasai, bare.
12 *Por lo que traen las noticias (el enemigo) es en cantidad* (A. O.).
13 Pulunpaturik, auxaturik (A. O.).

Untze[14] da gaurkoa tira gaitzeko:
Gizak dagoz josi nor-gian tinko:
Farrak eta xostak dabiltz alare
Euzkotar artean nola den lege.

Jazarra[15]

Ibañetaren lepoan arrabots bat agertzen da,
Urbiltzen da, arrokak ezker eta eskuin jotzen dituelarik;
Ori da urruntik eldu den gudozte baten burruma.
Mendien tunturretarik guziek zirtoa[16] *emana diote.*

Berek duten seinua adierazi dute;
Etxeko jaunak bere dardak zorrozten ditu.
Eldu dira, eldu dira, zer lantzazko sasia!
Nola zer nai kolorezko ikurrinak eien erdian agertzen diren!
Zer ximixtak ateratzen diren eien gudoztetarik!
Zenbat dira! Aurra, kondatzak ongi.

Urbil ditzagun gure beso zailak, errotik atera ditzagun arroka oriek
Leer ditzagun, erioaz jo ditzagun!

Zer nai zuten gure mendietarik Iparraldeko gizon oriek?
Zertarako jin dira gure bakearen naastera?

Odola xurrutan badoa; aragi puskak dardaran daude.
O! Zenbat ezur karraskatuak! Zer odolezko itxasoa!

Jaungoikoak mendiak in dituenean nai izan du ek gizonek ez zila[17]*.*

2. SUNT PERENNI JURE[18]

Orriagan otoitzeri esku ber diezte
Nork ere ta zein alde il izan dirade;
Orok, ilak izanaz, daukate eskubide.

14 Iltze.
15 *La batalla* (A. O.).
16 Erantzuna.
17 Azken zati ontan, arraxt-artekoa *Altobiskarko Kantua*-tik artua da edota itzen bat orraxtu (A. O.).
18 Argitaragabeko olerkia, itzulpenik, oharrik zein datarik ez dakarrena.

Ala ziren gertatu gauzak aunitz urtez
Nola balira xoilki ilak mota batez:
Karlmanen gudariak eta besterik ez.

Leen ezurtegian il urenak[19] ziren,
Gizon garbal ta zindok zetzaten an omen
Arik eta irian berri bat egin zen.

Giza uren oekin zeudezin kidekok
Ez dakarte paperek ziren bestelakok,
Aipatzen ezta ere ote ziren euskok.

Urrumakok zizkiezten bai eta laztanak
Atseginkariz ere kalonjek emanak
T'ebiakoitz[20] orotan, utzi gabe, eginak.

Bertan zirenetarik beste gizon aunitz,
Gaindiz ere baziren, endaki ta larriz,

Kapel lumakidunaz, ibaz ta mereziz.
Karlen ziren morroiak leen jazarrarik,

Ta beste bi areago noski bai segurik.

Iru ziren, kontuaz, esetsi ok izan,
Bi ziren mende untan zortzigarrenean,
Bestea, uzu alaen, darrain urrengoan.

Pranko eta euskotarren kopuruaz gaindi
Erroldean dagona noski baiduk aundi:
Errromes ildakoak ordutik onaindi.

Beste batzu gentzake gogorat arere
Elorriagan ilda etzanak beitire,
Berton ilak izanaz, sunt perenni jure.

Andraneren jai auxen egiz omenduna,
Ilak sakon obietan naasi dituna:
Ilentzat ere bedi bizientzat dana.

19 Goren.
20 Larunbat.

3. ORREAGAKO AMA NESKASORI OTOITZA[21]

Ama amultxu maite, doaiez jori,
Bigun adi zazu otoitz au gori:
Sinistean zoli gaitentzat bizi
Gurear atxiki bait'euskaldunki.

Edesti-mendetan amarra edo zen
Noiz eta Orreagan ager da Miren:
Santz Azkarrak ospez, eskuzabalki,
dakusgun eliza zion eraiki.

Non-ta zen agertu ama gozoa
Antxe bertan sortu urmen naroa:
Agertzean ei zen antza bat bitxi,
Lurrak iraulirik, ildotik jali.

Benetan eder da orain dutena,
Naparroa guzian da xotilena:
Egileain ertia garai zen erti,
Zilarrez da zura txukun estali.

Beiletan beilarik, zenbat zetortzen!
Uropak milaka erakar zituen.
Soin-gaitzak sendatzen bazun poliki,
Gogokoetan ere egin zun baiki.

Ama amultxu maite, eskarrez jori,
Bigun adi zazu otoitz au gori:
Sinestean zoli gaitentzat bizi
Gurear atxiki bait'euskaldunki.

4. ORREAGAKO ANDRANERI[22]

Zeinek berea daukate erriek
Andranetan iduria:
Au dela bide, diote agertzen
Jinkoain Amari sentia[23].

21 Olerki hau bere itzulpenarekin 1957ko udazkeneko *Pregón* aldizkarian argitaratzeko ondu zuen Agerrek, *se hizo para* Pregón *pero no la publicaron, otoño 1957.*

22 Olerki honen aldaera bat bere itzulpenarekin 1960ko irailaren 1eko *El Pensamiento Navarro* egunkarian argitaratu zen.

23 *Sentimiento* (A. O.).

Efesotiko erlantz[24] azkarrak
Barreiaturik diztia,
Maiz du erakusten onelakotan
Amatasun iturria.

Onen iduriz or Orreagako
Aurra daukala ixtertia:
Ñir-ñir aurragan beitu begiak,
Aurrak beronen argia.
Baiki dagozi gozatuk biok
Andredena ta semea;
Oni begira zer dira balioz
Altxor-pilok ta ureria.

Euskeraz gozoz nator ni ere
Euskaldun oiularia:
Areago ere sartuko zaizu,
Aunitz mendiaz aindia.
Leia-leiaka nator baitare,
Urretxindor goiztaria,
Nai ez beinuke lenda zakidan
Beste mezuz inondia.

Eldu bai eldu koroit-eguna.
Izan dizogun gurtzia
Ezbeitzegokin gure Birgina
Ez zadin ola jaitia.
Nabarra erriak oraindik ez zun
Mendetan asi, izatia:
Koroit-eguna leiarazteko
Alere badu karia.

Omen da koroit-egun ederra
Aupatzearren gurtu-leia,
Guti guk ere egingo genun
Pizturik-ez, orren naia.
Amari nai dut esan euskeraz
Biotzetikan jalia:
Izan zaitela ele zaarran
Zure semek agurtia.

24 Distira, dirdira.

Leen askitzer[25] ots eginikan
Oixen ziteken jaia,
Elorriagako ixtorioaren
Zeiken baturik ospea.
Mende aietan zenarekiko
Ezin erkat oorea,
Aatik ere eder gizatsu
Zure emen duzu gendia.

Aldi motz auek ondatu dute
Askitzetan geiendia;
Beintzat or bego tente potente
Amagan fede bidia.
Eskedun goazen gaur egunean
Atxik dizagun erria,
Sano ta zintzo beti ta gorde
Ludiko oroen bakea.

5. ORREAGAKO BEILA[26]

Lenago Orrean zegon beila bat, aintzina,
Mende-mendetan barna atxikia zena.
Erroa zela ain sendo,
Iraungia nork asma zukenik urrena.

Irail-zortziko jaian mendi-basaldeak,
Unaindiz eta araindiz, beilari-bideak.
Atseginez zetozin
Egun au ospatzerat Andranein zaleak.

Olako bestaritan, ekileak oxek:
Fedea, beila-antsiak t'otoitz egokiek;
Baitare mintzabide,
Moldatu nai ezkeroz batean iru ek.

Ainbat urtez eginik ataza au, ongien,
Naigabez, mintzaldetik porrot egin zuen.
Mintzoak uts eginik
kalteren bat beilari ekarri zezoken.

25 *Augustas tradiciones* (A. O.).

26 1961eko udazkeneko *Pregón* aldizkarian agertua, gaztelerazko itzulpenarekin.

Beko naparrek beintzat geroztik aurrera
Aditu nai baziren, zuten bear erdera,
Ezin bestez ta minki,
Ez bazen eskuratzen len bai len euskera.

Esku beitzun baliotsa Jainkoak arlo ontan,
Araindiak baimena laister zun eskutan
Emanik unaindiak,
Lengo besta pollita berregitekotan.

Uts bat dute bai bañan damuz senideak:
Leenik jai bat zuten napar bi yendeak,
Orain daukaten gisaz
Urtean bi dituzte berezi ta biak.

Ordea bañan dute naiz ez osotarra,
Nola beitere dute len zuten eskerra,
Araindiak ekarri,
Biurtu du jaierak len bezin jatorra.

6. ETXARRI-ARANATZ[27]

Aintzin-aintzina bazen erri bat
Aralarren bealdeko,
Aranayz deitu, murutan zear
Barreiaturik barreio
Ordurañokoan ezin batera
Auzo bakoitz izateko
Amabi zituen Aranayz onek

Iri berez ta banako.
Iri auetan zuten gailenak
Etxarri zuen izena.
Onez gañera an zen Birjinak
Ospea zion emana.
Au ta zelarik, ez zitun aski
Zizkion aintoa[28] t'omena,
Lapurren kontra bear auzoak
Esku gogor ta latzena.

27 Argitaragabeko olerkia. Gaztelerazko aldaera badu ere, ez dakar idatz urtea. Izenburua gerok jarria da.
28 Tamaina.

Nola nai ere, antxen bizia
Erosoa ez edo zen
Ta bizitiarrak besteren bila
Saldoka ziren igesten
Noski mendialde non toki aisak
Segurak ere zituzketen.
Gañera gizak, ordun, beitikoan,
Ez ziren zale bizitzen.

Santzi Azkarrak ain zun onetsi
Aranayztarren xedea
Non eta kito egin beitzien
Petxetan lar iñaurrea.
Beste gauzetan mesedez ere
Agertu zen erregea.
Ilobak ere esku zabalaz
Oitzen zuen jendea.

Arrezkeroztik alarik ere
bateratu ta ezinik,
Pasatu ziren eun bat urte
Dena zen arte eraturik.
Napar-Errege zegon Luis Hutin,
Baita Villers, ordekorik,
Noiz eta Etxarri bai ta besteak
Batu zeudeken azkenik.

Ola gerokotz zeuden lotuta,
Elkarrekin erri oek,
Auzaberri bat sorturik biok
Etxarri bai ta Aranayzek.
Erabat zuten atzenik lortua
Aizu zezan Engarranek[29].
Iraupen dauka bat-jotze onek
Sei t'erdin bat iya mendek.

Ordun-sailetan bai ekin zuten
Zaindu-bearrez zaarrok,
Bizmen zolia kemen bizkorra
Bear ere dute gaurkuok.
Nolaz jokatu lengoan ere
Olaz irtengo joku ok.
Etxarri nola, Aranatz ere,
Gora ditzagun-bat-biok!

29 Enguerrand de Villers Nafarroako Gobernadorea (1310-1315).

7. LEIZAREN OMENA[30]

Euskaltasuna oin azkar
Leiza-molde-errian
Nunbeit ere topatu
Benetan da bakan.

Errion dute euskera
Bai zinez maitena
Gizon argitsu batek
Ola du esana[31].

Zabaldua denetik
Esan du iaioa,
Mende erdi bat nunbeitik
Aurrera dijoa.

gaur ere lei berbera,
Atxiki ta tente
Kanpotikoek ere
Ageri diote.

Berdin direla goiko,
Direla bekoek,
oro dire erritartzen
T'euskeraz geienek.

Datorren igandean
Leitzarrek dute jai.
Jolas ari gogotik
T'agur bat guziai.

8. BAIONA-IRUÑA: AURRIDE[32] MEZUZ

Artemin[33] genun jaiegun aundi
Iruñako karriketan,
Ospez ta alaiki aira-bearrez
Elkargo au, barridetan.

30 *El Pensamiento Navarro*-n, 1961eko otsailaren 22an.

31 *Se habla con predilección el vascuence*. Julio Altadill, *Geografía del País Vasco-Navarro*, t. II, p. 235 (A. O.).

32 Anaitasuna.

33 Berriki, oixtian, arestian.

Giza nagusik ziren geiena
Baionatiko ordainetan;
Abegi uxterra[34] zien Iruñak
Erritar goi ta xumetan.

Zoraturikan zeuden yendiak
Ikusiaz egun artan:
Ageri beitzen orren gogaldi
Agitzen dela gutitan.

Arrezkeroztik leia zen bizi
Baionara joatekotan;
Ozte ainto bat irtengo zela
Oro ginauden ustetan.

Aronataidi[35] atsegin gozo ok
Oi bai ziren leenetan;
Antsiak minki ortarakoxe
Bizkortzen ziren beingotan.

Zaina[36] da beraz aski zaarra
Onelako lokarritan;
Ez eman gero berritasuntzat
Oitura zena aspalditan.

Orai Baionak, oparikorra[37],
Ordai-naizko gogotan
Dei-egin digu bertaratzeko
Zoragarrizko jai ortan.

Beronek daukan esku txukuna
Sutsu dabil adelutan,
Ospez aundiak izanen dira
Jaikizunak oraikotan.

Ortxe sortuak zeraten baita
Zaudeztenok lur lein ortan:
Oldez ar zazie agur seintiar au:
Irionik itz goritan.

34 Abegikorra, beroa.
35 *Desplazamiento* (A. O.).
36 *Temple* (A. O.).
37 *Obsequiosa*.

Egin zitzaitzuen gorasarrea
Baita zuena egun ontan;
Aurride-mezuz izan ditela
Erri bioen onetan.

9. NAIA BETE

Maitatzaliok gera
Iasan bearrez oi;
Maitaitzakitan minak
Jotzen gaitu sarri.

Bakan dugu biyotza
Txedeain negurri;
Naia duenak betea
Eskua gora begi.

Ona ni
Daukadala osoki
Amets batez sortua,
Goxoa, maxteki.

10. NESKASO EZTIA[38]

Zer ote zun neskatx ark ain liluragarrik?
Barrua ez beitut izan ain jo ta atzemanik
Ez ta buruan ere oin bizi leiarik.

Gozoa baitu baiki Jainkoak saiatzen,
Bere gizkarbietan[39] denean jolasten:
Nik ikusi neskasoa orrelakoa zen.

Biloa zuen beltza, ikatz antzo beltza,
Begiak beltz baitare, su zuten bortitza.
Goxoa, oi! laxtana, guria, larmintza[40].

Soinaldetan zeuzkala askar zoragarrik,
Asko soka zitzaizkon agoa zabalik;
Asmatzen gaitz zirudin gogozkoagorik.

38 Argitaragabekoa. Ez du idatz datarik.

39 Birgina.

40 Larru-mintza, cutis.

Ez zuen neskatx arek ederrena soina,
Txit baliosago beitzen gogo-baitan zuna:
Neskaso onoimen[41] auta, eleen omena.

11. MAITASUN GULA[42]

Bi *soso*-k top ein dute uste ez zutelarik;
Ikus ta itsumustuan, ara lakioturik.
Auxen ez da maitasun naiz den itxurarik.

Gerore maiteminduaz, elkar suztaturik,
Begiz joka ari dira, elkartzean maizik.
Ez bada funts geiago, au ez da maiterik.

Solas bena nun ez den, atxiki, jarraikik,
Itza dela baraxe, ez tetel t'urdurik,
Ele nai irauna, aiduru, gozorik,

Ez da, ez, maitasuna bear-legezkorik,
Naiz iduri *apatxekoz* aunditan aundirik.
Egizko maitariak dira zirtolarik.

Solas bai ta egitez dira iardukarik;
Maitalege ta sua ez nai inolarik;
Sua gartzen asia, berez da aki-bearrik,
Sugeldoz du irauten luze ta maltsorik.

12. JAZORIKOAN OXKA: STAFFORD CRIPPS'EN UTSUNEA[43]

Iru karrera dituen gizonak
Kasko ta koska bear du izan,
Buru argiya, txede kozkorra,
Ekin da ekin beroan.

Ola Gripps dela jendek diyote
Inglaterrako lurbiran;
Berbera leike gauza, arrigarriz,
Beste edonungo lurrian.

41 *Virtud*.

42 Agerrek *Maitakeriak* izenburua ere bazekarren argitaragabeko olerki honetarako. Ez du idatz datarik.

43 *Stafford Cripps jauna, iru karrera larri ta areago duena, vegetariano zintzoa da. Aspaldiko paper batetik. Min batek jota berriki, Suizara bildu-bearra izana da. Oraiko paper batek. Ona, au irakurririk, Gaztelupeko sudur gorri baten eresia* (A. O.). Argitaragabeko olerkia; ez du datarik. Gurpegi ezizenarekin sinaturik dago.

Ta orren arloa baldin eutsiya,
Bizitz lantzuak ezturik,
Edonork luke miresgarritzat
Neke-pisura ez kurturik.

Burutik argi ain den gizonak
Egin al leza marrorik?
Barkatu, jaunak, ginarri ontan
Nik, lotsa gabe, jo nairik.

Esan didate Cripps jaun argiak
Perdelariya[44], bai, dela:
Premio gizena bazait jalgiya
Ez nindun joko, ez aina.

Ago aundiya gelditu nintzan
Bai ta zabalik begiya,
Nola demontre tentun orrekin
Buruak dezaken soraia?

Itsa dagola, min batek jota,
Sinisten degu, alafede,
Gureak ere egingo zuen,
Balemagute soil *perde*.

Barazki utsak janez geroztik,
Esan bear, okel gabe,
odola txuri, gogoa ilune,
giza guzieri bear zaie.

Esaten dute Stafford Crippek
Lana duela txit larri,
Inglesen diruak, ketxu dagola
Ola zuzendu, ta premi.

Olako grinen arintzearren,
Barazkitara bil adi,
Su litxuak ematen dizun
Ain bearra dezun argiri.

Idi ta beyak eta mandoak
Golde-laneko ba tuzu,
Oloez bazka bai ez ba ere
Axolaz eta burutzu;

44 *Vegetariano* (A. O.).

Alea dana aberiendako,
Okela zaizu alabertsu;
Gizez da berdin nola alimalez,
Arima kentzen badezu.

Bai ete jaten ostail-zaborrak
Lotzen badezu burua,
Duda gaberik baiezten dizut:
Txolaz ez ago sanoa;

Txitxez bai noski zuur ta malgu,
Tenpliaz ere failoa;
Auxen deritzak inoiz ta inun
Bizi izateko modua?

Oi! *Ser* Stafford, itzal aundikin
Nai nitzaizuke mentura:
Suizara bearrez, etor bazinen
Donosti onen txokora,

Astebetean botako zenuen
Gaiztoeneko mindura;
Aurrerontzean dirukerioik
Eman zenitza soinera.

Kaxola goxo ezpain-milika,
Ardo naparra, tartean,
Umorea beti, zeren da bear
Aisa egoteko betean?

Ordea onekin kezka ta minak
Joango zitzaitzun pitean,
Baita kasketa *perdez* bazkatuz,
Ala[45] zaiteken lanean.

45 Segi (A. O.).

13. JAZORIKAN OXKA: EGUNGO BERRIAZ ZIRIKA[46]

Mai batean muslari
Gertatu ziren bi;
Bati Stalin, Roosvelt
Zaion bertzeari.
Enbido txuriz eta
Gezurrak ugari,
Stalin ari zaio
Roosvelt'i ziri[47].

Gaizo puskat etsirik
Amerikanoa,
Errusak aise zuen
Partida jasoa.
Ez zen, bañan, oin pello
Roosvelt iaioa,
Naiz eta zer, batzuetan,
Dirudin maltsoa.

Mustatxo den maltzurraz,
Etsiyan zen baita
Tranpez ere zukela
Partida batuta.
Gorritan bota zizkion
Gorriyenak eta,
Errusoak zernaitan
Nai zuen *epata*.

Mantxungak[48] zion nonbait
Iraungo rusoari,
Ez bazen Roosvelt jauna
Ludiyan iraungi.
Ondoko bear zuena

46 *Gauzak larregi garrazturik, Stalinek estik eta ezti nai luke orai (Edonungo paperak)* (A. O.). Argitaragabeko olerkia; datarik ez du. Gurpegi ezizenarekin sinaturik dago. Olerki honen gutxienez aldaera bi utzi zituen Agerrek, eta beronetan ere hamaika ohar, emendio eta zuzenketa.

47 Hurrengo aldaera batean Krutxev eta Kennedy dira Agerrek musean ezarririkoak.

48 Jauja, ganga.

Asi zen azkarki;
Ez beitzion ezertxok
Bildurrik Truman'i.
Asi da ba enbidoka
Enbido benetan;
Stalin'en mustatxok
Jarri daldaretan.
Hiroshiman ez laztua
Biyotz ta biloetan,
Askoz ere gutiago
Buruz-burukoetan.

Jokoa nai badezu,
Joka legez lege,
Tranpa ta maña gaiztoak
Utzi bear alde.
Tantok eta amarrekoak
Bear tut nik ere...
Batzak eta partidua,
Izatekotz bide...

Ez zakit ba etorri
Inbido-gezurraz;
Ordagoka nizaizu
Ni ere gutienez...
Gomazu[49] *ni ez nauzula*
Irabazi errez;
Dantzatuko nizaizu
Joko dezun airez...

Stalin azeria
Axuri bide au da
Truman eta yankesak
Bear zaio ema.
Ozkatua duena
Ez bazen utziye
Ez zen izango gaurko
Maxteki ai, oi, ene.

49 Adi, kontuz.

14. MARTIN ARRIZUBIETARI[50]

Arrizubieta'r Martin jaunari:
Barka zadazu beranta,
Eman zenidan itsumustua
Ixil uztiarren ez beita.
Aipa dezagun zenbat gertarik
Datozkigun bat eginda:
Euzko olerkari, parroko alere,
Cordoban oin goin dagona.

Gogoz ta pozik baiki nintzaizun
Erantzun bearrez irtengo:
Egun aietan nengozun lantzu
Ezin esan nola gero.
Astirik nuen guti bai guti,
Nume-ik, oi!, are gutio:
Zuk badakizu, ok ez lagunki,
Besterakok zer balio.

Beste aldetikan nai nizun ere
Agur oso bat nik egin:
Zuk neri bertsoz t'orren poliki
Ziri ta zirtoz eragin,
Orra nik, aldiz, ote deiari,
Soinak uzkur, gibel egin?
Ez baldin bere, naiko ez nuen
Erturi au gerta dadin.

Azken bearrik lanak amaitu,
Emen nuzu natorrela,
Len esateko zure mezua
Txit atsegindu zaidala.
Urte guzikotz opa dizut, ba,
Osasuna dezazula,
Baita bakea, Jinkoarena,
Egizkoa berau dela.

50 *Mandada al interesado en febrero de 1960* (A.O). Argitaragabeko olerkia.

Ez dakit nola bizi zeran or,
Ere daukazun xokoa,
Non Euskalerri arnas dezazun,
Poxi bat beintzat, beroa.
Orrela baldin, etxekoeri
Eda bekie gozoa
Zorion-agur au t'izan zazuela
Ongiez urtea naroa.

15. BI BEDERATZI PUNTOKO TIRATZAILE BATI[51]

Tiro bat atera da inundik *bota* ta,
Ez goazen *erautzi-iraiz-jaurti*-keta;
Eskandalu litzake itz ok ibilita
Bota zakar auxen nun jabe ta jaun beita.
Predikuak dira ta,
Sermoi-aire baita,
Bearrik ez beita
Inundiko *lata*.
Herria-k obe luke berriak baleuzka.

Bata bada sermoia, bestea ez da guti,
Prediku baten kontra beste bat ez jarri,
Batean ez untsa, bestean ez ongi;
Ola sendatuz geroz, gauza ala da ain gaizki.
Nai badezu kausi
Tira gaitzaz sarri,
Zaite berrikari,
Ez ba predikari:
Berriak badituzu, ariekin etorri.

16. URTEKO SASOIAK[52]

Ludi-ekaitan lau ezar
Bizmen nai baduk ekar:
Lurra, Ur, Su ta ume
Iruk ok sortua Aize.

51 *Se mandó a* Herria *en 3 de julio de 1957* (A. O.). Napar garai batek sinatuta. Esan *Herria* aldizkarian argitaratu zen 1957an berean, 363 zenbakian.

52 Argitara zein datarik gabeko olerkia.

Len-leen
Ludia abiatzen omen zen,
Lau Ekai ok bertan-bertan
Eman ziren inartzen.

Urtean moldabide
Lau Sasoaik dituzte:
Udaberria eldu egin
Ta deiak diye tilin.

Bizitza
Sortzen da zarta-zarta,
Aizea delarik bide
Naro ta ausar datorra.

Beroa da kantitzer
Uda alderatzen den ber,
Aizeak Su dakarra,
Batzuetan suarra.

Una ba
Nola diardu Udaroa:
Maiz-maizetan dugu nausi
Sargorikin Egoa.

Askori zoramena
Zaigu bai Udazkena;
Gozoeneko lerinak[53],
Kolorez zapartena.

Basoa
Gorrailez zurbildua,
Berde klorosis naasmen,
Ostailetan, kizkorra.

Urritik Negurat
Bello-bello[54] arteko bat,
Noiz ere bizkor al gaizke
San Martin eguzkirat.

53 Fruitu helduak, sasoikoak.
54 Bero leuna.

Negua,
Musu latz, ta uzua:
Laur Ekai on maneran
Zirt ta zart duk eskua.

17. ESKOLAKUNDE[55]

Eder autoan parkiyak,
Parkian eder liliyak;
Eskolak aurtsu baldin baditu,
Geiago dauke erriyak.

Ikarez lorezainak
Artatzen tu zuainak;
Eskolan, aldiz, koxkortzen dira,
Aur guriyen adinak.

Paradisuan lorerik
Aukera zen nabarrik;
Eror ondoko aurtto ttipi bat
Ezin etsi berdinik.

Lortelez[56] arrotittu
Iruñak aipamen du;
Maisutasun badu nola lilizain
Ederrak tuke zitu.

55 *El Pensamiento Navarro*-n agertua, 1950eko urriaren 5ean.
56 *Jardín*.

18. TXORIARRA PIPERGILE TA TXORIÑE BAKARREZ

Gaur lo bear Txoriñek
Alarguna-moldez;
Ala-gaizto Txoriarrak
Egin du *piper beltx*.
Maizik oi zun Txoriñek
Ebaxkan ederrex;
Arrak olako batez
Egin diyo igex.
Dardaraz degu urrixa
Oraindik egunez,
Ilunbeak zarritu
Zer ditake gauez?
Ilko da ba bildurrak
Alargun egotez:
Untza botako zaio
Sekuleko gosez.
Urriki izan zaiote
Auzoak biotzez:
Izuak janen zion
Ez balitz auzoez.
Pipergile kurrukan
Beste eme berriez:
Batzari egin diyote
Beteta goxoez.
Gizartean omen da
Zenbeit emakumez
Legun joaten direla
Pipergilen eskez.
Alaz ere Txoriñe
Ez zaioke otoitzez:
Arrari bear zaio
Etor azi berez.

19. EUSKARA ZAIN DEZAGUN[57]

Azaroren zazpian
Euskel-irakaskintza, ots dutenaz dei eginek,
Zabalduko da Iruñan.
Laur egunez astean arrats oro izanen da:
Astelen, asteartea, asteazken t'osteguna.
Nortzuk ere nai duten
Esan bezate leen
Idatziz, izenarekin abizena nola den.

Dei begikoa guzientzat:
Naiduruek[58] bekite: atariya una emen
Zabalik edozeintzat.
Principe de Vianak da onen aukera emana:
Aldundiyak ar beza naparron esker ona.
Gure aldetik daiogun
Obekien erantzun
Zintzo egitez ortakotz dagon dena gure eskun.

Atseginak urteon
Euskerak zer aintza dun zenbeit toki pikutan,
Una ementxen xorta on:
Salamanca ta Salduban badiote goraintzi,
An dago Tovar jauna euskal gaian ikasi.
Unek leia badager
Aise dakiyo iger
Adimotxa naizela baldin banekio aier.

Buenos Airesen baita
Euzkoen ele zarrak izaten du goreste.
Oargarrizko besta
Irakastei Nausiyan[59] ospez diote erazi[60]
T'euskeraltze-kargua an dagerra legezi.
Senitarteko lege
Erakusten diote
Ameriketan ego ta iparrak baitare.

57 *El Pensamiento Navarron*-n agertua 1955eko azaroaren 6an.
58 *Aspirante* (A. O.).
59 Unibertsitatea.
60 Antolatu.

Ikaskuntzetan argi
Bordele ta Toulousen Irakastei Nausiyek
Egin diote abegi.
Lafon bai eta Gavel oin agerturik kexo,
Onesan bai eta adeiak[61] euskerak ditu jaso.
Ez dagigu ba kontu
Maiz denaren gertatu
Munduan barna barreia zenbat den goraipatu.

Atseginak atsegin,
Okituenatzat baiki mii-miitan degu
Bordelek zer dun egin.
Den ereko mallotan legez daukate Prantzen
Aztertu nor bere elez ikasliarrak al diten.
Emaniko puntuez
Noskiyak gerta leikez
Orobaten aintoak gorago jo ta gañez.

Inun ekuskaririk
Ez da, ez gurgarriago, auxe dator bizi-bizi
Nork ez dakin aldirik.
Zenbatez den aitzina, aitzinagoa daite
Lur-araldi[62] au baño ta giroa bañore.
Au ta geiago esan du
Gizon batek iztundu[63]
España ta munduko buru argiyetan buru[64].

20. ERRI MINTZOAK[65]

Mintzo batek zer duen Jaunaren aurrian,
Ikus gertatu zena Mendekoste jaian:
Orok entzun zutela argi ta garbiki
Zeinek zuen elean, zer nai ere erki.

Goteuna ager zeikean inun ez zen mintzoz,
Erakus zitekean Arek asma-antzoz,
Aukera zezakean eletariko bat
Ta bildu adimen oro Arek autaturat.

61 *Consideración, deferencia*.
62 *Periodo geológico* (A. O.).
63 *Letrado* (A. O.).
64 Ramón Menéndez Pidal jauna (A. O.).
65 1955eko argitaragabeko olerkia.

Gogo Deuna izaki, nola den Aundia,
Erakus zitekean elerik gabia,
Ez beitu solas bearrik baizikan gogora,
Ez soinalde batera ez ta belarrira.

«Egun aundi ta ospatsuon» belarriek ere
Atzeman bear zituzten soñuak baitare;
Itzak zirela bide, agertu zen Hatsa;
Itzok nai zuen ziten norberaren mintza.

Inoiz bezin apainik gauzak ziren egin;
Goteuna zela egile, oro lurrera etzin;
Ele oroz bazagon mintzatu bearra,
Auxe zen, oberenaz, itamu bakarra.

Ainbat dira doaiak Goteunarenganik;
Bata: bakun-izamen, ez dena gutienik;
Orra gu baginake doai onen kide,
Antzartuko genioke buru eta olde.

Arek nai baldin badu, erakusgundean,
Erriak ager diten, mintzo ta izatean;
Aieri zaienean zein elez mintzatu,
Orren aitzitik-aitzi, zergatik gogortu?

Zergatik guk nai dugu, buruzagik, leen
Erritarren eleak zokora ditezen?
Nola, ba, artu elkar, Goteunak egina
Ta buru oken eza, ez baden iguina?

Ar zazute liturgia egun aundi onen,
Ea zer dakarkigun bikainik ta urten;
Linguis loquuntur omnium, auxe zen oiua,
Biotzetik jalia, miitan usua.

Zenbat aldiz ez derra gaurko ofizioak?
Amar aldiz ez aipa aste guzikoak?
Omnium itz jori orri oart bagintzaio,
Bai ekaitan nasaia erauzi litzaio.

Orra, Goteun zoliak argi nai izan tu
Aita, Seme ta Berak dituenak sortu.
Izenaz ots eginik erritar orori,
Ola beita mintzoan begiko dei ori.

Gogo deunak bete ta, asi ziren elez
Beroien mintzaietan, izkuntz bereziez,
Nolaz ere Goteunak izpide zemaien,
Jaunaren gorasarreak abesten zituzten.

Katolikotasuna ontan ere datza;
Oñarri onen gañean jarri zen Eliza;
Eliztarrik balitza, txede oni aierra,
Goteunak eginari ager dio erra.

Inun diren ergelak, apezak otean,
Elizatik euskera baztertu naiean,
Jakin zatela zintzo ori dela obena
Goteuna iraindu gabe ezin ditekena.

Baldin badaude ezpaian ontan nola joka,
Mendekostez azkartu sinismen koloka;
Merezi ditzatela Goteunaren doaiak,
Bata, ta goieneko, mintzatu mintzaiak.

21. SANPERMIN JATORREZ OROI[66]

Digu txirrinta noski len-jaiak zer ziren,
Noiz eta oiturak ziren zintzo ta jatorren.
Farra zuten bizkorki aintzineko plazan
An agertzen zirenek artsaldeko dantzan.

Zezenketan zer gerta ez ziren ok larri,
Ez ziren, ezta ere, arien aldekari.
Aski zuten segurki elkarrekin leia,
Gogoz aditzekotan mutil neskok deia.

Lauetan zun asiera dantza pozkor onek,
Aurretik esan gabe biltzen ziren ariek;
Bein bañoago ere plazarat joailek
Antxen gelditzen ziren iragan ta aunitzek.

Galeak irrikitzen, biyar an ziren zai,
Dultzainak as-ordukotz, txintxo bai ta garai.
Oin atsegin agertzen dantzariak oro,
Ordea ematen zuten ixil ta zintzoro.

66 *Txistulari* aldizkarian agertua, 26 zenbakia, 1961eko apiril-maiatza-ekaina.

Larrain-dantzak an zuen, an zuen *ephaitza*
Pikoketan triskari, uraxe bai dantza!
Neskatx eta mutilen mugi zaloiena
Funtsik gabe t'ergelki arras galdu dena.

Gazte zardai aeri galdetuko bazen
Sanperminetan denik zer nai zuten geien,
Orok erranen zuten: artsaldeko dantza.
Ain zen kide ederreko egiten zen batza.

Orain diren dantzairak ezin dirade erkat,
Egunez egiteko ez da gelditzen bat;
Nai bada gaur xostatu, gabez egin bear,
Gaur dabiltzan txoriak oro dira gautiar[67].

22. SANPERMINETAZ AUTU[68]

Muskilaro ditugu lehengo moduak,
Berriz asten direla bertsotan mezuak,
Ogei mende baditun gutun batek ola
Orain gitu txunditan bailitza beñola.
Ordun t'ondokoetan irakasle gainek
Asmatu zizkiguten bertso-gisa autek;
Adibidez Horatiusek auxen egin zuen,
Barkat auterestia unarañoa den.
Latiumko gizurena aiputan jarririk,
Ez banaizen ere ni aipatzeko ainarik,
Atalka-autua bai da, gizanausien ustez,
Omen ta goraintzitan hura bezainbatez.

Ez gero ba areago alperrik eleka,
Emen jatorriz degu zezenen atalka[69];
Yendiok jostatzekotz odolik ez da bear
Naiz eta den olgeta inarroskin azkar.
Zaloimen eta azkua[70], una biok batio,
Kirol-abiak olderik baita kemen daukio,
Jokuaren zailduak darakusgu gogor:
Beraz deritzaiote bertotiarrek *kozkor.*

67 Olerki honen aldaera luzexkagoa 1957ko sanferminetan agertu zen, *Pamplona* aldizkari komertzialean.

68 Argitaragabeko olerkia. Ez du idatz datarik.

69 Entzierroa.

70 *Sutileza y fuerza* (A. O.).

Obe negurtzerako denaren indarra
Uste zagun erroa duela naparra:
Lurrak eda guzian bidez-bide eginik,
Erri bat ere ez dago ortarako denik.
Agoa bai dut untan noski zabalegi,
Damu nintzake beraz unen uts banegi.
Beste erriek balute zain unen aukera,
Gordeko lioteke eder ospakera.

Iruña, dakusgunaz, aunditzenago da,
Lekua du berbera, atalkarakoa,
Nola zuen aspaldi, erdia zelarik:
Erdiaren erdia, esan bear, segurik.
Norbaiteri dagoka sendaketa au sarri,
–Erabarri dadien ez bedi inor arri-;
Buru ernerik bai da ausar bai errian,
Lot bitez oek ere gogotik arian.

Obetuko balitza atalka moldean,
Erauntsi gaitza luke mundu zabalean;
Atalkarik ez da-ta lurbiran ez inun,
Aukera luke Iruñak beste batek ez dun.
Noiz eta adimen ondok jardunik zuteken,
Asmo batez ondurik, gauza burutua zen:
Ibil t'iker-yorana[71] –aisa da mugitzen–
Alat ez besterikan izango genuen.

Amets zoritua dauka uni buruz batek,
Atalka zer litzaken, baldin ba mutilek,
Karrika tapat-ordez zakarrain zakarrez,
Multzo zenbeit eginen bikain-laistergilez.
Inun izan ez dena saia liteke emen,
Mutilak ta zezenak, sutsu erasoen;
Aek, txairo, soin uska, txulietan ebatsiz;
Zezenek, ats andika, adarketan usiz.

Gaurko gisan atalka zinez ez da eder,
Espantagarri baiki, ezin deikena iger.
Zoragarri izan leike, gerkarren[72] molderat,
Narrazteko yendiak, su ta gar, unerat.
Gizaldiek geroago, gopor-egintzetan,
Irarriko lituzte ereduak gerrietan;
Irunxeme xaloa, oin gorat ekarri,
Noiz eta nun ditake bikoitz gizalarri.

71 *Afán turístico* (A. O.).
72 Greziarrak.

Asmok milikatzean, txol motzek zer duten?
«Irunxeme bezate atalka nola den,
Utzi ditzagun gauzok onela segitzen,
Orain dagon manera delakotz oberen».
Apatxeko geiegiz ari naizea ni?
Ez emateko, dute, ainbat omen uni.
Atalka beti ere, funtsez bai da larri,
Ezeslek nairik ere ari doaiak urri.

23. SANFERMIN KARIZ HOLGORIOK IRUÑAN[73]

Jaiak asian asi

Feriez aroa badugu,
Jaion jaia askorentzat,
Inoiz ez beita gozartzen
Sanferminetan ainbat.
Irunxeme txantxalanok
Dute igartzen *bulko* bat
T'ezin atxiki galeak
Yauz-bearrez plazarat.

Gizaki larriek aurrak
Ezin geldik eragoz,
Argoriorat nork artuko,
Kitz-kin dira tentumotz.
Inor badago ezin dula
Zer egin mutirikoz,
Zarta dioke golkoak,
Sutunpa aterazkeroz.

Totozko sutunpak

Mezetak asi t'ozteak
Alai doatzi farrera;
Suziriak farrastaka
Goian zapartzen dira.
Bera baitan du sutunpak,
Bera baitan aukera;
Barnean diren totoak
Umiek duten tira.

73 Argitaragabeko olerkia, datarik gabe.

Erriko dantzariak

Ospe dute dantzariok
Dantzara direnetan,
Goraintzi diezte bero
Erritarrek eletan.
Agertu ta bereala
Dantzariok kaletan,
So-egileak ari dira
Sekuleko gozotan.

Pintxo daude nagusiak,
Erriko nagusiak;
karrikara azaltzekoan,
Oro nai gera finak.
Sanfermin aintza ematera,
Goazen beintzat txintxoak,
Ugari beitira maizik
Goaten ez zaizkionak.

Farra naiago

Nerabiek geienetan
Atseginez, to nokin,
Ba ordean neskak dire
Zertaz ageri muzin.
Mutilok oxek ozkorrak
Naiz delarik Sanfermin:
Mezuz dirautsie neskeri,
«Barkat, ezin gera xin».

Neska-poxpolinak
Mutiko bat fakindun
Zendoein andana

Uso sailaren eraz neskatxak ona jun:
Musuz ziren legunak, soinak ere xukun.
Soma dira zendoiak, iskanbila aieki;
Oraiko gailent-itza ekeri dagoki.

Mutiko bat, zarralde, zotinka –gaxoa–,
Amatxok, sermoi larriz, eskutik daroa.
Gorri majo dakarren fajin garratx orrez
Ez dagoka ager dadin kurrinka-negarrez.

Kilikik
Zaldiki-maldikik
Oxek gaztiekin niki-naka
Iruñak iraungi kale-dantzak
Zamaltzainen oroiz, agur.

Euzko mendetan barna –ak ziren mendeak–
Ez, ez zuten onela ari kilikiak.
Ordun txistulariek, eraginez, airots
Zeroazkiten morroinak lerro lerro ta adots.

Zaldiko-maldikoena zen zorionaldi
Karrikan zirelarik dantza ta dantzaldi.
Mutikoer zarta-zarta ez zen, ez, mazkuri,
Bai, irakas modua dantzaz auzoari.

Jatorrik noiz ta dantzak zebiltzan kalean,
Zaldikoak baitare zirauen sasoian.
Dantzak aienaturik kaletik at leko,
Ilgaitzak meatxatruk, zaldikoa dago.

Ez bazen ere ain gora yenden estimuan,
Alaz ere zerraien aintza ta mimuan.
Egun batez litzake xotilki Zamaltzain...
Garayik, egun ortan, nor bera bezin ain?

Zaldiko urritu da Xaldikora

Ekintza da kaxkartu uste baño geio,
Mutikoak, karrikan, bazter ari zaizkio.
Gaurgeroz, xaldikoa ezin da Zamaltzain,
Agian da geienaz Miel-Otxinen zain.

24. MUTHIKO ALAIAK ABIAN[74]

Su ta gar zeregina
Asi duzute,
Ikurrina, zabalik,
Eldu zerate,
Ai, ai, ai mutilak
Eldu zerate.

74 *El Pensamiento Navarro*-n agertua 1950eko irailaren 19an.

Asiyan irauteko
Zinez jo bear;
Gauzei ustel eltzeko
Obe da ez jar.

Ikurrin bat, euskeraz
Ikurra duna;
Maizenik ez da agertzen
Onen eguna,
Ai, ai, ai mutilak,
Onen eguna.

Berton diyo Muthikok
Poza dakarla.
Zer nai den ere alayik
Betor bereala,
Ai, ai ai mutilak,
Betor bereala.

Farraren pixkorgarri,
Dantza ta kanta,
Gaurko jakiya baño
Merkiago da-ta,
Ai, ai, ai mutilak,
Merkiago da-ta.

Sei Merindade zeuzkan
Aintzin Nabarrak:
Ola diyo Ikurrinan
Muthiko Alaiak,
Ai, ai, ai puthikoik,
Muthiko Alaiak.

Umore, ziri, pertsok
Euskerak, iaio;
Goxatu nai baduzie,
Ikas agudo,
Ai, ai, ai mutilak,
Ikas agudo.

Txori arrapatzaleoi[75]
Danxari trebe,
Inun den iardukiena
Pirueta zale,
Ai, ai, ai mutilak,
Pirueta zale.

Orra, Muthiko Alaiak
Duzien aukera:
Gastek eramateko
Gogoz dantzara,
Ai, ai, ai mutilak,
Gogoz dantzara.

Gixalarriyak, noizbait,
Dantzari muzin;
Orain ordean askok
Begiyak arin,
Ai, ai, ai mutilak,
Begiyak arin.

Oraiko bizi latza
Pasagarri da,
Zangoek zil badute
Pikoak aizera;
Ai, ai, ai mutilak,
Pikoak aizera.

Garaiz etorri zate,
Muthiko Alaiak;
Naiko txitxa ez izaki,
Goxo milikak,
Izan dedila behintzat
Dantza ta kantak,
Ai, ai, ai mutilak,
Dantza ta kantak.

75 Irunsheme (A. O.).

LABURPENA

Jose Agerreren olerkigintza osatzen (I)

Jose Agerreren poesia oparoari buruzko sarrera, eta haren biografiaz eta obraz hurbilpen labur bat egin ondoren, 24 poema ematen dira, batzuk argitaragabeak eta beste batzuk garai hartako prentsatik ateratakoak.

Gako-hitzak: Jose Agerre; euskal literatura; poesia; Nafarroa.

RESUMEN

Completando la obra poética de José Aguerre (I)

Tras una introducción sobre la abundante poesía de José Aguerre, y trazar un breve acercamiento a su figura y obra, se reproducen un total de veinticuatro poemas, algunos inéditos y otros rescatados de la prensa de la época.

Palabras clave: José Aguerre; literatura vasca; poesía; Navarra.

ABSTRACT

Completing the poetry works of Jose Agerre (I)

Following an introduction to the profuse poetry of Jose Agerre and providing a brief account of his life and work, a total of twenty-four poems, some unpublished and others sourced from the press of the day, are reproduced.

Keywords: Jose Agerre; Basque literature; poetry; Navarre.

Jose Agerreren olerkigintza osatzen (eta II)*

Joxemiel BIDADOR (apailatuta)

ATARIKOA

1.- Magoak karriketan barna
2.- Jaundoni Balasi
3.- Xabier'at beilariak epailan
4.- Jaundoni Joseph
5.- Astearte gurena: jaundoni Petriren negarrak
6.- Nekez aro: abar-igande ta aste guren
7.- Nekaustean urkus
8.- Aste gurenakari bi bildotxak
9.- Berpizkunde egun eder
10.- Kristo, nausi, jakintzaz
11.- Yesuren ezaguera buru ta biotzan
12.- Maitasun da zitu bat
13.- Jaun oteunduak bizi, goiargi, berpizi ta egia digu
14.- Bideako andrane Iruñekoa
15.- Doñe Felixe
16.- Besta berri autukiak
17.- Irutasun goientzua ta deun mikel
18.- Irutasun irudiak: ergan eta arren
19.- Donianetan su ta poz
20.- Deun Petriren beila

* *Egan. Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Boletinaren Euskarazko Gehigarnia,* 1-2, 2004, 27-70.

21.- Eguerdi-eguerdian koetia
22.- Agur jaundoni Mikeli
23.- Jaundoni Mikeli agur
24.- Andre Mari Iruñekoa
25.- San Mikeleko feriak
26.- San Zernin
27.- Iltzean ere mixiolari
28.- Xabierko Franzisko
29.- Done Xabier jaiaren yaulkia
30.- Jaundoni Prantzisko
31.- San Frantzes Xabier sanziango ugartean iltzer
32.- Ama neskaso loaldikoa iruñan
33.- Andrane Mirenen doakundea
34.- Lurden gogartez
35.- Ur goiena, ur barrena, ur berria

ATARIKOA

Hirugarren bilduma honekin bukatutzat ematen dugu Jose Agerre Santestebanek gerra ostean idatzi zituen olerkiak jasotzeko egin dugun ahalegina. Aurrekoan aipatu bezala, Agerreren beraren alaba Mirentxu izan da argitara gabeko olerkiak helarazi zizkiguna, eta neurri handi batean, berari esker atera ahal izan dira plazara azkenean.

Agerreren olerkiak jasotzeko ahalegin honetan lehenbiziko emaitza *Jose Agerre Santesteban: gerra ondoko olerki lanak (1949-1962)* izenburuko liburua izan zen, Iruñeko Udalak 2000 urtean atera zuena, eta 44 olerki jasotzen dituena. Bi urte beranduxeago, *Egan* aldizkari honek «Jose Agerreren olerkigintza osatzen (I)» artikulua atera zuen 24 olerkirekin. Eta azkenik, «Jose Agerreren olerkigintza osatzen (II)» honetan beste 35 lan eskaintzen ditugu, gehienak inoiz argitara eman gabekoak. Hortaz, eta gerra aurretik argitara emanikoa zein zirriborro ulergaitzetan utzitakoa kontuan hartu gabe, ehundik gora olerki utzi zigun Agerrek, diktaduraren urte gogorrenetan Iruñe hertsi hartan idatzi eta zenbaitetan argitaratuak ere, gauza filusa ez dena.

Hirugarren honetarako utzi ditugun guztiak gai erlijiosoko olerkiak dira, dudarik gabe Agerrek gehien erabili zuen gaia. Komunzki tokian tokiko ikuspuntua agertu zigun idazleak, Nafarroako zein Iruñeko bizitza erlijiosoan oinarrituriko poemak: San Blas, Bideko Ama Birjina, Santa Felizia, Bestaberria, Ergako zein Arreko Hirutasunak, San Fermin, Aralarko San Migel, Frantzisko Xabierkoa, San Zernin... Bestalde ere, Agerrek erakutsi zuen jarrera guztiz ortodoxoa da, elizaren barruan inolako zalantzarik planteatzen ez duena, Sorkunde Garbiko Ama Birjinaren gaia darabilenean bezalaxe.

Oraingoan olerkiak gaiaren araberako hurrenkera kronologikoan ezarri ditugu, izan ere, Iruñeko Udal Aurrezki Kutxaren zuzendaria zen Migel Jabier Urmenetak eskaera egin baitzion Agerreri erakundearen egutegia bere olerkiz hornitzeko. Azkenean, ezagu-

tzen ez ditugun arrazoiren batengatik, Kutxak ez zituen Agerreren poema laburrak argitara eman, eta bere paperen artean geratu ziren ahantzirik. Guztiarekin, interesgarria iduritu zaigu hurrenkera hura hala edo nola probestea, eta urteko festen segidari men eginez Agerreren olerkiok agertzea.

Esangabe doa Agerrek bere olerkiak argitara eman zituenean erdal aldaerarekin agertu zirela, gehienetan bederen, alabaina erdal bertsioak euskaratik eginiko itzulpen libreegiak dira, normalean prosan jarriak eta poetikotasun gutxi erakusten dutenak, esanahiarekin kezkatuago zegoen Agerre bat erakusten digutela. Jatorrizko euskal aldaeretan, berriz, Agerre olerkariago agertzen zaigu, musikalitateaz arras kezkaturik eta esanahiaren araztasuna bigarren lerro batean uzten duela. Garbi ikusten da, beste maila batean, euskara nafarra erabiltzeko joera, ekialdekoa behinik-behin, baina onartu behar da, bestaldetik ere, oparotasun horren barruan olerkariari akats gramatikalaren bat labantzen zaiola noiz edo noiz. Ardura falta honen azpian erdalduna zen irakurlearentzat idazten zuelako ustea iger liteke agian, izan ere, Agerreren lana isolamenduaren barruan garatu zen neurri handi batean, idazle eta irakurlearen arteko beharreko elkarrekikotasunik gabe.

1. MAGOAK KARRIKETAN BARNA[1]

Urtea besta txikizale batez abiatzen da, zoragarrizko benetan. Ez eguberri, ez urteberri, ez orrelakorik magoenari ez dio izamen urritzen. Guziontzat da jaia, ala aundientzat nola txikientzat. Txikieri joko, aundieri gozo, geienetan naiz ez den ziyo berberaz. Magoetariko ok geneukan eta daukagu katedralean. Ara klaustran, *L'adoration des trois rois mages*, Jacques Paruten istorioa, lau iduri, lasai ta luzeran. Birginak, exerita, aurra du altzoan. Iduriok dira arrian tayutuak.

Bi jaitze ok ez dira berdin,
Zeinek zein dauka berezko;
Arri-antzak dire aundikientzat,
Karrikakoak, txikientzako.

Bizitzaldiko gauzetan oi da
Zerbait, beti ez gogoko,
Txikiak bañan jolaz ikusten,
Aundiak dauka bai gozo.

Lehengo gisan lotsaz ibilki
Eliz barne zen bearra,
Orain magoak dirade haizu
Karrikan franko agertzera.

1 Argitara zein datarik gabekoa.

2. JAUNDONI BALASI[2]

Deun taumaturgo onek Iruñan hotsa du benetan. Eztarri-minen sendatzalea, ongile ziurra agertzen da. Exur edo gogorkinen batek zintzurrean zear egiten zuenean, lehen batez ere, an ziren minak eta zinak atera beartako. Gizonek uts egiten bazuten, Doni Balasirengana jotzen oi zen. Urtean bein bederik eskerrak eman bear eta berriek eskatu. Bidenabar, jakiak elizara eramaten dira. Arkupeko naietan utzi ta apez batek bedeikapenak pasatzen ditu, Don Nikolaren parrokian. Egun guzian ari dira jendeak arrenak pasatzen. Elizkizunak ospe aundiz egiten dira, bi eliz-bira, goiz eta arratsean. Baita meza nagusi bat, ederra. Ola 1339gn urteaz geroz. Ordutikoak dira beintzat anaidiaren araukiak.

3. XABIER'AT BEILARIAK EPAILAN[3]

Javierada deritzon au berria da gaur nola den. Aintzinetik, beilak jadanik egiten ziren urte bitartez baña bereber ta lasai, epaillekoa kenduta, au ospatzen beitzen oparoago, bederatziurrena dala-ta. Epailleko lehen egun ok urte asko ditula dira omentsu, Frantziskoren donakundea edo santutzat erasatea ille ontan izan zen-eta.

Epail lauratik amabia arte
Napar-gazteak beila du:
Urte orotan den aro ederra
Xabier-aldi deitzen dugu.

Propieneko duten eguna
Zenez geroz beila sortu,
Arteko igandea, oron txedera,
Nai izan dute egokitu.

Goizetik prestatzen dira
Gutiziz bai eta sutsu,
Arratsaldekoan dute gazteak
Gogo bizi ta naiduru.

Arrastirian bai ta gabean
Zangotzera dirade heldu;
An dute afaltzen bai eta atsartzen
Nai dutenak Xabieratu.

Bitxigor, bidek nola datortzin
Ezin da beraz etsitu,
Ogei bat mila aurtengoan ere
Al izan dira zenbatu.

2 Argitara zein datarik gabekoa.

3 Argitara zein datarik gabekoa.

Heldu izanetan ainto bat dira
Ez, ez direnak arraildu,
Bidea dute-ta amaitzekoan
Ain otz ta terne bukatu.

4. JAUNDONI JOSEPH[4]

Josepen jaiarekin batio, baratzetan asten dira liliak ala nola elorriaren txuria bezala. Iriko baratzetan ere bai, omen danaz, gaztain batek lenbizikoak erauzten du lilia. Hura omen da deia eta bestiek diote jarraitzen.

Ez legoke ondo
Lurrak ez balu,
Joxe deunari,
Bere aintza batu,
Noiz eta jaunak
Ola egin baitu.

Mila itz goi ditezke
Onetzaz yaulki
Nork ere dakien
Airos idatzi.
Jaundoni Joseph
Delakotz aundi.

Bai goiko daukagu
Zeruan Joxe
Irazaki soila
Izateko ere
Azkarki baliosa
Dauka bitarte.

5. ASTEARTE GURENA: JAUNDONI PETRIREN NEGARRAK[5]

San Pedro deitzon lekaidetxean
–Argaren gain elizetxe–
Bere leialek astearte guren
Ospagarritzat daukate.

4 Argitara zein datarik gabekoa.

5 Argitara zein datarik gabekoa.

Uste beitute gauz ona dela
Deun Petri izan alde
Urtean behin, lege-legetsu
Asmoz jausteko dirade.

Jaundoni Petrik dariotz negarrak
Gaurko egunean baitare
Eta lañoek, poliki bilduz,
Lurrat ekartzen dituzte.

6. NEKEZ ARO: ABAR-IGANDE TA ASTE GUREN[6]

Aste deuneko lehen-atala,
Abar-igande goizean
Umen agertze oyutiekin
Katedraleko klaustruan.

Zein eder-yantzi dagon eliza
Ezin esan itz gutitan
Iduri du-ta egina dela
Gaurkotz bezala abaunean.

Aste ontako beste egun batez
–irugarren egunean–
Beste elizara badaramate
Ama Nekezkoa gabean;

Egon-bearrez, behingotz, artan
Ostirala arte, arratsean;
Noiz ta elkiko katedraletik
Eliz-bira ateratzean.

7. NEKAUSTEAN URKUS[7]

Yesuk, il aurrez, gogorrenekoa
Galeskundean zuen izan;
Uste zeikean Jaunak goregi
Giza zunetz aintzat eman;
Izakia zela, ai!, ta arrokeriz
Kutsaturik nola beitzan.

6 Argitara zein datarik gabekoa.

7 Argitara zein datarik gabekoa. Gai bereko beste olerki batzuk: «Aita Yesuren eriotz doatsua» eta «Ostirale deuneko misterioak», biak 2000ko antologian jasoak.

Goize parkakor nekausteko onek
Zeñen sarkor, ikarea!
Doai bigunaz eman izanik
Jainko erosleain legea,
Bere errukiaz goza ahal degu
Jainko irazaleain pakea.

Ara nekaldiz zear ta barna
Nolaz ari den oldezi
Iardun ta iardun gogoeta bat
Eten gaberik nagusi:
Giza-menari antsia sar dakion
On-alakorat erazi.

8. ASTE GURENAKARI BI BILDOTXAK[8]

Illunik ez dezala zohardi au belztu,
Ezta gogoen poza itzalik goibeldu;
Gogoeta gaiztoak ez ditzagun alha,
Gau untan beita azaltzen Urtziren ahala.

Igiptoarrek yuduak azpiratuz anker,
Gon-gorenaren itza gertau zan betetzer:
Libre Israel-erria nai zuen Jinkoak
Errausturik zearo etsai galgarriak.

Gaur zen pestaburua, *phase* deitua
Hastirian jadanik Jaunak arautua.
Umerria zen gertu, buru-sabelkiak,
Osorik jatekoa zuen aginduak.

«Gure goiko jaun orrek, –Moisek zion oles–
Gukin dugun indarra, zarela zu babes!
Erriak kanta beza Iahveren oldarra,
Birrindu digulakotz arerio zakarra».

Azken mordoskan sartu Yesu jangiara
Oro makurtu dira beraren gertura;
Aratza da betartez, musua zein argi,
Dager gogoz emaro, solasa du ezti.

8 *Pregón*, 1958ko aste santua.

Ezerk ez dio nasten barruan dun gentza,
Daugion naigabeak ez irauts bihotza;
Alaz ere dun poza bizkor izateko
Bekundea bear luke xit arraiagoko.

–Yuda, Yuda, nola aizen Yesu, ri oin girbin,
Gutik ziok erabe i galdurik adin.
Gizak gaizka-beharrez badabil oin larri,
Kutuneneko batek, zioke ezetz gorri?

Illuntzerat-arratsa, jartzen argiz-aldi!
Zeru zabal guzian nola den istargi...
Oren goiargi etan gaba aundi unen,
Jauna da miresgilen sekulan agertzen.

Igaratz au, zaharra, iluntziri dago,
Arrats au du azkena, ez daike geiago,
Afalguan delakotz bat, ahaldunago,
Aren legea beita xitez azkarrago.

Nola da su berria zaharraz ixiotzen,
Alaxen da gaurkoa lenengoan jayotzen.
Bildotxa zenaz antza aintzingo legean,
Bildotxa da, iduriz, berriko moldean.

Izatez bai ordean dira biok bertze,
Ikurraz badute ere ez guti berdintze;
Aintzinan umerria jatekotz karraska,
Lege berri-bildotxa, gogoentzat bazka.

Aizaro-gau ixila, mixteriz gurena;
Bion mystikek ditek jotzen iregana:
Sinain jaun altsuak eman lege zarra,
Xristok gaur dakarkigun ogi jainkotiarra.

9. BERPIZKUNDE-EGUN EDER TA DOAINTSUA[9]

Oi pozgarrizko berpitz-eguna!
Sekula santan aundia:
Izan ez balitz –Deun Paulek dio–
Alperrik geunke fedia.

9 Argitara zein datarik gabekoa.

Egi gorenaz, sinesbearra
Izanik ere, Jinko-kari,
Ideko aitorra ez da erakutsi
Orrenbestez adigarri.

Eukaristiko jaun guzietan
Xristo dago berpiztua,
Arkitze dugu katedralekoa,
El encuentro delakoa.

Ama ta seme, a den lillura!
Goize disdiran samurki.
Gelgarri, Xristo nola ez da izandu
Lurran zelarik ta bizi.

10. KHRISTO, NAUSI, JAKINTZAZ[10]

I.
Egi jatorra dugu Khristoren elea;
Adixkide itz eztiyoz biltzen du irailea;
Elexuri litzake, ez biyotz-legea,
Beharko balitzaigu auxen esatea.

II.
Leya guziz esanez Iesusek gizari,
Xamurkiyena diyo agertzen erruki:
Orren maite-ixuriya ez inoiz izaki.

III.
Erruki-mena dugu Iesu Khristo Jauna;
Doya bera delakotz izan bear du aina.
Misericors et justus ezin artu bana.

IV.
Argi erakusten zaigu ontan adimena:
Jakintsuena izan gabe, nola izan doyena?
Errukiya da motxa, ez bada zuzena.

V.
Errukiya sortzen du doyan ezagutzak,
Doyari diyo erazten Urtziren jakintzak.
Erruki, doi, jakintza, elkarren urrenak;
Iesu Khristok daukazki batean iruak.

10 *El Pensamiento Navarro*-n agertua.

11. YESUREN EZAGUERA BURU TA BIOTZAN[11]

Ludion beretarrak maite-maitaturik
Azkena arte zen oez izan antsiaturik,
Aldiaz ala leiaz zeinek aipa nairik.

Xristo den errukiorra guk ezin atxiki,
Ortakotz ez dugu-ta adimenik aski;
Biotzez da autematen buruz baño obeki.

Gizak maitarik dauka somatuz kolkoan
Erlo bat larriago ezik ez buruan,
Zailago geralakotz adiz atzituan.

Bertsu zen apostolez Yesuren garaian;
Aen buruan leia ez zen nola erraian;
Buruz aditzen gaitza obe zuten naian.

Gogo-lor, unen larri!, lepotik gaukana:
Antsiak galde diguño biotzan lekuna,
Duian zaigu zorrozten adiaren mena.

Argi-gose gerade leze unen aintzin,
Adian behar degu biotzean adin;
Izanen giñen ordun emanik eretzin.

12. MAITASUN DA ZITU BAT[12]

Maitasun da zitu bat asmoz eta oldez;
Aria gozora datorz direlarik legez:
Arauko, ba, ta zuhur biok izan bitez.

Maitasun auk badakar olderik ausarki,
Edota asmoa dela ez oinbat egoki,
Erabe ez ote diren zain gero ximenki.

Xristo jaunain xedea Urtziren beita aindiz,
Asmoa du ta olde Urtziren izariz:
Unen aria atzematen aski da zein aditz.

11 Argitara zein datarik gabekoa.
12 Argitara zein datarik gabekoa.

Bai ordean iduri –zaigu behintzat guri–,
Xristo degula aditzen bihotzalde ixuri,
Emanago gera-ta olde-bulkoeri.

Ez da bañan gertatzen onen idurira;
Urtzi'n izate beraz ezinaz bestera,
Xristo'n olde ta asmoa dariz bat-batera.

Errukitzu da Xristo ezin amets dena;
Errukiorrek agertuz bihotza lehena,
Ola deitu diote *ekile* geiena.

Erruki onen ondala susmo degu duian,
Ziyo otan barna soma gerade ezinian,
Berri gose besterik ez degu menean.

Giza bageran ere oin motz eta gaizto,
Ekikegu noizpaitik ziyoen bat-bato;
Agian ta argituko Jaundik Yesu Xristo.

Betean ageriko naiz ta agiandu au,
Gure larritasuna litzake ber-berau;
Atxik-ezin gorriak unen errua dau.

Senti badai erraian, ezin da adimendau.

13. JAUN OTEUNDUAK BIZI, GOIARGI, BERPIZI TA EGIA DIGU[13]

Ego lux in mundum veni (Joan. XII-46).

Ager gitzaizu bizitzain eske
Bizi bera zeran orri:
Zugan ez ezik bizkorgarriyek
Sustrai eztute sanori.

Biziya naro lurbiran dugu
Zein motako bizkiyetan,
Ernagaieko bihi batentzat,
Orra lausoak milletan.

13 Argitara zein datarik gabekoa. Gai bereko beste olerki bat: «Eukaristia aurrean gogartez», 2000ko antologian jasoa.

Gogo-biziyan olatsu nai du
Goiko jaunak izan dadin:
Oxti xuriya nai eztu eskas
Inun gizak jauna ar ezin?

Oxtiyak baiki barreiaturik
Sinestunik nun ere den,
Asko badira bero xuhurri
Jaunarenganat etortzen.

Bizi-izakitan jinkoak legeak
Ainbestetan ditu erauki,
Gizari bañan argana leia
Eztio nai azkarrezki.

Gure jaubeak izaiten digu
Oi! Nolako begiramen;
Guketz ezpagoaz bera ikustera,
Eztigu indarrez erazten.

Argiya, bizi, berpiz, egiyak
Zugan daukate sortzea;
Zu beti zaude eman naiean
Eztugu nai guk ordea.

Laxterka dator orein gaizoa,
Eiztariyek jazarrita;
Ola datorra gizar-gogoa
Arnas aundiak itota.

Gaixo aberea xoko-xokoan
Osatzen da baso bazter;
Antsiek sakitu gogo gaxoak
Eukaristiyan bai du eder.

Yesu jaun guren eukaristiyan
Dugu doaien emaile;
Edonork luke, dagon bakarraz,
Bera dela galdatzaile.

Urretxindorra kantaz ari da
Emetoaren tirriaz;
Jaunak xixtuka nai du gogoak
Eukaristiyan bil araz.

Urandi iduri maiz gizateiak
Naikari gaiztoz igeri;
Sinestunentzat ezta zubirik
Eukaristiyaz besteri.

Mystiké-maite, epel badare,
Zeñen dan gatx gugan pizten;
Bengo lurretik eukaristiyak
Altxa gintzake gongoen.

Jaunartzerakoan karrik baginu
Yesuk emanik aminto,
Lurra litzake done-tokirik
Ederrenetan, oi!, bato.

«Zeran xaloa, nere maitioi»
Gogoak diyo Yesuri.
Yesuk iardesten: «Ene kutunoi,
Nola nintzain ni kari!».

«Jaun altsu orrek», diyo gogoak,
«Zeñen balaku nazu ni!
Madalen-gisaz biotza kalda
Nai nizuke nik eskaini».

Oxti zuriya bilatu nuen
Kemen urri negon batez;
Giza berritan zuzpertu nintzen
Eman zenidan azkarrez.

Bizialdi latzan iardun bearrok
Bildurrez beti ta larri,
Eukaristiyan ogiya dugu
Inun ezten indargarri.

Soraiokerik, biotz-idortek
Karroatu digu sentiya;
Oteun-suak askiko luke
Ezartziarren goriya.

Oi! Zenbat aldiz yende-eskasiaz
Elizguneak argalik!
Ezpeitu emaiten Yesuk doaiak
Esku zabal ta urririk!

Zinez an dago Yesu laxtana,
Gure deikaz eztela ase;
Egitekoan atxik-ertsiya
Giza-gogoen da gose.

Ketxuz ezkera uts egin dezan
Gureganako legiyan;
Itz eman digu: «Zuekin nago
Sekula den bitartiyan».

14. BIDEAKO ANDRANE IRUÑEKOA[14]

Omen aundiko mirenkunde Iruñen. Ez dakigu nondik etorria, beintzat paperek ez dute argitzen ez ere ukatzen Alfarotiko etorrera. Askitza bera, besterik ez da. Beti ere, irudia da XVgn mendea baño aintzinago, jakintsuak diotenaz.

Urrengo mendetan –bida ziren ok–
Amazazpigarren bai eta zortzi,
Andraneri leiak ain zun ekindu,
Leialen aintoak ainbat erazi.

Non eliz arakoa beitzuten egin,
Artarako bilduz diru ta guzti...
Ez al genezake izpidez esan
Au dela mirari, zinez mirari?

15. DOÑE FELIXE[15]

Doñe Felixe, Labianon dela
Gorpua kutxan, badire urte
Ta beilariak datozenetik,
Kurtu-bearrez, aunitz mende.

Akitaniko printzes liraña
Konpostelat xin zen, bide;
Etxera berriz itzul nai ez ta
Anaiak zuen erail ote.

14 Argitara zein datarik gabekoa.

15 Argitara zein datarik gabekoa.

Asmo zitalaz, aldean bertze
Egin zion sarraskitze;
Ilotza bertan obiratuta,
Orai ermitan daukate[16].

16. BESTA BERRI AUTUKIAK[17]

Iguzkindurik-Jaun Gorenari
Beronenkoiek diote agur:
Jatei gozoa yasta-yastatuz,
Otamenara datorz llabur.

Ba ontarako gai ez izaten
Guztiok dira lots ta bildur;
Almenak oro, bahiturikan,
Lurrean hinka, belaunak, kur.

Katedraletan, aundioskiro,
Beste elizetan ez oin larriz;
Eukaristia besta ahal deike
Zer nai den bidez eta neurriz.

Disdiran yori, Iguzki Deuna,
Bitxi ta zillar t'urregorriz,
Sort-azten ditun olde goriak
Are yoriago dira agitz.

17. IRUTASUN GOIENTZUA TA DEUN MIKEL[18]

Erri zenbeiten diren Irurkun-antzeri
Mikel Deunak die iker urtekari:
Iker ok ohi dire Aren jaian iri.

Beila oen asmoakin Aingerua doa xuxen;
Naiz den bide-errietan pixka bat baratzen,
Eliz etara dauka xede ta leiamen.

16 Ermita au Izebakoitz auzoan dago, Labianotik bost eunen bat metro, alde (Agerreren oharra).

17 Argitara zein datarik gabekoa. Gai bereko beste olerki batzuk: «Besta berri bi molde» eta «Besta berri Naparroan (Aralar, Zargaztelu)», biak 2000ko antologian jasoak.

18 *El Pensamiento Navarro*-n agertua. Gai bereko beste olerki bat: «Ergako Irutasuna», 2000ko antologian jasoa.

Elizkizunok dire artean aukeraz,
Eder-ederrak ospez bai eta jaieraz:
Arre ta Erga elizek dezatela adieraz.

Erga-aldera joatekotz nekez igon behar,
Oro lot-bideari tapa-tapan suhar;
Yendiek dute gozo gogoetan azkar.

Irutasunarekin Aingerua delarik,
Ala da nola balitz zeruetan ondorik;
Iñor ez Gongontzon au bezin ahaldunik.

Ala lurrean ere Irurkuna non den
Iduriz Deun Mikel egaz doakiyo men:
Milla gogoeta digu elkar au ikusten.

Ama Neskasoz beiti, unek goina beitu,
Izakitan ez da-ta Mikel bezin dundu.
Jaungoikoarekiko alseintz aundia du.

Esan behar bagenu non ikusten dugun
Irurkunaren gezna, jator eta xukun,
Esan behar: Mikelgan, oparo doaidun.

Eskubidez geiendan, jaundida zeruan,
Egun batez da argitu zer duen eskuan:
Irurkunaren da ba ondo ta ondoan.

Aste batez, bi aldiz, Ergara zoazi,
Bata, Pentekostekoan, bestea, andik zortzi.
Diozun leia azitza da or erakutsi.

18. IRUTASUN-IRUDIAK: ERGAN ETA ARREN[19]

Ergan
Erga, Aralar ondoan, altxatzen da gallur:
Bertan da baseliza, goi-goikoan mendaur;
Irutasuna, an koka, arriz-ekei, iñaur;
Yendiak omen aundiz besta diote gaur.

19 Argitara zein datarik gabekoa.

Tamañuz ahal denaz, Aita ager da larri,
Eroskundean naiz-ta, Semea du tipi,
Urtzi-alzoa beita negurriz oin gaindi,
Semea izanik ere guretzean ari.

Goteuna zaie bioi zuzen alkarmena
Aitaren agotikan semeari doana:
Eskuak dira bionak, dutela Osti-Deuna,
Ontan agert-bearrez, iruen almena.

Arren
Goizeon da jaiandi Arre-kistardian,
Ain eder du ta bikain berak Anaidian.
Anaikidetan aunitz dauka ta zintzoenik
Uts gabe datortzinak beti-betidanik.

Asko baditu onurak mundo ontarako,
Asko geiago ordean beste bizirako:
Irutasuna ospatzen Arren dakitela
Begiz jo nai duena bertara doayela.

19. DONIANETAN SU TA POZ[20]

Sasoi da Jondonizko
Bezpera alai ontan;
Sorbeltzak, antz ikatzak,
Txillokaz aizetan:
Elkarrekin jokatzer
Irra amorratutan.

Ezkildorretan gaztek
Nork geien leia-ala,
Ezkilak diraulkatez
Itzulkan ahala.
Basoan da itzaltzen
Arratsalde apala.

20 Argitara zein datarik gabekoa. Gai bereko beste olerki batzuk: «Yaun Done Yain suak», «Donianetan su ta ikurmenak» eta «Su meza Jaundonibanez», hiruak 2000ko antologian jasoak.

Santziñeneko Lide
–Ñerabe polita–
Printzelenaz auzoan
Sari da atxikita.
Yondoni zuaitzerako
Dute berexita...

Holgorio mutilenak
Arrastirietan;
Xostan ari morroinak
Koxkorrak bai xostan
Agure ta *kuxkuxek*
Karrikadantzetan.

Ideko suak
Zaharra da munduan suari gurkera
Ekarri zunez geroz gizonak menpera;
Lehendanik zitzaion ari *omenaje*
Ekiari egitez gurtz orrelakoxe.
Olako jai aunditan
Pozak ez zun pare.

Suntsitu-ta zirela paganiko jaiak,
Bai ta kistar usteak zirelarik xinak,
Lei bizia suari ordean ziardun
Ta Jondonin mistikak eder eutsi zun.

20. DEUN PETRIREN BEILA[21]

Urretxindorrak ari
Gau lenean bizkor:
Iduri du xorgina
Arrapika txor txor,
Soñutan dariola
Xirikaz andrekor.

Gogangarrizko gaua
Atxonez gozaro:
Egaz joaten zaizkigu
Ordu auek oro,
Ezin asmatu nola,
Aise ta jario.

21 Argitara zein datarik gabekoa.

Kaletan derauntzate
Ereskin trebeak;
Aien atzetik joan-ta
Ona miresleak.
Au besterik ezbeita
–Dio kontariak–.

Beila ontan rondallak
Likaz lez darakar.
Egun guzietan hertsi
Antzeak orla ez ar
Ezta ager ere Orfeo
Oin txintxo kaletar.

Atsegin ta zoriontsu
Daude ereslariak
Noiz ta jotzen beitira
Ereski politak
Ta baia digutenean
Jarraile zintzoak.

21. EGUERDI-EGUERDIAN KOETIA[22]

Asi beitira jaiak eguerdi duietan.
Mutillak farra dute ta arrabots kaletan,
Atabal eta arratzak, thunthun eta gaitak,
Ainbat otsez nekatzen iriko bazterrak.
Eguerdion Iruñak oi aurpegiz alda,
Baldin urtean bake, orain zarata;
Emen *armatzen* dena, suziria egorri-ta,
Orok iduri dute baleude arrailduta.

Zezenez lasterrak
Ez gero ba aitzakitu; zezenez lasterra
Gure dela diote, delakotz gutarra.
Emen jaiaren dute aspaldi berria
Areagoko leiaz betiro zalia.
Zainarik baita olde aik, ona biok batio;
T'arineketan suak kemen ere daukio.
Jokuaren zaildurak darakus beretiar
Deitzen diotena itz onekin *azkar*.

22 Argitara zein datarik gabekoa. Gai bereko beste olerki batzuk: «San Ferminetako litsak» 2000ko antologian, eta «Lengo Sanferminak», «Sanfermin kariz holgorioak Iruñan» eta «Sanferminetan autu», hiruak 2002ko artikuluan.

22. AGUR JAUNDONI MIKEL[23]

Aralar'at biurtzen da
Euskalerri-Aingerua:
Emanik etsiz aurtengotz
Iruñaldi gozoa.

Irunxemen da agerian
Gorasarre xaloa;
Berakoie du Mikelek
Erritarron gogoa.

Iker-ordea, yendarten,
Oi da lege yasoa;
Zu bai etor bañan guri,
Nekez arat-ordua.

Ordearekin ez yoaki,
Ez da, ez legezkoa;
Urte bitartez yoateko
Itz emagun zintzoa.

23. JAUNDONI MIKELI AGUR[24]

Lehen agurra
Gure Aingeruain mezu jatorra
Pazko-egurasaz datorkigu
Berak dakarra, ezbeitago zai
Aralar'era joatera gu.

Lurreko jaunak, are ta aundiago,
Menpekoen eska joan oi ez du.
Urte orotan dugu Deun Mikel
Iruña ikertzen arduratsu.

Azken agurra
Dorrean dandak jotzen,
Joateko Aingerua...
Doni Laurentz-Parrokian
Meza da amaitua.

23 *El Pensamiento Navarro*-n agertua 1958ko apirilaren 20an.

24 *El Pensamiento Navarro*-n agertua. Gai bereko beste olerki batzuk: «Gaur ere Iruñaz barna den Yaun Done Mikeli», «Jaundoni Mikael guruztuna» eta «Yaun done Mikael guruztuna», hiruak 2000ko antologian.

Orra agur esateko
Oste-pilla plazan,
Aundiak eta txikiak
Guzitarikotan.

Asko leiatzen zaizkio
Bidez laguntzeko
Batzuk portaleraño,
Bestek aratago.

Orkoin-aldera[25] neskak,
Muthikoak baita ara;
Gero antuko zaizkigu
Eginik karrera.

24. ANDRE MARI IRUÑEKOA[26]

Iruñen dugu andre guria,
Mari izenaz agorrako;
Beste izen geyoz deitzen zioten
Goiko naparrek ta beko.
Baite erritarrek deitzen diote
Done Mari abuztuko.

Ager zitzaizkion leial-leialak
Aintzinez geroz naparrak
Usuz osteak heltzen oi ziren,
Urrundiko beilariak;
Goardi-gizonez zain bear zuten
Oro zitentzat zintzoak.

Begiruneaz ezeuden oro
Bearreko lots ta fleitean,
Batzuek bulka, auek estutzen
Sar eta jali-neketan.
Emaitzak nasai izaten ziren
Andre Mariren aurrean.

25 Orkoien aldera (Agerreren oharra).

26 Argitara zein datarik gabekoa.

Orduan zena agorrileko
Amabosgarren eguna!
Iruñak zitun besta guzietan
Oste erakarriz geiena;
Orain ordean esan diteke
Gizaz ez dela ain gizena.

25. SAN MIKELEKO FERIAK[27]

Xaldi bizkor auñarra,
Xaldi zail amezkoarra,
Zuen endan berritzen da
Zaldi-zaña naparra.

Erosleak elitan
Dabiltzaz ingurutan,
Zer ferekak dizkiezten
San Migelen ferietan!

Alazan margo guri
Perla gorri diduri
Igortzitzeko txirrinta
Sartzen zaio eskuari.

Erostunak arpeka
Daramazkite tolez.
Beste lurran, an, ez galtzen
Bere zañik deus ere ez.

26. SAN ZERNIN[28]

Deun Zernin,
Iruñ zarrain alderdin:
Iritarren kistardiyak
Sortzairu or ekun zin.

Iruñan daukagunik
Auxen dela aintziñenik
Ele zarrek ola dute
Orai ta betidanik.

27 Argitara zein datarik gabekoa. Gai bera erabili zuen Agerrek «Sanferminetako litsak» izenburuko olerkian, 2000ko antologian jasoa.

28 *Pamplona: revista comercial,* 1956ko eguberriak.

Osin bat
Elizatik ta aurrerat
An da ageri idazkun batez
Orok aditzekotzat.

Esan degun elizan
Zernin-gurtza jarri zan;
Osinaz eta Deunaz
Berri guti zaigu eman.

Deun Zernin
Goresten dute aspaldin
Iruñarrek ta diyote
Mendez mende kur egin.

Ziur ez degun garaian
Tolosan gotzai bat zan;
Gotzai uni pitz zitzaion
Ager-bulkoa Iruñan.

Zertara
Etorri ta Iruñara?
Zer zuketen erri biyok
Jitekotz elkarrera?

Gauza txairo biurki zen:
Andik guti zatorren
Honesta, gotzaiain sehi,
Bazter otan usnatzen.

Usnari
Bipilki zuen ari;
Andik laister zun nausiya
Lur otarat ekarri.

Kistar berritan ozte
Lagun biyek bai dute:
Miletan berrogeiz gaindi
Aintzin-elek diyote.

Una emen
Osinaz zer erraten:
Kistartzeko behar-ura
Bertatik artzen zuten.

Ur auxen, ahal balitz
Goza giñeke ikusiz;
Onelako oroikariek
Jun ez zuten bear azpiz.

Tzarrena
Jentil-seta, ariena:
Zezen bati sokaturik
Ats eman zun azkena.

Erio eder unen ordez
Aintza diyogu omenez:
Udalak erritarrekin
Gurtzerat joan-beharrez.

Honesta
Kur bear genuke baita;
Deuna denetz ezta ere
Iñor oroitzen ezta.

Napartarrek Tolosan
Zerninek dun elizan
Esker-saritan beilaen
Bat edo bat bearko zan.

27. ILTZEAN ERE MIXIOLARI[29]

Amar urtez aritzen Xabierre zintzoak;
Beti bide latzetan oinkari-zangoak...
Irets ondoan, tente, millakan lekoak.
Erein behar irtenik abian zen astetik;
Ereilak ezin dira gelditu lanetik;
Beharrak diraueno, yo behar goizetik.
Burura baño lenago bizia du galtzer,
Sarri sarri Jaungoikoak doakiyo deitzer
T'aren gogo bikaña biltzeko du laster.
Arren! –oyu Frantziskok– Zuk jaurtin otsara
Plegu behar otzan bildotxain gisara...
Damu batez iltzen naiz, begira Txinara...
Zerura baño lenago noaiela bertara!.

29 Iruñeko irratiren batean irakurritako olerkia; eskuidatztian ez da zehazten ez irratia ez data. Gai bereko beste olerki batzuk: «Xabier'tar Prantzisko Jaundone aundiari» eta «Xabierreko Jaun Doni Prantziskori aintzaldi», biak 2000ko antologian.

28. XABIERKO FRANZISKO[30]

Zuri betikotz, saindu aundia,
Ospe bedi ta loria.
Otoi begira Euskalerria
Onen zera-ta semia.

Garaztar aitaz, amaz baztandarra,
Osoki zen euskaldun bai ta nafartarra.

Buruz erne zelakotz, Parisera joanik
Irakasle bizkorra egin zen gazterik.

Munduak lamiñurriz zuen xirikatzen
Iñakik noiz ta zion Jaunagana arazten.

Apeztu ta doaye toki basetarat
Paganoak millakak an bataiatzerat.

Franzisko saindu goresgarria,
Misioian leyatzu egin zazu erria.

29. DONE XABIER JAIAREN YAULKIA[31]

Berrogei t'amazazpikin
Mila bederatzi euna,
Abendu t'iruan degu
Xabier'en besta izana.
Urte oroz da aundiago
Egiten den omena;
Gero ta areago gurtzen
Bere egunean, Deuna.

Bai eta erritarrek dute
Nabariago atsegina,
Are sakonago senti
Bihotz-pirpira barna.
Oinbeste yendek ikuski
Andik ibiltzen una,
Edonork erranen luke
Besta guren-eguna.

30 Argitara gabekoa. Aldapako San Fermingo elizan irakurria, Graziaren Bederatziurrenean, martxoaren 4tik 12ra bitartean; urtea ez da zehazten.

31 *Pamplona: revista comercial*, 1957ko eguberriak.

Naiz ez ain aintzaz ospea,
Ez dela-ta ibildeuna,
Jaiezko susmoa dabil
Balitz lez pikoena.
Sarle t'erkiletan ozte
Ageri zen andana;
Xabier beita eliz askotan,
Giza, guzietan, zena!

Erritarrek lar diote
Leia bero ta zina;
Deritzaiote sarritan
Alazgile geiena.
Egun huntan da Xabierre
Oroikariz aurrena;
Katedralean aritua,
Elizkariz osona.

Meza bat, nagusi, eder
Jai aunditan oi dana,
Erdiz-erazle gotzaina
Ponpa larriz apaña.
Schola Cantorum taldez
Iruñak dute emana,
Kantariak zirelarik
Berreunen bat aina.

Aratz dator Aldundia,
Betaldiak argana,
Begiragune datxiko
Napartar guziena.
Zoli da aditzen soñua,
Turrunt ta atabalena,
Aintzin doa lagundiya,
Ikurrina, lehena.

Katedral-ordari zaie
Atarirat irtena;
Orra, Naparroaren martxa
Deritzan Cortes-ena.
Ala barne nola kanpo
Dari napartasuna,
Ospasuna da ala nola
Aintzinako erregiena.

Predikari funtsa degu,
Napar yesu-laguna;
Gaurko on ekartzen zaigu
Aukeraz den onena.
Saila bat ezin utzia:
Bazkaria, hurrana;
Oturuntza da jaiari
Legez dagokiona.

Len segida Xabier'at
Lau t'erditan da joana
Xabier-itzala oroikien
Zirikari laztana.
Agur, agur, eliz gozo,
Eliza Prantziskona,
Norat-eta behar belaunez
Mailarik mail igana.

Aunitz elizek arro dute
Xabierrez ots ozena;
Askoz Erranen genuke
Nola den jaia egina.
Xoilik aipatuko degu
Iruñan izan dana;
Eskañizko du parrokia
Gutiz geroz dagona.
Goizetik goiz artzen zuten
Lerro-lerrotan Jauna,
Bila zuten eliztarrek
Eukaristiko mana.

Amarretan meza larri,
Lagun oroz emana,
Sarkorki bai ta jario
Mintzatu da apez jauna.
Xamurki daude bihotzak
Ta gogoa, biguna;
Apez ta eliztarreri
Mistika zaie barna.

Egun guzian arrentza
Alha da ta kartsuna,
Atxikiaren atxikiz
Yendeketa da xina.
Erakusten da gañera
Ez oi-bildutasuna,
Zerbait bada, bai, bakanik
Beregana duena.

Giroa dago belatza,
Atsez, inguramena,
Kirioak oro lasaik
Sendixun, gotalmena.
Done Xabierren jaiandi,
Urte guziko gaina,
Liturgi-bestak kenduta,
Bikañaren bikaña.

30. JAUNDONI PRANTZISKO[32]

Naiz ta iltzean ere misiolari azkar

Amar urtez eutsiten Xabierre zintzoak,
Beti bide latzetan oinkari, zangoak...
Iretsi ta, millaka, ibiltzen, lekoak.

Erein-beharrez zauli, abian zen goizetik
Ereilak ez oi dira gelditu lanetik;
Beharrak diraueno jo behar oldetik.

Bururat baño lehen du bizia galtzer,
Sarri sarri Goikoa dohakio deitzer
Ta aren gogo bikañak igesiko laister.

«Arren! –oyu Prantziskok– Zuk jaurtik otsara
Kur gaitezen otzan bildotxain gisara...
Damu batez ordean so-nago Txinara...
Zerura baño lehen noaiela bertara...!».

Azken ondarran beitu egunak Xabierrek
Alperrik du eskatzen areagoko epek;
Iltzerat dutelarik eragiten denek
Osotan zaizkio amaitzer ingurutako ek.

Antonio lagun zula, goatzen dago larri,
Aldizkan otz-ikarez, sukar minaz gorri;
Kristori so zen elez, begi ta belarri;
Iltzean zen baketsu, bere euskeraz ari.

32 *Pamplona: revista comercial*, 1958ko eguberriak.

31. SAN FRANTZES XABIER SANZIANGO UGARTEAN ILTZER[33]

Sanzian deitzen den isla da
Eremu urrun batean,
Leku arroka biluziez
Eta hareaz betean.

Kantongo hiri famatua
Dakusa alde batetik;
Halaber itxaso zabala
Dakusa bertze aldetik.

Saint Xabier apostolua
Harat etorri zenean,
Huna zer erran izan zuen
Hiltzerako orenean:

«Finean bizi izatu naiz!
Ahalkearen handia!
Deusik egin gabe joan baitzait
Ene bizitze guztia.

Bagadek oraino burua
Ebaki balerotzate,
Edo Fiirandeko jendek
Sutan erre banindute!

Idukak, iduk, herioa,
Hire ezpata zorrotza;
Egozten dik Txinak lurrera,
Bere murraila bortitza!

Bañan non naiz? Edo zer diot?
Zer kutalez biluzia?
Zer diot, gate, predondegi?
Zer burreu? Zer su bizia?

Hunelako heriotzea
Eztuk jende guztientzat;
Bañan geraur, fama handi,
Eta martir nobleentzat.

33 Argitara zein datarik gabekoa.

Laxo bati ezpaitarozkit
Ofrituko herioak,
Sainduek merezi dituzten
Zetroak eta koroak.

Bañan kutalesak ezpadu
Ene odola ixurtzen,
Eta ezpadu su handiak
Ene gorputza erretzen:

Ezperen barbaroen islek
Hilik naute ikusiko,
Pauretiak eta elurrak
Martir naute kausituko.

Jainkoa banu predikatzen
Presondegian sarturik,
Libra nezake zenbait gizon
Deabruen gateetarik.

O diamanten klartasuna!
O perlen distiadura!
Zeri gagozka hunen bertze
Galtzen dugula denbora?

Jaiki behar dut; kikatu nau
Jadanik ene sukarrak,
Huna Txina! Idekitzen tu
Bere portale ederrak.

Bañan ago, Frantzes Xabier;
Lurrik asko duk kurritu:
Geldi adi, gargoro geldi;
Urik asko duk pasatu.

Hire begira ziaudezak
Sainduak hiri sainduan;
Ire begira Jainko Jauna
Aingeruekin zeruan».

Jadanik higuindu zitzaion
Bere xarmekin mundua.
Jainkoa ardietsi nahiz,
Desira zuen zerua.

«Ikus-agu ene eskuiña,
O ene Kreatzaillea!
Zure Gurutze saindua dut
Guztien salbatzaillea.

Falta garbi deitzadazu
Zure odol-zurrutetan.
Dolu dut; Jesus, har nazazu
Zure izar ederretan.

Elas, Birjina! Elas, Ama!
Ama Birjina handia!
Hiltzen diren gaxo guztien,
O esperantza guztia!

Otoi, urrun diezadazu
Deabru tropela gosea;
Begitarte on egidazu,
Erakus zure Semea.

Erakus dazu zer botere,
Zer esku duzun lurrean;
Hauts-kitzu Japon eta Txina,
Honda muruak urean.

Leku hautarik kasta-tatzuz
Idolen intsentsu hatsak;
Eta emaitzu zure Seme
Jesu-Kristoren apezak».

Horra, nola ilki zitzaion
Gorputz eritik arima;
Eta nola ediren zuen
Jainkoaren erresuma.

32. AMA NESKASO LOALDIKOA IRUÑAN[34]

Azilaren lenengoan mila bedratzi eun ta
Berrogei ta amar urtean, Pi amabi zela Aita
Erromako gongorena, Vaticanoko plazan,
Dogma aundi baten argia lurbirat emana zan:
Miren zeruetan dago
Gogon nola, gorputzan.

Unen dogmak atxiki zun leiakunderik azkar
Nun gutik bildu beitute ainbateko su ta gar.
Aita Sainduak alare esan zun ordurako,
Naia zioten yendiok pozartuki gogoko
Ziyon bat bai edo zeiken
Len bai len dogmatzeko.

Mirenen begirunea... geoner ez sori aipat,
Oturik ere badegu, adi dezanak barkat.
Espantu egiten bai-digu nola den ha minberaz.
Beñere ez genekikean, zein uste dun berberaz.
Magnificat-ek dargigu
Noraño den humilaz.

Ohartuaz apostolak utsik zen ilobiaz,
Belaxen autortu zuten zeruratu Mirenaz:
Soina goian ez izaki, lurran zen nonbeit ola,
Nun ta nola izan zeikean, gauzak ola zirela
Apostolak bazirean
Zin emanik onela.

Uste, nolaz? Zelan asma il zadien Birgina?
Soin gozo ha, printzel-soina, izadin edermena,
Yesu Khristoren egoitza, ain xahuie ta yaukal,
Lurrazpiko pizti tzarrek satsutuz, suntsit ahal?
Jainkoar ere ziokean
Min-mineneko urrikal.

34 Loramendi poetaren omenez Euskaltzaindiak 1959ko irailaren 20rako prestatu zituen ekitaldien barruan literatur sariketa ere bazegoen. Egun hartan Bedoñan bildutako izugarrizko jendetzaren aurrean sariketaren emaitzak eman ziren jakitera. Olerki sailari dagokionean, Arestiren *Maldan behera* izan zen lehen saritua eta Gandiagaren *Lelo xamurrak* bigarrena; bi hauetaz aparte, aipamen berezia jaso zuten Antonio Kerexeta, Jaime Kerexeta, Ignazio Goikoetxea, Eusebio Igartza eta Eusebio Erkiaga poetek. Hauxe izan zen Jose Mari Lojendio, Antonio Arrue, Aingeru Irigarai eta Koldo Mitxelena laukoteak osatzen zuen epaimanaiaren erabakia, eta bertan, Joxe Agerreren izena ez da inon ere aipatzen, hortaz, ezin jakin onduriko lana sariketara bidali eta oharkabe gordinean igaro zen, edo bestela ere, etxeko tiraderaren batean gordeta geratu zen idatzi ondoan. Agerreren esku-idazkien artean bi dira olerki hau jasotzen duten paperak, makinaz txukun idatziak baina zuzenketa zenbaitekin, «Dormitio» ezizenarekin sinatuak, eta *para el concurso literario del P. Bedoña* ohar ezin argigarriagoararekin.

Alderagin-bearrezkoan unen gaitz ez egoki,
Koimesis edo *dormitio* izan zen asmatuki.
Osokoa zen berria apostolek utzita,
Bai zen xeia, bai egoki, bai apain ta pollita.
Adirazte gozo onekin
Gizak zeudeken eta.

Siria-aurkintzan asi ziren *koimesis*-en aztakak
An beitzun kokat-unea gertariain seaskak.
Sartalderat zen geroago, mende zazpian, xina,
Gerkar-latin-adarretan zelarik ezaguna.
Lurbirako kistardia
Zitzaion txit emana.

Euskalerrian badugu erakusmen yayoa,
Iruñako katedralan da ale bat, aipukoa,
Oin bitxia non beitauka sogilea txororik,
Bat esan dut, dira vida, naiz den asmu batorik.
Amairu mendekoan
Ez da politagorik.

Erakusgaiz elki dugu otarik *lokartze* bat;
Joanik gera, egizta-bearrez, katedraleko ortarat;
Ara zer esaten duten atarietako antzeño ok:
«Abuztun 15ean, orra dituzie jaiok,
Ospaundiz katedral ontan
Betidanik jaitiok».

Garai arietan Mirenek otoitz zuen kartsuki;
Yesus zeruratuz geroz, errezutan atxiki,
Otoitzan ematen zituen egun ta gauak tinki.
Une batez, aingerua sart zitzaion eztiki.
Onamen duzu, Maria,
Aingeruak iarduki.

Palma bat ziolarikan aingeruak Mireni,
Mirenek galde egin zion: «Zu nor zaren, aizu ni?
Ez dakizu nola dudan izen aundi, goresmen,
Nola nintzen goraintzia mezu baten ekartzen...
Ona andre, guren, deuntzu,
Ene izena nola den».

Aingeruak artu zuen Oliamendi gozorat,
An beitzitun oroizarrek aise ezinik konturat;
Ama zen barruan joa, maiteminak jabetu;
Almenak oro zitula seme Yesuk okitu,
Berebiziko pozarrak
Gogo ta soin bahitu.

Puerta preciosa deritzan kalostrako atarian,
Ixtoria du *lokartzeak* tinpanaren barnean.
Beitik gora lau atalki, zabalat amabi-iri;
Utsunetan iduriñok jalgunik dira agiri.
Atalgunek banan dute
Nun den ere aldenduri.

Bealdeko atalburuak bost atalki daukazki,
Lau dira goragokoan ta laguntzu polliki;
Irugarren atalkian, Miren ogean datza
Itxoitez irriñokor datorren *eriotza*.
Bonibanek palma eskuan
Bizkitartean deutsa.

Azken sailan ageri da Yesu Khristo semea;
Oldez zetorkion amari, izanik *lokartzea*;
Garaieneko aingeruak –berain ondokoena–
Burestuntza yantzi dio inun den ederrena.
Irutasun goitzuari
Dagotso an urrena.

Zer esanak uzten ditut, kolkoan utz-beharrez;
Ixtoriotan bai-da areago atsegin-begikoez;
Zorño bat maileguz diot kronikalari bati:
Nik nai nuen artarakotz, guti bai eta guti.
Ala ta ere barkatu,
Untan banaiz nahiti.

Ona zer dion kronikak Mirenek zun otoitzaz:
Iltzerakoan zen otoitz au orduko mintzairaz:
«Jaun ahaltzu, nere Jauna, izakion egile,
Zure gogo guren ori, ene baitan erazle.
Zuhur zu ta jakintz utsa,
Zu gozo, nere seme.

Irutasun aundi orrek, irubat ezin-adi,
Zure menpeko neskari, arren Jaun, erruki adi.
Zuganat agertu artio, azke nadin gaitzarik».
Jaunak erran zion leun: «Ez izan ba kezkarik».
Ordun aingeru gaxtoa
Joan zen ikaraturik.

Ferotinek esan ditu untaz ere gauz asko;
Guk ere, asti ta lekuz, bai-genitun jarriko.
Unen kronikalaria ez uste den bakarra;
Batenbat baiki bai-dira auxen bezin azkarra.
Jaungoikoak izan diela
Gure leiaren garra.

33. ANDRANE MIRENEN DOAKUNDEA[35]

Nazarethen gratia plena
Auxen beita Jinkoaren mezu goren gorena,
Mezulariz egortzen da zeruak daukan onena:
Gabirelek esan diyo:
«Maria gratia plena».

Efeson Theotokos
Jinkoain ama! Du oyua gori gori batzarrak,
Khristo dela jinko giza erasan dun ber-berak,
Khristo-elizain gerk-adarran,
Berreun bat aldunak.

Roman ogen bage
Mila zortzi eun berrogei amalau den urtean
Abenduko zortzigarren egun aundi-aundiyan,
Ogen bage sortu zela
Dogma egin da lurriyan.

Roman assumpta
Maiteminez ixuriya il zitzaikun Mariya;
Ezpainetan zuen brexkak, oi!, zariyon eztiya.
Gabirelek iragarri doai beteak aupatu,
Irukoitzaren irian gertatu da berpiztu.
Doipuruak, sinesbearrez
Irakasia digu.

34. LURDEN GOGARTEZ[36]

Mundu guzian hotsez ditugu
Mirenkunde zoragarrik;
Guti direla ustean gaude
Lurde bezin doaturik.

Urtamu dauka Mirenek orain
Denez geroz agerturik;
Inoiz inorat ainbat beilari
Heintsuz ez dira eratorrik.

35 Argitara gabekoa, 1955eko urtarrileko datarekin.
36 *Pregón*, 1958ko udazkena.

Bai-du Jinkoari gurtz-egikeran
Zeñek ta nork berezgarri;
Nekez dirade untan xokoak
Lurde-eretzen ikurgarri.

Ainbat gizaki, gendetan motak,
Enda t'erritan, oi!, zarri;
Bakan diteke bildutasunik
Bertan bezinbat igarri.

Ñarroste dugu sakon gogoan,
Zañetan nabai dardara,
Dela zaudeleik harpe gozoan,
Dela zoazin tokietara.

Elizan ere so bat jaurtikiz
An-idatzien aldera,
Zer eta nola degun sentitzen
Ezin ekar eletara.

Funts ez ain larri-gauzetan ere
Irixte da zinez aundi,
Andranek daukan esi xukunak
Xit izan dida biotz-unki.

Atariz dago esi pollit au,
Leiza alderuntz, iriz aindi;
Loreak ditu eze ta frexko
Atxon atxonez usaindi.

Ohargarrietan xitezki gallurt;
Katolikun orobata;
Baleike Lurden dadin geiena,
Roma badegu kenduta.

Asiarrak, afro, an dira ageri;
Oro-gende, nabar eta;
Aindana mezak izaten dira,
Urrun-apezak emanta.

Eriez ere zer aipat emen,
–Berria llabur beharra–
Jinkoak, guzialdun, bertan derakus
Sendagailetan eskarra.

Alatzez asi Lurden omena
Berñate xinplek an-lurra,
Andranen kinuz, aztarrikatzen
Jarri zelarik bizkorra.

Mila zortzireun berrogei ta amar
Zeru-marka dun zortzion
T'epallan ziren Andranen itzak
Ogei ta bostain goizeon.

Jaun Peyramatek, neskaren tartez,
Baia azkenik bildu zion:
«Sortzez garbia ni naiz» erranik
Den lurbirari eda zitzion.

Ura-egunetik urmenak, zintzo,
Bertan dirau emailenik;
Untzi milloitan ura da bildu
Beilariak ordudanik.

Gañez osinak an dira beti,
Ez dun ur ok sendamenik,
Osa bai osa, soin eta gogoz,
Naikoa bada sinismenik.

Soin ta gogoan ongiak alde,
Zeini jarriz berarena,
Oi! Zenbat bider askoitz leukike
Gogozko ongiak aurrena.

Oñazez minki etzanik Lurden
Andraneri so egon dana,
Autemanik da zin eta argiro
Sano zunetz itxarona.

Aratz Andrane, Auñan aundiena,
Mirenkunde guthunkari,
Heltzen azkentho izanik ere
Milloika thuzu gurkari!

Leiaz gatortzi zuri atxikiok,
Laguntzaren eskekari;
Otoitz dizugu, Ama Neskaso,
Agur Miren, Ave Mari.

35. UR GOIENA, UR BARRENA, UR BERRIA[37]

Ur barrena, ur goiena,
Urteberri-egun ona,
Egun onaren señalea
Emen dakargu ur berria.

Ur berria urte berrian doi-doi etxetara etortzen zen. Ta ur berri au gokaiztoez garbitu-ta, etxeko jaunak berea artzen zuen ta gorde-bearrez tokian ezartzen. Zeregin ontan kantatzen ziren kantuen eredua ona goian, Basaburuaren aldetik bilduta.

Urte berrikotz ura,
Bere sasoiean
Oi zekarten mutilek
Onen egunean.
Goiena bear zun urak,
Barrena ere baitan.

Ona zer, iru itzok,
Ikurtan zekarten;
Goien beitzen goitiko,
Hondo zen-ta, *barren*.
Berri-k azaltzen zuen
Aldakorra non zen.

Izan ez deike *goien*
Ortzitik ezbalitz,
Hondo eztare, *barren*,
Lurrean ez ukiz.
Odoietako urek
Barren bear dute azpiz.

Aintzinetan mundua,
Euskalerrikoa,
Zaharra zen alere
Nola den mintzoa.
Izenik ba ote da
Nola eguberria?

Eguberri, eguberri,
Gaur dela eguberria,
Guzien jauna sortu dela
Dugunaren berria.

37 Argitara zein datarik gabekoa.

LABURPENA

Jose Agerreren olerkigintza osatzen (eta II)

Sarrera labur baten ondoren, Jose Agerreren 35 poema ematen dira, gehienak argitaragabeak, eta beste batzuk garai hartako egunkarietan eta aldizkarietan argitaratuak.

Gako-hitzak: Jose Agerre; euskal literatura; poesia; Nafarroa.

RESUMEN

Completando la obra poética de José Aguerre (y II)

Tras una breve introducción, se reproducen treinta y cinco poemas de José Aguerre, la mayor parte inéditos, y algunos de ellos editados en prensa y revistas de la época.

Palabras clave: José Aguerre; literatura vasca; poesía; Navarra.

ABSTRACT

Completing the poetry works of Jose Agerre (II)

After a brief introduction, thirty-five poems by Jose Agerre, mostly unpublished, but some published in newspapers and magazines of the day, are reproduced.

Keywords: Jose Agerre; Basque literature; poetry; Navarre.

Euskararen memoria Nafarroan 36ko gerran

Larrekoren *Gerla urte gezur urte*[*]

Joxemiel BIDADOR

> Eta gudualdi untan, euskaraz zer? Ai, ai, ai, ez dakit! Aldi untan, mugaz eta itxasoz unaindian, bordetara eta baserri urrunetara zokoratuko dugu euskara gaxoa. Euskaraz ezinbertzean baizik ez da mintzatzen. Ez da euskar itzik irakurtzen. Iñork ez du euskaraz idazten. Baldin España aldean euskara eortzitzera mendi edo oian zokoetara bialtzen badugu eta egin ahalak ortarako egiten baiditugu, euskara galduko dugu. Azken mendean euskaraz etsai asko baldin bazituen, oraiko aldi untan, ordukoaren aldean, milla aldiz geiago eta gaizkotuagoak. Bearrik mugaz arainditik etorriko zaikula euskararen azia, baldin lur onik gelditzen bada ereiteko. Ezin euskaraz idatzi, ezin eskutitz bat egin, ezin telefonoz itzegin. Euskar lan bat ezin izenpetu nere izenorde begi-begikoarekin. Eta ain maite nuela eta dutala! Noiz artio ala? Ikusiko ote dut, garaiz, Españako buruzagiak euskara laguntzen, mintzaazteko eta idatziazteko. Beldur naiz ez dutala ikusiko. Untaz landara, gudualdi unek zahartu nau, auldu nau, euskararekin batio nereak ere eginen du. Orgatik, azkenetan banintze bezala, oraiko eguneroko nere irakurgai geienak edo guztiak euskaraz ditut. Eta geroago eta maiteago ditudala! Gora Axular, gora Mendiburu eta gora euskar idazle guztiak!
>
> (1937ko urria).

Zalantzarik ez da inoiz baino modago daudela 36ko gerrarenak gurean. Nafarroan, eta ondokoetan egiten ari direnetatik aski urruti oraino bagabiltza ere, lehenbiziko urrats herabetiak hasi dira ematen, baita parlamentuan ere. Garai hartako lazgarriak ez

* *Hegats*, 34, 2003, 141-159.

ahazteko eginiko saiorik klasikoena, eta luzera ere gainditzen zaila izanen dena, Altaffayllakoek onduriko *De la esperanza al terror* liburu bikoitz gogoangarria dugu[1]. Berriki ere, eta estrainekoz Mexicon 1980an agertu ostean, Luis Elioren *Soledad de ausencia* eman da argitara[2]. Elioren testigantza Larrekorenaren parekoa da hein batean bada ere. Nafarroako nobleziaren kidea eta Iruñeko udal epailea izan arren, langileen arazoekin erakutsitako minberatasuna afusilatzeko arrazoi bilakatu zioten. Atxiloketa bitartean polizia buru batek eskapi egiteko eman aukera profitatuz, Eliok familiaren aitzineko langile karlista baten etxera jo zuen laguntza eske, eta hark, metro pare eskaseko gela batean izkutatuz, gehiegi miresten ez zuen epaile liberala salbatu zuen. Gerrak iraun zueno, Elio ez zen bere izkutalekutik atera, gartzela hartan bertan bere liburua idatzi zuelarik.

Larrekok ez zuen horrelako gartzelarik nozitu, beste maila batean baina, beldurra bai. Idaztearena ere ez zen, Elioren kasuan bezala, barneko beharretik eginikako lana, ezpada kanporako zerbait, jakinagatik ere epe laburrera bederik argitara ez zela jalgiko. Horrela bada, Larrekok ez zuen idazteko ohiko tankera abantxu aldatu eta, neurri handi batean eta lantzean behin jaurkitzen zituen intziriak gora-behera, *La Voz de Navarra* egunkari jeltzalean agertzeko kolaborazioak balira bezala izkiriatu zuen gerrako kronika hau, apalatzaileak *Gerla urte gezur urte* deitu zutena[3].

Pablo Fermin Irigarai Goizueta Aurizko Maistronean 1869ko urtarrilaren 25ean jaio zen. Medikuntza ikasketak Zaragozan eta Madrilen burutu zituen, eta bulta laburrez sorterrian berean lan egin ostean, Berara joan zen mediku 1898an. Beratik Iruritara 1902an joaki zen, hantxe 1915era arte geratu zelarik, Nafarroako Ospitalean ebakuntza saileko lanpostua erdietsi zuen arte alegia. Orduz geroz Iruñean geratu zen Larreko, 1949ko irailaren 3an zendu zen arte.

Ezagun da Larreko euskara galdutako euskaldun berritua izan zela. Kanpoan emandako urte luzeek zer esan haundia zuketen horretan. Eztabaidagarriagoa dateke, ordea, Larrekoren Ramon aitari afera horretan egotziriko ardura, izan ere, Aurizko maisua izanki euskararekiko jarrera txepela leporatu ohi zaio han hemenka. Halaz guztiz, huraxe ez bide zen hain gauza garbia, bada, bai Larrekoren aita bai osaba eta aitaginarreba zuen Porkaxoneko Manuel Irigarai, euskaldun eta euskaltzaleak ziren, Euskara Elkargokoak biak eta *Euskara* aldizkariaren harpidedunak, eta Ramon aita Elkargoaren beraren ordezkaria Erroibar aldean. Honekin lotuta beste kontu bat aipa liteke. Nafarroako herri euskaldunetan lan egiten zuten notari erdaldunen aurka Campionek 1911ko apirilean argitara eman zuen «Euskalerriaren alde» artikuluan bost herritakoak aipatu zituen honen erakusgarri: Auritz, Otsagi, Uharte-Arakil, Lekunberri eta Doneztebe. Notariak ez ziren isilik geratu eta Campioni bortizki erantzun zioten; geuri interesatzen zaigun erantzuna, berriz, Lekunberriko notaria zenarena da, hain zuzen, Severo Álvarez Irigaraik eman zuena alegia. *El Eco de Navarra*-n agertaraziko «Réplica al señor Campión:

1 Altaffaylla Kultur Taldea, *Navarra 1936: de la esperanza al terror*, Tafalla, 1986 (5. edizioa 1998an).

2 L. Elio, *Soledad de ausencia: entre las sombras de la muerte*, Iruñea, Pamiela, 2002.

3 P. F. Irigarai Goizueta «Larreko», *Gerla urte, gezur urte: Iruñea 1936-1940, isiltasunean mintzo*, Iruñea, Pamiela, 1993, J. A. Irigaraik eta J. C. Etxegoien «Xamar»-ek atondu edizioa.

en vindicación de la clase notarial» izenburukoan Álvarez Irigaraik bere karguan jarduteko zeuden arrazoi teknikoak zerabilzkion Campioni, baina halaber, eta hein batean Campionen arrazoietara hala edo nola bere burua makurtzen, bere euskaltasunaren neurria argi utzi nahi izan zion. Irigarai euskal abizenaz harro sentitzen zela Euskal Herria goraki maitatzen zuela zioen, eta Campioni zera gomendatzen zion: «Al esforzado adalid de la lengua vasca, enderece sus energías a recabar de los poderes legislativos la debida protección y amparo para conseguir el mantenimiento y difusión eficaz de la hermosa lengua de Aitor, aspiración igualmente grande y generosa». Bestalde, Campionen ustea tronpatzera zetorren honako aitorpen pertsonala egin zuen: «Oriundo de Burguete, donde he pasado largos periodos de mi vida desde la niñez, oyendo en el seno del hogar la lengua de mi madre, que es la vasca, tengo más motivos de los que don Arturo Campión supone para haber sido respetado en su alusión». Eta ama auriztarra zuen notari honek bere burua ia euskalduntzat jotzeko gauza sentitzen bazen, zer zen, bada, Fermin Irigarai?

Beran zegoela erdaldun sentitzen zela zioskun Larrekok, «euskal itzik ez nakien, au oraiko lotsa!», baina gauza jakina da Fermin Irigarai bere buruarekin aski zorrotza zela, gehiegi ausaz. Ezin uka 1898an sorterriko alkatea zen Salbador Goizuetak «posee el idioma vascongado» zioen ziurtagiria sinatu izana nahikoa esanguratsua dela. Bestalde, Beran lehenengo eta bereziki Baztan aldean euskara edertu, landu eta sakondu egin zuen Larrekok. Gogoko zuen bordariekin jardukitzea, eta horretarako bidea bazuen. Bestalde, Lekarozko komentuan bazuen bilkura hauta euskalgintzan trebatzeko. Hantxe zeuden, besteak beste, Etxalarko Eusebio Eltzaurdia, Kaparrosoko Arrigarai gramatikagilea, edota Donostia aita musikari famatua.

Beste ezerren gainetik, Larrekoren idazkintza euskararen aldeko ariketa izan zen, ariketa konprometitu eta hautu pertsonala, erderaz egin ezin zuena:

> Ni ere, euskaraz zerbeit egiteagatik, orri oken zikintzen asi naiz; baldin gudu untarik bizirik ateratzen bagara, euskaldungoarenak eta euskararenak ez dakit nola aterako diren. Orduan egin ez badezakegu, orai, aldi untako oroigarri gisaz bedere izan dadiela [...]. Erranen duzue nola gudu berririk gabe asi naizen orri ok zikintzen. Baiki, ni beti etxe xokoan egona naiz, baldin ez bada nere egin-bearretan iñorata ez naiz agertu. Untaz landara irakurgai guti irakurtzen eta radioz gutiago entzuten, zergatik asi nintzen ba? Badakizue ni oitua nindagon astero Iruñeko berri ematen astekari euskaldunentzat, eta oitura ori ezin utziz nere baitan erran nuen: emagun astekariak argitaltzen direla eta ni beti bezala ek laguntzeagatik asi naizela zerbeit berri biltzen, emen nere maipean gordetzeko bedere; gudua bukatzen denean eta euskaraz idazteko zori denean, leengo nere irakurlerik bizi bada, nork daki ez ote duen nere lanak irakurtu naiko! Gogoeta orieri esker asi nintzen eta jarraitzen diotet bozik eta bozik. Nere eginbide bearrezkoez landara, euskar lanak dire nere lan goxoenak, atsedenez bezala egiten ditudanak.

Irigarai zaharraren euskal idazkintzak 1910ean izan zuen hasmenta, *La Tradición Navarra* eguneroko integristan hain zuzen ere. Aitzinetik ere, eta ber kazetara, Baztango kronikak igortzen zituen erderaz Feriri ezizenean. Euskaraz idaztearena, dema

pertsonala bailitzan, galdutako hizkuntza prentsako kronikaren bitartez berreskuratu nahi horretatik zetorkion, eta bizitza osoa iraun zitzaion prozesua izanki, *Gerla urte, gezur urte,* pentsa litekeenaren aitzi seguru aski, ez da bide horretatik sobera hastantzen.

Izan ere, Larrekorendako euskara kezkarik nagusiena baitzen, ia obsesio bilakatzeraino. Nafarroako Aldunditik, jagoitik gerra hasita, egin zioten inkestarako horrela erantzun zuen auriztarrak: «He hecho cuanto buenamente he podido por aprender la lengua de mis apellidos y la viva de mis coterráneos: única actuación nacionalista». Bere prentsako kolaborazioetan, aunitzetan barkamena eskatzen zion irakurleari erabiltzen zuen hizkuntza kaskarrarengatik, nork eta Nafarroako giro euskaldunean aitagoitzat hartzen zen hark. Gerrako kronikan berean honela idazten zuen 1937ko abenduan:

> Bizkitartean, irakurle maite ori, barkatu, baño gogoa erori zait gaur goizean, uste gabean, eskuratu ditutalarik orai ogei urte idatzi nituen bizpairur irakurgai. Jakina, orduez geroz, nik uste nuen asko ikasi eta aurreraturik nindetekela euskaraz idazten; baño, damurik, orduan orai bezala egiten nuen, ez obeki, baño ez makurrago ere. Nere baitan: beti euskaraz ikasten eta gudualdi untan geiago ari nintzela uste nuen Axular andiak bezain garbi egiten nuela eta una emen orduan bezain motel, orduan bezain arront, orduan bezain zakar. Nere biozminaren andia! Orai, adin bereko ene lagun eta adiskide guztiak edo geienak iltzen ari direlarik, nik zerbeit idatzi nahi, ongi egiten nuelako ustean, eta orañik ez aski ikasi! [...]. Ustez ta goieneko mallara eldua naizela euskaraz itzegiten eta idazten eta... guztiz gora bera, orai berrogei urte bezain makal, orai ogei urte bezain ez jakina.

Hura zela eta, Larreko beti ibili zen hizkuntza hobetzen, dela Nafarroako mendialdeko euskaldun zaharrengandik hizkuntzaren aberastasuna jasoaz, dela euskal liburuak irakurriz. *Gerla urte, gezur urte* kronikan berean behin baino gehiagotan ematen zuen Irigaraik urte korapilotsu haietan egiten ari zen euskal irakurketen berri: Juan Antonio Mogel[4], Agustin Kardaberaz[5] Joanes Haraneder[6], Pedro Axular[7], Sebastian Mendiburu[8], Arantzako Jose Iturria kaputxinoa[9], Laurent Diharasarri Orzaitzeko erretorea[10], Esteban Lapeire[11], Jean Barbier[12]... Guztien artean Axular eta Mendiburu azpimarratzen zituen, baita Haraneder ere. Scupoli eta Salesko Frantzisko donearen itzultzailea izan zen Donibane-Lohitzuneko apaizak XVIII. mende erdialdean bukatu zuen testamentu berriaren itzulpen osoa, alabaina honakoa ez zen bizi zela argitaratu, ezpada 1855ean

4 *Konfesio ta komunioko sakramentuen gañean erakasteak*, Iruñea, 1800.

5 *Aita San Ignazioren ejerzizioen gañean*, Iruñea, 1761.

6 *Testament berria,* Baiona, 1855 (liburuaren edizio osoa: *Jesu Christoren evangelio saindua*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1990, Patxi Altunak paratua).

7 *Gero*, Bordele, 1643.

8 *Jesusen Biotzaren debozioa*, Donostia, 1747.

9 *Nere laguna,* Zornotza, 1922.

10 *Mariaren haurren esku liburua,* Baiona, 1895.

11 *Kredo edo sinhesten dut esplikatua*, Baiona, 1891.

12 *Supazter xokoan*, Baiona, 1924.

Harriet eta Dassance apaizen eskutik zertxobait itxuraldaturik eta ez osorik. Huraxe zen Larrekok ezagutzen zuen testua, ez ordea jatorrizko eskuizkribua, baina nahikoa izan zen zeharo txunditzeko, horrenbeste ezen *Amayur* asteroko jeltzale iruñarrean hainbat eta hainbat pasarte atera zituen bere hartan aldaketarik egin gabe.

Ez ziren klasikoak Larrekoren irakurgai guztiak, izan ere bakanetan «Frantziatik etorri den norbaitek» edota «nonbaitik norbaitek» emanik, Baionako *Eskualduna* kazeta irakur zezakeen. Horrela bada, 1937ko urtarrilean zenbaki bakana eskutaratu zitzaion, Dominique Soubelet eta Laurent Apestegi apaiz «erregetarren» kronika atzerakoiekin eta guzti, eta Larrekok «atsegin-aldi goxo bat» izan zuen euskaraz irakurtzen, urte bereko apirilean bereziki berritu ahal izan zuena erdietsiriko zenbait zenbakiri esker. Ordutik, 1939ko maitzara arte ez zuen berriz ere beste zenbakirik lortuko, harik eta mugako adiskide batek eraman arte; huraxe izan zen «atsegin andiko eguna», alabaina, «Jainkoak daki oraño noiz artio egon bearko dugun *Euskalduna* irakurtu gabe». Bertako argitalpenekin ez zitzaion hobeki gertatu, izan ere, askotan ezjakintasuna baitzen nagusi. Gerra erdia pasatua zen eta 1938ko martxoan Larrekok oraindik ez zekien seguru eia bizirik zeudenentz aldizkariak non harpidetza zeukan:

> Españan, euskarari buruz zer dugu? Nik uste nuen euskar irakurgairik argitaltzen etzela, baño ikusi berria naiz Arantzazuko frailek argitaltzen duten orri bat, *Irugarrengoen irakaslea*, illero agertzen dutena, nik ikusi dutana 1938ko otsaillarena. Ez dakit noiztiez geroz bizi den eta ez dakit zenbat illabete ixilik egon den edo ixildu ez den [...] Aita jesuitek argitaltzen ote duten zerbeit euskaraz ez dakit, baño nik uste ezetz, *Jesusen Biotzaren Deia*-ren arpidedun naiz eta ez didate biali. *Irugarrengo Frantziskotarra* eta *Zeruko Argia* fraile kapusaidunek argitaltzen zituzten bi illeko oriek ere ez dizkidate eskuratzen, nik uste, argitaltzen ez dituztelako.

Gerra bitartean euskararen egoerak inoiz baino gehiago kezkatu zuen Larreko, eta kezka hau ez zen gehiegizkoa naski. Egia esateko, liburu osoan ez da somatzen gehiegizko tonurik, ez eta errepresaliaturikoen aferaz ere. Bistan da Larrekok neurriz zarabilela autozentsura, Jose Anjel Irigarairen aburuz «larderiaz eta zuhurki ez zuen fitsik ere idatzi haietaz». Larrekoren biloba euskaldungoan zituen hainbeste ezagun eta lagunei buruz ari da, eta aitatxiaren zuhurtzia «*nehoiz ez du den mendreneko aipamenik egiten*» hartan zetzakeen. Mende erdia iragan da Larrekok zirriborratu paperak moldizkaratu diren arte, eta egileak berak jakin bazekien, ongisko gainera, bere kronika ez zuela inprimaturik ezagutuko, atzerago esan bezala, baina hala ere, zer gerta ere, ez zukeen hustu guztiz barruan zeukana, begietatik zein belarrietatik iritsitako guztia alegia, izan ere, ospitalean ziharduen mediku batek zer ez zuen ikusiko, ez entzungo. Bestalde, eta Jose Anjel bilobak kronikarako onduriko aintzin solasean jasotzen den bezala, Larrekoren semeak, Aigeru Irigarai ezagunak, Sarara egin zuen gerra hasi orduko, eta Larreko bera joan behar izan zuen bere bila Aldundiko Lehendakari Arraizak aginduta; behin Iruñean, Aingeru lanik gabe utzi zuen udalak, eta haren aurka erabili errepresioa ez zen apaldu gerra aisa pasatu arte. Larrekoren beste seme bat eta iloba zenbait behartu zituzten errekete joatera; Orreagako idazkaria zen Juan anaia, Mendixuri ezizenean prentsa jeltzalean euskal kronikak ere idazten zituena, Iruñera egin behar izan zuen mugatik aldentzeko aginduta; gerra hasi zenean Aurizko idazkari zebilen Faustino anaiari lana kendu zioten jeltzalea izateagatik,

eta herriko erretorea bere alde atera zelako ez zen deus larriagorik agitu; Faustino honen alabari, ordea, etxean euskaraz, euskal dantzak eta antzekoak irakasteagatik ilea moztu zioten; eta azkenik, Aurizko sendiaren Maistronea etxea Seberiano anaiari kendu zioten bertan bulego militarrak ezartzeko. Alabaina, Larrekoren kronikan ez da igertzen berebiziko haserrerik, ez eta gorroto edo antzekorik, bai ordea kristau on bat izateko kezka, Jainkoaren legea ongi betetzeko arta, eta «zerurako gaitutzeko» asmo zintzoa.

Euskararen gaia zertxobait maratzagoa erabili zuen, aldiz, eta horrekin bai altaratuta agertzen zitzaigun Aurizko medikua. Gerra urteetan euskarak pairatzen zuen egoera katramilatsuaren mirail beltz baina zehatza eskaini zigun Larrekok. Zenbaitetan, etsipenari aurre eginez, baikorrago:

> Ez daude larruak ugalak egiteko... Martinez anido jaun jeneralak, Orden Público delakoaren ministroak, berriki Gasteizko Apezpiku jaunaren aginduak ezeztatu ditu, elizetako otoitzetan eta predikuetan apezpiku jaunaren agindueri jaramonik ez egiteko. Jakin dutanez Nafarroako euskal-errietako erretorek leen bezala ari dire euskaraz, batere aldatu gabe, eta ori emengo apezpiku jaunak horrela agindurik. Egia errateko, jakinik nago ere Baztango gudulari nagusiak gisa beraz erran bide du egin dezatela; baño, ori ez dakit, norbaitek galdeginik edo bere baitarik agindu ta. Errepublikako buruzagiek ez dute olakorik egin; ez dire eliza barneko egin bearretan sartu eta gutiago ez debekatu.

Baina gehienetan goibel eta garaitua:

> Eta euskaraz zer? Ai, ei, ai eta miletan ai! Oraiko aldian, Nafarroan beñipein, euskararenak egiten ez badu, euskaldungoarenak bai; ori ezabaturik geldituko da. Eta baldin mendiz beste aldetik ez bazaigu xertoa eldu, gureak egin du. Gipuzkoan, aldiz, euskaraz itzegitea debekaturik ez badaukate, gobernadore jaunak erran edo agindu omen du beti erderaz ari bear dutela. Unelako debekurik emen, zoritxarrez, ez dugu orren bearrik, iñork ez baidu euskaraz itzegiten. Gaxotegian, bateren batekin itzegiten dugu, baño ezinbertzean, deusik edo ainitz guti dakitelakoz erdaraz. Berriki gaxotegiko leen-kapellaba zendurik berri bat egin dute. Araudiak dio kapellabak euskaldunak bear direla; baño gure jaunak, baldin ez badakite edo aztu baldin bazaie berek eginikako araudia, ni ez nintzaioteke oroituaztera juanen; aldi untan euskaldun izatea aski da begi okerrez edo zeiarrez beatzeko. Baketzen garenean eta bizi baldin bagara jakinen dugu edo jakin dezakegu arazo untarik zerbeit [...] Orai aldi untako gudu izigarri, etsaigo okaztagarri eta beste nahasturietarik euskarak asko galduko ote du, edo galdu ote da? Erri euskaldunetan zer gertatzen den ez dakit, baño dakitana, euskaldun gudulari arront zenbeitek, erdaraz guti jakinik ere, nere galdereei erdaraz erantzun zidatela, eta orrek, nik uste, zerbeit adiarazi nai duela. Leen, euskaldun erdaldunekin gertatzen zitzaiguna, orai arrontekin ere bai? Gutartean, euskaldungoari gorrotoa anditu dela, egia; eta euskaldungo unen nabarmen nagusiena ez ote da euskara? Untaz landara: bi urte urbil daramazkigu euskaldunek irakurgaiez elkarren berri gabe, ez eta mendiz araindiko euskar-irakurgaik ere. Mendiz beste aldeko euskaldunen berririk ez dugu. Franziako erdar irakurgai asko eldu da, baño euskaraz garanorik ez, nik dakitala. Gipuzkoan euskaraz asko itzegiten dela edo egiten zela badakigu, baño diotenez, araberako

> gorrotoa nabarmendu dela. Euskaldunen artean ere gertatzen da badirela egin ahalak egiten dituztenak euskaldun ez agertzeagatik, beldur diote nazionalista delakoari; aldi untan bekatu andia baida! Iruñeko Diputazionean gertatu zitzaidana! Jaun diputado batzuekin nindagon eta oketarik batek alakoik-ala itz batzu euskaraz erran zizkidalako, ikusi bazinute ango jaun baten arridura! Euskaraz egin ginuelakoz, ez neregatik, ongi baidaki euskara maite dutala, baño bai bertze jaun arengatik; etzakiela uste bide zuen, edo euskaraz egin bear etzuelakoz? Itz batean, euskaldungoak duen gauza oberena eta ederrena, euskaldun agertzeak galtze andia egin duela; oraidanik ezinbertzean baizik ez dela euskaraz eginen. Leen, aren etsaiak gordeka eta zearka baizik jokatzen etzirenak, orai beldurrik gabe zorrotz aitzin egiten dutela.

Beste maila batean, ez zuen Larrekok eragozpenik izan ahoan bilorik gabe Iruñeko egunkariek euskararekiko zeramaten jokua jasotzeko. Gerraren lehenbiziko urte erdian hiru izan ziren euskaraz agerturiko prentsako kolaborazioak, haietariko bi *Arriba España*-n, bata Manezaundiren ipuin bat, eta bestea Leitzatik igorririko kronika. Hirugarrena *Diario de Navarra*-n atera zen, egile izenik gabe baina seguroenik ere Luis Goñi kalonje iruñarrak atondua:

> Ez gera gu ez ere gure erriya euskeraren etsaiak izandu. Aspaldiko denboretan, bai ere berriro gure erriyan, bear zen bezala, euskeraren alde jai ederrak egin dira. Gure gendeko izkuntza zen ederra, zuzen ta garbiya. Gure erriko gauza da, bada, euskera, eta gure erriko gauza bezala aupatu eta garbitu biar dugu, mintzatu dezatela eta uts egin dutenak, berriz ikasi dezatela. Euskera gure erriyan ezta galdu biar Españako gure erri aundionetan. Eztute bildurtu biar gure erriko euskaldunak. Anziñera, izkuntza ederra onekin, gure gurasoaren izkuntza, gure gende ona izkuntza onekin! Euskera, berez, gauza ona da, itza ederra eta garbiya! Euskera gaiztatu, pozoitu euskera, biurritu euskera ori ez, ezta zillegi eta aunizek ori egin dute. Guk ez. Gure erriko berze gauzak bezala, guriak bai die euskera maite degu. Orretaz egunero ezpada maiz zenbait berriyak agertu die gure egunerokoan. Ala ere, gure euskaldun erriyetatik bere berriyak euskeraratuak bialdiko digute. Euskaldunak, gora España, Jaungoikoaren izenean! Ala izan dadila[13].

Horrelako hitzei erantzun bide zien Larrekok bere kronikan horrela zionean:

> Oraiko gazte berritu eta beste batzu jadanik gazte ez direnak asi dire erraten euskarari buruz eta euskaldungoari buruz zerbeit egin bear dela, orai artio abertzaleak edo nazionalistak ortaz baliatu direla egiazko euskaldun gisa agertzeko, baño euskaldun itxura baizik etzutelarik. Ai-ei-ai eta miletan ai! Berandu da, nik uste, gazte maiteak! Edo bedere garai egokia ez dela oraikoa. Oraiko aldian leen baño bearrezkoago da euskaraz ikasteko eta euskaraz itzegiteko biotz-barne bero bero bat euskararen alderakoa. Edo bertzenaz, ezinbertzean egin bear. Jainkoak lagunduz egin daiteke bide arazo zailetan ere. Baño, damurik, gazte berri orien asmoak ametsetan gelditzen ez badire! Españako erregetarren artean, eta oriek dire Euskal Errian nagusienak, euskarari gorroto bizia diote, nik uste, euskara delakoz Euskalerriko izatearen

13 *Diario de Navarra*, 1936ko irailaren 20a, igandea, 10.685 zbk.

> nabarmenik ageriena, euskaldun erregetarrek biotzean gorrotoa dutelarik, bozik utziko dute euskara eta nork daki ez ote duten naiago euskaldunak direla ukatu. Aspaldidanik erraten ari naiz: baldin biotzaren erdi erdian euskararen alderako maitetasuna landatzen ez bada nekez biziko dela, eta oraiko aldian bi aldiz. España aldeko euskal erriak zapaldi gaitza artu du eta orañik artzeko dukena; euskara naiz ilen ez den, makal geldituko da. Makal dagonenganik lan on guti.

Antzera xamar ibiliko ziren *El Pensamiento Navarro*-koak, bada eta Larrekok jaso bezala, «egunkari au pro euskara ari da». Gerra aurretiko urteetan, 1918 eta 1919 urteetan hain zuzen ere, Larrekoren lehengusua zen Agustin Irigaraik, Lepazar ezizenean, «Euskal idazkuntzak» saila atera zuen egunkari karlistan, eta gerra osteko lehenbiziko urte gogorrak iragan ondoan, Muthiko Alaiak elkarteak egunkarian zeukan «Zaldiko-Maldiko» orrialdean ere euskaraz izkiriaturiko zerbait agertzen asi zen lantzean behin. Bigarren hau ezin izan zuen Larrekok begiztandu, 1949an zendu baitzen, baina Lepazarrek egindakoa ezagutzen zuela ez da dudarik, izan ere, lehengusu eta koinatua baitzuen egilea. Agustin Irigarai Apat Aurizko Porkaxonekoan jaio zen 1873an, bere aita aurretikago aipatu Manuel Irigarai euskaroa zelarik. Iruñean kazetari pausatu aitzin Mexicoko iraultzan eta ibili zen, eta Iruñean 1942an zendu baino lehen liburu bi eman zituen argitara, Mexicon giroturiko *De buzo a general* eleberria eta *Estampas del Pirineo* ohitura-liburua. Larrekoren etxean gertatu zenaren kontrara, Porkaxonean euskara nahikoa bipilki mantentzen zen XX. mende hasieratan ere, alabaina Agustin karlismoarekin zegoen lerraturik, Maistroneko beste Irigaraitarrak, heldutakoan berreuskaldunduak izan zirenak, jeltzaleak zireno.

El Pensamiento Navarro bizitza luzeko egunkaria izan zen, estraineko zenbakia 1897ko urriaren 17an atera baitzen, eta azkena 1981eko urtarrilaren 13an. Horrek berebiziko garrantzia eman zion, izan ere, pairatu zituen isun, debeku eta abarrak gora-behera, Nafarroan irakurria oso gertatu izan den egunkaria dugu, eta baita Nafarroatik kanpo ere, gerratean zein frankismo garaian bere autonomiari hala edo nola eutsi ahal izan zionetakoa izan baitzen. *El Pensamiento*-k euskararekin izan zuen harremana ez zen txikia izan, geure hizkuntzari benetan eskaini zion tokia publikoki erakusten zituzten asmoengatik espero zitekeena baino eskasagoa bazen ere. Diogun hau berria ez bada ere, bestelako argitalpen karlisten lekukotasuna badugu erkagarri. García-Sanzek ikertu *Joshe Miguel*, *Akelarre*, eta *El Duende* argitalpen kriptokarlistek euskaraz ez zuten, esate baterako, ezertxo ere argitaratu. *Joshe Miguel* astekariak euskarari zion maitasun egiazkoa behin eta berriz aitortu zuen arren, 1913ko abenduaren 28ko zenbakian atera zuen olerkitxo bat baizik ez zion besterik eskaini irakurle euskaldunari. Alta, euskara zein euskaltzaleak bai izan zituela kezka iturri, eta euskararena jeltzaleen aurka jotzeko behin eta berriro erabili zuen lotsagabeki, horretarako jeltzale nafarren izaera erdalduna azpimarratuz:

> Admirose un montañés / Al ver que en el Centro Vasco / Al decir Eskerrikasko / Le dijeron: ¿Eso qué es? / ¿Qué vascos sos estos pues? / Exclamó el de la montaña / Ya es esto pues cosa extraña / Aquí mucho hablar de euskera / Y todos te hablan erdera / Igual igual que en España[14].

14 *Joshe Miguel*, 1914ko urtarrilaren 1a. Angel García-Sanz Markotegik aipatua, *Intransigencia, exaltación y populismo: la política navarra en tres semanarios criptocarlistas (1913-1915),* Donostia, Txertoa, 1994.

Euskaraz ezertxo ere argitara eman ez bazuen ere, euskal nazionalismoaren aitzi gogor jotzeko euskara tresna erabiltze honetan kontu linguistikoez aritzeko baimendurik eta guzti sentitu izan ziren *Joshe Miguel*-ekoak. Hortaz, puri-purian zirakien garbizaletasunaren hautuari helduz, jeltzaleek ez ezik beste idazle zenbaitek ere XX. mende hasieran zarabiltzaten neologismoen kontura, eta zehazkiago, birjina esateko sortu berria zen *neskutsa* hitz berria gorki kritikatu zuen Miel Mari sinatzen zuen kazetariak:

> El afán por lo nuevo e insólito ha llevado a los vasco-enredadores, vasco-chiflados, los nacionalistas de nuevo cuño a caer en un sacrilegio, pues el nuevo término puede entenderse como madre célibe, e incluso como Celestina [...] nuestra interpretación de Neska-utsa es la de cualquier bascófilo libre de preocupaciones nacionalistas. Ponemos en guardia contra cualquier intento de algún malandrín nacionalista de usar esta palabra desde el púlpito. Nosotros demostraremos que esa palabreja aplicada a la pureza virginal de la Madre de Dios encierra, como así es, un concepto ofensivo que rechazan los oídos cristianos con indignación.

Kritika guzti hauek karlismoak Alderdi Jeltzaleari egiten zizkion kritiken barruan ulertu behar dira, orobat Agerreri eta besteri egotzi zizkionak. Jose Agerrez «intelectual soporífero, exconferenciante de la yacente Academia de la juventud jaimista, que antes fue socialista y mañana tal vez olazabalista» esaten zuten. Manuel Aznar Zubigaraiz, berriz, idazle farregarria eta integrismoaren transfuga zela, eta Nafarroako gauzez zuen ezjakintasun sakona leporatzen zioten. *Joshe Miguel*-ek ez zuen onartzen Aznar *La Tradición Navarra*-tik *Euzkadi*-ra pasatu izana. Honi buruz honela zioen 1914an:

> Verdad es que el jelkide, actualmente, pues nada extraño sería que el día de mañana pretendiera escribir en cualquier otro periódico, es poeta, pero no del estilo antiguo, sino que ahora hace sonreir al estilo de algunos poetas de estos tiempos que sin rima ni metro escriben vaciedades sin sentido común que ni ellos mismos entienden.

Kasualki ere, ez zen egiatik sobera hastandurik ibili *Joshe Miguel* kazeta karlista, eta ituan bete-betean asmatu zuen Aznarren etorkizunaz. Edozein modutan ere, gehiago izan zen José María Aznar López PP alderdiko lehendakariaren aitatxia zenak euskaraz tajutu zuena karlista izkutu haiek predikatu zutena baino, izan ere, gutxisko bada ere, euskarazko olerki pare bat gutxienez karrikaratu baitzituen *Napartarra* astekarian, «Gaiztokian» eta «Sugea Euzkadin» alegia.

Lepazarrek eginiko *Euskal idazkuntzak* 1918ko ekainaren 13an hasi ziren agertzen. *El Pensamiento Navarro*-ren zuzendaria Jesus Etaio zen orduan, egunkariak izaniko bigarrena hain zuzen ere. Geroago, 1920ez geroz, hirugarrenez argitalpenaren lema hartu zuen zuzendaria, Migel Espartza Aginaga, euskalduna zen, geroantzean ere jeltzalea eta *La Voz de Navarra* beraren zuzendaria, baina ordurako euskarazko sail berri honek berea egina zuen, eta ez zuen berriz ere burua altxatuko. Biziki esanguratsua da «Euskal idazkuntzak» hauek erdalduna den zuzendari batekin sortu eta garatzea, areago bere ibilbide ideologikoa kontuan harturik. Jesus Etaio Zalduendo Iruñean sortu zen 1894an, beraz, *El Pensamiento*-ren zuzendaritza Etxabe-Sustaeta errioxarraren eskuetatik hartu zuenean 23 urte besterik ez zituen. Diputazioaren artxibazaina, Madrilgo Historiaren

Akademiakidea 1923az geroz, baita Nafarroako Monumentu Historiko eta Artistikoen Batzordekoa, Víctor Praderarekin lerratu zen Nafarroako konkistaren inguruko 1921eko eztabaidan.

Lehenengo idazkian aspaldiko asmoa noiz edo noiz azkenik betetzen zelako pozik agertzen zen Lepazar bezala sinatzen zuena irakurleen aitzinean, baita erdaldunen aurrean ere. Hauei honela mintzo zitzaien zutabe berriaren nondik norakoak azaldu nahian, zer gerta ere:

> Hace tiempo se había pensado en abrir esta sección vasca en *El Pensamiento Navarro* para contribuir a la conservación de nuestra lengua milenaria que tiene muchísimos admiradores que le rinden fervoroso culto. Atendiendo a indicaciones de personas respetables, esta sección no se limitará solamente a hacer el panegírico de nuestra lengua, porque ni hay necesidad ni responderá a la primera intención, que es dar acogida a toda clase de noticias y asuntos diversos que hagan a la vez interesante y amena la sección y para facilitar a la vez la colaboración en ella de todos aquellos nuestros lectores que sientan fuerza y entusiasmo para ello. De modo que vengan artículos, vengan noticias, y... a la mar.

Guztiarekin, eta lehengusua tartean bazegoen arren, euskararekiko erakutsitako jarrera txepelagatik, besteren artean, Larrekok ez zuen egunkari karlista sobera maite, eta horixe bera iger daiteke bere kronikan honela zionean:

> Leengo egunean irakurgai bat argitaldu zuen, ohore andiak egiten euskarari eta euskaraz irakatsi bear zaiotela euskal errietako aurreri eskoletan. Ehun urte oketan euskararen eremuak oianetara eta oian zokoetara bildu badire liberalen gain ematen du. Berriki, beste irakurgai bat agertu da gauza bera erranez eta zorionez orañik bidea badela euskara berpiztutzeko, tradizionalista ikasleak bere langai bearrezko bat bezala artzen badute. Arrigarri da *El Pensamiento Navarro* delakoan euskararen il-otoiak erratea: Nafarroa geinean eta euskal errietan bereziki ehun urte otan tradizionalistak nagusi izandu direnez geroz. Baldin Madridko gobernuak ezer lagundu ez badu, edo obeki erranik trabak ipiñi baditu euskara bizitzeko, *El Pensamiento*-k erran zezaken euskararen alde karlistek egin dutena. Badaiteke emendik bospasei illabete artio ez duela euskarari buruz itzik erranen. Eta ala ez bada, gure zorionak. Lan untan beste askotan bezala ez da aski egin bear dela erratea, bearrena egitea da; ibiltzea, solas egitea, jardukitzea, ibiliz egiten da bide eta ez alper egonez.

Harrigarriena da, ordea, Larrekok, ondoko lerroetan *Diario de Navarra*-z idazten duena: «*Diario de Navarra* delako egunkariak ere noizpeinka zerbeit erraten du, euskaraz bear dela, au ta ori egin bear dela, baño, ori erraten duenak badaki euskaraz eta ainitz ikasia da... eta noispait asiko da euskara garbiz idazten». Zalantzarik gabe Eladio Espartza lesakarraz ari zen, 1937ko abuztuan Arabako gobernadore zibila izendatua izan zena. Egia da Espartzak zerbait idatzi zuela euskaraz, antzerkilan bat eta deus gutxi gehiago, baina horixe guztia gerra aurretik eta jeltzaleen abaroan oraino zegoela. Honen jakitun da Larreko: «Euskalduna da, baño nik uste, euskara baño erdara maiteago duela; erdar idazle argia eta apaña da». Guztiarekin, badirudi Larrekok

konfidantzaren bat baduela Espartzarengan: «Ez dut uste euskaraz itzegitetik iñori debekatuko dion, nola zioten egin zuela Gipuzkoako gobernadore jaun izanak Arellano». Izan ere, Espartzak gobernadore postua galdu baitzuen Aramaion eginiko bilkura propagandistiko batean euskaraz egiteagatik. José María Arellano corellarrak berriz, 1936ko urriaren 7tik Gipuzkoako gobernadore zibila zenak alegia, jeltzaleenak ez ezik ia euskararen arrasto guztiak desagertarazteko kezka bizia zeukan, eta asmo horrekin honako agindua zabaldu zuen probintzian: «Se advierte a todos los guipuzcoanos que en el plazo de cuarenta y ocho horas han de quitar de los rótulos, carteles y anuncios las k, tx, b, etc. con que nos han violado los nacionalistas el glorioso idioma español bajo multa de 500 pesetas».

Aintzin solasean Jose Anjel Irigaraik esan bezala gutxi dira Larrekok bere kronikan ekarri euskaltzaleen aipamenak, eta horrela egin zuenean hil berrien notizia emateko idatzi zuen bakarrik. Guztiarekin, Larrekok aipatu zizkigun hiru hil berriak ez ziren edonor, eta berebiziko garrantzia leukake aipu nekrologiko haiek jasotzeak, *gudu urte gezur urte* horretan sinisturik egonda, informazio iturri ia bakarrak ziren *Diario de Navarra*, *El Pensamiento Navarro* eta *Arriba España* Iruñean ateratako hiru egunkarietan egiantzik nekez aurki zitekeelako gai hauen gainean. Lehenbiziko aipamena Campionena dugu, 1937ko abuztuaren 18an Donostiako etxean hil zena:

> Euskal Erriko oroituria argitzen iñork ez du jaun unek bezenbat lan egin. Gazte-gaztetik asi eta il arteraño lan bera; iñork ez ditu jaun unek bezain barneki euskararen erroak berexi eta ikertu. Berrogeitamar urtez amur eman gabe lan ta lan, beñere aspertu gabe; jaun buru onekoa, ikasia eta langile porrokatua, euskara ta Euskal Erria ezagutzeko eta ezagutarazteko iñork ez du Campion jaunak bezenbat lan egin. Etzuen beste bizipide bearrezkorik, aberats okitua baitzen! Euskara orren ongi zakielarik, euskaraz itzegiteko motelkara zen, oiturik etzuen; baño, ala ere, enekin bedere askotan euskaraz itz egin dugu. Zenbat gutun eder egin ditu eta guztiak erdaraz! Euskaldun jakintsuen lan geienak erdaraz daude. Erdar idazle azkarra zen eta apaña, erdararen berri bazakien.

Larrekok, Campion hil zenetik ia orain arte gertatu dena aurreikusiz, Iruñeko idazle handiaren estaltze gorra eta haundi-maundi berriek egin dioten ezikusiarena salatu zigun:

> Garai itsak, zinez, Campion jaun zena izandu zen bezala ikusteko eta errateko! Guti, arras gutiak izanen dire, Campion jauna bear ainbat goratuko dutenak [...] Euskal Erriko egunkariak ez dakit nola mintzatu diren; nik ez dut bat baizik irakurtu eta aren zuzendari jaunak zion: eriotza goralbenen ordua delarik, langile gisaz, idazle gisaz eta Nafarroako oroiturilarien jakintsuenetarik izan dela, baño ez omen du Nafarroa ezagutu, *no conoció Navarra*. Gizonaren lan guztietan, naiz ederrenak izanik ere, beti zerbeit eskas badute, baño jaun unek diona, nik uste, arrazoinki ez daitekela erran. Euskal Erriko egunkariek Campion jaun zenaz ixildurik ez bide dutela asko begi-anditu... oken etsaigoari edo zeri jarria baizagon aspaldidanik. Karlatarra-integrista izan ez delako beñere ez diote barkatu. Alderdi orien eta beste guztien artekoaldean bizi izandu da beti.

Larrekok ez zuen aipatu ere egin sobera ongi ezagutzen zuen Campionen telegrama famatua, *Diario de Navarra*-k 1936ko irailaren 15ean argitara eman zuena: «Tengo el gusto de hacer constar que liberada esta ciudad de la tiranía roja, quiero manifestar a la vez que mi protesta más enérgica por el incalificable proceder del nacionalismo vasco, mi adhesión inquebrantable a la Junta Nacional de Burgos». Maisuaren hitzok isildu ezeze mediku auriztarrak Campionen jarrera berri susmagarriari garrantzia kentzen ahalegindu zen, kolokan jarriezineko euskararen aldeko jarrera goraipatuz: «Azken urte oketan barnea ozpindua zaukan, guti aski zuen kroskan erausteko. Gudu untan abertzaleak gorriekin bat egitea edo elkar laguntzea leenengo garaian gaizetsi zuen. Abertzaleen ibilbide guztiak etzituen onesten. Guztien buruan euskara biziki maite zuen eta biziki nai zuen euskotar guztiak euskaldundu gindezen».

Egun batzuk geroxeago, Larrekok Campionen aldeko hileten berria jaso zuen bere kronikan:

> Buruillak sei dituela, Jondoni Nikolas elizan, Beunza, Maura, Pradera eta beste jaun zenbeitzuen eriotzaren urte muga zelakoz, il-mezak andiki kantuazi dituzte il zituzten arimen alderako; buruzagi guztiak, Apezpiku jauna barne, an ziren. Jainkoa baitan beude. Jendez leerra bazen. Aldiz, Campion jaun zenaren il-mezetan, errate batera, iñor etzen, aren aidegoa eta adiskide min batzu eta il-errian eortzeko berdin, doi-doia Comisión de Monumentos delako jaun apez bat il-otoitza errateko. Bearrik Campion jaunak badakiela lur untako gizonen berri!

Campionen ezdeustu, ahanztarazi eta oinpetzeko saio arrakastatsuak orduan izan zuen hasmenta beltza, egunotan, neurri batean bederen, indarrean irauten duena.

Uztailaren 18an Nafarroako Buru Batzarreko lehendakaria eta *La Voz de Navarra*-ko zuzendaria zen Jose Agerrek, lehenago aipatu dugunak, gerraondoko urterik latzenetan Campionen lehenbiziko biografia idatzi zuen, argitara gabe dirauena. Larrekok bezala, bere baitarako eta isilpean Agerrek izkiriatu zituenak ez ziren gutxi; euskaraz olerkiak, eta erderaz aipatu Campionen biografia eta zenbait testu biografiko, erlijioso eta folkloriko. Ez zuen Larrekok Jose Agerreren izena jaso gerlako kronikan, bai ordea haren aitarena, gauza kuriosa dena:

> Azillaren emezortzi garrenean, Iruñen il da Eulogio Agerre Laurenz; bere bizi guzia zurgintzan eman du, zenbeit urte bazituen etzuela zurgin lanik egiten, baño illobak bazituen azteko eta ezteko, eta ori ederki egin du. Aren izenik ez dut orgatik emen aipatzen, baizik eta euskaldun garbi zelakoz eta euskar-idazle argienetarik. Jakina, ez duela gutunetan bere jakinduria utzi, baño aren adiskideak, aren seme illobak daude lekuko; nik ere adiskide nuen, baño ain begiratua eta apala zen, bakan baizik etzela nere etxera agertzen. Eder eta gozo zen ari entzuten egotea, eta ederrago orañik, aren eskutitzak irakurtzen. Buru argia zuen eta ainitz zakien. Baño gauza oken buruan, saindu bat zen. Jainkoa beitan bego.

Eulogio Agerre Aezkoa aldeko Ariatik Iruñera heldu zen zurgintzan aritzera, euskalduna zen beraz, baina hiriko erdaldun batekin ezkondurik etxean ez zuten euskaraz hitz

egiten. Bere bi semeek, Josek eta Anastasik, heldutakoan ikasi behar izan zuten aitaren mintzoa, Campionen eskutik lehenengo eta bere kasara ondoan. Anastasi Iruñeko SOV-eko arduraduna zela zendu zen istripuz, hortaz, Eulogioren biloben inguruan Larrekok aipatzen duenaz ez dagoke zalantzarik. Bi anaiek idatzi zuten prentsa jeltzalean, euskaraz zein erderaz, eta Jose euskaltzaina izan zen ia akademiaren sorreratik Campion beraren ondoan, euskaltzain oso bezala labur joan bazitzaion ere. Hau dela eta, Larrekok Eulogioz egin zuen iruzkina euskaraz idatzi zuenaz bezanbatean eta beste, gehiago dirudi semeei buruz eginiko begi-keinu zuhurra.

Larrekok ondu zuen hirugarren euskaltzalearen nekrologika Arrigarai kaputxinoarena izan zen:

> Gaur, jorraillak ameka egun dituela, Amerikatik izan dugun eskutitz batean berri txar bat eman digute, Aita Celestino, Kaparrosoko seme, orai duela zenbait illabete il zela. Jainkoa baitan bego gure adiskide andia. Bere nagusiek emendik aterazi zuten leenik Hijar delakora eta andik Amerikara; unelako jokoak egiten oi zituzten kapusaidunen nagusiek abertzale-euskotarren usaña zutenekin. Burua argia zuen eta, biotzez euskotarra zelakoz, errotik ikasi zuen euskara eta untarik jakintsun bilakatu. Euskararari buruz lan andiak egin zituen, neri asko irakatsi zidan Lekarotzen zagolarik eta gero ere.

Zelestino Peralta Lapuerta, Erribera aldeko Caparroso herrian jaio zen kaputxinoa, 1921ean bidali zuten Argentinara. Ordenaren abaroan beste zenbait urte eman ondoren, eliz jantzia eramateari errefuxatu zion 1928an. Beste fraide euskaltzalerekin gertatu bezala, Arrigarrai ere Euskal Herritik lekutu zuten zer gerta ere zigorturik; guztiarekin euskaltzain urgazlea izan zen, orobat hiru liburu hauen egilea: *La conjugación baska: sumario de lo más preciso y práctico de la conjugación del euskera* (Bartzelona, Perelló i Vergés, 1914), *Euskel-irakaspidea, o sea gramática del dialecto guipuzcoano* (Totana, San Buenaventura, 1919), eta *Lenengo irakurbidea aurrei euskaraz irakurtzen irakasteko: euskelzale batek aur euskaldunen onarako argitaratzen duena* (Bartzelona, San Martí, 1920).

Gerla urte gezur urte guduko kronika hau bertan behera uztekotan egon zen Larreko 1939ko urtarrilean:

> Egun izotzillak edo ilbeltzak bigarren eguna du. Aurten, euskaraz idazten jarraikiko ote naiz? Nere maite batek atzo erraten zidan: *gure adiskide euskaldun bat, euskar idazle oberenetarik, bahitu edo bildu zuten, aurkitu ziotelakoz bere idazteko mai gañian euskaraz idatzirikako orri bat guduaz zerbeit mintzo zena. Zuk ere, ori egiten baduzu, begira zaite!* Nere baitan... geldi-geldi, ixil-ixilik egon ondoan, ez dakit zer egin. Zinez, ene lanek garrantzi andirik ez dute; baño, baño, nik euskara maite dut, ene abizenak euskaraz mintzatzen nautelakoz, ene erritarrek euskaraz itzegiten didatelakoz. Untaz landara, euskara itzkuntza ederra da; mintzo eztia eta goxoa da; ezin geiago mamitsua, ez naiteke ura maitatu gabe egon. Eta euskara maitatzea ez ote da ura erabiltzea eta alik eta obekiena ikastea eta idaztea? [...] Euskaraz itzegiten edo euskaraz idazten, ni barne-barnetik euskalduna naiz eta euskaldun gisaz jokatuko naiz. Untaz landara,

> euskaldun asko baditut maite ditudanak eta eken geienen berririk ez dutalarik, ni emen nago ek guztiak gogoan, ekengana biotza ixuria eta emana, orgatik euskaraz ari naiz, ari naizen bezala.

Zorionez, eta egindako burutapen hauei men eginez, Irigarai medikuak jarraitu zuen idazten, jarraitu zuenez, eta Nafarroako egungo euskaldunoi 36ko gerraren kronika eskaini zigun, pertsonala eta ez osoa nahi bada, baina bizi eta bihotzetik, sentimenduez zipriztindua eta hortaz baita egiazkoa ere, galtzaileon oroimena dena, eta tamalez ere, oraina ere badena, euskara kontuetan hain baitira gauzak nahasirik Nafarroa gurean, kasik gerlan jarraitzen dugula, eta gerlan egonik badakigu: *gerla urte gezur urte*.

LABURPENA

Euskararen memoria Nafarroan 36ko gerran. Larrekoren *Gerla urte gezur urte*

Fermin Irigarai, *Larreko*, idazlearen obra aztertzen du artikuluak. Obra hori eskuz idatzia utzi zuen eta ez zen argitaratu 1993 arte. Bere bizipenak eta gogoetak kontatzen ditu, 1936-1940 urte zailetan idatziak.

Gako-hitzak: Fermin Irigarai; Larreko; euskal literatura; Nafarroa; gerra zibila; memoriak.

RESUMEN

La memoria del euskera en la guerra del 36 en Navarra: *Gerla urte gezur urte* de Larreko

El artículo analiza la obra del escritor Fermín Irigaray, *Larreko*, que dejó manuscrita y no fue publicada hasta 1993. Se trata de sus vivencias y pensamientos escritos en los difíciles años de 1936-1940.

Palabras clave: Fermín Irigaray; Larreko; literatura vasca; Navarra; guerra civil; memorias.

ABSTRACT

The memory of Basque in the '36 war in Navarre: *Gerla urte gezur urte* by Larreko

The article analyses the work of the writer Fermin Irigarai, *Larreko*, which he left handwritten but was not published until 1993. Written in the difficult years of 1936-1940, the work addresses his experiences and thoughts.

Keywords: Fermin Irigarai; Larreko; Basque literature; Navarre; civil war; memoirs.

Gerraurreko euskalgintza nafarraren afera dokumentala: erantzun garbi gabeko galdera zenbait*

Joxemiel BIDADOR**

Jardunaldien egitarauan zein afitxetan «Liburutegi pribatuak» jarri didate izenburu. Ez dakit horixe zenentz nik emandakoa, baina ezetz uste dut. Ez dut esan nahi, bestela ere, antolatzaileen aldetik zabarkeriarik egon denik; halakorik egotekotan nire errua izanen zen, seguraski nire asmoa hobeki ez azaltzeagatik. Baina ñabardura hau egin beharrean nago. Izan ere, ni ez bainaiz bibliotekonomian aditua, eta halako izenburu hantusteak okertzera eraman dezake entzulea. Beraz aurrenekoz izenburuak lekarkeena ñabartuko dut, beharko ere, eta zehaztapena eginen dut nire mintzaldiaren edukiez direnez bezanbatean. Nafarroako euskal literaturaren ikertzaile naizen aldetik, nire interesa da jakitea idazleek beren lana modu eraginkorrean aurrera eramateko dokumentatze aldetik zertan zegoen, hau da, eta zedarritu zaigun garaira atxekirik, gerra aurreko belaunaldi horrek zer egiten zuen behar zituen tresna bibliografiko guzti horiek eskura izateko; bestalde, eta liburutegitik atera gabe, idazleek berek idatzitako guzti horrek sarbiderik izan ote zuen Nafarroako liburutegietan; euskalari haiek sortzen ari ziren euskalgintzaren ekoizpena aterbetzen zituzten liburutegiak, zeintzuk ziren; lan berri horiek zein modutan sartu ziren; eta azkenik, errepublikaren amaierak zein modutan eragin zuen etorkizun oparokoa zirudien belaunaldi horretan.

Hortaz, eta galdera hauek buruan jira-biraka izanik, nik bederen beste izenburu bat proposatuko nuke gaurko hitzaldirako: «Nafarroako euskal idazleen dokumentatzea errepublika eta gerra aurreko garaian», edo modu laburragoan emanda «Euskal liburutegiak Nafarroan errepublika eta gerra aurreko garaian». Azken finean garai hartan batez ere Iruñean ziharduten euskaltzale haien larruan jartzen naiz eta dokumentatzeko

* *TK*, 19, 2007, 109-116.
** Euskal Idazleen Elkarteko idazkaria.

zituzten aukerak eta arazoak zeintzuk izan ziren pentsatu nahi dut. Finean, non zegoen dokumentatzeko behar zuten bibliografia? Hauek dira, seguruenik ere erantzuteke utziko ditudan galderak, eta hitzaldi honi izenburua jar diezaioketenak.

1. GALDERA SORTA

Zer da euskal liburutegi bat? Ba al dago euskal liburutegirik Nafarroan? Eta guri dagokigun garaian, ba al zegoen euskal liburutegirik? Zeintzuk ziren hauen fondoak?

Hemen dauden liburuzainen baimenarekin, eta beste ezertan sartu baino lehenago, ezin beharrezkoagoa zait liburutegitzat ulertzen dudana azaltzea. Zer da liburutegi bat, bada? Ene uste apalean liburutegi bat biltegi bat da, biltegi berezia, gordailu bat, non erabiltzaileek maneiatuko duten dokumentazioa metatzen den. Halaber, dokumentazioa hori baliatu ostean erabiltzaile horiek sortzaile bilakatzen direnean, hauek sorturiko dokumentazio berria liburutegian berean jasotzen da, eta horrela fondoa zabalduz doa, mardotzen, eta erabiltzaile berriei iritsikio zaie, eta horrela, katea indartuz doa. Katea inoiz eteten bada, liburutegia desagertuko litzateke, bere funtsa behintzat, hiltzen. Izan ere, liburutegia bizirik dagoen zerbait baita, beti aldatzen eta berritzen.

Ez dirudi oso zaila euskal liburutegi bat zer den zehaztea. Printzipioz euskaraz idatziriko zein euskarari buruzko fondoetan espezialdua den liburutegia izanen litzateke. Gaur egun badira zenbait. Ezagunenetakoak Gasteizko Santxo el Sabio, Koldo Mitxelena liburutegian gordetzen den Julio Urkixoren fondoa, Bilboko Euskaltzaindiaren Azkue liburutegia, Lazkaoko beneditarrena, Arantzazuko frantxikotarrena, Iruñeko San Pedroko kaputxinoena...

Egia da guri interesatzen zaigun garaian ez direla halako liburutegi espezialduak, edo behintzat ez zegoen asmorik halako zentru espezialduak sortzeko, nahiz eta lanaren kariaz, hainbat tokitan euskal liburuak pilatzen hasi ziren eta hortaz euskal liburutegiren bat sortuz joan zen, esaterako aipaturiko Urkixorena, baina pentsa dezagun Bonaparteren printzearena nolakoa zatekeen, Dogson ingelesarena, Vinsonena, edo geuregandik hurbilago Campionena berarena. Pentsa dezagun, ordea, normalena ez zela halako espezializazioa bilatzea, baina egin dezagun garai hartako euskal liburutegien zerrenda posible bat, edo bestela ere, haien fondoen artean euskal bibliografia zabala gordetzen dutenena.

Liburutegi publikoak

- Liburutegi orokorra
- Artxibo nagusiaren liburutegia

Liburutegi nagusian jasotzen zen Nafarroan argitara ematen ziren liburuak, eta horrela, nahiz eta berez euskal gaietan espezialdua ez izan, garaiko euskal idazleek kontsultatu nahi zituzten liburu asko bertan bazituzten eskuragarri, batez ere liburu zaharrak. Honen adibide polita Martinez de Elizalderen dotrina izan daiteke, urteetan galdutzat ematen

zena, eta Patxi Salaberrik San Frantziskoko liburutegian idoroa eta *Fontes Linguae Vasconum* 1994an berrargitaratua. Bigarrenaren kasuan, hor dauden liburu batzuen aleak ez dira beste inon topatzen.

Liburutegi erlijiosoak

- Apaizgategia: gure garaian apaizgaitegian euskara klaseak ematen ziren, 1922an hain zuzen ere; irakasleen artean Blas Fagoaga, Esteban Irañeta eta Migel Intxaurrondo zeuden, hiruak euskal idazleak eta hirugarrena gainera euskara ikasteko gramatika baten egilea. Hiru hauen aurretik Etxarri-Aranazko Biktoriano Uitzik beste gramatika atera zuen 1899an. Euskara klaseei hasiera emateko garai ona zen, kalean arnasten zen giro euskaltzaleari esker, baina egia da elizan ere bertako hizkuntzan predikatzeko beharra ikusten hasia zela, eta herri euskaldunetara apaiz euskaldunak bidaltzeko beharra sortua zela (gogoan izan bedi 1902an apaizgaitegi osoan eginiko inkesta, non hizkuntzari buruzko informazioa jasotzen zen). Honen inguruan beharrezko suertatu zen bibliografia euskaldunaz liburutegiak osatzea. Bestalde herrietako eliz artxiboetan eskasa da mantendu den bibliografia, are gutxiago eskuragarritasuna, berriz apaizgaitegitik asko ziren pasatzen ziren apaizgaiak (1900ean 450 apaizgai zegoen Iruñean), eta liburutegiko euskal liburuak hortxe zeuden jende askoren eskura. Gogora bedi 1936ra arte apaizgaitegia Dormitaleria kalean zegoela, ez gaur egun dagoen tokian, eta handik hurbil ere beste liburutegi garrantzitsu bat bazela, hau da, Katedralaren liburutegia. Honetarako sarbidea nekezagoa izanen zen, eta euskal gauzei dagokienean, bistan da zerbitzu txikia eginen ziela euskal idazle berriei.
  Aipatu Migel Intxaurrondok *La iglesia y el euskara: obligación de hablar al pueblo en su lengua nativa y de cuidarla* izenburuko saiakera interesgarria eman zuen argitara 1927an. Funtsean 1926/27 ikasturte berriari hasiera ofiziala emateko apaizgaitegian emandako hitzaldiaren testua dugu. Horrekin batera, liburu bukaeran gehigarri zenbait gaineratu zituen, tartean bibliografia zabalak euskaraz eta euskararen inguruan, apaizgaiek gaian gehiago sakon zezaten. Urte batzuk beranduxeago, 1039an, gehigarri bibliografiko hauek beste apaiz batek probestun zituen, Blas Alegria lakuntzarrak alegia, Olabe liburutegiaren sariketan sari bat altxatzeko honako lanarekin: *Gure ama: euskararen garai ontako egonera ta berori zaindu ta geituerazteko biderik egokienak*. Nondik hartu zituzten apaiz biek liburu zerrenda luzexka haiek? Aipaturiko liburu guztiak apaizgaitegian ote ziren?[1]
- Mundu erregeladunean, hau da, ordenen artean, euskal gauzetan garai honetan Nafarroan gehien nabarmendu zena kaputxinoena izan zen. Ez konbentu guztietan, ordea. Tuteran, esate baterako, Intza eta Oieregi hasi ziren euskara lantzen, eta hango liburutegirako erosi ziren zenbait euskal liburu; gaur egun oraino baten bat han dago. Beste liburutegi txikiak Altsasu eta Iruñekoak ziren. Baina liburutegirik inportanteena Lekarozen zegoen, eta han sortu zen giro euskaltzalearen abaroan (aita Donostia, Arrigarai, Bonifazio Ataungoa, Berako Dornaku, Eusebio

1 «Gaur idaskitzen da geiago euskeraz egun batez lenago eun urtez baño. Auxe da egia. Ta erakusmenerako, onatx emen, idazle euskaldun eta euskelarien artetik berezitako izendiaz gainera idazti bakar batzuen berri laburtxoak...», Blas Alegria, *Gure Ama,* Iruñea, Biblioteca Olave, 1930, 10 or.

Etxalarkoa...). Ez ziren gutxi Lekarozko tertuliaren abaroan idazle bezala hezi ziren euskal idazleak: Larreko, Tapia Perurena, Irular..., eta bistan da hauek guztiek hango liburutegia probestu zutela. Egun Lekarozko fondoak Iruñean daude, baina gerrate garaian galera inportanteak gertatu ziren.

Euskalgintzaren liburutegiak

- Euskara Elkargoa: hogei urtetan zehar eta halako aldizkari espezialduarekin Euskara Elkargoak hainbat dokumentazio bibliografikoa bilduko zuen (besteen artean jasoriko originalak, errezensionaturiko liburuak...). Euskara Elkargoa desagertu ostean non geratu ziren bere liburu guztiak? Kontuen Ganbera geratu baziren paperak eta aktak, gero artxibora eraman zituztenak, bidezkoa da pentsatzea liburuak artxiboko liburutegira joanen zirela. Hauen ostean, eta guztietan Campionen presentziarekin, beste elkarte batzuk etorri ziren, baina ez zuten Nafarroan izan Euskaroen presentzia fisiko horren handia: Euskal Esnalea, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia... Baina ireki ziren egoitza nafarretan dokumentazioren bat egonen zen. Nafarroako asoziazio berezkoa ere Euskararen Adiskideak izan zen, baina hauek ez zuten helbide finkorik izan, eta hortaz zailsko dirudi asoziazio honek zentru dokumentalik eduki izana.
- Eusko Alderdi Jeltzaleak bere liburutegi partikularra izan zuen, Centro Vasco-n lehenbizi eta Zapateria karrikan gero. Euskara klaseak bertan eman ziren, Campionek hasiera batean, Agerrek gero. Aipatzekoak ere jeltzale nafarren prentsa argitalpenak: *Napartarra, La Voz de Navarra* eta *Amayur*.
- Hezkuntza zentroak: interesgarriena, ausaz, institutua zatekeen, bertan euskara klaseak eman zirelako, irakaslea Jesus Arantzadi kazetari ezaguna zela. Aurretik Lertxundi eskolapio gipuzkoarrak eman zituen Aldundiaren jauregian berean, baita liburua sortu ere Diputazioaren laguntzaz. Alabaina ez dirudi Iruñeko hezkuntza zentroetan ezer nabarmengarririk egonen zenik euskal dokumentazioari dagokionean.
- Moldetegiak: baziren Iruñean hainbat moldetegi euskal liburuak moldakatzen zituztenak: Aranburu, Garcia, Aramendia... Bengarairenak bertso-paperak atera zituen bereziki. Bertso paper hauek, non daude ordea? Nafarroatik kanpo, baina izan zuen garrantziarengatik, Tolosako Lopez-Mendizabalena aipatu behar da, XIX. mendean Eusebio Lopez karlista lodosarrak indarberritu eta bereziki bultzatu zuena (pisuzko hainbat liburu epeka atera zituen, eta interesekoak dira oso harpidedunen zerrendak).

Azkenik pertsona partikularren liburutegiak aipatu behar dira:
- Arantzaditarrena (tartean aipatu Jesus Arantzadi euskara irakasle)
- Agerretarrak (mitikoa omen zen Joxe Agerreren liburutegia, Patxi Zabaletak esanda; ni bertan egona naiz eta ez dago horrenbesteko fondorik, baina egia da frankismo garaian behin baino gehiagotan sartu zirela bere etxean eta atxilotu egin zutela, hortaz horrelako erasoek zein punturaino izan zuten eragina liburutegian?
- Maria Paz Ziganda Ferrer (Euskararen adiskideak)
- Eladio Espartza (Lesakako idazkaria eta *Diario de Navarra*-ren erredakzio buru sonatua)
- Barojatarrak (Itzea)

- Irigaraitarrak (Iruñean Larreko –geroago Irular semeak Donostiara aldatua–, Orreagan Juan anaia)
- Arturo Campion (Artxiboan datzana, nahikoa nahasturik; Iñaki Montoyak hurbilpen saioa egina dauka)
- Oloriz (euskaroa; Auritzen? Arantzaditarren eskutara pasatua)
- Zalba (historialaria, diputazioko artxibazaina eta Campionen idazkari pertsonala)
- Bitorio Apeztegia (Amaiurren jaioa, Iruritan hazia, Larreko bera izan zuen mediku eta Irular jolas-laguna. Zaragozan apaiztua, Erratzun arizan zen apaiz denbora laburrez, eta handik Orreagara joan zen. Nikolas Altzolaren hitzetan Apeztegiak bere gelan zuen euskal liburutegia erraldoia zen, eta harengana joan zen XVIII. mendeko Mikelestorenaren katetxima ahaztuaren bila).
- Tapia Perurena
- [...]

2. GALDERA SORTA

Non edaten zuten Nafarroako euskal idazleek, Nafarroako euskal intelligentsiak? Non dokumentatzen ziren euskaraz idatzi ahal izateko?

36ko gerra zibila bitartean Nafarroako euskal literaturaren historian bi izan dira une garrantzitsuak. Alde batetik XVIII. mendeko jesuiten eskola, eta bigarrenez bigarren errepublikan garatu zen berpizkundea. Berpizkunde honek ere bi alorretan eratu zen, alde batetik literatura erlijioso guztia (batez ere kaputxinoek aitzinatu zutena), eta bestaldetik mundu jeltzaleak burutu zuena. Azken honek berebiziko garrantzia hartu zuen, berrikuntzen bidea areago jorratu zuelako. Eta bide horretan ulertu behar da Aitzolen eragina. Aitzolek erabili nahi izan zuen literatura ideologia sustatzeko, hasiera batean olerkigintza, eta horrela sortu ziren olerkarien demak. Ordukoa da Orixe euskaldunon poema epiko nazionala idaztera bere baserrian itxi zenekoa. Baina Orixe bazuen jesuiten prestakuntza akademiko zabala (Estefania aitak eta enparauek emana). Nafarroako idazle jeltzaleek, komunzki ez ziren jesuiten etxeetatik pasatuak, Orixe bera edo Lauaxeta bezala. Prestakuntza literarioa beraz txikiagoa zuten, eta dokumentazio beharra momentukoa zuten, beharren araberakoa.

Beste kontu batera paseaz, gerra aurretik Nafarroan euskaraz idatzi zuten pertsonen aportaziorik ezezagunen artean, euskarazko eredu literarioaren inguruko eztabaidarena izan zen. Eta hau diot ze askotan pentsatu izan da, eta banago oraino ere pentsatzen dela, garbizale eta mordoizaleen arteko eztabaidarena Gipuzkoan bakarrik garatu zen eztabaida bat izan zela. Baina Nafarroan ere gertatu zen hau. Eztabaida honen kapitulurik burrunbatsuena euskaldunberri zenbait eta Manezaundiren artean gertaturikoa izan zen. Ezagututa Manezaundiren hizkera suharra, inor ez zen harrituko *Varios euskaldun berris* sinaduraren azpian «Sobre euskera» kolaborazioa 1933ko otsailaren 17ko *La Voz de Navarra*-ren 8. orrialdean, eta ez azalean, agertu zenean:

> Hemos leído, sin gran asombro, las apreciaciones de Manezaundi sobre el euskaldun berri. Acostumbrados a las voces de aliento de dicho señor y también a sus

> consejos, no hemos abstenido, por lo que a nosotros afecta, de escribir en euskera para los periódicos. Pero son tantos y tantos los osados euskaldun berris que llenan diariamente las columnas de *La Voz de Navarra* que se hacía necesario el palmetazo a los atrevidos discípulos [...] ¿Es que por no haber nacido en zona euskeldun hemos de rechazar sistematicamente los escritos euskericos de don Arturo Campión, de Arrigarai, José Agerre, etc., y hemos de aceptar como modelos de dicción las cartas de los corresponsales euskaldunes? Pues no es poco ingrata la labor en los periódicos del redactor encargado de enderezar, corregir, cortar y pulir los escritos de aquellos para vestirlos decentemente antes de salir a la calle. Nosotros, a escoger, nos quedamos con los escritos de los primeros [...] Respecto a la construcción, seguimos las instrucciones que en su día nos diera magistralmente nuestro querido profesor señor Aranzadi.

Manezaundiren erantzuna gogorra izan zen. Ordutik aurrera kolaborazio gehiago igorriko ez zuelako abisua ematen zuen. Manezaundiren hitzei erredakzioaren oharrak segitzen zion, eta aferan gehiegi sartu nahi gabe, *peor es meneallo*, arrenkiro eskatu zioten Luzaidekoari kolaborazioak bertan behera ez uzteko, asko baitziren irakurtzen zituztenak, tartean ere, euskaldun berri horiek. Berdin egin zuten beste idazle batzuek: Saraitzu aldeko Irur-lagunak, Anastasi Agerre, Larreko, honen anaia zen Juan Irigarai «Menditxuri», Campion... Euskaraz 1933ko otsailaren 28an ateratako «Ene adixkideeri» Manezaundik zuzentzen zituen bere hasierako asmoak, eta iduri goxoago agertu zigun:

> Irur lagunak, Agerre'tar Anastasi, Menditxuri eta Campion yakintsunak, alde batetik; horra berriz Gibel-aundi, Xerroxin eta Irular, galdegiten daukutenak yarraik nadin ene sailetan gure mintzairaren aldez. Milesker deneri bihotz zolatik. Nola atxik ene hitza izparringi huntan gehiago ez idaztekotan? Zuen oneziak eta amultsutasunak garhaitu nute, eta berriz abiaraziko naute eskuarazko lanttoetan, orai artio bezala [...]. Guazen beraz aitzina, sathorrak utzirik bere munutsetan.

Euskararen inguruko eztabaida hau sortzeko adina indarra baldin bazegoen, honek eskatzen du aurretik formazio bat, ez bakarrik ahozkoa, ezpada dokumentazio pertsonalaren aldetik. Beste kolaborazio batean Manezaundik berak honela idatzi zuen euskal ortografiaz jarduterakoan:

> Es insensato atrevimiento tratar de abolir la ortografía de las obras de Echepare y Axular escritas hace más de tres siglos y medio y cuyo euskera es idéntico al que hoy hablan y escriben los vascos de aquel país, heredado de aquellos. Una intolerable profanación que allí jamás será consentida.

Baina Iruña batean non zeuden irakurgai Etxepare eta Axularren testuak?

Egin dezagun fikzio txikia eta asma dezagun idazle berri bat: Iñurritza. Bestalde esan Iñurritza ezizenez Tapia Perurenari eskainia eta eskertua olerki luzexka agertu zela Nabarreriako olerkariaren paperen artean 1938ko urrian sinatua, ezezagun joan zaigun eskola poetiko baten zantzuak eman diezazkiguna. Iñurritza hura, bada, eta fikzioare-

kin segituz, euskaldunberria zatekeen, nahiz familia euskalduna izan. Gurasoak karlista txepelak izanen ziren, hirira lanera etorriak, euskararena Iruñean sobera baliagarria ikusiko ez zutenak. Iñurritzarenean sinatzen zuenak Arantzadirekin ikasi zuen euskara, eta maila batera iritsita Tapiarenean zizelatuko zuen bere gaitasun poetikoa. Beharko zituen tresnen artean gramatika eta hiztegia egonen zen, hala nola Aitzol eta enparauen propaganda eta sormen lanak. Non topatuko zituen Iñurritzak horrelako dokumentazioa? Eta bestaldetik, non eskuratuko zituen Manezaundik bezala Larrekok behin eta berriro orduko euskal prentsan aipatzen zituen euskal idazle zahar eta ez horren zahar horiek?

XVIII. mendean Iruñeko jesuitek euskal liburutegi ederra zuketen Konpainia karrikan, egun desagerturik eta hala nola barreiaturik dagoena. Zer gertatu ziren Mendiburu, Gamiz eta enparauek zuten fondoarekin? Garbi dago Iruñean sortu zen giro literario euskalduna ez zela txikia, eta Iruñeko eskola izendatzeraino irits gaitezkeela: Mendiburu eta Gamiz berak, Kardaberaz, Mikelestorena..., eta hauen kanporaketaren ostean eta XX. mendeko giro jeltzalea sortu arte behintzat, frantxikotarren ekarpena (Palacios, Añibarro...), karmelitena (frai Bartolome), eta apaiz sekularraren baten ekarpena ere (Mogel). Liburu horiek guztiak Iruñean moldakatzen ziren, eta ohi bezala bakoitzaren ale bana Nafarroako liburutegian gordetzen zen, baina bistan denez, ez zen nahikoa. Pentsatzekoa da fondoen metatzea jesuiten liburutegitik etorriko zela.

Idazleen zerrenda

- Campion: euskaroa, itzala, garai honetarako jada zaharkitua.
- Arburua, Insausti, Mendi-txuri, Manezaundi, Larreko, Urkia, Alegria, Intza, Oieregi, Agerretarrak, Tapia, Artxanko, Jose Perurena...

3. GALDERA SORTA

Sortzen ari zen guztia non gorde zen?

- Nafarroako kaputxinoek bazuten moldetegia Iruñean, Neketako amaren irarkola, eta han egin zuten *Zeruko Argia* eta *Irugarrengo Frantziskotarra* aldizkariak, baita hamaika liburu ere. Liburutegirik inportanteena Lekarotzen zegoen, zerbait ere Hondarribian, eta egun Lekarozkoa Errotazarren bildu dute. Gerra hasi zela Lekarozko etxea gerrako eritetxe egin zuten, eta hainbat fraile errepresaliatuak izan ziren Txile-Argentinara bidaliak izanik (Intza, Iraizotz...). Mito asko kontatu izan dira hango liburutegiaz. Gerra ostean hor obrak egin eta pareta bat boteaz liburuak agertzen zirela. Ez dut uste liburu gorriak izanen zirenik ezpada euskarazkoak, alabaina mitoak baizik ez ditugu.

- Lehiaketak:
  Lehiaketa asko egin ziren Nafarroan guri dagokigun garaian: Iruñeko udalak antolatuak, Euskal Esnaleak, Euskaltzaindiak, Euskararen adiskideak, Antzerki misionala, Biblioteca Olabe... Esanguratsua da Alberto Barandiarani Iruñeko

artxibategian gertaturikoa. Olabe sarirako Alegriak batez ere aurkezturiko hainbat euskal original ez ziren argitara eman eta egun desagerturik omen daude, halaber argitaratu ziren euskarazko sariak ez dira errazki topatzen, baina liburutegietan beharko lukete (Urkia, Alegria, Intxaurrondo...). Olaberena Artxibo nagusian beharko luke.

- Hemeroteka:
  Berez ez da fondo bibliografikoa, baina pentsa bedi askotan hemerotekako fondoak liburutegietan ere badaudela. Esate baterako, EPNko 1918-1919 urtean ez daude Artxibo Nagusian, ez mikrofilmaturik ez paperean, eta kasualki bi urte horietan atera ziren Lepazarren kronikak euskaraz. Liburutegi nagusian daude bakarrik, paperean, baina ezin dira kontsultatu zaharkituegiak daudelako. Iruñeko Artxibategian, *Napartarra*-tik ez dago erdia ere.

- Garaiko liburu asko, edozein modutan, San Frantzisko liburutegian daude egun, eta bere garaian sartuko ziren.

4. GALDERA SORTA

36ko gerrak zer suposatu zuen?

- Ekoizpenaren etena (Larreko –*Gerla urte gezur urte*– eta Iñurritza olerkariaren salbuespen lakarrak, nahiz ez diren adibide onak haien ekoizpena publikoa izan ez zelako): Tapia, Agerre, Irular eta beste isildurik, fraide zenbait Ameriketara kanporatuta: Intza, Iraizotz...

- Liburutegien modifikazioa (XVIII. mendeko jesuiten adibidea errepikatu zen):
  – Desagerketa zuzena: EAJ (*Arriba España* egunkaria *La Voz de Navarra* zenaren tailerretan)
  – Lapurreta: Agerre (bitan sartu ziren bere etxean)
  – Suntsiketa publikoak: euskal liburuen erreketak (Auritzen esaterako, Centro Vascoko liburuak)
  – Autosuntsiketa (badaezpadako expurgoa): Manezaundi, Blas Alegria...
  – Ezkutatzeak: Lekarozko adibidea. Felipe Juaristik aipatzen zuen Lizardiren liburuak (hau da, bada Lizardi kultura gutxiko pertsona zela esan izan dutenak bere liburutegiaren katalogoa ezagutzen ez zelako; liburuak egon bazeuden, gerran galaraziak ordea; hain ongi ezkutatzen denez, gaur egun ez dakigu gauzak non dauden; inoiz agertuko?). Tapiaren paperak Aretaren liburutegian bukatu ziren salgai, liburuak ere?
  – Fondoen barreiatzea liburutegi publikoetan (Campionen fondoa): liburutegi publikoetan askotan topatzen dira euskal liburuak hainbat sinadurekin aurreko donazioen emaitza ez direnak (adibide bat ematearren Campionen gramatika San Frantsizkoko liburutegian).

ATZEN-HITZA

Gerra ostean euskal liburutegiak sortzeko saiakerak. Nondik hasi ziren eta zerekin? Lotura bada egungo euskal liburutegi eta gerra aurreko liburutegien artean?

– Altzola Gerediagaren saioak *Egan*-en
– Errotazarko liburutegia
– Larreko-Irular-Anko Sendoa
– Jose Maria Satrustegi
– Pedro Diez de Ultzurrun
– Sixto Jimenez
– [...]

Katalogoen garrantzia geure euskal liburutegia berregiteko:

– Perez Goiena
– Manuel Iribarren
– Corella
– Jose Maria Iribarren
– Auñamendi-Estornes
– Jon Bilbao
– Armiarma
– Julen Urkiza
– Kaputxinoen katalogoa

2007-V-16; Iruñeko Planetarioa

LABURPENA

Gerraurreko euskalgintza nafarraren afera dokumentala: erantzun garbi gabeko galdera zenbait

Gerra zibilaren aurreko Nafarroak eta, bereziki, Iruñak bizitza aberatsa izan zuten euskal letretan. Erakusgai jarri dira garai hartako euskal literatura ikertzeko iturriak.

Gako-hitzak: Nafarroa; Bigarren Errepublika; euskal literatura; kazetaritza.

RESUMEN

La cuestión documental de la euskaldunidad de la preguerra: unas cuantas preguntas sin respuestas claras

La Navarra de la preguerra civil, y muy especialmente Pamplona, tuvieron una floreciente vida cultural en cuanto a las letras vascas. Se exponen las fuentes para la investigación de la literatura vasca en este período.

Palabras clave: Navarra; Segunda República; literatura vasca; periodismo.

ABSTRACT

The documentary issue of pre-war Basque Language: many questions without clear answers

The Navarre of the pre-civil war period, and particularly Pamplona, had a flourishing cultural life as far as Basque literature was concerned. The sources for research into Basque literature in this period are given.

Keywords: Navarre; Second Republic; Basque literature; journalism.

Prólogo a *Capítulos de la historia del euskera*[*]

Joxemiel BIDADOR

El primer contacto que tuve con José María Jimeno Jurío vino motivado por la aparición del que fuera también mi primer trabajo publicado, el artículo «Noticias y restos del euskara de Val de Ollo», incluido en la revista *Fontes Linguae Vasconum* del año 1992. Resultaba para mí uno de los datos más interesantes del artículo en cuestión la proverbial frase rescatada del *Plan Beneficial de Ollo* que, redactado en 1790, apercibía a los posibles interesados en acceder a alguna de las abadías, vicarías o beneficios comprendidos en el valle de que debían poseer el idioma bascongado, «por ser el que como natural usan sus habitantes».

Tuvo José María la amabilidad de leer el borrador de aquel mi señero artículo, y además de darme algunos consejos de especial interés, no dudó en ofrecerme algún otro testimonio histórico recogido por él mismo en sus diferentes incursiones archivísticas, como lo fue el relativo a la necesidad de la condición euskaldún del vicario de Egillor documentado en 1832, sin duda de mayor valor que el del *Plan Beneficial* por lo tardío de la fecha. Los datos referentes a nuestro valle, así como otros muchos más similares relativos a otras localidades de Navarra, quedaron finalmente recogidos en su libro *Navarra. Historia del Euskera*, editado por Txalaparta de Tafalla en 1997. Son varias las razones que hacen de este libro uno de los más importantes de la historiografía del euskara en Navarra. Con su aportación, el de Artajona vino a acallar definitivamente aquella machacona cantilena de «aquí nunca se ha hablado vasco», que casi por tanto repetirla, algunos la habían comenzado a creer, esgrimida no sólo por mentes obtusas e ignorantes, y uno de cuyos fines inmediatos ha sido, y tal vez

* J. M.ª Jimeno Jurío, *Capítulos de la historia del euskera*, 4.ª ed., Pamplona, Pamiela-Euskara Kultur Elkargoa-Diario de Noticias, 2004, 7-10.

siga siéndolo, el de hacer injustificable la revitalización de la vieja *lingua navarrorum* en su natural escenario.

Aunque a aquel libro le precedió otro de igual hechura específico para la historia de Pamplona y sus lenguas, lo cierto es que por las mismas características del formato, además de la cronología, gran parte de la bibliografía que sobre el tema llegó a redactar el historiador artajonés quedó relegada a revistas especializadas, con lo que ello supone de falta de popularización de los mismos textos. Es por ello que los presentes *Capítulos de la historia del euskera* vienen a completar la información ofrecida en los dos anteriormente citados, dando además una imagen más certera del tamaño de la obra *jimeniana*, si se me permite acuñar la expresión. Otra de las cuestiones subrayables del presente libro es que los escritos recogidos en él corresponden a la última etapa de la producción de José María, desde comienzos de la década de los 80 a meses antes de su fallecimiento, lo que nos da cuenta de la importancia que el euskara fue adquiriendo para el historiador, y no sólo como materia de investigación, ya que como es sabido llegó incluso a estudiarlo con cierta asiduidad, siendo ya míticas aquellas clases recibidas de Asisko Urmeneta en compañía de Antoñana y Cortés Izal, que sin duda serán mencionadas en los futuros anales del euskara de la ciudad pamplonesa.

La selección de escritos propuesta en este tomo es lo bastante representativa como para conocer las diferentes facetas de la historia de la lengua vasca en Navarra a las que Jimeno Jurío prestó mayor atención. Dentro del tema de la pervivencia diacrónica del idioma se nos presenta como máximo experto, habiendo exhumado de los archivos la mayor cantidad de datos conocida, con lo que consiguió fijar los límites de la lengua con la mayor fiabilidad. Uno de sus intereses fue el de la historia lingüística de la capital navarra, dejando la cuestión clara de una vez por todas, y de manera que no admite gran discusión sino es la vana y desocupada del intelectual pagado de sí mismo que hunde las raíces de su saber en el comadreo político del poder. No debiera ser la presentación de este libro soporte para la discusión, y acallo por ello mi enojada denuncia no mencionando otros nombres que enturbien el homenaje sincero al finado, pero duele el pensar que se nos fuera José María sin el aplauso merecido de las instituciones navarras, justo al mismo tiempo que uno de esos intelectuales de tres al cuarto, siempre al servicio de quien más manda, fuera agasajado por el mismo director de Política Lingüística, acusado a su vez de nepotismo, quien prologaba un folleto tendencioso y nada novedoso de aquel sobre la historia del euskara en Navarra, folleto que además no alcanzaba el medio centenar de páginas, con las banales lisonjas de «rigor, seriedad y calidad: literaria y documentada [...], breve descripción objetiva, desprejuzgada y minuciosa, como nunca hasta la fecha, sobre la evolución y avatares de las lenguas primitivas y del vascuence en Navarra». ¡Qué atrevida es la ignorancia! ¡Y qué peligrosa cuando la ostenta un poder engreído! Ciertamente los cientos de páginas impresas por José María Jimeno Jurío sobre el tema no son desconocidas para las autoridades navarras actuales, y nadie duda de que además les resultan altamente indigestas, por lo que sólo nos queda esperar a que en un futuro, si no de otro signo político al menos ecuánime, los dirigentes de la navarra Comunidad Foral reconozcan la obra del pequeño gran artajonés.

Entroncan las conclusiones de Jimeno Jurío con aquella aseveración de su tocayo y colega estellica el doctor Lacarra, quien en su *Vasconia medieval: historia y filología* escribía en 1956: «Un pueblo que se expresa por escrito en un idioma que no es el que habla, y que el suyo se le escapa a través de los documentos». Frente a lo que tradicionalmente se nos ha venido repitiendo, José María Jimeno alargó la plena vitalidad del euskara en la capital navarra hasta el XVIII, advirtiendo además de la gran cantidad de navarros, vascongados por tanto, que en la época medieval vivía y ejercía su influencia como parte integrante de la población de los burgos.

Nos daba así mismo fiel reflejo del drama lingüístico de la Navarra media a lo largo del siglo XIX, cuando los militares Oraá de Beriáin y Espoz y Mina de Idotzin, el guerrillero de Berriogoiti casado a Artika Félix Sarasa *Txolin*, o el cura de Zizur Lucas Navaz, poseían el euskara como lengua materna. La propia patria de Jimeno Jurío, Artajona, es buen ejemplo de la rampante regresión de la lengua de la que con extrema rigurosidad nos ha dado cuenta el historiador, resultando un icono de gran fuerza el fallecimiento en 1804 del sacerdote Máximo Egüés, natural de la villa amurallada, cuya lengua materna todavía era el euskara, lengua que ocasionalmente empleaba en las confesiones.

Hay que destacar también la aportación de Jimeno Jurío al estudio de la literatura navarra redactada en euskara. A la presente selección se traen los artículos que sobre Beriáin y Amendux publicó la revista *Fontes Linguae Vasconum* en 1988 y 1996 respectivamente. A José María debemos el zanjar definitivamente el debate sobre la patria del abad de Uterga, mientras que al respecto del malhadado poeta pamplonés nos ofreció jugosos datos sobre su formación, comenzada en la Ribera navarra. Llegados a este punto es necesario destacar la amplitud de miras del artajonés, quien considerando al euskara la lengua propia de Navarra, no dejó de estudiar la relación de la lengua con las tierras más meridionales del antiguo reino.

En este aspecto, la prudencia de Jimeno Jurío ha sido proverbial frente a quienes desde un extremo han negado toda relación del euskara con las tierras ribereñas de Navarra y del otro han magnificado su presencia en exceso. Guardo para mí la respuesta de cierto colectivo cultural tudelano que declinó la publicación en su revista de un extenso artículo sobre la presencia de la Ribera navarra en la literatura vasca por, en su opinión, carecer de interés para el lector. Tampoco ha sido fácil desmontar ciertos mitos que hacen del euskara la lengua común de la Merindad tudelana hasta casi anteayer; todavía hay quien se empeña en ver euskara en el trasnochado Muskaria, negándose a aceptar como válida la versión vasca de Tudela aceptada por la Academia y de la cual es responsable en cierto modo el mismo José María. Ni qué decir de la obcecada negación a aceptar las innegables evidencias que en torno a la toponimia de la Merindad hizo públicas Mikel Belasko, a la sazón discípulo de Jimeno Jurío.

En el presente libro se recogen al menos tres textos al respecto de la presencia del euskara en las tierras meridionales de Navarra referentes a las Merindades de Tafalla y Tudela, a los que cabría añadir además algunas de las informaciones referentes al poeta Amendux, como ya ha sido apuntado. En la carnavalesca *Ondarra* Jimeno Jurío recogía varios ejemplos de la presencia real y para nada anecdótica del euskara en la Ribera de

Navarra allá por el siglo XVI, respondiendo en cierto modo a la pregunta de un conocido suyo de Pamplona que en cierta ocasión le espetó: «Si en Tudela y la Ribera no se habló nunca vasco, ¿a qué viene poner ikastolas para enseñarlo?». Si bien los datos históricos vienen a desmentir afirmaciones de este tipo, Jimeno Jurío terminaba su escrito con un llamamiento al respeto mutuo y a «recrear la convivencia en una sociedad progresista y solidaria, donde tengan cabida el castellano, el inglés, el francés, el euskara, el árabe y cualquier otro elemento positivo de cultura humana, singularmente los propios».

Con su obra José María Jimeno Jurío se alza como la voz del desahuciado euskara, recordándonos y recordándoles una y otra vez, que *es nuestra lengua*. La denuncia que por medio de su labor histórica realizó Jimeno Jurío es innegable. Cuando en 1993 escribía en el folleto «Euskara: iraganaren geroa. Euskara: un pasado con futuro»: «Por encima de ideologías políticas, es nuestra lengua [...]. Hasta el siglo XIX en que la represión unas veces sutil, y descarada otras, fue asfixiándola. Ahora los motivos, pretexto más bien, serán políticos», anticipaba la actual ofensiva, cruel y despiadada, que va asfixiando el futuro de la lengua por encima de las directrices e indicaciones europeas, lo que hace de Navarra una referencia única que asombra al mundo.

A este primer grito, *es nuestra lengua,* le siguieron otros escritos en los que el compromiso de Jimeno Jurío con la lengua resultaba más que manifiesto. Poco más de un año antes de fallecer, enviaba diferentes colaboraciones a *Diario de Noticias* en las que recordaba el verdadero significado de términos como *euskara* o *Euskal Herria*, haciendo referencia expresa al modo despreciable y despreciativo con el que ciertos autores venían afirmado que en el siglo XVI no existía la palabra *euskara* sino *vascuence*, peregrina aseveración que no se la han llegado a creer ni ellos mismos, para luego, sin el mayor empacho, acusarnos a otros de politizar la lengua. Lo de «el batua es un vascuence de alambique al que incluso se ha rebautizado recientemente con el nombre de euskara» que plasmara Jaime del Burgo en su historia de Navarra ya fue demasiado para Jimeno Jurío, respondiéndole desde las páginas de *Fontes Linguae Vasconum* en 1996. Por suerte, la revista aún era dirigida por su amigo José María Satrustegi.

Pero lo que nunca nos faltará será el testimonio de José María, esa inmensa labor que realizó para recuperar la memoria olvidada de nuestra lengua que quedó cristalizada en su obra. Es por ello que resulta de obligado agradecimiento el felicitar a quienes han facilitado la publicación de este libro, *Diario de Noticias*, Euskara Kultur Elkargoa y Editorial Pamiela, y muy especialmente a Roldán Jimeno, quien ya hace tiempo que sigue los pasos de su padre, tanto y tan bien. Sin duda, con este libro los amantes de la *lingua navarrorum* estamos de enhorabuena.

RESUMEN

Prólogo a *Capítulos de la historia del euskera*

Prólogo a la obra *Capítulos de la historia del euskera*, de José María Jimeno Jurío, compendio de artículos de este autor en torno a la historia de la lengua vasca en Navarra y donde reflexiona sobre las aportaciones historiográficas en esta materia.

Palabras clave: José María Jimeno Jurío; historia del euskera; toponimia; Navarra.

LABURPENA

Hitzaurrea *Capítulos de la historia del euskera obrari*

Jose Maria Jimeno Jurioren *Capítulos de la historia del euskera* obraren hitzaurrea. Lan horretan bildu zituen egileak Nafarroako euskararen historiari buruzko artikuluak eta alor horretako ekarpen historiografikoaren gaineko gogoetak.

Gako-hitzak: Jose Maria Jimeno Jurio; euskararen historia; toponimia; Nafarroa.

ABSTRACT

Foreword to *Capítulos de la historia del euskera*

Foreword to José María Jimeno Jurío's *Capítulos de la historia del euskera* (Chapters from the history of the Basque language), a compendium of articles by the author on the history of the Basque language in Navarre with reflections on historiographical contributions on the subject.

Keywords: José María Jimeno Jurío; history of the Basque language; place names; Navarre.

Prólogo a *Toponimia navarra*[*]

Joxemiel BIDADOR

No deja para mí de ser un honor el prologar esta obra señera de José María Jimeno Jurío que está pronta a cumplir sus 25 años. Y no se trata de un huero formalismo gentil. Debo a José Mari mi primera publicación, un articulillo sobre los restos del euskara de Val de Ollo en la que se hacía un somero repaso de la toponimia del valle. Con posterioridad tuve la suerte de formar parte –en los tres últimos meses de vida– del grupo dependiente de Tracasa que recogió sistemáticamente la toponimia menor de casi toda Navarra. En este grupo, bajo la supervisión de Jimeno Jurío, realicé encuestas fundamentalmente en el valle de Baztan, y aunque el primer objetivo práctico fue el de actualizar y corregir la toponimia catastral, no dejó de ser un deslumbrante y apasionante viaje, sincrónico y diacrónico, a la toponimia navarra en su totalidad.

Es la toponimia como una foto, generalmente en blanco y negro, que nos muestra las peculiaridades del terreno que retrata, o retrataba, ya que muchas veces hace alusión a algo que fue y ya no lo es más que en la virtualidad lingüística. Y ya sólo por ello es algo especial que debiera merecer todo el respeto y apego por nuestra parte. Por desgracia, siempre hay alguien tan desarraigado como para dejar perder o tirar las fotos antiguas de su casa y familia, y con la toponimia, valga la comparación, también pasa de similar manera. Parece que nunca son buenos momentos para el saber, y menos para el saber toponímico.

Es evidente que hoy en día la toponimia presenta serios problemas de conservación. Por una parte contamos con el éxodo urbano que en los años de la posguerra

* J. M.ª Jimeno Jurío, *Toponimia navarra. III. Cuenca de Pamplona. Cendea de Zizur*, 42, Pamplona-Iruñea, Pamiela- Udalbide-Euskara Kultur Elkargoa, 2010, pp. 11-12.

fue vaciando nuestros pueblos, llevándose consigo una parte importante de aquellos poseedores del acervo popular. En segundo lugar hay que mencionar las diferentes concentraciones parcelarias; donde antes había varias parcelas, ahora hay una sola, desapareciendo irremisiblemente la mayor parte de los nombres que las designaban. Por último se deben apuntar cuestiones como el cambio de los modos de vida, la deserción masiva del campo como oficio principal, la mecanización absoluta del agro, cuando no su fuerte urbanización, el desembarco de importantes contingentes de nuevos vecinos procedentes de la ciudad y con una fuerte conciencia urbana, desconocedores en la mayoría de los casos del tesoro cultural de los lugares a los que han llegado y, por lo general, sin mayor interés por conocerlo. No vivimos en una sociedad que alimente el cultivo de la memoria, pero a pesar de todo no es extraño que cada uno de nosotros maneje con soltura medio centenar de nombres de calles de Pamplona; en cambio y paradójicamente, los nuevos vecinos que hemos aterrizado en la Cendea por lo general no conocemos siquiera media docena de términos. Todas estas razones han hecho que el tesoro lingüístico-cartográfico de la toponimia se encuentre tal vez en uno de los peores momentos de su historia.

Pero no es este el momento ni el lugar de los lamentos, porque nuestra toponimia aún no ha muerto. Aún quedan gentes que la conocen y la utilizan, y gracias a investigaciones como ésta, el futuro de nuestros nombres de lugar puede ser más halagüeño. Prueba de ello es la reedición de este libro. Porque en la Cendea de Zizur contamos con el lujo de tener nuestra toponimia menor recopilada por José María Jimeno Jurío para 1986. Posteriormente fue de nuevo editada dentro de la colección «Toponimia y Cartografía de Navarra» junto a la de la Cendea de Galar. Y ahora viene de nuevo dentro de las obras completas del sabio artajonés, concretamente cuando desde el Ayuntamiento se había comenzado a apuntar la necesidad de hacer algo con este tema con miras a su posible popularización. Ya se habían tomado algunas medidas como la de bautizar las calles de las nuevas urbanizaciones con topónimos de cada pueblo, pero en algunos casos, la falta de conocimientos técnicos sobre el tema, unidas a la falta de asesoramiento, han hecho que topónimos modernamente desfigurados designen a calles ignorándose la forma normalizada catastralmente en base a los documentos históricos, especialmente aquellas *Notas de manifiesto para el catastro* de 1837, documento de altísimo valor para este tema por ser de una época en la que todavía existía el euskara propio de la Cendea.

Y es que la toponimia es el último y principal resto vivo de la lengua vasca local. Si anteriormente he definido la toponimia como una foto que muestra las peculiaridades de un espacio pasado, también puede equipararse con una grabación del habla local en tiempos pretéritos. Gracias a la toponimia podemos tener noticia de algunas peculiaridades dialectales del euskara de la Cendea, desaparecido a finales del XIX y comienzos del XX. Por otra parte, y atendiendo a las características propias de la misma, resulta la toponimia del antiguo barrio pamplonés, la actual Cuenca o Iruñerria, de una riqueza especial, lo que la hace si cabe aún más interesante.

Junto a los términos toponímicos, José María Jimeno Jurío recogió también algunos de los oicónimos propios de cada localidad, esto es, los nombres de las casas. Lo dicho

para la toponimia también vale para la oiconimia, solo que su estado de conservación es algo peor. Ciertamente tampoco fue éste el objeto primordial del trabajo realizado por Jimeno Jurío, centrado en los nombres de los términos. Es por ello que esta cuestión se convierte en un tema de estudio urgente antes de que se llegue a su pérdida total. Como punto de partida contamos con los datos aportados en esta obra, a los que deberán seguir otros recogidos en los diferentes archivos de Navarra.

Los vecinos de la Cendea de Zizur debemos mucho a José María Jimeno Jurío en lo que a nuestro patrimonio cultural se refiere. Esta obra es y será un referente ineludible en lo que respecta a nuestra historia y presente, que vuelve para engrosar nuestra exigua pero cuidada bibliografía, y que nos servirá de ejemplo para ampliarla en un futuro cercano. Y de esto último no tengo ninguna duda.

Paternain, enero de 2010

RESUMEN

Prólogo a *Toponimia navarra*

Prólogo a la obra *Toponimia navarra. III. Cuenca de Pamplona Cendea de Zizur*, de José María Jimeno Jurío. Texto póstumo de Bidador, en el que reflexiona sobre la metodología de la recogida de la toponimia en Navarra y sobre los topónimos de la Cendea de Zizur.

Palabras clave: José María Jimeno Jurío; Cendea de Zizur; Cuenca de Pamplona; toponimia; euskera.

LABURPENA

***Toponimia navarra* lanaren hitzaurrea**

Hitzaurrea *Toponimia navarra. 1. Cuenca de Pamplona Cendea de Zizur* obrarena, Jose Maria Jimeno Juriorena. Bidador hil ondoren ateratako testua. Gogoeta egin zuen Nafarroako toponimia biltzeko metodologiaz eta Zizur Zendeako toponimoez.

Gako-hitzak: Jose Maria Jimeno Jurio; Zizur Zendea; Iruñerria; toponimia; euskara.

ABSTRACT

Foreword to *Toponimia navarra*

Foreword to José María Jimeno Jurío's *Toponimia navarra. III. Cuenca de Pamplona Cendea de Zizur* (Navarrese toponymy. III. Pamplona District Cendea de Zizur). In this posthumous text, Bidador reflects on the methodology used to collect place names in Navarre and the toponyms of Cendea de Zizur.

Keywords: José María Jimeno Jurío; Cendea de Zizur; Pamplona District; place names; Basque language.

Kazetaritzaren historia Nafarroan

La historia del periodismo en Navarra

Pablo Fermin Irigarai *Larreko*

Nafarroako euskal kazetaritzaren aitagoia

Joxemiel BIDADOR

Izen ezaguna da Irigarai auriztarrak euskal letretara ekarri ziguna, eta ez da zaila Larrekoren berri dakarren bibliografia maratza topatzea[1]. Pablo Fermin Irigarai Goizueta Aurizko Martinzurginerena edo Maistronean 1869ko urtarrilaren 25ean jaio zen. Herriko maisua zen aitarekin lehenbiziko ikasketak egin ostean Iruñeko Uharte ikastegira joan zen Juan anaiarekin, non Pio Barojarekin bat egin zuen ikasturteren batean. Medikuntza ikasketak Zaragozan eta Madrilen burutu zituen, eta bulta laburrez sorterrian berean lan egin ostean, Bortzirietako Berara joan zen mediku 1898an. Beratik hurbileko Baztango Iruritara 1902an egin zuen, eta hango Palotegian 1915era arte geratu zen, Nafarroako Ospitalean ebakuntza saileko lanpostua erdietsi zuen arte alegia. Orduz geroz Iruñean finkatu zuen bizilekua, eta Nafarroako hiri nagusian zendu zen 1949ko irailaren 3an, 36ko gerra ankerraren nahigabe mikatzarenak ongi probatuta, ofizialki isildurik baina beti bezain emankor, Nafarroan urte latz haietaz daukagun euskarazko kronika ezagun bakarra mardoki idatzita.

Ezagun da Larreko euskara galdutako euskaldun berritua izan zela. Kanpoan emandako urte luzeek zer esan haundia zuketen horretan. Eztabaidagarriagoa dateke, ordea, Larrekoren Ramon aitari afera horretan egotziriko ardura, izan ere, Aurizko maisua izanki euskararekiko jarrera txepela leporatu ohi zaio han hemenka. Halaz guztiz,

* Asier Barandiaran (ed.), *Euskarazko kazetaritza: gogoetak, esperientziak eta analisiak,* Iruña, Nafarroako Unibertsitatea, Filosofia eta Letretako Fakultatea, 2007, 37-63.

1 J. A. Irigarai, *Fermin Irigarai Larreko* (1869-1949), Bidegileak bilduma, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2004; idem, «Aintzin-solasa», en F. Irigarai Larreko, *Gerla urte gezur urte: Iruñea 1936-1940, isiltasunean mintzo,* Iruñea, Pamiela, 1993, 15-30 or.; Joxemiel Bidador, «Larrekoren *Gerla urte gezur urte», Hegats literatur aldizkaria,* 34, Donostia, Euskal Idazleen Elkartea, 2003ko Galeusca: Oroimena eta literatura, 141-160 or.; I. Camino, «Sarrera», en P. F. Irigarai Larreko, *Nafarroatik* eta *Lekukotasuna,* Donostia, Klasikoak, 1992, VII-XL or.

huraxe ez bide zen hain gauza garbia, bada, bai Larrekoren aita bai osaba eta aitaginarreba zuen Porkaxoneko Manuel Irigarai, euskaldun eta euskaltzaleak ziren, Euskara Elkargokoak biak eta *Euskara* aldizkariaren harpidedunak, eta Ramon aita Elkargoaren beraren ordezkaria Erroibar aldean. Honekin lotuta beste kontu bat aipa liteke. Nafarroako herri euskaldunetan lan egiten zuten notari erdaldunen aurka Campionek 1911ko apirilean argitara eman zuen «Euskalerriaren alde» artikuluan bost herritakoak aipatu zituen honen erakusgarri: Auritz, Otsagi, Uharte-Arakil, Lekunberri eta Doneztebe. Notariak ez ziren isilik geratu eta Campioni bortizki erantzun zioten; geuri interesatzen zaigun erantzuna, berriz, Lekunberriko notaria zenarena da, hain zuzen, Severo Alvarez lrigaraik eman zuena alegia. *El Eco de Navarra*-n agertaraziko «Réplica al señor Campion: en vindicación de la clase notarial» izenburukoan Alvarez Irigaraik bere karguan jarduteko zeuden arrazoi teknikoak zerabilzkion Campioni, baina halaber, eta hein batean Campionen arrazoietara hala edo nola bere burua makurtzen, bere euskaltasunaren neurria argi utzi nahi izan zion. Irigarai euskal abizenaz harro sentitzen zela Euskal Herria goraki maitatzen zuela zioen, eta Campioni zera gomendatzen zion:

> Al esforzado adalid de la lengua vasca, enderece sus energías a recabar de los poderes legislativos la debida protección y amparo para conseguir el mantenimiento y difusión eficaz de la hermosa lengua de Aitor, aspiración igualmente grande y generosa.

Bestalde, Campionen ustea tronpatzera zetorren honako aitorpen pertsonala egin zuen:

> Oriundo de Burguete, donde he pasado largos periodos de mi vida desde la niñez, oyendo en el seno del hogar la lengua de mi madre, que es la vasca, tengo más motivos de los que don Arturo Campión supone para haber sido respetado en su alusión.

Eta ama auriztarra zuen notari honek bere burua ia euskalduntzat jotzeko gauza sentitzen bazen, zer zen, bada, Fermin Irigarai?

Beran zegoela erdaldun sentitzen zela zioskun Larrekok, «euskal itzik ez nakien, au oraiko lotsa!», baina gauza jakina da Fermin Irigarai bere buruarekin aski zorrotza zela, gehiegi ausaz. Ezin uka l898an sorterriko alkatea zen Salbador Goizuetak *posee el idioma vascongado* zioen ziurtagiria sinatu izana nahikoa esanguratsua dela. Bestalde, Beran lehenengo eta bereziki Baztan aldean euskara edertu, landu eta sakondu egin zuen Larrekok. Gogoko zuen bordariekin jardukitzea, eta horretarako bidea bazuen. Bestalde, Lekarozko komentuan bazuen bilkura hauta euskalgintzan trebatzeko. Hantxe zeuden, besteak beste, Etxalarko Eusebio Eltzaurdia, Kaparrosoko Arrigarai gramatikagilea, edota Donostia aita musikari famatua. Eta ezin da ahantzi hasierako Euskaltzaindia hartan, 19l9an, Campion eta Agerre euskaltzain nafarren ondoan Etxalarko Eusebio, Arrigarai eta Larreko bera izan zirela urgazle nafarrak.

Beste ezerren gainetik, Larrekoren idazkintza euskararen aldeko ariketa izan zen, ariketa konprometitu eta hautu pertsonala, erderaz egin ezin zuena. Larrekoren euskal idazkintzak 1910ean izan zuen hasmenta, *La Tradición Navarra* eguneroko integristan hain zuzen ere. Aitzinetik ere, eta ber kazetara, Baztango kronikak igortzen zituen erdaraz

Feriri ezizenean. Euskaraz idaztearena, dema pertsonala bailitzan, galdutako hizkuntza prentsako kronikaren bitartez berreskuratu nahi horretatik zetorkion, eta bizitza osoa iraun zitzaion prozesua izan zen. Gerran bertan ere, Larrekok ez zuen idazteko ohiko tankera aldatu eta, neurri handi batean eta lantzean behin jaurkitzen zituen intziriak gora-behera, *La Voz de Navarra* egunkari jeltzalean agertzeko kolaborazioak balira bezala izkiriatu zuen gerrako kronika, apalatzaileek *Gerla urte gezur urte* deitu zutena:

> Ni ere, euskaraz zerbeit egiteagatik, orri oken zikintzen asi naiz; baldin gudu untarik bizirik ateratzen bagara, euskaldungoarenak eta euskararenak ez dakit nola aterako diren. Orduan egin ez badezakegu, orai, aldi untako oroigarri gisaz bedere izan dadiela [...] Erranen duzue nola gudu berririk gabe asi naizen orri ok zikintzen. Baiki, ni beti etxe xokoan egona naiz, baldin ez bada nere egin-bearretan iñorata ez naiz agertu. Untaz landara irakurgai guti irakurtzen eta radioz gutiago entzuten, zergatik asi nintzen ba? Badakizue ni oitua nindagon astero Iruñeko berri ematen astekari euskaldunentzat, eta oitura ori ezin utziz nere baitan erran nuen: emagun astekariak argitaltzen direla eta ni beti bezala ek laguntzeagatik asi naizela zerbeit berri biltzen, emen nere maipean gordetzeko bedere; gudua bukatzen denean eta euskaraz idazteko zori denean, leengo nere irakurlerik bizi bada, nork daki ez ote duen nere lanak irakurtu naiko! Gogoeta orieri esker asi nintzen eta jarraitzen diotet bozik eta bozik. Nere eginbide bearrezkoez landara, euskar lanak dire nere lan goxoenak, atsedenez bezala egiten ditudanak.

Izan ere, Larrekorendako euskara kezkarik nagusiena baitzen, ia obsesio bilakatzeraino. Nafarroako Aldunditik, jagoitik gerra hasita, egin zioten inkestarako horrela erantzun zuen auriztarrak:

> He hecho cuanto buenamente he podido por aprender la lengua de mis apellidos y la viva de mis coterráneos: única actuación nacionalista.

Bere prentsako kolaborazioetan, aunitzetan barkamena eskatzen zion irakurleari erabiltzen zuen hizkuntza kaskarrarengatik, nork eta Nafarroako giro euskaldunean aitagoitzat hartzen zen hark. Gerrako kronikan berean honela idazten zuen 1937ko abenduan:

> Bizkitartean, irakurle maite ori, barkatu, baño gogoa erori zait gaur goizean, uste gabean, eskuratu ditutalarik orai ogei urte idatzi nituen bizpairur irakurgai. Jakina, orduez geroz, nik uste nuen asko ikasi eta aurreraturik nindetekela euskaraz idazten; baño, damurik, orduan orai bezala egiten nuen, ez obeki, baño ez makurrago ere. Nere baitan: beti euskaraz ikasten eta gudualdi untan geiago ari nintzela uste nuen Axular andiak bezain garbi egiten nuela eta una emen orduan bezain motel, orduan bezain arront, orduan bezain zakar. Nere biozminaren andia! Orai, adin bereko ene lagun eta adiskide guztiak edo geienak iltzen ari direlarik, nik zerbeit idatzi nahi, ongi egiten nuelako ustean, eta orañik ez aski ikasi! [...] Ustez ta goieneko mallara eldua naizela euskaraz itzegiten eta idazten eta... guztiz gora bera, orai berrogei urte bezain makal, orai ogei urte bezain ez jakina.

Hura zela eta, Larreko beti ibili zen hizkuntza hobetzen, dela Nafarroako mendialdeko euskaldun zaharrengandik hizkuntzaren aberastasuna jasoaz, dela euskal liburuak

irakurriz. *Gerla urte, gezur urte* kronikan berean behin baino gehiagotan ematen zuen Irigaraik urte korapilotsu haietan egiten ari zen euskal irakurketen berri: Juan Antonio Mogel, Kardaberaz, Haraneder, Axular, Mendiburu, Arantzako Jose lturria kaputxinoa, Laurent Diharasarri Orzaitzeko erretorea, Lapeire, Barbier... Guztien artean Axular eta Mendiburu azpimarratzen zituen, baita Haraneder ere. Scupoli eta Salesko Frantzisko donearen itzultzailea izan zen Donibane-Lohitzuneko apaizak XVIII. mende erdialdean bukatu zuen testamentu berriaren itzulpen osoa, alabaina honakoa ez zen bizi zela argitaratu, ezpada l855ean Harriet eta Dassance apaizen eskutik zertxobait itxuraldaturik eta ez osorik. Huraxe zen Larrekok ezagutzen zuen testua, ez ordea jatorrizko eskuizkribua, baina nahikoa izan zen zeharo txunditzeko, horrenbeste ezen *Amayur* asteroko jeltzale iruñarrean hainbat eta hainbat pasarte atera zituen bere hartan aldaketarik egin gabe.

Ez ziren klasikoak Larrekoren irakurgai guztiak, izan ere bakanetan «Frantziatik etorri den norbaitek» edota «nonbaitik norbaitek» emanik, Baionako *Eskualduna* kazeta irakur zezakeen. Horrela bada, 1937ko urtarrilean zenbaki bakana eskutaratu zitzaion, Dominique Soubelet eta Laurent Apestegi apaiz «erregetarren» kronika atzerakoiekin eta guzti, eta Larrekok «atsegin-aldi goxo bat» izan zuen euskaraz irakurtzen, urte bereko apirilean bereziki berritu ahal izan zuena erdietsiriko zenbait zenbakiri esker. Ordutik, 1939ko maiatzera arte ez zuen berriz ere beste zenbakirik lortuko, harik eta mugako adiskide batek eraman arte; huraxe izan zen «atsegin andiko eguna», alabaina, «Jainkoak daki oraño noiz arrio egon bearko dugun *Eskualduna* irakurtu gabe». Bertako argitalpenekin ez zitzaion hobeki gertatu, izan ere, askotan ezjakintasuna baitzen nagusi. Gerra erdia pasatua zen eta 1938ko martxoan Larrekok oraindik ez zekien seguro harpidetutako aldizkariek bizirik ote zirauten:

> Españan, euskarari buruz zer dugu? Nik uste nuen euskar irakurgairik argitaltzen etzela, baño ikusi berria naiz Arantzazuko frailek argitaltzen duten orri bat, *Irugarrengoen irakaslea,* illero agertzen dutena, nik ikusi dutana 1938ko otsaillarena. Ez dakit noiztiez geroz bizi den eta ez dakit zenbat illabete ixilik egon den edo ixildu ez den [...] Aita jesuitek argitaltzen ote duten zerbeit euskaraz ez dakit, baño nik uste ezetz, *Jesusen Biotzaren Deia-ren* arpidedun naiz eta ez didate biali. *Irugarrengo Frantziskotarra* eta *Zeruko Argia* fraile kapusaidunek argitaltzen zituzten bi illeko oriek ere ez dizkidate eskuratzen, nik uste, argitaltzen ez dituztelako.

Gerra bitartean euskararen egoerak inoiz baino gehiago kezkatu zuen Larreko, eta kezka hau ez zen gehiegizkoa naski. Egia esateko, *Gerla urte gezur urte* liburu osoan ez da somatzen gehiegizko tonurik, ez eta errepresaliaturikoen aferaz ere; berau apezpikuaren mediku pertsonala zelako edo libratu omen zen. Bistan da Larrekok neurriz zerabilela autozentsura, Jose Angel Irigarairen aburuz «larderiaz eta zuhurki ez zuen fitsik ere idatzi haietaz». Larrekoren biloba euskaldungoan zituen hainbeste ezagun eta lagunei buruz ari da, eta aitatxiaren zuhurtzia «nehoiz ez du den mendreneko aipamenik egiten» hartan zetzakeen. Mende erdía iragan da Larrekok zirriborratu paperak moldizkaratu diren arte, eta egileak berak jakin bazekien, ongisko gainera, bere kronika ez zuela inprimaturik ezagutuko, baina hala ere, zer gerta ere, ez zukeen hustu guztiz barruan zeukana, begietatik zein belarrietatik iritsitako guztia alegia, izan ere, itzal handiko mediku batek zer ez zuen ikusiko, ez entzungo Iruñea bezalako hiri txiker hartan.

Bestalde, eta Jose Angel bilobak kronikarako onduriko aintzin solasean jasotzen den bezala, Larrekoren semeak, Aigeru Irigarai ezagunak, Sarara egin zuen gerra hasi orduko, eta Larreko bera joan behar izan zuen bere bila Aldundiko Lehendakari Arraizak aginduta; behin Iruñean, Aingeru lanik gabe utzi zuen udalak, eta haren aurka erabili errepresioa ez zen apaldu gerra aisa pasatu arte. Larrekoren beste seme bat eta iloba zenbait behartu zituzten errekete joatera; Orreagako idazkaria zen Juan anaia, Mendixuri ezizenean prentsa jeltzalean euskal kronikak ere idazten zituena, Iruñera egin behar izan zuen mugatik aldentzeko aginduta; gerra hasi zenean Aurizko idazkari zebilen Faustino anaiari lana kendu zioten jeltzalea izateagatik, eta herriko erretorea bere alde atera zelako ez zen deus larriagorik agitu; Faustino honen alabari, ordea, etxean euskaraz, euskal dantzak eta antzekoak irakasteagatik ilea moztu zioten; eta azkenik, Aurizko sendiaren Maistronea etxea Seberiano anaiari kendu zioten bertan bulego militarrak ezartzeko. Alabaina, Larrekoren kronikan ez da igertzen berebiziko haserrerik, ez eta gorroto edo antzekorik, bai ordea kristau on bat izateko kezka, Jainkoaren legea ongi betetzeko arta, eta «zerurako gaitutzeko» asmo zintzoa.

Euskararen gaia, aldiz, tapakirik gabe aireratu zuen, beti bezain sutsu, eta horrekin bai altaratuta agertu zitzaigula auriztarra. Gerra urteetan euskarak pairatzen zuen egoera katramilatsuaren mirail beltz baina zehatza eskaini zigun Larrekok. Zenbaitetan, etsipenari aurre eginez baikorxe, baina gehienetan goibel eta garaitua:

> Eta euskaraz zer? Ai, ei, ai eta miletan ai! Oraiko aldian, Nafarroan beñipein, euskararenak egiten ez badu, euskaldungoarenak bai; ori ezabaturik geldituko da. Eta baldín mendíz beste aldetik ez bazaigu xertoa eldu, gureak egin du.

Beste maila batean, ez zuen Larrekok eragozpenik izan ahoan bilorik gabe Iruñeko egunkariek euskararekiko zeramaten jokua jasotzeko. Gerraren lehenbiziko urte erdian hiru izan ziren euskaraz agerturiko prentsako kolaborazioak, haietariko bi *Arriba España*-n, bata Manezaundiren ipuin bat eta bestea Leitzatik igorririko kronika, eta hirugarrena *Diario de Navarra*-n, egile izenik gabe baina seguroenik ere Luis Goñi kalonje iruñarrak atondua:

> Ez gera gu ez ere gure erriya euskeraren etsaiak izandu. Aspaldiko denboretan, bai ere berriro gure erriyan, bear zen bezala, euskeraren alde jai ederrak egin dira. Gure gendeko izkuntza zen ederra, zuzen ta garbiya. Gure erriko gauza da, bada, euskera, eta gure erriko gauza bezala aupatu eta garbitu biar dugu, mintzatu dezatela eta uts egin dutenak, berriz ikasi dezatela. Euskera gure erriyan ezta galdu biar Españako gure erri aundionetan. Eztute bildurtu biar gure erriko euskaldunak. Anziñera, izkuntza ederra onekin, gure gurasoaren izkuntza, gure gende ona izkuntza onekin! Euskera, berez, gauza ona da, itza ederra eta garbiya! Euskera gaiztatu, pozoitu euskera, biurritu euskera ori ez, ezta zillegi eta aunizek ori egin dute. Guk ez. Gure erriko berze gauzak bezala, guriak bai die euskera maite degu. Orretaz egunero ezpada maiz zenbait berriyak agertu die gure egunerokoan. Ala ere, gure euskaldun erriyetatik bere berriyak euskeraratuak bialdiko digute. Euskaldunak, gora España, Jaungoikoaren izenean! Ala izan dadila[2].

2 *Diario de Navarra*, 1936-IX-20.

Azken honen hitzei erantzun bide zien Larrekok bere kronikan horrela zionean:

> Oraiko gazte berritu eta beste batzu jadanik gazte ez direnak asi dire erraten euskarari buruz eta euskaldungoari buruz zerbeit egin bear dela, orai artio abertzaleak edo nazionalistak ortaz baliatu direla egiazko euskaldun gisa agertzeko, baño euskaldun itxura baizik etzutelarik. Ai-ei-ai eta miletan ai! Berandu da, nik uste, gazte maiteak! Edo bedere garai egokia ez dela oraikoa. Oraiko aldian leen baño bearrezkoago da euskaraz ikasteko eta euskaraz itzegiteko biotz-barne bero bero bat euskararen alderakoa. Edo bertzenaz, ezinbertzean egin bear. Jainkoak lagunduz egin daiteke bide arazo zailetan ere. Baño, damurik, gazte berri orien asmoak ametsetan gelditzen ez badire! Españako erregetarren artean, eta oriek dire Euskal Errian nagusienak, euskarari gorroto bizia diote, nik uste, euskara delakoz Euskalerriko izatearen nabarmenik ageriena, euskaldun erregetarrek biotzean gorrotoa dutelarik, bozik utziko dute euskara eta nork daki ez ote duten naiago euskaldunak direla ukatu. Aspaldidanik erraten ari naiz: baldin biotzaren erdi erdian euskararen alderako maitetasuna landatzen ez bada nekez biziko dela, eta oraiko aldian bi aldiz. España aldeko euskal erriak zapaldi gaitza artu du eta orañik artzeko dukena; euskara naiz ilen ez den, makal geldituko da. Makal dagonenganik lan on guti.

Antzera xamar ibiliko ziren *El Pensamiento Navarro*-koak, bada eta Larrekok jaso bezala, «egunkari au pro euskara ari da». Gerra aurretiko urteetan, 1918 eta 1919 urteetan hain zuzen ere, Larrekoren lehengusua zen Agustin Irigaraik, Lepazar ezizenean, «Euskal idazkuntzak» saila atera zuen egunkari karlistan, eta gerra osteko lehenbiziko urte gogorrak iragan ondoan, Muthiko Alaiak elkarteak egunkarian zeukan «Zaldiko-Maldiko» orrialdean ere euskaraz izkiriaturiko zerbait agertzen asi zen lantzean behin. Bigarren hau ezin izan zuen Larrekok begiztandu, 1949an zendu baitzen, baina Lepazarrek egindakoa ezagutzen zuela ez da dudarik, izan ere, lehengusu eta koinatua baitzuen egilea. Agustin Irigarai Apat Aurizko Porkaxonekoan jaio zen 1873an, bere aita aurretikago aipatu Manuel Irigarai euskaroa zelarik. Iruñean kazetari pausatu aitzin Mexicoko iraultzan eta ibili zen, eta Iruñean 1942an zendu baino lehen liburu bi eman zituen argitara, Mexicon giroturiko *De buzo a general* eleberria eta *Estampas del Pirineo* ohitura-liburua. Larrekoren etxean gertatu zenaren kontrara, Porkaxonean euskara nahikoa bipilki mantentzen zen XX. mende hasieratan ere, alabaina Agustin karlismoarekin zegoen lerraturik, Maistroneko beste Irigaraitarrak, heldutakoan berreuskaldunduak izan zirenak, jeltzaleak zireno, eta Agustinek altxamenduari zion atxikimendu aktiboa ez zen makala izan, hortaz, aipatu euskal kolaborazioek kito egin zuten 1919 hartan.

El Pensamiento Navarro bizitza luzeko egunkaria izan zen, estraineko zenbakia 1897ko urriaren 17an atera baitzen, eta azkena 1981eko urtarrilaren 13an. Horrek berebiziko garrantzia eman zion, izan ere, pairatu zituen isun, debeku eta abarrak gorabehera, Nafarroan oso irakurria izan den egunkaria baikenuen, eta baita Nafarroatik kanpo ere, gerratean zein frankismo garaian bere autonomiari hala edo nola eutsi ahal izan zionetakoa izan baitzen. *El Pensamiento*-k euskararekin izan zuen harremana ez zen txikia izan, geure hizkuntzari benetan eskaini zion tokia publikoki erakusten zituzten asmoengatik espero zitekeena baino eskasagoa bazen ere.

Lepazarrek eginiko *Euskal idazkuntzak* 1918ko ekainaren 13an hasi ziren agertzen. *El Pensamiento Navarro*-ren zuzendaria Jesus Etaio zen orduan, egunkariak izaniko bigarrena hain zuzen ere. Geroago, 1920az geroz, argitalpenaren lema hirugarrenez hartu zuen zuzendaria Migel Espartza Aginaga izan zen, Igantzi aldeko euskalduna, geroantzean ere jeltzalea eta *La Voz de Navarra* beraren zuzendaria. Ordurako baina, euskarazko sail berri honek berea egina zuen, eta ez zuen berriz ere burua altxatuko.

Lehenengo idazkian aspaldiko asmoa noiz edo noiz azkenik betetzen zelako pozik agertzen zen Lepazar bezala sinatzen zuena irakurleen aitzinean, baita erdaldunen aurrean ere. Hauei honela mintzo zilzaien zutabe berriaren nondik norakoak azaldu nahian, zer gerta ere:

> Hace tiempo se había pensado en abrir esta sección vasca en *El Pensamiento Navarro* para contribuir a la conservación de nuestra lengua milenaria que tiene muchísimos admiradores que le rinden fervoroso culto. Atendiendo a indicaciones de personas respetables, esta sección no se limitará solamente a hacer el panegírico de nuestra lengua, porque ni hay necesidad ni responderá a la primera intención, que es dar acogida a toda clase de noticias y asuntos diversos que hagan a la vez interesante y amena la sección y para facilitar a la vez la colaboración en ella de todos aquellos nuestros lectores que sientan fuerza y entusiasmo para ello. De modo que vengan artículos, vengan noticias, y... a la mar.

Guztiarekin, eta lehengusua tartean bazegoen arren, euskararekiko erakutsitako jarrera txepelagatik, besteren artean, Larrekok ez zuen egunkari karlista sobera maite, eta horixe bera iger daiteke honela zionean:

> Leengo egunean irakurgai bat argitaldu zuen, ohore andiak egiten euskarari eta euskaraz irakatsi bear zaiotela euskal errietako aurreri eskoletan. Ehun urte oketan euskararen eremuak oianetara eta oian zokoetara bildu badire liberalen gain ematen du. Berriki, beste irakurgai bat agertu da gauza bera erranez eta zorionez orañik bidea badela euskara berpiztutzeko, tradizionalista ikasleak bere langai bearrezko bat bezala artzen badute. Arrigarri da *El Pensamiento Navarro* delakoan euskararen il-otoiak erratea: Nafarroa geinean eta euskal errietan bereziki ehun urte otan tradizionalistak nagusi izandu direnez geroz. Baldin Madridko gobernuak ezer lagundu ez badu, edo obeki erranik trabak ipiñi baditu euskara bizitzeko, *El Pensamiento*-k erran zezaken euskararen alde karlistek egin dutena. Badaiteke emendik bospasei illabete artio ez duela euskarari buruz itzik erranen. Eta ala ez bada, gure zorionak. Lan untan beste askotan bezala ez da aski egin bear dela erratea, bearrena egitea da; ibiltzea, solas egitea, jardukitzea, ibiliz egiten da bide eta ez alper egonez.

Ondoko lerroetan Larrekok *Diario de Navarra*-z idatzi zuen:

> *Diario de Navarra* delako egunkariak ere noizpeinka zerbeit erraten du, euskaraz bear dela, au ta ori egin bear dela, baño, ori erraten duenak badaki euskaraz eta ainitz ikasia da... eta noispait asiko da euskara garbiz idazten.

Zalantzarik gabe Eladio Espartza lesakarraz ari zen, 1937ko abuztuan Arabako gobernadore zibila izendatua izan zena. Egia da Espartzak zerbait idatzi zuela euskaraz, *Panpina* antzerkilana eta deus gutxi gehiago, baina horixe guztia gerra aurretik eta jeltzaleen abaroan oraino zegoela. Honen jakitun da Larreko: «Euskalduna da, baño nik uste, euskara baño erdara maiteago duela; erdar idazle argia eta apaña da». Guztiarekin, badirudi Larrekok konfidantzaren bat bazuela Espartzarengan: «Ez dut uste euskaraz itzegitetik iñori debekatuko dion, nola zioten egin zuela Gipuzkoako gobernadore jaun izanak Arellano».

Izan ere, Espartzak gobemadore postua galdu baitzuen Aramaion eginiko bilkura propagandistiko batean euskaraz egiteagatik. José María Arellano corellarrak berriz, 1936ko urriaren 7tik Gipuzkoako gobernadore zibila zenak alegia, jeltzaleenak ez ezik ia euskararen arrasto guztiak desagertarazteko kezka bizia zeukan, eta asmo horrekin honako agindua zabaldu zuen probintzian:

> Se advierte a todos los guipuzcoanos que en el plazo de cuarenta y ocho horas han de quitar de los rótulos, carteles y anuncios las k, tx, b, etc. con que nos han violado los nacionalistas el glorioso idioma español bajo multa de 500 pesetas.

Diario de Navarra egunkaria 1903ko otsailaren 25ean atera zen estrainekoz Iruñean, *El Eco de Navarra*-ko kazetaria izaniko Jose Bizente Berazaluzek zuzendaritzapean. Komunzki hiru aro ezarri izan dira argitalpen honen bizitzan. Lehenbiziko aroa 1913ra arte luzatzen dena dugu, eta Nafarroako egunkaririk salduena izaterainoko bitartean luzatzen da. Bigarren aroa 1913tik 1962ra arterainokoa da, sendotze garaia, Garcilasoren zuzendaritzapean. Azkenik, hirugarren aroak 1962an dauka hasiera, Garcilasoren heriotzarekin, eta modernizazio garaia da. Lehenbiziko garaia bukatu baino lehen, hau da, *El Eco de Navarra* fagozitatu aitzin, Zapateria karrikako egunkariak euskarari esparru txikia eskaini zion 1912an. Antonio Iñarreak euskarazko *via crucis*-aren inguruan igorri kolaborazioaz aparte, Saturnino Ibarrola iruñarraren kolaborazio pare bat eta Juan Irigarairen beste hiru dira ageri zirenak.

Ibarrolak, urte berean ere, hainbat kolaborazio agertu zituen *El Eco*-n bertan, Iruñean oraino oso ezaguna ez zen euskara ezin garbizaleago batean. Juan Irigarai *Mendi-Txuri* Larrekoren anaia nagusia zen eta gerra iritsi bitartean Orreagako idazkari arizan zena. Anai-arreben artean Juan izan zuen Larrekok adiskideena; elkarrekin ikasi zuten biek bai Iruñean eta bai Zaragozan ere, nahiz karrera desberdinak egin, Juan zuzenbidean lizentziatu baitzen. Aipagarria da «Montañesas» izenburupean Juan Irigaraik *Diario de Navarra*-rako tajutu zituen laburretan uso-ehizarena bitan aipatu izana. Ez zirudien ehizarenak Irigaraitarrek aiher haundiegirik zioten jarduera, hainbatetan dute aipagai eta. Uso ehizaldi batean, bestalde, hil zen Maistroneko Irigaraitarren Ramon aita bihotzekoak jota.

Alabaina *Diario de Navarra*-k euskarari eskaini zion lehenengo tarte finkoa, eta lau urtetan mantendu zena, zertxobait beranduxeago iritsi zen. «Euskarazko saila» 1915eko otsailaren 7an izan zuen hasiera, aurreko egunean saila honen berri eman zelarik:

> En nuestro número de mañana iniciamos una colaboración nueva. En adelante en todos los números de domingo aparecerá una sección redactada en vascuence. Es

> un modesto tributo que rendimos al idioma de la raza. Al establecer esta sección semanal procurando mantener viva la lingua navarrorum, creemos que cumplimos un deber.

Horrela izan zen gehienetan, igandeetako zenbakietako aurreneko orrialdean hain zuzen ere, baina zenbaitetan ere astelehenean edo asteartean edo beste eguneren batean agertu zen euskarazko saila baldin eta igandeko zenbakian agertzen ez bazen. Gutxitan bada ere, noiz edo noiz ez zen atera asteko euskal zutabea, alabaina, esan daiteke sailak iraun zuen bitartean, gehienetan ere astero-astero atera zela 1919ko urtarrilaren lera arte. Sailean idatzi zuen ia pertsona bakarra Jose Agerre izan zen, berari eman baitzioten saila kudeatzeko ardura:

> Se ha encargado de esta sección un estudioso y culto joven pamplonés que conoce perfectamente el euskera, hasta el extremo de que su método de enseñanza del idioma milenario ha merecido el honor de ser adoptado en Vizcaya y en Guipúzcoa en los principales centros donde se enseña.

Agerrek eginiko lana behin bukatuta *Diario de Navarra*-n ez zen horrelako ekimenik berriz ere burutu 1966ra arteraino, «Nafar ikuntz orria» agertu arte hain zuzen ere.

Gerla urte gezur urte osatzen duten hitzok izkiriatu zituenean Larrekok jada nekez eman zezakeen beste ezer argitara, ezta Iparraldean ere, baina bere izkiriakintza naroaren azken emaitzak 36ko uztailean berean argitaratu ziren. Kontuan harturik lehenbiziko idazkiak, gorago esan bezala, 1910erako ageri zirela, ez dirudi soberakoa izenburuan jarri zaion aitagoia izenondoa, bada, Larreko 36ko gerra aurretiko euskal kazetaririk inportanteena izan baitzen Nafarroan. *La Tradición Navarra* paper integristan ez zen euskarazko kolaboratzaile bakarra, ez emankorrena ere. Larreko baino lehen Joxemiel Insaustik, *Aiztondo*-k, atera zituen bertso politiko zenbait 1907an, eta Larraungo korrespontsalarena egin zuen Aldaztik 1910-1911 urteetan. Egunkari honetan idatzi zuten beste batzuk Erroman Dornaku kaputxinoa, Antonio Iñarrea eta Juan Kruz Goienetxe apaizak izan ziren, baina kolaboratzaile sendoenak Larreko bera eta Teodoro Arburua izan ziren. Bigarren honetaz Larrekok honela idatzi zuen: «zu zarela zaren euskar idazle zaarrena, Nafarroan bedere», eta kontuan izanda ia zortzi urte gazteago zela Etxalarkoa Aurizkoa baino, apaiza izateaz gain Arburuari aitortuko ziokeen hizkuntz maisutasunarengatik izanen zen. Edozein modutan ere, Arburuak ez zuen inoiz lortu Larrekok erdietsi zuen ospea, agian bere herrian zetzalako kukuturik eliz langile umil. Larrekok bezala inoiz ez zuen bere izenez sinatzen, baina bere ezizenak ilunagoak izan zaizkigu, baita orain ere, eta inor gutxik lotzen du Todor Arburuarekin Ibantelli, Artola edota Zubieta gaitzizenak. Kronika txikia idazten zuen Arburuak, Larrekok gutxiago egin zuena, eta ausaz horrek eragotzi zion arrakasta. Alabaina erabili zuen euskara ederrak beste zerbait merezi zuen eta du.

Integrismotik aldendurik, Larrekoren urratsak prentsa jeltzalera hurbildu ziren. Bere artikuluak aterbetu zituen lehenbiziko argitalpena *Napartarra* izan zen 1912az geroz. Hartan atera zuen lehenengo idazkietako bat izan zen hurrengo hauteskundetarako bere buruaren propaganda politikoa egiten zuena, seguraski bere benetako izenez agerturiko

bakarra. Garai berri honetan ezizen berria behar, eta orain arte ezezagun genuen *Goierri* aukeratu zuen, 1914 bitartean erabili zuena; 1916an *Larrekoa* hasi zen erabiltzen, eta 1918ra arte ez zuen *Larreko* ezagunean utzi, bakanka ere *Buruzuri* ezizena erabiliz. Hortaz, hala edo nola esan liteke historiara pasatu zen Larrekok *Napartarra* izan zuela ponte harri, eta bertan hartu zuela euskal letren bataio publikoa.

Napartarra-n estreina hartuz geroz, Larrekok ez zuen bada prentsa jeltzalea sekularenean utziko, 36ko gerra hasi bitartean bederik. Ondoko urteetan, bakanka bada ere, *Euzko Deya* eta *Euzkadi*-n idatzi zuen. 1916an EAJk sortu zuen euskara hutsezko lehenbiziko aldizkari kulturala izan zen *Euzko Deya,* eta bertara 1918az geroz hasi zen Nafarroako gauzezko idazkiak igortzen. *Euzkadi*-n*,* berriz, kolaborazioak nahikoa berandu hasi ziren agertzen, erreparatzen badiogu egunkariaren sortze urteari behintzat, izan ere, 1913an estrainekoz agertu bazen ere, Larrekoren kolaborazioak 30eko hamarkadara arte ez zirelako agertzen hasi, hain zuzen ere Kirikiño «Egunekua» euskarazko atalaren zuzendaria ibili zen bitartean.

Badirudi Larrekok gustukoago zituela Nafarroako bertako argitalpen jeltzaleak Bilbokoak baino, eta bere lanen aterpe hauta Iruñeko *La Voz de Navarra* egunkaria izan zen, bere artikulu gehien atera zituen publikazioa hain zuzen. Bi ziren XX. mendearen laugarren hamarkadan Nafarroako Eusko Alderdi Jeltzaleak kaleratzen zituen argitalpenak, 1923ko martxotik jadanik argitaratzen ari zen *La Voz de Navarra* egunkaria eta *Amayur* astekari berriagoa 1931tik. Bi argitalpen hauen bizitza bukatu zen falangistek Zapateria karrikako alderdiaren egoitzan zeuden tailerrak eraso eta beretzat hartu zituztenean; 36ko uztailetik aitzina *La Voz*-eko tailerretan *Arriba España* egunkaria hasi zen kaleratzen.

Josu Chuecaren ustez *Napartarra* astekarian *se curtió la primera generación de escritores euskaldunes navarros de este siglo –vinculados al PNV–, con la brillante hegemonía de Larreko, en* Amayur *y en* La Voz de Navarra *se forjó y expresó la que podíamos llamar la segunda generación*. Ez dakigu zein puntutaraino bi belaunaldi ezberdinez mintza daitekeen, alabaina egia da urte hauetan prentsa jeltzalean euskaraz kolaboratu zutenen artean alde batzuk bazeudela, eta izen batzuk aitzindariak izan ziren. Hasieretan bi izan ziren berebiziko ospea bereganatu zuten egileak, Larreko eta Manezaundi. Horretarako hainbat arrazoi bazeuden. Alde batetik Larrekori bere aitagoitasuna aitortu behar zitzaion aurretik eginiko lanarengatik. Baina bestalde adinak ere bazuen bere garrantzia. Juan eta Pablo Fermin Irigarai Goizueta anaia auriztarrak 1867 eta 1869an jaio ziren hurrenez hurren, eta Enrike Zubiri Gortari pintore luzaidarra 1867an.

Alderdi jeltzalearen kontrolpetik kanpo beste aldizkari zenbaitetan ere argitaratu zituen Larrekok bere lanak, pentsatzekoa denez, mende hasmentako mugimendu euskaltzalearen barruan kokatu beharreko *Euskal Esnalea, Argia* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan hain zuzen. Lehenbiziko bi aldizkarien arduradunek euskararen aferaz erakutsi zuten jarreratik hurbilago bide zatekeen auriztarra, hau da, euskara herrikoiagoaren alde eta garbizaleen proposamenak bere horretan onartzearen aurka, baina prentsa jeltzalean ateratakoaren tamainak argikiro erakusten du Larrekoren atxikimenduak guztiekin zihoazela, eta alderdigizona izateari ez ziola erraz utziko Kirikiño

zein Lauaxeta mugimendu horren erpinak baziren ere. Gregorio Mujikaren aldizkarian Larrekok kolaboratzea ez zen harritzekoa izan, alabaina bere kolaboraziorik interesegarrienetakoak erdaraz agertu zituen Nafarroako euskaraz; 1911tik, eta aldizkaria euskara hutsezkoa bilakatu zenetik, Larrekoren kolaborazioak bakandu ziren, alde batetik bazuelako beste non idatzi, eta bestaldetik, aldizkariaren formatoa, maiztasuna eta lastertasuna, orobat publikoari iristeko erraztasuna, seguraski prentsarena bezainbeste interesatzen ez zitzaiolako. Donostiako *Argia* 1921ean hasi zen arren, Larrekok ez zituen bere gauzak hara bidali 1924ra arte, alabaina kolaborazioak ugariak dira, baita aldizkariak ateratzen zuen egutegi arrakastatsuan, eta 1929an atera zuten euskara hutsezko egunkariaren saiakeran Larrekok ere parte hartu zuen. Iruñeko kaputxinoek 1919an sortu zuten aldizkarian ere parte hartuko zuen Larrekok, lantzean behin bazen ere; auriztarraren helburuetarako agian ez zen tokirik egokiena, baina lagun zaharrak zituen kaputxinoak, etxean egiten zen, eta azken finean gai nagusia erlijiosoa izanik, bera ere eroso sentitzen zen.

Azkenik aipatu behar dira *Eskualduna* eta *Gure Herria,* Larrekoren kuttunak, maisu eta ispilu izan zituen paperak. Ezagun denez, *Eskualduna* da euskara hutsezko aldizkaririk iraunkorrena, 1887-1944 bitartean argitaratu zena. Larrekoren kolaborazioak Hiriart-Urruti hil ostean hasi ziren agertzen, hau da, zuzendari finkorik gabeko eta gerra garaiko urte latzetan eta Ademaren zuzendaritzapeko ondorengo urte hobexeagoetan. *Gure Herria* hegoaldeko aldizkari kulturalen antzera sortu zen 1921ean Blazyk zuzenduta.

Asko izan dira Larrekoren euskara garbizalekeriaren bidetik at nabarmendu dutenak. Aingeru Irigarai bera, ulertzekoa den bezala, baina baita Ibon Sarasola edo Txema Larrea. Neurtuagoak dira Caminoren hitzak honela dionean: «Larreko euskal irakurle porrokatua zen, eta ez zegoen garaiko literatur mundutik landa; herriarentzat idaztea maite bazuen ere, baziren hitzberriak haren artikuluetan». Eta honetaz ez dago zalantzarik, izan ere, Larrekoren idazkiak ez baitzitzakeen edozein baztandar elebakar alfabetatu gabeak arazorik gabe irakurri. Larrekok euskara herrikoia erabiliko zuen, ez herrikoa ordea, bada, Larrekok egina kultoa baitzen, landua, hizkuntzaren artisauak zizelkaturiko hitz neurtua. Gorago aipatu dugu auriztarrak hizkuntzarekin zeraman dema zein tamainakoa zen, eta artisauaren konparazioa nahikoa zehatza dateke.

Lafittek ezik, Larrekoren euskara beste inork zalantzan jarri ez badu ere, bistan da, eta batez ere lehenbiziko lanetan, akats zenbait isuri zitzaiola mediku kazetariari. Lafittek «bortxa aire bat, ido eta gogor aide bat» deitu zuen. Marian Antoñanak[3] espresabideen urritasuna azpimarratu zuen: Larrekoren idazkietan perpaus laburrak, alborakuntza eta juntadura dira nagusi testuari itxura telegrafikoa emanik; aditz trinko gutxi daude eta laguntzaile asko ezabatzen dira; ideiak errepikatzen dira tesietan aurrerapen guti eginez eta idatziak sermoi kutsua harturik; atzizki eta izenondo berberen erabilera jarraitua dago. Antoñanaren ustez «helburu ideologiko baten menpean» idazten zuen Larrekok, «ez zuen idazten literatura hutsa egiteko asmo soilarekin [...] bigarren maila batean

3 M. Antoñana, «Larrekoren obraren azterketa estilistikoa», *FLV,* 58, 1991, 207-226 or.

kokatu zuen hizkuntza literarioaren beraren lantzea, hizkuntza biziaren aldeko jarrera hartuz». Alabaina, eta Antoñanak salatu bezala, Larrekok didaktismoaren bidea aukeratu izana ezin ukatuzkoa izan arren, pentsatzekoa da prosa propagandistikotik balio literarioa duen prosaraino dagoen bidea ez egitearen arrazoia ere hizkuntza beti behar eta nahi bezala ez menperatzean bazetzala.

Bestalde, baino ez sobera urruti, Larrekok hobetsitako euskalkia eta hau aukeratzeko arrazoiak aipa litezke. Aingeru semeak aitatxoren euskara deskribatu zuenean baztanera eta lapurteraren arteko nahasketa bezala aurkeztu zuen. Egia da Aurizko euskara ezer gutxi igertzen dela Larrekoren lanetan, eta horrekin batera Erroibar-Aezkoa bitarteko hegoaldeko goi-nafarrera. Baztango egonaldia mugarria izan zen, baita Iparraldetik zetorkion eragina, belarriz bai baina idatzia bereziki. Ezin ahantzi, hurbileko idatz lagunen artean Manezaundi zegoela, eta gazteagoak zirenak komunzki euskaldun berriak eta garbizale porrokatuak.

Laburbilduz, eta hitz bakoitzari bere esanahi zehatza emate aldera, nahi bada Larreko ez zen literatoa izan, bai idazlea ordea. Gerra aurretik Nafarroan izan genuen itzal luzeenetako eta eragin handienetako idazlerik emankorrena. Gainera, Antoñanak aipatu asmo didaktiko hori ez zen bete Larrekok nahi zuen jendearekin, hau da, herri xeheak ez zuen euskarazko prentsa irakurtzen, eta Larrekoren lanen irakurlerik fidelenak euskalgintzan ziharduten euskaldunberri asko izan ziren, hizkuntz eredu bila zebiltzanak bestalde. Iruñeko euskalduberri hauek eztabaida samina izan zuten Manezaundirekin 1933an, eta honela erantzun zioten Luzaidarrari:

> ¿Es que por no haber nacido en zona euskeldun hemos de rechazar sistematicamente los escritos euskericos de don Arturo Campión, de Arrigarai, José Agerre, etc., y hemos de aceptar como modelos de dicción las cartas de los corresponsales euskaldunes? Pues no es poco ingrata la labor en los periódicos del redactor encargado de enderezar, corregir, cortar y pulir los escritos de aquellos para vestirlos decentemente antes de salir a la calle. Nosotros, a escoger, nos quedamos con los escritos de los primeros [...] Respecto a la construcción, seguimos las instrucciones que en su día nos diera magistralmente nuestro querido profesor señor Aranzadi.

Ez zen halakorik gertatu Larrekorekin baina. Badirudi auriztarra aurpegi onbera zeukala afera horretan, xaloa, eta ihes egiten zion eztabaida itxusiari. Ezin da ahantzi Aingeru semea euskaldunberri horiengandik hurbil zegokeela, baita Larreko bera ere ez al zen bada euskaldunberriagoa semea baino? Kontua da Larrekok euskal idazle guztien estimu eta errespetoa zeukala, eta horrenbeste idatzi izanarekin batera, estilo eta eredu bat finkatuz joan zen. Manezaundirena ez bezela, Larrekorena bere egin zezaketen mutur batekoek eta bestekoek, eta bere idatz jardunak estandarizazioaren afera, eta Nafarroaz ari gara, leuntzen lagundu zuen.

Larrekoren kazetaritza lanak jasotzen lehena bere seme Aingeru izan zen, urteetan Nafarroako euskal bibliografian gogoangarria izan den liburuan, 1958ko *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca* izenburukoan alegia. Geroantzean Larrea eta Diez de Ultzurrun bikoteak apailaturiko *Nafarroako euskal idazleak* klasikoan ere zer-

bait jaso zuen, alabaina kolaboraziorik gehien bildu zuena Iñaki Camino izan zen bere bi liburutan. Gerok ere beste testu zenbait bildu genituen, Feriririenean zaharrenak direnak zehazki. Azkenik, eta transkribatu gabe bada ere, eskaneaturiko egunkari orriak berak hots, komunzki dituzten arazo guztiekin, Susa argitaletxekoei eskerrak eskura baditugu *Euzkadi* eta *El Día* egunkarietan agerturiko kolaborazioak.

Larrekok kazetei igorri kolaborazioen bilduma baterako lehen entsegua Mariam Antoñanak egin zuen *Fontes*-en agerturiko artikulu batean. Hartan, *La Voz de Navarra* eta *Amayur* Nafarroako kazeta jeltzaleetakoen zerrenda osatu zuen bereziki. Dena dela, eta ahalik eta zehatzen izate aldera, beste iturriren bat sakonkiago eta arretaz aztertzea faltako litzaiguke, esaterako *Zeruko Argia* edota honen egutegia.

LARREKOREN BIBLIOGRAFIA

Iturrien laburdurak

EIK-l, *Euskara lruñeko kazetaritzan (l910-l920), Testu antologia (I),* Joxemiel Bidador, Iruñeko Udala, 2001.
EIK-2, *Euskara lruñeko kazetaritzan (1930-1936), Testu antologia (II),* Joxemiel Bidador, Iruñeko Udala, 2003.
EM, «Fermin Irigarai Larreko: euskararen maitale», Mariam Antoñana, *Fontes Linguae Vasconum,* LXVI, 1994,337-347 or.
EPL, *Euskal prentsaren lanak,* [www.hemeroketa.com].
GLK, *Gerra aurreko literatur kritika,* Iñigo Aranbarri eta Koldo Izagirre, Bilbo, Amorebieta-Etxanoko Udala eta Labairu ikastegia, 1996.
L, *Lekukotasuna,* Iñaki Caminoren edizioa, Donostia, Klasikoak, 1992.
N, *Nafarroatik,* Iñaki Caminoren edizioa, Donostia, Klasikoak, 1992.
NEI, *Nafarroako euskal idazleak I,* Txema Larrea eta Pedro Díez de Ultzurrun, Iruñea, Pamiela, 1987.
PNC, *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca,* Iruñea, Príncipe de Viana, 1958.

1910

— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-II-15, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-III-2, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-III-8, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-III-16, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-III-29, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-IV-7, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-IV-12, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-IV-22, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-V-17, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-V-29, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-VI-16, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-VI-18, Feriri, EIK-1.

— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-VII-2, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-VII-24, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-VIII-31, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-IX-22, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-X-28, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1910-XII-2, Feriri, EIK-1.

1911
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1911-I-10, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1911-II-7, Feriri, EIK-1.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1911-III-23, Feriri, EIK-l.
— «Baztandik», *La Tradición Navarra,* 1911-V-l7, Feriri, EIK-1.

1912
— «Nik ere nai nuke, baño...», *Napartarra,* 1912-III-9, Goierri.
— «Zer ateraldia!», *Napartarra,* 1912-IV-6, Goierri.
— «Zein gutxi diren!», *Napartarra,* 1912-V-4, Goierri.
— «Beazu zer dioten», *Napartarra,* 1912-V-25, Goierri.
— «Oztutzen asi al gera?», *Napartarra,* 1912-VII-27, Goierri.
— «Noiz bait bedere», *Napartarra,* 1912-XII-28, Goierri.

1913
— «Napartar euzkeltzale jauneri», *Napartarra,* 1913-I-25, Goierri.
— «Distrito unen gure eskualdun guziei agur», *Napartarra,* 1913-II-22, Irigarai Goizuela'tar Fermin.
— «Burupide onez», *Napartarra,* 1913-VIII-2, Goierri.

1914
— «Euskaldun garbiekin solasean», *Napartarra,* 1914-II-28, Goierri.
— «Euskaldun garbiekin solasean», *Napartarra,* 1914-III-14, Goierri.
— «Euskaldun garbiekin solasean», *Napartarra,* 1914-IV-4, Goierri.
— «Euskaldun garbiekin solasean», *Napartarra,* 1914-V-9, Goierri.
— «Euskaldun garbiekin solasean», *Napartarra,* 1914-VI-13, Goierri.
— «Euskaldun garbiekin solasean», *Napartarra,* 1914-VII-11, Goierri.
— «Euskaldun garbiekin solasean», *Napartarra,* 1914-VII-25, Goierri.
— «Euskaldun garbiekin solasean», *Napartarra,* 1914-VIII-22, Goierri.

1916
— «Nabartzaleri», *Napartarra,* 1916-III-11, Larrekoa, L.
— «Ezla oraikoa», *Napartarra,* 1916-III-18, Larrekoa, L.
— «Euskal Esnalea Bilbon», *Napartarra,* 1916-IV-15, Larrekoa, L.
— «Nabartzaleri», *Napartarra,* 1916-IV-29, Larrekoa, L.
— «Gure euzkeldun adixkideri», 1916-IV-29, Larrekoa, L.
— «Aintza deun Mikeli», *Napartarra,* 1916-V-6, Larrekoa, L.
— «Gu gurera», *Napartarra,* 1916-V-20, Larrekoa, L.
— «Euskeldun adixkideri agur», *Napartarra,* Larrekoa, L.

— «Euskalerriko irakasleri eta oken laguntzaleri», *Napartarra,* 1916-V-27, Larrekoa, L.
— «Zaraizuar izperkari berriari», *Napartarra,* 1916-VI-10, Larrekoa, L.
— «Gure berrielarazleri agur eta itz bat», *Napartarra,* 1916-VI-17, Larrekoa, L.
— «Nola idatzi?», *Napartarra,* 1916-VI-24, Larrekoa, L.
— «Asteko berriak», *Napartarra,* 1916-VII-15, Larrekoa, L.
— «Apal-apalak, ez apalegiak», *Napartarra,* 1916-VII-15, Larrekoa, L.
— «Apez euskalduneri», *Napartarra,* 1916-VII-22, Larrekoa, L.
— «Baztandarrari», *Napartarra,* 1916-VIII-12, Larrekoa, L.
— «Kutun idekia B. tar P.ri», *Napartarra,* 1916-VIII-12, Larrekoa, L.
— «Gora Euzkeltzale Bazkunakoak», *Napartarra,* 1916-VIII-26, Larrekoa, L.
— «Eskualdunatik Napartarrari», *Napartarra,* 1916-IX-2, Larrekoa, L.
— «Osasungarriak», *Napartarra,* 1916-IX-2, Larrekoa, L.
— «Akelarre», *Napartarra,* 1916-IX-16, Larrekoa, L.
— «Aitzurreri», *Napartarra,* 1916-IX-16, Larrekoa, L.
— «Idaztino bat ongi egina», 1916-X-28, Larrekoa, L.
— «Berriketari berrieri itz bat», 1916-XI-II, Larrekoa, L.
— «Guduaz itz bat», *Napartarra,* 1916-XI-18, Larrekoa, L.
— «Arana Goiri'tar Sabin», *Napartarra,* 1916-XI-25, Larrekoa, L.
— «lrakurlerik ote dugu», *Napartarra,* 1916-XI-25, Larrekoa, L.
— «Irugarrengo Prantziskotarra eta Jesusen Biotzaren Deya», *Napartarra,* 1916-XII-9, Larrekoa, L.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1916-XII-22, Larrekoa, N.
— «Urte zar», *Napartarra,* 1916-XII-30, Larrekoa, L.

1917
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1917-VI-15, Larrekoa, N.
— «Ongi etorri bedi», *Napartarra,* 1917-XI-24, Larrekoa, L.

1918
— «Aukera Maukera azkenean okerra», *Napartarra,* 1918-I-26, Larrekoa, L.
— «Ze ote gara gu», *Napartarra,* 1918-II-9, Larrekoa, L.
— «Min artzen ote dute», *Napartarra,* 1918-II-23, Larrekoa, L.
— «Goazen Jainkoaren itza gogoz aditzera», *Napartarra,* 1918-III-2, Larrekoa, L.
— «Ene maiteak, jo dezagun leengo bideari», *Napartarra,* 1918-III-16, Larrekoa, L.
— «Inoiz ez baño noizpait obe», *Napartarra,* 1918-VI-15, Larrekoa, L.
— «Euskel gutun egile gaitza giltzapetua», *Napartarra,* 1918-VI-22, Larrekoa, L.
— «Ene adixkide begikoeri», *Napartarra,* 1918-VIII-24, Larreko, L.
— «Euskel ikastaroko bilkura», *Napartarra,* 1918-IX-7, Larreko, L.
— «Oraiko gaitz-berri untarik», *Napartarra,* 1918-X-19, Buruzuri, L.
— «Ene adixkide biotzekoeri agur», *Napartarra,* 1918-X-26, Larreko L.
— «Lengo arira jo zagun», *Napartarra,* 1918-XI-2, Larreko.
— «Mendiz araindiko euskelduneri agur», *Napartarra,* 1918-XI-16, Larreko, L.
— «Nere pozaren aundia! Zartzale naiz ta», *Napartarra,* 1918-XI-16, Larreko, L.
— «Araneder-aren mintzoeraz», *Napartarra,* 1918-XI-23, Larreko, L.
— «Naas maas», *Napartarra,* 1918-XII-28, Larreko, L.

1921

— «Orreagatik», *Gure Herria,* 1921, Larreko, L eta PNC.
— «Naparrako eskuararen eremua geroago eta tipitzenago», *Gure Herria,* 1921, Larreko, L eta NEI.
— «Euskaraz biraoik ez daiteke», *Gure Herria,* 1921, Larreko, L eta NEI.
— «Ilarri zar bilatzen», *Gure Herria,* 1921, Dr. Irigarai, L.
— «Ardi galdua», *Euzko Deya,* 1921, Larreko, L eta NEI-l.

1922

— «Eskuara eta toki izenak», *Gure Herria,* 1922, Larreko, L eta PNC.
— «Eskualdun biozduna Mexicon», *Gure Herria,* 1922, Larreko, L eta PNC.

1923

— «Naparrotsa», *La Voz de Navarra,* 1923-III-6, Larreko.
— «Maitale eta maitale», *La Voz de Navarra,* 1923-III-8, Larreko.
— «Ene leen agurra», *La Voz de Navarra,* 1923-III-9, Larreko.
— «Euskeraren maitale», *La Voz de Navarra,* 1923-III-10, Larreko.
— «Iruñeko gizonezkoen urteroko misioa», *La Voz de Navarra,* 1923-III-11, Larreko.
— «Euskara maite duenak», *La Voz de Navarra,* 1923-III-15, Larreko.
— «Maitatzale edo etsai», *La Voz de Navarra,* 1923-III-16, Larreko.
— «Euskal-saila», *La Voz de Navarra,* 1923-III-20, Larreko.
— «Euskar-saila», *La Voz de Navarra,* 1923-III-23, Larreko.
— «Bakotxari berea», *La Voz de Navarra,* 1923-III-24, Larreko.
— «Euskal saila», *La Voz de Navarra,* 1923-III-25, Larreko.
— «Alegiazko maitale», *La Voz de Navarra,* 1923-III-28, Larreko.
— «Gripe gaitzatik begiratzeko zerbeit», *La Voz de Navarra,* 1923-IV-1, Larreko.
— «Agur Mikel gurea, gorde gorde Euskalerria», *La Voz de Navarra,* 1923-IV-11, Larreko.
— «Euskar saila», *La Voz de Navarra,* 1923-IV-13, Larreko.
— «Irakurle bati itz bat», *La Voz de Navarra,* 1923-IV-14, Larreko.
— «Biar Etxarrira», *La Voz de Navarra,* 1923-IV-20, Larreko.
— «Napar euskal idazleri», *La Voz de Navarra,* 1923-IV-21, Larreko.
— «Berriz ere napar euskal idazleri», *La Voz de Navarra,* 1923-IV-26, Larreko.
— «Euskar-saila», *La Voz de Navarra,* 1923-V-27, Larreko.
— «Besta Berri», *La Voz de Navarra,* 1923-V-31, Larreko.
— «San Julian Olaso'tar Jokin», *La Voz de Navarra,* 1923-VII-13, Larreko.
— «Inza'tar Damasori», *La Voz de Navarra,* 1923-VIII-29, Larreko.

1924

— «Iruñako apezpiku berri Mujika'tar Mateo jaun aundi ta agurgarriaren sarrera Iruñan», *Argia,* 1924-III-9, Larreko, EPL.
— «Ez da berantegi», *Argia,* 1924-VI-1, Larreko, EPL.
— «Gizon onegiak», *Argia,* 1924-VI-22, Larreko, EPL.
— «Iruñako jaiak», *Argia,* 1924-VII-27, Larreko, EPL.
— «Naparroatik», *Argia,* 1924-VIII-17, Larreko, EPL.
— «Euskaltzaindiko jauneri», *Argia,* 1924-VIII-31, Larreko, EPL.
— «Axular euskel idazle geiena», *Gure Berria,* 1924, Larreko, L eta NEI.

1925

— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1925-II-20, Larreko, N.
— «Euskara», *La Voz de Navarra,* 1925-III-6, Larreko.
— «Dantza eta dantza», *Argia,* 1925-III-8, Larreko, EPL.
— «Gripe gaitzatik begiratzeko zerbeit», *La Voz de Navarra,* 1925-IV-1, Larreko.
— «lriart-Hurruty», *La Voz de Navarra,* 1925-IV-4, Larreko.
— «Geroko-gero», *Argia,* 1925-IV-5, Larreko, EPL.
— «Abbadie», *La Voz de Navarra,* 1925-IV-16, Larreko.
— «Ramiro de Maeztu Iruñan», *Argia,* 1925-IV-19, Larreko, EPL.
— «Jondone Mikel aingeruari», *La Voz de Navarra,* 1925-IV-21, Larreko.
— «Abbadie-Adema», *La Voz de Navarra,* 1925-IV-23, Larreko.
— «Euskar gaiak: modismoak», *La Voz de Navarra,* 1925-V-19, Larreko.
— «Euskar gaiak», *La Voz de Navarra,* 1925-VI-25, Larreko.
— «Axular», *La Voz de Navarra,* 1925-IX-1, Larreko.
— «Euskar gaiak», *La Voz de Navarra,* 1925-IX-3, Larreko.
— «Axular», *Argia,* 1925-IX-13, Larreko, EPL.
— «Axularren eguna», *La Voz de Navarra,* 1925-IX-16, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1925-XII-4, Larreko, N.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1925-XII-18, Larreko, N.
— «Ardura darabiltan gogoetan», *Argia,* 1925-XII-27, Larreko, EPL.
— «Ramiro de Maeztu Iruñen», *Zeruko Argia,* 1925, Larreko, L eta NEI.
— «Osasungarrizko zerbeit», *Zeruko Argia,* 1925, Larreko.
— «Osasungarrizko zebeit. Eskuak», *Zeruko Argia,* 1925, Larreko.
— «Osasungarrizko zerbeit. Uliak», *Zeruko Argia,* 1925, Larreko.

1926

— «Eguneroko dotriñaz», *Argia,* 1926-II-21, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1926-III-5, Larreko, N.
— «Supazter txokoan», *Argia,* 1926-III-14, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1926-IV-2, Larreko, N.
— «Oxobi apezjaunaren alegiak», *Argia,* 1926-IV-25, Larreko, EPL.
— «Euskera», *Argia,* 1926-V-16, Larreko, EPL.
— «Aurizko euskar-eguna», *La Voz de Navarra,* 1926-VI-27, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1926-VII-23, Larreko, N.
— «Maisutako euskaldun ikasleak», *Argia,* 1926-VIII-8, Larreko, EPL.
— «Piarres», *Argia,* 1926-X-10, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1926-X-29, Larreko, N.
— «Mussolini», *Eskualduna,* 1926-XI-26, Larreko, N.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1926-XI-26, Larreko, N.
— «Iruñeko apezpiku jaunaren azken eskutitza», *La Voz de Navarra,* 1927-IX-30, Larreko.
— «Ez dakit zergatik baño», *Argia,* 1926-XII-11 Larreko, EPL.
— «Udazkenari», *Argia,* 1926-XII-11, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1926-XII-31, Larreko, N.
— «Emakumea erran zuurretan», *Gure Herria,* 1926, Larreko, L.
— «Oxobi apezjaunaren alegiak», *Zeruko Argia,* 1926, Larreko, L eta NEI.

— «Supazter txokoan», *Zeruko Argia,* 1926, Larreko, L eta NEI.
— «Ikusgarria?», *Zeruko Argia,* 1926, Larreko.
— «Osasungarrizko zerbait», *Zeruko Argia,* 1926, Larreko.
— «Apendizitis ori, zer ote da?», *Zeruko Argia,* 1926, Larreko.
— «Osasuna», *Zeruko Argia,* 1926, Larreko.

1927
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1927-II-11, Larreko, N.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1927-III-11, Larreko, N.
— «Xabiertxo», *La Voz de Navarra,* 1927-III-22, Larreko.
— «Pro euskera», *La Voz de Navarra,* 1927-III-30, Larreko.
— «Emakumea leen eta orai», *La Voz de Navarra,* 1927-IV-2, Larreko.
— «Vascongado con cencerro», *La Voz de Navarra,* 1927-IV-29, Larreko».
— «Nigartia ni?», *La Voz de Navarra,* 1927-V-8, Larreko.
— «Aur euskaldunei, erdara irakasteko nola?», *La Voz de Navarra,* 1927-V-19, Larreko.
— «Pemando amezketarra», *La Voz de Navarra,* 1927-V-31, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1927-VI-10, Larreko, N.
— «San Julian Olaso'tar Jokin», *La Voz de Navarra,* 1927-VII-12, Larreko.
— «Eldu den igandean Berroetara», *La Voz de Navarra,* 1927-VII-28, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1927-VII-29, Larreko, N.
— «Ederki atzemana», *La Voz de Navarra,* 1927-IX-10, Larreko.
— «Iruñeko apezpiku jaunaren azken eskutitza», *La Voz de Navarra,* 1927-IX-30, Larreko.
— «Euskar san bera, erdaraz ez», *La Voz de Navarra,* 1927-XI-16, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1927-XII-23, Larreko, N.
— «Joannes D'Etxeberri», *Euskal Esnalea,* 1927-XII, Larreko, L eta NEI.
— «Euskaltzaindiaz itz bat», *Gure Herria,* 1927, Larreko, L.
— «Osauna. Jarraipena», *Zeruko Argia,* 1927, Larreko.

1928
— «Euskaldunak damurik. Gure apezpiku jauna jadanik ez da gurea», *La Voz de Navarra,* 1928-I-4, Larreko.
— «Gai beretik berriz Etxegarai jaunari», *La Voz de Navarra,* 1928-I-18, Larreko.
— «Itzaldi eder bat batzokian», *Argia,* 1928-I-29, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1928-II-3, Larreko, N.
— «Ez da egiaren beldur», *Euskal Esnalea,* 1928-I/II, Larreko, L eta NE1.
— «German Garmendiajauna», *La Voz de Navarra,* 1928-IV-1, Larreko.
— «Nekaldiaren berri argiena», *La Voz de Navarra,* 1928-IV-6, Larreko.
— «Euskal egunkaria bidean?», *Argia,* 1928-V-26, Larreko, EPL.
— «Toledotik», *Eskualduna,* 1928-V1-15, Larreko, N.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1928-VII-20, Larreko, N.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1928-IX-7, Larreko, N.
— «Ilabete untako bi euskar egunak», *La Voz de Navarra,* 1928-IX-16, Larreko.
— «Euskeraren adiskideak», *La Voz de Navarra,* 1928-X-19, Larreko.
— «Eldu den igandean Olaguera», *La Voz de Navarra,* 1928-X-24, Larreko.
— «Liburuaren eguna», *Euskal Esnalea,* 1928-XI, Larreko, L eta NEL.

1929

— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1929-V-10, Larreko, N.
— «Euskal egunkaria bidean?», *Argia,* 1929-V-26, Larreko, EPL.
— «Sinestedunak bai, sinets berak ez», *Euskal egunkaria,* 1, 1929-VI-9, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1929-VII-19, Larreko, N.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1929-XI-8, Larreko, N.
— «Il-berria. Garralda'tar Federiko jauna eta Sarasaitzuko euskara», *Euskal Esnalea,* 1929-XI, Larreko, L eta NEI.

1930

— «Kanpion, jakintsu ta langile. Euskariana dala ta», *Euskal Esnalea,* 1930-I, Larreko, L eta NEI.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1930-VI-6, Larreko, N.
— «Napar neskatxa euskal idazleari», *Argia,* 1930-IX-7, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1930-IX-14, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1930-X-5, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1930-X-19, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1930-X-26, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1930-X-31, Larreko, N.
— «Naparroa», *Argia,* 1930-XI-9, Larreko, EPL.
— «Emakumea euskar eskeretik», *Argia,* 1930-XI-16, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1930-XI-23, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1930-XI-30, Larreko, EPL.
— «Emakumea euskar esakeretan: *Argia-ko* neskatxa idazleari», *Argia,* 1930-XI-30, Larreko, EPL.
— «Napar burrukaldiari esker?», *La Voz de Navarra,* 1930-XII-4, Larreko.
— «Emakumea, euskar-esakeretik», *Argia,* 1930-XII-7, Larreko, EPL.
— «Iruña», *Argia,* 1930-XII-7, Larreko, EPL.
— «Euskar esaerak», *Argia,* 1930-XII-14, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1930-XII-14, Larreko, EPL.
— «Euskar esakerak direla bide», *Argia,* 1930-XII-21, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1930-XII-21, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1930-XII-28, Larreko, EPL.

1931

— «Iruña», *Argia,* 1931-I-11, Larreko, EPL.
— «Bereztea, Maite», *Euzkadi,* 1931-I-21, Larreko, EPL.
— «Arrese-Beitia eta Kanpion», *Euzkadi,* 1931-I-23, Larreko, EPL.
— «Orixe adiskideari», *Euzkadi,* 1931-I-30, Larreko, EPL.
— «Emakumea euskal esakeratik», *Argia,* 1931-II-1, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1931-II-7, Larreko, N.
— «Euskal esakera biltzaile guztieri», *Argia,* 1931-II-15, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1931-II-15, Larreko, EPL.
— «Emazu ezkerretik», *Argia,* 1931-II-22, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1931-III-1, Larreko, EPL.
— «Iruñako euskalduneri itz bat», *La Voz de Navarra,* 1931-III-11, Larreko.

— «Naparroa», *Argia,* 1931-III-15, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1931-III-22, Larreko, EPL.
— «Esakera bat ezingogora ekarri», *Argia,* 1931-III-29, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1931-III-29, Larreko, EPL.
— «Obeki bearrez, makurtzen ote dugun», *Argia,* 1931-IV-12, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1931-IV-12, Larreko, EPL.
— «Abar igandeko ebanjelioa dela bide», *Argia,* J931-IV-19, Larreko, EPL.
— «Bein bedere», *Argia,* 1931-IV-26, Larreko, EPL.
— «Sudur oneko gizon bat», *Argia,* 1931-V-17, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1931-V-31, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1931-IV-3, Larreko, N.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1931-V-l, Larreko, N.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1931-V-15, Larreko, N.
— «Abertzale berrien euskara», *Euskal Esnalea,* 1931-VI, Larreko, L.
— «Panticosatik», *Eskualduna,* 1931-VII-17, Larreko, N.
— «Abertzaleak atzerrian», *Euzkadi,* 1931-VIII-7, Larreko, EPL.
— «Pantikosatik», *Argia,* 1931-VIII-9, Larreko, EPL.
— «In memoriam», *Argia,* 1931-VIII-9, Larreko, EPL.
— «Begirautzue», *Argia,* 1931-VIII-30, Larreko, EPL.
— «Arpetarrak», *Argia,* 1931-IX-6, Larreko, EPL.
— «Iruña», *Argia,* 1931-IX-13, Larreko, EPL.
— «Leen eta orai», *Argia,* 1931-IX-27, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1931-X-18, Larreko, EPL.
— «Egun oketako ene gogoetak», *Euzkadi,* 1931-X-21, Larreko, EPL.
— «Legea, Lege», *Argia,* 1931-XI-1, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Argia,* 1931-XI-1, Larreko, EPL.
— «Nafarroa», *Argia,* 1931-XI-15, Larreko, EPL.
— «Kanpionjaunaz itz bat», *Amayur,* 1931-XII-5, Larreko.
— «Emakume abertzaleri», *Amayur,* 1931-XII-12, Larreko.
— «Emakumea, aukerale eta aukergai», *Amayur,* 1931-XII-19, Larreko.
— «Orai dela berrogeitamar urte: gure ikastaroko gabon gaba», *Amayur,* 1931-XII-26, Larreko, EIK-2 eta EM.
— «Ez nazazueteke bortzez on egin», *Argia,* 1931-XII-27, Larreko, EPL 1932.
— «Euskeraz idazteko bide *berriak*»,*Amayur,* 1932-I-9, Larreko.
— «Jende tarteko osasungarriak», *La Voz de Navarra,* 1932-I-14 (aurretik Argiaren Egutegian), Larreko, L.
— «Bide berriak», *Argia,* 1932-I-17, Larreko, GLK, EPL.
— «Euskaldun uts bat», *Amayur,* 1932-I-23, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1932-II-5, Larreko, N.
— «Nere gaztaroan ez nituen asko maite», *Amayur,* 1932-II-5, Larreko.
— «Berriz ere bide berriaz», *Euzkadi,* 1932-II-14, Larreko, GLK, EPL.
— «Manezaundi jaunari», *La Voz de Navarra,* 1932-II-30, Larreko, L.
— «Gogozko ariketak iruñan», *Amayur,* 1932-III-5, Larreko.
— «Gogo ariketak ejerzizioak euskeraz», *La Voz de Navarra,* 1932-III-6, Larreko.
— «Bide berriaz itz bat orainik», *Euzkadi,* 1932-III-10, Larreko, GLK, EPL.
— «Gure ama», *Amayur,* 1932-III-26, Larreko.

— «Euskalerria eta aberria», *Amayur,* 1932-IV-2, Larreko.
— «Arrigarri», *Argia,* 1932-IV-10 Larreko, GLK, EPL.
— «Argiaren egilleri», *Argia,* 1932-IV-24, Larreko, EPL.
— «Neskatxa galdu baten eriotza», *La Voz de Navarra,* 1932-IV-27, Larreko, L.
— «Euzkel eskolako aurrak», *Amayur,* 1932-V-28, Larreko.
— «Lenengo jaunartzea», *Argia,* 1932-VI-5, Larreko, EPL.
— «lruñatik», *Argia,* 1932-VI-12, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1932-VI-17, Larreko, N.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1932-VI-24, Larreko, N.
— «Eta orai, zer egin?», *Euzkadi,* 1932-VII-1, Larreko, EPL.
— «lruña», *Argia,* 1932-VII-3, Larreko, EPL.
— «Eta zer egin?», *Amayur,* 1932-VII-9, Larreko.
— «Dantza eta dantza», *Euzkadi,* 1932-VII-15, Larreko, EPL.
— «Ni baitara bea», *Euzkadi,* 1932-VII-21, Larreko, EPL.
— «Pantikosatik», *Argia,* 1932-VII-24, Larreko, EPL.
— «Panticosa», *Euzkadi,* 1932-VIII-10, Larreko, EPL.
— «Garitaonandia jaun zenari», *Argia,* 1932-VIII-28, Larreko, EPL.
— «Elizondoko euzkel jaia dela bide», *Euzkadi,* 1932-IX-9, Larreko, EPL.
— «Arrospide'tar Jon sendakinari», *Euzkadi,* 1932-X-29, Larreko, EPL.

1933
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1933-I-6, Larreko, N.
— «Nere baitan», *Amayur,* 1933-I-27, Larreko.
— «Gogoeta ongi eta, zergatik?, *Amayur,* 1933-II-10, Larreko.
— «Euskaraz ongi idazteko nola?», *La Voz de Navarra,* 1933-II-12, Larreko.
— «Gogoeta ongi eta, zergatik?», *Euzkadi,* 1933-II-12, Larreko, EPL.
— «Euzkaraz ongi idazteko», *Euzkadi,* 1933-II-15, Larreko, EPL.
— «Orai aldi untako nor ederragokaz», *La Voz de Navarra,* 1933-II-25, Larreko.
— «Orai aldi untako nor edarragokaz», *Euzkadi,* 1933-II-18, Larreko, EPL.
— «Lizardi'tar Xabier», *Amayur,* 1933-III-17, Larreko.
— «Lizardi», *Euzkadi,* 1933-III-22, Larreko, GLK, EPL.
— «Larreko Manezaundi jaunari», *La Voz de Navarra,* 1933-III-30, Larreko.
— «Euskaldundu gaitezen», *La Voz de Navarra,* 1933-IV-7, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1933-IV-7, Larreko, N.
— «Orai aldi untako nor ederragokaz», *Argia,* 1933-IV-9, Larreko, EPL.
— «Laborari itza berriz ere», *La Voz de Navarra,* 1933-IV-19, Larreko.
— «Baionako Eskualduna», *La Voz de Navarra,* 1933-IV-21, Larreko.
— «Neskatxa galdu baten eriotza», *La Voz de Navarra,* 1933-IV-27, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1933-V-26, Larreko, N.
— «Euskal gaiaz nik ere», *La Voz de Navarra,* 1933-VI-11 Larreko.
— «Aberriren omenaldia», *Argia,* 1933-VI-18, Larreko, EPL.
— «Euskeraren ikasteaz», *La Voz de Navarra,* 1933-VI-23, Larreko.
— «Jende tarteko osasungarriak», *La Voz de Navarra,* 1933-VII-14, Larreko.
— «Lafitte eta Leon jaun apezak», *La Voz de Navarra,* 1933-IX-5, Larreko.
— «Lauaxeta jaunari», *Euzkadi,* 1933-IX-16, Larreko, EPL.
— «Txistua eta euskara», *La Voz de Navarra,* 1933-IX-24, Larreko.

— «Leitzako Joseba Imanol idazleari», *La Voz de Navarra,* 1933-X-11, Larreko.
— «Unamunoren azken ateraldia», *La Voz de Navarra,* 1933-X-19, Larreko.
— «Irakurle maite ori, agur», *La Voz de Navarra*, 1933-X-27, Larreko.
— «Euzko emakumentzat», *La Voz de Navarra,* 1933-XI-2, Larreko.
— «Zuur itzak eta edertasuna», *La Voz de Navarra,* 1933-XI-9, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1933-XI-15, Larreko, N.
— «Gaur ene aldi», *La Voz de Navarra,* 1933-XI-17, Larreko.
— «Euskar-sailaren zuzendari jaunari», *La Voz de Navarra,* 1933-XI-23, Larreko.
— «Arana Goiri'tar Sabin», *La Voz de Navarra,* 1933-XI-26, Larreko.
— «Gaur ortzeguna nere aldi», *La Voz de Navarra,* 1933-XI-30, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1933-XII-1, Larreko, N.
— «Gaur ene aldi», *La Voz de Navarra,* 1933-XII-7, Larreko.
— «Naasmenduka», *La Voz de Navarra,* 1933-XII-14, Larreko.
— «Iruñako euskal ikastoletako araudia», *La Voz de Navarra,* 1933-XII-21, Larreko.
— «Baztandarrak izkuntzaz bertzelazen ari direla?», *La Voz de Navarra,* 1933-XII-28, Larreko.

1934

— «Nere biozminaren andia», *La Voz de Navarra,* 1934-I-5, Larreko.
— «Baztango berrielzale Gorospeldarra jaunari», *La Voz de Navarra*, 1934-I-10, Larreko.
— «Lizunkerietan zilegigoaz bertzerik ere bada», *La Voz de Navarra,* 1934-I-27, Larreko.
— «Egun ene aldi», *La Voz de Navarra*, 1934-II-1, *Larreko.*
— «Ai, ei, ai, eta miletan ai», *La Voz de Navarra,* 1934-II-8, Larreko.
— «Nola egin euskaraz? dakizun bezala», *La Voz de Navarra,* 1934-II-15, Larreko.
— «Ala ere ni aren alden», *La Voz de Navarra,* 1934-II-23, Larreko.
— «Euskaraz ikasten ari direnentzat», *La Voz de Navarra,* 1934-II-28, Larreko.
— «Misioak», *La Voz de Navarra,* 1934-III-9, Larreko.
— «Euskara il urren», *La Voz de Navarra,* 1934-III-16, Larreko.
— «Miss Nabarra: zer pena!», *La Voz de Navarra,* 1934-III-16, Larreko.
— «La vida del euskera», *El Día,* 1934-III-18, Larreko, EPL.
— «Ni beti gaiketa», *La Voz de Navarra,* 1934-III-22, Larreko.
— «Gaur ortzegun saindua», *La Voz de Navarra*, 1934-III-29, *Larreko.*
— «Euskaraz edo erdaraz», *La Voz de Navarra,* 1934-IV-5, Larreko.
— «Gaur ortzeguna ene aldi», *La Voz de Navarra,* 1934-IV-12, Larreko.
— «Ereneguneko ene uts egitea», *La Voz de Navarra,* 1934-IV-21, Larreko.
— «Euskaraz ala erdaraz», *La Voz de Navarra,* 1934-IV-26.
— «Euskaraz ala erderaz?», *Euzkadi,* 1934-V-1, Larreko, EPL.
— «Eritegiko sendazale arrotzak», *La Voz de Navarra,* 1934-V-3, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna*, 1934-V-11, Larreko, N.
— «Gaur ene aldi», *La Voz de Navarra,* 1934-V-18, Larreko.
— «Agur, ene aldi», *La Voz de Navarra,* 1934-V-24, Larreko.
— «Eztabaidak xuritzen edo naasten», *Euzkadi,* 1934-VI-05, Larreko, EPL.
— «Eztabaidak xuritzen edo naasten», *La Voz de Navarra,* 1934-VI-05, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1934-VI-8, Larreko, N.
— «Saraizuar euskalduneri agur. Biar igande Euskararen Adiskideak Sarazaizun», *La Voz de Navarra,* 1934-VI-23, Larreko.

— «Saraizuar euskaldune, agur», *El Día,* 1934-VI-27, Larreko, EPL.
— «Euskararen adiskideak Sarazaizun», *La Voz de Navarra,* 1934-VI-28, Larreko.
— «Saraizuar euskalduna, agur», *Euzkadi,* 1934-VI-29, Larreko, EPL.
— «Gogapen itsak: zergatik ote da?», *La Voz de Navarra,* 1934-VII-19, Larreko.
— «Gauden gu eskualdun», *La Voz de Navarra,* 1934-VII-27, Larreko.
— «Malerreka», *La Voz de Navarra,* 1934-VIII-2, Larreko.
— «Larru gorrian», *La Voz de Navarra,* 1934-VIII-9, Larreko, L.
— «Jondoni Loiolakoa eta Jondoni Xabierrekoa kantabertarrak», *La Voz de Navarra,* 1934-VIII-10, Larreko.
— «Artolajaunari», *La Voz de Navarra,* 1934-VIII-16, Larreko.
— «Gaur ene aldi», *La Voz de Navarra,* 1934-VIII-23, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1934-VIII-24, Larreko, N.
— «Gaur ene aldi», *El Día,* 1934-VIII-28, Larreko, EPL.
— «Gaur ene aldi», *La Voz de Navarra,* 1934-VIII-30, Larreko.
— «Gaur ene aldi», *El Día,* 1934-IX-1, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Euzkadi,* 1934-IX-5, Larreko, EPL.
— «Berriz ere ene aldi», *La Voz de Navarra,* 1934-IX-13, Larreko.
— «Gaur ene aldi», *La Voz de Navarra,* 1934-IX-20, Larreko.
— «Gaur ene aldi», *La Voz de Navarra,* 1934-IX-27, Larreko.
— «Erreka baten edo urbide baten zabalak: ba ote du orren indar andia?», *El Día,* 1934-IX-29, Larreko, EPL.
— «Itz sakonak», *Euzkadi,* 1934-IX-29, Larreko, EPL.
— «Gaur ene aldi: gu baitara bea», *La Voz de Navarra,* 1934-X-4, Larreko.
— «Gaur ene aldi: gu baitara bea», *El Día,* 1934-X-5, Larreko, EPL.
— «Gutun ederra», *El Día,* 1934-XI-4, Larreko, EPL.
— «Gutun ederra», *Argia,* 1934-XI-11, Larreko, EPL.
— «Nafarroako gobemadore jaunari», *El Día,* 1934-XII-2, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1934-XII-21, Larreko, N.
— «Euskaldun ona euskaldun», *Gure Herria,* 1934, Larreko, L eta NEI.

1935

— «Bertsolariei, biotzez agur», *Argia,* 1935-I-20, Larreko, EPL.
— «Nere biozminaren andia!», *Eskualduna,* 1935-III-8, Larreko, N.
— «Gure neskatxa ederreri, agur», *Argia,* 1935-III-24, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1935-IV-19, Larreko, N.
— «Mutrikun», *Argia,* 1935-V-5, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1935-V-17, Larreko, N.
— «Naparroa», *Euzkadi,* 1935-VI-11, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1935-VII-19, Larreko, N.
— «Zer ortan gaude?», *Euzkadi,* 1935-VIII-8, Larreko, EPL.
— «Panticosatik», *Argia,* 1935-VIII-11, Larreko, EPL.
— «Panticosatik», *Euzkadi,* 1935-VIII-14, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Euzkadi,* 1935-IX-4, Larreko, EPL.
— «Lauaxeta idazle apañari», *Euzkadi,* 1935-IX-10, Larreko, EPL.
— «Naparroa», *Euzkadi,* 1935-IX-27, Larreko, EPL.
— «Gaur goizean Huartera», *La Voz de Navarra,* 1935-IX-29, Larreko.

— «Euskara garbia, zer da?», *Euzkadi,* 1935-X-6, Larreko, EPL.
— «Eskualdun berrieri itz bat», *La Voz de Navarra,* 1935-X-15, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1935-X-18, Larreko, N.
— «Kristo errege», *La Voz de Navarra,* 1935-X-27, Larreko, L.
— «Arana'tar Sabin zena», *La Voz de Navarra,* 1935-XI-24, Larreko, L.
— «Monzonjaun euskaldunari», *La Voz de Navarra,* 1935-XII-1, Larreko, L.
— «Monzonjaun euskaldunari», Argia, 1935-XII-1, Larreko, L.

1936
— «Urte berriari», *La Voz de Navarra,* 1936-I-1, Larreko.
— «Bertsolarieri agur», *La Voz de Navarra,* 1936-I-12, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1936-I-31, Larreko, N.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1936-II-7, Larreko, N.
— «Mendixuri maiteari biotzez», *La Voz de Navarra,* 1936-II-9, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1936-II-21, Larreko, N.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1936-II-28, Larreko, N.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1936-III-13, Larreko, N.
— «Misioak euskaraz eta erdaraz», *La Voz de Navarra,* 1936-III-17, Larreko.
— «Nere biozminaren andia», *La Voz de Navarra,* 1936-III-19, Larreko.
— «Misioak euskaraz», *Euzkadi,* 1936-III-19, Larreko, EPL.
— «Pro euzkera, leen baño otzago», *Euzkadi,* 1936-III-20, Larreko, EPL.
— «*La Voz*-eko zuzendari jaunari», *La Voz de Navarra,* 1936-IV-5, Larreko.
— «Ortzirale sainduko ene otoitza», *La Voz de Navarra,* 1936-IV-10, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1936-IV-24, Larreko, N.
— «Argiaren amabostgarren urte mugakari», *Argia,* 1936-IV-26, Larreko, EPL.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1936-V-1, Larreko, N.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1936-V-15, Larreko, N.
— «Monzon'tar telespor jauna, nor da?», *La Voz de Navarra,* 1936-V-17, Larreko.
— «Bea uni: katoliko ariketan», *La Voz de Navarra,* 1936-V-19, Larreko.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1936-V-29, Larreko, N.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1936-VI-19, Larreko, N.
— «Nafarroatik», *Eskualduna,* 1936-VII-17, Larreko, N.

1937-1949 (bere unean argitaragabekoak)
— «Erronkariko uskaraz», Larreko, PNC eta L.
— «Apendizitis eta urdail zulatzea», PNC eta L.
— «Edarikoia», PNC eta L.
— «Sendalari baten argiak», PNC eta L.
— «Larreko euskaraz ikasten», Larreko, *Diario de Navarra,* 1969-VII/VIII, L eta NEI.
— «Ijitotxua», *Fontes Linguae Vasconum,* 1980, L.
— «Alliko arpe-zuloen agerraldia», NEI-l.
— «Soubelet jaun idazle argiari», Larreko, L.
— «Eskual Ikaskuntzako jaun andieri», Nafarroako euskaldun xahar bat, L.

LABURPENA

Pablo Fermin Irigarai *Larreko*: Nafarroako euskal kazetaritzaren aitagoia

Fermin Irigarai, *Larreko* (Auritz, 1869-Iruña, 1949) idazle eta medikuaren bizitza eta obra aztertzen ditu artikuluak. *Eskualduna*, *Gure herria*, *Euskal-esnalea*, *Euzkadi*, *La voz de Navarra* eta *Napartarra* bezalako aldizkari eta egunkarietan argitaratu zuen bere obra. Astero *Eskualduna* aldizkarian idazten zituen kronikek kazetaritzako estilo berri baten oinarriak ezarri zituzten.

Gako-hitzak: Fermin Irigarai; Larreko; Nafarroa; kazetaritza; euskal literatura.

RESUMEN

Pablo Fermín Irigaray *Larreko*: el patriarca del periodismo vasco en Navarra

El artículo realiza un análisis de la vida y obra del escritor y médico Fermín Irigaray *Larreko* (Auritz/Burguete 1869-Pamplona, 1949). Publicó su obra en revistas y periódicos como *Eskualduna*, *Gure herria*, *Euskal-esnalea*, *Euzkadi*, *La voz de Navarra* y *Napartarra*. Las crónicas que escribía cada semana en la revista *Eskualduna* sentaron las bases de un nuevo estilo periodístico.

Palabras clave: Fermín Irigaray; Larreko; Navarra; periodismo; literatura vasca.

ABSTRACT

Pablo Fermin Irigarai *Larreko*: the founding patriarch of Basque journalism in Navarre

The article analyses the life and work of the writer and doctor Fermin Irigarai, *Larreko* (Auritz/Burguete 1869-Pamplona, 1949). Irigarai published his work in magazines and newspapers such as *Eskualduna*, *Gure herria*, *Euskal-esnalea*, *Euzkadi*, *La voz de Navarra* and *Napartarra*. The chronicles he wrote every week in the magazine *Eskualduna* laid the foundations for a new journalistic style.

Keywords: Fermin Irigarai; Larreko; Navarre; journalism; Basque literature.

Nafarroako euskal idazle handi bat: Manezaundi*

Joxemiel BIDADOR

1. ENRIKE ZUBIRI[1]

Zubiri margolaria. 1979ko abuztuaz geroztik Iturrama auzategiko karrika bati izena ematen diona, Donibane-Garazin sortu zen l868ko abuztuaren 31an[2], nahiz jaio bezain laster Luzaidera eraman eta hantxe bataiatu Enrike Ramon izenez. Gurasoak, ordea, ez ziren luzaidarrak; ama Apolinaria Andresa Gortari Artiedakoa zen, goiz erdaldunduriko eremukoa hortaz[3], eta aita Jose Joakin Zubiri hurbil xamarreko Bizkarreta-Gerendiaingoa zen, Erroibarkoa beraz. Manezaundiren aita koronel karlista izan zen, Karlos VII. erregegaiaren aginduen laguntzailea. Aitona ere, Juan Bernardo Zubiri Espinal (Bizkarreta-Gerendiain, 1792-1866), militar karlista izan zen, Zumalakarregiren aginduetara Nafarroako 4. erregimentua eraman zuena, eta 1836an brigadier kargua eskuratu zuen Plentzian zaurituta gertatu ostean; Bergarako itunaren ostean erbestera joan zen eta ez zen etxera itzuli 1849ra arte.

* A. Barandiaran (ed.), *Euskarazko kazetaritza: gogoetak, esperientziak eta analisiak*, 65-74.

1 M. Antoñana Abalos, «Enrike Zubiri Manezaundi: zenbait artikulu», *FLV,* 69, 1995,337-361 or.; A. Irigarai, *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca,* Iruña, Príncipe de Viana, 1958; *idem*, «La obra literaria de Enrique Zubiri», *PV,* 108-109, 1967, 277-282 or.; R. M. Pagola, *Enrike Zubiri «Manezaundi»,* Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2003, Bidegileak bilduma 31; J. de Riezu, «Dos cartas de Enrique Zubiri Manezaundi al P. Donostia», *FLV,* 21, 1975, 389-392 or.; J. M. Satrustegi, «Enrique Zubiri Manezaundi, el hombre y el escritor», *PV,* 108-109, 1967, 283-288 or.; E. Zubiri «Manezaundi», *Artikulu bilduma, Bilbo,* EEE-Labayru, 1990, Rosa Miren Pagolak apailatua.

2 Horrela jasotzen du bere bataio agiriak behinik-behin. Datu honen berri in M. Antonana Abalos, *op. cit*.

3 Bere kolaborazioren batean edo bestean Manezaundik zioen euskara amaren magalean ikasi zuela, beti ere eta ez bada formula literario soila. Edozein modutan Bonaparteren mapetan Artieda erdaldunduriko zonaldean agertzen da, jada ahul zegoen hegoaldeko goi-nafarreraren berdexka apalaren ondo-ondoan.

Bederatzi haurridetan azken aurrekoa genuen Enrike[4]. Lehenbiziko ikasketak Luzaiden eta Donibane-Garazin egin zituen. Margoketarako zeukan zaletasuna kontuan harturik, Iruñeko Arte Eskolan sartu zen 18 urterekin. Marrazkilari dohaiak *La Ilustración* aldizkarian agertu zituen hiriko ospakizunen karietara, eta artista ona izateko gaitasuna aisa atzeman ziotelako edo, marrazketa irakasle zeukan Eduardo Carcellerrek eskaturik Aldundiak beka eman zion Madrilgo San Fernandoko Eskolan arte ederrak ikas zitzala. Formazio urteak Madrilen bukatu bezain fite Iruñera itzuli zen eta Arte Eskolan jardun zuen irakasle 1895etik 1941era, kopia eta marrazketa katedraduna hain zuzen. Alor honetan Enrike Zubirik neurriko arrakasta uztatu zuen Iruñean, hiriko erretratugile ofiziala hala edo nola izan zelako, eta nabarmentzen berebiziko gustua hartzen ez bazuen ere sariketaren batean hartu zuen parte. 1919an irabazi zuen Sanferminetako kartel lehiketa berbarako, baita erakusketaren bat edo beste paratu ere. Erretreta hartu ostean lanera joaten jarraiki zuen, harik eta 1943ko abenduaren 20an zendu zen arte.

Honetan interesatzen zaiguna, alabaina, ez da margolaria, idazlea baizik, Manezaundi ezizenaren atzean izkutatzen zena alegia. Dirudienez, gazte zela hasi zen idazten, baina tamalez prentsan agerturikoaz gain ez zaigu beste deus ere iritsi. Lehenbiziko lanak neska-lagunari eginiko poemak omen ziren, baina honen heriotz goiztiarrak eta horren ondorioz nozitu zuen misoginiak Manezaundi poeta galarazi ziguten. Geroxeago, Primo de Riberaren diktaduran indarrean jarri zen euskaraz argitaratzeko debekuak nabarmen atzeratu zuen Manezaundiren lanen agerpen publikoa. Azkenik, 36ko gerratean nagusitu zen beldur justifikatuak eskuizkribu asko erretzera eroan zuen Manezaundi. Hortaz, eta esan bezala, egun ezagutzen ditugun Manezaundiren idazki bakarrak orduko prentsan agertarazikoak dira, Iruñeko *La Voz de Navarra,* Donostiako *El Día,* Bilboko *Euzkadi* eta Baionako *Eskualduna.*

EAJ-an afiliaturik, idazkietan aisago topa liteke Manezaundiren ideologia margolanetan baino, nahiz ezin den ahantzi Gamazadan parte hartu zuten diputatuak erretratatu zituela eta bere lanetako batzuk Iruñeko batzokiaren hormetan zeudela, Ziga lagunaren beste koadro zenbaiten ondoan. Ikasturtean zehar Zubiri Iruñean geratzen bazen ere, udako oporraldiak Luzaiden igarotzen zituen Manezaundik. Luzaiden bada harrapatu zuen gure idazlea 36ko altxamenduak, eta hantxe geratu zen gerrateak iraun zuen bitartean, zer gerta ere. Iruñera atzera itzulitakoan ezer ez zen lehen bezala izanen, eta beste euskal idazlerekin gertatu antzera, Manezaundi ere betiko isildu zitzaigun eta ziguten. Horren adibide dugu orduko prentsa frankistak bere heriotzaren berri eman ez izana, nahikoa izan ez zena, ordea, San Nikolasko elizan egin zen hileta ezin jendetsuago izateko.

4 Anaia-arrebetan bosgarrena zen Migel Donostiara ezkondu zen ela bere semea Xabier filosofo ezaguna izan zen.

2. MANEZAUNDIREN LAN IDATZIAK

Manezaundiren lan galduak berreskuratzea zaila den arren, bada oraino zer ikerturik luzaidarraren lanen inguruan. Hasteko bere lan guztien zerrenda sistematikoa egin behar da, non agertu ziren, noiz eta nola, izan ere, askotxo baitira alderdiaren argitalpen ezberdinetan errepikatu zituen testuak, lehenbizi Iruñeko egunerokoan eta beranduxeago Donostiakoan edota Bilbokoan. Bestalde, beharrezkoa egiten zaigu, nola ez, erdaraz agerturiko lanen zerrenda. Askotxo izan ziren kolaborazio horiek, eta oraindik ez da erdal idazlearen aldarrikapena egin. Aunitz artikuluen gaia artea izan zen, baina beste zenbaitena euskara bera genuen, erabili beharreko euskara literarioa edo eredua alegia, eta hauetan zioena ezin interesgarria gertatzen da egun euskararen estandarizazioaren historian Nafarroako egilek izan zuten ekarpena zehazteko.

Manezaundiren lanen lehenbiziko bilduma Aingeru Irigaraik egin zuen 1958 goiztiar batean, Nafarroako Foru Diputazioaren barruan eratu zen Euskararen Aldeko Sailak aterbetu lehenbiziko lanetakoa izanik. Irigarairen lan klasiko hura *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca* izan zen, eta horretan Larrekoren kolaborazio gutxi batzuekin batera Manezaundiren 29 artikulu bildu zuen Berakoak. Harrigarria dateke semeak lan gutxiago jasotzea aitarenak Manezaundirenak baino, bederatzi osotara. Arrazoiak bilatzen hasita zera aipa liteke: Larrekoren semea izatetik letorkiokeen modestia, besterik gabe Manezaundiren lana gehiago baloratzea, beharrezkoagoa ikusi Manezaundiren jasoketa aitarena baino, edota hurbilago sentitzea Manezaundirengandik aitarengandik baino, bai euskara aldetik bai pertsona aldetik; seguraski denetik zerbait bazen.

Irigarairen lanari Rosa Miren Pagolak apailaturiko *Artikulu bilduma* batek jarraiki zion 1990ean, Euskal Editoreen Elkarteak egina honezkero gogoangarria den bilduma batean; aunitz urte idazle on baten oroitzapena izekirik iraunarazteko[5]. Osotara 132 kolaborazio bildu zuen Pagolak bere liburuan, eta egun interneten daukagu esekirik hemerotekan Susakoei esker. Mariam Antoñanak *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian ohiko bildumetan jaso gabe geratzen ziren beste artikulu zenbait ekarri zituen, *La Voz de Navarra, Amayur* eta *Argia*-ren egutegian agerturik, hala nola Eusko Ikaskuntzako Pedro Garmendiari igorririko gutun pare bat. Bilduma, ordea, ez dago guztiz osoturik. Neuk, Iruñeko hemeroteka erabiliz, aipatu bilduma hauetan jaso gabe dauden artikulu pare bat jaso nituen nire *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1930-1936)* testu antologian[6]. Berrikiago, eta sarean dagoen [hemeroketa.com] erabiliz, *El Día*-n agerturiko hirugarren kolaborazio bat idoro dut, honetan atxeki duguna. Hortaz, Manezaundiren idazkintza osoro ezagutzeko beharrezkoa da garaiko argitalpen guztiak sakonkiago ikusi eta hobe aztertzea. Hortxe geratzen da lan polit bat lan gogo baina galduta dabilen filologia ikasleren batendako.

5 Gogoan dut karreran nengoelarik, irakasle bati Manezaundiri buruzko lana egiteko proposatu niola, eta hark ezetz, agindutakoa egiteko; ez dakit Manezaundi ezagutzen zuenetz.

6 Iruñeko Udala, 2003, 275-277 or.

3. EUSKARAREN INGURUKO EZTABAIDA: MANEZAUNDIREN EKARPENA

Erderaz agertu zituen kolaborazioetan, Manezaundik ez zuen eragozpenik irakurle erdaldunaren aurrean ezin euskaltzaleago agertzeko. «El idioma vasco» izenekoan, 1932ko ekainaren 11an, *La Voz de Navarra*-ren azalean honela zioen:

> Hemos de contestar a los que desconociendo la lengua eskuara le niegan la riqueza de voces con la más lamentable ligereza, relegándola a la categoría de pobre dialecto de montañeses iletrados, carente de los matices de expresión de los idiomas cultos.

La Voz de Navarra-ren ideologia jeltzalea gauza jakina bada ere, ezaguna ere bada nola egunkariaren egileek ez zutela sobera nabarmen utzi nahi paperaren ildo ideologikoa, eta hortaz, sekularenean ez zutela alderdi jeltzalearen programa ozenki aldarrikatu, berdin euskarari zegokionean ere. Horixe izan zen arrazoia bigarren errepublikaren garaian *Amayur* astekaria sortzeko, irakurle sutuagoen barrena asegarri. Hori zela eta, Manezaundiren hitzok ez ziren irakurle jeltzaleentzako bakarrik agertu, ezpada irakurleri zabalago batentzako, eta maila horretan, berebiziko garrantzia hartzen zuten euskararekiko jarrera hobetze aldera, finean, hizkuntzaren normalkuntzarako lehenbiziko urratsak emateko.

Manezaundiren euskara herrikoi definitu ohi da, baina ezin ukatuzkoa da zerabilen baxenafarreraren gainean haratago zihoan euskara erabili zuela, modernoa, literarioa eta artistikoa, landua, aberatsa, depuratua. Huraxe izan zen Manezaundiren aukera pertsonala estandarizazio faltaren aurrean. Manezaundik ez zion uko egin baserriaz mintzatzeari, baina ez zuen egin nahi izan baserriko hizkera soilaz, eta hauxe da arrazoia hizkuntzaren berritzaileetakotzat jotzeko.

Manezaundiren aukeren artean ez zegoen alderdikide askoren euskara garbizalea, Nafarroan ere arrakasta izan zuena. Pentsa bedi, bestenaz, Saturnino Ibarrola batek 1912rako *El Eco de Navarra*-n plazaraturiko eredua huraxe zela. Agerretarrek eta Tapia Perurenak, besteak beste, horren bidetik ere jo zuten, neurri batean, euskaldunberri jeltzaleen aukera hauta horixe baitzen. Erabili beharreko euskara estandarraren inguruko eztabaidak Nafarroan ere bere tokia izan zuen, ez bakarrik errepublika garaian, baita XIX. mende bukaeran ere, euskaroen artean. Horren adibidea Eratsun eta Legatz idazleen arteko eztabaida ortografikoa dugu. XX. mendearen lehenbiziko herenean, aldiz, erabilitako argumentuak bestelakoak ziren, funtsean aipaturiko jeltzale garbizaleek eta euskara herrikoiaren aldekoek baliatu zituztenak. Euskara herrikoiak gurean izan zituen defendatzailerik sutsuenak Larreko eta Manezaundi izan ziren. Lehenbizikoaren kasuan hartzen ohi zuen jarrera umilak ez zion ematen berebiziko autoritatea; ohikoa zen Larrekoren idazkietan deskarguzko hitzak eta euskara galdu ostean euskaldunberri izaerari leporatzea usu samarrean egiten zituen okerrak. Manezaundiren kasuan, ordea, baxenafarreraz jardukitzeak zemaion harrotasuna begibistakoa zen idazki guztietan. Ereduaren inguruko eztabaida, ordea, ez zuen beti euskaraz egin, eta badira Manezaundik sinaturiko erdarazko kolaborazio mamitsuak, tamalez horren ezagunak ez direnak, baina luzaidarraren iritziez askotxo argitzen dutenak, zenbaitetan euskaraz eginikoek baino gehiago argitzen ez badute behinik-behin.

1932ko martxoaren 3ko *La Voz de Navarra*-ren azalean «Unificación del euskara navarro» izenburu argigarriko kolaborazioa agertu zuen. Egun oso onargarriak ez ziren arrazoiak erabiliz, Iruñeko euskara galduaren eite baxenafartarraren alde egin ostean, honela zioen batasunaren aferaz:

> Hoy que tan asombroso movimiento pro euskera se ha desarrollado, sería el momento oportuno de iniciar la unificación del euskara navarro, lo cual no había de ser de grandes dificultades y no hace falta remarcar la trascendencia que había de tener empresa de tal envergadura para el porvenir de nuestra lengua y que como decimos, es de consecución relativamente fácil.

Baina, nola lortu batasuna?:

> El trabajo de la unificación más bien había de consistir en la aportación al euskara aquende navarro del nutridísimo léxico del de el otro lado del Pirineo para enriquecerlo y elevarlo,

izan ere:

> Está fuera de toda duda que aquel euskera navarro es el más culto, el más literario, el que expresa mejor conceptos abstractos. Las más antiguas obras vascas nacieron allí, la literatura se cultiva intensamente desde tiempos muy anteriores a los del actual renacimiento.

Bestalde, eta Saroihandiri jarraikiz, Manezaundiren ustetan Lapurdin jada ez zen lapurteraz egiten, ezpada baxenafarreraz, eta hortaz:

> Siendo el euskara navarro el que abarca la más vasta zona de euskaldunes de Euzkadi, qué magnífica labor había de ser la unificación de todas las diversidades navarras, que no son esenciales, sino accidentales, para formar un euskera navarro perfectamente homogéneo, un cuerpo robusto en el que había de nutrirse y saturarse el alma de esta admirable juventud vasca pujante de dinamisno, fogosos heraldos del renacimiento racial.

Baxenafarreraren aldeko apustu hau behin baino gehiagotan utzi zuen agerian; gorago aipatu «El idioma vasco» izenburukoan honela errepikatzen zuen:

> Los traspirenaicos son los maestros indiscutibles en el manejo de la lengua a la vez que poseen el más rico vocabulario, el bajo navarro, extendido desde Valcarlos hasta la costa.

Bestalde ere, Manezaundi aurreratu zen hainbat gaietan, berbarako <h> hizkiaren ingurukoan, geroago horren sonatua izanen zena, eta bere kasuan, iparraldeko eredua hegoaldean defendatzetik zetorkion gauza izaki. Eta oroit bedi Manezaundi ez zela gramatikalaria, ez linguista edo filologoa, formazioz behinik-behin, eta berak lantzean behin oroitarazten zuen bezala. Aipatu <h> hizkiaren gaia *La Voz de Navarra*-n, azalean

beti ere, bi kolaborazioetan xehetu zuen, 1932ko apirilaren 28ko «La h aspirada» eta 1933ko maiatzaren 28ko «La obsesión de la h» idazkietan. Eskertzen zion Irular lagunari, hau da, Aingeru Irigarairi, Manezaundik berak proposaturiko zenbait kontu linguistiko hark onartu izana, baina bereziki arrenguratzen zuen luzaidarra Irularrek <h> hizkiaren inguruan zeukan iritziak. Manezaundiren ustez iparraldeko idazleek <h> idazten zutenean beti egiten zuten hiztunak esandakoa transkribatze aldera, eta ez kapritxoz. Aipatzen zuen Manezaundik hegoaldeko euskaldunek iparraldekoek ahoskatzen zuten soinu hori atzemateko zinez zeuzkaten zailtasunak. Eta azkenik, hainbat hitz pare ematen zituen non <h> hizkiak esanahiak ezberdintzeko baliagarria zen: ori/hori, ura/hura... Bestalde, hegoaldeko eta iparraldeko euskaldunen arteko aldea nabarmentzen zuen iparraldekoen nabarmen alde, eta ez bakarrik <h> hizkiaren kontura:

> A nosotros, los vascos bajo-navarros, nos parece que el euskera sin haches, sin aspiraciones, es seco, duro, por carecer de esa especie de lubrificante que suaviza y eufoniza la pronunciación [...]. El vasco peninsular padece una verdadera ofuscación en cuanto a la hache aspirada se refiere. No la puede tolerar. Le es tan antipática como a un castizo castellano, del que indudablemente ha heredado la aversión tenaz. Cree que en todos los casos es caprichosa, que no es el signo gráfico de un sonido, que es ajena al genio del idioma. [...] Otra de las vulgaridades en uso es la de que el euskera del otro lado del Pirineo está plagado de voces francesas [...]. A nosotros los vascos de tras los montes nos van a pemitir también manifestar lo que allí dicen y piensan del euskera cis-pirenaico y de lo que significa la proscripción absoluta de la hache aspirada. Creemos allí que los vascos meridionales o peninsulares no son tan íntegros como nosotros [...]. Cuando en Benabarre oyen hablar a un vasco peninsular, de cualquier región que sea, les ocurre pensar si estarán ante un extraño a la raza que parla un euskera deficiente y torpe, que contrasta con la fluidez y flexibilidad del de aquellas regiones.

Finean, eta argiroegi aipatzen ez bazuen ere, Manezaundik nekez onar zezakeen Arana-Goirik proposaturiko eredu ortografikoa, neurri batez berauk ere zerabilen arren. Bere ustez, mendeetako literatura klasikoak, eta huraxe Iparraldekoa zatekeen soilik, markatu behar zuen erabili beharreko bidea, Akademiak kontrakoa esanagatik ere:

> Es insensato atrevimiento tratar de abolir la ortografía de las obras de Echepare y Axular escritas hace más de tres siglos y medio y cuyo euskera es idéntico al que hoy hablan y escriben los vascos de aquel país, heredado de aquellos. Una intolerable profanación que allí jamás será consentida.

Eta ataka hartan, haustura bazen azkenean agitu zen bezala, Manezaundik egin zuen hautua Lafitteren ereduaren aldekoa zen. Tamalez, eta Luzaideko baxenartar izanik ere, 36ko gerrateak pisuegi bide zitzaion Manezaundiri, ixiltzeraino, eta Iruñean geraturik, adio nafar-lapurteraren idazle handi izan zitekeenari.

Ortografiazko azken kolaborazio hau agertu baino hiru bat hilabete lehenago, Manezaundi Iruñeko prentsa jeltzalearekin zuen parte hartze naroa bertan behera uztekotan egon zen hainbat euskaldun berrirekin izaniko eztabaida lakar batengatik. Ezagututa

Manezaundiren hizkera suharra, inor ez zen harrituko *Varios euskaldun berris* sinaduraren azpian «Sobre euskera» kolaborazioa 1933ko otsailaren 17ko *La Voz de Navarra*-ren 8. orrialdean, eta ez azalean, agertu zenean:

> Hemos leído, sin gran asombro, las apreciaciones de Manezaundi sobre el euskaldun berri. Acostumbrados a las voces de aliento de dicho señor y también a sus consejos, no hemos abstenido, por lo que a nosotros afecta, de escribir en euskera para los periódicos. Pero son tantos y tantos los osados euskaldun berris que llenan diariamente las columnas de *La Voz de Navarra* que se hacía necesario el palmetazo a los atrevidos discípulos.

Ez zuen, agidanean, Iruñeko euskaldun berrien izkiriabide arrantsua pairatzen abal Manezaundik. Ezin ukatuzkoa da errepublika garaiko Iruñe hartan euskaraz ikasten zuten gehienak jeltzaleak zirela, eta ideologikoki garbizalekeriaren iturritik edanen zituzketela haien euskara hasi-masiak. Agerretarren euskarari errepara bekio bestela, eta pentsa bedi Joxe Agerre euskaltzaina izan zela, laburki bada ere. Manezaundi, ordea, eta euskal irakurle gehienek estimatua zutelako segurtamenean egonagatik, ez zen akademiatik osoro hurbil, eta bestela ere kritiko agertu zen inoiz Euskaltzaindiak eman urratsekin, gorago ikusi bezala. Zentzu horretan, ez zatekeen ustekabekoa Manezaundik euskaraz idazten eta prentsan argitara ematen hasten ziren horiek gogorki kritikatu izana. Alta, seguruenik ere inor gutxik espero ez zukeena, euskaldun berri batzuen erantzuna genuke, are gutxiago Manezaundiri zuzenduriko tonu kritiko eta erasokorra:

> No creemos que sea la labor más fructífera para el euskera la del euskeldun que encastillándose hermético dentro de su dialecto localista ofrece epatante palabras nuevas a la admiración de los lectores tomándolas a su juicio del más rancio euskera, cuando en realidad son del caló gitano, como por ejemplo *marruna* por marido, y que en cambio por ese mismo hermetismo localista desconoce la existencia, o por lo menos la suplanta, del vocablo *nekazari*, empleando aunque se use la de *laborari* de fuente latina. El leer un semanario no da patente de académico ni da derecho a poner el paño al púlpito con un exclusivismo poco simpático como lo son todas las exclusivas y monopolios, máxime en las ramas del saber.

Euskaldun berri batzuek bere izenez aipatu nahi ez duten astekaria *Eskualduna* da, Manezaundik bere izkribuetan behin baino gehiagotan eredutzat aipatzen zuena. Argi dago lerrootan egosten dena Manezaundik baxenafarreraren alde egin aukera eta lana ez onartze saioa dela. Euskaldun berri horiek bazuten haien aukera egina beste euskara baten alde, eta geratzen zitzaien aukera bakarra Manezaundiren aitapontetasuna eta agintego moralaren aitzinean erasoa zen. Konparazio zakar bat eginez, euskaldun berrien hitzetan Las Hurdesko baserritar batek gazteleran akademikoa den ingeles batek baino airoskiago mintza badaiteke ere, nekez eman diezazkioke hizkuntzari buruzko azalpenak. Garai horretan idazle zebiltzaten izenik sendoenak, Larreko, Manezaundi, Arburua..., guztiak bat zetozen herriko euskarari ematen zitzaion garrantzian. Larrekok berak askotan aipatu zuen euskara jatorrena Baztango bordarien artean entzuna eta ikasia zuela. Euskaldun berri hauek, maisu euskaldun berriak zituztenak, ezin zuten halakorik onartu, eta honela gogorarazi zioten luzaidarrai:

> ¿Es que por no haber nacido en zona euskeldun hemos de rechazar sistematicamente los escritos euskericos de don Arturo Campión, de Arrigarai, José Agerre, etc., y hemos de aceptar como modelos de dicción las cartas de los corresponsales euskaldunes? Pues no es poco ingrata la labor en los periódicos del redactor encargado de enderezar, corregir, cortar y pulir los escritos de aquellos para vestirlos decentemente antes de salir a la calle. Nosotros, a escoger, nos quedamos con los escritos de los primeros [...]. Respecto a la construcción, seguimos las instrucciones que en su día nos diera magistralmente nuestro querido profesor señor Aranzadi.

Campionek euskara klaseak eman zituen lruñean bulta laburrez 1903 inguruan. Arrigarai, Celestino Peralta Caparrosoko kaputxinoak, *Euskara irakaspidea* izenburuko euskara ikasteko liburuaren egilea zen, 1919an atera zena, *Gramática del dialecto guipuzcoano;* liburu honek bigarren edizio bat izan zuen 1932an, Ataungo Bonifaziok egina. Agerrek euskara klaseak eman zituen alderdiaren Euskal Etxean 1913az geroz eta baita bere etxean ere, Tapia Perurenak egin zuen bezala; Agerrek iragartzen zituen klaseak Iruñeko prentsa jeltzalean, eta garaiz kanpo badago ere, aipa dezagun gerra ostean ere euskara klaseak eman zituela bere etxean Poliglos izeneko akademia domestikoan. Jesus Arantzadi Irujo Nafarroako Aldundiak 1922an magisteritza eskolan ezarritako euskara katedraren arduraduna izan zen. Lauak euskaldun berri, hiru euskaltzain, hiru iruñar, eta guztiak idazle ezagunak bere garaian.

Ez zuen Manezaundik euskaldun berri haien hitzak sobera ongi hartu. Gogoratzen zien inor *localista* izatekotan haiek zirela, gipuzkeraz idazten zutelako, izan ere, berauk baxenafarreraz egiten baitzuen, Iparralde osoko eta Nafarroako hainbat tokitako euskara zatekeena. Bestalde ez zuen onartzen hiztegiaz leporatzen ziotena, eta horretan arrazoi zerbait bazuen luzaidarrak:

> De modo que según ustedes son palabras nuevas, epatantes, para admirar a los lectores, y además del caló gitano, las tan corrientes en Benabarre como *Ilerri, Atsalaskari, Yauzi*, etc., y que ustedes los guipuzcoanizantes dicen *camposantua*, *meriendua* y *saltua*. De modo que en lugar de serles agradable hallar palabras nuevas euskéricas les molesta y me llaman epatante.

Manezaundiren erantzuna gogorra izan zen. Ordutik aurrera kolaborazio gehiago igorriko ez zuelako abisua ematen zuen. Manezaundiren hitzei erredakzioaren oharrak segitzen zion, eta aferan gehiegi sartu nahi gabe, *peor es meneallo,* arrenkiro eskatu zioten Luzaidekoari kolaborazioak bertan behera ez uzteko, asko baitziren irakurtzen zituztenak, tartean ere, euskaldun berri horiek. Berdin egin zuten beste idazle batzuek: Saraitzu aldeko lrur-lagunak, Anastasi Agerre, Larreko, honen anaia zen Juan Irigarai «Menditxuri», Campion... Euskaraz 1933ko otsailaren 28an ateratako «Ene adixkideeri» Manezaundik zuzentzen zituen bere hasierako asmoak, eta iduri goxoago agertu zigun:

> lrur lagunak, Agerre'tar Anastasi, Menditxuri eta Campion yakintsunak, alde batetik; horra berriz Gibel-aundi, Xerroxin eta lrular, galdegiten daukutenak yarraik nadin ene sailetan gure mintzairaren aldez. Milesker deneri bihotz zolatik. Nola atxik

> ene hitza izparringi huntan gehiago ez idaztekotan? Zuen oneziak eta amultsutasunak garhaitu nute, eta berriz abiaraziko naute eskuarazko lanttoetan, orai artio bezala [...]. Guazen beraz aitzina, sathorrak utzirik bere munutsetan.

4. MANEZAUNDIREN IDAZKI BILDUMA OSATZEN

Idatzi bezala, hona hemen ohiko bildumetan jaso gabe geratu den Manezaundiren kolaborazio bat.

Atsalaskaria musian (Baxenabarreko eskuaran)[7]

—Errak, Mattin, hea xekatzen ditugun bi lagun musian hartzeko. To hor dituk Pello eta Battitt.
—Nahi auzea gurekin musian yokatu atsalaskarin?
—Bai, ba, nahuzielaik. Eta ze yan behar dugu?
—Axuri erdi bat, untsa zauzea?
—Eni arras untsa, eta hiri Pello?
—Ba, gizona, hik nahukana, Battitt.
—Guazen ba.

Lauak mahian yarririk eta bi pinta aitzinetik galdeginik hasten dira gure gizonak karta emaiten, behatza mihian bustiturik, soberaxko lotzen baitziren, hainbeste eskutan ibili ondoan... Pello ohartzen da Battitten bi errege eta hogoita hamekaren kheinuez, eta erraiten dako:
—Juan behar duguia?
—Ni yuaitekoa nuk, Pello, pare xar batzu ditiat bakarrik.
—Mintza, mintza —dio Pellok eskuari.
Hau yoaiten da haundirat eta xarrerat, eta paretarat bothatzen du inbiro bat.
—Iduki —ihardesten dio Pellok.
—Yokua, yokua —diote bi alderdikoek.
Battit eskutik: —Phasa —dio, baitzakien bestiak ere hogoita hameka baziela.
Eta hunek: —Bost tantoz inbiro!
—Hamar tantoz inbiro —ihardesten du Battittak.
Bestiak: —Hordago!
Eta Battittak, idukitzian, lagunari eskia tinkaturik[8] erraiten dako irri haunditan: —To, axuri laurdena irabazi diauk.
Hasten dira berriz gaitzaleen ustean kitara[9]. Baña atsalde hartan dena bere alde du Battittak. Mattinek doi bat gaitzitua oihu egiten du: —Hordago haundirat!
—Bota —ihardesten du Battittak biphilki.

7 *El Día,* 1936-V-l. 7 or.
8 Apretar.
9 A la igualada.

Harek atheratzen ditu bi errege eta bi xango. Hunek bi errege, andere eta xango. Eta Mattinek paso[10] bat mahian emanik erraiten du: —To, leher eta zaphart in dezala sekhulan uste banu holako yokuarekin gal nezakeela eskutik.

—Nahi duka berriz has giten, Mattin?

—Ez, ez, hirekin ar banintza egun, sakhelako azken ardita gal nezakek.

—Hea, Juanaño, prest dea gure atsalaskaria? —erraiten dakote etxekanderiari.

—Ez, oono bultaño batetako baduzie. Gerenari tirrindilaka ari da neskatua, eta gaina urintzen uxter eta goxon athera dain.

—To, arthian yain dugu xingar eta arroltze, ez dea hala?

—Nahuzien bezala.

Eta etxekanderiak, kadera[11] batherat iganik, yausten du dilindan zuen xingar-azpi[12] eder ba! Xapla nasai batzu ezarten ditu zartainian, eta arroltziak beste bathian, gatz birbira bat emanikan.

—Debrien bisala —dio Pellok— holako usin goxo horien pafadak[13] ahoa bustitzen diak to, eta gosia phizten, hezurrak eta oro xehakatzeko prest nuk.

Aitzineko bi pintak husturik, lorian yartzen dira berriz mahian, neskatoak ekhartzen ditielaik xingar eta arroltziak.

—Gizona, Pello! Xaku hamikatu bat bezala lotzen hiz yakiari. Hail emeki, aseko duk hire zola gabeko sabel hori.

Yan eta edan, hala dabilelarik, horra nun agertzen den etxekanderia bere axuri erdiarekin, oso osoa eta azal gorritu goxo batekin.

—To, ekharrak aitzinetik giltxurrina, nik abamen goxo hori ez diat barkatzen —dio Pellok.

Eta hura iretsi ondoan, ezpain eta abo bazterrak urinduak, hartzen du axurki puxkha haundi bat eta hezurrak murtzikatzen ditu zakhur batek milikatzeko gutiziarik ez izaiteko gisan. Hain garbi uzten zituen, eta yakhina, arnoa yanari zohakon izarian, basoak husten zituzten ardura.

Azkenekotz ez dakigu ze sarthu zien Pellok bere barne handian, baina etxerat zoatzilarik ohartu ginen nola bi hurrats xuxen ezin eginikan ostaturat itzuli zuten adixkideak, gaua han phas zezan. Eta etzana, lo zurrungan zagolaik, ametsetan oihu egiten zien botz lodiarekin: –Berrehun tantoz inbiro! Hordago!

Iruñen, 1936ko yorrailan

10 Puñetazo.

11 Silla.

12 Pernil.

13 Tufillo.

LABURPENA

Nafarroako euskal idazle handi bat: Manezaundi

Enrike Zubiri Gortari, *Manezaundi*ren (Luzaide, 1868-Iruña, 1943) bizitza eta literatur lana aztertzen ditu artikuluak. XX. mendearen hasierako euskal idazle handienetako bat izan zen Nafarroan. Luzaideko euskalki behe nafarreran oinarriturik, Manezaundik idazten du euskara modernoan, literarioan eta artistikoan. Horrela eman zien irtenbide pertsonala bere behar literarioei, falta baitzuen horretarako hizkera egoki bat. Hizkuntza landua eta zehatza darabil. Haren obra gehiena 36ko gerraren hasieran erre zuten. Aldizkarietan eta egunkarietan argitaratutakoak besterik ez dira kontserbatzen.

Gako-hitzak: Enrike Zubiri Gortari; Manezaundi; Nafarroa; kazetaritza; euskal literatura.

RESUMEN

Un gran escritor vasco de Navarra: Manezaundi

El artículo realiza un análisis de la vida y obra literaria de Enrique Zubiri Gortari, *Manezaundi* (Luzaide, 1868-Pamplona 1943), uno de los grandes escritores navarros en lengua vasca de principios de este siglo XX. Sobre la base del dialecto bajo-navarro propio de Luzaide/Valcarlos, Manezaundi utiliza un euskara con vocación de moderno, literario y artístico; es su solución personal a la falta de un lenguaje adecuado a sus necesidades literarias, depurado y preciso. La mayor parte de su obra fue quemada en los comienzos de la guerra del 36, y solo se conservan los textos que publicó en prensa.

Palabras clave: Enrique Zubiri Gortari; Manezaundi; Navarra; periodismo; literatura vasca.

ABSTRACT

A great Basque writer from Navarre: Manezaundi

The article analyses the life and literary work of Enrike Zubiri Gortari, *Manezaundi* (Luzaide, 1868-Pamplona 1943), one of the greatest writers in the Basque language in the Navarre of the early 20th century. Manezaundi uses a modern-minded, literary and artistic form of the Basque language based on the Basse-Navarre dialect spoken in Luzaide/Valcarlos, his personal solution to the lack of a refined, precise language to suit his literary needs. Most of his work was burned at the beginning of the 1936 war and only the texts he published in the press have been saved.

Keywords: Enrike Zubiri Gortari; Manezaundi; Navarre; journalism; Basque literature.

El euskara en los medios de comunicación navarros durante el siglo XX

Incidencia de la ley del vascuence en la información*

Joxemiel BIDADOR

EL EUSKARA EN LA PRENSA NAVARRA HASTA 1939

La presencia del euskara en los medios de comunicación navarros tradicionalmente nunca ha revestido una importancia relevante, ni siquiera especialmente en aquellos medios propios del Partido Nacionalista Vasco que estaban llamados a ser los paladines de la vieja *lingua navarrorum*. Como suele ser habitual, aquí se ha trabajado más en el camino de las intenciones y de la justificación de los derechos que en el de la práctica real. Si reparamos en el empleo de la lengua vasca en la revista *Euskara* (1878-1883), publicación paradigmática en cuanto al tratamiento dado a la lengua vasca, nos veremos forzados a admitir su escasa utilización, ya que tan sólo un bajísimo porcentaje de sus páginas fueron publicadas en euskara, y esta será, tristemente, la tendencia habitual en los años posteriores. Una de las excepciones del XIX pudo ser la publicación de la revistica de Serafín Baroja *Bai jauna, bai* que apareció en Pamplona a partir del 1 de enero de 1883, la cual tras llegar a su sexto número, dejó de publicarse por no alcanzar el número suficiente de suscriptores. A este respecto hay que resaltar que ni el Ayuntamiento de Pamplona ni la Diputación de Navarra consideraron oportuno el suscribirse a la publicación del curioso donostiarra. Lo cierto es que además de la responsabilidad que pudieron adquirir en la quiebra del proyecto barojiano, lo cual sin duda es discutible, esta decisión influyó en la posterior conservación, así como en la actual dificultad de accesibilidad al mencionado papelito.

